

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2005, 2
50. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net
web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua: Andres Maria Urrutia Badiola

Kideak: Beñat Oihartzabal
Xabier Kintana
Jose Luis Lizundia
Henrike Knörr
Andres Iñigo
Jose Antonio Arana Martija
Adolfo Arejita
Pello Salaburu

Eragile eta idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 BILBO

Emfasis. Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

Aldizkari hau beste agerariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

ADOLFO AREJITA, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Adolfo Arejita, Euskaltzaindian sartzea, <i>Iñaki Azkuna</i>	461
Adolfo Arejita, Euskaltzaindian sartzea, <i>Andres Urrutia</i>	463
Idatzizko eta ahozko tradizioa gaur egungoari buruz, <i>Adolfo Arejita</i> . . .	465
Zaharrak berri, euskararen bizigarri, <i>Andres Urrutia Badiola</i>	507
Ondoetorriak: Adolfo Arejitari omenaldia, <i>Iñaki Lejarra</i>	517
Adolfo Arejitari bertso bi, <i>Jon Enbeita</i>	519

MENDEURREN ETA OSPAIZUNAK

FRANTZISKO LAPHITZ ETA JEAN-PIERRE ARBELBIDE JAUNEI OMENALDIA

Laphitz-Arbelbide: Bi idazle euskaldunen haria, <i>Andres Urrutia</i>	525
Frantzizko Laphitz-Arriadaren bizia eta lanak, <i>P. Charritton</i>	527
Euskara Batua eta euskara ereduak, <i>Pello Salaburu</i>	533
Janpierre Arbelbide idazlea, <i>Xipri Arbelbide</i>	547

ESTEBAN URKIAGA ‘LAUAXETA’ JAUNARI OMENALDIA

Ondoetorria Euskaltzaindia!, <i>Jose Antonio Torrontegi</i>	557
Lauaxeta eta <i>Euzkadi</i> egunkariaren euskal atala, <i>Xabier Altzibar</i>	559
Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan, <i>Paulo Iztueta</i>	627

NAFARROA OINEZ, 2005

Ongietorria, <i>Luciano Agirre Goikoetxea</i>	673
<i>Nafarroa Oinez</i> , 2005, <i>A. M. Urrutia Badiola</i>	675
Agurra, <i>Polentzi Goikoetxea</i>	677
Juan Goikoetxea Zabalo, euskaltzain urgazlea, jaio zeneko mendeurrenean, <i>Andres Iñigo</i>	679
Jose Mari Satrustegi, euskal Onomastikaren eragilea, <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	687

IKER SAILA

HIZTEGIGINTZA

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA: BILDUMAREN AURKEZPENA (16 liburuki)

Orotariko Euskal Hiztegia , <i>A. M. Urrutia Badiola</i>	701
Orotariko Euskal Hiztegiaren historia , <i>Jose Luis Lizundia eta Juanjo Zearreta</i>	703
Orotariko Euskal Hiztegiaren aurkezpenean: hiztegiak gaur , <i>Idoia Zenarrutzabeitia</i>	719

GRAMATIKA

GRAMATIKA JARDUNALDIAK ETA EGLU-VI LIBURUKIAREN AURKEZPENA

Euskal Gramatika: lehen urratsak (EGLU) VI	725
<i>EGLU-VI: aurkezpena</i> , <i>Andres Urrutia</i>	729
Gramatika Batzordeak 25 urte, <i>Jose Antonio Mujika</i>	731

* * *

Gramatika Batzordearen irizpena «Galdegaia eta Definizio-Atribuzioak» kontsultari buruz	741
---	-----

DIALEKTOLOGIA

II. DIALEKTOLOGIA JARDUNALDIAK:

«Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna»

Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna, <i>Juan Luis Goikoetxea Arrieta</i>	747
Baztan-Bidasoako hizkeren ekarpena (Dialektologiatik ikasgelara), <i>Edu Zelaia</i>	765
Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna-Jardunaldia	785

DIALEKTOLOGIA: BESTE ZENBAIT TXOSTEN

Twelfth International Conference on Methods in Dialectology, <i>G. Aurrekoetxea</i>	795
Sobre el verbo vasco irunés, <i>Patxi Arizabalo</i>	799

ONOMASTIKA

Irizpenak, <i>Mikel Gorrotxategi</i>	835
Komunioi , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	837
Okondogoi , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	838
Zurbao , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	839
Biloda , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	840
Gorrebusto , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	841
Eltziego , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	842
Gillarte , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	844
Iñurrieta , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	845
Urbina Basabe , <i>Mikel Gorrotxategi</i> eta <i>Andres Iñigo Ariztegi</i>	846
Garaziko herri baten izenaz: Ainhize VS. Ainhiza , <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	847
Ohar batzuk Deio izenaren gainean, <i>Patxi Salaberri</i>	851
Unas breves notas acerca del nombre Deio , <i>Patxi Salaberri</i>	857

* * *

Euskaltzaindia, <i>ICOSen XII. Biltzarrean</i>	861
--	-----

LITERATURA

VIII. HERRI-LITERATURA JARDUNALDIK: «HERRI-PROSA ETA AHOZKOTASUNA»

VIII. Herri-Literatura Jardunaldiak, «Herri-prosa eta ahozkotatasuna» gaiaz	867
VIII. Herri-Literatura Jardunaldiak, <i>Jabier Kaltzakorta</i>	869
VIII. Herri-Literatura Jardunaldiak, <i>Jose Ramon Zubimendi</i>	871
Herri-prosa: oinarri eta bide, <i>Pello Esnal</i>	873

JAGON SAILA

IX. JAGON JARDUNALDIK: «ELIZA ETA EUSKARA BILBOKO ETA DONOSTIAKO ELIZBARRUTIETAN»

Jagon IX. Jardunaldiak, <i>Andres Iñigo</i>	913
Euskararen erabilera Bizkaiko Elizan: irizpide nagusiak, <i>A. M. Unzueta Zamalloa</i>	915
Euskararen erabilera Donostiako Elizbarrutian gaur egun, <i>Eustasio Etxezarreta</i>	921

* * *

Jogonet: 2005. urtean egindako lanen berri, <i>Joxe Ramon Zubimendi</i> .	931
---	-----

EUSKALTZAINDIAREN BARNE HISTORIAZ (VIII)

Euskaltzaindiaren Barne-Historiaz, <i>Xabier Kintana</i>	935
Pierre Lafitten gutundegia, <i>P. Charritton</i> - <i>P. Andiazabal</i>	937

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Bilbon, 2005.eko ekainaren 23an	955
Adolfo Arejita euskaltzainaren sarrera hitzaldia: 2005-VI-24 . . .	957
Francisco Laphitz eta Jean-Pierre Arbelbideren omenez: 2005-VII-21 . .	960

Irisarrin, 2005.eko uztailaren 22an	964
Altsasun, 2005.eko irailaren 23an	967
<i>Nafarroa Oinez: 2005eko irailaren 23an</i>	969
Mungian, 2005eko urriaren 21ean	971
Ageriko bilkura: 2005eko urriaren 21ean	973
Donostian, 2005eko azaroaren 25ean	975
Bilbon, 2005eko abenduaren 16an	977

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

145. Bizkaiko Herri Izendegia	981
146. Hiztegi Batua	996
147. Antzinateko hirien euskarazko izenak	1016

HITZARMENAK

Herri Aginteak-Euskaltzaindia, <i>Andres Maria Urrutia Badiola</i>	1025
Eusko Jaurlaritzaren, foru Aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko esparru-Hitzarmena / Convenio marco entre el Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y Euskaltzaindia	1029
FEVE eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena, hizkuntza normalizazioarako	1051
Convenio entre FEVE y Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca para la normalización lingüística	1053
Instituto Cervantes eta Euskaltzaindiaren arteko Lankidetzaren hitzarmena	1055
Convenio de Colaboración entre el Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia	1058

BERRIAK

Euskaltzaindia <i>Saló del Llibre 2005ean, Ricardo Badiola eta Jon Artza</i>	1063
--	------

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIAK

Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia Literatura Saria	1067
Harizpeko neskaren afera , <i>Juan Jose Ispizua</i>	1069
Itoti urdinaren azpian , <i>Aintzane Galardi</i>	1071
Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun? , <i>Xabier Agirre Urteaga</i>	1073
40 urteak , <i>Pantxo Hirigarai</i>	1075

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: R. M. AZKUE: SARIAK

Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia	1079
-------------------------------------	------

AURKEZPENAK

Nerekin yaio nun : Txillardegi omenaldia	1083
Un pequeño texto en Lengua Vasca (Recordando a Hugo Schuchardt), <i>Henrike Knörr</i>	1087

V. MANUEL IRUJO SARIA, 2005

V. Manuel de Irujo Sariaren emanaldia dela eta, <i>Koldo Viñuales</i>	1091
Discurso protocolario con motivo de la entrega del V Premio <i>Manuel de Irujo</i> , <i>Koldo Viñuales</i>	1092
Hura zen don Manuel..., <i>Miren Azkarate</i>	1095
Manuel Irujo Saria, <i>Jean Haritschelhar</i>	1099

JOSE MARIA JIMENO JURIO IKERTZAILE...

Jose Maria Jimeno Jurio zenaren ikerketa lanen dohaintza Euskaltzaindiari	1105
---	------

Jose Maria Jimeno Jurio ikertzaile eta ohorezko euskaltzaina ze- naren Toponimia eta euskararen historia ikerketarako fitxate- giaren dohaintza, <i>Andres Urrutia</i>	1107
Donación de los ficheros de Toponimia y de la historia del eus- kera del que fue investigador y académico de honor de Eus- kaltzaindia, José María Jimeno Jurío, <i>Andres Urrutia</i>	1109
José María Jimeno Juríoren Toponimiako eta euskararen historia- ko fitxategiaren dohaintza, <i>Roldán Jimeno Aranguren</i>	1111
Donación de las fichas de Toponimia y de historia del euskera de José María Jimeno Jurío, <i>Roldán Jimeno Aranguren</i>	1112
José María Jimeno Jurio ikertzaile eta ohorezko euskaltzaina ze- naren Toponimiako fitxategiaren dohaintza	1115
* * *	
Maixa Goikoetxeari zilarrezko domina ematea, <i>Andres Urrutia</i>	1117
* * *	
D-Mailako hizkuntza gaitasun agiria, <i>Piarres Xarritton</i>	1119
D-Mailako hizkuntza gaitasun agiria: 2005-VII-22	1121
D-Mailako hizkuntza gaitasun agiria: 2005-XI-25	1123
 HIL BERRIAK 	
Pierre Duny-Pétré, <i>Jean Haritschelhar</i>	1127
* * *	
Aurkibidea / Índice / Index, 2005	1131

**ADOLFO AREJITA,
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Bilboko Udaletxea, 2005-VI-24

ADOLFO AREJITA, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Ongietorria

Bilboko Udaletxea, 2005-VI-24

*Iñaki Azkuna,
Bilboko alkatea*

Euskaltzainburu jauna,
Euskaltzainok,
Jaun-Andreok:

Egun on.

Udalaren izenean agurtu eta ongietorria eman nahi dizuet guzti-guztioi. Guretzat, ohore handia da Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon edukitzea, eta ideia bikaina iruditu zaigu, ekitaldi hau ospatzeko Bilboko Udaletxea aukeratu izana. Eskerrik asko, Euskaltzainburu jauna, ideia distiratsu honengatik.

MINTZALDIA

Si no falla la memoria de nuestras dos Instituciones, Euskaltzaindia y Ayuntamiento de Bilbao, ésta es la segunda vez que la Real Academia celebra sesión pública en esta Casa Consistorial, la casa de todos los bilbaínos y bilbaínas. En efecto, el 28 de mayo de 1951 estos salones fueron escenario de la reunión en que hizo su ingreso Juan Gorostiaga.

Fue aquélla una sesión presidida por R. M. Azkue, una de las últimas que Don Resurrección había de presidir, pues falleció ese mismo año. Y al discurso de Juan Gorostiaga, sobre los nombres de lugar de Bizkaia, le respondió el secretario, Nazario Oleaga, sobre la importancia de la lengua vasca para la ciencia y para la sociedad vasca. El Acta de Euskaltzaindia recoge que asistieron además los académicos Etxegarai, Etxaide (quien sucedió a Azkue en la presidencia), Irigaray, Krutwig, más los miembros correspondientes Manterola, Arruza, Garro y Villasante. Además el acta añade que se recibieron mensajes de adhesión de quienes no pudieron asistir, entre ellos Don Manuel Lekuona, los miembros correspondientes Larrasquet y Jud, y los señores Gortari, alcalde de Pamplona, el cónsul de Francia en Bilbao y algunos otros. El tex-

to indica también que a la sesión asistió un gran e ilustre gentío: «Oste aundi-aundia oso-bikaina da ikusle ta entzule».

Pasados estos 54 años, es un gran honor para este Ayuntamiento y para mí, acoger esta sesión, para celebrar el ingreso oficial de Adolfo Arejita como miembro numerario.

Son conocidos los méritos de Adolfo Arejita, y personas más solventes que yo desgranarán una trayectoria de trabajo y de esfuerzo en el campo de la lengua y de la literatura. Puedo decir que, como Alcalde, me siento muy orgulloso de la labor de este convecino, y que deseo fervientemente que los próximos años sigan viendo desplegarse los frutos de su investigación.

* * *

Bene-benetan, pozik nago gaur zuen aurrean hitza hartzeagatik. Lehen aldiz mintzo naiz Euskaltzaindiaren batzar batean. Ez, ordea, euskaltzainekin, eta ez Euskaltzaindiaz. Hirikideak dira, izan ere, Udala eta Euskaltzaindia; hirikideak ez ezik, auzokideak. Areago: etengabe harremanetan, beti ere euskararen alde eta gure kultura sustatzeko eta zabaltzeko.

Hitzarmen bat du izenpetua Udalak Euskaltzaindiarekin, eta gerora begira elkarlana sendotuz joango da, zalantzarik gabe, alor batean zein bestean.

Euskara da, erdararekin batera, gure ondarea, eta bilbotar argienek ondo baino hobeto ikusi dute hori. Horra, adibidez, Unamuno bera, euskaraz Gernikako Arbolan kantari.

Arbasoak eta sustraiak inoiz ere ahaztu gabe, esan dezagun Euskaltzaindiarekin batera: «Ekin eta jarrai».

* * *

Señor Presidente, yo creo que por el bien del desarrollo de este acto solemne, Vd. que además ejerce con brillantez la tarea de notario debiera de dirigir las diferentes secuencias programadas. Con la total conformidad del Alcalde. Y nadie se asuste si en el transcurso me sacan momentáneamente de la sala. La vida municipal es bulliciosa y se producen tantos acontecimientos en la Villa, y todos tan diferentes, que necesitan nuestra atención y, en ocasiones, rápidas decisiones. Si esto ocurriera, mis excusas. Estoy seguro que me sabrán perdonar.

ADOLFO AREJITA, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Agurra

Bilboko Udaletxea, 2005-VI-24

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Bilbo hiriko alkate txit argia,
Excmo. Sr. Alcalde de la villa de Bilbao,

Bilboko udaleko zinegotziak eta udal honetako kideak,
Sres. Concejales del Ayuntamiento de Bilbao y miembros de esta corporación,

bilbotarrok,
bilbaínas y bilbaínos,

agintariok,
autoridades,

euskaltzain ohorezko, oso eta urgazleok,
académicos de honor, de número y correspondientes,

jaun-andreok,
señoras y señores,

egun on guztioi!
buenos días a todos!

Berrito dator Euskaltzaindia bilbotarren etxera, bertako Udaletxera. Egia esan, etxeko ikusten du hemen bere burua Euskaltzaindiak, Bilbon, eta, zer esanik ez, Euskal Herri osoan ere, ondo errotutako erakundea baita gure akademía.

Bada, hala ere, niretzat, egun hau bereizi eta hautuzkoa. Halaxe bururatu zait hona gentozela, kalean zehar ibilaldia egiten, eta R. M. Azkue, gure lehen euskaltzainburu izan zenaren etxe albotik igarotzean. Ondo dakizuenez, aldamen-aldamenean bizi zen hura, *Zingira/Sendeja* kalean, hain zuzen ere. Egunerokoa zuen hark, Euskaltzaindiak *Erribera* kalean zuen egoitza zaharretik irten eta Udaletxerako norabidea hartzea. Etxe honetara iritsi aurretik bira egin eta bertan zuen bizilekua. Bide erdian, hortaz, gure egungo egoitza-

ren eta Udaletxearen artean. Areatzan zehar etortzen zen, errekaaren albo-albotik, menturaz behinolako itsasalde lekeitiarraren herrimenez. Begi-bistan zituen Bilboko Udaletxea eta San Nikolas eliza. Aurre-aurrean, itsasontzi ketsuak eta moila zeregintsuak. Horra hor, orduko Bilbo, eta, bertan, argi dago, euskara ere lekuko.

Egun, aldiz, Azkuek egiten zuen bide erdia baino, bide luzetxoagoa egin dugu, Adolfo Arejita bilbotarra Euskaltzaindiaren altzora ekartzeko, non eta Azkue zenaren bizi-txokotik hurbil, Bilboko Udaletxean bertan.

Nor Adolfo Arejita? Nolakoa haren lana? Esan dezadan egun Euskaltzaindira datorrena, gauza ororen gainetik, ikertzaile eta irakasle dugula. Bilbotarra da, eta, familiaren aldetik, Bizkaiko Morga herrian ondo errotutako sustraiak ditu euskaltzain berriak. Haren eskutik ezagutu ditugu hainbat idazle, bizkaitarrak zein bestelakoak, Adolfo Arejitak sakon eta artez miatu baititu euskara klasikoaren iturriak, hala idatzizkoak nola ahozkoak.

Morgako euskara doinuak eta Bilboko esku-erakutsiak eta ikuspegi zabalak nabarmen zaizkio, eta badaki oparo eta gogotsu ekiten, euskarari berea eman nahian. Badu, bestalde, Arejitak, osterantzeko ezaugarria, alegia, lan-taldeak, proiektuak eta giza baliabideak antolatzeko eta kudeatzeko dohaina. Hara hor urteetako eskarmentua, Labayru Ikastegian ondua. Hori ere, euskalgintzaren barruan, azpimarratzeko eta nabarmentzeko modukoa. Horrexegatik egin dugu gure kide, uste dugulako beraren ekarriak, Akademia ez ezik, Bizkaiko eta Euskal Herriko euskalgintza ere zinez aberastuko duela.

Joan den astean bete zituen Bilbok 705 urte. Orduko ekitaldian entzun genion Bilboko alkateari, Iñaki Azkuna jaunari, Bilboko hiria eraberritzeko gogo eta ahaleginak bilbotar guztionak eta bilbotar guztioi esker direla egitekoak.

Ahalegin horietan, zalantzarik ez, Euskaltzaindiak euskararena du helbururik behinena. Horretan nahi dugu lagundu eta bilbotarrekin bidaide jardun, eraberritze hori, itxuraldatze hutsa baino, sakoneko iraulia izan dadin, gero eta Bilbo euskaldunago baten esperantzan.

Mila esker, beraz, zuon harrerarengatik, eta gatozen orain ekitaldiaren protokolora.

Hitza du Xabier Kintanak, Euskaltzaindiaren idazkariak.

IDATZIZKO ETA AHOZKO TRADIZIOA GAUR EGUNGOARI BURUZ

*Bilboko Udaleko Arabiar Aretoan, **Adolfo Arejita** euskaltzain oso legez
Euskaltzaindian sartzea dela-ta eginiko ekitaldi akademikoan,
Euskaltzain oso berriak eginiko
Sarrera Hitzaldia*

2005eko ekainaren 24an.

0. AGURRA

Bilboko Alkate Jauna, Euskaltzainburu jauna, Udaleko zinegotzi eta ki-deak, herri-agintariak, Euskaltzaindikoko kide oso, ohorezko eta urgazleak, La-bayru Ikastegiko lagunak, Bilboz ganera, Morgatik, Gernikaldetik eta Mun-gialdetik etorri zarien senide eta lagunak, neure etxeakoak (Laura, Jurgi, Olaia)... Jaun-andre neureak, ondo etorriak guzti-guztiok.

1. BILBO ETA MORGARI AGURRA

Batek baino gehiagok itaun egin deust zer dala-ta Bilbon, eta Bilboko Udaletxeko areto apain honetan hatan be, nire sarrera-hitzaldiko ekitaldi hau. Hemen jaio nintzan eta hemen bataiatu, Indautxun, Karmengo Amaren klini-kan eta eleizan. Seinzaroa eta umetasuna Morgan igaro nituan, Meakako au-zoan. Hamairu urteko nintzala etorri ginan Bilbora biziten, Indautxuko Doc-tor Areilzara; sasoi haretan beste asko, hurreko zein urruneko, uri nagusira batzen ziran antzera. Derion eta Bilbon egin nituan ikasketak hamar urterik gora; hemen lan egin dot bizi guztian, kazetari legez lehenengo, irakasle eta ikertzaile legez gero; hemen sufridu dot sasoi bateko Bilboren itzala eta tris-tea, eta hemen gozatzen dot gaur begi aurrean dakuskun Bilboren ederra. Mor-gakoa dot neure umezaroa eta batez be zimendutzat hartu neban euskerea; Bil-bokoak ditut neure gaztezaroa eta heldutasuna.

2. AURRETIKO EUSKALTZAINEI OMEN

Euskaltzaindiak euskaltzain osoendako dituen 24 aulkietarik, sartzen de-nak zein hartu duen esatea usu da, eta lege zaharra galtzera utz ez dadin, zor

diet gutxienez aipua, nire aurretik aulki horretan jesarri izan diren hiru euskaltzainei: Julio Urkixo, Luis Villasante eta Andolin Eguzkitza.

Julio Urkixo euskal filologook gurasotzat ezagutua dugu, eta berak egin zuen lan erraldoiagatik baino gehiago beharbada, berak eragin zuen lan zabalagatik eta *RIEV* aldizkariaren bidez horretarako sortu zuen azpiegitura sendoagatik berrezagutuago izan behar duena, etxeko eta erbesteko biltzen jakin zituelako euskal hizkuntza eta literaturaren ikertzaileak bere plaza horretara.

Luis Villasante, Arantzazuko goi bazter hartatik, herri-literaturaz zela, erlijioaz zela, edo euskal hizkuntza eta literaturaren gainean zela, hamaika liburu eta idatzi labur ondu izan dituen, *Historia de la literatura vasca* aspaldi-ko obra mardul haren bitartez euskal literatura osoaren irakurle, ikertzaile eta kritiko zorrotz legez burua zelairatu zuena, eta Euskal Akademia honi zeutsa-la, bereziki buru izan zenetik euskal hizkuntzaren alde ekinbide luze eta mardula garatu zuena.

Andolin Eguzkitza, neure belaunaldiko gizona, gaztetxotatik, Deustuko Unibertsitatean ikasle ginen garaitik eta *Anaitasuna* inguruan kolaboratzen zueneko hartatik ezaguna eta adiskide nuena. Gizon gazte kezkatu urduria, mila gizarte-ekimenetan murgildua, ez bakarrik linguistika eta literaturari zegozkienetan, berdin gizarteari zegozkienetan ere. Gizatasun berabetekoa zuena; adikorra eta irekia. Erdaldun jaio izanik, bere burua euskaldun oso egiteraino



nekerik hartu ez zuena. Berariaz aitortu nahi nioke gramatika arloan, literaturara sorkuntzan eta euskal hizkuntza-literaturen susperkundean egin duen lana. Bilboko Udal honek eratzten duen «Miguel de Unamuno» Saio Sariaren epaimahaikide ginen aurreko edizioan, erabakia hartzeko elkartzekoak ginen aurreko egunean eraman zigun herioak, gogo-bihotzak asmoz eta ekimenez bete-bete zituen gizon gordina.

Halaxe kendu dit neuri ere, heldutasunik ederrenean ekain honen 5ean Jorge neure anaia mina. Edozer emango nukeen, ospakizun honetan bera aurrean izateagatik, beraren gomutaz egin asmo dudan hitzaldi hau entzuten.

3. GAIAREN AURKEZPENA

Hizkuntzaren kalitatea gora eta behera gabiltzan aldi honetan, eta euskararen batasun oinarriak finkatzeak orain dela ia berrogei urterik hona izan duen lehentasunorrek bere gordintasuna apur bat beheratua duelarik, eraz datorrela deritzat gaur egungo euskara jasoak, batez ere idatziak, gogoan izan beharreko ardatz batzuk –erreferentzia batzuk, nahi bada– gogoeta-gai hartzeari.

Giza kultura mailaz maila eraiki doa, maila batean zimendu hartzen duela hurrengoak. Eraikuntza sendo eta gora bat mailakako beharleku luze eta eropentsua izan doa. Hizkuntzaren barrutian ere, hura erabili eta lantzen dugunok geure esku dugu, aurretik ipiniak diren zimenduak sakon ezagutu edo aztertzea, haiezaz balia ahal gaitezen ahalik oparoen eta zuhurren.

Gaur garatzen eta gizarte- eta jakintza-eremu guztietara hedatzen ari garen euskara –gure hizkuntza apalau– ongarri eta ornidura askoren beharrean dago, eta lehen zaharrean landuriko arloak nola ez diren askotarikoak ez ugariak, ahalegin berarizkoa egitera behartuak gaude uneoro, den arloan dela ere: berdin zuzenbidean zein filosofian, zientzia zehatzak direla zein giza zientziak direla, nahiz teknologia berriak direla nahiz administrazioak barrutzen dituen eremu zabal-askotarikoak direla; ahalegin berarizkoa hain zuzen, etenbako joan-etorrian ari den kulturak sortzen dituen kontzeptu berri guztiei –eta berariaz maiztasuna eta pisua duten haiei– euskal ordezkioak bilatzen eta ahaleginez ondo asmatzen.

Sorkuntza eta berrikuntza ahalegin horrekin batera premia bizikoa dugu lehenean urratu eta batez ere artez asmatu diren bideak ondo ezagutzea eta haiezaz berriro ausnar eta gogoeta egitea, sarritan baitirudi, zernahitan hasten garela, hutsetik abiatzen garela, zeinda aurretik ezer egin ez balitz legez. Lehenaren azterrenen bila maizegi zabar antzean ibiliak gara, batzuetan ezjakinez eta beste batzuetan jakinaren gainean, zeinda leheneko hori geroaren arerio balitz legez, eta ez osagarri edo lagungarri. Gogora datorkit harako Mitxelenak behinola gogoetara zigun irudia: idi-uztarriak behar zuela gurdia- ren aurretik joan, eta ez gurdiak idi-uztarriaren aurretik. Jada eginak diren, edo

aurretikoek asmatuak dituzten bideak ondo ezagutu barik ezin da geroa ere ondo asmatu, eta euskararen kasuan are premiazkoagoa dugu jokabide hori, zeren gure hizkuntzak gizarte-erabileran, bai ifar, bai hego, eten gordinak izan dituen, loraldien ondorik iharraldiak etorri direla, eta sarri gure euskal lurra loraldia hasi aurretik baino mortuago eta agorrago uzten zutela. Honetan ez dira ahaztekoak XVIII. mendearen azkenalditik XX. mendearen lehen 40 urtekoaren barruan jasan ditugun gerrate lazgarriek erakarri dizkiguten eragin galgarriak. Baina gaitzen atzera lorratzera.

Euskal literatura apala, idatziz kontserbatu dena eta ahoz transmititu dena –batzuetan idatziak galdu izan direlako, besteetan irarri izan ez direlako edota soil-soilean ahorik ahoko bizia baino ezagutu ez iraun dutelako– harrobi eta adigarri paregabeak ditugu euskararen kasuan, gaur egungo bizimodu modernoak berekin dakartzan premiei sendoro erantzuteko. Gure tradizioari ze etekin atera, horra hitzaldi honen bidez azalera nahi nukeen kezka eta nire mintzagaia. Zehaztasunez garatzeak eskatzen dituen neurrietara hedatzerik ez dudanez, zertzelada batzuen bidez marraztuko ditut gogoeta-gaiok, pintura inpresionista baten antzera.

Hizkuntzaren eduki ugari horretan, lexikoa, lokuzioak eta baita ere zenbait sintaxi-eraikuntza hartuko ditut ardatz.

4. IDATZIAZ ETA EUSKARA IDATZIAREN TRADIZIOAZ

Tradizio hitza aipu dugunean, iraganetik gaurrera eginiko bidea dugu go-goan, eta tradizioa aintzat hartzea diogunean, eginiko bide horrekiko atxikimendua, nolanahi ere. Eta euskara idatziaren tradizioa dela-ta denean autua, lehengo mendeetarik gaurdaino idatziz josi dugun, nahiz sarritan ahoz aldarrikatu, euskarazko brodatu hori dugu buruan.

Barandiaran gureak esan ohi zuen, lehena ikasi behar genduela, ez lehena ezagutzeko asmo hutsez, ezpada geroa hobeto asmatzeko; ikasi behar genduela lehengo gizonak –gure arbasoek– arazo baten aurrean zelako erantzuna bilatu zuten, nola asmatu zuten zailtasun hori gainditzeko; hori baita kultura funtsean, gizonak kontrakoa duen inguru baten aurrera egiteko sortzen dituen lanabesak, eta horietarikoa dugu hizkuntza ere. Hitz gordinagoekin adierazi zizgun ideia bera Wilhelm von Humboldt euskaltzale handiak: «Nur wer die Vergangenheit kennt, hat eine Zukunft».

Kultura, bada, ez da doako zerbait, gogo hutsez sorturiko zerbait; beharrrak eragindako zerbait da gehiago. Gizonak inguruari egoera bakoitzaren aurrean emaniko erantzuna da kultura oinarrian, premiak eskaturik sorturiko zerbait, beraz, gizakiak uneoro edo aldioro dituen beharrianen arabera. Mundu honetan ia guztiak du eragingarriren bat atzean, eta gure hizkuntza-emaitez ere berdin, euskal literatura barri dela.



Eta gure literatura idatzira gatzela, idatziaren birtute on bat gogora nahi nuke: duen irautea. Idazten denak dirau; idatzia hor datza, nor noiz hurreratu-ko zain; gehienbat paperean, nahiz gero eta gehiago euskarri informatikoan.

Irudizko eta hitzezko mezuen galkortasunaren aurrean, idatzia iraunkorra da. Irudiak, etengabeko irudiak nagusitu diren aldi honetan, idatziaren gorantzza egitea, ez beza inork atzerabidetzat jo. Irudiak biziak, arinak, deigarriak dira; eta irudi-inguruz hesiturik gauden aldi honetan, idatziak ohi duen zehaztasuna, zaindu ohi dituen zertzeladak, izan ohi duen sakonasuna, mezuaeren transmisioan eskaini ohi duen segurtasuna markatzera gatz.

Idatzia hitzez hitz, esaldiz esaldi eiho doa; hitz bakoitza letraz letra. Une-oro goaz hautatzen hitz, hitz-kate, esamoldeak, nahi dugun kolore, ñabardura, adierazkortasun edo eragina jadesteko. Eta hitz idatzia gogoratzekoa da, iraunkorragoa. Kultura hitzen bidez eraikitzen dugu, hitz idatzien bidez goititzen. Hala eiho dute gure aurretikoei gure euskal literatura tradizioa ere.

Eta honetara ezker, gure tradizio idatziaren zenbait zertzelada gogora nahi nituzke diodanaren haritik.

Idatzizko tradizioa deritzan horretan, batetik zaharra, klasikoa dei dezakeguna eta bestetik «klasiko modernotzat» har dezakeguna bereiziko nituzke, hizkuntzaren aldetik behinik behin, aro guztiz diferenteen adierazgarri direla-

ko. Ez dut honekin esan gura, ardoa bezala, zaragian luzaro egonagatik zaharra berria baino hobe denik, baina bai nolabait mendeen geriza luzeak hizkuntza-egiturei ere abaro zabalagoa eskaintzen diela oraintsuko askok baino. Edozelan ere, «klasiko» hitza zentzu hertsira zedarritu nahiago dut hemen: euskal testuak hizkera alderditik eredugarri, edota zinez fidagarri diren ginoan sartuko nituzke esparru horretan, batez ere «klasiko» adjektiboa testu modernoiei egotzi behar zaien kasuan, batez ere gogoan izanik XX. mendeko produktzioa, berariaz mendearen azken herenekoa, aurreko guztia baino askoz ugariagoa izan dela piloan hartuta. Ugaritasun hori, konpentsazio-legez baino ez bada ere, galbahe estuaz iragazi beharra dago; bestetara esanda, ugaritasun horretan hautu meheagoa egin beharra, zertzelatu beharra, hain zuzen ere guri hemen dagokigun hizkuntzaren erabilerari eta ereduari dagokion adinean.

Aurrekoa esanda, euskal literatura tradizioa dela-ta gora handikoa den puntu bat nabarmenduz abiatuko naiz: idatzi den guztia ez dela inprimatu izan, ez asko gutxiago ere. Gurea irakurleko laburreko eta aberastasun urriko lurraldea izanik, lehenean behintzat, asko dira gure literaturan –eta Bizkaiko eta Nafarroakoak dira beharbada kasurik deigarri-tristeenak– inprimatzeko prest utzi eta argitara biderik ezagutu ez duten idatziak, edota onik onenean ere zori hori berandu baten izan dutenak. Mogelen *Peru Abarka* berba-jardunen kasua guztiz da ezaguna, haren alegia ez hainbeste beharbada, baina hala ere bi menderen hutsune mingarria utzi duena euskal gizartean. Añibarro, haren belan bereko idazle handiak ere, doktrina-obra labur bi argitaraturik ikusteko poza baino ez zuen izan, idatzi zituen lanik mardulenak artean argitara barik geratzen zirela, eta oraintsura arte edo oraindino argirik ikusi izan ez dutela. Lizarraga Elkanokoaren kasu ezaguna aipa daiteke Nafarroan.

Inprimatze-egitura ahul horren ondorioz, bada, gure literaturako obra itzal handiko batzuek –batzuek baino gehiagok seguruenik– guztiz beranduan ikusi dute argia; ondorioz ez zuten eraginik izan, gutxi baino, sortu izan ziren garaian eta gizartean; izan duten apurra, edo hurrengo belaunaldian edo askoz geroago beste kasu batzuetan. Obra horietariko batzuk XX. mendean edota azken hamarkadetan etorri dira ezagutzera, edo aldizkarietan edo liburuetan edizio kritiko gisa atera izan direlako; beraz, interes filologikoa nagusi dela, berrezko balio literarioaren edo didaktikoaren gainetik.

Aurrekoaren ardatzean gogora beharrean nago badela gurean beste literatura modu bat, literatura xumea itxura baten, silutegirako uste barik sortu izan zena; hau da, irakurtzeko barik, entzuleei berbaz mezua aditzera emateko –kristau mezua, zehatz dezagun– lehengo garaian ondu zen erretorika-lan guztia, eta gehien-gehiena oraindik ezagutzera ere heldu ez garena. Literatura apal eta estali horren lekuko da Labayru Ikastegiak Frantziskotarren Ordenarekin batera atera berri duen katalogo erraldoi bat, zeinetan ordena horretako predikariek, batez ere XVIII eta XIX mendeetan idatzi eta esaniko sermoinen fitxa egiten den, bost milatik gora fitxa guztira, bakoitza idatzizko unitate bati dagokiona –sermoi bati gehienetan–, zazpirehundik gora predikari-idazlek on-

duriko testuak, ia seirehun izen-abizenak dakizkiegunak, eta beste 130en bat ezezagunak. Hala ere ia guztiak, gure literaturaren historietan ageri ez diren idazle apalak (1).

Beste hizkuntzetan ere badirela halakoak, eta gurean baino askoz ugariago, ihardets lekidake norbaitek. Bai, baina hala dela ere, gurean halako altxor batek esangura handiagoa du, askoz handiagoa, auzo aberatsotan baino. Ez bakarrik gure literatura-testu inprimatuen corpusa laburra delako eta inprimatu gabekoen kopuruak horregatik berorregatik neurri adierazgarria jadesten delako. Bada beste arrazoi bat ere ahaztu ezinekoa: lehengo mendeotan idatziriko izkribuok, euskalkietan eta azpieuskalkietan erredaktatuak daude, eta ez idazle gutxi batzuen lumaz, baizik ehundaka esku diferentetarik jalkiak; erregistro-dibersitate handia darakusate, eta diferentziok, ez bakarrik morfologia, ezpada sintaxi-puntuak, eta batez ere lexikoa eta fraseologia hartzen dituzte.

Literatura berezia da izatez, ezin ukatu; berbaz esan eta entzuteko ondua gehiago, irakurtzeko baino. Eta horregatik berorregatik paraje eta giro diferenteetako entzuleen belarrietarako hizkera egokitua duena. Ez dugu ukatuko bestetik, muga handi bat ere baduela literatura erlijioso honek, gaiarena hartan ere, zeinek ia beti antzera edo errepika sunda handia ohi duen.

Aspaldi honetan gertatu den aurrerakuntza informatikoaren fenomeno berrira da beste eragingarri pisutsu bat gure literaturaren joan-etorrian ere: euskal testuen ondarea, paperetik harago euskarri digitalera irauli da hein handi baten, honek berekin dakartzan erraztasun guztiekin, edozein hitz, hizki, hitz-kate edo esamodu kontsultatzeko orduan. Iraultza honek denetariko informazioa eta ugaria jarri digu eskuraerraz, hizkuntzakoa zein edozein jakintza-arlotakoa. Lehen artisau-baliabidez neke handiz eskura genitzakenak baino testu-multzo askoz handiagoak erabil ditzakegu modu ordenatu baten, eta euron askoz bizkorrago idoro edozein datu, behar diren inguru-zehaztasun guztiekin.

Euskararen kasuan hor ditugu kontsultagai, ez bakarrik literatura-testuak, baita ere hitz-korpusak –hiztegiak eta bestelako korpus sailkatuak, errefracu- eta esamolde-bildumak–, gramatikak, dialektologiaren ekarriak, langai didaktikoak, onomastika korpusak... eta bide beretik erabilera zuzena bilatzeko sortu diren aholku-leihoak.

Bibliografia bilatzea bera da, bestetik, asko aurreratu den arloa. Gure biblioteketan, idazle, obra edo gai baten gaineko informazioa bilatzeko ia alper antzean daude paper-fitxak. Zein obra eta zein edizio dagoen eta non, pantaila bidez ikas dezakegu erraz. Nork zer, zeren gainean eta noiz idatzi duen jakiteko ere ez dugu beti bibliotekaraino joan beharrik; datu oinarritzkoak jaki-

(1) Nagore Etxebarria (2005): *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*. Jarein, Bilbo.

teko gutxienez; badira biblioteca birtualak. Besterik da, oster, halako obra eta halako testua irakurri edo aztertu nahi badugu. Bibliotekak baduela, eta gero-
ra ere izango duela esan nahi dut, ordezkatzeko zaila den egitekoa.

Informazio-ugaritze horrek eta berau bilatu eta erabiltzeko dugun erraztasunak, ez dakar hala ere gehiagoko barik jauzi kualitatiborik hizkuntzaren erabileran, aldi baten Plazido Muxikaren hiztegi elebidun mardul hark, informazio ugari eta sailkatuaz gainera, ekarri ez zezakeen bezala, baldin kontsultagilearen adimen zuhur eta bereizlea tartean ez badago hautua egoki egiten jakiteko. Aurrerakuntza informatikoei dakarten informazio-ugaritasun hori modu zuhurrez, bereizgarritasunez eta epai zorrotzez erabiltzean datza, hizkuntza idatziari, eta beraz hizkuntza kalitateari, hortik datorkiokeen emendio-onura.

Hizkuntzaren gaineko datuak arin eta erraz jakin daitezke, nahi den ertetik oratzen zaiola: hitz, atzizki, aurrizki edo egitura konplexuagoak bilatuz; oraindino orain urte batzuk nekez egin zitekeen gauza. Orainsura arte, edo fitxategi manualak, edota irakurle handia zen ikertzaileak buruan gordetzen zituen datuak ziren ikerketaren eta estilo-hobekuntzaren funtsa, Mitxelenak, Lafittek, Akesolok, Mokoroak eta bestek ohi zuten antzera. Gaur egungo testuen digitalizazioak eta datu-base zehatz eta ondo ornituen sorrerak goikoz behera aldatu du panorama. Informazio ugari ondo sailkatu horrek, ez bakarrik balio du ikerketa zehatz eta sakonago egiteko, ezpada batez ere hizkuntzaren birrerabilera egokiago eta aberatsago baterako. Eta bigarren hau dugu oraingoan xede.

Prozesu hau etengabea dugu, bestetik. Aldiro doa ugaritzen gure material korpusa; hor idoro daitezke, bere aldian zabalkundea ezagutu zuten obren ondoan, urria edota ia ezagutu ez zutenak ere; liburu formatoz atera zirenen ondoan, liburuska gisa, plegu gisa edota aldizkari xumeetan barreiaturik –eta erdi galdurik– diren idatziak ere. Mokoroaren «Ortik eta Emendik» dugu diodanaren adigarri zuzena. Esan gabe doa ere, ediziorik ezagutu ez duten testu zenbait ere prozesu honi esker kontsulta daitezkeela, noiz eskuizkribuaren irudiaz, noiz testu transkribatuaz. Prozesu honek erraztu digu ere, begi aurrean edo norbere eskuetan izaten zail baino zailago diren testu-edizio zaharrak, batzuetan lehen edizioak, pantailan ikusi ahal izatea, edizio faksimil bat bailitz legez.

Errealitate berri honek, dena dela, ez digu –testuez eta euskal testuez ari baikara–, beste bat ahanzarazi behar, eta filologo naizen aldetik seriotzat hartzen dudana: testuen fidagarritasuna jagoteari hartu behar zaion ardura estua, testuak beste barik hedatzeari baino gehiago. Euskararen kasuan, hizkuntza nagusietan baino areago, gure testu zahar eta klasikoaren bertsio egokiak eskaintzera behartuak gaude, dugun urritasunean testuok hartzen duten balioa handiagoa delako, bitxiagoak direlako gure literaturarako euren apalean, maila bereko testuak hizkuntza handietan baino.

Azken hamarkada hauetan, testu klasikoaren bertsio berriak atontzen arloak aurreratu dira, nahiz gure arteko edizioetan «kritiko» hitza gehiegitxo erabili izan den; batzuetan edizio ohardun soilak saldu ditugu kritikotzat, eta bes-

te batzuetan transkripzio literal direnak, are okerrago dena. Dena den, informatika eta interneta baino aspaldiagotik dator, euskal testu zaharren ezaguerarako funtsezkoa den edizio kritikoak antontzeko ohitura ona. Ahalegin hau oinarrian ez datza bestetan, euskarazko testuak ondo galbaheturik eskaintzean baino. Euskal Filologiak abian jarri zirenetik indarra hartu du ekimen horrek, azken 30 urteotan esan nahi da. Diogunaren lekuko ona izan daiteke, Patxi Altunak paratu zuen Etxepareren edizioa.

Filologo edo bestelako ikertzaileen ahaleginez, lehen eskuizkribu gisa artxiboetan gorderek zeutzaten euskarazko testu asko atera dira aspaldion argitara; eurotarik asko apalak. Bide beretik, aspaldiko edizioak testu fidagarriago eta azertuago batez berrargitaratu. Unibertsitate giroko testu-ikerketak eta gure espezializazio-aldizkarien sarea izan dira prozesu hau gorpuztu dutenak.

Lehendik ere bagenituen arlo honetan zenbait bide urratuak, egia esateko. Dogson, Azkue eta berariaz gure Julio Urkixo gogoangarriak sortu zuen *RIEV* aldizkaria. Hura izan zen XX. mendearen zati on baten euskal filologia ikerketen zuzi bizia. Espainiako guduaren ondoren, askoz beranduago etorriko ziren beste batzuk: *FLV*, aldizkari horrek sorreratik gehiago egin duen lan luze bezain mardula ez baita oharkabe uztekoa; *ASJU* aldizkaria, eta oraintsuago sortu ditugun *Litterae Vasconicae*, *Lapurdum* eta beste batzuk. Ildo honetan, Ifaraldean ere ez dira bazter uztekoak Lafitte-n edizioak eta *Gure Herria* aldizkari xume hark luzaroko denboran argitara duen testu corpus aberatsa.



Aldizkariokin batera liburu-bildumak ere sortu dira, bat edo bat faksimil erara testuak ematen zituena, baina beste batzuk testu iragazi eta ikertuak eskaintzen zituztenak, batzuetan grafia zaharraz, besteetan gaurkotuaz; eta testu iragazia eskaini ez eze, eurotako hitz, esamolde eta sintaxi-egiturak erakutsi eta aztertu ere bai maiz.

Bestetik, ezagunak ziren testuen edizio kritikoak ere eginak dira –ezezagunak zirenenak bezainbatean–, eta horrek mesede itzelezkoa egin dio testu-finkatzeari: eta jakina da, testu-finkatzeak berekin dakarrela hitzen, hitz-aldaeren, lokuzioen, esamoldeen eta sintaxi-egituren finkatzea. Eta galbahetze-lan horrek bermatzen du ondoren hiztegitintza, eta literaturgintzan hitz-lokuziook birrerabiltzeko zimendu sendoak ezarri.

Tradizioko testuen berrirakurtze eta berraztertze sakon bati esker ikasi ahal izan dugu sakonago gure lexiko-ondarea, eta zentzurik zabalenean, hitz eta esamoldeen erabilera zer-nolakoa izan den mendez mende; ikasi dugu zerk duen sustraia eta zer den beranduan sortua bereizten; zerk duen maiztasuna eta zer den bakan edo mehatz azaltzen dena; zein itxura diferente edo aldaera dituen hitzorek hango edo hemengo tradizioan, eta beraz zein beste aldaera diren azalekoak, horretara gero idatzirako hautuak edo gomendioak egiteko ere bidea argitzen digula; zein esanguraz erabiltzen den halako lekutan edo testutan, eta zein diren hitzoren esanguren artean zaharragoak edo berriagoak; tradizio idatziaren bidez ikasi dugu halaber hitz batek aldamenean ze laguntasun duen, zein testuingurutan azaldu izan den eta zeinetan ez. Berba baten esanda, tradiziko testuen azterketa geldiroaren bidez jakin dugu, euskal hizkuntzaren izaera berezkoa aldian aldian zein izan den, artean inoiz baino zeheago eta sakonago.

Lexiko eta gramatika arloetara mugatuko naiz ondoko oharrotan.

4.1. Lexikoaz

a) Testuak geldiro eta arduraz irakurriaren podazuz ikasi dugu, badirela zenbait hitz konplexu, eratorriak edo konposatuak izanik, hiztegieta osorik ageri ere ez direnak, baina berez sarrera zor zaienak, erabileraren arabera. Badira hitzak, berez lexikalizatze-maila aurreratua izanagatik, duten itxuragatik batzuetan konposatu libretzat jotzen direnak, edota forma deklinatutzat beste batzuetan, gehiagoko barik.

Hiztegiak egitorduan testu idatziei behar besteko arreta jarri ezagatik gertatu dira gurean ere halako hutsuneak, batez ere *OEH-DGV* etorri aurretik. Baina hiztegi arauemileek ez ohi die jarri behar adinako ardurarik hiztunek eta testu idatziek lexikalizazio gradua ezagutu dien hitz-kate askori.

Horietarikoa dugu, Moglek *PAb*-en darabilen *aldabatera* (59) aditzondo, beste idazle batzuek *alde batera*, banan edo batera idatzi ohi dutena, «era-

batera», «batera» edota «jeneralean» esanguraz. Hiztegietan nekez du sarrerarik *alde* hitzaren azpian ez bada, nahiz Mogelek lekukotu hitzori gaur ere indarrean dagoen eskualde berorretan (2).

Alper eta *alperrik* hitzak, sarreraz edo azpisarreraz guztiz ezagunak izanik, nekez idoroko ditugu oster, *alper egin* edo *alper izan*, gure idazle klasiko batzuen artean aditz lokuzio horiek lekukotasun abonatuak izan arren (3).

Mogelek *guztientzakua* finkatu zuen erlijio esparruan, gaztelaniazko «católico, general» kontzeptua aditzera emateko: *Elexa Ama santa Guztientzakua* (PAb 102), dotrinako kredoaren («Sinesten dot») euskarazko bertsioa ematerakoan. Egia da, oinarriaren morfologia ikuspegiz hitz hori *guzti* hitzaren forma deklinatua baino ez dela, baina idazlearen ahalegina urrunago joan zen lexikalizatzeko mailan: *guztientzako* hitz eratorri legez finkatu zuen, garaiko jakintza giroan jada finkaturik zegoen kontzeptu bati ordea emateko. Besterik da hitz horrek gerora izan duen arrakasta handiago edo apalagoa, baina zentzu-esparru hori adierazteko finkatu du gure literaturak, eta ez okerreko bidetik.

Antzera esan daiteke, J.M. Zabalagan idoro dugun, baina gauko hizkeran ere bizi-bizi dagoen *alkarregazko(a)* hitz eratorriaren gorabeheran ere, (giza-) harreman edo erlazioa adierazteko ordezkio finko modura erabilia; eredu batuan *elkarrekiko(a)* genduke. Hiztegietan *alkar|elkar* sarrerapeko forma deklinatu soil modura erakusteak ez du behar bezala bermatzen, eratorri horren nor-tasun lexiko-semantikoa (4).

Honekin ez dut erakutsi eta sendotu baino egin gura, lehenagoko gure idatziek irakurketa zehatz eta geldiroa eskatzen dutela, testuaren osagarri diren egitura guztien aditze on baterako eta hizkuntza-unitateen finkatze egoki bati buruz, beti ere aldian aldiango ekarriak geuregantz den ditugula.

b) Gure testu idatziak osoro eta zehatz ezagutzeak lagun diezaguke ere ondoen euskal hitzen historia jakiten, zein noiz datatzen den hurrengorik hurrengo. Maiztasun handiko hitzetan ez ohi da arazo gehiegirik, baina gutxi edo bakan idatzi izan direnetan, ez dio berdin halako hitza XX. mende beranduan lekukotu izan, edota XIX.an, XVIII.an edo aurreko menderen baten. Eta euskarak euskalki eta azpieuskalkietan barrena duen dibertsitateaz kargu hartzen badugu, eta endemas hitz batek bizirik badirau oraindik han edo hemen, ezinbesteko erreferentzia bihurtzen da tradizio idatzia hitz baten itzala neurtu orduan; ez bakarrik hitzorren historiatarako ezagutzeko, baina batez ere horren literariotasuna bermatzeko.

(2) Ondarroako lekukotasuna dut nik.

(3) Juan Mateo Zabala bilbotarraren erabilera bi lekukotzat:

Alper egin: «Ay! Itxiko ezpaleutse (gurasoak) umeai *alper eginik* ibilten» (*Irun* 110).

Alper izan: «Ay! gaixoak! *Alper da*; etzaree onduko arimako medikuaren esanak egiten ez tozuezala» (*Irun* 55).

(4) «Gurasoacaz cerbait izan daveelaco, edo eurac gaitic inoç deungaroren bat esan ba-deutse, atzeratu, ta *alcarregazcoa* ausi eguiten daveenac» (JMZab *Irun* 99).

Lehen esandakoari atzera eraginez, asko dira oraindik eskuizkribuetan edota berandu ezagutzero eman diren testu zaharretan, hor-hemen sakabanaturik dautzan hitz eta aldaerak. Bat edo beste aipatzeko:

Hegapetu hitza, «proteger», Azkuek Añibarroren *VocBasc* bildumatik jaso bezala damaiguna, eta lekukotasunik zaharrenekotzat dagoena, hala zen, harik eta 1638 inguruan –180 urte inguru lehenago beraz– Juan Bautista Alzola Muntzaraz elizgizonak Domingo de Egia deustuar armagizon handiaren gorazarrez ondu zuen poema epikoa ezagun egin zen arte, orain hogeitaka urte (5).

Aldauri, «arrabal, albo-auzo» adieraz Azkuek Bizkai partean jaso zuen hitza, eta polita zeritzalako idatziz erabili zuena, pozgarria da jakitea 80 urte inguru lehenago Zabalak erabili zukeela «auzo, auzo bakartu» esanguraz (6).

Hitz-aldaeretan ere guztiak ez dira zaku berean sartzekoak. Hala esaterako, *dustik* ebakitzen dute Bizkairik sartaldeeneko euskaran besteok *guztiak* dioguna. Edo *gedar* egin, besteok *deadar* dioguna. *Elexar* Nerbioi aldean, besteok *lexar/lizar* dioguna. *Idargi/irargi/iretargi* aldaerak ere ezagunak dira sartaldean «hilargi» hitzerako. *Sugate* ere hor dugu, agian gaur bizi ez dena, *sue*te zabalagoaren ondoan. Idatzi zaharretan ageri direlako dakigu aldaerok guztiz zaharrak direla: *dusti*, *geadar*, *errezal* eta *sugate* (7). Baina ez dira maila berekoak *didar*, *itargi* eta *suite|sute* aldaerak, paraje batzuetako hitzunez gaur hala darabiltzatenak. Testu zaharrek erakusten digute, bada, hitzen itxura zahar direnak berrietatik bereizten; aldaeron itzala neurtzen, beraz.

c) Artean argitara gabeko testu bat plazaratzen delarik –berariaz zahar edo aspaldikoa denean–, ez ohi da batere zurtzekoa, idatzi horretan edo hitz ezezagun bat, edo adiera berezia duen hitz ezagun bat, edo hitz-aldaera bereziren bat idorotzea, gure hiztegietan hor dukeen balioaz erregistratu gabea.

Oraintsu arte ia jaso gabea zen, esaterako, Lazarraga barrundiarrek behin eta berriro darabilen *utra*, guk «oso, guztiz, txit» hitzez ordezkaturiko genukeen graduatzailea. Beronen azterrenik nekez aurki zitekeela-ta geunden, harik eta Kapanaga mañariarraren doktrinan (1656) *utra* eta *ultra* biak erabilirik ikusi genituen arte, bata Lazarragaren adiera berberaz eta bestea konparazio-graduatzailaren balioaz, «askoz, askozaz» zentzuaz (8). Testu zahar biotan bai,

(5) Arejita, Adolfo (1983): «Cancion Vizcayna...». Domingo Egikori gorazarre kantua», *Euskeraren Iker Atalak*, nº 2, Bilbao, Labayru Ikastegia, 137-181: «Paciencia andiagaz, [au]çoen buruac / vrian ondo daucaz *egapetuac*» (33-34).

(6) Cf. «arako gizon-emakume sutsu, aserrekor, bake txarrekoak, auzotegia, *alda-uri* edo etsadi guztia, eta bear bada erria, goikoaz beera darabildeenak» (JMZab *Irun* 128).

(7) *Errezal* Landuccioren hiztegian, *sugate* RS-en, besteak beste.

(8) *OEH*-aren azken tomoan jasorik dago, dena den.

Cf. Kapanaga: «Ea ceimbat bider sarri dan peliburuan, ez ençuteco, cerren egon çan, *vtra* veranduguiño bere erruz, ceinda içan çan suertea idaraiteco meçea.» (96), «Ea erioçaco peliburuan bere burua ifini daben, Iaungoicoa tenteetan dabela, causa *vtra* andiabaga, eta necesidade бага» (102), «cerren içanic ain andia, fin bacoa, da andiagio, eta *vtra* ventaja eguiten dabena fin

baina gerokoetan ez agertze horrek, batetik hitzorren zahartasuna eta leheneko bizia erakusten du; bestetik aldi zaharretan zukeen hedadura: sartalde guztian barreitua zegokeen, beharbada; edota gutxienez ere, mende baten aldea gorabehera, Mañariko Durangerriko berbaerak eta Urkiolan gora joanda, goizabaldegikoak bazutela kidetasun hertsia; denean ez bada, gauza askotan. Edo sarriago jazotzen dena: hitz edo hitz-aldaeraren bat, gure korpus ezagunetan ageri den baino datazio zaharragoaz agertzea.

d) Tradizio idatzia dugu, bestalde, hizkera landuak izan duen eboluzioaren lekuko pribilegiatua. Gure idazlerik onenek, eta berariaz euskarazale handi izan direnek, ez dute mugatu euren eginbidea, lehendik, ahoz edo idatziz, jaso dutena transmititzera. Hizkuntza sortu edo garatzeko ahalegina ere egin izan dute, lexiko arloan batik bat.

Euskarari ere, beste hizkuntza garatuago batzuetan bezala, idazle batzuen alde honetako sortze-ahalegina emankorra eta aberasgarria gertatu zaio. Gure idazle klasiko trebatuen artean, bistan da neologismoen maila gainditzeko ahalegin apartekoa izan dela. Beste hizkuntzetatik hitzak beste barik hartzeari errazkerian jaustea zeritzaten nonbait, edota, batez ere erromantizismoaren giroan, euskararen barne-ezaugarri edo barne-ahalbideei uko gitea. Holako idazleek uste



baga ene pecatuen grauedade, eta anditasunari» (117), «Echerean urten daguianean leelengo vida içango da elexara (*vtra* urrin vici ezpada)» (124).

«ea saldueban difuntuen gauçaric menos preciotan, eta balioeban baño *ultra* guichiagotan» (Dot 1656, 114).

zuten euskarak bazituela bere erroetan eta egituretan ahalbiderik asko hitz berriak garatzeko, aldian aldiango premiei erantzungo zieten hitzak, hartan ere.

Sorkuntza-ahalegin horren beste ezpal bat, hitz berriak sortzea baino gehiago, jakintza arloko edo modernitate giroko kontzeptu jakin baterako hitz jada ezagunak birrerabiltzea izan da; hori ere munta handiko lana hizkuntza-ren etorkizunari buruz.

Noizbehinka, sortu beharraren sortu beharraz nabarmenkerian ere erori dira delako idazleok, batez ere XIX. mendearen azken laurdenetik honuntz, bereziki Larramendiri eta Arana eta honen jarraigokoei men eginez jardun zutenak, eta kalterik gehien jarraitzaileitsu-itsuak izan direnen eskutik etorri da. Baina hitz-sorkuntza hori gehiegikeria handiegi barik egiten zen aldi zaharragoetan, hizkuntza-ren senetik hurbilago zebilen hitz-garapena zenbait idazleren eskutik.

Eta hitz-sorkuntza hori, hiztegi bidez barik, testu bidez egin denean –sorkuntzazkoa dela nahiz itzulpenezkoa dela– are handiagoa da haien balioa, gure ustez. Era horretakoa izan zen, Axular, Mogel, Uriarte, Arrue, Hiriart-Urruti eta beste hainbaten ahalegina.

Mogelen hitz-sorkuntza adibide gutxi batzuekin on egingo dut diodana:

Arantzatu aditza, Larramendik hiztegian jasorik dakar, hiztun arruntak beharbada «arantzaz bete» edo «arantzaz josi» erabiliko lukeen lekuan sorturiko eratorria. «Burua *arantzaturik* / daduka Jesus onak» dio Mogelena delakotzat dugun Jesusen Pasioko bertso-konposizio batek. Agian lehenengoz literatura-testuan txertatzeak hitz hau hiztegi-ondareko bihurtu du.

Astintasun hitza, «vanidad» adierazteko lehenengoz darabilena ere agian Mogel dugu, «harrotasun» hitzak jada hartuak zituelarik hurbileko beste gune semantiko batzuk. *Astin* izenlaguna adiera horretan ezaguna izateak ez dio meriturik kentzen idazleak izen abstraktoa sortzeko izan zuen burubideari (9).

Betiraune eta *betirauneko* idoro daitezke idazle beronen testuetan, «betierekotasun, eternitate» izenaren eta «betiereko, eterno» izenondoaren ordezkioak emateko. Gutxi darabiltzan hitzak izanik ere, eta gerora ere arrakasta gehiegirik izan ez dutenak seguruenik, edozelan ere Larramendik eihoriko *betiraunde* baino hobeto eraikiak eta erabilgarriagoak dira dudatzeko (10).

Berba-jardun, berez hiztunentzat arrotz ez zatekeen hitza, kultura-kontzeptu biren ordainez darabil. Batetik «alokuzio» edo gaur egungo «meeting»

(9) Mog: «Banidadia, edo *astintasuna*, antustia, lagunen desprecia, edo guchiagotzat eukuitia, iñoren mempetasunik ez gura izatia, ipocresia, edo on irudi naia» (DC 244).

(10) JAMog: *betiraune*: «Da necaldi, edo tormentuzco Su-leza bat, nun pecatu mortalian illten dirianac dagozan Jangoicua icusi бага, ta Diabrubacaz battera erreten *betiraune*, edo Eternidade guztian» (DC 53), *betirauneko*: «Cegaitic dinozu Jangoicua dala *Betiraunecua* edo Eternua?» (DC 11).

esanguraz, baina inoiz pluralaz, *berba-jardunak*, «dialogoak» literatura-gene-roa izendatzeko ere (11).

Administrazio eremuan, «público» izenondoari *guziakiko* hitzaz ematen dio ordaina, deklinazio-atzizkiz eratorririko hitza (12). Zuzentasun eremuan, *agertzaile* eta *esanlari* darabiltza gutxienez «testigu» adierazteko, eta *epaie-mola* «juez» edo «epaile» izendatzeko (13). Matematika eremukotzat jo ditza-kegu *zeinbatu* eta *zeinbatasun* hitzak (14).

Metodologia jakinaz eraikiriko hitz-sorkuntza dugu hemengoa azken baten, hizkuntzaren garakuntzan benetako arrakasta izan duena, emaitza batzuen edo besteen bidez: hitz edo hitz-erroen eratorkuntza edo elkarkuntza bidez egina.

e) Gure literatura idatziak baditu emaitza batzuk «ordezkotza bakarra» suposatzen dutenak euren ingurunean. Zenbait autore edo obra badira, euskal-ki bateko ez bada ere, azpieuskalki bateko ia ordezeko nagusi edo bakar ger-tatu direnak. Zertzelada honek leba handia izan dezake, zenbat eta hizkera hori bereziagoa den edota hizkera jakin horretako ezaugarriak obra baten ugari eta ondo islatzen diren.

Denbora klasikoari dagokionez, Lizarraga Elkanokoarekin kasuak balio dezake Iruñerriako, edo Oinatiko Arrazolako eskuizkribuenak hiri hartako euskararako, edo Paulo Ullibarri Abandoko errementariarenak Arabako Oken-do alderako, edo oraintsuagora etorrita, Arrese ta Beitiarenak Otxandiorako edo Paulo Zamarriparenak Txorierrirako. Holako ordezkotzaz josita dago gure literatura guztia, hasi ekialdetik eta sartalderaino. Horrek halako lehentasun balioa ematen die idazle eta obra (edo idatzi) askori, euren kalitate literarioa-gatik baino gehiago, den lekuko hizkerari doakion bezainbatean.

Bizkai sartalde inguruan zabalago zebilen aspaldi, maileguzkoa datekeen *abundo|abondo* hitza, «ugari» esangurakoa. Azkuek bere *Supl* horretan Arra-tiako berbatzat jasorik dakarren hau, aldi zaharragoetan hedatuago zebilen, Ba-rrutia Mondragoeko eskribauak bere teatroan baitarabil (15). Harrezkero Hego-Urube aldeko hizkeraren lekuko on diren Añibarro eta Zabalarri itxaron beharko diegu honen azterrenak berriro aurkitzeko, eta gainera, bakoitzak aldaera ba-narekin darabiltela *abundo/abondo* hori (16). Hitz honetan ere, hizkuntzen his-

(11) Cf. «Zer esango ete dau dakusazanean *berba jardun* oneek Jaun-done Pedroren Ser-moia atera, edo euskeratuten abiau zanak?» (PAb 153), «Germanikoren *berba-jarduna* Soldadu matxinatubai» (PAb 141).

(12) Cf. «Oficio publico edo *guciaquicoa*» (JAMog CB 197).

(13) Cf. Testigu: «*Aguertzalle*, edo testigu zucen ta achaquija bagaacaz» (Ip 2), «eruan ci-tuban testigu, edo *esanlari* eder oneec Aguintari Jaunaren aurrera» (Ip 2).

Epaile: «Aguertu cirian *Epaie-mola*, edo Juezaren aurrera» (Ip 2).

(14) Cf. «*ceimbatasuna*» (CO 30, 1), «*ceimbatu* edo contetia» (CO V, 2).»

(15) «Sagarraq bere, eziran falta, / mispil usteloq *abondo*» (Barrutia, 12).

(16) Cf. «Nai leuquee, guztia ugari, *abundo*, ganezca, eceren falta бага euqui». (Añ *Mis* I, 82), «Baya Yaungoicoa aberatsa da, ta bauco ac, bai, *abondo* cer emon» (Zab *Irun* 89)».

torian ezaguna den lege edo joera bat frogatzen da: forma zaharkituok bazterretan dirautela luzaroago erdialdeetan baino.

Zabala bilbotarraren idatzietan ageri diren zenbait hitz, oraindik ere bizkai sartaldeko hango edo hemengo hizkeran bizirik daudenak, nekez ikusten dira idatziz aldi bateko testuetan, eta harrezkero ere bakan. Hala *adia|adiak artu* (asmoa hartu), *abaro* (arbolapeko aterpea), *altsi* edo *altsi egin* (dindirri / trapuzahar egin), *alazoko* (bikain, ezin hobe), *afo* (astin), *ameneko* (beharbada, agian), *arean* (apur bat) bezalako hitzak, gaur egun ere bizirik daudenak baina bitxi samarrak direnak, XIX. mendearen lehen erdiko testuetan lekukotzeak halako egitasun-zigilu bat damaie hitzoi, literatura bidez transmititu izanaren arrazoiagatik.

f) Aurrekoaren haritik, testu zaharren artean zabiltzanean, kilikagarria gertatzen da, horietariko baten halako hitz bitxi eta artean gutxi erregistratua idorotzen duzularik, gerora ikasten duzunean oraindik ere erabilia dela non edo nongo hizkeran.

Hala gertatu zitzaidan niri behinola *txil* hitzarekin, Azkuek bizkaieran eta ahoz bakarrik jasorikotzat dakarrena, XVII. mendeko hitz neurtuzko testu baten aurkitu nuenean harako: *Deragiegun artean txil eraso / armaen indarra-gaz kristiau oso* (EgiaKanta 79-80).

Aurrerago, Mogelen testuekin nenbilela eta zenbait hitz bitxi, han azaltzen zirenak, oraindik ere hiztunen artean, gutxi baina erabiliak zirela ikustean, antzematen nuen bazela oraindik zubi sendo bat gure idazle zaharren eta gaur egungo hiztunon artean, eta begitantzen zitzaidan horrek ematen ziela, besteak beste, iraunkortasuna eta gaurkotasuna idatzi zaharroi; mendeen joan-etorria gorabehera, lehena eta oraina ez zirela hain urrun, ez zirela elkarrekitiko hain arrotz.

Halako hitzak ziren nigan oihartzun egiten zutenak: *eskepe* «aterpea», *erroi* «belea», *ezain* «itsusi», *txito* «oso, guztiz», *on egin* «fedea eman, bermea eman», *salobre* «jatun handi», *ajutu*, testuetan *adiutu* ere datorrena, *tru-xu* «euri-zaparrada sendo» eta beste horietariko asko.

Zabala bilbotarraren adibideetara gatozela, aipa dezadan, beste inon nekez edo gutxi lekukotzen diren eta ahoz bizi diren hitzak, Uribe aldeko euskarakoak, inon aurkitzekotan harenean idoroko ditugu. Hala, gaur Arratiatik kanpora nekez entzuten den *aitaxe* hitza (17). Nik txikitatik ikasi dudana *aldar* hitza, «aldasbehera pikea» adierazteko, hark erabilirik ikusi dut (18).

(17) Cf. «Arako gazteak irugarrenez gauza bera entzun ebanean, eta agureak aurrera bere esateko bideak eroazala, esan eutsan: «*Aitaxe*, ori gauz'ori bein ez-eze, birritan bere iminirik daukat.»» (JMZab *Irun* 182).

(18) Cf. «eta alde onetatik eta guztietatik pekatuz ase ta bete egiteko *aldarra* auspez [aldats beera] andia ta bide zabala» (JMZab *Irun* 78).

g) Gogoeta berari gautsala, egin dezagun kargu, lehen zein orain, euskaldunotan badela hiztegi, hiztegiño, hiztegi-gehigarri, glosario, lexiko tematiko eta antzekoak ontzeko joera handia –ia tradizio bihurtu den zaletasuna-. Sarritan hitzun zaharrengandik jasoriko hitzak izan ohi dira, leku jakin batzuetakoengandik maiz. Beharleku horrek duen merituari ezer kendu barik –gure ondare-aberastea dakarren ereduan-, dirudi batzuetan, galdu aginean dauden tresna zaharrak betiko aldendu baino lehen museorako biltzen dihardugula, oroigarri prezituak balira legez. Idazleak baino gehiago, gramatikari, hiztegi-gile eta halakoak izan dira gure artean, aspalditik eta zaletasun handiz, inon diren hitz, adizki edo esamolde bitxiok batzen ekin diotenak. Gaur ere horretan aurrelari garela esango nuke, ia ugazaba eginda gaudela.

Hala gertatzen da ondorioz, gure hiztegi, glosario eta enparatueta hitz ezezagun, bakan edo bitxi asko zerrendaturik azaltzea, testuetan edo ageri ez edo bakan baino ageri ez direnak (19).

Baina honetan guztian pozkaririk handiena izan ohi da, hitz bakanotari-ko bat idatzi zaharren baten testuraturik idorotzea. Ikertzaileari poza eta hitzari sinesgarritasuna eman ohi dio testu literarioan normaltasunez sarturik ikusteak. Hitzaren literariotasun-maila darakus horrek. Eta aldi modernoagoetara etorrira, hori izan ohi da idazle handien meritua ere: hizkuntzaren harro-bi ondargabe horretatik bitxirik ederrenak esleitu eta hitz-esapideekin testu sortu berria brodatzea.

Autore klasikoen artean, Mogelengan dakusat eredurik bikainena. Idazle honek, hizkuntza jakinminak eraginda, hitz-glosario bat baino gehiago ondu zuen, arreta berezia hartzen ziela halako bakantasuna zerien hitzei. Ondotxo dakigu, PAb-en atzean dakarren *Nomenclatura* ez dagokiola berez testuari; hango hitz batzuk badarabiltza berba-jardunetan, beste asko ez. Baina egiaz, zerrendan berezitzat jo duen hitzori, hitz bitxiori testuan dakusazunean, orduan hartzen diozu benetako balioa. Hala darabil testuan berak zerrendaturiko *darda gainian* esapidea, Peruren ahoan: *darda gainian erabilli daruadaz ardao-saltzallak* (PAb 1). Edo zerrenda berean dakarren *arretondo txarra* egin, alegietan txertaturik: *Orduban, arretondo txaarraz, begirakune astun ta albo-kerako bategaz* (Ip 1). Edo zerrendako *arkuntza* hitza bere idatzietan: *Au dinozu arkuntza guztietan, ta zoro zoro zanzubez nekezale gaxuak* (PAb 8), beste askoren artean.

Hiztegi-glosarioetako ekarri hori da gure idazle batzuk ondo baliatzen jakin dutena –aipa dezadan Eusebio Erkiaga-, eta gaur egungoentzako ere erakusgarri ezin hobea.

h) Tradizioko testuen lekukotasunak dira beti, gurean ere edozein hizkuntzatan bezala, hitz batek izan ditzakeen aldaeren artean adiutuena hauta-

(19) Azkuegan edo OEH-an apur bat azterka egitea nahikoa da, diodanau frogatzeko.

tzeko epaibide argiena, batez ere zalantza gogorrek gertatzen direnean itxura baten edo bestearen artean. Sarritan morfologiarik gardenena duena izaten da forma tentagarriena, bat hautatzeko orduan, baina ez ohi da beti erabiliena, ez indartsuena. Tradizio idatziaren gerizak erabakiorra behar du izan halakoetan. Adibide bat edo bestez sendotuko dut diodanau.

Daigun, Mogelek PAb-eko atze-zerrendan dakarren *apapuan* (*apapuban bizi*), «dena beharrean, ozta-ozta (bizi)» adieraz, eta gipuzkerazko testuetan ere darabilen hitza: *milla gezur ta asmorekin ostutzen dizte arto edo gari zatiak beren jan-edan ta jokoetako, ta dabil etxea apapuan, zoorrak geitu, ta milla buruko miñen artean* (20). Nahiz *apo-apoan* | *apu-apuan* itxurak ere ezagunak diren hizkera batzuetan, ez al du merezi lehentasuna idatziz bermerik sendoena duenorrek, gainera ahoz ere bizi-bizi dirauenean?

Beste hainbeste esan daiteke *adobatu* aditzaz, «remendar», testuetan zein ahoz agian aldaerarik indartsuena, *adabatu* eta *arabatu*-ren aldean.

i) Tradizioko testuen irakurketa kritiko bat egitearen alde beste argudio bat ere ekarriko dut. Testu idatziek gurean bezain transmisio txatxarra izan duten kasuan, ezinbestekoa da hori. Eskuizkribuak idatzira eroan dituen transkribatzaileak akatsen bat egin izan duenean hitzen bat oker irakurritz, hortik sartu dira inoiz hiztegiatara ere sasiko hitzak. Eta sasiko hitzokin, behin hiztegi batera ezker, gertatzen dena asmatzen ez da gaitza; behin albatea irekiz gero, hurrengo datozenek ere lehengoari eragiten diote, okerrrik egon daitekeela ere susmatu barik.

Ez dut adibide ezagunegietara joko, nola diren Azkuek hiztegian dakarren *arnari*, edo oraindik Arandatik Mirandara dabilen *ekidin* zorionekoa, Lino Akesolok maisu-lan batez astindua eman ziona. Ez eta Irigoienek *bailiren* aditz egituraren gainean egin zuen ikerketara. Mitxelena izan genuen holako desbi-deak bilatu eta aztertzen maisu, besteak beste Azkueren hiztegiaren azterketa kritikoa egin zuelarik (21). Baina on egin dezadan diodana, geure uztako bat edo bat dela medio.

Azkuek hiztegian jasorik duen *aginteta* hitza (22), Mogelen PAb-en 1. argitaraldia (1881) atondu zuenak eskuizkribuan ia elkar ikutzen zeuden *aguin-te* izena eta *ta juntagailua* batera irakurri izanaren erruz sartu da hiztegiatan. Honetara irakurri beharrekoa zen: *Bacarric billa leiquee guichi batzuben aguinte, ta iñoren ondo izate bacarra* (PAb 139), eta hor etzen *aginte*-z gainera hitz misteriotzurik. Baina gure Azkuek hitz horri gure tradizioko beste batzuen antza hartu zion, *-eta* amaieradun diren *lapurreta*, *ameseta*, *barrizte-ta* eta halakoena. Harrezkero hor dabil sasiko hitz hori alderrai.

(20) Cf. Mog CB 249.

(21) Mitxelena, Luis (1970): *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Publicaciones del Centro de Estudios Históricos de Vizcaya (RSVAP). Bilbao.

(22) Azkue, R.M. (1905): *Diccionario vasco-español-francés*. Berrarg. 1969, Bilbao, LGEV, I, 12: <**Aginteta** (B, Mog.), mando>.



Idatzietan gutxi ageri den *errekoko* hitza ere Azkuek bere hiztegian *errekoto* bezala jaso zuen (23). Baina gaztetako hiztegi horren bigarren edizioa egiteko egileak berak prestatu zituen zuzenketa eta gehigarrietan oinarriturik, 1969ko edizioari L. Akesolok erantsi zuen gehigarrian, *Suplemento* deritzan horretan, *errekoko* forma jaso zuen, arteragoko errata zuzendu nahirik. Bigarren horrek dirudi zuzena, J. Mateoi Zabala bezalako idazle ziur eta herri-hizkera kontuan aditua den baten idatzietan behin eta berriro ageri dena: *Eguinda guero izan oi dira errecoacoac, errencuraac eta bildurrac* (Irun 29), *asco ibili oi dira guero umetaco deungaro ibilteac gogoratuta, euren artean kezcaz, ta errecocoz* (Aranz 88).

Hitzen forma zuzen edo okerren auzi honetan, zurt egitekoa badirudi ere, egia da, euskararen kasuan, idazle bakan bat edo besteren lekukotasunaren pentzudan dagoela hitz-forma batzuen zuzentasuna; agian, garai batean, hitzok hiztunen ezpainetan gaur baino askoz ezagunagoak izango baziren ere.

4.2. Lokuzioen eremura hurbil bagaitez ere, tradizioko eta ahozko erabileren lokarri estuaz berehala jabetu gaitezke. Eta zubi horrek dukeen baliorik handiena, agian, gaur egungo literaturara iraul ahal bagenitza esamoduok, ahozko eta tradizio zaharreko iturri bietan emai horrek iraun izanak balio biokitza baitu gaur egungo literaturan birrerabiltzeko ere.

(23) Ibidem, I, 266: <**Errekoto** (B, *ms* – Ots), escozor, recelo>.

Denbora eremuko esapide ugarietarik harturiko adigarri bat aipatuko dut: *inoizko denporan*, denboraren mugagabea adierazteko gaur egun ere erabilia den, baina klasikoetan ere ezaguna den egitura:

Eregiac, oneicaz zeure vizitzan *iñoizco demporan* naastu ez zaitian, baizican biotz guztitic euracondic urrin eta beti iguesi ibilli zaitian (*Arraz I*, 23)

Heriotzeaz zerikusia duen beste esamodu bat: gertaera lazgarri hori modu leunagoz aipatzeko gaur egun ere hiztun zaharrek erabiltzen dituzte *gu ez garen denporan* edo *ni ez naizenean* legezkoak. Kasurako XVIII. mendea testuetan ere aurki ditzakegunak balio beretsuaz. Esaterako Testamentua norbera ez den denborarako egiteaz hau diosku Oinatiko elizgizon zaharrak:

emen Testamentutzat aiquetan dogu guere artian, Guizonac, *bera ez dan demporaraco*, bere gauzen gañian vizitzan eracusten daben, azquenengo vorondatia (*Arraz I*, 22)

4.3. Gramatika arlotik joaz ere berdin lilura gintezke, tradizioko euskal testuetan idoro daitezkeen zenbait egituraren aurrean, sarritan zahar iruditu arren, uste baino modernoago direnak. Eta gure interesa ez dateke bakarrik, halako egitura hain lekutan, halako autoretan edo halako testutan idoro izana, askoz zabalagoa baizik. Egitura jakin batek noiztik noiza indarrean iraun duen ziurtasun handiz jakin dezakegu; baita ere gaur egun han edo hemen bizirik dirauen; edota egituraorrek aldakuntzarik jasan duenentz. Diogun horren interesa ez da, beraz, diakronia aldetikoa bakarrik, gaur egungoari ere badoakio, eta uste baino gehiago eta sarriagotan. Izan ere, tradizio idatziaren balio berdingabeetarik bat hau da: gaur oraindik ahoz darabiltzagun zenbait hitz, adizki edo hizki ilun samar nekez zuzen uler ditzakegu, tradizioko testuen argitan ez bada.

Euskal aditzen argumentu-egituretan denboraren igaroan gertatu diren aldaketak dira sintaxi-eboluzio honen lekuko ona. Batzuetan hizkuntzaren barruan gertatu diren jauzi edo joerei zor zaizkie aldaketok. Beste batzuetan, agian gehienetan, inguru hizkuntzetako joeren eraginez. Aditz bat edo besteren kasuak aipatuko ditut.

Aditu aditzak, kasurako, badu gutxienez zer-nori erregimen-egitura, itxuraz aspaldi zaharkitu horietakoa dena. XVI-XVII. mendeetako lekukotasun aspaldikoen ostean, hor aurkituko dugu berriro XIX. mendearen 20-30gn hamarkadan J.M. Zabala bilbotarraren eskutik, non esangura berezia duen *aditu* aditz horrek: norbait aditua izan zerbaitetan.

Contu onegaz, neure entzulaac: ez zuen buruti ibili, *ondo adietan yacana-gaz* itundu bagaric (Irun 30).

Jarraitu aditzaz ere antzeko bitxitasunak aipa daitezke. Ekialdeko erregimen zaharrak, nor-nori erakoak hain zuzen, flexio trinkoak dirauen ginoan berandura arte iraun du sartaldean ere –XIX. mende hasieran hor dabil behintzat–, baina ez, oster, flexio perifrastikoa darabiltenean. Balia bekizkigu aditz trinkoen erregimenerako Mogelen testigantzak:

Gavaz *darraicuz* baso-chacur Acerijac» (Ip 16), «*Beerraicozan* chacur, ta Eizarijac (Ip 32)

Berdin aipa genitzake giza-jarrera edo sentieren adierazle diren zenbait aditz, hala nola *zoratu*, *haserratu*, *damutu*, *garbatu*, *nahi izan*...; gure klasiko batzuen artean honetara ageri dira behin baino sarriago: *zoratu jako*, *haserratu jakon*, *damutuko jatzu*, *nahi izan dakiola*. Markinaldean, eta berdin beste paraje batzuetan ere, bizirik diraute oraindik holakoek; ez dira hiztunen nahiera berri baten adierazle, aintzinatik datorren hizkera tradiziozkoaren azterrenak baino (24).

Beste arlo bateko adibide batera jota, kalitatezko konparazioa egiteko erdi eta ekialde hizkeretan egitura ezaguna da *are ... -ago* delakoa, itxuraz eta idatzizko eta ahozko testu-korpusak arakaturaz gero, bizkaieran parekorik nekez aurki dakiokeena, baldin *hainbat ... -ago* sinonimora jotzen ez bada behintzat. Baina, bai ahoz, bai idatziz, erabilerak ondo ikertuz gero, aurki daitezke lekukotasun bakan eta mehatz horietarikoak, ekialde-sartalde hizkeren artean itxurak erakusten duen baino kidetasun handiagoa zegoela frogatzen dutenak, eta funtsean beraz, delako egitura aldi baten euskararen sartaldekoa ere bazela frogatzen dutenak, *arebere / arabere ... -ago* aldaerapean. Erdi Haro beranduko eresi zaharretan badugu jada horren lekukotasuna (25). Eta hurragora etorririk, Zabala bilbotarrak emango digu berriro egitura horren arrastoa, eta ez inola ere gipuzkeraren interferentzia bidez jasoa, baizik Uribe aldeko herri hizkera bizitik (26). Eta are gehiago sendotzen da kidetasun hori, dakigunean Mungia aldeko hiztun zaharretan oraindik ere erabiliak direla egiturek (27).

Mugatzaile hurbilaren erabilera, pluralean (-ok) ez eze singularrean ere (-au, -ori) aspaldi zaharretik sartaldeko hizkeretan ahozko hizkera bidez zein testu zaharren lekukotasunez ziur dakigun gauza da, eta horrek gaur egun erabil dadin ere ematen duen bermea bertanbehera lagatzekoa ez da, inolaz ere. Gure eresi zaharretara edota oraintsu ezagutu dugun Lazarragaren idatzietara jo baino ez dago, mugatzaile hurbilaren, sing. zein pluralaren aldi bateko hedadura on egiteko. Gogora dezagun harako:

(24) Ondoko lekukotasunok balio dute: «Ez euquela intencinoe charric; beriala *garbatu jaquela*» (JAMog CE 108), «Lenago nai izan daven gauzia, *damututen jaconian* ta *garbatuten jaconian* dauca vijotzac penia» (Bart Icas 3, 99), «Ez eguizu bildurric euqui *aserratuco jacola* larregui escatuten deutazulaco» (PedAstarloa UD 1, 169).

(25) Cf. «Egun bein vr jarruta / Ganboar seme lasterra, / *Are bere lasterrago* / Abendañuje Motela» (Mondragoe erretzea, TAV).

(26) Cf. «Baya kendu bearrean, atan atan bazagoz, lecu zabala emoten deutsezula bengue-taco asmaciñoai, alangoric eguiteco gogoric artu ez arren, aguiro da zure biotzean gorrotoaren saguitea sarturic daucazula. Eta *ara-bere okerrago* badiñarduzu aren contra deungaro esaca: baakizula ceuc alangoari cer eguin bear lichakion: alan ta alan eguin bear lekikiola: kerella bat ecarri bear lichakiola: astin-aldi bat emon bear lichakiola, eta onelangoac» (JMZab Irun 167).

(27) Luis Baraiazarra jaunak Meñaka bere jaioterrian erabilitzat adierazia.

Oñetako *lurrau* jabilt ikara, / Lau *aragiok* bere an berala (TAV 3.1.9. Artazubiaga)

edo oraintsuan aurkitu Lazarragareneko beste hauek:

Silbia dama *galantori* / pena andiaz bizi zan; / Silberori on deretxana / akordatzen da askotan. (Lazarr 8r), Eta ala *ene lagunau* eta ni goaz ara, Silberoren jentilezak ekusterren (Lazarr 10v)

Har dezagun oraindik Bizkai partean bizirik dirauen *harean* (/ *harien*) kantitate-adizlaguna. Sartaldeko testu zaharretan *-rean* atzizki ablatiboaren hainbat lekukotasun ez bagendu, eta jakin *harean* hori *haretatik/hartatik* erakuslearen sinonimoa dela, nekez adituko genuke ondo hitz horren sustraia, *-rean* atzizki zahararren iraupen estalia. Edota Uribe-kosta aldean esaten duten *honetaringo* erakusle genitiboan –gainerako bizkaradunok *honetariko* esaten duguna–, erraz ikusiko dugu ez dela besterik *honetareango* baino; hau da, barruan *-tarean* ablatibo mugagabe zaharra datzala, beste sartalde-hiztunon erabileran *-tarik* datzan bitartean.

Bremengo hiri-musikarien herri-ipuina ezagunaren euskarazko bertsio bat dakar jasorik, J.M. Etxebarriak baturiko Gorbeia aldeko ipuin-bildumak, eta berean *zeinakio* adberbioa darabil:

Seinakio daosela, norantza artu estakiela, katu bet ikusi audien pago baten adapoan miau baten (...)

Ez bageneki testu idatzi zaharren bidez *ekin* aditzak bazuela bere joko berezkoa, eta *gakiozan* legezko adizkiak orain mende bi ere eurrezean erabiltzen zirela, gaitz izango genuke jakiten hitz ilun horren atzean *zeri nakio(n)* antzeko zerbait dagoela, gaurko erara esanda «zeri heldu, zer egin (ez dakidala egon)».

Oñati aldean gaur egun darabilten aditz laguntzaile iragankorra, kasurako *emun* aditzaz, (*emun*) *xao* egiten dute –gainerako sartalde-hizkeradunok *emon deutsa* edo antzekoa erabiliko genukeenerako–. Ahozko erabilera horren arrasto zaharrik apenas geneukan, oraintsuan Lazarragaren idatziak irakurri eta ikertu arte; han behin eta berriro irakur ditzakegu hauetarikoak:

Jaun zerukoai emaiten *jagot* / oi, asko geraziarik (Lazarr 1195 [41r1]), Semerik badeu, esaten *jago*: / - Aita, egidak jakea. (ibid. 42r2)

4.4. Gaur egungo ahozko hizkeren aniztasun horretan badira taiu zaharrekoak diren eta guztiz berrikoak diren hainbat forma, bai hitzetan, bai aditzetan, eta berdin morfosintaxiaren hainbat puntutan.

Perretxikoak bezala ugaritu dira aspaldion idatzizko erregistro diferenteak, hain lekutako hizkeraren ezaugarri ezin baztertuzko balira legez saltzen zaizkigula. Aditz jokoan ikusten ditugu *detsa*, *dotsa* eta halako hamaikatz. Izen edo izenki mugatuen ebakera ere, *astue*, *astû* edo *astô* erakoak berdin, zein baino zein garrantzitsuagoak balira legez tokiko hizkeraren erabilera idatzirako.

Horretan ere tradizioko testuak dira erakusten digutenak, euskal hizkuntza, ahozko errealizazioak gorabehera, askoz ere batuagoa eta koherenteagoa

dela eta izan dela. Halakoetan *deutsa* itxura edo hurbileko aldaeren bat aurkituko dugu gehienez ere sartaldeko edozeinere idatzitan. Eta *asto* izenaren eredu mugatua, *astoa* edo *astua* bezala ia beti.

Badira beste hizkera berezitasun batzuk, zinez sakonak eta zaharrak direnak, eta hizkera baten gramatika-ezaugarritzat epaitu beharrekoak. Eman ditza-dan Leniz ibarreko hizkeren ezaugarri bat edo beste. Lexiko alorrean, aipatu berri dugun *emun* aditz-itxura, ez da hiltunen oraintsuko nahikeria bat, sustrai zaharrak dituen baina, Lazarragaren edo Arrazolako abadearen idatzietan –XVI. eta XIX. mende-haiseran beraz– forma arautu modura ageri baita (28).

Adizki bidez *nor* plurala ez markatzea ere eskualde horretako ezaugarri gutziz zaharra eta beraz berbertako bereizgarria dela, modu berean baieztatu daiteke. Lazarraga arabarraren eta Oinatiko Arrazolaren obrako adibide bi ipiniko ditut egiaztagarri:

Silberok ainbat sentidu eben, bada, Sirenak *esan eben berbaak*, eze erori zidin jarririk egoan sila baterean (Lazarr 6r)

Beti, neure biotzian *josirik zaukadan Aiskidia*, deutsudan amorio eguiazkuak obligaitan nau, zuri ondo bizi izateko abiso batzubenk emutera; (...) zergatik, kapazidade onekua bazara ere, ezin aini ondo *ezagutu zeike zeure aziertubak eta uts egitiak*, nola zure onerako eta gobiernurako Jaungoikuek bere probidenzia santubagaz ifiñi izan dituban Kristaun aik, zeñetatik bat zeure Gurasuakaz batera, eta aikaz ostian uste dot naizala neu. (Arraz I, 1)

5. AHOZKOTASUNAZ ETA MINTZOAREN LITERATURA-BALIOAZ

Ahazkotasunari eskaini nahi nioke mintzadiaren bigarren zatia. Idatzia eta mintzoa, aldien joan-etorrian, elkarren lehian erabili izan diren iturriak dira, batean batari, hurrengoan besteari gora handiagoa ematen zaiela. Azken aldion, azken hamarkada honetan beharbada, esango nuke ahazkotasuna aintzat hartuago dagoela aurreko denboretan baino; bai gerraosteko mogimendu apaletan eta batez ere 70ganean eta hurrengoetan baino. Beste premia batzuei erantzun beharrez jardun zuten –horren beharra ere baitzegoen– aldi bateko *Euzko Gogo*a, *Jakin* eta enparatuek: euskara hizkuntza moderno eta zientzia arloetarako gai bihurtu nahirik. Agian *Egan*-ek hartu zuen aintzakoago ahazkotasuna ere, euskal literaturaren premia larriak ornitzeko hark ere bere garauxoa zekarrelakoan. Gerraosteko berpizte neketsu horretan *Auspoo* eta *Kuliska sorta* liburu-bildumak izango dira arlo horri ardura handixeagoa hartuko dietenak.

(28) «eze an gura dot neuronek *emun* / zuk agindu deustazun *şobrea*» (Lazarraga 3r), «Anso Garcias gasteluori *emun ez*» (TAV: 3.1.10. Sandailia).



Azken hamabost-hogei urteotan mintzairaz gehiago kezkatzen hasiak gara gurean ere, eta euskararen inguruan hizkuntza-kalitatearen behin(ago)tasuna aurrean ipini den unetik esango nuke areagotu dela mintzamenaren ardura hori. Baina ez da gure kontua bakarrik, ostera. Europa barruan ere ez dira falta anzeko sentiberatasunak (29).

Baina geurera gatzela, aspalditxorik entzuten ari garen leloa da: euskara idatzia gero eta indartsuago, ugariago eta arlo guztietara hedatuago doa baina, hizkuntza bizia, mintzatua, transmisio naturala atzeraka; eta gaztela-min-tzodunen multzoa ugaria eta euskaldunena mehatza den eremuetan, are bizkorrago; eta euskara egiten dutenen artean ere hizkera geroz endekatuagoa, erdararen kalkoz josiagoa.

Edota beste lelo hau: euskara mintzatuak belaunaldi biren gorabeheran aldaketa bortitzagoak ezagutu ditu, lehen mendeetan ezagutu izan duen baino. Aldaketa horrek, hizkuntza guztiek ohi duten eboluzio berezkoa baino gehia-

(29) Alemana legezko hizkuntza sendo baten eremuan ere, «Plattdeutsch» darabilten iparraldean berariaz –oinarrian aleman literariotik urrun samar dagoen bestelako hizkera baita; holanderatik hurbilagoa, nolanahi ere–, galeraren beldurrez edota euren berezitasuna sendotu nahirik gizarte-gune batzuetan euren mintzaira tradizioaletik hurbileko testugintza hedatzen hasiak dira, batez ere irakaskuntzan, baina egunkarietan ere bai.

go, goitik beherako itxuraldatzea dirudi, eta den-dena erdara-hizkuntzek gaurko hedabide eta bestelako tresna indartsuen bidez gure gazterian duen eraginari esker.

Luzaroegian, euskaldunok eskola edo irakaskuntza bidez segurtatu uste izan dugu euskararen iraupena, eta euskara onuratsuagoa itxura baten; gure hizkera «narrats, ezertako ez den» hori baino dotore eta garbiagoa, morfologia zehatzekoa. Baina etxe eta gizarteko transmisioari behar den ardurarik hartu ezak ondorio lazgarriak erakarri dizkio hizkuntzaren egoerari gizartean. Jorera galgarri horri iraulia emango bazitzaion, jarrera eta pentsamodua bera berritu beharra zegoen, eta euskal hiztuna bera aintzakoago hartu, bere zertzelada eta berezitasunekin, eta haren hizkuneari estimazioa ematetik abiatu. Gaur egungo gazteria eskolatuan –nik neuk Unibertsitate inguruan giro hori abiatzen dut gutxienez– igarri-igarria da aldakuntza: dakienak, nork bere era-ara egiten du ingurune ez formalean, eta niri neuri behintzat osasunaren seinale begitantzen zait jarrera hori.

Berandu baten baino ez bada ere, gure administrazioa ere hasia da –urte batzuetatik hona ezagunago da–, gure egoerak Québec-ekoaz baino Irlanda-koaz antz handiagoa zeukala oharturik, arazo horri aurre egin nahirik. Azken aldion hasiak dira zenbait, *Auspoa*-ren erako bildumak ondare baliokotzat eza-gutzen, artean, sakonari baino azalari gehiago zegozkien aurriritziengatik, begi aurrean ikusi baino belenatzara bota nahiago bazuten ere batzuk.

Arterago ere izan ziren ahozketasuna hizkuntza idatziaren aurrerapenerako zimendu eta lanabesik sendoena zeritzenak, baina gutxienak ziren, eta gizarte uholde nagusiaren kontrakarra ziharduten, noiz iraungiko dagoen sugartxoaren antzera. Gogoan sakonen dut, neu ere tartean izan nintzelako, Derioko Udako Euskal Ikastaroa eta hark urteen porasuz garatu duen metodologia apala bezain tinkoa, slogan batzuetan iraunkortu zena, «dakigunetik ez dakigunera, euskera bizitik hizkuntza idatzira». Giro horretan hartu zuen bere esangura betea ere, harako Mikel Zarate gure lankide zenak 1975ean, euskal narratiba laburraren antologian sartu beharrekotzat dudana «Idatz eta Mintz» alegi-ipuina zoragarrian aditzera eman nahi zigun mezuak:

Ezbardinak izan arren, ondo konpontzen ziran biak, bata besteari lagunduz. Bi izanik, bat zirudien. (...)

-Hasarre edo adiskide, soinkideok soinkide. (...) Idatz eta Mintz batean bi, luzaro ezin banan bizi. Hain zuzen ere alkarturik, beti alkarturik bizi izateko jaiolak dira. (1975, 23)

Baina ahozko hizkerari goi balioa ematea ez zen gauza berria, ez praxi mailan ez teoriarenean, tartean halako etena egon bada ere. Izan ere 36-39ko gerrateak urratu handiak eragin zituen alderdi guztietan, eta modu aparteko batez euskal hizkuntza-literaturen joan-etorrian, eta honi datxikala euskararen oralitatearen eremuan ere. Gudu aurreko aldian, besteak beste, Gasteizko Se-

minarioa izan zen horretan ere aurrelari. Han Manuel Lekuonak gidatzen zuen Ahozko Literatura Mintegiko kideen lanak *Anuario de Eusko-Folklore* aldizkarian argitaratu ohi ziren, eta han landutako metodologiaren emaitza izan zen *Literatura Oral Vasca* saio bikaina (1935), gerraosteko ilunaldian ere lehenaren eta geroaren zubi bihurtuko zena, batez ere 1964eko edizio ezagunari eskerrak (30). Adierazgarria begitandu zait, oraintsu hil berria den Julian Alustizak, bere azken liburuan, J. Intxaustik eginiko galderari erantzunez, beragan gerra aurre eta ostean eraginik handiena izan duten irakurgaien artean berau aipatzea besteen gainetik (31):

...denen gainetik Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca* delako liburua. Neure bizitza gutzirako markatua utzi ninduen liburu honek.

Gure On Manuelek saio horretan isuritako argudioak frogatzeko era ona izan zuen Gabiriko Aztiria auzoko Etxetxo bere jaioetxean bizi zen birramonarekin gerrate garaian izaten zituen solasaldi luzeetan. Eragin horren ondorio dira geroago aterako dituen liburu paregabe bi, euskara eta herri-jakintza jostera datozenak (32).

Ahozko hizkeraren aldeko apustu hori, XIX. mendearen hondarrean bizitu eta XX.aren lehen herenean indartu ziren joera purista eta, ez dakit esan, kultistari kontra jarki zitzaion joera izan zen.

Izan ere, lehenengo *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan sustraia hartu zuten gehiegizko joera larramendizale haiek, eta ondoren Sabino Aranek Bilbotik bultzatuko duen purismoa, taiu berrikoa, politika haize berrien arrimura, zein bere garaian eta inguruan, indartsu goratuko dira, eta ahozko tradizioaren ahaleginak ia estali edo lausopean gordeko. Bai Larramendizaleek, bai arana-tarrek lexiko-berrikuntzan egingo dituzte ahalegin nagusiak. Azkuek morfologiaren alorrean ezarri nahiko ditu zenbait gramatika-eredu, tradiziokoak baino perfektuagoak direlakoan, eta Altubek sintaxiarenean. Ez ditut aipatuko aditz trinkoaren eta hitanoaren paradigmak artean inoiz baino urrunagora eramaten saiatu zirenen ahaleginak. Horrek guztiorrek ahozkotatasunaren beheraldia erakarri zuen mende berri horretako berpizkundean, batez ere aranatarren eraginez; mende laurden bat lehenago Larramendiren hiztegi hirukoitza ezker-eskuin ustiatzen saiatu zirenean bezala. Purismo joerok izan dira, ezer baino gehiago, ahozkotatasunaren balioa ahuldu dutenak; erabileran oinarrituriko eremuan barik, aurrez finkaturiko eredu perfektu bat bultzatu dutenak: morfologia, sintaxi eta batez ere lexiko arloan hizkuntza guztiz garbia nahi zutenak, birao eta araorik gabea. Eredu berabeteke begitandu baten taiura eginiko hizkuntza-eredua nahi zutenek nekez onar zezaketen ahozkotatasunaren liberalismo

(30) Auñamendi argitaletxea, Donostia.

(31) Julian Alustiza «Aztiri» (2004): *Bizinaharen arnasa*, Arantzazu, Oñati: 127-8.

(32) Lehenengoa eta gure ustez ederrena, *Lihoaren penak eta nekeak* (Jakín, 1981) eta handik gerotxoago tematikaz zabalagoa den *Euskal baserriaren inguruan* (EFA, 1985).

tematia, lokarri estu gabeko koherentzia librea, arau-hesi guztiei salbuespen-zuloak eragiten zizkiena.

Baina purismo horren gehiegikeriez gogaituta, kontrako ahotsak zoli entzuten hasi ziren 30gn hamarkadan. Seberio Altubek idatzi zuen harako «La vida del euskera» saio gogoangarria; Justo Maria Mokoroa izan genuen aldi hartako gogoetalarri zorrotzetarikoa, bereziki *Genio y lengua* saioaren bidez, nahiz tamalez liburu honek, ordu txarrean inprimategitik atera eta argia ikusi zuelako –guduaren etorrera berehalakoaz–, merezi izan zuen osperik ez eragirik ezagutu ez bazuen ere, askoz beranduagora arte behintzat.

Baina berrikuntza-uholde guztiok gorabehera, ahozketasunak berean dirau, bizirik eta tente euskal literaturaren historia guztian, mugiezineko zutabe sendo bat bezala. Gure euskal idazleak erdaraz jantzi izan dira jakintzaz, eta idatziz euskara egin orduan, ahozkoa izan dute funtsean eredu nagusi, hizkuntza baliabide nagusiei dagokienean behintzat.

Ahozko hizkeraren ardatz horrek euskal literatura idatziaren historian funts-funtsean dirau; are gehiago, euskal literaturaren beraren ezaugarri iraunkorra dela baieztatu daiteke.

Gure eliz giroko erretorika klasiko guztia ahozkoan zimendatua dago. Gure herri-poesia guztia, aspaldiko eresi zaharrak eta amodio-kantuak barne, berdin. Teatro zaharra, zertan esan ez da. Salbuespenak salbuespen, lekuan lekuko mintzoari guztiz lotua gertatu da tradizioko gure literatura. Ardoak lurraren araberrako gustoa duen bezala, berdin gure idazleek sortu dituzten idatziek.

Zenbait idazle klasikok, batez ere euskara gehiago ezagutu eta ikertzeko borondatea izan duten haiek, beren-beregi dioskue baserritarretan edo herriko jende zeheagan dagoela eredu ona. Gogora ditzadan Kardaberazek –nahiz bera jesuita ikastun eta arau zorrotzetako gizona izan, eta beraz esparru jakin batzuetatik irten barik dabilen idazle grabe eta ordenatu horietarikoa–, hala ere, hala eta guztiz ere, bere *EBO* saioan txertatzen dituen Donostiako plazanderearen eta Elorrioko ugazabanderearen edo etxagunitearen berbaldi erretorikoak.

Azterago jota, zergatik hautatu ote zuen gure Axularrek garaiko lapurtera mintzatu modernoaren eredu, Leizarragaren klasiko idatzira jo ordez? Zergatik ez ote zuen izan Beraskoitzeko elizgizon-idazle kultista horrek, hain eredu zehatza finkatu ondoren, Alemanian Luther-ek eduki zuen arrakastarik eredu idatziari dagokionean? Ez dut uste katoliko-protestante auzi hutsagatik izan zitekeenik.

Eta hurbilagora etorrira, Mogel markinarrak Peru Landetako nekazaria bihurtuko du bere berba-jardunetako protagonista nagusi, ez bakarrik gizatasun, erlijio eta moral kontuetan; batez ere hizkuntzarenean esango nuke nik. Hizkuntzaren ikaste pedagogiarik onena, haren aburuz, ondoen dakitenengan-

dik ikastea dateke; tradizioko lanbideetan dihardutenak omen dira hizkuntzaren maisurik onenak, nahiz gero, hizkuntza hori gai goratueta erabiltzeko, beste soineko batzuen beharra dukeen gizon eskolatuak, berdin dio elizgizona izan, eskribaua izan edo irakaslea izan:

Gure guizon ta andra baserrietacoac chit ederqui, ta bear bada inorc ez becela, itzeguiten dute berai dagozquien gauza ascotan. Ordea ez luquee jaquingo nola zucendu itzac gauza goratu ta beren gañeticoetan. (JAMog CC, VII)

Gaztelaniaz mezu antzekoa damaigu: jende eskolatuak baino askoz hobeto mintzo direla herriko jendeak; haietara jo behar ei da hizkuntza ganoraz ikasteko:

Los pobres Predicadores se descabezan, y se ven a veces tan apurados, que aun a costa de mucho trabajo apenas pueden formar un Sermón lo más de él lleno de borrones, y barbarismos. Así nos quieren pintar nuestra lengua, como tan enmarañada, que no la entienden aun los naturales; pero qué naturales? Predicadores, y hombres de gran entendimiento, y gusto. Para acallar a estos enemigos de su Patria, sólo basta recordarlos, cómo hablan nuestros Guizones, con qué energía, naturalidad, y pureza, y havrán de confesar, que la culpa es de los ignorantes, y no de la lengua ignorada. (Prologo DC)

Agian Mogel dugu euskal idazleetan herri-hizkuntzaren aldeko apostu garbiena egiten duena jakinaren gainean, hizkuntzaren ikaskuntzarako metodologia bat garatuz. Bera dugu, aldi berean, herri-jakintzaren eta herri-bizieraren zertzelatze zehe bat egiten saiatzen dena.

XIX. mendean zehar ditugun zenbait idazle predikari ere herririk herri, batez ere garizuma aldian egiten zituzten misio-egotaldiez baliatuko dira, berlarriak erne ipinita herritar zeheengandik entzuten zituzten hainbatxo esamolde ikasi eta sarri paperera eroateko. Hala ondu zuen Añibarrok bere *Voces bascongadas diferenciales* hiztegia, lurralde diferenteetan zernolako hitz eta aldaerak erabili behar zituzten sermoilariei bidea errazteko asmo zuzenaz idatzia. Urrunago joango da gerotxoago bere ordena-lagun Juan Mateo Zabala bilbotarra, hitzak ez eze esamolde-lokuzio asko ere jasotzen zituela. Bide beretik ekingo dio beranduago Jose Antonio Uriarte arguiatarrak ere, berak bil dutako uza Bonaparte printzearen esku jartzen zuela.

Elizgizon izan ez zirenen artean aparteko lekua ezagutu behar zaio Iztueta zaldibiarrari. Goierriko hizkeraren ezaugarriak ez ditu bertanbehera lagako Donostian bizi delarik ere, eta herri izaeraren funts diren folklorea eta kontaera zaharrak hautatuko ditu bere hizlaurko liburu nagusi bien ardatz.

XX. mendeari itxaron beharko zaio, oster, herri hizkera eta jakintzen bilketa sistematikoak egiten hasteko. Aipa dezagun irazleak Azkueren ekarria: batez ere hiztegi hirueledun nagusiak (*DVEF*) hizkera biziari emango dion lehenentasuna da horren lekuko. Hiztegi hori orotarikoa izateko asmoz sortua eta ondua izan zen: idatzizko eta ahozko ekarriak, bitzuk maila berean jasoko ditu,

hitz-sarrerarako euskalki eta azpieuskalkietan hedatuen diren morfologia-aldaerak erabiliz. Azkuek ahalegin hori *Euskalerraren Yakintza* eta *Cancionero Popular Vasco* obra erraldoiekin osatuko du, beste txikiago askorekin batera. Askozaz beranduago –eta nekez eta laguntza gutxirekin argitaraturik (1976-1989)–, batez ere Lino Akesoloren ahaleginez burutu zen *Diccionario Retana* delakoaren 9 zenbaki mardulak (*DRAE*) Azkueren ahaleginori osatzera etorriko dira, funtsean bide beretik, idatzia eta ahozkoa biak iturri aitortuak eta aintzat hartuak direla.

Azken aldion, dialektologia mailan monografia ugari ezagutu dugu, lan-tzean herri edo eskualde batekoak, batzuek lexiko alderdia lantzen dutela, beste batzuk gramatika alderdia, edota biak.

Euskaltzaindiaren EHHA deritzan egitasmo erraldoia ere bere bidean da, ahozko ondareari gure belaunaldiak ematen dion balioaren lekuko, ia hamar-kada biko lanaren emaitza gertatuko dena.

Dialektologia eremuko lanok, itxuraz zientzia interes hutsekoak diratekeela uste izan arren, pentsa ezazue eragin zuzena izan dezaketela esparru literarioan ere, eta idatzizko emaitza zabalean orohar; eta aplikazio arteza irakas-kuntzan ere, urrunago joan barik. Ahozkotik idatzirako urratsok ondo emateko metodologia egokiak landu beharko dira, tokian tokiko aberastasunak ondoen komeni den didaktikaz eskolara eta euskara landura daitezen.

Ondorio modura, esan dezadan bada, joera kultista guztiak gorabehera, euskal literatura idatziaren erreferentzia ziurra beti izan dela herri-hizkera.

5.1. Herri hizkeratik testu idatzira

Herri-hizkera, ahozkotasuna, mintzaira, oralitatea eta halako hitzak darabiltzagunean testu idatzi mota batzuen bereizgarriak markatzeko, nahasbidean ere erraz eror gintezke, zeren testu-mota guztiz desberdinak sartzen ditugun izendapenon barruan. Ahozko hizkera aintzat hartzen duten testu motak ere nola bata bestetik guztiz bestelakoak diren, eta ahozkotasunaren neurria ere batzuetatik besteetara guztiz desberdina, azken hamarkadetako produkzioa begipean dela testu-mota hauek bereizi beharra dago.

Batetik, hor ditugu aspaldion ugariak bihurtu diren ahozkotik idatzirako transkripzio huts-huts direnak: «etnotesto» izenpean barrutzen ditugu sarri, esaunda, ipuin edo kontaerak direla, pasadizuak direla, ohitura, lanbide edo sineskeren gaineko azalpenak direla, izkirimiri edo barre eragingarriak direla..., askotarikoak berba baten esanda. Lekuan lekuko dialektologia-ikerketa guztien material osagarri bihurtu dira delako etnotestuok.

Testu-mota horiei duketen balioa ezertan kendu ez ukatu barik, bai zehaztu nahi nuke, testuok bere horretan eskaintzeak, hau da, ahoz jalkitako le-

getxe transkribaturik alegia, hizkuntza idatzi formalari dakarkien hobekuntza edo aberaskuntza batzuetan predikatzen den baino mugatuagoa ohi dela. Ahozko testu horri, landu bako haitz edo harri-koskor baten taiua hartzen diot. Ahoz jasoriko horrek landua eta galbahetik iragazia behar du izan; barruan gorde ditzakeen baliapide eta bereizgarriak azalera ekarri eta euron balioak markatuak, direla lexikozkoak nahiz sintaxizkoak; ikastunaren gogoeta-ahalegin horren bidez eraikiriko zubiak erraztu eta laguntzen du gehienbat ahozko ekarri hori estilo idatzian mendatzen.

Badira gure literaturan zubi-lan hori ederto baten egiten jakin dutenak. Horienkoak dira, kasurako, «herri-idazle» dei genitzakeen horiek: ahozkoaren ezaguera eta beregantzte sakon batetik abian jarriarik, euren testuei ahozkoaren kolore eta zaporea kutsatzen ahalegin egin dutenak. Idazleok, itxuraz bestera badirudi ere, ikasiak ohi dira sarritan, gramatikaren ezaguera on baten jabe, baina morfosintaxi arauen ezagutza gorabehera, idatzizkoan hizkuntzaren eta hiztunen berezko senari eman izan diote lehentasuna, arauaren neurri estuaren gaitetik. Idazle on meritua eta interesa honetan datza, bestetik, hizkuntza ikuspegitik: ahozko baliapideak idatzian bideragarri bihurtu izana; ahozko erabilera idatziaren bidez «on egitea», goragoko estatusa ematea.

Sartalde euskararen kasuan, eta XX. mendera mugaturik, hor sar nitzake Kirikiño eta Zamarripa, edo oraintsuagora etorrita, Juan San Martin eta Mikel Zarate. Edo gipuzkerarenean, haren lehenagora jota, Marcelino Soroa, Antero Apaolaza, Pedro Migel Urruzuno, Salvatore Mitxelena eta aurkada bat idazle. Nafar-lapurtera eremuan, oraintsu bilduma hau mardul bat atera zaion Hi-



riart-Urruti kazetaria aipa nezake, gero etorriko den idazle-lerro ugariaren aintzindari gisa.

Kirikiñoren kasua benetan meritugarria da, zeren aranatarren giropean eta haien pentsabideak irentsirik egonagatik, ideien aldetik behintzat, egundo sekula ez baitzion herrikoitasunari atzea eman; hitz nabar batzuek gorabehera, herri-senak gidatu zuen haren lumaren etorri berez zeriona.

Gure literatura tradizioan badira idazleak, gramatikaren eta gramatikariaren esanera baino erabilera berezkoaren senari lotuago jardun dutenak; edo bestetara esanda, gramatikek finkatu arauai jaramon estuegia egin barik, bestelako bideari ekin diotenak, tradizioaren ur-emoiak landu eta leundu duen estiloari menago iraun dutenak, belarriz zentzuten ahozkoari fidatzenago zirenak.

Esaterako, XX. mende hasieratik honuntz Azkue, Altube eta jarraigokoa perpausoko hitzen ordena galdegaiaren aditz aurreko egotoki zirkinbako horren arabera finkatzen saiatu zirelarik, eskepe horretara bildu ziren Añamen-diz honunzko idazleak, malgutasun gehiagor batzuk beste batzuk baino. Ekialdeko idazleek, alabaina, ordena malguagoaz ziharduten, agian prosa aietuagoa eta freskoagoa zerabiltela, eta Ithurry edo Lafitte bezalako gramatikariek eurek ere, idazleen eta testu idatzien ertzak ontzat hartuz eta euren lekukotza aldarrikatuz ondu zituzten euren gramatikak, alegiazko eredu teoriko ustez hoberenetik abiatuta barik. Esango nuke, horrek berorrek mesedetu duela ekialdeko tradizio idatziaren garapen osasuntsua.

Gogora datorkit harako «Basarri» bertsolari-kazetariarekin Mokoroaren arteko auzia, Krispin Beobideren *Asis-ko Loria* dela-ta, Aita Villasanteren sarrera batekin *Auspoa* bilduma ederrean argitara zelarik 1966an (33), Alfonso Irigoienek geroago gogorarazia (34). Baliteke asko, batez ere garai horretan eta Pirineoz honuntzean, San Frantziskoren bizitza euskaraz kontatzen digunaren prosak zurtz eginda uztea. Ez zetorren inondik ere bat gipuzkera klasiakoaren zutabe izan diren Kardaberaz eta Mendibururen estiloarekin, kasurako. Ez eta XIX-XX mendeetako erdi-sartaldeko idazle eskolatu gehienen joerarekin ere. Inola ere ez Lizardi, Orixe eta ondoko gehienekin. Nahiz azpeitiarra izan jaiotzez, gure frantziskotarrak Donapaleun eginak zituen eliz ikasketak eta fraile-bizitzako urte batzuk, harik eta Tolosara itzuli zen arte. Gipuzkeraz idatzi bazuen ere, hemendiko gramatikari eta idazleen arauetaz ez zen gehiegi

(33) Edizioaren zehetasunak: Beobide'ko Aita Fr. Crispín (1966): *Asis'ko Loria*. Tolosa, Auspoa liburutegia, 57-58.

Larogehita bat urte lehenago (1885), Tolosan argitaratu zen liburu hau lehen aldiz, Francisco Mugerza=ren moldiztegian. Orduko izenburua: *Asis-co Loria edo Francisco Santu Aundi-yaren eta pobrien aita-lenaren bicitza*.

(34) «Basarri»k orduko *La Voz de España*-n zorrotz eta gordin astindu zuen K. Beobidek *Asisko Loria*-n zerabilen ordena-modua («Mi atalaya montañera» atala, 1966-VIII-7), galdegaiaren legea betetzen ez zuelako, hartan ere. Alfonso Irigoienek bere «Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak» txostenean, Arrasateko jardunaldietara aurkeztu zuenean (1979-XII-20) argiratu zuen berriro auzi zaharra.

kutsatu; ahoz entzuna zuen edo ahozko jarioaren sundako estiloa finkatu zuen bere idatzietan, Ifarraldekoetan ere usu zen berbera, eta erdi-sartaldeko idazle zaharrik gehienetan ere bai, bestalde.

Adibide gisa, errepara diezaiogun ondoko pasarte honen ordenari:

San Franziskoren aurreneko semiak (...) erabaki zuten beretako bat Aita-lenari bialtzia, gauzak nola zijuazen guzia esatera. Lan artarako aukeratu zuten anai Esteban; au zan, Santuak lenbiziko aldiz Siriarako asmuhan Italiatik irten zanian, bide-lagun artu zuana. Irten zan anai Esteban Aita-lenaren billa; bitartian bere lagunak eman ziran gogotik oraziora. (1966, 226)

Aditza predikatuaren aurrean dela, eta ez atzean, aspaldirik datorren ordena dugu, idatzirik zaharrenetan ere lekukokatua; L. Mitxelenak, euskal perpausaren ordena dela-ta, komentatzen duen ondoko eresi-ahapaldian, kasurako: *Iausi da cerurean arria, / Aurquitu dau Lastur-en torre barria, / Edegui dio almeneari erdia.*

5.2. Herri literaturako genero batzuen baliagarritasuna aipatuko dut ondoren: herri-poesia, herri-kontagintza, herri-antzerkia eta gutun generoa. Berez genero edo azpigenere batzuek beste batzuek baino emankorragoak gertatu ohi dira, herri-hizkeraren transmisore gisa.

5.2.1. Herri-poesiaren arlo zabal bezain ugari eta askotariko horretatik abiatuko naiz, lehenik agerian uzteko, beste genero batzuetan baino honetan dela ezagunago transmisio fidagarri baten hutsunea.

Euskal balada zaharrek ez dute izan ez gortetik, ez jaundegi eskuzabalik, ez inprimatzaile eukitsurik, errenazimendu garaian gure erromantzeok bildu eta plazaratuko zituenik. Gure herri-poesiak ez du Euskal Herrian ez Anberesen ezagutu goizetiko argitaraldirik.

Garibai bezalako eskribau banakoren batek eresi zaharren ondar batzuk jaso bazituen ere, edo luma anonimoren batek liburu zaharren baten barru-azalean itsatsirik paperean amodio-kantu zaharren bat edo beste itsatsirik utzi bazigun ere, gure herri-poesiarik gehiena, narratiboa dela, lirikoa dela, ahorik aho heldu da guganaino, eta guztiz beranduan eroan da kodigo idatzira; ifarraldekoa lehentxoago, hegoaldekoa atzerago. Humboldt izan genuen esaterako, 1801eko Euskal Herrira oster hartan *Andre Emili* balaren lehen bertsioa ahoz bildu ziguna.

Hala ta guztiz ere, ahoz jasoriko bertsiootan ere erraz topo egingo dugu, mendeetan iraun duten hizketa-formula, morfologia-egitura zein lexiko-formekin, gutxi-asko hizkera bizititik aldenduak direnak. Izan ere, hitzneurtuzko konposizioak –atsotitzen kasua ere beretsua da–, bere egiturak hala aginduta, sortu izan zeneko hizkera-estiloari eustera egiten du, hizlaurkoan erraz galtzen diren gauzetan ere: neurri-puntu-doinuen hesiak laguntzen dio soineko zaharri eusten. Ipuinetan nekez gertatzen da hori, egitura askatua ohi dutelako.

Hizkuntzari dagokionez, bada, interes apartekoa du herri-poesiak: hizkuntza egitura zaharren gordairu izatearena; hiztunen ezpainetatik aspaldi galduak diren forma zahar haiek ere hiztunetan nola-hala iraun izana zor zaio herri-poesiari. Gaztelaniaz zein beste edozein hizkuntzatan ere berdintsua dugu fenomeno hau.

Adibide gutxi batzuk ekarriko ditut, diodana on egiteko.

«Testamentuarena» deritzagun herri-balada zaharra, hainbat bariantetan sakabanatua izanagatik, hasiera honekin kantatu zuen Fruizko andre batek 82an:

*Iretargijek argi eitten deu / zeruan goijan bakarrik;
zazpi aingeru atzian ditu / zortzigarrena makalik*

Erdi Haroko oinaztarrekin ganboarren arteko guduka odoltsuen jazoera lazgarrienetarikoa izan zen Mondragoeri su eman zieteneko hura, eresi zaharrak honako hasiera-ahapaldiaz hilezkortu duena:

*Argi izarrak urten dau / zeruan goian ostantzean;
Bergararrok asi dira / traixioe baten asmatzean*

Eresi zaharrotako batek, XV. mendean Martin Bañez Artazubiagakoa hil zutenekoa gogoratuz, hasiera-formula ezagun hau darabil:

*Oñetako lurrau jabilt ikara, / Lau aragiok bere an berala, / Martin Bañez
Ibarretan il dala. (TAV zb. 3.1.9.).*

Antzera darabil Lazarragak ere amodio-poesia baten:

Ene aragiok ikara dabiltz, / ainbat sartu jate zure bildur (13v).

Idazle arabar honi oraintsuan ezagutu diogun eskuizkribuan, herri-koplagian guztiz ezagunak diren formula bat baino gehiago darabiltza amodiozko konposizioak ontzerako. Bata:

Gure ortuan madari, / gurazaurik amabi; / beste amore bilatuko nax, / amore bear banadi (1168 [17r])

Gure eske-kopletan, batez ere etxeakoandreari edo etxe alabari zuzenduriko horietan, bada horren antzekorik, gaur ere herri-jende adinekoak ondo goioan dituenak. Bat, barbarako, Markinako hau:

Eder ortuan madari / mende berriek ugari, / etxontako neskatilliek / merkatariek amabi.

Edo Gernikako beste hau:

Zure ortuan madari / adarrak ditu amabi, / etxe onetako alabatxuak / balori dirudi (35).

(35) Javier Kaltzakortak zuzendu dizkidan koplok, lehenengoa Inesi deritzan andreari berak Markinan jasoa da, eta bigarrena «Belumendu» ezizenaz *Euzkadi* egunkarian Gernikako idazle batek argitaratua (1932-II-02).

Lazarragaren konposizio berean beste formula ezagun hau dugu, alde handi barik gure trikiti-kopla dantzakoetan entzun ohi den berbera:

Urtan eder arria, / aen gainea txoria; / amorantian lekidanari / atera neio begiak (1168 [17r])

Lexikora jota, gaur nekez da ezagutzen *zurubi* hitza sartalde honetan «eskilara» esateko. Halabaina *Alostorrea* baladaren lehen ahapaldiak gorde du hitzori, oraindino 83an Markinan bildutako bertsio honetan:

Alostorria bai Alostorria / Alostorreko zulubi luzia.

Testu idatzietan badira noizbait zenbait hitz, testuok berandu eta modu soltean idatzira trasladatu izanaren ondorioz, hiztegieta ere nekez ageri direnak, nahiz hitzok eurok berez zahar tankera guztizkoa izan. Horietakoa dugu *desborondate* hitza. Nire ikasle batek «Ana Juanita» balada ezagunaren bertsio bat jaso zion 81ean Bermeoko andre zahar bati. Ahapaldietariko batean *bere desborondatian* darabil, hau da, «gogoz kontra»:

*Ana Juanita ezkondutzen da / amaren d'aitan bozian; /
amaren d'aitan bozian eta / bere desborondatian.*

Sintaxi arloan ere bada bitxi ederrik herri-poesia zaharrean. Aipu dugun balada horretan, aurreratxoago, *batorrek / besteorrek* dio, guk gaur egun *batat / besteak* esango genukeen lekuan; *bat* eta *beste* zenbatzaileak mugatzaile singular hurbilaz, ergatiboan, gaur bitxi samarra gertatzen den kontua:

*Bateorrek agur, bestiorrek agur / alan despedidu giñian;
Eguna bi'zan seiñaladua / Santa Luzia gabian.*

Bide beretik, erdi galdurik edo galdu antzean den esapidea dugu, «nora da, hara da» erabiltzea «nora joan da, hara joan da» adierazteko. Holakok ere herri-poesian badiraute. Aurreko balada berorren Arratiako bertsio baten aha-paldi batek hau dio:

*Lantza zorrotz bat neunkan eskuban / yaurti neuntzen bularrera.
Lantzeau bere ain zan zorrotza, / bazan odola lurrera.*

Morfologia arloan aipa nezake *-tik* kasuaren lekuan *-rean* ablatibo zaharrrak bizirik irautea. Jakina da atzizki hau, edo *-reanik* horren ondorengoa, lehenagoko mendeetan aldendu direla hiztunen artetik, hitz fijatu batzuek gorabehera. Baina herri-poesian ugariak dira berorren lekukotasunak, ostera. Balada berorren Arratiako bertsio batek honela dio:

*- Ana Juanita ezin ezkondu / ni bizi nazen artian, /
urre katia eta medella / neuk dodaz idunerian.* (Ana Juanita, Arratia)

5.2.2. Herri-antzerkia dugu beste eremu paregabe bat, herri-hizkera baliabide berezi askoren gordairu gertatzen dena. Nahiz aspaldikoa den Barrutiaren gabon-ikuskizuna, nahiz gaurko hiztunontzat urrun gelditu XVIII. mendearen lehen erdiko berbakera, testuan ageri diren forma zaharkituak

gorabehera, hizkera-egitura asko eta asko daude gaurko hiztun peto-peto askok ere halatsu erabiliko lituzketenak, eta herri-hizkera jatorrenaren errainutzat jo beharrekoak.

Eman dezadan kasurako *damu izan* aditz lokuzioaren erregimena:

Adanek egin eban itsurik bekatu, / Aren da gure kulpak *damu ditugu*

Gaur ere herri-taiuko egitura dotoretzat joko genuke: *damu dut lehenago ez esana*, edo *damu ditut hartutako erabakiak*; jakinik ere bestela esan daitekeela, *damutzen naiz honekin edo harekin*.

Eman dezagun *zer gura izan* lokuzioaren erabilera ondoko kantuan:

Liau lau bere, *birao gura eztala* ene sabela

zeinda gaur esango bagenu bezala: *Ez naiz zuenera joan gura; neure etxean nago hobeto*.

Gaur entzuten diren antzeko harridura-egiturak idoroko ditugu berean. Gure parajeko euskaldun adineko batek baino gehiagok esango luke, bere buari erruki harturik: *Ai gure koitadue!* Edota ume ernegarazle batek egonarrira eta patxada galarazten digunean: *Umionen deungie!* Joera bere-berekoak ditugu Barrutiarenean eta beste leku askotan:

Eztot nik merezitzen zeugaz gelditzea, / Zer egingo neuke, *ai ene triste!* edo
Liau lau bere, liau lau bere, *gabaren alegerea!*

Xabier M^a Munibe, Peñafloidako Konteak ondu zuen *El borracho burlado* antzezlaneko euskal txatalek ere herri zehearen hizkera dakarkigute gogora.

Esamoldeen artean, gazt. «me las pagarás» adierazteko, *gogoango didak*. Edota solas barruan mendaturiko atsotitza: «Oh! y con cuanta razón / dijo aquel gran vizcayno: *Auntzak itxi baleio / Akerrak itxi leio.*» (EBB 6). Egitura bitzuk, Mogel ere jasorik dakartzanak. Ez baitute alferrik batak eta besteak markinar sorburua.

5.2.3. Gutun-generoa ere ez nuke bazter utzi nahi neure berba-ekarrian. Batez ere formaltasun gehiegizkoa jagon behar barik idatzi izan den gutunetako estiloaz ari naiz: senitarte edo lagunarte giroan eginikoez.

Bete-beteen ez lirateke hemen sartuko, beharbada, Izurategik Jerusalemgo Osteran amari bialduriko *idazkijak*, zeren, amari bialduak izanagatik, asmo goratuagoaz eta estilo hanpatuagoz idatzi baitzuen, etxekoen artean erabili ohi den hizkune zeheaz barik.

Errenkura barik sartuko nituzke, oster, Balentin Berrio-Otxoak amari euskaraz idatziriko gutun gogoangarri pozkarizkoak. Mezu-hartzaile bakarra edo ia bakarra dute gutunok, ama ia beti, aita ere bai batzuetan; eta estiloa ere gurasoentzakoa, etxekoagoa.



Bitxitasun bat besterik ez aipatzearren, gaurko euskaldunok ia ahaztua duguna, semeak gurasoari berorika egiteko usadioa: *illa bat oindiño ezta igaro, berorrek emondako plazua baino lenago akordau naiz* (36).

Ohartu, jatorduak direla-ta, egiten digun jateko-deskripzioari, darabiltzan izenak –maileguzko eta sustrai zaharrekoak–, etnografia aldeko balioaz aparte:

goizian artzen dogu txokolatetxua fotarekin eta baso bete ur azukerresauarekin; eguardiyan, sopia, azia, garbanzua, urdaiya okela tajada onakin, eta postrian, matsa. Arratsian afaitan oliyo azia, baña ez erozeinbe modutakua, beste fratel andi bat bete solomo edo okela, edo beste alako tajada onak daukazen gauzen bat, eta postrian matsa. (ibid. 34)

5.2.4. Ez gara gehiago luzatuko herri-literaturako beste generoekin. Errefrauen eta esaeren harrobian Azkue, A. Zabala, G. Garate eta beste batzuek eginiko bilduma nagusiez ostean, ugariak dira han-hor-hemengo bilduma laburrak, sarritan lurralde-eremu txiki bati atxikiak. Aspaldion holakoak asko ugaritu dira, eta ez gutxitan hurreko administrazioek lagundurik edota irakas-kuntza-eskakizunek zirikatutik.

Holako bilketak gordin-gordinean egin dira gehienetan, elaborazio gutxiarekin, eta horrek mugatzen du sarri, luma trebe baten faltan zubi egiteko, es-tilo idatzian txertatzea, edota ikaskuntza-planetan baliagarri bihurtzea (37).

(36) Valentin Berrio-otxoa (1988): *Euskerazko gutunak*. Bilbao, Labayru Ikastegia & Bizkaiko Aurrezki Kutxa. Kultur ekintza, 34.or.

(37) Urrunago joan barik, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Busturialde, Uribe-kosta eta beste eremu askotan egin dira bilketa mugatuak.

Ahotik harako kontagintzari ere ez diogu eragingo, zeri eragin asko dauka baina. Aparteko esangura dute genero honetan gure literatura tradizio apal horretako idazleren batzuk, ahozkotasunari etekin ederrik ateratzen jakin dutenak. Asko horien artean Urruzunoren bidez erakutsi nahi nuke ekarri honen garrantzia. *Euskalerritik zerura* izenburupean jaso zuen A. Zabalak *Auspoa* bilduman (5, 1961) Elgoibarko apaiz honen kontaera-sorta bat (38). Luma finaren jabe izanik ere, behin ere ez da urruntzen bere kontaera hiztun on baten tankeratik, nahiz idazlearen iragazkiak konta-jarioari beti eman ohi dion goragoko dotoretasuna. Herri-senak gidatzen du bere hizkera –agian hiztegiaren garbitxoago jokatu badu ere–, gramatikariaren hesietarik urrun. Horra herri-kontaeran zimendua hartu duen herri-idazle on baten eredua.

5.3. Herri-hizkeraren interesa hizkuntzaren barne-garapenaren aldetik

5.3.1. *Lexiko eta lokuzio eremua*

Begi bistakoa da hiztegi-biltzearen aldetik herri-hizkerak duen harrobi on-dargabea. Euskararen kasuan datu frogatua da, idatziz sekula lekukotu ez diren hitz asko eta asko bizi direla, edo bizi izan direla, hiztunetan, eta hitz-aldaeretara jo ezkeru, askoz gehiago.

Beste hizkuntzetan baino askoz gehiago, gure hiztegi-gileek hiztunengana jo dute hitzen bila; berdin esamoldeen kasuan ere. Horrek ez gaitu miretsi behar, literatura mugatua eta generoz are mugatuagoa duen hizkuntza baten kasuan. Hala jardun zuten –sartaldeko eremutik irten gabe–, ez Landucciok bakarrik –orduan nekez aurki zezakeen testu idatzirik–, ezpada Arakistainek, Añibarrok, Moglek, Iztuetak, Zabalak, Uriartek eta beste askok, aurretik eta atzetik. Hiztunak izan dira, gure lexiko tradizioan, hitz-biltze harrobi ia bakarra.

Jakina da, oster, lexikografia-zientziak aurrera egin ahala, eta hiztegi integralak egiten hasi diren momentutik, idatzira gehiago jo izan dela. Hala egin dute, ahozkoa baztertu gabe, Harrietek, Azkuek, Lhandek, S. Mujikak... eta askoz gehiago ondoren etorri direnek.

Baina ahozko hitzen biltze-lanari ez da eten; are gehiago, bizitu egin da, neurri handi baten dialektologia ikerketek hartu duten abiaduragatik, baina baita ere ahozko tradizioako jario hori betiko gal ez zedin beldurrez.

Eredu bikaina eskaini ziguten, orain aspalditxo, T. Etxebarriak Eibarko lexikoa eta K. Izagirrek, Oinati aldeko hizkera modu sistematikoz jaso zute-

(38) Oraindino oraintsu atera digu bilduma berean Urruzunoren beste bilduma bat, oraingoz bertsoz eta hizlauzko lanekin. (...)

nean (39). Gerora asko ugaritu dira, eta interesik gehien dutenak, sarrera-hitzen osagarritzat kontestu-adibide egokiak jaso dituzten haiek dira.

Ahalegin honetan ezinbestean aipatu beharra dut Labayru Hiztegia (2003) (40) eta bera eraikitzeke sortu zen datu-basea, zeren sarritan hitz jakin baten gaineko informazio osoa ez du jasotzen hiztegiak berak, baina bai azpian datzan biltegiak. Asko eta asko dira horra bildu diren hitzak, batez ere bizkaiera eremukoak, edota agertzen ez zirenak aurreragoko hiztegiengan, edota haietan jaso gabeko adiera batekin, eta batez ere hiztunen erabileratik zuzen jasoriko adibide fidagarriekin. Gure hiztegi honek eta beste batzuek egiten ari diren ahalegin hori funtsezkoa da material hori literatura-gai bihur dadin. Izan ere, hitz hutsa ez da berez ezer, fonema pilaketa bat besterik; hitz horren erabilgunea eta horren gaineko informazioa da benetan balio duena, idatzirako baliagarri izan dadin. Jasoriko hitz horren adierak zehatz finkatu direnean, kontestu-adibide egokiekin osatu denean, sintaxi-erabilerak argi geratu direnean, orduan da hitz hori literaturara esportagarri. Ahalegin hori egin duten hiztegiak dira luza-rora hizkuntza landuaren aurrerabidean eragina izan dezaketanak.

Tokian tokiko hizkeren hitz, lokuzio eta esamoldeen bilketa ugariak egin dira aspaldion euskararen eremu askotan, eta horrek korpus multzo ugariak utzi dizkigu eskuraerraz, hainbat sarean esekirik ere direla. Bilketa batzuk metodologia aldetik ondo taiutuak, baina beste asko nahas-mahas, denerik bata bestearen ondorik, eta ahozkoaren transkripzio soila ematen dela. Ezin ukatu horrek, orain hamarkada batzuk eskuraerraz ez zegoen materiale mordoia ipini digula aurre-aurrean, zernahitarako balio duena: lexiko zein gramatika ikerketak egiteko, edota literaturgintzan birrerabiltzeko. Hala ere, argiro dazagut, ugaritasun horrek beste barik ez duela bermatzen gure hizkuntza-kalitatea. Irakasleen, ikas-material egileen eta idazle trebatuen ahalegina behar da bitartean, harrobi horri onura ateratzeko. Batez ere idazlearen ahalegina, eta haren intentzio-ahaleginei esker izan dezake hitz edo esamolde batek arrakasta idatzian, hari esker bihur daiteke «literario» halako edo holako hitz edo esapidea.

Hurragora etorrira, Deustun irakasle-lagun dudana J.M. Etxebarria izenda nezake, gehienoi hain bazterreko egiten zaigun baina hitz zahar berezietan hain aberats den Zeberio aldeko bitxitasunak idatzira ekartzen egiten duen ahaleginagatik.

5.3.2. *Sintaxi alderdiko interesgune batzuk*

Gorago aipatu puntuez gainera, sintaxiaz dihardugula, baditu herri-hizkerak zenbait erabilera, edo azterka ekin ezkeror beharbada hainbat, ia bere-be-

(39) Izaguirre, Cándido (1969), *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*. Villasanté, Luis (arg.), ASJU-ren Gehigarriak 7, Donostia. Berrarg. Donostia, 1994.

(40) Hau osatzera etorri da gaztelania-euskara hiztegia, *Diccionario Labayru* delakoa, 2005. urteko abenduan.

reak dituenak, hau da, estilo idatziak gutxitan edo nekez beregandu izan dituenak, arrazoi diferenteak direla medio.

Ene ustea da –beste askorena ere hala dela-ta nago– hiztunetan indarrean diren sintaxi-moduak, maiz ahozkozkotasunari egozten zaizkion laxotasun edo arau nasaiegiak gorabehera, aberasgarri gerta daitezkeela estilo idatzirako. Ez dut honekin esan nahi, ahozko egitura guzti-guztiak idatzira eroatekoak direnik; idatziak beti baititu –eta hala behar du ere izan– ahozkoak baino lege finkoagoak, estuagoak. Zehaztu nahi dudana da, ahozkoaren lizentzia batzuk edota aukera batzuk guztiz erara datozkiola idatziari, estilo argi eta malguagoa edota diferenteagoa, alternatiba modura jadetsi orduan.

Sintaxi eremuan ere, ahozkoa idatzia baino bizkorrago ohi doa aurrera, eta hiztunen ezpainetan bide luzea egin eta gero sartzen dira apal-apalik egitura asko idatziaren ataritik. Agian euskararen kasuan, gure literatura bere osotan begietsita, arin eta errazago sartu dira beste hizkuntza kultistago batzuetan baino (41).

Gure hizkuntzaren morfosintaxi-marka nagusi batzuei denboraren joan-etorrian oihartu baino ez dago, ahozkotasunaren idatziarekiko eragin etengabe horren oinatzak susmatzeko.

Auñamendiz beheko eremurik gehienez ura legez zabaldu den aditz perifrasi jakinak, *joan egin da*, *galdu egin dira* erakoak, ia ez ziren azaltzen XIX. mende hasierako testuetan, eta mende horretan aldirik gehienez ere ez asko; eta bizkaieratik kanpora are gutxiago. Hura ta guzti ere ahozkoaren indarrak bere legea gailurtu du. Lehen ez zen zerbait garatu du hizkerak; beharrak eraginda, dudatzeke. Aditz bidezko ekintza-adierazte bat *egin* txertatuz adierazten da gure artean gaur egun, lehen ezer erabiltzen ez zen lekuan. Euskararen ekialdean, aldiz, ez du horren premiarik sentitu hizkerak.

Beste batzuetan –gehienetan esango nuke– erraztera jotzen du ahozkoak. Idatziak dituen zenbait berezitasun edo bide berezi erraztu edo bakartu egin ohi ditu maiz. Jakina da gure idatzi zaharretan, nahinongoak direla ere, izenak mugatzaile hurbilaz markatzeko joera handiagoa zegoela, aldi batetik honuzkoetan baino.

Hala gertatu da ekialdetik sartalderuntz datorren neutralizazio-prozesu bat, zeinen bidez hurbilaren lekua mugatzaile generikoak beregandu baitu. Eta euskararen sartalde honetan ere, idatziz behintzat, idatzi zaharretan baino askoz mehatzago darabilgu markatzaile hurbila, nahiz sarritan ahozko joera horretan bat ez etorri.

(41) Esana dugu jadanik, euskal literatura klasikorik gehienak, duen izaeragatik, hiztun arruntei zuzendua edo gehienetan hauek belarriz entzuteko idatzia dela gogoan dugula, hiztunen erabilerari makurtu samar jokatu du, aldian aldian eta lekuan lekuan, eta ez die, gehiegi behintzat, aurreko idazleen parametroei jarraitu.

Axularrek oraindik XVII. mendean honetara idazten zuen:

Gure lehenbiziko aitaren bekhatua dela kausa, harengatik, haren kariaz, *guztiok* gaude preso, *guztiok* gaude mundu hunetako garzele hunetan, heriotzera kondenatuak (Ax zb 36)

Guztiok nahi dugu salbatu, guztiok nahi dugu ioan parabisura, eta guztiok dugu esperantza. (Ax zb. 167)

Amendux-en eresian:

Ene anima duzuen gomendatu, garitates mobiturik
Zarraizkidate g[...] bertan itzok ongi notaturik.

Sartaldean berton ere mugatzaile hurbilik ez darabilgu XVI. mendean generabilen ginoan gutxienez, nahiz ahozkoan idatziz baino askoz testuinguru gehiagotan bizirik dirauen:

Pobreonentzat, oi, gatzik asko, / *aberatsonek* doblea. / Mutil-neskatoz lenaengoa / bete bear dau etsea (Lazarraga 1196, 42r2)

Ditxabageau joan ninzan / ezer бага eskuetan, / *etsaiorrez* / topa nindin gradaetan (ibid. 1197, 43r1)

Ez da agian zaharregia izango, *alperrik* adberbioaz baliatzea hizkuntza, perpaus buruan ipinita, zentzu kontzesibo markatuzko egitura eraikitzeko. Ahozkoan eta sartalde honetan garatu den egitura dirudi; lehenagoko idazleek, agian ezaguna bazuten ere, bakan erabili zuten horretarako, eta beharbada euskal gramatikaren azterrenik ere ez zuen baina etxeko hizkera aberatsaren jabe zen Balentin Berriotxoak darabil behin eta berriro amari eginiko gutunetan, hizlaur zein erdi bertsotan:

Alperrik lurrian nekez jan artua, / bizitza pobria zerurako da atajua, / ez larregi desiatu dirua. // *Alperrik* izan urria ederra, / galtzen bada gure anima bakarra, / ezta faltako begiyan negarra, / ez lepuan sua eta garra. (1988, 61)

Irrika biziz nahi dugun zerbaiten guraria adierazteko, *oxala* maileguzkoaren lekuan, aspalditik datorrena da, hizlaur zein neurtitzez ageri den *arren* aurre-hitza, gaur tamalez balio horretan lausotua. Aboitz lekeitiar bertsogile zaharrak honetara zioen bere bertsotarikoa baten:

sekula asmo obarik / zeuk ez dozu artu; / *arren* askoz lenago / otu *balitxatzu!* (J.A. Aboitz)

Edo gure Zabalak herritarrei entzuniko legez jasorik dakarren hizlaurko esaldi honetan egitura bera (42):

(42) Edo beste hau: «Bideetan, caleetan, ta plaza agui-ri-guiñoetan entzuten dira berdezkeriac, icen charrac, bastokeriac, ta zantarkeria eskergaac; icusten dira ukiera [ucutza] deungaac, oracadaac, bultzada gaistoac, ta triscoac; ta *arren* bada Elesha santuac eurac alangoric *ezpalentze* ta *ezpalecuse*» (JMZab Irun 142), «Eta ceuen artean icusten da alango gauzaric? Ay! *Arren* bada *ezpalitz icusico*; baya lar bere lar icusten da.» (JMZab Arantz 256).

Geienetan gatxen bat egin deusuenean, azaren batzuk kendu badeutsuez, esan oi dozue: *arren bada* beso biak igartu dakiozala (J.M. Zabala)

Ojala jaio ezpagiña ori ikustekoan! *Arren bada* ilko bagiña egun gorri ori ikusi baño lenago (JMZab Arantz 278)

Herri-hizkeraren lekukotasunak, zaharrak eta ez hain zaharrak, hor dauzkanak, batzuek hiztunen oroimenean, besteok idatzietan barrena.

6. ONDORIO GISA

Esandako guzti honetatik, ondorio ugari eta diferenteak atera ahal balitez ere, batzu-batzuetan finkatu nahi nuke oharrena. Ondorio baino gehiago, gure hizkuntzari diogun atxikimenduak eraginiko sentierak dira, aholku gisa hemen garandu nahi ditudanak, gaur egungo eta geroko gure hizkuntza idatzia- ren zimendu trinkoago baterako balia dakizkigun.

6.1. Egin ditugun oharpen eta hor ezarri adibideetarik argiro dakusaguna da, iragana, gure literatura iragana uste baino hurragokoa dugula gaurko hiztun euskaldunok, eskola eta azala alderatu ezker.

Idatziz, aspaldiko testueta-ri ageri diren hainbat hitz, esapide, sintaxi-egitura eta bestelako baliabide askoren oihartzuna gaurko hiztunetan ere erraz aurki dezakegula, leku batean edo bestean, batez ere hiztun zahar, bizimodua euskaraz egin dutenetan.

Eta itzulitara begiratuta beste hainbeste: herri-hizkeraren baten beste inon ez lako harribitxi bat aurkitu uste dugunean, idatzi zaharren baten ere bila dai-tekeela berorren azterrena.

Beste hitzez esanda, tradizioa eta modernitatea, uste baino gehiagotan daudela zubiturik, eta zubi hori sendotzen egin behar dugula indar, baldin ge-roko hizkuntza oparoa eta mardula izango bada.

6.2. Bigarren oharrena. Idazle saiatu eta ahalegintsuen ekimenari esker egin du orain artean aurrera batez ere gure hizkuntza landuak, edo esan deza-dan, hizkera idatziak. Ahalegin barik edo berez legez, ezer berririk gehitzeko kezka barik idatzi denean baino gehiago goratu da hizkuntza, idaztea jardue-ra neketsu eta ahalegintsu gisa ikusi duten idazleei esker.

Lehenagoko mendeetan halaxe egin izan dute, batzuk beste batzuek bai-no gehiago, Axular, Oihenart, Larramendi –gehiago ez ahal zuen idatzi behar euskaraz–, Mogel, Iztueta edo Zabala batek. Edo oraintsuagoan berdin Orixe, Lizardi, Mitxelena edo Erkiaga batek. Eta gaur beste hainbatek.

Tradizio idatzi zaharrak eta berdin herri-literaturak edo herri-hizkerak ba-rrenean badituzte hizkuntza-baliabideak ugari, irakurtze-ikaste-hautatze jardun

egingurako batez dautzan lozorro hortatik jaregin eta gaur egungo testu-sorkuntzara ekarri behar liratekeenak; nork ahal duen ginoan, nork bere sentiberatasunari men eginda, baina beti ere, automatismoak bazter utzita, nekea hartuz.

Sortzaile diren idazleek dutela esango nuke horretan erantzukizun nagusia, ez bakarra baina. Testuak arin eta presaz idaztera beharturik daudenei ezin dakiete hainbeste eskatu, baina hala ere, gaur egungo hizkuntza-corpusek eskaintzen dizkiguten erraztasunak bide direla, kazetari, itzultzaile, gidoigile eta bestetariko idazleek ere pila lezakete euren garautxoa.

Esan gabe doa, gure irakaskuntza-sistemaren erantzule diren profesionalak ere, hala irakasle, nola material didaktikoen prestatzaile, aparteko erantzukizuna dutela umeak mintzo diren inguruko erregistroak ezagutu eta irakasteko.

Euskarazko testuak kalitatez goratzeko eta baliabidez ugaritzeko har dedin neke horrek fruituak ere hobeak ekarriko dizkigu luzarora, eta hori izango da ondoko belaunaldiei oinordekotzat utziko dieguna.

Jaun-andre neureak. Esan dot.

ZAHARRAK BERRI, EUSKARAREN BIZIGARRI

Andres Urrutia Badiola

Eguerdi on guztioi!

1. ALDEZ AURRETIKOAK

Bizitzan ez da sarri gertatzen egun zuen aurrean ikusten duzuen, alegia, behinola maisu eta ikasle izanak, gero adiskide eta lankide izatea. Hogeita hiru urte geroago, halakoxea da Adolfo Arejita eta nire artekoa. Menturaz, ez berak, ezta nik neuk ere, ez genuen uste halako atakan ikusi beharko genuela gure burua, bera hizlari eta ni erantzule, bere sarrera-hitzaldian, non eta Euskaltzaindian, eta, gainera, Bilboko udaletxeko areto eder honetan.

Izan ere, 1982. urtean izan nintzen Adolforen ikasle, Labayruren Udako Ikastaroan. Gaia, *Euskal testu zaharrak*; testu-liburua, Koldo Mitxelenaren *Textos Arcaicos Vascos* aurkiezina, Minotauoren argitalpenean; lekua, Derioko eliz mintegia; eta jagole, hobe ez, Ander Manterola. Albo-albotik, bera ere irakasle, Karmelo Etxenagusia, Iparraldeko idazleen isilpekoak agerian jartzen zizkiguna, gure harridura eta gozamenerako. Lantzean behin, Xarritton ohar-tua ere, gure irakasle, idatziz ez ezik, mintzoz ere mugaz haraindiko euskara gozoaren doinuak ezagutu ahal genitzan.

Bandera eta goiburu genuen Mikel Zarate zenaren asmoa eta gogoia, Ander Manterolak biziberritua eta ondua. Jakina denez, *Dakigunetik ez dakigunera* gindoazen, gogotsu eta asmotsu, gure burua euskaldun egiteko konbentzimendu osoarekin. Belaunaldi bateko kide ginen, eta, bistan da, ikasle izan ginenok, gerora ere, alegia deus ez, irakasle izateko tenorean ikusi genuen gure burua. Horrek eman zidan parada ezin hobe bertara urtero-urtero hurreratzin ziren hainbat lagun ezagutzeko, egun euskalgintzaren barruan egile esanguratsuak direnak. Inoizkorik beteenean ari ginen hantxe, udako uztailaren sargorian, euskara batuaren nondik norakoak aztertzen, nork bere herriko euskal xehetasunak garatzen eta barruratzin... betiere, elkarrekiko harremanetan, kantu, bertso eta antzerkirako abaguneak bilatzen.

Arkadia pozgarri artan, alabaina, baziren une larriak eta estuak, batik bat, azterketa-ordua iristen zenean, bigarren astearen hondarrean. Gero, azken egu-

nean, berriro ere, umoretsu eta alaitsu, norbaitek txistua ikasgaien zorrotik atera, eta hara non, ostera ere, musika eta dantzaren alaia, *datorren urte arte* amultsua elkarri esanez, bazkalondo adiskidetsuan.

Horraino testuingurua. Testua, aldiz, bestelakoa zen, Adolfo Arejitak beti-beti zehatz eta ardura handiko irakasle moduan agertu zuelako bere burua. Bera susperle, aukera izan nuen, *Idatz&Mintz* aldizkarian nire lehen testuak argitaratzeko. Ondo gogoan dut haren erantzuna, nik bidalitako materialari buruz: «... Andres Urrutia, harako abokatu euskaltzalea...». Esan gabe doa harrezkero ere maiz izan garela hizlarikide, ikerkide, bazkide, bultzakide... eta, ororen gainetik, irizkide eta adiskide. Ez beza inork pentsa horretan joera makurrik eta soberaren zantzurik. Ikus beza edonork euskalgintzarako lerrakera bertsua, eta euskara eta euskal kulturari dagokion egoeraren diagnostiko parekatsua.

Bagenituen horretarako osagai erkideak. Biok bilbotar izan, eta bi-biontzat erakargarri eta erakusgarri zen halako aldarte eta iritzi zabala, Bilbon suertatu diren kultura-aldaketen erakusle. Amak maistrak genituen; herri txikieta-ko familia eta mintzaira euskalduna ere esku betean, gure gurasoak gerra osteko bilbotar etorri berriak baitziren. Gu geu, aldiz, bilbotar ginen jaiotzez, eta bagenekizkien gure hiriak zituen aspaldiko tradizioak, euskalduna zein gaztelaniaduna. Azkue zein Unamuno geure-geureak genituen, G. Aresti eta M. Zarate geureganatzen genituen bezalaxe. Funtsean nabarmen zitzaigun, Francoren Bilbo itogarri hartan, kulturaren premia eta beharra.

Ez gara gu Bilboko giro horretan hazitako bakarrak, gurekin batera baita, Euskaltzaindian bertan, Xabier Kintana adiskidea, euskara gogoz bereganatu zuena, bere bilbotartasunaren seinale zalantzagabekoa. Horra hor hiru euskaltzain oso bilbotar, eta horra hor, adiskidetasunean, Kristo, Indautxu eta Zabalbideko kalekumeak, Bilboko udaletxean baturik, euskaraz eta arabiar areto ederrean. Baten batek esan bezala: *Berrogei urte eta gero hau!*

2. ADOLFO AREJITAREN NONDIK NORAKOAK

Derioko eliz mintegian ikasi ondoren, Deustuko Unibertsitatean atera zuen lizentzia, Filologia Erromanikoan. Harik aurrera, Adolfo Arejitak bere lehen urratsak orduko euskal komunikabide urrietan eman zituen. Urte luzeetan Adolfo Arejitaren ahotsa izan zen Bizkaiko Herri Irratiaren bozgorailu egokia, hamaikatxo elkarritzeta, programa eta ospakizunetan euskararen oihartzuna aldarrikatzen zuena, eta, areago, euskararen lekukotza bizia zekarrena, euskaldunen aho-mihietan.

Bazen horretan ezkutuan eta baztertuta zebilen tradizioa. Bazen, zernahi gisaz, tradizio hori berriztatu beharra. Hartara jarri zen gazte-andana, Adolfo bera tartean, arestian aipatu lege, Deustuko Unibertsitatearen ikasgeletan Filologia Erromanikoaren azpian euskarari ere berea eman nahian. Jakitun zineten garai hobeak etorriko zirela, eta, horren esperantzan, bakoitzak bere aldetik, osteran-

tzeko ekimenetan lotu zenituzten zuon indarrak. Hitz batez esateko, horretara lanzaletu zineten, euskalgintza bete-betean. Deustuko Hizkuntza Eskola Ofizialaren ahaleginak ere, aparte ez, egun hemen zaudeten askoren biografian.

Aldi berean, Labayru Ikastegiko ikastaroak. Harrezkerokoagoa, Deustuko Unibertsitateko eskolak eta doktorego-tesia, Labayru Ikastegiaren euskara-arloaren ardurarekin batera. Euskararen inguruan morfojoskera eta lexikografia ikertu, aztertu, irakatsi eta horretarako lantaldeak kudeatu ere bai, ikuspegi hori sarri-sarri uzten baitugu bazter euskalgintzan. Ezin alboratzekoak berak moldatu dituen euskal idazle askoren lanak atontzea eta argitaratzea. Hori dugu ezinbestekoa, ikerketa sendo baterako noraezeko eta nahitaezkoa dena.

Ez dira atzo goizekoak Adolfo Arejitaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak. Euskal Gramatika Batzordekide izanari gehitu behar zaizkio hamaikatzoko neke eta buru-hauste, egile berrien literatura-lanak epaitzeko, mahikidetzea gozo bezain astunetan.

Norbaitek galdetuko balit zein izan den eta zein den egundaino ere zure ekimenaren ardatza, zalantza-ñimiñorik gabe erantzungo nioke zuk zerorrek gure aurrean erabili dituzun hitzekin: *Gure tradizioari ze etekin atera*. Horra hor, nire ustez, zure ahaleginen eta egitekoen giltza eta gakoa.

Dena delako hori ez da, horratio, zeregin laburra, aspalditik baitabil gure artean arrangura zatatsua, mundu berriaren teknologia gero eta zabalago zai-gun neurrian. Gibelamendu eta atzerakuntzaren mamuak ikusten ditugu, beste behin ere, gure artean, euskarak aukera historiko honetan aurrerabide egokia egin dezan. Bada, hor bazterretan, euskara bera lantzeko asmoa agertzen duenik ere, inolako aurrerakinik ez balego bezalaxe. *Utikan!* esango du horrek behin, birritan, hiru aldiz ere, aurreko guztiak kareletik bota arte. Zurea, berriz, beste haritik dator, argi ikusten baituzu, zehatz erakutsi duzunez, teknika berriak euskararen zerbitzuko jarri behar direla, teknika hutsa arimarik gabeko jostailu hutsala baita, eduki sendorik eta ondo galbaheturik ez badauka.

Hara, Adolfo, zuri entzuten nengoen bitartean, etekinak ateratzeko gintza horretan murgildu dut nik ere nire burua, zuri entzun ahala, burura etorri baitzait bestelako kontu bat, hots, euskararen ahozkotatun klasikoak baliatu beharra. Bada hor erretorika jori eta paregabea, hitzetik hortzera eramaten gaituena premiazko dugun horretara. Egin-eginean ere, ez gara oraindik gauza izan erretorika zaharra, sermoiena, hain zuzen ere, gureratu eta gure irakasleei erakusteko, lagungarri ez ezik, baliagarri eta gozagarri izan dakien ikasgelan zein osagai didaktikoetan. Berba batez, egiteko dugu Mendebaldeko Europaren herri gehienek egin dutena, gure euskararen hitz-jario erlijiosoa laikotu eta zabaldu, jendaurrean euskaraz hitz egiteko ardura dutenen artean behinik behin.

Bestera esateko, katalan hizkuntzaren eremuan inoiz plazaratu dena:

Seria molt important, per als doctorands, que hi hagués unes proves, una revàlida que permetés valorar la capacitat d'eloqüència i la capacitat de verba-

lització d'un professor. Als països protestants han tingut ´enorme sort que, per tradició secular, els professors unibersitaris han copiat els models de la prèdica. A Amèrica i a Anglaterra els professors són habitualment excel lents pel que fa a aquesta qüestió de la capacitat de comunicació. Són d'una eloqüència extraordinària. L'exegesi bíblica i el sermó, en aquests països tenen una gran importància. La importància d'aquesta tradició es troba no solament en l'àmbit universitari, sinó també en el polític, en el parlamentari..., cosa que aquí no tenim. Al que vol ser professor universitari, l'hauriem d'ensenyar a «discursejar». S'ha de saber engrescar els estudiants (1).

3. BILBOTARREN TRADIZIOA: AITA JUAN MATEO ZABALA GOGOAN

Horretarako, bistan da, behar-beharrezkoa da hainbat baliabide lexiko, sintaktiko eta gramatikal ekartzea. Zuk zerorrek batzuk aipatu dituzu. Nik neronek beste batzuk gogoratuko ditut, testu idatzizko zein ahozkoetan zokondoa utzi ezinak direnak. Horretarako erabiliko dut harako idazle bilbotarra, Aita Juan Mateo Zabala (1777-1840), berarengan biltzen baitira, bi mende lehenago, zugar aukeratu ditugun ezaugarriak eta zertzeladak.

Hura ere bilbotarra zen, gurasoak bizkaitarrak baziren ere. Hura ere, zu eta hainbat bilbotar bezalaxe, familia elebidunekoa, euskararen eta gaztelanien jabe ziren horietakoa. Harengan ere, zure kezka bera, euskara noranahi eta nonahi zabaltzeko eta barreiatzeko, ikerketa eta azterketaren bidez. Harentzat ere, zure moduan, euskara mintzagai ederra, pulpiturik pulpitu, euskal herritarrei sermoien bidez fede katolikoaren mezua adierazteko.

Aldi nahasian bizi behar izan zuen hark, eta Bilbotik gazterik joan arren, fraide gaia Bilboko euskararen lekukoa dugu (2). Haren eskutik ezagutu ziren euskal letretan alegiak eta fabulak, lan bibliografikoak, eta, batez ere, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*, bera hil ondoren Donostian argitaratu zena.

Haren testuetan, zure esanaren arabera, hamaikatzko xehetasun ditu lexi-ko, gramatika zein estilistikaz, egun ere baliagarri izan daitezkeenak. Aipa ditzadan batzuk, gure belarrietan bitxiak esan arren, euskararen izateari erro-errotik dagozkionak.

(1) LLOVET, JORDI: «Amb vocació d'humanista», *Serra D'or*, juny 2002, 510. zk, Montserrat.

(2) VILLASANTE, LUIS: *Aita Juan Mateo Zabalaren Sermoiak (I)* Real academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia. Bilbao 1996, XI. orr. : «15 urte zituela frantzizkotar Ordenako habitua hartzen du eta Nobizioadua egiten. Non? Ez dakigu. Aita Larrinagak dioenez, Bilbon ez zuen hartu habitua, beste komenturen batean baizik. Apaizgorako ikasketak ere Bilbotik kanpo egin zituen, Kantabriako Probintzi barruko etxe-komentuetan, hots, erderaz egiten zen herrietako komentuetan. Zein herritan, ordea? Ez dakigu. Orduñan? Gasteizen? Edo Arabako beste komenturen batean? Ez jakin. Dena den, berberak esaten du orduan dorpetu eta atzeratu egin zela euskeraz.

Haren sermoien lehen liburukia dut gidari, Aita Luis Villasantek paraturiko argitalpenaren bidez. 1996. urtean agertu zen, Euskaltzaindiaren Euskararen Lekukoak bilduman.

3.1. Lexikoa

Lexikoaz denaz bezainbatean, egun ezezagun zaizkigunak:

Damuaria (11.or.)

Lotsaria (67 . or.)

Alaguina: Ta berean dagozan gauzac iñurri bacar bat alaguiña bere ez-tirian (66. or.)

Laguntegui: asi yacan laguntegui andi bat deadarca eske (73. or.)

Disimilazioaren bidezkoak: *arpelic* (232. or.)

3.2. Morfojoskera

Deklinabidea

Guisasemeac guisasemeetara (8. or.)

Emacumeac emacumeetara (8.or.)

Baacutsue ceinbat doian guerizaric eta gorputzera, irudineric eta izatera? Bada hori guztiori doa nic esan dodaneric eta J.C°.c equin evanera (8. or.)

Ecer-ezerik (45. or.)

Noguiño helduten dan (85. or.)

Aror pecatari itsua... aror celango osasunguei...aror celango precioa bear izan dan zure zorrac quitu eta paguetaco (101. or.)

Adberbioak

An oparo yan, naroro edan, galanto yanci... (43. or.)

Deungaro equina (4. or.)

Aurtemin (71. or.)

Aditzak

Aginteran erabiltzekoak: *Erdue bada cristiñau onac...* (46. or.)

Esan /iron: *zauri orreec dirauste...* (91. or.)

Ecce homo dirautse... (77. or.)

Hika testuinguru markatuan (3) [Judas apostoluak Jesukristori: *ic esan doc Yangoicoaren Seme asala i: guzurra doc ori. Ic esan deustac, baakiala ic, ni cetan nayabilen: echoat nic ire arduraric. Orche yaiozac, iri eracutsico deuenac?* (69. or.)].

Aditz lokuzioak

Ernegadu aguinean (3. or.), *il aguinean* (62. or.)

Perpaus koordinatuak

Zuenac dira gauza guztiac, nai dala mundua, nai dala bicitzea, nai erio-tzea, nai aurrean daucazuena, nai guero etorrigo dena. (83. or.)

Perpaus distributiboak

... eta alan diño san Agustinec ce, celan Jaungoicoac guizona beretzat eguin evan, alan guizonentzat eguin evazala gauza guztiac... (83. or.)

3.3. Lokuzioak

Berehala sumatzen ditugu haren lerroetan halakoak, usu erabiltzen baititu egun falta izaten ditugunak:

Onantzean eta arantzean (8.or.)

Onic onenean (9.or.)

Orain bereon (9. or.)

Inoren buruco sitza icusi oi da, eta norberen buruco otsoa ez (10. or.)

Alanbere celan-alan (35. or.)

Minen minez (39. or.)

Bein-danic bein icusi cituzan asco ta asco (65. or.)

Baliabide estilistikoak (konmutazioa): Il da Yesucristo gugaiti: gugaiti il Yesucristo (59. or.)

Doa doaric emoten yacu ceimbat gura (19. or.)

3.4. Arlo bereziak

Harrigarri badirudi ere, idazle zaharrak ezin agortu ahaleko iturriak dira gu-retzat ere. David Crystal hizkuntzalariak esan legez, gizarte-maila duen orok eska

(3) ZAVALA, JUAN MATEO DE: *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*. San Sebastián, 1848. 166. or. : «25. Igualmente en la pasión del Redentor estarían bien puestas en conjugación de *ic* las expresiones que los Judíos y soldados dijeron a Cristo con desprecio y desacato...»

dezake hizkuntzaren aldetik zehaztapen eta izendazioa. Halaxe esan digu Areji-tak berak ere, hots, *ahalegin berarizko bat egitera behartuak gara uneoro, edo zuzenbidea dela, edo filosofia dela, edo zientzia zehatzak direla... edo adminis-trazioak barrutzen duen eremu zabal-askotarikoa dela, kulturak sortzen dituen kontzeptu berri guztiei euskal ordezkioak bilatzen eta ahal dela ondo asmatzen.*

Asmatze horretan, bistan da, euskaldunok aspalditik ari gara. Tamalez eta ondamuz, askoren ahaleginak ezezagun zaizkigu, denboraren joan-etorriak ezabatu dituelako haien zantzuak.

Badira, hala ere, guregana iritsi direnak, azal horiztatu baina mami sen-doarekin. Horra, berriro ere, egunotako auzia: haietatik zer ekarri eta zer utzi bazterrean. Zilegi bekit, gureztat puri-purian dagoen arlo bati helduz, harako esamoldeak biltzea, tradizioetik zer hartu zeregin horretan. Zabalak hezurma-mitu zituen horiek, barra-barra zebilena idatziz eta onduz, gerora ere, entzule euskaldunek aise eta molde errazenean uler zezaten:

3.4.1. Justiziaren erakundeak eta auziak

Cabildu beneragarriac, yusticiaco yaun prestuak (3. or.)

Belan querellea; escribaua batetic, letradua bestetic; gastetan da dirua, ichiten da bearra, eta au guti au ontzat eroaten da, yagotearren onrea (31. or.)

Cimbat onelango auci ikusten dira mundu zabalean! Gozetan dira erren-ta andiac , baya eta lauciri emon gura ondasun oneec ichicituezanac gaitic (271. or.)

3.4.2. Salerosketa eta tratuak

¿Ceinbatec Zakeoc leguez lortu izango dozuez ceuen diruac legue eztan bidetic, eta artu-emon eta salduerosi okerracaz? (12. or.)

3.4.3. Zergak

Erregueari zor yacazan contribuciñoac (pechuac) paguetea galarazo gura evala (49. or.)

3.4.4. Foruak eta lege bereziak

Azotiac eta curutzeango eriotza lotsagarria cirean Erroma-tarraí, eta eu-ren foruac zituezan nobleai ecin emon leikioezanac... (75. or.)

3.4.5. *Jabetza eta eskritura*

Irudi gisa erabilia: *J. C. °c quenduten deutso Demoniñoari zure ganean eucan escriturea, borretan dau, urratuten dau; eta yosten dau curutze orretan, eta zuc eguiten dozu escritura barria Demoniñoagaz, ceinen bitartez eza gututen dozu ceure ugazaba eta nagusitzat... (103. or.)*

3.4.6. *Testamentua*

Badauco cegaz atera testamentuan ichi cirean aguindu eta mandaac, eranzungo dau eztaucala obligaciñoric, eta ifinico dau auci bat ez paguetea-rran (270. or.)

4. ETORKIZUNERAKO NEKEAK

Euskararen akademiak lan ugari egiten ditu. Lanok ugari izan arren, beharrezkoak ere badira euskararen aitzinamendurako, Akademiak berak jatorrizko konpromisoa baitu euskararekin, berori ikertzeko eta jagoteko. Aldiotan, alabaina, ikerkuntza bultzatu beharrean gaude, berori baita oinarririk sendoena hizkuntzaren bizitzan eragin zabaleko izan daitezkeen erabakiak modu fidagarrian hartzeko.

Bitarikoa da, hortaz, euskararen corpusarekiko dugun egin- beharra, ikerkuntzarekin batera, ikerkuntza horien fruituak gizarteratu eta kanporatu beharra dagoelako, batez ere akademiaren eskutik. Maiz jazotzen dira bidegintza horretan tirabirak eta teinkada gogorrak, batzuen eta bestetzuen zereginak egoki zertu arte.

Berrikitan izan dut eskuetan katalan hizkuntzaren eremuan eginiko lan zirrargarria (4). Bertara bildu ditu egileak ahozkoa eta idatzizkoa, hizkuntza-erregistroen arabera egoki mailakatuta. Hartara, ahozkorik ahozkoena oinarri hartu eta hortik aurrerako pausoak eman ditu formaltasunaren sailkapenean, bigarrenez unibertsitateko ahozko eskolak ikertzeko; eta bi erregistro horiek haztatu ditu, azkenez, unibertsitateko testu idatziekin. Ondorioek, bistan da, berrindartu egin dute lehendik genekiena, baina guztiz baliagarri dena gure kasuan ere, hau da, ahozko hizkerak bateratzen dituela entonazioa, testu-loturak eta perpaus-konposizioa, hiru osagai horiek zehazten baitute hark behar duen premia komunikatiboen egokitasuna. Aldiz, idatzizkoa sintaxiaren alderakoa goa da, gramatikalizazio-maila sakonagoa duela.

(4) Castellà Lidón, Josep M. (2004): *Oraltat i escriptura. Dues cares de la complexitat del llenguatge*. Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Barcelona.

Ahozkoak osagai linguistiko urriagoak erabiltzen baditu ere, osagai horiek balio ugariagoak dituzte. Lokailu gutxiegi badira ere, horietako bakoitzak erabilera desberdin gehiago ditu. Euskararen konektore eta lokailu horiek idoro beharrean gaude, gure premien arabera jokoan jarri eta baliatzeko. Altxorra, zer esanik ez, testu klasikoetan da, idatzizkoetan nahiz ahozkoetan.

Beharrik, teknikak eta makinak ditugu egun horretarako bidelagun apropos, eta, euskararen corpusak moldatzen ari garen honetan, idatzizkoa ez ezik, ahozkoa ere aintzat hartzeko modukoa da. Horretarako argumentuak erruz eta zoli eman dizkiguzu, eta ez izan beldur, ondo jasota daude horiek, geroko batean, gaur uste eta asmo dena, bihar-etzi izaera eta muin izan dadin.

5. KODAREN ANTZEKOA

Adolfo Arejita bilbotar euskalduna hartzen dogu gaur Euskaltzaindian. Badakit urte askoren buruan zure ametsa eta bizipozak bete dirana. Zorionak. Zorionak, berebat, zure emazteari, Laura Urubururi, zure seme Iurgi eta alaba Olaiari, etxekoei, eta Labayru Ikastegian urte luzetan zehar zugaz behar egin daben beste askori be, euskara aurrera eroan dozuelako, egoarri eta ahalegin handiagaz.

Gaur egun pozgarria dozu, Adolfo. Ohorea, dedua, aipamena egiten deusugu, euskararen alde eta mesederako egin dozun lan bikainagatik. *Honores mutant mores*. Halaxe esan ohi da. Horrexegatik da gaurkoa egunik aproposena zuri azaltzeko zugandik espero doguna, hau da, orain artekoaz gain, zure ekarriak Akademiaren zereginetan jartzea, kargua hartzen dozulako eta karga handiagaz jardun beharko dozulako. Horiek horrela, Adolfo, luze baino lehen ikasi beharko duzu *honor* eta *onus* batera eta ber-bertatik deklinatzen.

Horretarako nahi zaitugu, gugaz bat egin eta lan egin dagizun, euskara gero eta aurrerago joan daiten. Ez daiten gerta, zuk zerorrek inoiz landu dituzun Bilboko Gabon Kanten esamolde haren antzera, euskaldunak halakoxeak be ez izatea:

Bakotxak bere izkuntza/ azturik badegu/ bakian gagoz eta/ ikasi bihar dogu./ Zerren ezipadakigu/ euskaraz berbeiten,/ nork igerriko gaitu/ bizkaitarrak garien?

Igarri ez ezik, ageriko nahi du Euskaltzaindiak euskara, Bilbon eta Euskal Herri osoan. Horretan du eginkizun, eta horretarako izan nahi ditu zure jakituria eta laguntza.

Mila esker. Esan dut.

ONDOETORRIAK: Adolfo Arejitari omenaldia

Morga, 2005-VI-24

*Iñaki Lejarraga,
Morgako alkatea*

Eguerdion eta ongi etorriak gure herri honetara.

Herriko plaza honetan alkartu gara Adolfo Arejita euskaltzaina eta gure herritarrari omenaldi txiki bat egiteko asmoz. Danok dakigu Adolfok egindako lanak ugariak eta esanguratsuak dirala eta izango dirala euskara eta euskal kulturaren alorrean; baina nik horretaz ez dot berbarik egingo, hemen zagozienok nik baino hobeto dakizuelako horren barri, baina bere bizitzari buruz bai gura neuke zerbait aipatu.

Adolfo, Manolo eta Maritxuren semea dogu, bost seme-alabetatik laugarrena. Seminariora joan arte Morgan bizi izan zan, *Meaka* auzoan, *Iturrikoe-txe* baserrian. Handik *Meakaur* auzora jaisten zan, Gordo maisuaren eskolak eta kokotekoak hartzera; baina ez pentsa Adolfo bera be santutxua izan zanik, hau be, ume guztiak bezala bere trastadatxuak egindakoa be bada, baina hori alde batera itziko dogu.

Morgako eskolatik seminariora joan jakun Adolfo gurea ikasketak burutzero baina, hala eta guztiz ere, Morgarekin ez zan ahaztu eta sarritan etorten zan bizitatxo bat egitera. Txistua eta danbolina jotzen ikasi eban eta beti prest egoan Santixoatan eta San Martinetan etorteko eta bere doinu goxuekaz alaitzeko egun seinalatuok.

Gero, seminariotik urten zan eta unibertsitateko ikasketak burutu. Garai honetan euskararekiko ezkontza hasita eukan eta euskerak euskalzale handi bat irabazi dau eta elizak abade bat galdu.

Adolfo, amaitu aurretik eskerrak emon gura deusudaz bai Alkate nazen aldetik eta bai herritarren izenean Morga herria hainbeste maitatzeagatik eta Morga herria beti presente daukozulako.

Eskerrik asko.

ADOLFO AREJITARI BERTSO BI

Morga, 2005-VI-24

Jon Enbeita

Morgako zure herrian
gaur, Adolfo Arejita,
zeure sarrera ospatuz,
Euskaltzaindiak dau zita.
Noztik ezagutzen garan
kalkuloetan hasita,
zenbakietan galdu naz
eta itzi dot etsita.
Morga guztia poztu da
zu horrela ikusita.
Beti ezagutu zaitut
Euskara Amari josita,
maitasunagaz hatera
jakinduriaz jantzita.
Inork badau aulki hori
zeuk daukazu merezita.

Euskara Amak behar zaitu,
orain gidaria zara.
Izan zaitez euskaldunen
kontzientzien aldaba.
Baina geu be behar gaitu,
beharrezko danok gara.
Esaldi hau gura neuke
barriro mahaira atara:
Euskal Herririk ez dala
bizi ez bada euskara.
Beste filosofi danak
ez garoez ezetara.
Nahikoa abestu dogu
«Euskara jalgi plazara»
ia noz abesten dogun:
«Plaza euskararena da»

MENDEURREN ETA OSPAKIZUNAK

**FRANTZISKO LAPHITZ ETA JEAN-PIERRE ARBELBIDE
JAUNEI OMENALDIA**

Irisarri, 2005-VII-21

LAPHITZ-ARBELBIDE: BI IDAZLE EUSKALDUNEN HARIA

Agurra

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Arratsalde on guztioi!

Egun, urtero legez, Euskaltzaindia Iparraldeko Euskal Herrira dator, euskararen alde lan egindako bi idazle behenafarrak ospatzeko asmotan.

Laphitz eta Arbelbide, Arbelbide eta Laphitz, tentazionea izan daiteke urrunean eta aparte ikusteko bi horiek, duela ehun urte hildako idazle ihartuak balira bezalaxe.

Kronologiaz hala bada ere, letraz eta lumaz ez da horrela. Behin baino gehiagotan azpimarratu dut gogo hau, Akademiak berak sarritan errepikatu duena. Izan ere, Laphitz eta Arbelbide hitzaren maisuak dira, hain zuzen ere, euskal hitzaren maisuak.

Mezua eta edukia, egia da, aspaldikoa eta zaharkituxea izan dakiguke. Azala eta forma, aldiz, bete-betekoa, euskararen ereduak ematen baitizkigute idazle hauek. Horra hor, garaiotan ere, konturik beharrenak zaizkigunak.

Arean ere, Laphitz eta Arbelbide Iparraldeko euskal letretako loratzearen lekuko ezin hobeagoak dira, XIX. mende hondarrean eta XX. mende hasieran euskara goi mailara eraman zutenak, herritartasunaren alderdia zokoratu gabe.

Hor dira zinezko literatura baten ezaugarriak, kalitatea eta herritartasuna lotzen dituenak, inolako lotsa eta heraberik gabe.

Baditugu gaur horietan arituko diren adituak, besteak beste:

1. Piarres Charritton: «Frantzisko Laphitz –Arriadaren bizia eta lanak»
2. Pello Salaburu: «Euskara batua eta euskara ereduak»
3. Xipri Arbelbide: «Jean-Pierre Arbelbideren bizia eta lanak»



Hortaz aparte gure ohitura den bezala, Jean Haritschelarrek egingo du berikihil den Pierre Duny-Pétreren euskaltzain urgazkearen hilberri-txostena («Pierre Duny-Petre gogoan»).

Bukatzeko halako bitxikeria. Laphitzen *Bi saindu hescualduen bizia* nire eskuetara etorri zen, duela denpora gutxi, frantses hizkuntzaren jantzi-ize-ina zuen *La vie de deux saintes basques: Saint Ignace de Loyola eta Saint François Xavier*; itzultzailea, Mayi Milhou eta argitalpen data, 2002. urtea. Bakan eta noizbehinka bakarrik gertatu da historian zehar halako euskal liburuak frantsesez agertzea. Horrek erakusten du, beharbada, liburu horren freskotasuna eta menturaz, ikerleek arakatu beharko duten bestelako ildo, alegia, gaztelaniazko bertsioarena, noizbait norbaitek ondu omen zuena.

Hitza dute orain gaurko hizlariak. Nire aldetik, Arbelbideren aipua, *Igan-dea* liburuan euskararena egoki zertzen duena:

Hitz batetik ala bertzetik has dezazun solasa, zure elheak bethi chuchen adosturen dire, hala-nola ehaile trebearen eskuetan irazkia eta bilba elkharrekin trebeskatzen baitire, bata bertzeari lotzen, josten eta tinki-tinkian oihal hazkar atheratzen.

FRANTZIZKO LAPHITZ-ARRIADAREN BIZIA ETA LANAK

P. Charritton

Egun hemen Irisarrin ospatzen dugun mendeurrena lehenik Frantzizko Laphitz euskal idazle handiaren ohoretan da eta haren bizia eta lanak labur biltzea niri dagokit. Baina aitzinetik galde bat egin dezake zuetarik batek edo bestek. Zertako aipa Laphitz Irisarrin ezpaitzen Laphitz hau irisartarra. Eta galde horri nahi nioke berehala ihardetsi. Zeren Irisarrin Laphitzenaz bestalde XIX. eta XX. mendeetan egin baita euskararen alde lan eder asko aipatzea me-rezi duenik.

Zertako Irisarrin?

Gogora dezagun nola 1813-1814eko urte ilunetan Salvat Monho izturiztar olerkari handi eta Irisarriko erretorak gogorki gaztigatu zituen Napoleon I. enperadore gaiztaginak leher egin zuelarik, azkenean, harekin herritik ihesi joan ziren Larraidy errient idazkari baliatzailea eta haren bizpahiru irisartar kide bakarrek.

Oroït ere mende erdia geroago Pierra Haristoy aihertar historialaria Zalgizetik landa, Irisarriko erretor egon zela Zibururat joan aitzin eta hemen be-rean bere ikerlanez bestalde elizaren eskola berriak egin zituela.

Oraino hurbilago eta gutarik batzuen oroitean, ezin dugu ahantz Irisarri-ko eliza dorrea berregin zuen Lukuze Kattilaeneko seme Aguerre jaun erreto-rak, geroxeago aita Gaxitegirekin *Laborantzako liburu* berri aberatsa utzi zi-gula.

Ez dugu ere ahanzten ez Joseph Gosterratxu bikarioa gazteen laguntzai-lea «Nevadara joan nintzen» kantu aipagarriaren sortzaile bipila (ala bipilegia) eta haren ondotik berriz, Afrikatik itzuli ondoan Erramouspe erretoraren la-guntzaile urte t'erdi lan egin zuen Jean Hiriart Urruty euskaltzain hazpandar zena.

Are gutiago aipatu gabe utz ditzaket Irisarriko hilerrian ene askazi maite batzuen ondoan berpiztearen zain dauden Larrainbordako seme miriku Michel

Mendi jauna, haren andrea Katrina Markesuzaa eta Klaudio Harluxet suhi zena euskal kulturaren mundu osoan bere itzal indartsua gaur arte zabaltzen duena.

Jakin bezate beraz gaur gure herri ondarea zaindu nahi omen duten herri gizon guziek izan dela eta badela Irisarrin harri zaharrez besterik, badela euskara.

Ezen Irisarri Larrainbordatik hurbil dagoen Behardizaharrean sortua zen gure ustez Bernard Laphitz Frantzizko Laphitz (1832-1905) honen aita. Irisarritik ordea Arizkunera iraganik, ez genekike xuxen zergatik, han ezkondu zen Maria Josefa Arriadarekin eta 1832ko buruilaren 30ean herriko elizan bataiatu zuen Tomas Iribarren jaun erretorak haren semea Frantzizko Esteban Laphitz izendatu zutena.

Beste haurrik izan ote zuten Arizkunen behar liteke ongi ikertu. Gaur oraino egin ahal ezin dugun lana. Bakarrik idazki hauek argitaratu aitzin hitzemaña digute baztandar euskaltzale adiskide batzuek ikerketa hori egingen digutela eta jakinaraziko ere Laphitz-Arriada familiaren ondokorik ba ote den Baztan aldean.

Guhonek ordea Irisarrin berean Herriko Etxeko andere axuant eta idazkariaren eta haien bitartez andere Jeanne Urruty Erretegiko Laphitz familia-koaren laguntzari esker aurkitu ditugu zenbait xehetasun.

Gaur ordea xehetasun horiek oro utziko ditugu besteak bezala datorren *Euskera* agerkarian agertzeko. Eta hemen labur erranen dugu Frantzizko Laphitzek Larresoroko eta gero Baionako Seminarioan apezteko eskolak egin zituela eta 1857an apezte zela eta Baigorriara igorri zutela apez laguntzaile eta hortik Altzaira erretor 1866an. Orduan zuen idatzi eta argitaratu Baionan 1867an *Bi saildu heskualdunen bizia* hots San Iñazio Loiolakoaren eta San Frantzizko Xabierrekoaren historia. Horretaz erranen dizue erran behar dena Pello Salaburuk. Nik aldiz, gogorazi behar dizuet Altxaitik Betarramera joaita erabaki zuela Mixel Garikoitzek sortu ordenan sartzeko eta horrela Ameriketara saldoka joaten ikusiak zituen gure mendien bi aldetako euskaldunen apez izateko gisan.

Bera baino lehen joanak ziren jadanik Garikoitzek igorritik zenbait Betarramista Montevideora eta Buenos Airesera hogoi bat urte lehenago, baina, aita Laphitzek izan zuen halere zer egin: lehenik Montevideoko portuan berean euskaldunen biltzen hasi zen eta *El Cerro* deitu munho gainean *Euskaldunen Eliza* deituko den eraikina altxatu zuen. Bestalde, Uruguaiako zelai zaletaen ere ibili zen bere herritar euskaldunen ikusten eta ahalaz beren aitzineko fededun urratsez ohartarazten. Geroztik misioneak antolatuko ditu apez lagun batzuekin euskaldunentzat Uruguain bezala, Argentinan ere, Buenos Airesetako euskaldunen San Juan elizatik harat bereziki. Haren fama hedatuko da alde orotara eta adibidez Paraguaiko errepublika osoa suntsituko duen gerla izigarriaren ondotik apez soil horrek ararteko lanak egingen ditu eta

bazterrak lasaitu eta Asunción hiri nagusiko apezpiku egin nahiko dute baina ez du onartuko gure gizonak han baitauzka deika ari Buenos Aireseko euskaldunak.

XX. mende hasieran alabaina Argentinako euskal elkarte zenbait ari dira hazten eta beren indarrak biltzen hala nola *Laurak bat*, *Euskal Etxea* edo *Centre Basque Français*. Hor du erakutsiko aita Laphitzek oraino bere bitartekari dohain berezia. Errekaborde zalgiztar puxantaren eta beste dirudun eta fededun andere zenbait bildurik *Euskal Herrietako Zazpiak Bat* eginik sortuko dute Buenos Airesetik 35 kilometrotan dagoen Llavalloleko zelai zabalean hiru adar bederen izanen dituen obra nagusia : euskal gizon eta emazte xaharren etxe berezia, Angeluko serorei dei eginik kudeatuko dutena, ikastegi bat neska umetzur eta besteentzat, hau ere serora beren gain, ikastegi bat eta laborantza eskola bat mutikoentzat Baztan Lekarotzetik Laphitzek deituko dituen Kaputxinoen esku izanen dena.

Gaur ere Euskal Herritik beren Ameriketako ahaide ahantzien ikustera joaiten diren herritar ainitzek ezin asmatuzko obra horiek oro ikus ditzakete. Baina harritzeko da Angeluko lehen bost serora euskaldunak heldu baitziren Buenos Airesetara 1905 urriaren 26an, sekulako jendeak Saindu famarekin ehorztera zoazelarik, aita Frantzizko Laphitz-Arriada serora haiek beren herritarren laguntzera Ameriketaraino deitu zituen apez hura bera.


Bibliografia

FRANTZIZKO LAPHITZ: *Bi saindu heskualdunen bizia*, «Klasikoak», Josu Pika-bea.

PIERRE LHANDÉ-HEGUY (s.j.): *L'émigration basque*, Paris, 1910

OSCAR ALVAREZ GILA: *La contribución europea a la iglesia en el Río de la Plata : la presencia religiosa vasca (1835-1965)*, EHU, tesi doktora, Portugalete, Bizkaia, 1997


Jarraiko argazkiak: Jeanne eta Felix Dourisbarre Janbon F. Laphitzen iri-sartar bilobek emanik.



Aita Frantzizko Laphitzen argazkia.



Horren iloba Ameriketako apezaren argazkia.



Euskal Nazioarentzat, 1874ean (sic) Pio IX. Aita Sainduaren ganik aita Laphitzek Erroman erdietsi benedikapena.



Jacqueline Bordenabe, Angeluko serorak, igorri Argentina Llavalloleko *Eskual Etchea*ren argazkia.





EUSKARA BATUA ETA EUSKARA EREDUAK

Pello Salaburu

Ez da ukatzen ahal gure hizkuntza batasunaren bidearen nondik norakoak zehazten hasi zelarik, eta hartara bere indarrak lanean jarri, hizkuntzaren eguneroko erabilerak anitz irabazi duela. Ezin baitzen bertzenaz ordura arte bezala segitu. Hizkuntza hila legoke, edo gutienez ahuldua eta zuhail, indargabetua, egungo mundu moderno honek eskatzen dizkion betekizunei aurre egiteko ez gai. Horretan irabazi dugu. Baina Laphitzen liburuaren protagonis-tek bezala, nahi nuke ez beha egin lanari, baizik egitekoari. Ez gibelerat, baizik aitzinerat.

1968aren inguruan hasi zen bide hura. Ordea, bazterrean bildu guztiak ez dira beti loreak izan, eta zenbaitetan eskuak ziztakaturik gelditu zaizkigu. Hau hala gertatu da ez bakarrik Euskaltzaindiak, Mitxelena zenaren eskutik, erakutsian utzi zuen ereduaren kontra batzuek beren indarrak suharki jokatu baitzituzten, ez. Horregatik ere izan bada ere, ez horregatik bakarrik, erran dezagun garbi.

Euskara batuaz eta euskararen batasunez mintzo gara behin eta berriz. Eta gai honen inguruan alde bateko eta bertzeko iritziak sortu izan dira historian zehar. Gehienak alde, idazle gehienek beldurrik gabe onartu baitute batasun bidea, gure hizkera erorbidean ez uztekotan ez baita, haien ustetan, bertze hauturik egiten ahal. Zernahi gisaz, alde izanik ere, haien artean ere entzuten hasiak gara aspaldixko hizkuntzaren batasuna –itxuraz bada ere– nolabait zalan-tzan jartzen duten ahotsak: ustez, nonbait, euskarak kolorea galdu duen, beldurrez gure baserrietako hitz jarioaren aberastasuna atzenduxe dugun, egungo euskara batu hori, batua bai, baina batzuetan ez gehiago dela euskara iduri, haien aburuz. Batzuek, akiduratik hurbil ikusteraino ailegatu dira. Eta, diote, hori konpontzeko moduetako bat dugu herri hizkerara, herrietako mintzoetara, itzultzea, erran nahi baita, baldin gai izaten bagina, maila batzuetan, gure baserrietan ibiltzen genuen euskara goxo eta hurbil hura egungo arlo landuetan ibiltzeko ere, orduan batasuna bera ere aberastuko genuke, eta bere on bidera ekarriko mintzaira batua.

Ez dut uste, hala ere, gauzak hola ikustea arras xuxen den. Hori onartzetik ilki diren ondorioetako batzuk, bederen, ez baitira batere zuzenak. Anitz herri eta eskualdetan herri aldizkariak sortu dira, eta joera bat nagusitu da, zenbait tokitan, eskribitzen diren testuak delako toki horri dagozkion euskara ezaugarriekin hornitzeko. Hola eman nahi zaio, antza, kolorea eta distira, kolorea eta etxeko ñirñira galdu duen hizkerari. Ez dakigu, ordea, nolakoa den kolore berri hori, zaharraren gisakoa edo osagarriak nahasiz sortu berri den kolore zirtzikatua. Zeren, jokamolde horren izenean pare-parean ikusten ahal baitira, inolako ahalkerik gabe, aski modu harroan gainera, delako herri edo eskualde horri legozkiokeen berezko ñabardurak –pentsa dezagun halakoak direla–, eta haren ondoan delako herri edo eskualde horretako solasean sekula santan inork ere aditu ez dituen itzuliak, hitzak, eta esamoldeak, arras tarrotuak, batek ez dakiela nondik atera diren, ez bada mintzaira goxatu nahi duen norbaiten gogo biziaren beroaldiren baten ondorio, ohartu gabe, mintzaira goxatu beharrean, usu arras desitxuratua gertatzen den hizkera mota berri bat sortzen ari garela. Hola, hobetu nahi den eredia, hobetu beharrean, behar bezala deboilatu eta nahas ageri zaigu. Hautatu den erremedioak, orain, makurrago bihurtu du salatu nahi den gaitz eta eritasuna.

Ez da gutitan gertatzen erraten ari naizen hau. Aski da, hartara, aldizkari horietako batzuk begi kritikoekin irakurtzea: berehala atzemanen dituzu kontraesan bizkorak, eskualdeko mintzaira umetik barneratu duen betiko hiztuna lerro batean eroso sentiturik ere, aldamenen den bertze paragrafo batetik idazleak ostiko ematen diola sentitzen baitu, iduriz. Gisa honetara, *arrenkura* hautatuko du idazleak, *arrangura* arautua bazterturik, *arrenkura* baita, ez *arrangura*, herri horretako hizkeran ibiltzen dena. Eta *afera* paratuko du, hurbildu nahian hola elkarren artean papereko euskara, batetik, eta betitik han ibili den mintzoa, bertzetik. Egoki ikusiko du *doaie* ibiltzea, eta ez *doa*. Baina hori egin bezain fite ahalke gabe ikusiko ditugu hor berean *beraien*, *aurreko*, *bertan*, *erabiliko*, *ikasleentzat*, *barrena*, *etxerako*, *irakurri* edo *ordutegi*, aldizkaria argitaratzen den tokiko euskaran betitik *beren*, *aitzineko*, *han*, *ibiliko*, *ikasleendako*, *barna*, *etxeko*, *leitu* edo *lanordu* erran baldin bada ere. Eta lerro batean leituko dugu *herrie*, eta pixka bat beheitixeago, aski trankil gainera, *mendia*, inolako koherentziarik gabe, denak errebes eta oker paratuak. Beharreztenkeriez betetako euskara hori ikusten dut nahaste baten iduriago, ibili behar den euskara egokiaren ispilu baino.

Baina ez dut, hasierako hitz hauekin, gai horren gainean mintzatu nahi. Kontua da hori, neurri batean segurik, gertatzen ari dela eta, ene ustez, gertatzen ari den hori sakonagoa den bertze zerbaiten seinale dela. Gure buruari galdegin beharko genioke zertaz gertatzen den hau guztia. Zertaz den gertatzen batasun eredia eskura izanik, eta idazle gehienek batasun horri eutsirik ere, zertaz gailentzen diren bat-batean bertze eredu batzuk, batasunetik hain urrun gelditzen direnak.

Zergatia, hain zuzen ere, batasun ereduan dagoke: ez, haatik, Euskaltzaindiak urteetan zehar definitu duen batasun ereduan. Ez hor ezinbestean. Arazoa, ene iduriko, jendeak praktikan ibiltzen duen batasun ereduan bilatu behar dugu, Akademiak eman ereduan baino gehiago. Euskaltzaindiak definitu eredua, eta jendeak –batasunaren aldekoek, erran nahi dut– ibiltzen duena ez baita arrunt berdina. Ez gara, beharbada, ongi ohartu honi. Euskaltzaindiaren batasun eredua, bistan da, kritika daiteke, eta alde on guztiekin batera bere alde txarrak ere izanen dituela onartzen ahal da inor ere mindu gabe. Kontua da Euskaltzaindiak batasun eredu baten proposamena egin duela urteen joan-etorrian, bai, baina gero idazleek batasun proposamen hori modu batera ulertu dugula, aise estuago den modu batera bakarrik. Adibide erraz batzuekin argituko dut hemen erran nahi dudana.

Euskalkien arabera, anitz hitz baditugu kontzeptu bera adierazteko: *behinik behin*, *behintzat*, *bederen*, *segurik*, *aments*, *bederik*. Horiek guztiak daude Euskaltzaindiaren ereduan behar bezala bilduak, modu batera edo bestera: *bederik* ageri da hiztegi batuan «gip» markarekin, *aments* ez da aipatzen, eta gainerakoak inolako markarik gabe bildu dira. Hortaz, horiek guztiak ditu eskurara idazleak, euskara batuan eskribitzeko orduan. Galdera da, zernahi gisaz, zergatik nagusitu diren (aski dugu horretako datu baseak kontsultatzea) *bederen* eta *behintzat* bertze guztien gainetik. Aise gibelago daude, erabilerari dagokionez, gainerakoak: *behinik behin* aitzineko bi horiek baino hiru aldiz guztiago ibiltzen dugu batuan eskribitzen dugunean; *segurik* hamabi edo hamahiru aldiz guztiago; *aments* eta *bederik* ez dira ia ageri gaur egungo euskaran.

Ez dit inork ere azaldu beharrik hau hola gertatzeko arrazoi batzuk aski argiak direla: lehendabizikoa, hizkuntzak eta mintzoak aldatu egiten direla. Hortaz, ez dugu horregatik harritu beharrik, edo kezkatu. Bertze batzuetan hitzun gehienek ibiltzen dituzten hitzak nagusitzen dira, edo idazle ezagunenek gogoko dituztenak, edo argialetxeetako testu zuzentzaileek onesten dituztenak («hau zuzena da, bertze hori kendu, otoi!»), edo telebistako esatariek gehien maite dituztenak. Hau da gure kasuan ere gertatzen dena. Kontua da, ordea, niri segurik kezka sortzen zaidala: *segurik*, *bederik* eta *aments* bezalakoak baztertzen ditugu praktikan, eta horiekin batera bertze hainbertze ere, hala nola, *abade*, *abandonatu*, *abantzu*, *kasik*, *abonatu*, *adin izan*, *altxatu* (*gorde* adierazteko), *arotz* (*errementari* adieran), *kordokatu*, *irriemangarri*, *ahalke*, *baratu*, *parlantzuan*, *intziri*, *eroan*, *asko-gura*, *zelan* edo *larderia* bezalakoak, bakan batzuk aipatzekotan. Baina kezka sortzen zaidala diot, hori egin ondoren inolako gupidarik gabe ibiliko baititugu hitzetik hortzera *delegaritzea*, *baloia lapikoan*, *erremate*, *rehen* edo *berotasun asistentziala* bezalakoak. Holakoak, ongi dakigunez, ardura gertatzen dira, aski baita hartara agertze ttipi bat egitea telebista aitzinean edo maizkara gure eskuetara ailegatzen diren testuetan.

Jakina, hiztegia aipatu dut bakarrik, baina hiztegiak erran dudana gramatikaren bertze atalen gainean ere erran daiteke: neurri batean morfologian, baina batez ere esamoldeetan, eta sintaxi puntu batzuetan. Ez naiz luzatuko ho-

netan, aipatzen dudan arazo honek hainbertze ñabardura beharko bailituzke, eta hemen ez dut astirik horretan aritzeko orain. Kontua da, eta hori da hemen azpimarratu nahi nukeena, Euskaltzaindiak definitu duen ereduaren interpretazio bat egiten dugula, interpretazio batek hartu duela indarra, bat nagusitu dela praktikan egiten ahal ziren gainerakoen artean, eta hori ez dela gauza ona. Euskararendako ez da gauza ona. Interpretazio hori gipuzkeraren inguruan sortu da, ez dut uste inor ere samurtuko den hori errateagatik. Horrek guztiak badu, jakina, bere azalpena: hiztun gehien biltzen da eskualde horretan, gune trinko anitz han atzematen dira, batasun eredu teorikoa handik hurbilago dago bertze euskalki batzuetatik baino, eta ereduzko idazleen artean pisu handi dute gipuzkoarrek. Ez diegu haiei eskatuko haiena ez den mintzaira erabil dezaten beren liburuetan.

Kontua da, alabaina, mintzatzeko modu hau nagusitu dela eta olioia bezala hedatu gainerako euskalki eta hiztun guztien artean, euskara batuaren hautua egiten dutelarik. Horrek ere, ez bakarrik erdarak edo hizkuntza neketan ikasteak, horrek ere uste dut kendu dion hizkerari lehenago zuen kolore goxo hura, lehenago euskalkietan musika soinu bezala nabari zen doinu hura. Baina ez doinu hura ez kolorea ditu euskarak berreskuratuko honetaz guztiaz hausnarketa jabaldua egiten ez badugu, eritasunaren erremedioa ez baita herrietako txokokerietatik aterako. Txokokeriak txokokerien seinale dira, ez euskara on eta egokiaren seinale. Iduri luke batzuetan euskara gaitz bat hartua da-goela.

Eta honetara ailegaturik, baten batek galdegin dezake, arrazoi guztiarekin, ez ote garen hemen Francisco Laphitz omentzen ari, eta hala bada, zer duen honek ikusteko Arizkunen, nire sorterrian, 1832an sortu zen idazle eredugarri hark egin lanarekin. Ikusiko duzue nola baduen.

Ez dakit nik Laphitz sortu zelarik haren amak, Maria Josefak, zerurat altxatu zituen begiak, Loiolako sailduaren amak Inazio sortu zelarik egin omen zuen bezala, eta gero Bernardo senarrari zerbait erran ote zion. Loiolan gertatu bezalako zerbait, konparazione: «Seme hau ez da agian bertze semeak bezala aterako, eta bere amarekin agian laketuko zaio». Eta ez dakit hala gertatu zen, inork ere ez baitigu kontatu zer pasatu zen Laphitzen bizitzarekin. Badakigu Baztandik haurrean jin zela hona, Irisarri alderat, eta bistan da utzi dituen testuetan nabariago ikusten ahal dela Irisarriko euskara, Baztangoa baino, amagandik Baztango mintzoko hainbertze ñabardura hartu baditu ere. Gero, Loiolako Inazio eta Frantzisko Xabierrekoaren eredia segitu nahia zenez-edo, urrun joan zen, Hego Ameriketarat. Baina ez dut nire hitzaldia moldatu Laphitzen bizitzaren gainean mintzatzeko.

Idazle trebearen argitasun eta erraztasuna erakutsi zigun Laphitzek: *Bi saildu euskaldunen bizia* izeneko liburuak baditu literatura balio handiak, hori normahik ikusiko du, eta alde horretatik ez du gaurkotasunik galdu batere. Loiolako eta Xabierreko bi gazteen bizitza egituratzeko modua, narrazio esti-

loa, historia kontatzeko maisutasuna lehenaldiko eta orainaldiko adizkiak behar bezala trukatzuz..., anitz gauza erran liteke horren gainean, betiere kontuan izanik ezaugarri horiek lotuago daudela literaturaren ñabardurarekin euskararen zuzentasun eta egokierarekin baino. Uste dut ez den behar bezain bat baloratu lan hau alde honetatik. Erreferentzia behar luke izan, nire ustez, euskaraz idatzi nahi duen ororentzat. Mitxelenak ere, bere *Historia de la literatura vasca* lan ezagunean goraipatzen du haren hizkera dotorea, eta dio «narratzaille trebe eta bizia» dela. Nik ere, alde batera utzirik zer den kontatzen duenaren mamia (laudatzen dituen pertsonaien balioak, konparazione, psikologo bategen aztertu beharko lituzke, ez nik), estilo aldetik, irakurriago eta ederrago aurkitzen dut liburua.

Narratzen hasten delarik, iragana hautatzen du, ardura orainaldira igarotzeko, behin narratu nahi duena testuinguruan ongi kokatu ondoren:

«Naierako dukia tropa hetarik baten aitzindari zen. Egun batez gorthat hel du dire Napleseko armadaren berriak eta jakiten dute Loiolako semek han indar handiak egiten dituztela. Iñazio orduan bere bizi funtsgabekoaz ahalgetzen da eta bere oseba Naierako dukia othoizten du zombait soldado eman ditzon gerlarat heiekin juaiteko. Gerlarat juanez, gerlan bere indarra erakutsiz nahi luke Iñaziok maite duenaren bihotza hobelki hatzeman» (5. or.)

Gure artean gaitzetsi izan da, segur naiz arrazoiarekin, gaitzelaniaz «presente histórico» deitzen den narrazio estiloa. Hori ez da, omen, euskararena. Euskarak ez du, nonbait, holako estilorik maite. Horrekin bat heldu naiz ni ere, baina ez naiz gai, egia erran behar baldin badut, horren mugak non paratu behar diren errateko. Ikus dezagun ondoko bertze testu hau:

«Jakintsun handi zen Jainkozko gauzetan, bainan hortan baratzen zen haren jakitate guzia. Zer eginen du beraz? Hogoï eta hamar urthetan hasiko da latinarren ikhasten. Iñazio behar zen lan horri lotzeko; ezik liburuak hastio zitzen, ezin ikhus zitzazken: bainan Jainkoaren loriak hala galdatzen baitu, urtheak eta urtheak ez zaizko sobera izanen liburuen erdian» (69. or.)

Hor ikusten dugu iraganarekin hasten dela («jakintasun handi zen», «baratzen zen»), baina berehala iragan dela idazlea etorkizunera («zer eginen du», «hogoï eta hamar urthetan hasiko da»). Ondoko esaldia, ordea, eta beti pasarte berean ari naiz, berriz ere iraganean da («Iñazio behar zen lan horri lotzeko»). Azkenekoz, berehalaxe segidan, paragrafoa orainaldian eta etorkizunean akitzen du («...galdatzen baitu», «urtheak ez zaizko sobera izanen»). Honek erakusten du, ene ustez, narrazio kontu hauetan badirela, izan, ongi aztertu behar ditugun bideak. Baina lehentxeago erran dudan gisan, hauek literatura arazoak dira, euskararenak baino gehiago, eta ez zaituztet arrazoibide hauekin enoatu nahi. Alde bat utziko dut, haatik, gaia.

Nadin itzul istant bat lehen aipatu dudan eta praktikan ibiltzen dugun baturaren eredu horren ezaugarrietara. Erran dut gure artean nagusitu dela, berdin delarik bakoitza gure etxean edo adiskideekin zer euskalkitan mintzo ga-

ren, nagusitu dela, diot, eredu bat bakarra, oro har. Noizetik noiz testuren bat agertzen bada ere gainerakoetatik urruntzen dena, arruntean eskribitzen ditugunak elkarren iduriak dira. Berdin da non sortu garen, non ikasi dugun, zer euskara mota edan dugun etxean, eskribitzeko orduan antzekotasun handiak ditugu gure artean. Beti elkarretarat egiten dugu, hainbertzeraino, non, zail gertatzen baita ikaragarri jakitea zein den bakoitzaren jatorrizko euskalkia, bertetik ere euskalkiz betea den hizkuntza honetan. On litekeela, adierazi nahi izan dut, batzuetan bihotza eskastu gaituen berdintasun homogeen hori noiz-behinka trenkatzea, batasuna bera hautsi gabe horregatik. Ezik batasunak bide bat baino gehiago badu. Eta denak ibili behar dira. Hobeki dugu hori eginik. Hori da hizkuntza aberasteko bidea. Zeren hizkuntza idatzia nekez aberastuko baita funtsean oinarritzat eredu estandarra hartzen badugu eta txokokeria batzuk sartzen han-hemenka, atzenduz aldi berean badirela bertze bide batzuk aski erabilgarriak izan daitezkeenak.

Frantzisko Laphitzek erakusten digu aukeran ditugun bide horietako bat. Ez da Laphitz, inondik ere, den bakarra. Jainkoari eskerrak, eta beharrik hori hala dela, badira eredugarriak diren idazleak mintzo guztietan. Baina hemen, erraz konprenituko denez, Laphitz hartuko dut aztergai. Zein den aberats erakutsi nahi nuke lerro hauetan.

Oroitzen naiz behin zerbaiten programa bat-edo eskuratu zidatela, egitarau bat erdaraz erran nahi dut, haren euskal bertsioa egin niezaizen: han erraten zen zerbait egin behar zela asteazkenean, eta nik «asteazkenarekin» itzuli nuen. Norbaitek hots egin zidan: «Aizu! hor ez da egokiago «asteazkena» jar-tzea?». Jakina, harentzat ez zegoen desberdintasunik «asteazkena» eta «asteazkenean» hitzen artean. Ez da bakarra: ezik ardura ikusi ditugu denda eta erakusleihoetan «asteazkena itxita» bezalakoak, ez dakigula ongi zer den asteazkenean ixten dena, asteazkena bera edo denda. Bada, hori: «asteazkenarekin» jarri nuela, niretzat aski arrunta den moldea hautatuz. Laphitzek hasieratik ibiltzen du sozietiboa denbora adierazteko, berdin aditz izenekin ere. Hola dio liburuaren lehenbiziko lerroan:

«Ikhustearekin bi Heskualdun, mundua, debrua, eta beren burua garhaiturik, lorios zerurat igaiten, zonbat Heskualdun lehiatuko othe gare heier jarraitzerat?» (Bi hitz, sarrera)

Eta haxe da liburuaren azken esaldia:

«Bainan Loiola galtzearekin lurrean, zer arartekoa ez dugu irabazi zeruan?» (251)

Tartean baditu bertze aunitz, zenbait kasutan ez bada argi perpausak denborazkoak edo moduzkoak diren:

«Atzartu zenean hirriskuz kanpo zen. Sukharrak uztearekin eta indarrak itzultzearekin khendu zioten zangoko lothura» (15)

«Iñazio ikhustearekin semea jin zitzaion bururat, eta ustez hura iduri zonbait zen, lothu zitzaion lapharra bezala» (56)

«Berrogoi eta hamahirur egun eman zituen eri, eta sendatzen hastearekin lehengo urhats guziak hartu zituen» (75)

«Jakitearekin bandera bereko soldado zirela, nigarrari eman ziren bozkarioz» (138)

«arrotza ikhustearekin, bozkarioz jauzi egiten du, eta, lasterka jautsirik, Antoniori erraiten dio» (143)

«Heldu zela entzutearekin, jende oste bat jua zitzaion biderat» (207)

«Goarat abian zela jakitearekin, girixtino berriak, errege buruan, milaka jua zitzaizkon, agian beren othoitzez eta nigarrez atxikiko zutela» (222)

«Biharamunean, Iñaziok Laurentz ikhustearekin» (235)

«Bainan Loiola galtzearekin lurrean, zer arartekoa ez dugu irabazi zeruan?» (251)

Holakoak dira nik hemen euskara batuan idazteko eredua aberasteko aldarrikatu nahi nituzkeen bideak. Gehien-gehienek «zortzigarren semea izan zuela ikustean» edo holako zerbaiz idatziko genuke, hain segurki, eta gutitan pentsatuko genuke aditz izenak ibil ditzakegula, sozietiboan, denborazko per-pausen balioarekin. Baina Laphitzek badu bertze bide bat, bertze molde bat ederki sartzen dena batasunaren bidean:

«Zortzi garren seme batez erdi zela ilkhustearekin, doña Marinak zerurat altxatu zituen begiak, gero bere senharrari behatzen ziola erran zion» (1)

Ez al dio honek xarma ematen eredu neutro horri? Ez ote du honek batasun eredu hori aberasten? Eta ez diot nik hau dela ibili behar den bide bakarra, ez: gogora ekarri nahi dut, hau ere ibiltzea komeni dela. Zergatik ez hautatu bide hau ere? Zerentzat ez ibili euskarak, han eta hemen, erakutsian uzten dizkigun hautuak? Zerendako ez izan begiak eta belarriak erne?

Bekatu litzateke EGA azterketa batean izen sintagma datiboan jarri eta adizkia datibo markarik gabe: «eman du lagunari», demagun. Ez da holakorik azaltzen euskaltegietan. Pentsatzekoa da zuzentzailearen begi zorrotza berehala ohartuko zaiola horri, eta kolore gorriarekin markatu. Baina, ongi dakigunez, holakoak aski arruntak dira zenbait euskalkitan. Laphitzek ere usu ibiltzen ditu:

«Frantzian bai eta Espainian ere aitoron seme batek odola zor du herriari» (3)

«Gobernadorea bethi bere buruari lothua zagon eta nihorri ez zen ohartzen» (6)

«Hitzeman zuen Nafarroa sei ilhabeteren buruan itzuliko zuela bere nausi zuzenari Henri Albretekoari» (7)

«Aphez baten eskasian gerlako lagun bati kofesatzen da, hiltzerat baloha bezala» (11)

«Gerlako lagun maitea, orai adio behar dugu elgarri erran» (13)

«Premu Jauna, premuari zor dudan errespetu guziarekin erranen darotzut» (17)

«Artetan hau erraiten zuen bere buruari» (21)

«Jauna egia da soineko aberats batzu eman dituzula Mont-Serrateko pobre bati?» (36)

«Ene Aita, erraiten dio Inaziok, zure komentuari ez naiz ardit bat gostako!» (62)

«Jauna, ene soinekoa irrieginarria da, badakit. Bainan gizon gaixo bat hartzeman dut erdi estalia eta ene soinekoaren erdia hari eman dut» (95)

Jakina: gehiegikerietan erortzeko arriskua badugu, baina nik ez dakit zertaz ez ditugun holako itzuliak ere ibiltzen, horrek ere (ez horrek bakarrik) bizitasuna emanen bailioke testuari. Baina beldur baiz, naski, jendea erosoago sentitzen den «zor dio herriari» bezalako forma kanonikoen ibiltzen. Alta, uste dut nik batean «erran dio lagunari» eta bertze batean «erran du lagunari» jarzeak ez liokeen kalterik ekarriko euskarari.

Laphitzek kontatzen digu Inazio Avila alderat bidali zutela, izeba baten-gana, «zoinak altxatu baitzuen ama baten artarekin» (3). Horiek dira, erlatibo mota horiek, baztertuxeak izan ditugun egiturak, batasuna egiten hasi ginenean ezinka bezala ibiltzen genituenak, gisa batean, non bai baitzirudien baimen eske bezala genbiltzala, ez baikinena atrebitzen erdal egitura horiek, egitura «erromaniko» deitzen genituen horiek, hain arruntak izan direnak euskaldun idazleetan, batasun ereduari ibiltzen. Ez da erran beharrik eskubide osoa dugula, eta batzuetan beharra ere, euskarak deusik ere galdu gabetanik horregatik, egitura horien ibiltzeko. Horrek ere ematen dio xarma, kolorea eta indarra hizkuntzari. Eta horrek ere ematen dio aukera eta desberdintasuna, batasunari uko egin gabe, hizkuntza eredu batuari. Badut uste aholku hauek mezutzen zizkigun Frantzisko Laphitzek bere lan ederrean.

Aipatzen ari naizen puntu hauek ezagunak dira, ez naiz horretan batere berezia. Ezagunak dira, bai, eta gramatika batzuetan, ez denetan, aipatuak ere. Gauza bat da, zernahi gisaz, ezagunak izatea, eta bertze bat, aski desberdina, euskara eskribituan hola, laxo-laxo, ibiltzea, eta modu naturalean, nik nahi nukeen moduan, ibiltzea. Hori, naski, bertzerik da. Edo «noski» erran behar nuen hemen, eta ez «naski»?

Iparraldean arrunta den genitiboa, absolutiboaren tokia betetzen duela, arin eta erraz ibiltzen du gure idazleak:

«Nafarroko Gobernadorea ene oseba da. Iruñe bidean da zuen gudukatzerat heldu» (12-13)

«Hori ene egitekoa da; zuen egitekoa da niri trunpilo horren nolezpait ek-hentzea» (16)

«Lanaren errexxiago egiteko barberrak Iñazoren estekatzen hasi ziren» (17)

«Hezurraren phikatzen abiatzean» (18)

«Xede horren haren burutik khentzeko alfer izan ziren othoitzak eta nigar-rak» (50)

Aise ohartuko gara azkeneko adibide horretan ez bakarrik duela idazleak genitiboa arruntean akusatiboa ageri den tokian paratu, baizik aditz izena eta haren osagaia bereiz ageri direla ere: «xede hori haren burutik kentzeko» gehienez ere «haren burutik xede horren kentzeko» edo holako zerbait eskribituko genuke, beldur, eta ez hain aise «xede horren haren burutik kentzeko». Ez ote genituzke guk ere noizetik noiz holakoak eskribitu behar gure lanetan? Eni, segurik, arras ontsa zait hori. Badira, pentsatzekoa denez, bertze anitz adibide:

«Nork daki ez othe den Luterren dizipulu gorde bat, gezurrez gure bethazerat ethorria?» (83)

«Iñazoren etsaiak ez zauden geldirik; ahal guziak egin zituzten Iñaziori bere lagunen khentzeko. Ezin bertzez, azkenean huna zer buru jo zuten» (106)

«Mezaren emaiten ari zen batez, Aita Nikolasek su gar bat ikhusi zion bu-ruaren gainean. Ustez su zuen, laster egin zuen su hiltzerat. Ez zen su lothua Iñazio, haren begithartea zen su garrak bezala argitzen eta distiatzen zuena» (191)

Badakit ongi aski gogoia nola dugun, hala dugula idazten, hala ditugula gure hitzak elkarrekin kateatzen. Ordea, batasun eredu aberatsagoa ezagutu nahia naiz, irakurri nahia naiz, hola, pixkaka, nekea bada neka, emeki bada emeki, gure burua astin dezagun eta denen aitzinean erakutsi euskarak duen edertasuna ez dela pareta estu batzuetan bildu beharrik. Horretarat egin behar genuke, noizetik noiz bederen, aldi txartuan eroriko garen beldurrik izan gabe. Ez dugu den gutxieneko arriskurik horretara, ene ustez.

Paregabea da Laphitzen erraztasuna esaldiak egiteko, ardura aditz lagun-tzaileak estaliz, ez bakarrik emendiozko juntadura egituretan, baina bertzenaz ere. Begira hemen adibide batzuk, zer indarra duten:

«1521an, Maiatzeko egun batez, ximixtaren pare iragaiten da zaldidun bat Iruñako karriketan eta gobernadorearen etxean sartzen» (6)

«nik oinhaze hauk jasaiten ditut gortheko andren begietan deus gal beldurrez» (20)

«Iñazio estakuru bilha zabilan Loiola aldebat uzteko; Loiolan egoitza luzatuz beldur zen anaiak sobera erran» (24)

«Beilariek ezagut beldurrez, Iñazio goizik athera zen Mont-Serratetik» (34)

«Auzo-aphezak pobre haren errana ez nahiz sinhetsi, preso ezarri du ni itzul artean» (36)

«Eta gero, Loiolako izena, ene arbasoer hanbat gostaia, nik zer dretxoz dabilat oinen pean?» (39)

«Iñaziok, urgulutan sar beldurrez, bethi gogoan zabiltzan bere bekhatuak» (42)

«Bera itsu eta nihondik ez argirik heldu» (43)

«Fedeak erakutsiko daut bidea, Esperantzak emanen hazkurria, Karitateak indarra» (51)

«Don Juanek khurutzeфика besarkatzen du eta heriotzearaino berekin ekhar-tzen» (77)

«Lan borthitz eta soberakin horrek buru guzia zoratu zion eta liburutentzat higuinza berri batez bethe» (79)

«Iñazio Loiolakoa durdurutzen da. Haren zainetan lehengo odoletik bada oraino xorta bat, eta odol hark noizetik noiz irekitzen baitio, aphur bat ixilik egon ondoan galde egileari erraiten dio: «Hobe dugu naski hortan baraturik.»» (94)

«Kargudun hau bere eginbidetan lazoskoa, billartean ari dela khausitzen du» (117)

«Iñazio Loiolakoak laster beretu zuen Piarres, bainan Franzizko nihondik ez zezaken bil. Iñazio zonbatenaz amultsuago, Franzizko hanbatenaz bihurriago» (124)

«hirur egun oso nola iragan zituzten ahamenik jan gabe; nola etzaten ziren kanpoan, zerua atherbe, lurra ohatze» (168)

«Penitentzia salbagarri bat egin ustez, suian sarthu zuen eskua, eta erretzerat utzi» (236)

Batasun ereduan baztertuxe ditugu egitura batzuk. Hola, norbaitek «kalean mintzatzen hasi ziren etxe txar bati buruz» eskribitzen badu, berehala pentsatuko dugu etxea dela solasgaia, eta zalantza izango du batek baino gehiagok zer dela eta ote den etxea txarra edo ona, noiz eta Laphitzen testu hau atzematen baitu:

«Jaun gaztea karrika izkin batean jarri zen, etxe txar hari buruz» (85-86)

Badakit ez dela Laphitz idazle bakarra holako egiturak ibiltzen. Baina bera dugu erakustun gaur, eta horregatik ekartzen dut hona haren maisutasuna. Hor berehala ohartzen gara gauza bati, «zerbaiti buruz» horrek bertze adiera bat duela, gure eredu estandarrean ohi ez bezalakoa. Laphitz karrika batean jarriko baitzen etxe txar bati buruz, herriko mutikoen gainean mintzatzen. Gu, ordea, kale batean jartzen gara, etxe txiki baten aurrez aurre, herriko mutikoei buruz hitz egiten. Hona adibideak:

«Harrazu kuraie, diotso Iñaziok, emazu hor gorphutz hil baten gainean ari bazine bezala.» (18)

«Ez premu Jauna ez, ez nau ene gogoak urrunegi eremanen, ez izan ene gainean holako beldurrik» (24)

«bere bekhatuen gainean minki nigar eginez» (33)

«Asko solhas aditu dut zure gainean» (84)

«Zeren gainean mintzo zare gehienik?» (93)

Ez dakit nik zergatik, batasunaren bazterretan beti aditu izan dugu, batzuetan pentsatu ere, ongi hornitutako «etxerako», «etzirako» eta «lanerako» formak aberatsago-edo direla haien pareko ditugun «etxeko», «etziko» eta «lanelko» bezalako egitura apaletsiak baino. Hainbertzeraino, non nik neronek ere neure etxean ikasiak ere atzendu behar izan baititut batasun bidean, horiek ez zuten-eta, batzuen iduriz, dotoretasun aski eredu landuan. Hala ere, Laphitz ederki konpontzen zen horiekin, eta guk ere ez genuke arazorik izan behar haietz baliatzeko batasunari kalte gehiegi egin gabe:

«Amak beldurra zuen bezala, haur haurretik su gehiago zakarren Iñaziok harmetako liburutako baino» (2)

Ziprerat jautsi eta berheala, hartu zuen bertze untzi batek, eta Jafarat ereman Agorrilaren azkeneko. Buruilaren lauan Jerusalem zen (61)

«Hamabortz urhe harrarazi ziotzan, eta oihal bero batetarik estomaka gaineko» (64)

«Aski jakinik badut; berriz ethortzen deneko, horra ene izena eta ene egon tokia» (86)

Badugu non ikusi eta non ikasi. Gure eredu estandarrean nagusitu da «zergatik» ibiltzea galderetan, eta horri «-lako» menderagailua daraman adizkiarekin erantzutea, berdin dela hor ageri den kausa edo dena delako horrek zinez kausa adierazten duen edo azalpena bertzerik ez den. Ez ditut ekarriko hona «kaleak bustiak daude, euria egin duelako» eta «euria egin du, kaleak bustiak daudelako» perpausek erakusten diguten paradoxa. Ez naiz horretaz ari orain. Baina begira: Laphitzen testuan «zergatik», «zerentzat», «zeren», «zertarik» eta «zertaz» ikusiko ditugu gure «zergatik» soil horren tokian. Eta erantzunean «ezik» lokailua arrunta da. Zer esan ez «bait-» eta «-laketz» menderagailuen gainean. Horiek arruntak dira, ez dagoela batere argi bien arteko desberdintasuna, bigarrena ere aski azalpenezkoa denez:

«Migel Nabarrok Zabier maite zuen, batetik maithagarria zelaketz, bertetik zorren estaltzen laguntzen zuelaketz» (132)

«Bere laguner aita on baten solhasak atxiki ondoan, eta Piarres, aphez zelaketz, buruzagitzat utzi ondoan, oinez abiatu zen Heskual herrirat» (140)

Hauek dira hautatu ditudan bertze adibide batzuk:

«Frantses armadako aitzindariak miresten dute hoinbertze kuraie eta holako gerlaria zeren ez den Frantsesa deithoratzen dute» (11)

«Zerentzat ez dut eginen sainduak egin dutena?» (21)

«Mahometanoa ahal zare? hala dio ezik zure arropak» (30)

«Ah! zuk saindua galdatzen duzu; hemen ezik hala deitzen dugu» (104)

«Haur huntaz irri egiten duzue? gaizki hori; ezik itxuxia badu ere gorphutza, ederra du arima, eta egun guzietz edertuz juanen zaio. Apheztuko da Martin, eta denborarekin herria ohoratuko du bere berthutez eta obrez.» (154)

«Ez, Jazinto maitea, ez; zertarik iduritu zaizu etsitu dudala?» (208)

«Bainan nihor ez da zure entzuterat ethorriko. Ez duzu zeren has» (150)

Gure «etxe asko» horren ordeztarrak ditu Laphitzek arras «asko lekuetan» (4), «asko pobreren» (32) eta «anhitz haurren» (77) bezalakoak, zenbatzailea izenaren aitzinetik hartzen dutenak. Eta, jakina, aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko ordena aldatzea arrunta da ere:

«Ez nau oinhazeak izitzen, maingu gelditzeak nau izitzen» (17)

Bazekien, bai, Laphitzek egun hala-holako euskarari ibiltzen dugun «abiadura handiko tren» zerbaite izatekotan «lastertasun handikoa» dela:

«Entzunik izurritea baratuxe dela Barzelonan, Barzelonerateko abiadura hartzen du, handik urez Lur Saindurat juaiteko» (50)

Baina egin dezadan hemen geldialdia. Badira egin nitzakeen bertze hainbertze ohar. Baina aski da gaurko. Hitzaldi hau antolatzen eta taxutzen hasi nintzelarik, ez nekien, egia erran behar baldin badut, nondik heldu. Banekien eman nahi nuen mezua zein zen, banekien zer mezutu nahi nuen (Laphitzen hitzak ibiltzeko), baina ez nuen nahi betiko azterketa egin, jendeak holakoe-tan aspertuxe akitzen baitu. Hartako aukeratu dut bide bikoitz hau: espresuki adierazi dut batzuetan, jatorrizko adibideak erabiliz, nolakoak ziren Laphitzen euskararen ezaugarriak, haren testuan sartzea egin ondoren. Baina, bertetik, diskurtsoa bera antolatu dut halako moduan non saiatu bainaiz diskurtsoaren barnean zuzenean sartzen batasuna bertze modu batera ulertzeko ereduaren anitz ñabardura. Gure «atea giltzarekin itxi» ilupa horretatik (ez berez ilupa, baizik ezintasunean bakarra egitera iritsi baikara) pasa gaitezen «atea giltzatzera», «ateari giltza ematera» edo «atea gakotzera». Hain segur ere, Laphitzek berak aise hobeki eginen zuen lan hau, maisutasun aparta baitzuen hizkuntzaren ibilerarekin. Uste dut badugun non zer ikasi. Hori dela eta, azkensura ailegaturik, «munduari erakusteko deusetako ez denik ez dela» erran zuen haren hitzekin akituko dut mintzaldia, ikus dezagun zein polikino lotzen zituen hitzak:

Orai artean distiatzen zuen haren buruak, orai ez da orraztatzen ere. Orai artean hein ederrean zagokan bizarra, orai nola nahi uzten du. Orai artean xuri ziren haren eskuak, garbi haren azkazailak, orai ez diote behatze bat ere emaiten. Orai artean gortheiko mintzairera zuen, orai jende xehearen mintzairera. Orai artean asko muthil bazituen, bera jartzen da orai erien muthil. Erien zauriak garbitzen eta lotzen ditu, eta naturalezak arrangurarik egiten badio, belhauniko jartzen da erien oinetan eta heien zaurier musu emaiten diote. Ez da hortan baratzen; orai artean athorra mehea ekharri du, orai zilizio garratz bat. Belhar luze eta latz batzuez egiten du gerriko bat, larru arrasean ezartzen duena. Azotea hartzen du egunean hiruretan. Ogirik beltzena janharitzat; ogi hura athez athe eskatzen du bere urguluaren zaphatzeko 37

Eska dezagun guk ere ogia, eta horni gaitezen, euskalkien aberastasuna erakusten diguten ate horietan. Segur naiz, hau egin dugunean, euskara milatan bortitzago izanen dela, eta gure eredu estandarra hanbatenaz ederrago zenbatenaz mintzaira guztiak, ez nolanahi, bistan da, ibiliago.

JANPIERRE ARBELBIDE IDAZLEA

Xipri Arbelbide

Egun biltzen gaituen Janpierre Arbelbide hil zen duela 100 urte. Garazin sortua zen, *Zaroko* herrian (1841-XII-20) Donibanetik kilometro bat eta erditan

Iturbidea etxean, elizako ondo ondoan.

Ate gaineko *harriak* erraten digu etxeko seme apez batek eraiki zuela harriz 1677an. Zurezkoa ote zen ordu arte. Bigarren harriak dio ekaitzak bota zuela etxea eta Etcheberry anaia apezek bereraiki zutela 1787an. Apez horietarik bat, Martin Etcheberri, Hazparneko erretore zen iraultza hasi zelarik. 1792an, besteak bezala ihesi joan zen. Zenbait denboraz Luzaiden egon zen.

1794tik 1796rat Iparraldeko 221 haur *bataiatu* zituen hor, batzuk Garruze edo Iholditik jinak. Oinez. Iturbidean ere egon zen gorderik, ezkaraz gaineko gela handian meza ematen zuela, etxeko beste bi apezek bezala. *Erlysionea* liburuan Arbelbidek kondatzen digu hori. Apez horrek zioen, bi mende hartan, beti izan zirela apezak Iturbidean. Gero ere izan dira, ez baita harritzeko giro horretan.

Martin Etcheberriren arreba, Graxiana, ezkondu zen Gillome Arbelbidekin. Hau Jatsu Arbelbidetik heldu zen.

Gillomeren arraseme bat, Jan Battitt, apeztu zen, Santandreko erretore izan eliza honek, 19. mende ondarrean kendu dizkioten dorreak bazituelarik oraino. Katedraleko kalonje bururatu zuen. Honen iloba bat ere, Martin, apeztu zen. Domintxineko erretore zen 1848an bigarren errepublika sortu zelarik. Honen gain izan zen herriko askatasunaren zuhaitza benedikatzea eta mintzaldia egitea. Errepublikarra zen beraz. Gure Janpierre, honen iloba dugu.

Martin eta Janpierren ikasketak, Santandereko osabak pagatu zituen. Gure Janpierre Baionan ibili zen lehen mailako eskolan, Lasaleko fraileetan, gero ordena honen buru izan behar zuen Irlide frailea zuela irakasle.

Ikasle ona zitekeen zeren eta Larresoroko seminarioan sartu zen seigarrenean eta Eguberri, bosgarrenen pasatu. Maisonnave kalonjea zuen zu-

zendari. Gero seminario handia egin zuen Baionan. Duela orain ehun urte, Estatuak hartu zuen seminario hori, gero botatzeko eta Lahubiague etxe gunea egiteko.

45 urtez Baionako apezpiku izan zen Mgr Lacroix-k apeztu zuen, (1867-VI-15). Garai haietako katedralak ez zuen oraino dorrerik. Euskaldunak joaiten ziren Ameriketara. Urtean bi milaz goiti. Horrek markatu zukeen.

Milafrangara izendatua izan zen. Urte baten buruan Hazparnera joan zen. Bigarren urtean jin zen Londaitzbehere. Biziki ontsa akomeatzen zen hau Arbelbidekin. Honek zuen eraiki Hazparneko eliza berria.

Hazparnen bazen misionestegia. Hor zen Irigoien apezka, Arbelbiden osaba amaren aldetik. Bai eta Bastres. Larresoron irakasle izana zuena. 1871an, Misionestetan sartzea erdietsi zuen apezpikuaren ganik, eta gerokotz kasik bizi guzia etxe horretan pasatuko du.

Misionestegian bazen apezgai gazte bat, osagarritz ahul baina diruz aberats, Bastidako familia on batetako seme bakarra baitzen, Mixel Caillava. 1872ko urtarrilean, Arbelbidek galdetu zion zer egin nahi zuen bere ontasunaz. Honek, nahiagoko zukeela osoan, obra on bati eman, ezinez eta eskuin eta ezker barreiatu. Arbelbidek erran zion, berak ere bazituela 21.000 libera norbaitek emanak eta aspaldiko ametsa zuela monastegi baten sortzea Eukal Herrian. Caillavak, bere dirua horretan sartzeko prest zela. Hoberik ere bazuela, etxeko bi misionest, frantxixkano edo jesuita joateko xedetan zirela: Bastres eta Duperou. Arbelbidek berehala bildu zituen biak, komentu baten hementzera. Beneditarrak hautatu zituzten. Bera izan zen bi aldiz La Pierre qui Vire-ko komentuan 1872 eta 1873an. Ondotik Bastres eta Duperou sartu ziren fraile Ardans batekin.

Arbelbidek zituen urrats guziak egin apezpikutegiaren baia erdiesteko, *Frantxixtegi* bikario nagusia ararteko. Baina bera ez zen beneditano sartu. Nahi zuen Hazparneko misionestetaz kongregazio bat egin. Ameriketako Euskaldunetara joateko.

Lehen fraileak nobiziadua egiten ari zirela Caillavarekin erosi zuen Be-lokeko ontasuna; lehen komentua eraiki eta 1875an, izan zen fraile berrien sartzeari buruileko 9an.

Konfidantza sortzen zukeen Arbelbidek zeren eta egundainokotan 80.000 libera eman zizkion, aldi honetan, Xilo Barkoxtar kalonjeak, obra on bat egiteko. 1880an Maulen erosi zuen darteztarren jauregia bere 100 hektarekin. Horretarik ageri da zenbat balio zuen orduko libera batek. Gorri zurien borroka beroenean zen. Hemen, alde batetik Berdoly gorria *Le Réveil Basque* atekariarekin, xurien aldetik Etxeverryk sortzen zuela gero *Eskualduna*.

Eskola publikoetan katiximarik gehiago ez egitea erabaki zuten deputatuek, eta apezak beldurtu, haurrek ez ote zuten fedea galduko. Erremedioa, es-

kola katolikoak sortzea eta fraileak lehenak ziren horretarako. Lasaleko buru zen, juaixtian aipatu dudan Irlide frailearekin harremanetan sartu zen Arbelbide, Agerria eman zion eta nobiziadu bat sortu zuten hor. Ondoan zen *etxea* misionestentzat beiratu zuen eta hemen idatzi du bere lehen liburua.

Horien denen artetik misioneak predikatzen zituen herrietan, bestek bezala eta gainera lehen liburua idatzi zuen 1887an, *Bokazionea* bere 460 orialdeekin.

Lacroix hilik, 1880an *Ducellier* etorri zen. Honekin hasi zen solasean Arbelbide, ez ote zuten misionestek kongregazioa bat egin behar, botoekin, has-tapenean ziren bezala. Beren nobiziadua eta seminario handiarekin. Baina hau Besançoneko artxapezpiku izendatu zuten deus erabaki aintzin.

Etorri zen orduan Fleury Hottot 1888an. Bi urte gabe hilen zen zoritxarrez. Honen ganik ardietsi zuen kongregazio izate hori, lehenago bezala misioneak predikatzeke hemen berean bai eta, indar gehiago izanen zutelarik Ameriketako Euskaldunetara joateko, hau baitzen Arbelbiden kezka handietarik bat. 1889an egin zituzten lehen botoak misionest guziek, apezpikuaren aintzinean, uztailako 11an, Arbelbide zuzendari hautatu eta bozkatuz.

Mauleko kolijioa bere gain hartu zuen eta berek, misionest izatea hautatu apezak izateko Hazparnen, eta ez, apezpikuak izendatuak, zenbait urterentzat, bere seminario egin zuen Mauleko kolejoan, orain *le noviciat* deitzen dutena, eraikitzen zuela.

Artetik Hazparneko *galbarioa* eraiki zuen Arroltzemendin, diru bat eskuraturik horretarako ere. Karia horretara egin predikuen bilduma duzue *Hazparneko galbarioa* liburua. Bururatzean, notekilako lehen kantika bilduma euskaraz, nota gregorianoekin, Jaret bere misionestak eginik. 1892koa da.

Fleury Hottot hil zen eta 1889an etorri Jauffret errepublikatzalea. Gobernuak zituen apezpikuak hautatzen, Napoleonen konkordatuaren ondorioz, hargin beltzez osatua baldin bazen ere. Jadanik hemen sartu aintzin apez zenbait gatzigatu zituen Jauffretek gobernuaren manuz. Apezak kontra jarri zitzaizkion apezpiku berriari. Ez zuen erretorerik aurkitzen parropia handienetarako, ez eta bikario nagusirik.

Intxauzpe bikario nagusi ohia, kanpo emana zuen Pariseren manuz. Honen kargurako hautatu zuen lehena, Arbelbide. Baina Gobernu frantsesak ez zuen onartu, baimenik gabeko kongregazio baten buru zelakotz. Izendatze horiek Gobernuaren baimena behar zuten. Lege berri batek kongregazioei manatzen zien, izateko baimen legala eskatzea eta bihi batek ez zuen hori egin. Arbelbidek ere ez, Hazparreko misionestentzat.

Azkenean seminario handian irakasle zen apez gazte batek hartu zuen kargua, Diharce hazpandarrak, Arbelbidekin batere ez baitzen ongi konponduko.

Arte horretan, 1890an, Arbelbidek idatzi zuen *Erlisioea*, 400 orrialdetako liburua.

1891an, Eskola berri bat sortu zuen Donibane Garazin, Beltzagi apez nagusiarekin esku esku. Ploermelgo fraileak bildu zituen lehen maila hartzera, bigarren maila aldiz Hazparneko misionesten esku, harri batez bi xori, bere apezgaiak ere hor saratzen zituela.

1896an plazaratu zuen *Igandea* 220 orrialdetako liburua. Bere kongregazio mamitzen ari zen. Seminario ttipi Maulen eta Maiorgan, seminario handi eta nobiziadu Hazparnen.

1889an, Intxauzpe bikario nagusiak Arbelbideri emana zion. Txileko apezpiku baten apez galdea. 1892an izan zuen Lapitzen lehen gutuna gai horretaz, Buenos Airesetarik. Apezpikutegiak ere Arbelbideri ematen zizkion handik etorri eskaerak. 1896an Jauffretek idatzi zion Buenos Airesetako apezpikuari, jakin arazteko ordu arte ez bazuen hango apezpikuen eskaerei erantzunik eman ahal izan, hazparne osatu zela: 15 apez eta berrogei bat apezgai bazituela. Apezekin apezgaiak ere igorriko zizkiola, horrela ez zutela soldadogorik egingen hemen. Baziren apezgaiak ere soldadogoa egitea erabakia zuen lege berri batek. Baina Frantziatik kanpo baldin ez zuten horrelako obligaziorik.

Arbelbide bera Buenos Airesetera joan zen 1897ko urtarrilean, Beltzuntz, bere lehen apezarekin. Jauffretek gomendiozko gutun goxo bat eman zien hango artxapezpikuarentzat. Han zegoela bigarren bat etorrarazi zuen, Mendiondo. Hau ere Jauffretek eman gutun batekin joan zen harat. Hango obra ongi finkatua zuela iduritu zitzaionean, bost hilabeteren buruan, itzuli zen.

Bordaleko portuan jaustean, Oziniri, bere apez-lagunaren gutun bat: *zato laster. Apezpikuak ez ditu gure 7 apezgaiak ordenatu nahi*. Ekain ondarra zen. Iraileko bederatzian apezpikuak jakinarazi zion Maulen ez zuela ikusi nahi. Hazparneko ez apez, ez apezgarik. Aski zutela diosesako seminarioetan sartzea. Ameriketako obra ere ez zela gehiago Hazparneren esku izanen. Arbelbidek bere apezgaiak Hazparnera etorrarazi zituen eta apezpikuak hori gaizki hartu.

Urriko lehen egunetan, Seminario handirako, inposatu nahi izan zion ezinezkoa zen programa bat. Hau ere hetsi beharko zuen. Kongregazioarenak eginga zuen, bai eta Ameriketako euskaldunenak. Zuzendaritza bildu zuen. Aho batez erabaki zuten Erromara joan behar zuela, «exempt» izatea eskatzeko, zuzenenan Aita Sainduaren meneko eta ez apezpikuaren meneko.

Hilabete baten buruan itzulia zen lehen urratsak eginik han, alde horretara. Baina apezpikua haserre gorrian zen eta misionest guziei debekatu zien herrietan ibiltzea. Maiorgako fraile batek idatzi zuen:

Les Pères de Hazparren voulaient devenir congrégation de droit pontifical. L'évêque en fut si furieux qu'il supprima la congrégation.

Denak hor, geldi-geldia Hazparnen, jenderen mihiak alhan hasi ziren. Eskandala zen.

Arbelbidek horretan utzi zuen Erroman pausatu eskaera eta Argentinara joan, han zeuden Betarramistekin negoziatzeko denak ordena horretan sartzea, Betarramistetan izanez eginen zutela Ameriketako Euskaldunen lana. Arte horretan, ez dakigu noiz, misionesten zuzendaritzatik kendu zuen apezpikuak.

Magendie apezza zen hango Betarramisten buru. Hau ikusi zuen Lapitz lagun. Magendiek erdietsi zuen baimen hori. Bourdenne, zuzendari nagusiaren ganik eta honek Jauffreten ganik apez horientzat, Betarramen sartzeko baime-na, 1898an, ekaineko 24an. Salbu Arbelbiderentzat: konduak eman behar zituela eta Hazparne eta Maiorgako etxeak Diosesari utzi. Legez, bereak zeuzkan eta batere ez zuen horien Baionari emateko xederik. Betarrami eman nahi zizkion, hauek ez zutelakotz etxerik Euskal Herrian eta apez euskaldunak izateko, etxe horiek beharrezkoak zirelakotz.

1899ko urtarrilean Argentinatik joan zen Erromara. Sinodo batentzat han bilduak ziren apezpiku argentinarrak sustengatu zuten Batikanon. Baina, azkenean Erromak eza ematen zion, Betarramistak, Hazparne eta Maiorgaren jabe izateari. Diosesarenak izan behar zuten.

Zer pasatu da gero? Diharce afera horretan errotik kontra zeukan bikario nagusia, etorri zen Erromara katedraleko erretorarekin, hautsi-mautsi bat egiteko apezpikuaren izenean. Hautsi-mautsiaren ondorioz Arbelbidek onartu zuen Hazparne eta Maiorga diosesari ematea eta, ez dugu ulertzen zergatik, ez zen Betarramen sartu, baina Baionako kalonje izendatua izan. Kongregazioko zazpi apez, botoak eginak zituzten 12 apezgai eta seminario ttipiko 30 bat gaztetxo sartu ziren Betarramen, lau frailerekin, orotara 53; baina ez bera. Nihon, deus ez dut ikusi aldaketa hori esplikatzeke.

Gero, hil arte, denbora pasatuko du seroretan erretiro predikatzen. Lehen misterioa beraz zergatik ez den bera Betarramen sartu. Ez dut erantzunik; hipotesiarik ere ez.

Bigarrena zer pasatu zen Jauffreterekin. Lehenik uste izan dut, Argentinan zen lehen aldian, huts zerbait, egin zukeela, apezpikuaren esku zen erabaki zerbait bere gain hartu edo horrelako. Baina nihon ez da horrelakorik ageri. Apezpikuak Diharcekin erromara igorri zuen gutunean, zioen Euskal Herriaren ahalak mugatuak zirela:

Les ressources d'un pays ne sont pas inépuisables et cette petite région basque, qui compte à peine 145.000 habitants est déjà exploitée par une abbaye de bénédictins très prospère qui s'y recrute à peu près exclusivement et de plus par les Frères des Ecoles Chrésiennes et les frères de Ploermel qui y possèdent les premiers un noviciat, les seconds un alumnat.

Diosesaren geroa arriskuan ote zen, odol hustua izateko arrizkuan ? Jadanik, Jauffret etorri aintzin, norbait hil beha egoten ziren apez gazteak, norapait izendatuak izateko. Jauffretek berak Larresoro handitu behar izan zuen, bai eta solairu bat gehiago eman seminario handiari. Ordenazioei doakienaz, hona datuak 1860tik 1910rat, hamarkadaka: 79, 84, 95, 103, 115. Hamarkadaz hamarkada apez berrien kopurua beti goiti zoen. Ez zen odol husteko arris-kurik.

Gainera Hazparneko apezgaiak ez ziren diosesako seminarioetan sartuko. Hauetan urte saria pagatu behar zen, eta horren emateko gai izan. Hazparnen aldiz ez zen urte saririk eta Jauffretek Hazparneko apezgaiari proposatu zien diosesako seminarioetan sartzea *merkeago pagatuz*.

Azkenaren buruan, nago ez ote zen botere arazo bat. Garai haietako apez-pikuak serora edo monja kongregazioen alde ziren. 19. mendean 340 emazte kongregazio berri sortu ziren Frantzian, Gizonezkoenak aldiz 51. Zazpi aldiz gutiago. Garikoitzek ez zuen Lacroix-ren baimenik erdietsi, bizi zeno, Betarra-me sortzeko, han, Betarramen. *Pendant 45 ans, il avait tout fait pour les torpiller*, idatzi du Lafittek. Pentsa gauza bera hemen, Baionatik 25 kilometrotan!

Gauza batzuk harritu naute. Zergatik mendekatu zitzaaien ordenatuak izan behar zuten apezgaiak deus ikustekorik ez zutelarik arazo honetan, gainerat, kongregazioa bere meneko zuelarik, diosesako kongregazio bat zenaz geroz. Zergatik mendekatu zitzaaien kongregazioko apezak orokorki, Arbelbidekin baldin bazituen arazoak? Harritzen nauena oraino nolaz utzi zituen bet-betan, abandonatu, gehiagoko funtsik gabe, Ameriketako Euskaldunak; batere apezik gabe, apezak bazituelarik? Aski zuen zuzendari berria izendatzea eta kongregazioa bere lana egiten uztea.

Harritzen nauena oraino, zergatik ez dion behin ere Arbelbideri garbi-ki erran: hemendik goiti ez zarete gehiago kongregazio izanen, horrelako eta horrelako arrazoinen gatik. Bazter bideak hartu ditu, konprenitzera bortxatze-ko iduriz. Menturaz noizbait, norbaitek argituko ditu gune ilun horiek.

Denbora laburregi nuen Vinson, Dogson,(biak gorriak) eta Azkue, Broussain eta beste euskaltzaleekin izan zituen harremanak aipatzeko, edo ortografia batuaz, Euskal Akademiaren sortzeaz idatzi duena. Abbadiaren lorejo-koetan eta Euskaltzaleen Biltzarra eman behar zuen *Fédération basque* elkartearen egin duena. Zer den bere liburuen teologia. Nolako euskara duen eta horrelako. *Egan* aldizkariaren zenbaki berezi bat aterako da laster horiekin denekin. Eta bururatzeko hona Pabeko *Le Memorial* egunkarian idatzia izan dena hil delarik:

On rappelait cette carrière si fructueusement consacrée au service de l'Eglise. Le jeune séminariste si grave et si réservé sur lui-même, mais toujours prêt à aider ses camarades avec un sourire si bon qui appelait invinciblement la sympa-

thie. Le jeune vicaire à son premier poste, collaborateur d'un curé difficile à contenter (...) le cofondateur de l'abbaye bénédictine de Bellocq. (...)

Sa part dans la fondation des Frères à Mauléon, (...) ses efforts pour conserver aux Basques transplantés de l'autre côté de l'Océan le bienfait de la foi. (...) Et quand ses rêves, excessifs sans doute, ne purent se réaliser, comment aurait-on oublié la force de caractère qui lui permit de faire un silence absolu sur tout ce passé, et de vivre dans une situation amoindrie avec le même calme, le même visage souriant, la même bonté bienveillante envers le prochain; le même empressement à se dévouer à autrui.

Ez da horrelakorik idazten apez txar batetaz. Eta apez txar bat ez du ka-lonje izendatzen apezpiku on batek.

ESTEBAN URKIAGA 'LAUAXETA' JAUNARI OMENALDIA

Mungia, 2005-X-21

ONDOETORRIA EUSKALTZAINDIA!

*2005eko urriaren 21an,
barikua*

*Jose Antonio Torrontegi,
Mungiako alkatea*

Arratsalde on jaun-andreok:

Ondo etorriak gure herrira, Mungiara.

Aspaldian ez dogu euki hain garrantzi handiko talderik gure artean.

Andres Urrutiaren esanetara, gure herrira gogo onez etorri zarielakoan, mungiarrok poz handiz agurtzen zaituegu.

Ikusten da zuen batzarrak mamintsuak dirala. Hainbeste gauza egin dozuez gaur bere, eta euren artean honako honeek:

– Batetik, Lauaxetari omenaldi ona egin deusazue.

– Bestetik, emakume bat ekarri dozue zuen artalde honetara. Hain zuzen bere, Ana Toledo. Zorionak danori!

Ana nire atxinako lagun kuttun baten emaztea da, Jose Juan Gonzalez de Txabarrirena. Bera Jaurlaritzan ezagutu neban (orain 25 bat urte), sasoi haretan euskerazko eskolak udaletxeei eskaintzen, gero HABE izango zana. Eta guk daukagun eskolan (l e h e n g o e t a r i k o a) hasikera hartan behar izan genduzan magnetofoiak berari esker lortu ziran. Gero Madrilen eta beste leku batzuetan bere izan gara alkarregaz. Zorionak ba Ana!

– Amaitzeko, eskerrak emoten deusuegu, zuen harretari esker gaur Mungia euskal kulturaren erreferentzia-gune bihurtu dozue-eta.

Beste barik, geure gogoia adierazoten deusuegu: *Ekin eta Jarrai* dagizuela holantxe luzeroan.

Eskerrik asko danori bihotz-bihotzez.

LAUAXETA ETA EUZKADI EGUNKARIAREN EUSKAL ATALA

Xabier Altzibar

Sarrera

Lauaxetaren mendeurreneko Omenaldi honetan haren kazetari alderdia hobeto ezagutzeko asmoak gidatu gaitu, ogibidez kazetaria baitzen. Haren kazetaritzaz azterketa batzuk egin dira (J. Kortazar: 1982; A. Mallona: 1991). Guk ere saio bat egin berri dugu (1). Lauaxetak 600 bat artikulua, bereak, klase guztietarikoak, idatzi eta argitara zituen, batez ere *Euzkadi* egunkarian eta zenbait kazeta eta aldizkari abertzaletan. Ordea, aipatu egunkarian eta bere zuzendaritzapean idatzi zuten ehundik gora euskal idazlerekin eginiko lanaz ez dugu azterketa berezirik.

Izan ere, orain arteko Bibliografia eta literaturaren historiako liburuetan (J. Bilbao, J. San Martin, S. Onaindia, N. Cortazar (N. Alzola Gerediaga), E. Amezaga...) *Euzkadi* egunkariko euskal idazlerik asko ez dira aipatuak, eta kazetalan edo idazlanik gutxi. Gerra osteko bibliografo askok *Euzkadi* nekez baitzuketen eskura edo bestela zentsuragatik ezin berririk eman. Idazle horiek ezagutzeko beste eragozpen bat ere badago: ia beti ezi-zenak ageri dira, egileen izenik ia ez. Tamalez oraindik ez dugu *Euzkadiren* euskal ataleko idazleen bibliografiarik, ezta Lauaxetaren kazetalanenik, argitaraturik behintzat. Zorionez egun *Euzkadi* egunkaria artxibo, biblioteca edo hemeroteka batzuetan irakur daiteke, adib. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian (Artea, Bizkaia). Bide batez, nire eskerrik beroenak bihurtu nahi dizkiot artxibo horretako Iñaki Goioganari, emandako laguntza eta informazioagatik.

Euzkadiren euskal atala gure kultura, literatura eta kazetaritzaren historia urrats bat dela uste dugu: besteak beste, gerra ondoko idazleak, bai eta egun oraindik bizi diren asko, eta horien ondorengook, haiengandik abiatu garelako. Hortaz hemen aztertuko dugu: zer zen euskal atala eta nondik abiatua zen, zer lan egin zuen Lauaxetak herrietako berriemaile eta idazleekin, zer ha-

(1) «Lauaxetaren kazetaritza» artikulua, Andolin Eguzkitzaren Omenaldi liburuan argitaratze-koa.

reman izan zuen eta zer egitasmo bultzatu, zer sail, genero, gai eta idazle agertarazi zituen euskal atalean, zer parte izan zuen euskarak *Euzkadi* egunkarian, zer auzi eta eztabaida izan ziren ataleko idazleen artean euskararen inguruan eta zer ekarri zion atal horrek *Eguna* lehen euskal egunkariari.

I. Lauaxeta, Euzkadi egunkariko kazetari eta euskal atalaren artezkaria

1. Jesuita karrerari utzi ondoren, 1928an hasi zen Lauaxeta *Euzkadi* egunkarian idazten, hain zuzen Kirikiño jubilatu baino 2-3 egun lehenago, Primo de Riveraren diktaduraren azken aldian. Hain zuzen, Kirikiño (1866-1929) hasi zen *Euzkadin* euskaraz idazten (1913), kazetari profesional gisa, eta berak antolatu zuen egunkariaren *euskal atal* («euzkel-atala») edo *arloa* zeritzona; euskal *sail* eta *orria* ere deitzen zuten, baina gutxiagotan.

Lehenbizi kolaboratzaile gisa idazten bide zuen Orixeren ardurapean, hau baitzen euskal atalaren zuzendari, eta aurki, 1930ko Olerti Egunean «Maitale kutuna» olerkiarekin lehen saria jaritsirik, kazetari idazle edo erredaktore sartu zen. 1931an, Orixeren ordez Lauaxeta jarri zuten euskal atalaren arduradun. Orduko EAJkoa bide zen.

Lauaxetaren kazetari-lan eta arduraldia Espainiako II. Errepublika garaian gertatu zen. Errepublikak, Alfonso XIIIren monarkia garaian Primo de Riveraren diktadurak kazeta eta hedabideei kendutako libertate eta aukerak ekarri zituen berriz. Diktadura aldian euskara debekatu zuten (*Euzkadi* egunkarian behintzat, 1926 arte ez zen deus argitaratu euskaraz, eta gero gaztelaniara itzuli behar izaten zen euskaraz idatzitako guztia, zentsura pasatu ahal izateko). Errepublikan ere sei hilabetez debekatu zuen Bizkaiko gobernadoreak Bizkaiko egunkari eta aldizkari guztietan 1934-1935 negualdian, zer da kontua eta Asturiasko iraultzagatik.

Izatez, eta jakina denez, *Euzkadi* EAJren egunkari ofiziala zen (Aberri eta Comución Nacionalista Vasca berriz bildu ondoren). EAJ alderdi abertzale nagusia zen, ez bakarra: 1930ean alderdiko zati batek beste alderdi bat sortu baitzuen, Euzko-Abertzale-Ekintza-ANV, alderdi akonfesionala. Horrek, batez ere, bereizten zuen ANV EAJtik. Gero, 1934ko maiatz-uda aldean beste zatiketa bat izan zuen EAJk, Jagi-Jagi-rena; ordura arte talde horretan egon eta izen bereko astekarian idatzi zuen Lauaxetak –gaztelaniaz batez ere– baita haren beste kazetarikide batzuek (Imanol Enbeita, Abeletxe etab.). *Euzkadi* goizeko egunkaria zen, Bilbon argitaratua eta bilbotarra, nahiz Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako berri ugari ekarri. Beste alderdien kazetak bezala, alderdikaria zen, esan gabe doa. Zortzi orrialdekoa 1931an, geroago hamarrekoa, are hamabikoa ere, baina euskaraz orrialde bakarra, 4, 5, 8, 12. orrialdean. Pantaleón Ruiz de Olano zuen zuzendari.

Zergatik orrialde bat bakarra alderdi abertzale nagusiaren egunkari ofizialean? Arrazoi nagusietarik bat garai hartan abertzale alderdien ikuspuntu «ofiziala» zatekeen: euzko herria (euskaldunak eta erdaldunak) pizkortu, euzkozaletu, abertzaletu eta behin abertzaletuta gero, berez euskalzaletuko zirela uste zuten, baina hor zegoen koska: abertzaletasuna gehitu beraz euskalzaletasuna gehitu? Ez dirudi hala gertatu zenik. EAJko abertzaleek (eta Lauaxetak ere, «ofizialki») kontzientzia politikoa jartzen zuten nagusi; abertzale eta euskaltzale askoren ikuspuntua, ordea, bestelakoa zen. Hogeitahamar urte lehenago ere, adib. Azkuek euskara jarri zuen nagusi; S. Aranak, abertzaletasuna.

Euzkadi ez zen euskal atala zuen bakarra. Beste egunkari batzuek ere, abertzale edo ez, bazuten: abertzaleen artean, Donostiako *El Díak* (1930eko ekainean hasia, Aitzolek zuzendua, A. Arzelus «Luzear» euskal atalaren artezkari); *La voz de Navarrak* (J. Agerre Santesteban «Gurbindo» zuen zuzendari, bera ere idazle, Larreko, Manezaundi, A. Tapia-Perurena etab.ekin); *Tierra Vasca* EAE-ANVrenak ere bazuen berea. Abertzale ez ziren batzuek ere bai, tradizionalistek adib., hau da, Bilboko *La Gaceta del Norte* (Zamarripa Kirikiñoren garaian eta gero M. Arruza «Arrugain» idazle); Donostiako *El Pueblo Vascok* (Zubimendi idazlea atalaren artezkari).

Euskarazko kazetalanak bilduta ageri ziren orrialdea edo tokia zen euskal atala. Halakoak Francoren diktaduraren ondorengo egunkariek ere (*Deia*, *Egin*, *Diario Vasco*) izan dituzte (gazt. «la página vasca del diario X»). *Euzkadi* egunkarian kokalekua zuen: 1931n 4. edo 6. orrialdean; 1933an, 4. edo 8. or.; 1933tik aurrera azken orrialdean (atzetik hartuta, lehen or.). *Egunekua* saila salbu, hau 1. or. eta 1. zerrendan ageri baitzen, lehen tokian beraz, Kirikiñoren denboratik hasita; noizbehinka beste orrialderen batean ere euskaraz idazlanen bat edo beste agertzen zen (adib. «Página agrícola»n, Euzk 1931-6-10).

Beraz 1931ko urri-azaroan euskal atalaz kargutu zen Lauaxeta. Urriaren 7an «Idazliai» zuzendu zitzaien, hots, bere ardura peko, idazkera kontuak argitzeko (Euzk 1931-10-7, 5. or., ap Kortazar: 1984: 13). Aurretik ere hasia zitzaien eduki eta forma aldetik (ortografia, morfologia, sintaxia) nola jokatu behar zuten adierazten. Ofizialki, azaroaren 3tik hasita, Orixeri agur egin ondoren (Lauaxeta, «Orixeri agurra», Euzk 1931-11-3).

Imanol (edo Manu) Enbeita «Uribitarte'tar Ibon» izan zen Lauaxetaren ordezkaria euskal atalaren artezkaritzan. Kirikiñoren garaiko kazetaria zen, haren bulegoan idatzi zuen egunero (lehenbizi *Egunekua* eta gero *Gayak* sailetan). *Bizkaitarran* ere bai, astero, eta gerra garaian *Egunan*. Aipagarria da hark euskal idazleekin eginiko lana, artezkari-orde gisa (2). Batez ere 1934-1936

(2) «Entzutea dogunez, egunkarirako hainbat lagunek bialtzen ebezan euskal lantxuei «Orixek» ez ei eutsen jaramon handirik egiten. Eta jakina, idazle hasibarrien eta gitxi ikasien lan hareek orraztuteko preminea eukene, eta Manu (Uribitarte'tar Ibon), orraztuten arduratu zedin jarri eben. Mañariarrak egin ohi ebana egiteko, izan be, idazle barriei lagundu, berberak idaztelanak argitaratuz ganera.» (E. Erkiaga, «Lauaxeta»-z barriren barri», Idatz & Mintz, 7, 1984, 30. or.).

urteetan, artezkaria idazbulegotik kanpoan zegoenean, I. Enbeita arduratzen zen euskal idazleen lanak argitaratzeaz, haren bidez jasotzen zituen Lauaxetak idazleen mezuak, eta artezkariaren ordeztatzen zituen zuzendutako oharak idazleei (adib. 1935ko urrian Lauaxeta Bartzelonan izan zenean, baita gerra hasita beste zeregin batzuk eman zizkiotenean). I. Enbeita Bilbon bizi zen, berak dioenez (Euzk 7004, 1935-6-7). Nago, bera ez ote zen askotan herrietako berriemaileen lanak zuzentzen zituen, eta agian batzuetan Lauaxeta berarenak ere. Olerkaria ere bazen (ik. Eraskinak (III): Euzkadi egunkariko euskal idazleak (1930-1936).

Lauaxeta eta I. Enbeita, baita A. Ruiz de Azua «Ogoñope» Euzkadi Irrati-koa, kazetari profesionalak eta soldatapekoak ziren. Euskal ataleko gainerako idazlerik ba ote zen ordaindua zenik, ez dakigu ziur baina ez dirudi: herrietako berriemaileek borondate hutsez eta deus hunkitugabe idazten bide zuten, euskaraz ari zirelarik bederen; hori dela-eta euskal idazleak sarritan kexatu ziren (3).

Kirikiño izan zen *Euzkadi* egunkariaren euskal atal edo arloaren sortzaile, bere lanari esker tokia irabazita —ez oparirik egin ziotelako—. Lauaxetak estimatu zeukan Kirikiñoren ahotik jasotako bultzadaxoa (Mallona: AB 88-89). Kirikiño maisu ezagutua zen idazle eta kazetari abertzaleen artean. Lauaxetak berak dio urtero urtarrilaren 31an joaten zela Mañarira, maisuaren hilobira. Egunkariaren euskal ataleko idazleek ere Kirikiñoren ikasletzat daukate beren burua («idazlion irakasle», Euzk 6940, 1935-3-22). Izan ere, mordoxka bat Kirikiñoren hazitikoak dira edo haren garaikoak (Z. Jemein «Jadarka», J. Altuna, M. Arruza, Garro «Otxolua», F. Belaustegigoitia, Tx. Arruti «Mendi-Laut», G. Osoro «Aberri» etab.). Hark irakatsi zien berriemaileei euskaraz idazten, kazetari idazkeran behintzat (Altzibar: 1997 a).

Kirikiñok markatu ildotik ibili zen Lauaxeta euskal atalaren artezkari zereginetan. Bai herrietako berriemaileen eta idazleen sarea osatze-lanari dagokionez: berrehun bat ezizen ageri dira Kirikiñoren berriemaile; handik hamar urtera, ehun eta berrogei bai gutxienez Lauaxetaren berriemaile. Bai artezkariaren zeregin nagusiari dagokionez: Kirikiñok bezala, Lauaxetak ere berriemaile eta idazleak idaztera bultzatu zituen beti, herrietako berrien zolan edo argitaraturiko olerkienean idazleari oharra eginez. Baita genero nagusien lantze eta argitaratzeari dagokionez: berriak edo *izparrak* eta berri laburrak alde batetik, iritziak edo artikulak «sakonak» bestetik, idazkeran batzuk eta besteak garbi bereizita; ipuin eta kontakizun atsegingarriak; euskal kulturako sail (adib. *Temas Vascos*) eta gaiak. Halatsu gaiei eta gaien tratamenduari dagokionez: politika (Euskadikoa, Espainiakoa, nazioartekoa), EAJ alderdiaren deialdiak,

(3) Berriemaileak, ordainduak izan behar zirela garbi ikusi zuten aspaldi idazleek, batez ere geroko egunkariari begira: ik. Euzkel-Idazle-Batzako arautegi-gaiak dioena («Euzko Idazleak», Euzk 6478, 1933-9-12; A. Irigarai «Irular»ek («Nabarra», Euzk 6670, 1934-4-2); «Etxekua»k, («Nora guaz? Euzkel-idazlien alde», Euzk 6789, 1934-9-13); Ibar-ek, *Genio y Lengua*, 74-75. or.).

gizarte-gaiak, erlijioa, literaturlanak (olerki eta bertsoak). Orobat tonu eta idaz-tankerako ezaugarri batzuetan (hizketa tonua, zirikadak,...).

Orixe ere euskararen maisu eta idazle eredugarri ezagutua baitzen (Altubek, Mokoroa «Ibar»ek etab.), haren joera edo idaztankeratik ere zerbait hartuko zuen, agian estilo literariorako isuri handiagoa. Lauaxetak literatura-lanei eskua gehiago zabaltu zien egunkarian Kirikiñok baino. Nolanahi ere, Orixe-ren ordean Lauaxeta artezkari jartzean, gauza batzuk aldatu ziren egunkarian: adib. abertzaletasun jeltzaleari indar eta idazleei arreta handiagoa hartzea eta sabindar eskolaren idazkera nagusi ezartzea.

II. Herrietako berriemaile eta idazleekiko lana

II.1. Lauaxetak herrietako berriemaileak eta idazleak bilatu, antolatu eta haiei gogoia berotu eta idatzarazi zien. Hartara, *Euzkadi* egunkariaren euskal herrietako berriemaileen («izparkarien») eta euskal ataleko idazleen sarea –Kirikiñok hasia, diktadura urteetan agian endekatua– berrizatu eta biziarazi zuen, I. Enbeitaren laguntzaz.

Idazle berrien, bereziki herrietako berriemaileen bila ibili ohi zen. Mitin eta hitzaldietan –euskaraz eginak baitziren– idazle ezagunak agurtzen zituen, berriak bilatzen eta *Euzkadi* egunkarian idaztera erakartzen. Alderdikideetara joko zuen, berriemaile asko alderdikide izango zituen. Izatez, Lauaxetak euskalzaletasuna ez ezik, abertzaletasuna ere bultzatu nahi zuen: abertzaletasun euskaltzalea beti. Euskal ataleko idazle gehienak, euskaltzaleak ez ezik, aberztaleak ere baitziratekeen.

Ikerketa zehatzik egin gabe ere, 89 herritako 156 ezizen ezagutzen ditugu, nahiz horien arteko batzuk berriemaile berarenak izan daitezkeen. Bizkaiako 56 herri eta hiritako berriemaileak dira, Gipuzkoako 27takoak, toki garrantzitsuenetarikoa; Araba, Gaztela, Santander, Logroño eta Txiletik bana. Ik. Eraskinak (I): Herrietako berriemaileak.

Herri batzuetako berriak astero-astero eta urtero-urtero ageri dira, berriemaile jarraiekiek bidaliak. Hona herri eta berriemaile aipagarri batzuk (herriak hurrenkera alfabetikoan jartzen ditugu; berriemaileak parentesi artean, gehienak ezizen hutsez): Akorda (A. Ruiz de Azua «Ogoñope»); Andoain (Buruntza); Areatza-Billaro (Akatza); Aretxabaleta (Muru-Mendi, Aitza); Arrasate (Udalaitz; Peli: Peli Markiegi?; Ikasle); Azpeitia (Kirol); Bermeo (Urkidi, «Arraintzale»); Donostia (Atarrene); Durango (Tabiratarra, Ibaizabal); Elgoibar (Gotzon Osoro «Aberri», Aixerrixa, Ixaka, Mirentxu); Errenderi (Andoni); Gaztelerría (Nabarritzarra); Gernika (Belumendu); Lasarte (A-Bi); Lazkano (Iramendi); Legazpi («Zar-zale»: Gr. Mujika?; Kepa Gurtubai «Ilintxa»); Lekeitio (E. Erkiaga «Endaitz»); Logroño (J. Garmendia «Jeltzale» edo «Zeleta» ezizenez ezagunagoa); Mañari (E. Bustintza «Mañariko» 1931-1936 urteetan;

Markina (Ete); Mendaro (I'tar, Agiis-arte, Kaiku); Motriku (J.M. Burgaña, Andoni, Gurutz-ondo, Arno-Mendi, Idrole); Ondarroa (J. M. Ituarte «Artibai» 1931-1936 urteetan, Txori-etxea, Txori-Erreka, Ibai-ondo, Edurbero); Santander («Otzategitxuko Jon»: Zabala-Arana?); Segura (Otarra); Soraluze (Drisdras); Urretxu (Arri Gotzon); Zarautz (Basarri); Zeanuri (Baserritar bat, Atzurluku'ko Mirue, Arregi'tar bat); Zumarraga (K. Linazasoro «Altzeta»).

Ohargarri denez, Bizkaiko eskualde, hiri eta herri ia guztietako berriak ageri dira *Euzkadin*, Enkarterri eta Ibai-Ezkerrekoak izan ezik, herri horietakoak gazteleraz agertzen baitziren; eskualde batzuetako ia herri guztiek zuten beren euskal berriemailea. Adib. Bizkaian kosta aldean, Gernika aldean, Mungia eta Txorierrin, Arratian, Durango eta inguruetan. Gipuzkoan, Deba Barrena, Deba Goiena, Urola, Urretxu-Zumarraga, Lazkao, Donostia, Oria (Lasarte), Erreenteria, Tolosa, Zarautz, Oiartzunen... Herri batzuetan berriemaile mordoxka bildu zuen egunkariak: esaterako Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Gernika, Kortezubi, Ondarroa, Zeanuri edo Lazkaon. Emakume berriemaileak ez bide ziren gutxi, hori ezizenek nekez erakutsi arren: Mañari herriko «Mañariko», Elgoibarko «Mirentxu», Markinako «Ete», Ereñoko «Emakume bat», Foruko «Ibai-gane»?, Gernikako «Bixiko-etxe»?, Urretxuko «Andere bat»?, Muxikako «Matxalen»?, «Atxondo» etab.

Berriemaile eta gainerako idazleei eginiko ohar izenpetuen bidez (Errijetatik saileko kroniken zolan agertzen zirenak, era honetara: «Uarra. (...). Lauaxeta» edo «L.» izenpetuta), eta halaber noizbehinkako («Euzkel) Idazliai» sail modukoaren bidez, Lauaxetak haiek idaztera bultzatzen eta gidatzen zituen egunoroko lanean, haien lanak argitaratzen saiatuz ahalik eta egokien. «Idazliai» horien bidez artezkariak dei eta ohar garrantzitsuak egiten zizkien (argitaratze-aldakuntzak, aldi baterako joera berriak...) (4).

Lauaxetak *idazle* (edo *herri-idazle*) deitzen zituen horien eginkizuna herriko kronika bidaltzea bazen ere, herrietako folklorea, toki-izenak etab. batzen lan egin zezaten ere nahi zuen («Euzko-Erri-Jakintza» sailerako). Eta onentsuenek egunkariako toki jakinean sail edo iritzi-artikulu bereziak idaztea ere, baita olerki/bertso edo literaturlanak. Beste era batera esanda, *idazleok* zeregin askotarikoak betetzen zituzten: batzuek herriko kronika igor edota herri-jakintza gaiez soilik idatziko zuten, beste batzuek iritzi-artikuluak, beste batzuek literaturlanak; askok, denetarikoak.

Ohar izenpetu eta noizbehinkako «Idazliai» sail horren bidez, Lauaxetak idazleekiko komunikazioa sustatu eta biziarazi zuen. Zuzendaria idazleekin, idazleak zuzendariarekin eta elkarrekin komunikatzeko mintzatoki izan zen «euskal atala». Esaterako, zuzendariak idazleei idazlanak eskatzeko, zuzen-

(4) Beti-beti ez zituen izenpetu oharrok, ezin izan bide zituen politika-kontuengatik: adib. Gatikako «Aberri-zale»ri idatzitakoak, honen «Gernikako espetxian» artikulua zolan, Lauaxeta izan behar du, ik. Errijetatik, Euzk 6805, 1934-9-30).

tzeko, zirikatzeke, gogo berotzeko, letrari buruzko oharra egiteko («izki argiz, tintaz eztatorzanak atzera juango dira», Euzk 6338, 1933-3-31), zergatik argitaratu ez duen edo berandu argitaratu duen azaltzeko, idazleei berriro idaztera deitzeko (1934-1935ko debekualdiaren ondoren) etab. Berdin idazleekin iritziak trukatzeko, elkarren asmoak azaltzeko etab. Askotan, Lauaxetak azaltzen zien zergatik moztu zien idazlana, edo nahi baino beranduago argitaratu. Beste batzuetan, Kirikiñok bere garaian bezala, berriak nola idatzi behar zituzten erakusten zien, eta, orohar, egin beharreko aldaketak adierazten (5).

Hain zuzen, berriemaile eta idazleekiko komunikazio horri esker, haiei entzunda, aldaketak eta sail, genero, egitasmo berriak bultzatu zituen Lauaxetak: antzerki, nobela edo irakurgai laburrak, folklore gaiak, haurrentzako irakurgaiak 1934 aldera... (6).

Idazleek, berriz, batzuetan zerbait galdetzen zioten Lauaxetari, edo beren kontuak edo familiarenak jakinarazten (batek anaia hil zaiola edo osasunez gaizki dabilela, besteak seme edo alaba bat izan duela eta ez dakiela zer izen ipini), edo abertzaleen edo jeltkideen arteko kontuak, edo berriemaile abertzaleak espetxean daudela, adib. Gatikako Aberri-zalek, Urretxuko Arri-Gotzonek, edo esker ona adierazten diote (adib. Bedoñako «Txorizale»k maisutzat hartzen du Lauaxeta «Agur Maixu! Agur lagun!» olerkian, ik. *Errijetatik*: Bedoña, «Txorizale», Euzk 6719, 1934-6-22).

Beraz Lauaxetaren oharra, kazetako berriemaile eta sail, genero edo toki jakineko idazleen kasuan, gehienetan ziren: idaztera eta irakurtzera bultzatzeko, zerbait aholkatzeko edo berriren bat emateko. Batzuetan, bide batez, bestelako abertzale/euskalzale ekintza batzuei buruz mintzatzeko ere (adib. Euzko Langillien Elkartasunaren aldeko lana txalotzeko (*Errijetatik*: Deba «Burni-Bide», Euzk 6407, 1933-6-21)).

Aipagarriak dira, esaterako, geroztik ezagunak gertatu diren idazle batzuei eginiko oharra, haien idazlanak txalotuz eta gogo berotuz: J. Azpeitia «Arri-tokieta»ri (Euzk 6275, 1933-1-17; 6299, 1933-2-14); Joseba Altunari (Euzk 6317, 1933-3-7); Jose Garmendia «Zeleta»ri (*Errijetatik*: Logroño «Ze-

(5) «Uar bat. Bere idazkiak argitaldurik ikusi gura dabezanak, bialdu begiz ainbat laburren, moztuen. Izparrik giarrenak, muinenak batu begiez» («Idazleai uarra», Egunkua, Euzk 5685, 1931-2-28). «Uarra. Aldaketeak. Geure idazle adizkidia igarri ixan dabez oraingo, orri onetan egin doguzan aldaketeak (Izpar Urtenenak saila hasi, Errijetatik saila 7. orrialdera pasatu, etab.) (...) ondikarren aldaketa geyago be egin gura geunkez. (...) kontura bediz Errijetatik deritxon sallan, zerbait moztu biar-ixango dogula. / Erri-izparrak labur-labur agertuko dira. Gaur asi ta agertuten diran eran (...)» (Uarra, L(auaxeta), Euzk 6512, 1933-10-21).

(6) «Ainbat errijetakuak eskatuten dauskubez euzkeraz *antzerkitxubak* (...). *Azkatasun-bidian* (antzerkiño laburra), Endaitzena. Garrok L. Leon-en *Maturĩño kapoyak*, euskera erraz, labur ta bizkorrean. Gipuzkoatik, «Ustekabezko sendagilea», Baltzetegi'tar Bittorenek. / «Euzkerazko nobelatu edo irakurgayak argittaltzen be, asiko gara. / *Euzko-Erri-Jakintza* arlua be sendotu gura dogu, aspaldijon isil samar gagozalako. Asmo oneik ta beste gorengo batzuk atzalduko dausseguz irakurle adizkidiai» (Euzk 6515, 1933-10-25).

leta», Euzk 6369, 1933-5-7); «Atarreneri» (Euzk 6403, 1933-6-16); Aingeru Irigarai «Irular»i (Nabarra «Irular», Euzk 6670, 1934-4-2), etab. Denak ez dira oniriztekoak. Inoiz, eztabaida batean, alderdiaren jokaera zurituz norbaiti kontra egiten dio. Adib. Barrensorori, alderdiak euskara gehiago egitea eskatu zuelarik (7).

Adiskide edo ezagunei konfiantzaz eginiko oharra ere bada, kontuak kontatzeko (elkar-ikuste, familia arteko kontu, sortze-heriotze...). Batzuekin hitanoz mintzatzen da (Gatikako Aberri-zalerekin, Sabin Muniategi olerkariarekin etab.), euren arteko konfiantzaren seinale. Lauaxetaren beraren familia arteko kontuak jakiteko ere balio digute (aitabitxi dela, arrebaren ebakuntza: Euzk 1931 urtarril-ots., Eu 5680, 1931-2-22). Lauaxetaren ohar eta artikuluetako iruzkin/iritzietan ageri da: idazle batzuekiko harremanak adiskidantza-zakoak zirela, bereziki A. Zubikarai «Arteta»rekikoak (ik. *Errijetatik*: Mendexa «Arteta», Euzk 6361, 1933-4-28; *Errijetatik*: Mendexa, Euzk 6411, 1933-6-25). Beste batzuk ere adiskidetzat hartzen ditu: J. Abando «Erletxue», A. Ruiz de Azua «Ogoñope», M. Ziasolo «Abeletxe», F. Irigarai «Larreko», «Irular», I. Enbeita, E. Erkiaga.

Beste ohar mordoxka bat, olerkarietako eginikoak dira, gehienetan haien olerkiei oniritzia emateko eta gogoia berotzeko. Lauaxetak uste zuen olerkarietako elertizalea toki egin behar zitzaizela egunerokoan (Euzk 7141, 1935-11-14). Hortaz bere olerkiak ez ezik besterenak argitara zituen. Adib. ondoko olerkarietako zuzendu zizkien oharra: Zubimendi (*Egunekua*: Euzkel orria atala, Euzk 5669, 1931-2-10); S. Muniategi (Euzk 7016, 1935-6-21; Euzk 7061, 1935-8-13); Erletxuerei (Euzk 7343, 1936-7-9); Satarkari (Euzk 6556, 1933-12-12; Euzk 6717, 1934-6-20; Euzk 7171, 1935-12); Euzk 7171, 1935-12-); L. Jaurregi «Jautarkol»i (Euzk 6659, 1934-4-12); «Txorizale»ri (*Errijetatik*: Bedoña «Txorizale», Euzk 6719, 1934-6-22); «Lotsati»ri (Euzk 7129, 1935-10-31).

Oharrotan Lauaxetaren iritzi borobil batzuk ageri dira. Hiru aipatuko ditugu. Lehena, ondo idazteko, asko irakurri behar dela (8). Bigarrena, euzko kultura nahi duenak, euskarara jo behar duela (9). Hirugarrena, olerkariak bere nortasuna gorde behar duela, guztien kontra bada ere (10).

Lauaxetak idazleei ongi esan eta ongi hartzen zituen, begirune eta ikusateak erakutsiz. Bazekien jendearekikoa egiten. Baita batzuei errieta egiten ere,

(7) «BBBko landoletan, *Euzkadi*'ko aretoetan eta beste toki gustijetan be, amaikatxu euzkera entzun daruagu (...). «Lauaxeta.» (Euzk 7161, 1935-12-7).

(8) Ik. *Errijetatik*: Mungia «Beti-Zuzen», Euzk 6406, 1933-6-20. Lotsati-ri: Olerkari onaren lanak irakurri egizuz, edertijaren arauak, be, adiraldu.. Lauaxeta.» (Euzk 7129, 1935-10-31)

(9) «Euzko-kultura nai dabenak, euzkerara jo bihar-dabe Jakintsu geyenak euzkeratzaz aztu dira-edo. “L”» (J. Garateren euskarazko artikulua bat txalotuz: «Sendagilleak eta landarabere ikasleak», «Eneko», Euzk 6776, 1934-8-28).

(10) «*Gustijen kontra bada be, olerkarijak aurrera egin biar dau*». Lauaxeta.» (*Errijetatik*: Bedoña «Txorizale», Euzk 6717, 1934-6-20).

abertzaletasunaren izenean. Berriemaileak berriz, maizko kexu ziren idazlana berandu argitaratu zitzaizela-eta, edo batere ez. Lauaxetak behin hauxe erantzun zion bati:

«Eta zeuk zegaitik idazten dozu? Neugaitik ala aberrijagaitik? Aberrijagaitik idazten badozu ondo eralgia diru gustijak (posta zigiluetarakoak). Otzara barrura jaurti bada be (bialduriko lana), ezta iñor mindutiarren. Ez: aberrijagaitik asko jasan bihar da» («Idazliai», Euzk 1931-10-29, ap Penades: 1997: 98).

Bazekien berriemaileek zer nahi zuten gehienik:

«Gustijen naya zein dan badakit: igandian euren erritxuba ikustia. Tamalez orontzat eztago tokirik. (...). / Aste osua dauke, bai?, eta idatzi dagijela beste egunetan be. Zelan edo alan konponduko dogu oker au. Lauaxeta» («Idazliai», Euzk 6489, 1933-9-24).

Lauaxeta eta idazleen elkarlanaren ondorioz, *Euzkadiren* euskal atala iturri aberatsa bihurtu da: a) euskal herrietako berriak, garai hartakoak, jakiteko. Beraz, euskal kazetaritzaren tradizioari jarraituz, esan dezakegu, gure herrietako eta garai bateko berriak euskaraz idatziak direla, erdaraz baino askoz gehiago. Gainera, herrietako berriemaileek euskaraz irakurtzeko zaletasuna ekarri edo behintzat biziarazten lagundu zuten. b) Euskal folkloreko, «herri-jakintza»ko gauza asko argitaratu zirelako. c) Orobat, literatura landuko emaitza ugari, baita liburu, idazle, egile argitaraberrien berri eta kritika. Hori guztia Lauaxetaren bultzada eta sustapena gabe ez zatekeen gertatuko.

Hona, Lauaxetaren arabera, idazleekin eginiko lanaren sakoneko arrazoiak: «abertzaletasunaren gurasoak», «aberriaren gudari punteregoak» omen dira.

«Eta zetarako gura dozu idazlia, ba? Ludi osua dozu idazliena. Matxiñadak eta asaldak ezтира egitten ukubilakaz, idazlenakaz baño. Adimenak argiz betetu daruaz idazliak. Geure Euzkadi onetan zelako lan ederra eztabe egitten idazliak. Eskerrak eurai abertzaletasuna aurrera dua. Egunero tanta-tanta ixuri daroe aberrijaren ezaupidia.

Eta idazlien artian, azkenenguak ezтира erri-idazliak. Erri bakotzeko izparrak eta gora-berak bidalduten dabezanak, lan gurena egin daroe. Eliaren alde ez-eze ekandu onaen eta erri-ixate gustijaren alde aleginduten dira.

Euzkel-idazliai etxake eskerrik emon oindiño, baño gaurko abertzaletasunaren gurasorik onenak eurak dira. Urtero-urtero zenbat azi erein ez ete dabe? Izlarijak egiten eztabena, eurak egin daroe. Lenago ezer etzan irakurten geure ele onetan, orain geitxubago. Zegattik? Erriko izparrak ikustian-edo, asko zaletu diralako.» (Lauaxeta, Euzk 6440, 1933-7-29 «Aberri»ri omena»).

«Zegattik ara (Aberri'en Omenaldira) juan nintzan ittaundu eustan bati eratzun neutson: «Aberri»ri dautsodan mattasuna dala-ta. Euzkel-idazliai zor yaken bijotzeko mattasuna erakutsi gura dautsegu. Aberrijaren gudari punterenguak doguz.» (Lauaxeta, «“Aberri”ren omenari buruz», Euzk 6444, 1933-8-3).

Ik. Eranskinak (II) Oharrak: Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari.

II.2. Lauaxetak idazleen antotolaketa bultzatu zuen. *Euzkadiren* euskal ataleko idazleek Kirikiño zenaren Omenaldian parte hartzen zuten (11). Gero, Kirikiñoaren garaietan hasita, urtero edo urte batzuri behin ospakizuna egin ohi zuten *Euzkadiko* euskal idazleek behintzat (eta dirudienez *El Diakoekin* batera ere, 1933, 1934, 1935 urteetan): meza, batzarra, bazkaria, mus edo pilota partida (12).

Omenaldi eta idazleen batzar horien ildoari jarraituz, 1933ko udatik hasita (ik. Euzk 6444, 1933-8-3), eta Gotzon Osoro «Aberri» Elgoibarko berrie-mailearen omenaldia aprobetxatuz (1933-7-30), euskal idazleak elkarte batean (Euzkel-Idazle-Batza) bil eta antolatze ahaleginak egin zituen Lauaxetak: gai honetaz artikulua mordoan argitaratu zen 1933ko uztail-abuztu-irail-urrian. Ahaleginak egin zituen ere asmo zaharrak («Euzko-erri-jakintza») eta berriak suspertze (13).

Sortzekoa zen idazleen elkarte horri buruz bi joera agertu ziren: batzuek euskaltzaletasuna lehen ezarri nahi zuten, beste batzuek abertzaleatasuna (14). «Aberri»ren omenezko egun horretan idazle elkarte bat sortzeko asmoz behin-behineko batzorde bat izendatu behar zela erabaki zen, bi hilabeteko epean arautegi bat asma zezaten. Arautegi horretako puntu nagusiak ziren: Euzkel-Idazle-Batza elkartearen sortzea, alderdi gabekoa; izparkari ordainduen bidez

(11) Adib. 1931ean, martxoaren 16 edo 15ean, Kirikiñoaren omenezko egunean hitz egin zuten: Otxoluak, euskal idazleen izenean; J.M. Garatek, Euzko-Gastedijaren izenean; Jemein'dar K.ek, Kirikiñoaren euzko-ikasleen izenean, ik. Errijetatik, Euzk 1931-3-10. Agian Kirikiño Sarian ere parte hartzen zuten.

(12) Hona 1934ko ospakizunaren egitasmoa «Gero, esaterako, Lauaxetak edo eratzaillik gura dozuben batek, itzalditxu bat geuretzat, euzkel-idazlontzat, ikaskixunen bihar gagoz asko-ta. Au, bardin goxetik. Arratsaldian, bertsoak: Basarri, Enbeita'tar Ibon, Enbeita'tar Kepa». Gero, olerkiak eta kantuak (Euzk 6774, 1934-8-25. Ik. ere «Idazle-Batzarra», Euzk 6775, 1934-8-26).

(13) «Aberri»ren omenaldira 90 pertsona baino gehiago joan ziren, gehienak idazleak; horietako gehientsuak izengoitz aipatzen ditu Lauaxetak; kanpokoan 18 telegrama jaso omen zituzten. Batzarra ondo atera omen zen, batez ere A. Arzelus «Luzear»-i esker. (Lauaxeta, «Aberri»ren omenari buruz», Euzk 6444, 1933-8-3).

(14) Lauaxetak «Atarrene» ren iritzia, *El Día*-n agertarazia, jasotzen du: «Nere uste txiroaz, orain sortu nai dan euzkel-idazle batza ori, jeltzale alderdikoa izan bear du. / Biar bada, uskurtz, aberri, azkatasun ta jeltzaleatasuna gorrotatzeko, euzkera darabilkiten idazleak, idazle batza orretan ez. Orlako batza, Euzkeltzale, E.-Esnalea, E.-Ikaskuntza, edo Euzko-Pizkundeak sortu bezate. / Euzkera-alde beti ta beti, baña ez euzkera dalako bakarrik, gure Aberriko zorion ta azkatasun alde jarritta baño. / «Aberri» omenduaz, sortu nai dan euzkal-idazle batza, Jel ta azkatasun euzkiak, bero-bero egindako asmoz sortu bedi. Auxen da nere uste zintzoa.».

Eta ondokoa eransten (Lauaxetak): «Euzkeraz idazten dogunok, aberriaren elia dalako baño eztozu idazten. Eta neketuta gagoz beti abertzale eztiran iru edo laugattik, geure aberriari ezetz egitten. «Aberri» azkarra, abertzale zintzua ixan da beti, idazle ona, baña abertzale obia. Eta geure aintzarik andijena, abertzale ixtatia da, ez idazle ixtatia. Gai onetzaz zerbait esan biarko dogu. (Lauaxeta, Zirika, Euzk 6429, 1933-7-16).

(Euzkel-Idazle-Batza uztail bukaeran edo abuztu hasieran sortuberria delarik, I. Enbeitak dio, *El Diaren* arabera bi iritzi daudela: joera zabalekoak eta joera estukoak, azken hauek euskaltzaletasuna abertzaleatasunarekin elkartzen zutenak. *Euzkadiko* idazle gehienak, joera estukoan alde omen («Uribitarte'tar I», Egunkia, Euzk 6444, 1933-8-3).

egunkarietako euskal atalak biziaraztea; literatura, liburu argitaraberri, sariketa, ospakizun eta idazleen kontu eta harremanak aipatuko zituen aldizkari bat sortzea, emakumeekiko gai eta asmoak berezki erabiliko zituen atal bat izango zuena; elkarte horrek euskal aldizkari guztiei eustea, batez ere haurrentzako egin nahi zen aldizkaritxoari (15).

Bizkaiko idazleen ordez Lauaxeta hautatu zuten (16). Beraz arautegigai hori eztabaidatzeko edo onartzeko Lauaxetak Elgoibarko batzarrera dei egiten du, 1933ko urriaren 1erako, Euzkel-Idazle-Batza elkarte eratu behar dela behin eta betiko esanez («Euzkel-Idazliai», Euzk 6492, 1933-9-28). Baina 1933ko urriaren 1eko Elgoibarko batzar horretara Bizkaiko askok huts egin zuten («Euzkel-Idazle-Batza», Euzk 6497, 1933-10-4). Behin-betiko Batzordeako hautatuak izan ziren: Bizkaitik Lauaxeta, M. Ziarsolo «Abeletxe», T. Agirre «Barrenso. Euzkel-Idazle-Batzen berehala euskararen egoeraren inguruko auzi eta eztabidak sortu ziren.

1934-1935ko sei hilabeteko debekualdiaren ondoren, Lauaxetak berriro idaztera dei egitean, herrietako berriemaile guztiek ongi erantzun eta berriro berriak bialtzen hasi omen ziren (Euzk 6948, 1935-3-31). Hala ere, batzuek erderaz berriak bidali zituztela-eta, denak ez zeuden pozik; askok «erriko izparrak euzkeraz bakarrik» nahi (Euzk 6948, 1935-3-31). 1935ko apirilean ospatu zen Motrikun Euzkel-Idazle-Batza (edo Batzarra)ren bilera, Joseba Arruti «Arnobe» berriemailearen omenez (Euzk 6957, 1935-4-11). Ordezkarik hautatu zituzten: Bizkaitik E. Erkiaga «Endaitz» eta B. Garro «Otxolua»; Gipuzkoatik «Iribe» ta «Txaldatxu»; Nafarroatik Manezaundi eta A. Irigarai «Iru-lar» («Arnobe»ren omen-jayak», Euzk 6972, 1935-4-30).

(15) «Euzko Idazliei» artikuluan Behin-behineko Batzordeak haxe dio: Aberri eginiko Omenaldian (uztailaren 30ean) idazle Bazkun bat sortu behar zela eta behin-behineko Batzordea izendatu zen, bi hilabete barru Araudi-Gai bat asmatu eta *Euzkadi* eta *El Dian* argitaldu. «Araudi-Gaya euzko-idazle guzien aurrera dakargu» (Ondokoa).

«1. Euzkel Idazle Batza deritzan elkarte bat sortzea.

2. EIB politika alderdi gabeko bedi ta elburutzat izango ditu: Euzkadi gure aberria irakurgai ta idazlanen bidez bizkortu ta sendotzea ta idazleai elkarren artean laguntza ematea. (...).

6. Egunkari ta aldizkingietan euzkerari zor zayon lekua eman dezayoten arretaz arduratuko da. Batez ere egunkarietako euzkel-atalak, bizi, mamitsu, ta berri ta azken-jazoeraz beteak etorri ditezten, egunkariak dagokien eran. Onetarako bear diran euzkel-izperkari ordainduak izan bitzate. Au da biderik bakarra gerora euzkel egunkari utsa sortu al izateko.

7. Euzkel-Elertiarren gora-berak, liburu berrien albiste, sariketa, jai ta euzkel idazleen arteko artu-eman guziak jakin erazi ta aztertze EIB'k aldiz beingo «deya» edo «Errebis-ta» bat argitaratuko du. Aldizkari onek izango du atal bat emakumeekiko gai ta asmoak berezki erabiliko dituna.

8. Ontaz gañera EIB'k euzkel aldizkingi guziai eutsiko dio, ta batez ere aurrek irakurtzeko egin nai litzaken aldizkingitxoari» (Behin-beñeko Batzordea, Euzk 6478, 1933-9-12).

(16) «Bizkaiko idazlien ixenez autu ninduben ezker, neure gardiz egokijaguak diran aldakuntzak egin dodaz (...).» (Euzkel-Idazle-Batza. Uarra. Lauaxeta, Euzk 6487, 1933-9-22).

II.3. Idazleen formakuntza hobetzeko, idazle berriak eta irakurleak ugalteko, bereziki liburu eta kazeten bidez, azpiegitura-proiektuak asmatu eta antolatu zituen Lauaxetak. Bereziki, euskal euskal ataleko idazleen formaziorako, euskal idazleen biblioteka bat –idazle onen liburu bilduma baten argitalpena– egitea asmatu zuen 1936an: Euzkel-Idazti-Alde egitasmoa (17). Ideia horrek hasieran arrakasta gutxi izan zuenez, indartzeko euskal liburuen argitalpenaren aldeko kanpaina egin zuen, harpidedun sare bat osatu nahiz, gutxienez 500 bat irakurlerena, liburuak argitaratu eta merke saldu ahal izateko (1-2 pta). *Euzkadiko* hiruzpalau idazlek baino erantzun ez zutela ikusirik, etsita agertzen da baina J. Abando «Erletxue» eta Ogoñope adiskideek beren artikuluen bidez lagundu eta amore ematen diote:

«Lauaxetaren asmoagaz Euzkel-Idazti-Alde batu dagiazala lanik onenak, (...) euki daigun biblioteka aberatz bat. (...). / Or dagoz *Euzkadi*’ko orrietan ainsteste ipuin eder Mañariko, Arritokieta, Muniategi, Endaitz, Uzturre, Otxolua, Barrenso, Enbeita’tar Imanol eta beste askorenak. (...). Ez deritxazu lotsagarria dala oindiño, esate baterako, Enbeita’tar Kepa’ren bertso liburutxu bat eztogula egin?» (Erletxue, «Entzun ondo ta ez aitzu!», *Euzk* 7346, 1936-7-12).

Lauaxetak bere egitasmoa aurrera ateratzeko kanpaina egiten du, 1. or. ere erdaraz idatziz, arazoa zein zen ezkutatu gabe (18). Irakurleak nahi dituzte, edo behintzat ahalik eta erosle gehien. Propaganda egiten dute, harpidedun agiri batekin; helbidea: Correo kalea, 17.a. Helburua: euskal idazleei laguntzea lotsa ken eta hobeto idatzarazteko, elertia aberasteko etab. Horretarako liburuari garrantzi handia ematen zaio, hizkuntza biziartzten duela-eta. Moko-

(17) Lauaxetak baino aurretxoago «Ibar»ek (J.M. Mokoroa) euskal idazleen biblioteka egitasmo bat diseinatu zuen, Lauaxetarenaz bestelakoa, *Genio y lengua*, 1935, 255. or. Lauaxetak ezagutu zukeen Ibarren liburu.

(18) «Los escritores vascos están en sazón. Cada uno de ellos ha escrito poesías, teatro, novela, ensayos. ¡Pero nada se edita! Las razones son varias y opuestas. Por algunas torpezas iniciales y atentados contra el idioma, los lectores vascos son muy escasos. Nos encontramos sin mercado para el libro. «¿Cómo no habeis editado todavía un libro de poesías de Enbeita?», nos interrogaron días pasados. / Y el fino abertzale aquel ignoraba que tenemos preparada una antología del ruiseñor de Muxika; pero el editarla es correr el albur de buenas pérdidas económicas. Alguien nos ha incitado a buscar soluciones a tan grave problema. Mientras en nuestra tierra no surjan hombres de la talla intelectual de quienes han levantado las fundaciones de Bernat Metge y las pulquérrimas versiones de los clásicos griegos y latinos, tendremos que idear leves pero prometedoras empresas. / Euzkel-Idazti-Alde se denomina esta tentativa. Enmarcada en normas esencialmente vascas, emprende la edición de libros euzkéricos. Pero ello reclama urgentemente la ayuda de cuantos aman y aprecian el idioma. ¿Nuevas cuotas? En modo alguno. / Las ediciones serán populares, dos pesetas o menos el coste de cada ejemplar, pero con fundamentos de estabilidad. Necesitamos quinientos vascos que se comprometan a comprar un ejemplar de cada libro editado por Euzkel-Idazti-Alde. Al comienzo saldrán de dos en dos meses. Con esa base de suscriptores, sin otro compromiso que pagar el ejemplar, que se les enviará a domicilio, se pueden editar sin miedo a pérdidas los libros que hoy yacen inéditos. / Muchos de los escritores que guardan para mejores tiempos los trabajos de su ingenio podrán ver en letras de molde lo que con tanto afán y entusiasmo patriótico lo redactaron. Contamos ya con doscientas suscripciones, casi todas ellas logradas en Bilbao. (...)» (L(auaxeta), *Euzk* 7349, 1936-7-16, «A favor del libro euzkérico», 1. or. Beste pasarte batean dio: «Hay veinte buenos escritores al menos.»).

roa «Ibar» eta J. Garateren kritika batzuk, euskaldunen ardurarik ezaz, aintzat hartzen dituzte (ik. Erletxue, «Entzun ondo!», Lauaxetaren oharra, Euzk 7344, 1936-7-10; Belostikalekoa, «Entzun...? Bai zera!», Euzk 7345, 1936-7-11).

Beraz hasieran Lauaxeta etsiak jota ageri da, Bizkaian 200 bat harpidedunek baino ez dutela hitza eman-eta, baina «Erletxue» eta «Ogoñope»ren artikuluko zirikatzaileek apurka-apurka harpidedun berriak eginarazten dituzte (ik. Erletxueren aipatu artikulua eta Ogoñope-ren «Entzun ba! Entzun!», Euzk 7349, 1936-7-16). Egitasmo hori eta Olerti-Atalak argitaratzen harrapatu zuen gerrak eta orduan Lauaxetaren egoera errotik aldatu zen, beste zeregin eta ardua batzuk hartu behar izan baitzituen.

Bestalde, idazleen formakuntzari begira, Lauaxetak sail eta artikuluko ugaririk argitaratu zituen: Temas Vascos, Esaerak (I, II, Eu 6278, 6279, 1933-1-20/21). Ik. aurrerago, III. atalean.

III. SAIL, GENERO, GAI, IDAZLE

Euskal ataleko idazlanak Lauaxetak argitaraziak dira eta askotan haren lanaren ondorio. Atal honetan bere artezkaritzapean, euskal atalean (edo *ingostijan*) agertarazi zituen sail, genero, gai eta idazleak (non zer nork) azalduko ditugu, generoei dagozkien bilakera edo aldaketez zerbait erantsiz. Aipatu dugu Kirikiñoren genero nagusietatik abiatzen dela Lauaxetaren garaiko euskal atala. *Sail* hitza erabiliko dugu (gazt. *sección*, fr. *rubrique*) kazetalaran mota edo gai jakinekoak kokatzen dituzten toki egonkorak izendatzeko; Kirikiñok eta Lauaxetak *sail* nahiz *arlo* deitzen zuten.

Lehenik, berez beti kazetaritzari dagozkion generoen artean:

III a. Iritzi artikulua. Iritzi artikuluko nagusia Azalpenak izeneko saila da (1931-1932). Hau da Lauaxetaren sail ezagunena. 1931-2-27an hasten da. Gaiak gehienetan alderdiaren politikak markatuak dira: hauteskundeetan katalikoen boza EAJri; elebitza (uste ez bezalako aukerak ematen baititu); Autonomi Araudia (*Euzko Araudia*); Udalak (Euskal Herriko tradizio demokratikoari jarraituz), Lizarrako Batzarra eta Estatutoa, etab. Gaiok politika eta ideologia jeltzalearen ikuspegitik aztertuak dira. Azalpenak aranatar idazkeraz idatzia da. Hasieran sail honetako artikuluek ez dute izenburu berezi bat, gero bai. Noiz edo behin «Tabiratarra» delakoak ere idazten du sail horretan (Euzk 6303, 1933-2-18) edo A. ta Agirre'tar J.k ere, SJ.

Bilakaera dagoke sail honetan, J. Kortazarrek azaldu duenez (1982: 16). Sail honetako batzuk, kontakizun modukoak, satira eta umoredunak dira («Salatarijak» Euzk 6268, 1933-1-8/10/12). Azken aldian etsaiei zirikadak sartzen hasten da Lauaxeta eta horregatik sortzen du Zirika edo Zirikadeak saila, bata eta bestea txandakatuz (azkena, 1933-V-24tik aitzina, aldika; eta berriro

1934-V-tik aurrera, adib. Euzk 7163, 1935-12-10). Sail horretako artikulua ere Lauaxetak izenpetuak dira. Generoa bestelakoa da: izenburuak dioenez, gertaeren eta etsaien jokaeraren komentario labur ironiko-sarkastikoak, argudiatzeko premiarik gabe. Politika gaiak dira nagusi. Asmoa, etsai politikoak (tradizionalistak –Olazabal, La Constancia–; sozialistak –Prieto, Laiseka, Meabe– farregarri uztea. Euskal Herrikoak eta Espainiakok ez ezik, mundukoak ere (kasu honetan ez dira ironikoak, berriak laburki baizik). Sail honetako artikulua izenburu gabeak dira, glosa multzo batek osatuak, bata bestetik marra batez bereziak. Interesgarriak dira Lauaxetaren balioak, filiak eta fobiak ezagutzeko (arrotzak, nudismoa). Ik. sorta bat in Altzibar 2005.

Hizkuntza aldetik Azalpenak baino ulergarriagoa da: hitz mordoiloak ageri dira (*multa*, *denuntzia*, *enbargau*, «*excomulgata*»). Kalifikatibo gogorrak (abereekiko konparazioak, gutxiesgarriak) alde batetik, umorea bestetik (eufemismoak, metaforak hiztegi politikoan: *sosolistoak*, *margaritak-margaritoak*, *hauspogileak* «salatariak», *basurdeak* («Udal-ixunak»). Zirikalari ospetxo hartu bide zuen egileak («Lauaxeta zirikalari ospetsubak, (...)», «Ni nok», Errijetatik: Mallabia, Euzk 7249, 1936-3-19). 1936an inoiz itzultzen da, beste tonu batean, sinatu gabe (adib. Zirikadak, Euzk 7224, 1936-2-19; Lauaxeta ote idazle?). Beste iritzi artikulua batzuk ere, sinatu gabeak, Lauaxetarenak dirateke, adib. 1936ko otsaileko hauteskunde ondorengo batzuk, edo agian Iriizjak noizbehinkakoa (Euzk 6513, 1933-10-22/24).

Berriak interpretatuta (edo iritziarekin nahaste): Egunekua saila (1931-1935). Eguneko 4-5 berri garrantzitsu, hurbilenak, komentatuta. 1931an hiru zatitan banatua agertzen da: 1) Euzkadi'tik (hiruzpalau izenburutxo zituen Euskal Herria ukitzen zuten gai nagusiei buruzkoak: «Politika arazuak», «Euzkel ixenak», liburu/aldizkariren baten izena, haren argitalpen berria kari; erlijio/Eliza Katolikoaren inguruko kontuak, adib. misioak (*belguntzak*). 2) España'tik (politika-, gizarte-gaiak: berri laburrak, esaldi bat edo bi, bere izenburutxoarekin, are berri hutsak. 3) Atzerrietatik. Egunkarietatik hartutako gai eta zeresanak darabiltza.

Egunekuaren kokapena: 1931ean 5. or., batzuetan 6. or.; 1933an 1. or., lehen zerrendan eta lehen tokian, hoberenean (euskal ataleko gainerakoak 8.ean). Sail hori Kirikiñok hasia eta biziarazia zen; 1934 aldean Lauaxetak lehen orrialdetik kendu eta euskal orriaren barnean kokatu zuen, gainerakoekin batera. Gehienetan «Uribitarte'tar Ibon»ek (I. Enbeita) izenpetua zen, haren saila baitzen. Inoiz, «Utarra»k (Euzk 5786, 1931-6-30). Izenpetu gabe datorrenean, batzuetan Lauaxeta da egilea (1931), berriz eta noizbehinka itzultzen dena (1933-abuztuan, 22^a arte, izenpetuz edo gabe; irailean 13-24 bitartean ere; 1934ko irailean, ik. Euzk 6781, irailaren 10 arte). Baliteke kasu batzuetan I. Enbeitak oporrak hartzen dituelako izatea. Abeletzek ere idazten du noizbait (Euzk 1931-7-1).

Gayak saila Egunekuaren jarraipena da eta beraz «Uribitarte'tar Ibon»ek idatzia. 1935 urri ingurutik 1936ko amaiera arte iraun zuen (Euzk 7491, 1936-12-31), orduan M. Enbeita *Egunako* idazle bihurtu baitzen.

Beste iritzi-artikulu nagusi batzuk, 1936 otsail ingurutik aurrerakoak, toki berezian kokatuak dira: edo erdian, edo negritaz, horietako batzuk behintzat zirikadak. Susmatzen dugu Lauaxetarenak izan daitezkeela. Edo behintzat hark iritzi-artikulu ugari idatzi zituela, izenpetu gabe. Propaganda-artikuluak eta artikulu sailak batez ere hauteskunde aurrean ageri dira. Ugariak dira 1936ko otsail erditsukoak, sinatu gabeak noski baina agian Lauaxetak idatziak.

Beste kazetalan batzuk: irakurleekiko harreman-generoak. «Itaun-erantzunak» sailak (Euzk 6939, 6940/ 6944, 1935-3-21/22/27) irakurleen galderak edo eskutitzak zuzendariari, eta zuzendariaren erantzuna kokatzen ditu. Egungo «Zuzendariari eskutitzak» modukoa da («Lauaxeta jauna...»). Lauaxeta ez da erantzule bakarra: A. Zatarain ere bai (Euzk 6949?).

III b. Berriak: Erri(j)etatik saila (1931-1936). Hau da euskaraz idatzita-sail garrantzitsuenak eta iraunkorrena *Euzkadin*. Herrietako berriak dira, herriak: jaiotzeak, ezkontzeak, heriotzeak, gorabeherak, liskarrak etab., ataletan banatuta, izenburu labur-laburrekin (1-2 hitz). Batzuetan 7. or. kokatua; beste batzuetan 12.ean, azken orrialdean.

Berri laburrak ugari eman zituen Lauaxetak. Izpar Urtenenak, Jakingarrienak edo Gai Jakingarrienak dira hark idatziak bide diren berriak kokatzen dituzten sailak. Izenpetu gabekoak dira, batez ere politikakoak eta 1934, 1935 urteetakoak. Berrien ziurtasuna egiaztatzea eragozpen bat zen, askotan amenomenkako berriak baitziren («ei», «omen»). Izpar Urtenenak saila da aipagarriena (1933), lan handia egin baitzuen sail honetan berriak laburki eta orrialdearen erdi-erdian kokaturik emanez. Bera da itzultzaile edo moldatzaile, bera kanpoan denean ez da sail hori ateratzen. Ik. sortatxo bat in Altzibar 2005: 165-168, 171-174. Jakingarrienak (1934-IV-4 – 1934-V-8) sailekoak ere berri labur soilak dira, berri ugari, mundu guztikoak. Izenpetu gabe egon arren egilea Lauaxeta da hizkera eta idazkeraz; izenpetu gabe argitaratzeak ere haren egileta on egiten du nolabait, hura baitzen atal osoaren arduraduna. Gai Jakingarrienak (1935-V-5 – 1936-V-20) aurrekoaren jarraipena da.

Badira izenpetu gabeko beste berri-sail batzuk, iraunkorrak ez direnak. Lauaxetak beteak izan daitezke, horietako batzuk bederen. Berriak laburki ematen dituzte horiek ere. Hona: Atzerrijetako Erriketea izenekoak (1933) nazioarteko politika gaiak hartzen ditu, informazioa eta iritzia emanez; Tantaka» (1933); Politika-Sailla (1935); Aste Onetako Barriak (Euzk 6954, 1935-4-7tik hasita), nazioarteko eta Espainiako gaiak erabiltzen dituenak; Eztakixu...? (1936, gerra hasi arte), 1. orrian agertarazia); Autu-Mautuka (1936), aurrekoaren garai bertsukoa.

Gerra hasi zenean, Lauaxeta idaz-bulegotik aldendu eta I. Enbeitaren ardurapean Matxinada-Izparrak-Eta saila agertzen da abuztu hasieran, hau baita gerra garaiko iraunkorrena. Berri laburrak dira, 2-3 esaldikoak. Geroago, Geure Guda-Oñetako Izparrak atera zen, «Ogoñope»ren ardurapean eta batzuetan hark berak sinatuta; gero *Egunan* agertuko den sail beraren aitzindari dateke. 1936ko urte amaieran Zer-Esanak saila (Euzk 7484, 1936-12-22).

Itzaldijk zen beste sail moduko bat, noizbehinkakoa (adib. 1933ko maiaztzean, «Itzaldi pilloa!», Euzk 7019, 1935-6-25). Batzokian, Euzko-Gastedijan etab. emandako hitzaldien berri eta laburpen zekarren eta hor A. Ruiz de Azua «Ogoñope» eta agian besteren bat ziren idazle. Iparraldeko berriak ere agertarazi zituen Euzkadik: Zortzitik Zortzirat saila, «Haur Prodigoa» (J. Elissalde) idazle jarraikiak sinatua. Hamabostean behin edo, ateratzen zen.

III c. Iritzi sail bereziak

III c. 1. Politika-gaiak. Estatutoari (*Euzko-Araudia*) buruzkoak, eztabaidagai edo hautagai zelarik argitaratuak (1932, 1933, azaroaren 5eko plebisizito garaikoak). Idazle: Lauaxeta, J. Garmendia «Zeleta» (Euzk 6511, 1933-10-20), J. Peña «Aitza» (Euzk 6522, 1933-11-2). Iritzijak sailean kokatu ziren beste batzuk: Euzk 6513, 1933-10-22; Euzk 6514, 1933-10-24. Hona artikulatu batzuk: «Euzko Araudia ta euzkera» (Euzk 6516, 1933-10-26); «Euzko-Araudijaren guredea» (Euzk 6526, 1933-11-7); «Euzko-Araudija ta emakumeak» (Euzk 6526, 1933-11-7); «Araudija ta izparringiak» (Euzk 6527, 1933-11-8). Hauetako gehienak ez dira sinatuak.

Ideologiazko artikulatuak edo artikulatu ideologiko-politikoak gutxi dira. Idazleen artean aipa daitezke: Jemein'dar K., bere «Euzko-Laterri-Itungidetzak» artikulatu bildumarekin, 1933 apiril-maiatzekoa (Euzk 6361, 1933-4-28; Euzk 6364); «Gatarjon» (J. Garmendia «Zeleta?»), karlismoari buruzko artikulatu sortak (1933); Barrensorok. Ik. Eraskinak (III) *Euzkadiko* euskal idazleak.

Filosofiazko batzuk ere argitara ziren, adib. «Zaizuri»ren «Aberearen ari-ma ezta gogozkoa» (Euzk 6434, 1933-7-22).

III c. 2. Gizarte-gaiak: haur- eta emakume-gaiak. Baserri-, langile-, sindikatugintza-gaiak. Haurren hazkuntza eta hezkuntzak idazten zuen Euzkotar Umen Aldez sailean «Arritokietak» (Julene Azpeitia), ipuin, irakurgai eta irakaskuntza gaiak erabiliz.

Emakume Bizitza saila (1931). Idazleak: E. tar J. (Euzk 5639, 1931-1-6, 1931-6-10, 1931-6-26); «Maite» (Jule Gabilondo Mungiakoa, Beasainen bizi zena, EABkoa), E. Mujika «Tene» (Euzk 5757, 1931-5-27). E(makume) A(bertzale) B(atza)rri buruz eta erakunde horretakoek idatzia artikulatu zenbait argitaratu zuen Lauaxetak eta berak ere idatzi («Emakumiak», Azalpenak, Euzk 6292, 1933-2-5). Jakingarria da euskal idazle batzuk (Sorne Unzueta, Kar mele Errazti...) EABko buru izan zirela. Herrietako berriemaile emaku-

meak ere franko ziren, esan dugunez, hizlariak eta irakasleak ere bai. Emakume idazleen artean badira batzuk emakume gai eta ardurei buruz ari direnak. Gero, gerratean emakumeek eta halaber emakume idazleek ardura andia goa hartu zutela dirudi (besteak beste, «Arritokietan» eta «Maite» *Egunako* idazle izan ziren). Lauaxetari zor zaio, hein batez, ardura hori: 1931-10-7an, 5. or., «Idazliai» oharrean euskarazko idazlanak bidal zitzaizela eskatzen die emakumezkoiei (Penades: 1996: 36, 34. oh.). Badirudi sentiberatasun berezia zuela emakumei buruz.

Gizarte- eta baserri-gaiak: horietako asko euskal ataletik kanpo, beste orrialderen batean argitaratuak izan ziren. Idazleak: «Ibai-Gane»; Aita Martin Uriarte Odriozola (1879-1960), «Martiartu», «Barazar», «M.U.», «A. Martin» sinatzen zuena, baserri gaiak jorratuz; Lauaxeta bera (adib. «Lugiñak», Euzk 6273, 6275, 1933-1-14, 1933-1-17).

Langile, baserritar, arrantzaleen sindikatugintzazko gaiak ere badira; ez asko ordea. Aipa daiteke, adib. «Baserrietako morroien eskubideak» artikulua (sinatu gabe, Euzk 6768, 1934-8-18). Hauteskunde garaian maizago ageri dira honelakoak, garrantzia zutelako seinale (adib. «Desautzijuak», Euzk 7212, 1936-2-5; baserrien «desautzioak», hots).

III c. 3. Erljioaren inguruko sailak: Katoliko Bizitza. Idazleak: Gabirel Manterola «Mitarga» (Euzk 5635, 1931-1-1), E. tar J. 1933 ingurutik aurrera gehitu egiten dira sailok. Igandietako Jaupa-Atalak izeneko sailean «Atarriz-barna»k idatzi zuen. Deunen Bixitza hagiografia saila 1933ko apiriletik aitzina bederen atera zen, idazle zirela: M.B.S, E'tar J., A.'tar I, T'tar J., «Mitarga», Agirre «Agarel». Beste sail moduko bat, Santu-Izenak («Santoral vasco», adib. Euzk 6687, 1934-5-16).

III d. Jakintza-gaiak: zientzia dibulgazioa. Euskal idazle askok –abertzaleek batez ere baina ez bakarrik– jakintza-gaiak euskaraz lantzeko ardura izan zuten, nahiz eta, sabindar eskolakoek bereziki, hiztegia garbizalekeriaz bete. Haien merezimendua da euskara jakintzagaietan erabiltzea (Lizardiren «euskera nora-naikoa»). Adib. «Zaizuri»k kritika egiten dio Aitzoli, honek bere *La muerte del euskeran* –Unamuno eta Baroja-ren aurka idatzia– euskara gai dela esan eta gero *Yakintzan* dena erderaz atera zuela-eta (Euzk 6413, 1933-6-28) (19).

Ondoren Lauaxetak agertarazi sail eta idazlan batzuk aipatuko ditugu. Biologia gaiak: Pizti-Patariak saila (1934-1936, asteazkenero). Idazlea: B. Ga-

(19) «Zaizuri»k «Il-zori aurreko antziak» gipuzkerazko artikuluan euskara jakintzagaietan eskatzen du, ez bakarrik herriko izpar eta olerkitxoetan. Euskara euskal gizartean gero eta guxtiago erabiltzen dela dio (Euzk 6413, 1933-6-28).

Hona Zaitegiren «Kizkiña» (zelula) dela-eta, gai tekniko eta hiztegi teknikoaz norbaitek (Lauaxetak agian) idatzia: «Estos trabajos no son para la masa de lectores euzkeldunes, pero autorizan el idioma mejor que los artículos sobre la muerte del euzkera. Estamos ya tan cansados de los mismos temas.» (Euzk 6422, 1933-7-8).

rro «Otxolua». Aipa daiteke ere «Ogoñope»ren «Bidegarro ta zozua» artikulua (Euzk 7129, 1935-10-31). Garcia Peñaren *Patología vegetal* liburuaren itzulpena ere, B. Larrakoetxeak egina, aipatua da (Euzk 6662, 1934-4-15). Astronomia gaiak: *Gaudizti gaitetzaz* (1933), «Agarel»ek (Eli Agirre) idatzia. Fisika gaiak (G. Jauregi-ren *Pisia* liburuaren aipamenaz gain, ik. Euzk 7127, 1935-10-29). Prehistoriako gaiak ere landu zituen Agirre «Agarel»ek. Soziologia gaiak kokatzen zituen «Gizartizti-gayak» sailak, Eulogio Gorostiagak-eta idatzia (ik. adib. «Lanaren ernaritasuna» artikulua, Euzk 1931-4-28, edo Euzk 1931-5-1). Agintaritzagaiaik noizbehinka agertaraziak ziren, (adib. Itxastar, Euzk 6366, 1933-5-4). Edo Arte-gaiak, aipatu «Agarel»en eskutik («Erti-idazkija» artikulua, Euzk 6788, 1934-9-11).

III. e. Euskal kulturako erreseina kritiko eta propaganda idazlanak ugaririk dira, batez ere euskal liburu argitaraberrien berri- eta kritika-kazetalanak (literatura huts, antzerkilar, eskola-liburu, kazeta eta aldizkari...). Baita gainerako euskal kulturagaienak (musika, artea). Orobat kultur-gertaeren berriak, adib. omenaldi eta sariketenak: Kirikiñoren omenaldiak, Kirikiñio saria, Arrese-Beitiaren omenaldia, Lizardiren omenezko idazlanak (Euzk 6324, 1933-3-15tik aitzina) etab.

Lauaxeta bera da agian idazle ugariena (bere Idazti Barrijak, Azalpenak eta, batzuetan, Egunekua sailetako artikuluekin, edo sail jakin baten pean kokatu gabekoekin. Baita gaztelerazko Temas Vascos, noizbehinkako La Sema-na Cultural Vasca (1933), Bibliografía eta erdal orrialdeetako hainbat artikulua eta euskal ataleko baina sail jakin gabeko beste hainbatekin (ik. Kortazar 1982; Mallona 1991; Altzibar 2005). Garai hartan argitaraturiko euskal edo euskal gaiezko liburu gehienek erreseina kritikoak idatzi edo agertarazi zituen Lauaxetak euskal atalean. Baliotsuak dira eta azterketa bat merezi dute. Harenak ez dira bakarrak ordea. Erdaraz argitara zituzten beste idazle batzuek: Aitzol, X. de Illarramendi, J. Artetxe eta abarrek (20).

Temas Vascos sailak euskal kulturagaiak euzkotar erdaldunentzat eskaintzea zuen asmoa: euskal liburuak, euskal kulturazko liburuak, musika- eta dantz-ikuskizunak, etimologiak. Idazleak: Jemein'dar Keperin «Jadarka» edo «Amandarro» (Euzk 5676, 1931-2-18; Euzk 5694, 1931-3-11; Euzk 5700, 1931-3-18; «Goyetsi» (Euzk 5642, 1931-1-9); Lauaxeta; Lizardi («Neologismos en aritmética» artikulua, Euzk 1933-1-28); «Nabarritzarra» (Euzk 6458,

(20) Aitzolen asko, euskal nazio-literatura baten premia predikatuz, *Euzkadi* eta *El Día*n lehen orrialdean atera ziren. Hona batzuk: «Teatro nacional. La obra de los checos», Euzk 6659, 1934-4-12; «Estética peculiar de la poesía vasca», Euzk 6667, 1934-4-21; «I. Día de Teatro Euzkeldun», Euzk 6686, 1934-5-15; «Por la literatura euskaldun», Euzk 1934-10-29; «Balance literario euskaldun de 1934», Euzk 6685, 1935-1-6; «Por el teatro nacional euskeldun», Euzk 6979, 1935-5-9?, 1. or?); «Revasquización del pensamiento literario», Euzk 7351, 1936-7-18).

Hona, berriz, J. Artetxeren zenbait: «Una obra de P. Lafitte: Gr. Adema-J. Barbier», Euzk 6459, 1933-8-20; «Las últimas poesías de Lizardi», Euzk 6705, 1934-6; *Euzkadi* filmeaz, Euzk 6784, 1934-9-18; «Vindicación del bersolari», Euzk 1934-12-21.

1933-8-19) etab. Ordea, «Endaitz»ek kritikatu zuen Lauaxeta, Kirikiñoren Euzkel Gayak saila ez zuelako argitaratzen (ik. Eraskinak (II) Oharrak Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari, Euzkel-gaiz» Endaitz, Euzk 6779, 1934-8-31). Etimologiazko lanak ere argitara ziren Temas Vascos sailean (Euz 6404, 1933-6-17; Euzk 6409, 1933-6-23). Bibliografía saila ere, noizbehinkakoa eta izenpetu gabea, gatzelaniaz da (Euzk 5660, 1931-1-30; Euzk 1933-4-27).

Euskarari buruzko sail modukoak edo irakaspen-artikulu sortak ere –euskara hobeto ikas eta idaztekoak, etab.– agertarazi zituen Lauaxetak: Ondo-Esan Bidiak artikulu sorta edo noizbehinkako sail modukoa (Euzk 6511, 1933-10-20; 6512, 1933-10-21: hiztegi, lokuzio...). Ikasi, Euzkeraz (esaldi laburrak, Euzk 6659, 1934-4-12). «Vinson'en esakunak» (I, II, Euzk 6666, 1934-4-20 eta Euzk 6670, 1934-4-25). Azken hau Lauaxetaren eskukoa dateke, besteak ere haren asmokoak, oro euskararen jatorrasuna zaindu nahi zuelako ezaugarri. Aipa daiteke ere «Voces Técnicas en euzkera» artikulua (Euzk 1935-3-27; 1935-4-4), idazleek hitz teknikoak eskatzen omen zizkiotela-eta argitaratua.

III. f. Kazetalan jostagarriak: ipuinak, umeentzako eta ikasle gazteentzako irakurgaiak, literatura. Tradizioz, *feuilleton* izeneko orrialdeetan kokatuak ziren. Kirikiñok ipuin barregarri ugari idatzi eta argitara zuen; Lauaxetak ere bai, Kirikiñoren tradizioan. Genero irakurriena zen agian: Kirikiñoren barregarrikeriak igandeetan irakurtzeko erosten zuen euskaldun askok *Euzkadi* idazle haren garaietan. Lauaxetak ere badio: «Erriak gogozago irakurri oi-dauz, ipuin barregarriak» (Uarra, «Nabarra» Irular, Euzk 6670, 1934-4-25). Sortatxo ederra idatzi zigun: 36 bai gutxienez; ugari 1932an (ik Kortazar 1982: 17-21; Mallona 1991: 25-28); Altzibar 2005).

Umeentzako eta ikasle gazteentzako irakurgaiak (ipuin, alegi, bertso, asmakizun...) ugari argitara ziren *Euzkadin*, ipuin itzuliak (Grimm anaienak, Afanasiev-enak, turkiarren ipuinak, ...) nahiz euskalki batetik besterakoak (Barbierren lapurtera-nafarrerazkoak B. Garrok bizkaierara). Idazle edo itzultzaileak: Altuna, «Legoaldi», B. Garro etab. (ik. Eraskinak (III) *Euzkadi* egunkariko idazleak). Euskal Herrian, XX. mendearen hasieran halakoei balioa ematen hasi ziren eta indartzen, euskaltzaletasuna eta euskera bera suspertzeko asmoz. Idazle asko beste herrialdeetako liburuen itzulpenak egiten hasi ziren, irakurzaletasuna bultzatzeaz gain hizkuntza aberasteko ere garrantzitsua baitzen.

Sailak: Gastetxoen Atala (1932-V), Euzkeldun Barrien Lanak eta batez ere Euzkotar Umien Aldez. Euzkeldun Barrien Lanak sail modukoa zen, Bilboko Institutoko 3. urteko ikasleentzako sariketak antolatzen eta lan hautatuak argitaratzen zituen (Euzk 7144; Euzk 7161 1935-12-7. Ik. ere Euzk 7116, 1935-10-16; Euzk 7121, 1935-10-22). Euzkotar Umien Aldez, J. Azpeitia «Arritokieta»k idatzia zen (1933, 1934, 1935). Euzko-Gastedijako euskal ikasle gaztetxoentzako alegi, ipuin, irakurgaien argitalpena ere bultzatu zuen Lauaxetak. Hor argitara zen ere «Arritokieta»ren «Muni umearen eriotza» ipuin kla-

sikoa (Euzk 7123/7127, 1935-10-24/29). «Arritokieta»z ik. III.c.2 Gizartegaiak. Ikasle Ingoskija (1934, adib. Euzk 6670, 6709) Bizkaiko Ikasle Batzaren orrialdea zen (21).

Beraz haur eta gazteen idazlezaletasunaren bultzagile izan zen Lauaxeta, *Euzkadiren* euskal atalaren bidez. Ikasleen sariketa batzuetako epaimahaikide ere, adib. teatroan, T. Alzaga eta A. M. Labaienekin batera (22). Ipuinez gainerako idazlan labor farregarriak gutxi eta noizbehinka baizik ez ziren argitara (ik. adib. zenbait ateraldi labor, «Kaiku» delakoak idatzita «Izkirimiriak» idazlanean, Euzk 6353, 1933-4-19; edo «Kitu» ateraldia, Euzk 6662, 1934-4-15).

III. g. Literatura-lanen (olerkia, bertsoak, antzerkiak,...) argitalpena bultzatu zuen Lauaxetak. Horiek ere tradizioz *feuilleton* orrialdean kokatu ohi ziren, kazetalan jostagarriekin batera. *Euzkadin* euskal literaturari (stricto sensu) tokia egin behar zitzaioela uste zuen Lauaxetak («Olerkariet oharra», Euzk 7141, 1935-11-14). Egitez, Kirikiño eta Orixek baino arreta gehiago jarri eta lan berezia egin zuen arlo honetan. Hori da euskal atalaren berezitasun bat, edaraz ez baitzen halakorik egin.

Olerkariengan uste handia jarria zuen Lauaxetak (23). Hainbat olerki sail eta olerkari agertarazi zituen: Euzko-Olerkiak, Geure Oleskarijak edo Gure Olerkariak eta Atzerriko Olerkariak noizbehinkako sailak, lauak 1933koak (urte horretakoa da Euzko-Elerti Saila ere, ik. Euzk 6461, 1933-8-23). Beste sail batzuk: Olerkari-Atala (1935), Olerki-Salla (1935 abend.) (24). 1936ko uztaile-abuztuan Olerti-Atala, Olerki Atala edo Olerkari Atala edo saila ostegunetan argitaratzen hasten da. Olerki ugari argitaratzen zituela ikusita, askok igortzen omen zizkioten beren olerkiak (25).

Besteak beste ondoko olerkarien olerkiak argitara zituen (alfabetoaren araberrako hurrenkeran): «Erletxue» (J. Abando), «Barrensor» (T. Agirre), «Endaitz» (E. Erkiaga), J. M. Garate, «Iramendi» (Lauaxetaren laguna, Laz-

(21) «I Certamen del Estudiante Vasco. Temas y premios: Cultura vasca. Teatro. Traducción de un cuento al euzkera. (Euzk 6723, 1934-8-24). Izan ere, Euzko-Ikasle-Batza antolatuz doa 1934an: «III. Congreso de Euzko-Ikasle-Batza. El euzkera en la Universidad» (Euzk 6776, 1934-8-28).

(22) Ik. «Lur-gorri»ren «I Certamen del Estudiante Vasco», Euzk 7025, 1935-7. Ik. ere Goitia'tar Iñake ipuin idazle gazteari eginiko oharra, idaztera bultzatuz: «Uarra. Zorionik samurrenak. Aberrija itxartuteko beste baidetik eztago. Lauaxeta.» (Euzk 1933-3-1. Eraskinak (II) Oharrak Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari).

(23) «Olerkarijak zoruak dira, deus ez tira. Baña ori esaten dabena gogor urten bihar dautesgu. / Olerkarijak langorik eztago erri bat itxartu-erazoteko. Lur-barnian datzan azijak zelako ots biguna egin daruan be, entzuten baitau berak.» («Lizardi zanaren gomutaz», Euzk 6709, 1934-6-10).

(24) Euzko-Olerkiak eta Geure Oleskarijak sailetan idazle: Barrensor (Euzk 6266, 1933-1-6; Euzk 6270, 1933-1-11) etab. Geure Oleskarijak sailean: «Ibai-Alde», «Uraskako Jel-olerkarija», «Erletxue» (Euzk 6354, 1933-4-20). Atzerriko Olerkariak-en: Zaitegi (Euzk 6528, 1933-11-9).

(25) «Uarra: «Olerki-Atalok egubenetan argittalduko dira. Olerkari asko agertzen yakuz eta euren lanok argittalduta ikusi gura leukiez. (...) «L»» (Euzk 7342, 1936-7-9).

kaoko berriemailea, Euzk 6406, 1933-6-5), Jakakortarena, «Jautarkol» (Jauregi), «Lotsati», S. Muniategi, «Satarka» (Kl. Sagarzazu), Tapia-Perurena (Euzk 6404, 1933-6-17), J. Zaitegi, etab. «Errenteri'tar Erramun», Astibia deiturakoren olerkiak ere argitaratzeko asmoa zeukan («Lizardi zanaren gomutaz», Euzk 6709, 1934-6-10). Bertsoak (zahar eta berri) eta bertso-egileak ere argitaratu zituen: «Basarri» (I. Eizmendi), K. Enbeita, Txirrita (Euzk 1933-1-10) etab.

Antzerkiak *Euzkadin* argitaratzeko asmoa berez garrantzitsua da, ez baita ohikoa euskal literaturan. Arrazoi nagusia, dirudienez, abertzaleek antzerkiari ematen zioten garrantzia da. Gaztelaniaz ere argitaratu ziren euskal teatroaz zenbait artikulak, 1. orrialdean (Aitzol, Kutuntxu). Antzerki laburrak argitaratzeko joera erakutsi zuen Lauaxetak 1934tik aitzina. *Euzkadin* ondoko antzerkigileen lanak argitaratu zituen: «Arteta» (A. Zubikarai), «Endaitz» (E. Erkiaga), B. Garro, bereak noski (ik. Bibliografia: Urkiaga, E. «Lauaxeta» *Antzerkiak*, J. Kortazar-ek prestatua, 1990) etab. Gero bestalde, Lauaxetaren antzerkiari buruzko berri eta kritika artikulak ez dira gutxi.

Ik. Eraskinak (III) Euzkadi Egunkariko Euskal Idazleak.

III. h. Herri folklorea («herri-jakintza») eta herri literatura: «Euzko-Erri-Jakintza» saila. 1932an Lauaxetak herri-jakintza edo folklorea biltzeko deia egin zuen, nahiz eta lehenxeago zenbait lan argitaratu ziren (26). Bultzatu ez ezik, Lauaxetak berak hasi eta etsenplu eman zuen, Mungiako baserri-izenak batuz (Mallona 1991: 121-136). Etengabe sustatu zuen sail hau 1932, 1933, 1934an, idazleak isil samar zeudenean akuilatuz. Lauaxetari jarraituz, «Jatabetarra» delakoak, Maruri-Jatabe-ko basetxe-izenak (Jatabetarra, «Maruri (Jatabe'ko) Basetxe-ixenak», Euzk 6320, 1933-3-10), «Egileor'tar Genar»ek «Galdakao'ko basetxe-ixenak», Arri-Gotzonek «Urretxua'ko basetxeak» (Euz-

(26) «Gaurkuan erakutsiko dautsegu zer egin dagikien. Geure euzko-errijetan gauza jakin-garrijak dira. Abestijak, esaereak, ipuñak, edestijak, basatxonuak, mendi-ixenak, baserri-ixenak eta abar. Gatxa-ete yatzube erritarren abestitxu bat *Euzkadira* bidaldutia? Errijan entzuten diran bertzo batzuk batu ta ingitxu baten zuzendutia ezta neke andirik ba. Baña idazliak ezpegije aldatu ezertxu be. Entzuten diran legetxe, idatzi begijez. / Sari batzuk jarriko doguz iru illabete oneitan gauzarik onentxubak bidalduten dabezenantzat. Euzkereak aurrerakuntza andija artuko leuke euzkel-idazliak batuko balebez euren errijetako esaereak, abestijak eta abar. / Bedarra zelán deritxoén, txorijai. Gai egokijak benetan! Bestiai ikas-bidia erakusteko, ementxe jarriko dodaz Mungijan bildu dodazan baserri gustijen ixenak. Gustijak ezipadira be, geyenak ementxe daukodaz batuta. Itzorkun gayetan dabiltzanak idoroko dabez ixen polittak. Neure ingitxuban diran eran, ba, jarriko dodaz. Arlo onetzaz zelán lan-egin idatziko dogu.» (Euzk 1932-6-14, AB 121-122).

«Euzkel-idazle asko ta asko doguz, baña erriko izparrak bidaldu ezkeruan pozik dagoz. Loraen ixenak ba-dakixuz? Solo artan diran bedar edo loraen ixenak adiraldu egixuz eta zure izparringira bidaldu. Euzko-idazle-Batza'ren artxibua egingo dogu. Antxe gordeko dira idazle bako-txak bidalduten dauzan esaerak, ipuñak, bedar edo lora-ixen eta abar. Zelako lana egin daiegun!» («Aberri»ri omena», Euzk 6440, 1933-7-29).

1932 baino lehenxeago zenbait lan argitaratu ziren: «Olerkiak. Erri-yakintza edo Folk-lore», G'tar F.k batuak (Errijetatik, Euzk 5771, 1931-6-12); «Makil larijak» bertsoak «Garate'tar J.M.».

ko-Erri-Jakintza, Euzk 6462, 1933-8-24), «Iramendi»k» «Lazkao'ko basetxe ta mendiak» (Euzk 6474, 1933-9-7) eta «Atarrene» donostiar idazleak 112 bat ezizen bildu zituen, garai bateko Donostiakoak, arrantzale artekoak, «Euzko-Erri-Jakintza» saileko «Ezizenak» artikuluan (Euzk 6403, 1933-6-16. Ik. Eraskinak (II) Oharrak: Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari. E. Bustintza «Mañariko»k Mañari herriko bertso-zahar, dantza kopla eta ipuinak batu zituen (27). Beste bertso zahar batzuk ere argitara ziren *Euzkadin* (28). Baita bertso berriak ere «Endaitz» eta bestek (29).

1934an atsotitzak biltzeko kanpaina egin zen: E. Agirre «Agarel»ek atso-titzak batzeko deia, jarraibideekin («Geuriari buruz. Euzkel-idazliai», Euzk 6661, 1934-4-14). Lauaxetak Vinson-en atsotitzak argitaratzen eta iruzkintzen ditu («Vinson'en esakunak», Euzk 6666, 1934-4-20; II, Euzk 6667, 1934-4-25). D(omingo) S(oubelet)-ek L. Léon Arrangoitzeko jaun erretoraren *Proverbes basques et vie spirituelle* liburuaren berri ematen du (Euzk 6684, 1934-5-12). Aipatu Agirre «Agarel» berak Lauaxetari proposatzen dio herrietako toki-(etxe-) izenak, hitzak, esakunak, oguzkera, aditza etab. batzea («Euzkerearren. Lauaxetari» («Agarel», Euzk 6797, 1934-9-21. Agarel 1934-1935ean hil zen).

Euskal folklorea biltzeko Lauaxetaren asmo tinkoa bat dator Euskaltzaleak taldearenarekin, «Politika gairik ukutu gabe, Euskalherri osoan erri-yakintza zabaltzeko gura leukienez lagun taldea» baitzen («Euskaltzaleak», Euzk 5646, 1931-1-14). Baita garaitsuko Azkueren asmo eta lanekin (*Euskalherriaren Yakintza-Literatura Popular del País Vasco*, Espasa Calpe, Madrid, 1935, 1942, 1945, 1947).

Bestalde, euskal ohitura edo bizibide zaharrei buruzko idazlanak ere argitara zituen *Euzkadik*, adib. B. Larrakoetxea, «Barrenso», J.M. Garaterenak (30).

Ik. Eraskinak (III) *Euzkadi* egunkariko euskal idazleak.

Ondoren, Lauaxetaren artezkaritzapean euskal atalak izandako bilakaera eta aldaketek ariko gara. I. Enbeitaren sail edo zutabea (Egunekua, gero 1935-

(27) «Bertso zarrak» «Mañariko» (*Errijetatik*: Mañaria, Euzk 6339, 1933-4-1; 6373, 1933-5-12; «Bertzo zarrak» (Euzk 6384, 1933-5-25; Euzk 6389, 1933-5-31; Euzk 6401, 1933-6-14. Ik. ere Euzk 6394, 1933-6-6. «Ume abestijak» (Euzk 6407, 1933-6-21). «Dantza-abestiak» (Euzk 1931-6-23; 1931-6-27; «Dantza-abesti zarrak», Euzk 6453, 1933-8-16; Euzk 6466, 1933-8-29; Euzk 6945, 1935-3-28). «Esakun zarrak» (Euzk 6533, 1933-11-15).

(28) «Neurtitz zarrak» («Ama zeuriak neuri / kalia topauta...» hasieradunak, Lekeition, «Beti-Bat» delakoak bilduta, Euzk 6288, 1933-2-1; «Morroyarenak» batu zituen Markinan hango berriemaile «Ete»k: Euzk 6410, 1933-6-24. Muxikako Enbeita anaiek «Bei zarren bertsuak», 1902. urtean jarriak, Euzk 6352, 1933-4-18.

(29) Lekeition «Endaitz»ek «Bertso berriak», amamari jasoak (Euzk 6744, 1934-7-); ik. ere Euzk 6470, 1933-9-2.

(30) «Naharra», Euzk 1931-4-29; Larrakoetxea'tar B.J., «Euzko-Ekandu-Laukiak», Euzk 6759, 1934-8-8; Barrenso, «Ogia erosi bitartean. Oiturak», Euzk 6758, 1934-8-7 eta «Goldearen atzetik», Euzk 6761, 1934-8-10; J. M. Garate, «Karabija», Euzk 6409, 1933-6-23.

1936an Gayak), eta herrietako berriak (Errijetatik) izan ziren euskal atalaren habe iraunkorrenak. Errijetatik, habe garrantzitsuena. 1933 arte, esandakoekin batera, Lauaxetaren iritzi artikulu nagusia (Azalpenak, 1931-1932) eta ipuinak. Ipuinak iraunkorrek dira (genero gisa, nahiz Lauaxetak berak 1932tik aitzina gero eta gutxiago idatzi).

1932an, esan bezala, Lauaxetak Euzko-Erri-Jakintza bultzatzen du. 1933an, aldaketa batzuk egiten ditu, euskal atala hazi ahala edo hazi nahirik: berri laburrak sartzen ditu; ipuinak noizbehinka argitaratzen jarraitzen du; bere iritzi-artikulua kentzen du eta beste idazleei bide egiten; haurrentzako irakurgai, olerki eta bertsoak argitaratzen ditu; antzerki eta eleberri laburrak ere argitaratu nahi ditu, ahalaz euskara erraz, labur eta bizkorrean. Antzerki labur zenbait behintzat argitara zituen (adib. Garro «Otxolua»ren *Saña*, Zubikarainen *Illobearen indarra*, «Endaitz»en besteren bat etab.).

1934ko apirilean, «Irular»ek (A. Irigarai) diotso Lauaxetari euskara pizteko herrietako berri igortzaileen lana ordaintzea komeni dela; euskara ez dela hartu behar ez ikur ez apaingarri hustzat, askok hartzen dutenez; udaletxeetako kargudunentzat euskara jakitea beharrezkoa izan behar litzatekeela etab. (Irular, «Nabarra», Euzk 6670, 1934-4-2). Lauaxetak erantzuten: egia hutsa dioela «Irular»ek; euskara gauzetan atzera doazelako susmoa duela; jendeak gogozago irakurri ohi dituela ipuin barregarriak, baina albiste batzuk ere eman behar zaizkiola; umeentzako ipuin- eta bertso-sariketa bat antolatzeke asmoa duela (31). Beraz ipuinak, albisteak, haurrentzako ipuin, bertso eta igarkizunak nahi zituen.

1934-1935ko debekualdiaren ondoren, antzerki labur, olerki eta berri garrantzitsuenak argitaratzearekin jarraituz, berriz aldaketak iragartzen dira (32). Eta hasten da «Kirolak» saila noizbehinka agertzen; izan ere, batek dienez, irakurleen % 50ek kirol kontuak baizik ez baitzituen irakurtzen (33).

Aldaketa hauek euskal atala irakurriagoa izateko, irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz egin edo egin nahi izan bide zituen Lauaxetak. Egia da informazio orokor nagusia erdaraz agertarazten zutela eta bigarren mailako infor-

(31) «Nire asmoetan dabil ume-artian sariketa batzuk egin. Euskarazko ipuin, bertso txu, asmaketa eta abar saritubak ixan bihar dabe. Ume sariketa au beriala biribilduko dogu.» (ibid).

(32) «Laster agertuko dira (izenb.) – *Saña* atal bakar bateko antzerkia, Garro'tar Bernarta M'k Ipar-Ameriketa'ko beste antzerki batetik euzkeraz atondua. – *Eukaristiaren martiri*, iru ekitaldidun antzerkitxo, Markiegi'tar Peli jaunak euzkeratua. – *Norantz goaz emakumeak*, Arritokietaren. – *Zillarrezko zazpi kipula*, Jean Bommbart'ena, euzkerara Muniategi'tar Sabin'ak ekarrija. – André Ady'ren olerkitxu batzuk. – *Ezagutu zazu Euzkadi*, «Norbait»'ena. Oneik ez beste idazlan gorengiak agertuko dira *Euzkadi*'ren «Euzkel-Atala» onetan. Eguneroko izparrai yagokezan barri urten-urtenak be, agertuko dira. Aldakuntza andijak egittekuan gagoz. Lagundu egizkuzube!» («Laster agertuko dira», Euzk 6955, 1935-4-9. Sinatu gabe. Lauaxeta?).

(33) Kirolak sailean futbola (*ostikoketa*) agertzen da batez ere; hizkera aberatsez, gainera: Euzk 6955, 1935-4-9; Euzk 6961, 1935-4-16; Euzk 6972, 1935-4-30; Euzk 6989, Euzk 6995, 1935-5-27).

mazio eta artikuluak kokatzeko (herrietako berriak izan ezik) gordetzen zutela euskal atala. Baina hala ere, *Euzkadik* euskara ghettotxo horretan txokoratua eta baliabidez mugatua zuen arren (euskal kazetari profesional bi baino ez, Lauaxeta eta Imanol Enbeita), orrialde tamaina handiko hori betetzeko Lauaxetak eginiko lana txapela kentzeko modukoa da.

IV. Euskararen gizarte egoera eta euskararen idatzizko ereduaz lekukotasunak eta eztabaidak. *Euzkaditik Egunara*

IV.1. 1929. urtean Euskaltzaleak taldeak, Lizardik, «Mendi-Lauta»k etab. euskal egunkaria sortzeko egitasmoa izan zuten, Lizardiren artikuluak lekuko (Lizardi: 1995: 15-36). Amets gozo bat izan zen, zenbait asteroko (*Argia*, *Ekin*), egunkarietako euskal atal, eta hainbat idazleren lanaren hazitik, gerratean gerrako egunkari batez erdituko zena (*Eguna*). Beraz ametsa ez zen II. Errepublikako urte «normaletan» gauzatu, dirudienez euskarak erakundeen babes gutxitxo zeukalako eta gizartearen eta hedabideetan aurrera egin ez zuelako. Kontua da 1933 ingurutik aurrera euskararen egoeraz/auziaz zenbait saiakera-liburu eta artikulu ugari agertu zirela: aipagarrienak, agian, Altube, Aitzol eta Ibarrenak (34). Saiakera eta artikulu horiek idazleek zuten errealtatearen kontzientzia erakusten dute, hots: euskara atzeraka ari zela, bai euskara bizia ahozko erabileran bai idatzizko erabileran ere (irakurle gutxiago). Atzerakada horren zergatiak eta konponbideak bilatzean, ordea, ez zetozen bat (ik. aurrerago).

Euskara ahozko erabileran gibelka ari zelako lekukotasunak eta eztabaidak ugariak dira *Euzkadin*. Adib. Bilbon euskarak zuen egoeraz eta euskalduntzeaz artikulu mordoxka argitara zen: horietan agertzen da gizartearen euskara ez zegoela modan, ezta batzoki eta mitinetako giroan, hiri hori euskalzaletzeko abertzale zenbaiten asmoak gorabehera; eta hortaz Madrیدهko gobernua esku gogorrez jokatzeko ari zela hizkuntza eta ikurrei buruz. Baita Zornotza eta Berriz moduko herrietan ere euskara atzeraka ari zela, baina euskal herri askotan euskaldun askok euskara baino ez zekitela (35).

Euskararen egoera edo auziaz argitaratu artikulu ugariok, egoera kezkarriaren erakusle, batez ere 1934, 1935, 1936 urteetakoak dira. Bi alderdi edo puntu nagusi ukitzen zituzten: bata, euskararen gizarte egoera eta nola herio-

(34) Altubereren *La vida del euskera* (Euskera 1933), *Euzkerean* (IV, 215) Kepa delako batek esanari erantzunez egina; Aitzolen bi artikulu, *Euzkadin* argitaratuak («Balance literario euskaldun del año 1934») eta J.M. Mokoroa «Ibar»-en *Genio y lengua* (Mokoroa Hnos, Tolosa, 1935; 1936, kanpoko azalean). Ibarren liburua gerra aurretixoan plazaratu zenez, haren eragina gerora gertatu zen.

(35) («La euskerización de Bilbao. Iturrira «Perularra» (Eu 7000, 1935-6-7); *Egunekua* sailean «Uribitarte'tar Ibon»ek «Bilbao'ko euzkeldunak» atalean dio: Bilbaon euskaldunak 20.000 ing. direla (emakumeak 4000 gehiago); euskaldunek erderaz erantzuteko ohitura dutela, eta erdera txarrez, eta gainera hori erdaldunentzat burlagarri dela; eta tamalgarriena, abertzale buruek batzokietan hori bera egitea. Gainera Portela Valladares-en gobernua hasi dela ja euzko-ikurrizak ere galerazten.

tzetik salbatu (edo, orduan esaten zutenez, *gaizkatu*); bestea, jendeak irakur zezan, liburu eta kazetetako euskara idatziak nolakoa izan behar zuen.

1933an, Idazle-Batza antolatzearekin batera, lehen iritzi kritikoak ageri dira. Idazle-Batzari buruzko artikulua batean, «Arri-Gotzon»ek dio: Idazle-Batza sortu zen bileran idazle gutxi egon zela; euskal egunerokoa beharrekoa dela eta Euskaltzaleak-ek esana zuela hori; euskara gutxi irakurtzen dela; egunkarietan irakurtzen den % 50 istripu eta kirolen berriak direla (Arri-Gotzon, «Ortik eta emendik», Euzk 6502, 1933-10-10).

Euskararen gizarte egoera eta nola heriotzetik salbatzeaz, 1934ko apirilko Barrensororen artikulua zenbaiten izenburuak lekuko on dira: «Nora doakigu euzkera? Batu gaitez euzkeltzaleak» (Euzk 6741, 1934-7-18), «Zelan gaizkatu euzkerea?» (Euzk 6748, 1934-7-26). Gai berari ekiten dio geroxeago J. Azpeitia «Arritokieta»k ere «Utziko ete diogu euzkerari iltzen?» artikuluan, Altuberen *La vida del euskera* aipatuz (1935 edo 1936koa da).

Endaitz eta bereziki Barrensororen artikulua batzuek abertzale mota bat kritikatzan dute, abertzaletasunaren izenean euskara galtzen ari direnena: adib. «Baserri...abertzaletasunaren ixenian (?) erdera zabalduten» artikuluan (Endaitz, Euzk 6776, 1934-8-28). Batzokietan erdera egiten dela-eta, euskaldun batzoki bat zabaltzeko asmoaz diardu Barrensorok: «Euzkeldun-Batzoki bat Bilbao'n» (Euzk 7002, 1935-6-5). Beste batean, batzokietan euskara gehiago egiteko eskatu duelarik Barrensorok, Lauaxetak ihardesten dio: «BBBko landoletan, *Euzkadi*'ko aretoetan eta beste toki gustijetan be, amaikatxu euzkera entzun daruagu (...).» «Lauaxeta.» (Euzk 7161, 1935-12-7).

B. Garro «Otxolua»k abertzaletasunaren eta euskararen arteko harremanak, eta irakurzaletasuna hizpide hartzen ditu artikulua batean, euskara atzerakari zela baieztatuz («Euzkereari buruz», Euzk 7000, 1935-6-2). «Euzkerearen arerioak» artikuluan, etsaiok etxe-barruan aurkitzen direla salatzen du, euskaldunek gizartean erakusten duten jokaera maiseatuz: denek, «geuk leenik» erdara ikasi nahia, gizabidearen izenean erdaraz mintzatu beharra («gure «urbanidade» larregia», aski baita erdaldun bat gure artean egotea denok hari erderaz aritzeko), auzo-eskolek euskararen alde jokatzeari, halaber komunika-

Bilbon, eta dirudienez hiri handietan ere, euskara ez bide zegoen modan. Euskara ikasteko gogo gutxi zegoela esaten dute euskal idazle batzuek. Bilboko batzoki eta mitinetako giroa ere erdalduna. Beraz giro euskaldunak ez zegoen Bilbon, baina euskaltzaleen gogoia bai, zenbaiten aldetik: «La euskerización de Bilbao: Alegiña ta laguntza» artikuluan J.M. Ituarte «Artibai»k proposatzen du Bilboko ikastoletako umeak udan oporretan baserri giroa eramatea, etxeetan hartuz (Euzk 7010, 1935-6-14).

Zornotza hirian erderaz hitz egiten dela gero eta gehiago. «orain 10-12 urte euskara ezekijenk ez egoan Zornotzan, eta erdera ez ekijenk asko ziran, geyenk nire ustez. Gaur, barriz, euskera eztaekijenk ugari doguz, (...)» (Euzk 7019, 1935-6-25). Berriz-en: «no pasan de 6 los que desconocen el euzkera y sí llegarán a 1000 los que desconocen el castellano» («Información postal», Euzk 6954, 1935-4-7).

bide eta hedabideek (autobusak Bilbora edo hiri handietara salerosketan, irratia, TBO); baita euskara «zaila» delako ospea (Euzk 7021 1935-6-27).

IV. 2. Euskara atzeraka ari zen idatzizko erabileran ere (hedabideetan, liburuetan eta irakurleetan). *Euzkadi* eta *El Día*ren kasua argigarria da: euskal idazleek berentzako toki gehiago eskatu arren –Lizardik-eta aspaldi, 1929an–, egunkari abertzaleok euskara ghetto batean hesitu zuten (*Euzkadik* 10, 12 orrialdeetatik bat bakarra eskaini zion, gehienbat bigarren mailako kontuekin), ez idazleak kexatu gabe ordea (36). Abertzale ez ziren idazle euskalzaleek ere kritikatu zuten egunkari abertzaleen jokaera, adib. N. Etxaniz eta Mokoroa «Ibar»ek (honi dagokionez, ik. IV.4.) (37).

(36) Lizardi: «Baratza azi bearra», Euzk 1929-3-13; ik. Lizardi: 1995:15. A. Irigaray «Iru-lar»ek eta Euskalzaleak taldeak bat egin zuen Lizardirekin (Lizardi: 1995: 16).

Arriolak dio «albista guztientzako lain leku bear da, euzkaraz irakurri eragiteko au lako biderik ez dagoalako (...) jakintzazko gayak geitu bear litzakez («Euzkerea esituta!», Euzk 6569, 1933-12-27).

Endaitzek galdetzen du zer dela-eta euskara bere hizkuntza ofizialtzat duen alderdi abertzaleak ez dion garrantzi gehiagorik ematen euskarari. Dio alderdiaren hizkuntza ofiziala nagusi izan behar litzatekeela, edo behintzat euskaraz igorritako lan guztiak argitaratu, ez baztertu. Eskatzen du ere «“Egunekua” len lez, orain ile bi-edo arte lez, lenengo ingoskijan, izparringi-leku gorenean agertu biar litzake. Geure izparringi nausijan eta edozeñetan, lerro gitxi badira be, euzkerea buru.» (Endaitz, «Euzkerea esituta...eta erdere n-nai», Euzk 6572, 1933-12-30). Beraz euskal idazle batzuek eskatzen dute euskaraz idatzitako artikuluek argitaratzea edo behintzat herrietako erdarazko berrien («Información postal» sailekoen) aurretik euskarazkoak argitaratzea, eta gero, lekuri bada, erdarazkoak.

(37) (N. Etxanizek «Luzear»i) «Herrietako berriak erderazkoaz nahaste azaltzea nere gogoko zait dakizunez; ez hala ordea euskal sailari orri erdi bakarrik arnas leku eskaintzea. Gutxitxo dugu hori, gutxitxo eguneroko euskaltzale batek eskaintzeko. Ez ote da hori ejemplo txarra ematea herriari? Gure esanak esan, euskera txoko estu batean gordetzen badugu, alperrik herriari jardungo diogu euskaltzaleatsunean aurreratzeko deadarka. Agertu dezagun bada nausiki, apain herriko zabal gure hizkuntza goxoa. (...).

(N. Etxanizek Aitzoli) «Gure zirikaldiak zer baitetarako izan direnean pozik gu. Hala ere Luzearri bezela zuri ere esan beharko, oraindik euskerari gehiago eman arte, ez dugula atsedetik hartu behar. / Altubek ederkidionez: euskera herrian galtze hori eta herriak euskal lanak irakurtzeko ohiturarik eza, janari egosberarik eman etzitzaiolako, sortu zaigu. Eusko herrian irakurmiña sartu zenean, dio, euskal lan ugari ta erraza eman bazioten, askoz gehiago izango ziren gaurko euskal irakurleak. Egi biribilla. Eguneroko euskaltzaleenak ere euskara hain gutxi ekartzeak herria erderara gehiago erakarri du: nere ustez (barkatu) gure artean izan ditugun erdal irakasle guztiak baiño erdera gehiago sartu digute herrian *El Día*k eta *Euzkadik*. Horregatik, Lizardi zana Etxegarairi Eusko Ikaskuntzan euskera gutxitxo egiten zela ta hasi zitzaion bezela, halaxe ni ere zuri zirika ari natzaizu. Jauregik zuzen dionez, erderaz egin beharra ere badugu: baiña beti edo ia beti erderaz datzi beharrik eztugu. Hasi bada Jauregi, Artetxe, Aitzol ta beste idazle izen haunditxoak duzutenok, euskeraz sari eskribitzen.» (N. Etxaniz, «Koxka bi. Lehenengoa Luzearri. Bigarrena Aitzoli», *Lan hautatuak*, Hiria & Egan, 2000).

«Hain zuzen Latsurregi»tar Peli (Peli Markiegi?) lagunak nere buruko asmatetak gai honez aurreratu dizkit. Eztela, alegia, zintzo jokatzeko euskera-alde egunkarietan. Ez nere ustez ere. Laiñeza hartu dugula esango digute euskaltzale «integristoi», baiña zuzen ari gaituzulakoan nago ni. Euskaltzale soñekoz bere burua apaindu nai digun egunkariak euskeraren aurrerapen erakustoki izan beharra dizu; ta *Euzkadi* ta *El Día* ikusita bakarrik, ez dio inork antz emango euskerak azkenengo urte hauetan egin dizun gorakoari. / Pozik ditugu zenbait idazle *La vida del euskera*

Nolanahi ere euskaldun askok *Euzkadiren* jokabidea ez zuten begi onez ikusten. Geroztik, K. Mitxelenak ere «ghetto» deitu zuen orohar kazetek euskarari utzitako lekuari, ez bakarrik orrialde kopuruagatik, baita edukiengatik ere, orrialde bakar horretan bigarren mailako albiste eta artikulua kokatzen zirelako (38). Lauaxetak egunkariaren jokabidea ez bide zuen espreski eta age-

izenburuz azaldu zizkiguten bi erdal lanak irakurri ondoren. Ni ez ordea, orduko zarata apur hura ezkeror ez dudalako nabaitzen garbairik eta euskerari izperringietan gehiago emateko gogorik. Suzko ereberentzo izan zaizkigu bi erdal lan hoiek; pun pun egin ondoren lehenean diraute gure egunkariok, lehenean gure idazle aipatuena: euskera maitasun irazeki hori, beti edo ia beti erderaz azaldu behar. Gutxi aurreratu dizute hontan Arana Goiren idazkia ezkeror bata eta besteak. Bilinguismo sasoiak sarturik gaituzulako hasita zenituen idazle horiek, baiña ez dago antz handirik; hala balitz, honuzkeror erderaz aiña euskeraz idazten hasiak behar gindezke gure idazle jatorrenak eta zoritxarrez eztugu halakorik nabaitzen. / (...) eztakit zergatik ote ditekene gure hizkuntza gehiago ez gizonte hori izperringietan. / Baiña ixillik nagoen ezarria alperrik urratzeko. Nor duzu izan ere gure euskal lanei begira? Aintzakotzat hartzeko, erderaz hasi beharko eskribitzen. (...).

Lotsagarri zat neri Azkoitiko «korresponsala» ta beste herri batzuetakoak erderaz aritzea. Ordaindu ta idazten duten berri-emaleek, horrelako herrietakoak behintzat, poliki-poliki euskeraz eskribitzen hasi behar lukete; lehenbizi ataltxo batzuk (jaiotzak edo ezkontzak hain erez ikasi di-teke euskeraz adierazten). Ez dezatela idatzi euskeraz idazle «primoak» bakarrik. Zertan geldituko ote litzake *El Día*ko euskal gai saila, hutsean eskribitzen dugunok ixilduko bagiña? Hori euskaldunok gorritzekoa dugu.

(...) Baditugu egunkarietako euskal sailak, baditugu euskal asterokoak, baiño guztiak kaxkarak. Ez al litzake ederki etorriko asteroko *Argia* igandetako *El Diá*rekin bat eginda argitaltzea? Honela *El Día*ko euskal gai saila igandetan *Argia* bera izango litzake; ta bide batez nik lehen aitatutako igandetako *Euskal Orri* berezia (extraordinario antzera) besterik gabe iritxia genduke. *El Debateren* zenbaki berezia bezela, bestetan halako bi ordainduta erostekoa izan dedilla igandetako *El Día* ere; ta honela *Argia* hobeto aurkeztuta argitaldu ahal izango zendukete ta *El Día* euskaltzetasun usain gehiagoz lurrinduta astean behin hartuko genduke.

Baiña izparringietaz ari naizela, ezin ixilik utzi Lizardi zenak (Goian bego) hain ederki jaso zigun Euskal Egunkaria ateratzeko asmoa. Honenbeste abertzale artean ez ote ditugu arkituko hiru milla harpide Euskal Egunkari horrentzako? (...). / Lizardiaren aldi hartan Egunkari asmo hori zerabilenak izan ere gehienak *El Dían* sarturik ditugu eta, nik uste, *El Díari* kalte egingo lioken bildurrez ixildu zitzaizkigula Euskal Egunkariaren aldezlariok. Bildur horiek alde batera bota eta zerbait honetan egiteko sasoia dugulakoan nauzu ni. Aurretik dijoan guztia idatzita gero irakurri dizkitzut *Eusko Antzerti Egunari* eta Zumarragako *Eusko Nekazari Bazkunaren* Batzarra-buruz *El Diá*ko lehenengo orrian argitalduriko euskal idazlanak. Bai pozgarri egiten zaidala euskera lekuri nagusienean ikustea! Ta zenbat irabazten duen gure ele bazartuak horrela nausi azaltzen digutenean. Noiz ote guretzako amesik gozoen zaigun euskera, egunkari osoz jabeturik ikustea?» (N. Etxaniz, «Izperringiak», *El Día*, 1934-5-20; *Lan hautatuak*, 2000, 42-45).

(38) «Más que del mero predominio cuantitativo de una lengua sobre otra, se trata de la distribución de papeles entre ellas: la lengua local tiene una función subordinada y complementaria, manifiesta ya en el espacio que se le concede. La «página vasca» (*Euskal orria*, etc.) es una sección aparte, situada a menudo en página interior. Constituye, en otras palabras, una especie de ghetto en que estaban encerradas materias menos importantes, marginales, escritas por autores de menor consideración. / Debíó de ser *El Día* de San Sebastián (1930-1936) el primero que, por influencia de José de Ariztimuño, rompió con esta costumbre: bastantes artículos en lengua vasca aparecieron fuera de la judería, hasta en primera página. Eran, con todo, artículos de tema cultural en relación con la atención preferente que *El Día* concedía a la literatura en lengua vasca y en particular a la poesía, como modalidad más cultivada por entonces. Las noticias, como habrá pensado alguno, venían exclusivamente en castellano, a no ser que fueran estrictamente locales.», Mitxelena, L., «Las lenguas españolas y el periodismo escrito», *Lenguaje en periodismo escrito*, Fundación March, 1977.

riki kritikatu; praktikan, ordea, euskara nagusi ezarri zuen bere kazetaritza, literaturagintza eta hizlaritzan (39).

Egunkari jeltzale ofizialak euskarari hain toki gutxi emateko arrazoi bat: EAJren ideologia bera, garai hartakoa behintzat. «*Euzkadi*, *euzkoen* aberria» denez, abenda horretako partaideak (edo deituradunak) dira *euzkotar* edo *euzkaditar*, nahiz euskaldunak ez izan; ordea, *euskaldun*, euskararen hiztun edo euskaraz hitz egiten dutenak, nahiz ijitoak izan (Euzk 6562, 1933-12-19). Euzkoen aberriaren, Euzkadiren osagaien/ezaugarrien artean hizkuntza haietako bat baizik ez zen, eta ez beti garrantzitsuena (40).

Beraz «Euzkoen hizkuntza («elea») euskara da» esaera egia zen idealaren munduan baina errealitatean, gizartean euzkoek berek gutxiesten zuten euskara, karlista askok ez ezik abertzale askok ere, hiri handiskoetan behintzat. Eta hori drama bat zen abertzale euskalzale batentzat. Egia da ordura arte presentzia gutxiago izan zuela euskarak eta aldizkari ugari agertu zirela (adib. *Argia* Gipuzkoan, *Euzko*, *Ekin*, *Euzkerea* Bizkaian). Egia da ere, hein batez ghetto hori apurtzeko edo, Aitzol eta besteren artikulua franko, euskal gaiez, *El Día* eta *Euzkadiren* lehen orrialdean agertu zirela, erdaraz noski. Nolanahi den, *Euzkadi* egunkarian hainbat eta hainbat eskal idazle egon arren, euskara bazter-txokoratu zuten, eta halaber edo halatsu EAJ-ren beste egunkari eta asterokoetan: Bizkaiko *Jagi-Jagin* (1934ko zatiketa artekoa), Nafarroako *La voz de Navarra* eta *Amayuren*, nahiz euskarazko artikulua batzuk argitaratu, eta, gutxitxoago, Donostiako *El Día*n. STVren *Lan-Deyan* ere euskara gutxi, nahiz euskaraz ondo idazten omen zuten langile asko egon (Euzk 6573, 1933-12-31).

Ez da harrigarria beraz, euskal idazleak badira sentiberenak euskararen erabilerari buruzko kontuan; eta euskal idazle abertzaleek beren burua dute benetako abertzaletzat. Hau dio Mungiako «Maite»k, Abelin Barriola antzerkigile abertzalearen *Goi-Argi* ikustera jende gutxi joan zela-eta, abertzaleei egingdako deiak ugariak izan arren: «Ixenezko abertzale ugarijak diran arren, abertzale zintzuak urriak dira. Eta euzko-abertzaletasunaren sustraya euzkogoguarien oñarrija dan Euzkerea dala ezin ukatu.» (Matte, «Goi-Argi». «Lotsagarritan be lotsagarrija», Euzk 6968, 1935-4-25). Izan ere, abertzale asko, batez ere hiri handietan, ez ziren euskalzale: adib. batzokietan jendeak barra-barra erderaz egiten zuen. «Urtzaga»k, Kirikiño ahotan hartuz, dio batzokietan euskaraz egitera behartu behar dela, edo batzoki berri bat egin, euskara

(39) «Euzkeraz idazten dogunok, aberriaren elia dalako baño eztogu idazten.». «Eta geure aintzarik andijena, abertzale ixatia da, ez idazle ixatia» (Euzk 6429). Bere buruaz dioena, besteren kasuan ere hala zen edo ez zen ez dakigu.

(40) Abenda, hizkuntza, historia, ohitura eta legeek osatzen zuten euzkotasuna. Kontzeptu eta termino batzuk, abertzaleen ideologia eta politikaren ardatz, etengabe aldatuz joan dira georotik: *euzko* kontzeptu eta terminoa desagertu da. Gerra ostean, *euskaldun/kastillano*, *erdaldun*, hizkuntzaren arabera batez ere, ez soilki. Egun, *euskaldun*, *euskal* hitzak lehenagoko *euzko*, *erdaldun*-en (!) baliokide dira; *Euzkadi* ere desagertuz bide doa abertzaleen ahotik; berriz lehenagoko zaharra, *Euskal Herria*, hain zuzen lehenago abertzaleek gaitzetsia, indar hartzen ari.

hutsekoa, Bilbon («Euzkera, jalgi adi dantzara», Euzk 6958, 1935-4-12). Lauaxetak berak ere esaten zuen (batez ere 1934, 1935ko bere hitzaldi eta artikuluetan): «abertzaliak asko gara, baña euzkeltzale gitxi.» (41).

1934-1935ko urte erdiko debekuak eta ondorengo isilaldiak (*Euzkadi* eta Bizkaiko asteroko eta aldizkariak bete-betean hartu zituenak) euskararen aldeko indarrak ahulak direla erakusten du; gobernuak jendearen protestarik ia gabe edozer egiten ahal zuela euskararen kontra.

IV. 3. Bestalde, berriz, *Euzkadiren* euskal atala zenbatek irakurtzen zuten ez dakigun arren, Lauaxetaren aldakuntzek, euskal atala irakurgarriago bihurtze aldera, euskal irakurleak erakarri beharraren arazoa salatzen dute (42).

Hain zuzen, jendeak irakur zezan, liburu eta kazetetako euskara idatziak nolakoa izan behar zuen, eztabaidak egon ziren. Altubek sabindar eskolari kritika egin zion bere liburuetan hiztegi eta batez ere sintaxi aldetik, hitzordenari buruzko lege ospetsuak ezarritik etab. (*Erderismos*, Euskera, 1929; *La vida del euskera*, Euskera, 1933). Baita *Euzkadin* argitaratu «Orixen idazlea ta euskera errikoia» artikuluan (Euzk 6703, 1934-8-3). Artikulu horretan Orixen go-resten du euskara herrikoiaaren eredutzat, eta dio: «*La vida del euskera*-n iztegiari buruz agertu neban arau edo irizpide nagusia, auxen izan zan: «Deben ser aceptadas las voces de origen extraño, cuando han sido incorporadas al léxico corriente de los euskaldunes, y especialmente al de aquellos pueblos o regiones donde mejor se habla el euzkera». Altubek dio zentzunezko arau honi ez ziotela jarraitzen «40 urtez onutzako idazle geyenak, batez be bizkaitarrak». Baina lege horri jarraituz idatzi zutela Kirikiñok eta Urruzunok. Altubek eragina izan zuen garai hartan «garbizaleen» hiztegiaren kritikagatik eta batez ere sintaxiaren garbitasunaren kontuagatik.

(41) «Uribitarte'tar I»ek, Lauaxetak 1934ko maiatzaren bukaeran Bilbon, Euzko-Gastedi-jan emaniko hitzaldia kontatzerakoan dio: «Lauaxetak itzaldi sakona (...)». «Eletarijaren aburuz, abertzaliak asko gara, baña euzkeltzale gitxi.» «Euzkeraz ikasteko zaletasun gitxi be gitxi eguala iñuan. Ikasi ta erabilteko, barriz, gitxi-jago.» «Gastedija (...) jolasian astija galtzen ikustiak, eletarija minddu-minddu egitten dau, eta antxiñako euzkotar jakintsuben ixenak oguzten imiñi: Bitorra Abea,...». «Eletarijak Euzkadiren zorijona, jakintza-bidian ikusten dau» (Uribitarte'tar I., Eguneak, Euzk 6701, 1934-6-1).

Bilbo-Zarra-ko «Iñor-ez» delako berriemaileari, euskara ikasi duela-eta, diotso Lauaxetak: «Uarra. Ainbeste samintasun barruban darabilgunok poztuten gara olako abertzale zintzuak aurkitzen doguzanian. Egunean-egunean ordu bete euzkereari emoten dautso (...). Lauaxeta.» (Eu 6969, 1935-4-26. Ik. Eraskinak (II)).

(42) 1934-1935ko urte erdiko isilaldiaren ondoren, aldaketei esker etab., Ogoñoperen us-tez, «euskal atala»k asko irabazi du: lehen «euzkel-atala», orain «euzkel orrija». «Idazkayak barriz erri-jaren gurekuak dira. Egunaro alkartuta geure barriketa aldi-jen egitten batzen garan gustijok abo betian orixen diñue (...)» (Ogoño-pe, «Euzkal orri-jari begira», Euzk 6956, 1935-4-10). Bali-teke Lauaxetaren aldakuntzek irakurle gehi-ago erakartzea *Euzkadira* eta gerra garaian albiste-en jakinminak are gehi-ago, baina lartxo ez ote da Ogoñopek gerra hasita zioena?, alegia «Euzkel atala erri osuak irakurten dau beti lez aldi onetan, eta (...)». Matxiñada-Izparrak-Eta irakurri ondoren (...) komentaijuak nunnai entzuten doguzalako» («Bakotxari beria», Euzk 7374, 1936-8-14).

Altuberen eraginez edo haren bidetik, erdararen kutsua kritikatur eta Kirikiñoren maisutza aipatuz, Erkiaga «Endaitz»ek ere ekin zion joskeraren gaiari, Lauaxetari ezkutuko kritika eginez (43). Joskera jatorraren alde (Altuberen bidetik), polemika sortarazi zuen «Endaitz»ek 1934ko abuztu-iraillean, harekin bat etorritz Larreko eta «Arteta» (A. Zubikarai). Joskeraren gaia Euskal Idazleen Batzarrean tratatzea proposatu zuten batzuek, baina beste batzuek ordea ez nahi eta batzarra atzeratzen ari zirela dirudi. Hori dio Motrikuko «Andoni»k, ikusirik bere proposamenari, batzarra egitekoari, erantzunik eman ez zaiola: «Bizkaya aldean ere Euzkel-joskera dala-ta naikoa eztabaida sortuak dira. Ori ere Idazle-Batzarrak onduen erabakiko duala-ta daude.» (Euzk 6805, 1934-9-30). Bestalde, T. Agirre «Barrenso» haserre agertzen da halakoak eta holakoak idazle guztiak mordoiloak direla, bai eta idazle klasikoak hobeak, esan duela-eta («Noiz arte idazlientzako zartakoak?») (Euzk 7119, 1935-10-19).

Hitz batez, nolako euskara/idaztankera behar zen idazkietan, bereziki kazeta edo aldizkarietan, hori izan zen 1931-1932an hasi eta batez ere 1934-1935-1936 urteetako artikuluko mordoxka baten gaia. Gai eztabaidatsua eta polemikoa. Lehenik, erraz-zaleen eta Lizardi-zaleen arteko eztabaida sortu zen (44). 1934-1935-1936ko eztabaidetan joera nagusi batzuk ageri dira, elkarren kontra jarriak, ulergarritasuna batzuek, euskara lantzea beste batzuek ardaztat hartuta: erraz-zaleak (edo euskara herrikoia edo «ulergarria, mordoi-lotxoa bada ere») (K. Linazasoro «Altzeta») eta garbizaleak edo sabindar eskolakoak (45). Adibidez, N. Etxaniz euskara erraz eta herrikoia alderatzen

(43) «Ba-eban aspaldi baten Euzkel-Atal onek arlo oso atsegingarrija. Sail orren izena le-rror onein burutatz ezarri doguna zan. Baña orain iragan urtiotan ezto-ge ezaute be egiten sail ori. / Egija da noizik beinka (...). / Gaurko euzkel-idazle geyenok erdel-joskeraz kutsutuegijak gagoz. (...) gero ta erdera-sunda andijago darabilgu. / Ez ditu Kirikiñok ikusten gure idazlan erdel-joskeratsuak! Ai, ikusiko balitu ikusi! Beste modutan argitalduko lituke orrialde oneitan!. Badakigu, baña, gure egunotan ori egiteko lan izugarrija artu biarko leukena. / Labur: Euzkel-joskereatzaz orri onetan ataltxu bat biar dogu, astian bein bedere. Entzun, Lauaxeta jauna?» (Endaitz, «Euzkel-gaiz», Euzk 6779, 1934-8-31).

(44) «Oraindik eztuzu garai asko, erre-z-zaleak eta Lizardi-zaleak izan zuten eztabaida, sortu zela. / Elkar zirikatzen hasi zirenean, Lizardik oso egoki ebaki zuen mintzen hasita zeudenen jarduketa larregia. / Biderik asko dituzu izan ere elea jasotzeko: (...). Nik ere maitego dizut Lizardik zabaldu bidea, erre-z-zaleena baiño. Ez uste ordea nere hobeste honek erre-z-zaleak erre-steko gogorik ekartzen didanik. Badituzte erre-z-zaleak ere beren alderdi onak. / Errez idazteak, alegia herriak euskera irakurtzeko ohitura hartu dezan, asko laguntzen duela ta abar. Hala ere, neri poz gehiago zait euskerari sail berriak zabaltzen ikustea: lehen aitatzen etziren gaiak, euskeraz norbaitek egoki azaltzea, horixe dizut nere bazkarik gozoena. / Eutsi dezaigun bada geure arteko anaitasunari ta zabaldu euskal idazle guztiei aldizkingi ta izparringietako orriak. Azkenik, biderik onena hartzen duena nagusituko da.» (N. Etxaniz, «Euskal goldaketan», *El Día*, 1933-3-31; *Lan Hautatuak*, 2000, 30-32).

(45) Ondoko kontzeptuen arteko harremanak/desberdintasunak ukitzen dituzte artikuluko -batzuetan polemiko- hauek: euskara garbia: Larreko, «“Euskera garbia” zer da?», Euzk 7108, 1935ko urria. Euskara landua eta herri hizkera: Kaialde, «Erri izkerari buruz», Euzk 7115, 1935-10-14; Basati, «E'nazazula berotu» (Lauaxetak eskatu omen diolarik «status quaestionis» egite-

tzen da *El Dían*, euskara biziaren izenean (46). Sabindarrek, berriz, hitz berriak erabiltzen zituzten, beren eskolakoek asmatuak, baita albisteak ematera-koan ere. Halako hiztegia erabili zuten bai Lauaxetak bai I. Enbeitak eta bizkaitar sabindarrek. Bestelako hizkera darabilte, ordea, *Euzkadi* egunkariko idazle giputzek (Basarri, Uzturre), edo nafarrek EAJrena zen *La voz de Navarra* (Larreko, Manezaundi, etab.).

IV. 4. Euskararen atzerakada denek aitortzen zuten arren, kausak atzertzerakoan ez zetozen bat: ez sabindar eskolakoak Altuberen iritziekin, ez Ibar ere Aitzolekin. Altuberen ustez, euskara artifizialak zuen kulpia; Aitzolek ere halako zerbait zioen 1934an. Lauaxetak, ordea, 1933ko artikulu batean, ira-

ko). Euskara erraza eta herri hizkera: Abaraska, «Elburu bat, bide aunitz», Euzk 7161, 1935 abendua. Euskara landua ala mordoiloa: Okertzale, «Landuba ala malluskauba?»; Basati, «E'naiz berotu» Euzk 7127, 1935-10-29. Erraza baina garbia: Zar-zale, «Urte gustijan kendu ezindako nalgabea», Euzk 7158, 1935-12-4. Ulergarria, mordoilotxo bada ere: K. Linazasoro «Altzeta»ren arabera, «zer axola dio *leihoa*-ren ordez *bentanea* esaten bada ere? («Euzkerearen malkoak», Euzk 7163, 1935-12-10); Belaustegi jauparija, «Euzkera erreza bai...» (Euzk 7173, 1935-12-21?). Ja gerra piztuta, beste batek kritika egiten die euskara erraza behar dela diotenei, S. Arana maisutzat hartuz (Euzk 7451, 1936-11-13).

(46) «Barrensorok poliki jardun digu euskerari nundik osasun sortuko: gozoz egin behar dugula, nunbait, lan hau; ez elkar minduaz. Egi biribilla horixe ere. Errukiz hartu beharko ditugu ezjakiñak eta alperkeriz lozorrotan ditugunak, (...). / Abertzale askori ere halatsu gerta ohi zaie. Mitinetan harutz-honutz ibiltzeak, deadarka ta goraka eztarri urratzeak, ikurrak paparrean harro erakusteak eta abar abertzale guztiak errez egiten dituzten lanak dira; baiña jairik gabe eta zaratarik gabe ixilean euskara ikasten aritzea, euskeraz beti hitzegiten eta idazten ekitea, hori ezti-zue gutxi baiño gozoz hartuko. (...). / (...) Euskaldun abertzaleei, elkarrekin euskeraz hitzegiteko eskatzea izan ere, ez da iñor bildurtzeko eskabidea. (...). / Euskera baztartzan ari zaigula, abertzaletasuna gehitu arren euskera atzeraka dijoakigula, hesiren bat jaso behar gendukela atzerapen hori ebakitzeo. Zer hesi hobeagorik abertzale bihotz eta sendiak baiño? (...).

Baiña beti herriari eskatu lezaiokena bakarrik eskatuaz: euskera herrikoia egiteko, alegia, lotsarik gabe. Ez dezatela arreta gehiegi jarri erderatiko hitzak baztartzan, hori ez da iñungo hizkuntzetan eskatzen da. Norbaitek esango baligu «Diputauak amnistia aprobau emen dute» ez gatzaiola hasi burlaka: hori duk baskuentzez ablatzeko manerie ta honelako lelokeri batzuk esanaz, orain arte egin izan dugun bezela. Horrela euskeraz hitzegiteko lotsa sartu ta erderara herria butzatzea besterik ez dugu iritxiko. (...). Bizpahiru adiskide ta beste hainbeste euskaltzale kendu ezkero, osteuntzeko guziak begiratu ere ez die egiten gure idazlanei» (N. Etxaniz, «Euskaldun guztiei», *El Día* 1934-8-5; *Lan Hautatuak*, 2000, 50-52).

(Euskeraren Asteaz) «Egun horietan herriari buruan muin-muiñetaraño sartu behar zioagu egi bat: herriak egiten duen euskera ez dela euskera «mordolloa», ez dela euskera zatarrak; euskera herrikoia baizik. Eztagoela iñun ere herririk hizkuntza «literariorik» egiten duenik eta gure herriari ere etzaiola eskatu behar euskera txukunegirik. (...). Euskaldun askori, herri batetik bestera joaten ditukanean, lotsa ematen ziotek beraien jaioterriko euskera beste herrian egiteak. «Badakit euskeraz hitzegiten –esango diate– baiña gure herrian oso gaizki euskeraz egiten duk eta lotsatu egiten nauk». Lotsa haxe kendu behar zioagu herriari; (...)). Beste egi bat ere sartu beharra zioagu geure herri honi. «Mordoillo» izeneko euskera hori gabe, ezingo dekalda gure hizkuntza bizi. Alperrik izango ditziaugu izan ere liburutik bikaiñenak, alperrik gramatikarik aurreratuenak, herriak euskerarik egiten ez baziguk. Altube jaunak ederki dioenez, lateraz gertatzen dekana berbera gertatuko litzaiotek gure eleari ere. Liburu ederrak arren, hizkuntza hillen artean kontatu beharko giñaukek. (...) Euskalduna! Egizu beti euskeraz, nahizta «mordoillo» izeneko hori besterik ez jakin!» (N. Etxaniz, «Ikastaroak», *El Día* 1934-4-28; *Lan Hautatuak*, 2000, 38-41).

kurleei egozten zien errua, haien kontzientzia politiko ezari (47). Mokoroa «Ibar»en arabera, berriz, euskararen atzerakada kontzientzia politikoa euskara eta hizkuntzaren jeinuaren gainetik ezartzeagatik eta euskara artifizialagatik zen (Ibar, *Genio y Lengua*, Mocoroa Hnos., 1935; 1936, kanpoko azalean).

Ibarren liburua Pizkundeari buruzko saioa da, erdaraz egina. Aitzolen iritzi batzuen kontra, espreski dioenez (*Genio y Lengua*, 13. or.). Aitzolen arabera euskal idaztien porrota euskarak irakurlerik ez zuelako eta idazle askok euskara artifiziala idazten zutelako gertatzen zen. Beraz Ibarrek aranatarren eta are alderdi abertzaleen joeraren kontra jotzen du, bai euskara moldearen aldetik, bai euskara salbatzeko estrategiaren aldetik. Aitzolen gidaritzapeko Pizkundearen joera nagusia kritikatzan du hizkuntza-politikari dagokionez: 1) irizpide politiko nagusi batzuetan (abertzale kontzientzia euskararen/euskaldunen gainetik, proselitismo politikoak euskarari mesederik ez). 2) hizkuntzaren egoerari buruzko diagnostikoan (irakurlerik ezaren zergatietan: Ibarren arabera, euskararen babesik eza eta literaturaren –sensu lato– interesik eza). 3) S. Aranaren hizkuntza ereduari buruz eta euskal idazle eredugarriei buruz (Aranaren kontra, Axular, *Euskalduna* eta Orixeren *Euskaldunak* hartzen ditu eredutzat). 4) Aterabide gisa, plangintza garbi bat aurkezten du: a) informazio-egunkaria, b) aldizkari grafikoa, c) haurrentzako aldizkaria, d) Literatur lehiaketa obra; e) folklore koaderno, f) idazleen biblioteca. Hizkuntzaren aldetik ere plangintza osoa: ortografiaren erreformatik hasita idaztankeraraino (herrikoia, Orixeren *Euskaldunaren* bidetik).

Ibarren, proposamen edo plangintza hutsa baino ez da. Haren liburua guxti zabaldu bide zen eta berandu, gerra aurretxoan. Baina baliteke bere eragina izatea garai hartan, nahiz. Baliteke ere idazle abertzale batzuk bat etortzea Ibarrekin euskararen atzerakadaren zergatietan eta plangintzako puntu batzuetan. *Genio y Lengua* aipatua da *Euzkadin*, Euzkel-Idazti-Aldez egitasmoaren kanpaina dela eta, idazle batek bere etsipena agertzen baitu, euskaldunak liburutan dirurik gastatu nahi ez duelako («Belostikalekoa» sinatua, «Entzun...? Bai zera!», Euzk 7345, 1936-7-11). Baliteke ere Ibarren kritikak Aitzolengan eragina izatea. Baina bestalde, Ibarren ideia batzuk ez dira berarenak edo berarenak bakarrik (adib. euskal egunkaria eta umeen aldizkaria sortzekoak, edo herri-jakintza batu eta zabaltzeko asmoak ja Euskaltzaleak taldeak 1930-1931an zabalduak baitziren). Lauaxetak 1934tik aurrera bultzaturiko aldaketa batzuk ere bat datoz hein batez Ibarren plangintzako proposameneko zenbait punturekin. Adib. informazioaren garrantzia edo berriak eman behar direla, baita ipuin eta idazlan atsegingarriak (Ibarren «sección amena»), haurrentzako irakurgaiak, literatur lehiaketa, herri-jakintza (Ibarren folklore koaderno, mardulagoa, *Genio y Lengua* 244-245), idazleen biblioteca (Ibarren Idazle

(47) Barrensororen *Gazigozoak* dela eta dio: «Euzko-elertijan agertuten ezpayakuz idazti geyago, irakurliak dauka erruba. (...). Liburutegijetan sartuta eukitteko ezтира idaztijak, eskuz-esku ibilli dadijantzat baño» (Euzk 6354, 1933-4-20).

Klasikoen Koaderno). Euskal atalean Lauaxetak bultzaturiko beste sail eta genero batzuk ere bat datoz Ibarrenekin: zientzia dibulgazioaren garrantzia (Ibarrek egunkarian, aldizkari grafikoan eta are literatura-lehiaketetan nahi zuen hori, *Genio y Lengua* 252-253); iritzi-artikulu sakona («artículo de fondo», *Genio y Lengua* 250).

Hala ere, funtsean Ibarren ideiak eta egitasmoa erabat bestelakoak ziren, kuantitatiboki eta kualitatiboki. Adib. euskarazko informazio-egunkariari eta aldizkari grafikoari dagokionez. Informazio-egunkari hori Hego Euskal Herri osorakoa izango zen, dirudienez; sei bat orrialdekoa eta *La Croix* frantsesaren ereduakoa. Idazle finko eta euskara ondo zekitenek idatzia, halaber kolaboratzaile ordainduak lagundua (Ibarrek egunkari abertzaleetako kolaboratzaile bolondres «espontaneo» eta haien lanaren dohainekotasuna kritikatzin zituen, *Genio y Lengua* 74-75). Informazio-genero nagusi guztietarikoak izango zituena: erreportajeak, kronikak, albisteak (honetan *Euzkadiren* euskal atalak han-hor-hemengo berri laburrak eta gehienbat nahas-mahas baino ez zekartzan; aitortu behar da ordea herri-kroniken arloan *Euzkadik* lan eskerga egin zuela). Euskalkien banaketa ezarriko zuena, gipuzkera nagusi geldituz kazetaren bizkarrezur diren informazioan eta iritzi-artikulu nagusian. Aldizkari grafikoari dagokionez, tresna horren, eta oro har irudi grafikoan eta iratiaren garrantzia, hots, ikusentzunezko baliabideena azpimarratu zuen Ibarrek. Ideologia aldetik ere bestelakoa zen Ibarren egitasmoa: politikarik eta joera politikorik gabeko egunkaria, kristau ortodoxia eta moralaren aldekoa (*Genio y Lengua* 250), are joera espiritualistakoa.

IV. 5. Egunkarietako euskal atalek ez zuten, dirudienez, asetzen euskal irakurlea; alderdikariak izanaz ostein; ezta idazleak ere, asko baitziren. Horregatik agian, Ibarrek ere, ikusirik *Euzkadi*, *Argia*, *Ekin* eta besteren hutsunea, euskal informazio-egunkariaren beharra aldarrikatu zuen, plangintza baten barruan (48).

Gerrak, militar-faxista eta erreketen matxinatuei erantzutean piztu zen gerrak euskal idazleen eztabaidak eta egitasmoak desagertarazi zituen, eta zereginak aldatu. Lauaxetari Euzko Gudarostean beste kargu batzuk eman zizkionten, eta geroxeago, Euzko-Jaurilaritza osatuta gero, azaroan, *Gudari* sortu zuten, euskal atalaren artezkari izandakoaren zuzendaritzapean (iragarpena: Euzk 7438, 1936-10-29; *Gudari*-ren helbidea: Bilboko Bidebarrieta 23, 2.a). *Bizkaitarra* eta *Ekin* asterokoak desagertu ziren.

(48) Hona *Ekin* eta *Argia* asterokoez Ibarren kritika: *Ekin*: «primordialmente doctrinal-religioso y lleva la «información general como accidente» (*Genio y Lengua*, 66). *Argia*: «está muy lejos de poderse llamar «un órgano de información» —como no se pretenda confundir la «información» con la «gacetilla o crónica menuda» de corresponsales aficionados; de donde resulta que ni uno ni otro (ni *Ekin* ni *Argia*) deben bastar para colmar las aspiraciones actuales de nuestro público; como, en efecto, no las colman, a juzgar por el favor creciente de los periódicos erdaldunes, llámense o no vascos» (Ibar, *Genio y Lengua*, 66).

Berriemaile edota idazle gehienak mutu gelditu ziren: arduraduna (I. Enbeita, ustez) kexatzen da, herrietako berri eta artikulua gutxi hartu dituela-eta, Mañariko zintzoaren herri-izpar ondo biribilduak salbu («Euzkel-idazliak», Euzk 7371, 1936-8-11; sinatu gabe); baina beste 20 batenak ere bazeuzkan, idazle nagusi eta jarraikienak alde bat utzita (Euzk 7489, 1936-12-29. Ik. Eraskinak (II). Idazle gehienak gazte sasoikoak ziren eta armak hartu behar izan zituzten (49).

Gerran euskal idazle eta kazetari abertzale mordoxka fusilatuak, erailak izan ziren. Ezagunenak Lauaxeta eta Aitzol dira baina horiez gain ondokoak aipatzea tokatzen da: Martin Lekuona Oiartzungoa; Jose Markiegi Debakoa (Lizardiren *Itz-lauz* liburuaren prestatzailea), Arrasaten fusilatu; Elgoibarko Gotzon Osoro «Aberri», sortzez motrikuarra, Kirikiñoren garaietako berriemaile *Euzkadin*, 1933an omendua, erreketee Larruskainen (Markina) harrapatu eta Donostian fusilatu baitzuten, Euzk 7487, 1936-12-25); Josu Peña «Aitza»; Jose Mari Azkarraga «Lurgorri», Aramaiokoa (ik. Bibliogr.: Euske-razaintza: 2002).

1936 urte bukaeran, Euzko Jaurlaritzak, egunerokoen orri-murritzarekin batera (4 orrialde bakoitzak), aukeraz eta erabakitze ahalmenez baliatuz, erabaki garrantzitsu bat hartu zuen: egunkarien banaketa baten partaide, *Eguna* euskara hutsezko egunerokoa sortzea (50). Euskarazko eguneroko berria, historikoki lehena Euskal Herrian, *Euzkadiren* azpiegituraz eta «euskal atal»eko idazle taldeaz baliatu zen, gerra garaiko eta gerrari egokituriko egunkariaz arduratzeko. Hain zuzen *Euzkadiren* euskal ataleko idazle gailenak izan ziren gehienbat *Egunako* erredaktore eta kolaboratzaileak (horien artean bi emakume), oraingoan ordainduak (51).

Beraz funtsean *Eguna*, *Euzkadi* eta *El Díar*en «euskal atala»ren garapena izan zen. *Euzkadiren* euskal atala hil zen, nahiz *Euzkadiren* lehen orrialde-

(49) «Ainbat dira izkilluak lepotik dingilizka bezela ikusi dodazan idazliak» (Ogoñope, «Bakotxari berea», Euzk 7374, 1936-8-14; Gipuzkoako idazle asko, Loiolako batailoian omen zeuden (Uzturre, «Naskaldia», Euzk 7407, 1936-9-22).

(50) Erabaki hori hartzeko Euzko Jaurlaritzak izan zituen edo zitzakeen benetako arrazoiak zein ote ziren? Abertzaleen eskutan tresna bat gehiago jartzea? Euskaldunen arteko batasuna sendotzea? Bilbon garai hartan euskaldun asko zegoela-eta, euskaraz irakurtzeko gogoa sustatzea, gerrako albisteen gosea aseztu? Ordura arte nahi bai baina egitera ausartu ez zena egitea, aukeraz baliatuz? EAJk euskaraz propaganda egiteari garrantzi handia ematen ziolako? Horiek guztiak eta beste batzuk, agian, dira *Eguna* sortzeko arrazoiak.

(51) «Redacción de "Eguna"». Director, D. Manuel de Ziarsolo, 550 (hileko soldata pezetatan). Jefe de Redacción, Agustín de Zubikarai, 450. Redactores, Eusebio de Erkiaga, Manuel de Enbeita, Alejandro de Mendizabal, Jose Bilbao Uribarri. Este se incorporó el día 28 de Enero de 1937. (Soldata) 350 + 107 a los de noche. Corrector de pruebas, Antonio Ruiz de Asua. Se incorporó el día 8. Aretxalde. Colaboradores de pago: «Arrugain», «Basarri», «Uzturre», «Mendi-Lauta», «Barrensorro», «Montxor», «Maite», «Arritokieta» (BBB-364-5, Pablo Azkue, *Euzkadi*, *Eguna*, *La Tarde*, *Excelsius*, *Gudari*-ren administratzailearen paperak, Abertzaleetasunaren Agiritgia, Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa, Artea (Bizkaia).

an noizean behin euskarazko sail bat agertarazten duten, Abeletzek sinatua, edo Luzear-ek («Labur eta mardul», Euzk 7579, 1937-4-11). *Euzkadi* izan zen *Egunaren* labe, *Euzkadiren* «euskal atala»ko idazleak *Egunaren*, lehen euskal egunkariaren bizkarrezur, eta beraz Lauaxetak euskal atalaren artezkari legez eginiko lana, funtsezkoa. Haren itzala nabari bide zen *Egunaren* bulegoetan, beharbada noizean behin agertuko zen kazetariei ikustalditxo bat egitera. Li-tekeena da ere hark bere eragina izatea *Eguna* sortzeko erabakian.

Egunak urte erdi eskas iraun zuen, Bilbo matxinatu militar-faxista eta erreketen eskutan erori arte (1937-1-1 - 1937-6-13). *Euzkadi* egunkaria berriz agertu zen Bartzelonan 1938an. Gerra bukatzeaz, Pariseko *Euzko-Enda. Bulletin mensuelle à l'union de la Race Basquen* (1939 urt.-1940 apirila) idatzi zuten euskal ataleko batzuek: Basarri, Abeletxe, E. Bustintza, Napartarra, Uribi-tarte'tar I. Kartzelan *Espetxean* aldizkaria sortu zuten EAJko abertzaleek; esaterako, hor hasi zen idazten K. Mitxelena 1938 inguruan. Katea ez zen eten.

Labur: Lauaxeta izan zen Bizkaian XX. mendean kazetari eta idazleen belaunaldietan (Azkueren *Euskalzale* eta *Ibaizabal*, Kirikiñoren *Euzkadiren* ondoren) hirugarrenaren artezkaria, bultzagilea eta antolatzailea. Berriemaile ugari eta idazle gazteak baina asmo handikoak bildu zituen. Guztiei esker, *Euzkadiren* euskal atalak II. Errepublika garaiko kronika eta lekukotza balio-tsua eskaintzen digu.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, J. M. «Lizardi». *Euskera aundiki-soñekoz*, EEE, Klasikoak, 1995, L. Otaegiren edizioa.
- ALTZIBAR, X. (1997 a) «“Kirikiño” kazetaria, I. Mundu-Gerraren kontalari», in *Gerra eta Literatura 1914-1944*. Eusko Ikaskuntza, Oihenart 14, Cuadernos de Lengua y Literatura, Donostia, 1997, 9-33. orr. (1997 b) «Etxa-gerrateak sorturiko “Eguna”, lehen euskal egunkaria», in *Gerra eta Literatura 1914-1944*. Eusko Ikaskuntza, Oihenart 14, Cuadernos de Lengua y Literatura, Donostia 1997, 47-56. orr. (2005) Ik. Urkiaga, Esteban, *Lauaxeta* (Inprimagai) «Lauaxetaren kazetaritza», Andolin Eguzkitzari omenaldia.
- AMEZAGA, E. DE. *Bibliografía vasca. Diccionario de seudónimos vascos*. La Gran Enciclopedia Vasca, 2002.
- CORTAZAR, NICOLAS DE (ALZOLA GEREDIAGA, N.), *Cien autores vascos*, Edit. Auñamendi, 1968.
- ERKIAGA, E. «Lauaxeta»-z barriren barri», *Idatz & Mintz*, 7, 1984.

- ETXANIZ, N., *Lan Hautatuak*, Hiria & Egan, 2000 (M. Atxaga, G. Etxeberria, P. Sudupek prestatua).
- EUSKERAZAINZA, «36'ko Gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak. Lauaxeta. Lurgorri. Josu Peña (Aita). Peña'tar Josu (Aitza), idazle gazte su-izkillatua. *Euskerazaintza-Euskeraren Erri Akademia*, 2002.
- IBAR (J.M. MOCOROA), *Genio y Lengua*, Tolosa, Mocoroea Hnos, 1935; 1936 kanpoko azalean.
- KORTAZAR, J. (1982). Ik. Urkiaga, Esteban, *Lauaxeta*.
- (1984) *Lauaxeta. Biografía política*, Ediciones Alderdi Argitaldaria, 1984.– Mallona, A. Ik. Urkiaga, Esteban, *Lauaxeta*.
- (1990) Ik. Esteban Urkiaga «Lauaxeta».
- LIZARDI (J.M. AGIRRE) *Euskera aundiki-soñekoz* (L. Otaegiren edizioa), EEE, Klasikoak, 1995.
- MALLONA, A. (1991). Ik. Urkiaga, Esteban «Lauaxeta».
- MITXELENA, L., «Las lenguas españolas y el periodismo escrito», *Lenguaje en periodismo escrito*, Fundación March, 1977.
- ONAINDIA, S., *Euskal Literatura*, III, Etor, Bilbao, 1974. –IV, 1975.– V, Etor, 1977; VI, 1990.
- PENADES BILBAO, J., *Lauaxeta, historian hezurmamituriko siesmena. Kultura-ren eta sinesmenaren arteko elkarrizketarako elkargia: solidaritza bizi-arrazoi*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1996.
- SAN MARTÍN, J., *Escritores euskericos*, La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- URKIAGA, ESTEBAN, *Lauaxeta: Lauaxeta, Urkiaga'tar Esteban, Azalpenak, 1931-1935*. Labayru Ik.-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1982, J. Kortazarren aukeraketa eta hitzaurrea («Lauaxetaren prosa»). –*Esteban Urkiaga. Azalpenak eta beste*. 1932. EEE, 1991, A. Mallonaren edizioa eta hitzaur.–*Antzerkia*, EEE, Klasikoak 38. J. Kortazar-ek prestatua, sarrerarekin. –*Esteban Urkiaga. Lauaxeta. Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*, Labayru Ik.–BBK Fundazioa, Bilbao, 2005. Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar; testu-moldaketa: Igone Etxebarria.

Oharrak

Komatxoak (« ») erabili dira beti artikularen izenburua adierazteko, baita idazlearen ezizena askotan.

Letra arruntez eta larriz idatzi dira sailen izenak: Azalpenak, Errijetatik.

ERANSKINAK**I. Herrietako berriemaileak**

Berriemaileak ezizenez ageri dira. Parentesi artean, zein urtetan (gutxienez) izan zen berri heltzale; batzuetan, ezizenduna nor zen.

A

Abadiño: Kukuzar (1936).
 Akorda: Ogoñope (Andoni Ruiz de Azua irrati esataria; 1933).
 Albitz: Artzaña (1933).
 Albiz-Mendata: Albiz-Errotako (1933).
 Amasa-Billabona: Zubi-Ondo (1933).
 Andoain: Buruntza (1931, 1933).
 Araba: Mikelats (1935).
 Areatza (Billaro): Akatza (1933).
 Aretxabaleta: Muru-Mendi (1933); Aitza.
 Arrasate: Udalaiz (Peli Markiegi?); Peli (Peli Markiegi?; 1933); Ikasle (1935);
 Arratia: Itxarle (1931).
 Arratzuba: Arratzuko Trumoya (1933).
 Arrona: Izparkari (1933).
 Axangiz: Jel Gudari (1933).
 Azkoitia: Egi-Alde (?) (1931).
 Azpeitia: Iturri-txiki (1931); Urreko zoroa (1931); Kirol (1931, erdaraz ere; 1933).

B

Barakaldo: Ziñea (1931).
 Bedoña: «Txorizale» (1934).
 Bermeo: Motxela (1931, erdaraz ere); Arraintzale (1931); Urkidi.
 Berriz: Gentza-Zale (1931).
 Bilbao: Torkatiko (1931); Abeletxe (1931); Txindor-kumia (1934). Bilbo-Zarra: Iñor ez (1935). Begoña: X (1935).

D

Deba: Burni-bide (1933).
 Derio: Aketze (1931); Elexalde (1933).
 Donostia: Atarrene (1931).
 Durango: Gogorra (1931); Tabiratarra (1933; F. Belaustegigoitia?); Ibaizabal (1933).

E

Ea: Manu (1933).
Eibar: Legarre (1931); Lakatza (1933).
Elgoibar: Aberri (Gotzon Osoro); Atxolin (1931); Aixerixa (1936); Ixaka; Mirentxu (Mirentxu Juaristi).
Erandio Goikoa (Asua): Txistu.
Ereño: Emakume bat (1935).
Errenderi: Andoni (1933).
Errezil: Talo (1931).
Errigoitia: Txindor Bi (1933).

F

Forua: Sugatzarte (1933); Ibai-Gane (1935).

G

Galdakano: Algorri (1931); Bildur (1931); Txomintxu (1933); Basakiña (1936).
Gaminitz: Goiko Mendi (1931); Aiko-Zera (1933).
Gaminiz eta Ibarrika: Aiko Zera (Eu 6770, 1934-8-).
Garai: Patalako Sagua (1933).
Gatika: Laun on (1931); Aberri-Alde (1933).
Gauegiz Arteaga: Izparkarija (1933).
Gaztelu-Elexabeitia: Erritar (1931).
Gaztelerritik: Nabarriztarra (1933).
Gernika: Belumendu (1933; lehenengoetarikoa zen); Bixiko-etxe (1933; andrezkoa zen?); Eliz-ondo (1933); Bake-zale (1933); Olariaga (1933); Balle-zale (1933an hasia).
Getxo-Neguri: Arza «Torkatiko» (1931).

I

Ibarruri: Ibarralde (1933).
Iurre: Aramotz (1931).

J

Jatabe: Jatabetarra (1931).

K

Kortezubi: Kortezubi'tar (1933); Neu nok (1933); Astelarra'tar Andoni (1933); Gora-Beti (1933); Larra-Gane (1933).

L

Larrabetzu: Urittar bat (1933); Mendi (1933).
 Lasarte: A-Bi (1933).
 Laukiniz: Txiberri (1933).
 Lazkano: Ibai-alde (1933); Zar-zale (1933); Iramendi (1933, 1934, Lauaxeta-
 ren adiskide dateke)
 Legazpi: Zar-zale (Gr. Mujika?; 1931); Ilintxa (Kepa Gurtubai).
 Lekeitio: Endaitz (E. Erkiaga; 1933, 1935).
 Lezama: Txirri (1933).
 Logroño: Jeltzale (J. Garmendia «Zeleta»; 1933).
 Loiu: Luyu (1931).

M

Mañari: E. Bustintza «Mañariko» (1931-1936).
 Markina: Markiñarra (1931. Alberto Onaindia Zuloaga kalonjea? Alberto Onaindiak *Euzkadi* egunkarian idatzi ohi zuen erdaraz «Egizale», «Markiña», «Olaso», «Jurgi de Ibaseta» ezizenez. «Labor euzkerista» sail garrantzitsuan, euskal kulturaz (1931-5-3). Euskaraz ere zerbait idatzi zukeen, Markinako berriak noizean behin emanenez); Ete (1933; emakumea da).
 Mendaro: I'tar; Agiis-arte (1931); Kaiku (1933); Karri (1933).
 Mendata: «Gaste-Belu».
 Meñaka: Doño.
 Milpilla (Txile): Erri (1933).
 Mutriku: Murugain (J.M. Burgaña); Andoni (1935); Gurutz-ondo (1933; Gurutz-ondo Ondarroakoa ote zen? Ik. L.ren «Uarra», Eu 6332, 1933-3-24); Arno-Mendi (1933); Idrole (1933); Elordi'tar Jon; (1933); Kaialde (1935); Ixakin (1935). (J. A. Arkotxa «Kirol-Zale»ren arabera, 11 euskal berrie-maile izatera heldu ziren Mutrikun (*El Día* eta *Euzkadiren* artean agian). Ik. Arkotxa «Ziarsolo», Onaindia, S. *Euskal Literatura*, VI, 85. or.).
 Mundaka: «Otxolua» (B. Garro; 1931).
 Mungia: Otalora (1931); Beti-Zuzen (1933).
 Murueta: Aitz-Gane (1933).
 Muxika: Goldari bat (1933); Matxalen.

N

Nabarniz:
 Natxitua: Kurutze-Gane.

O

Oiartzun: Enara (1931).

Ondarroa: Artibai (J. M. Ituarte; 1931-1936; ik. Onaindia, S., *Euskal Literaturara*, V, Etor, 1977, 19-20); Txori-etxea (?1931); Urretxiñdorra (1931); Basa-Txoritxu (1931); Txori-Erreka (1933); Ibai-ondo (1933); Edurbero (1933).
 Oñate: Aloña (1931); Ikasle (1933).
 Orio: Abaraska (artikulu-egilea ere bada, ik. Euzk 6518).
 Orozko: Lemotza (1933); Usotxu Bi (1933).
 Otxandiano: Anboto (1933, 1935).

S

Santander: Oztategitxuko Jon (Zabala-Arana?; 1933). Ik. Gaztelerritik.
 Segura: Otarra (1933).
 Soraluze: Dris-dras (1933; STVkoa; erdaraz ere idazten du, ik. 1935-3-29).

T

Tolosa: Uzturre (1931); Aritzeta (1931).

U

Ubidea: Aretxeta (1933).
 Uduliz: Txiberri (1933).
 Urretxua: Arri Gotzon (1933); Andere bat (1935).

Z

Zarauz: Basarri (1933, 1935).
 Zeanuri: Baserritar bat (1931); Atzurkulu'ko Mirue (1931); Arregi'tar bat (1933).
 Zeberio: Gastelu (1931).
 Zornotza: Urki (1933).
 Zumarraga: Altzeta (K. Linazasoro, Lauaxetaren hizlarikidea; 1933).

II. Oharrak: Lauaxetak idazleei eta idazleek Lauaxetari

Oharrak: Urte (1932) eta hilabete batzuetakoak falta dira. Batzuetan oharra osorik transkribatu orde, garrantzitsuena jaso dugu; beste batzuetan, transkribatu beharrean, laburtu.

1931

- Arrasateko «Udalaitz»i (P. Markiegi?): «Uarra: Nere tamal-agurra Peli adiskidea. L.» (Errijetatik: Arrasate (Mondragón), Euzk 5675, 1931-2-17).
- Berrizko Gentza-Zale-ri (sinatu gabe. L?; Euzk 5676, 1931-2-18).

1933

- «Arritokieta» ezizendunari (Julene Azpeitia zumaia idazlea), «Notintasuna» artikulua idatzi duela-eta, gogo berotuz holako ikaskizunak behar direla-eta (Euzk 6275, 1933-1-17; 6299, 1933-2-14).
- Elgoibarko «Axarixa»ri: letra garbia idazteko (Euzk 6310, 1933-2-26); Iribertegi'tar Akilin-i, Josu Neketiako, Arraizakoari (Nafarroa) (ibid.)
- Goitia'tar Iñake ipuin idazle gazteari: «Uarra. Zorijonik samurrenak. Aberrija itxartuteko beste biderik eztago. Lauaxeta.» (Euzk 1933-3-1).
- Zigoitiako Urbiñaran-i. «Uarra. Pozik idazkitxu au jaso dot. Aspaldijon ixilik zengozan eta Araba'ko izparrak atsegingarri yakuz.» «Lauaxeta» (Errijetatik, Euzk 6316, 1933-3-5, 8. or.).
- «Mudurri-gastea»ri, idazle hau euskaraz idazten hasten baita Lauaxetaren «Espetxian» artikulua irakurri ondoren. Hark bere «Aberrijaren askatasun-bidian orrelan a...» idazlanean bilbotar neska abertzaleen joera kritikatzan du (papparrean euskal orratza bai baina euskara «aldeanuen», «jeboen» hizkeratzat, hots Bilboko gizartean euskara gaizki ikusia dela salatzen du). «Uarra. Eskerrik asko: Eskerrik asko zeure gorlbenak bide, Abertzaliok egija dala uste doguna esan bihar dogu (...). Eta orain eskari bat: sarri-sarri euzkeraz idatzi egixula. L.» (Euzk 6317, 1933-3-7).
- Foruko Sugatzarte-ri «Uarra. Poztu naz (...). Eta zeuk idatzi noxian bein. Agur. Lauaxeta» (Euzk 6319, 1933-3-9).
- Eibarko «Lakatza»ri (Euzk 6321, 1933-3-11).
- Elgoibarko «Mendigoizale bat»i: «Uarra. I, adizkide, erri ortan dauden idazle guztijai muturreko bana eman, alperrak diralako. Eta ik idatzi sarri-sarri. "L"» (Errijetatik, Euzk 6322, 1933-3-12).
- Motrikuko «Gurutz Ondo»ri: «Uarra. Deban ixan zintzan (...) eta neuri agurrik bere ez. Olakorik eztot entzun (...). Txalo lar entzuten doguz izlarijok eta alperrik galduta gabiltz. (...). «L» (Euzk 6328, 1933-3-19).
- «Igandietako Jaupa-atalak» saileko «Atarrizbarna» idazlearen artikuluari eginiko oharrean, Lauaxetak azaltzen du zergatik berandu argitaratu den: «Uarra. *Jaupa-atal oneik batuta euki gura* dabez batzuk (...) "L"» («Igandietako jaupa-atalak» «Atarrizbarna», Euzk 6327, 1933-3-18).
- Urretxuko «Arri gotzon»i (Euzk 6328, 1933-3-19).
- Arronako «Izparkari»ri, pozik, jarraitzeko esanez («L», Euzk 6331, 1933-3-23).

- Ondarroako «Gurutx Ondo»ri: «Uarra. Ze demoniño darabiltzube geure bizkaiera txukun onegaz? (...). Eta zeuk idatzi egixu zintzo. “L”» (Euzk 6332, 1933-3-24).
 - Berrizkoari, Soraluzekoari (Euzk 6343, 1933-4-6).
 - Mendatako «Gaste-Belu»ri. «Uarra: (...) Kortezubiko idazliak lotan edo dagoz» (Euzk 6346, 1933-4-9).
 - «Arteta»ri (A. Zubikarai), honen laguna dela eta Lekeitio aldean elkar ikusten zutela erakutsiz: «Uarra. Adizkide, ba-dakit Donostian ixan zarana, baña neu enintzan jua. Lekeitio-aldera be, juateko asmuetan egon nazan-arren, zati batean enaz juango, erdi kili-kolo nabil eta. Idatzi astero-astero. Lauaxeta.» (Errijetatik, Euzk 6353, 1933-4-19).
- «Uarra. Idazti askotxu daukoguz eta zerbait moztu dautzut. Neuri esaten zeustazuzanak. Laster orrantza juateko asmua dot, ia osatuta nago ta. Pelota-jokaldi on bat egingo dogu, neuk izparringijan iragarriko dot-eta. “L”» (Errijetatik: Mendexa «Arteta», Euzk 6361, 1933-4-28).
- Logroñon osasun kontuengatik dagoen «Zeleta»ri (J. Garmendia). «Uarra.–Lenbailen osatu zadiz (...). Zu lako idazliak bihar dauz geure izkuntza onek. (...)» (sinatu gabe) (Errijetatik: Logroño «Zeleta», Euzk 6369, 1933-5-7).
 - Areatzako «Akatza»ri. «Uarra.–Neureketz be, tamal-agurra egitten dau-tsot «Garmendia» abertzale zintzuari, bere anayaren eriotz-bide» (sinatu gabe, Errijetatik: Areatza «Akatza», Euzk 6374, 1933-5-13).
 - Gernikako «Bake-Zale»ri, sinatu gabe, ohartaraziz izparrak ez errepi-katzearren, moztu dizkiola (Euzk 6509, 1933-10-18).
 - Derioko «Elexalde»ri: «Uarra.–Ia «Elexalde» sarri-sarri idazten dozun. Ez nekatu. Askori jazoten yakona, gaur asi ta bijar il.»– “L.”» (Errijetatik: Derio, Euzk 6402, 1933-6-5).
 - Donostiako «Atarrene»ri. Honek «Euzko-Erri-Jakintza» sailean «Ezizenak» artikulua idazten du, 112 bat ezizen batuz, garai bateko Donostiakoak, arrantzale artekoak). «Uarra.–Askok uste ixango dute lan au alperrikua degula, baiña oker daude. Olako exizen guzijak bilduko ba-giñuzke, errazkada txukuna egiñen ginduke. Tamalez errijetako idazliak ez dute egin nai agintzen zayen lanik. Erriko izparrak ederki dau-de, baña beste bertzo zar, ipuin eta exizen eta abar batu biar dituzte. Egunero eskatzen diegu. Alperriko deyak, ostera.–Lauaxeta.» («Euzko-Erri-Jakintza», Euzk 6403, 1933-6-16).
 - Mungiaiko «Beti-Zuzen»-i: «Uarra.–Mungia’ko Gastetxubetako batek olan idatziko lebala, eleudan uste. Ondo dago. Orain lanari ekin bihar dautsozu. Egunero irakurri egixuz euzkerazko izparrak eta abar. Idaz-

ten ikasi gura ba-dozu, asko irakurri biar ixango dozu. / Zorijonak zeben irakasle diran emakume zintzo orrei. “Lauaxeta”» (Errijetatik: Mungia «Beti-Zuzen», Euzk 6406, 1933-6-20).

- Debako «Burni-Bide»ri: «Uarra.–Asmo ona artu dezute Euzko-Langillien Alkartasuna antolatziatz. Olako alkartiak onura andija ekarten geure aberri oni. Idazten jarraiko dezula uste det. Agur. “Lauaxeta”» (Errijetatik: Deba «Burni-Bide», Euzk 6407, 1933-6-21).
- «Arteta»ri (A. Zubikarai), uda aldean Lekeitio aldera joango dela: «Uarra.– Eztodaz jaso (...). Laster orrantza juango naz.–Lauaxeta.» (Errijetatik: Mendexa, Euzk 6411, 1933-6-25).
- Axangizko Artepe-ri, herriko mitinean (Ogoñope eta J. A. Agirrerekin batera Lauaxetak parte hartzekoa) ezin egon izan zela adieraziz: «Uarra.–Neu ezin juan ixan nintzan, tamalez. Urrenguan ixango da. Lauaxeta» (Errijetatik: Axangiz, Euzk 6411, 1933-6-25).
- Motrikuko Idrole-ri, laburtu diola adieraziz: «Uarra.– (...) laburtu dizut (...)» (Errijetatik: Motriku «Idrole», Euzk 6411, 1933-6-25).
- «Zaizuri»-ri (nafar idazleren bat dirudi). Honek «Il-zori aurreko antziak» gipuzkerazko artikuluan kritika egiten du (Quousque tandem...) euskara jakintzagaletan eskatuz, ez bakarrik herriko izpar eta olerkitxoetan. Aitzolek *La muerte del euskeran*, Unamuno eta Barojaren aurka, euskara gai dela esan eta gero *Yakintzan* dena erderaz. Euskara euskal gizartean gero eta gutxiago erabiltzen dela (Euzk 6413, 1933-6-28).

Uarra.–Zeure idazki orretan diran gauza guztijetaz bat-egiñik enagonarren, pozik argittaltzen dizut. Idazliai asko itxi bear zayo, euren aburuba agertu dagientzat. Idazle bat geyago Euzkadi'n ixanen degula uste det. Jarrai ba. Bañon (...) gai sakonak artu ta erabilli. Bakotxak bere arlua aurrera eraman daigun. Lauaxeta.» (Eu 6413, 1933-6-28).

- Zaizuri-ri oharra, honek idatzi «Aberearen arima ezta gogozkoa»z: «Uarra. *Olako gayak erabiltzen badoguz, euzkerea goratuko dogu*. Pozik argittalduko dira gai oneik (...). Lauaxeta. («Zaizuri», «Aberearen arima ezta gogozkoa», Euzk 6434, 1933-7-22).
- «Atarrene»ri, honen «Aberri'ren omen ondoren» idazlanari erantzunez (Euzk 6448, 1933-8-8).
- Uzturreri, honen «Gipuzkoa-Buru-Batzarra'ri ate-joka» idazlanari (Euzk 6454, 1933-8-15).

Lauaxetaren oharra. Irratsaio bat idatziz argitaratzen duela. L. (Euzk 6490, 1933-9-26).

- Ibarruriko «Ibarralde»ri : «Uarra: (...) L» (Euzk 6494, 1933-9-30).

- Zeanurikoari (Euzk 6507, 1933-10-15).
- «Kurutze-Gane» Natxituako berriemaileari oharra (Euzk 6507, 1933-10-15).
- Bermeotik Lekeitiora: L.ren oharra (Euzk 6507, 1933-10-15).
- «Satarka»ri (Klaudio Sagarzazu), haren «Itzalditxoa» artikuluari egini-ko ohar luzea. «Satarka»ren artikulua ohar honekin dator: (Gipuzkoa'-ko aldunen omenean irakurritako itzalditxoa). Eta testuaren ostean dator Lauaxetaren oharra:

Uarra.- «Satarka» olerkarijari: Olerkari samur bat ixan zan, bein Euzkadi'n. Negu gorrija zala entzun genduzan bere abesti-otsak. ¡Umetxu gintzazan, baña zein bigunki sartu yakuzan aren oyubak! Euzkadi'ko zugatzetan ostruak erne ziran olerkarijaren abestijak entzuki.

Baña bijotzetan etzan sortu ostrorik. Bijotzak otz-otz egozan eta abeslari beti ixateko jayo zan olerkarija ixilik eguala. ¡Zer ardura dautse euzkotarrai olerkari bat gora-bera! Ostikolari edo pelotari jayo ba-zan, izparringi gustijak aretzaz mintzatuko ziran. Baña zoritxarrez olerkari jayo zan eta txakurrak aña eztabe balijo olerkarijak.

Abeslari sortu zan arek «Txinpartak» eritxon idazti bat argittaldu eban, baña errijak ezeban onartu. Trabenetan jan eta edan ibiltia atsegiñago yakon. Olerkarijaren bijotzera negu otza jausi zan eta urtiak juan urtiak etorri eztogu bere abotsik entzun. ¿»Satarka» ezagututen ete-dozu olerkari a? ¿Aren ordu-ba juan ete-zan betiko edo oindikarren abar-itunetan abestu ete-daike txorijak? Txikijak gintzan olerkari areri aupada bat egitteko, orain andi egin garanian oyu-egitten dautsogu aberri zoritxardun onegattik abestu daijan. ¡Eztautube eskartuko! Al daben gustijak aginka egingo dautzube, baña gixonak baño obiak txakurrak dirala-ta, oneikattik abestu bedi olerkarijak.

Gixonak eztira gai olerkarijaren oñak zapaldu dagijazan, be. Baña txakur gaxuak, euren begi zabal-zabalakaz begiratuten dauskube. «Satarka» zanaren abestijak, «Txinpartak» emon euskuzanaren bijotz-miñak entzun gura geunkez txakur-zaliak garanok. Lauaxeta (Euzk 6556, 1933-12-12).

1934

- «Jautarkol»i (L. Jauregi), pozez, Verdaguer-en olerkiak itzuliko dituela jakitean (Euzk 6659, 1934-4-12).

1. «Irular»ek (Aingeru Irigarai) Lauaxetari («Nabarra» «Irular», Euzk 6670, 1934-4-2)

«Lauaxeta adiskidea (...) (...) zure ipuin barregarriak (azkena, «Ezta-baide» deritzona) oso pozik irakurri ditugu guztiek; baño gatz eta piper ori ezdugu denek, (...)». «zure erderazko irakurgaiak ere gogotik ikusten ditugu;

eta bearrezkoa da «bibliografia» sail ori *Euzkadin*. «Euskera pizteko, berriz, errietako elzaleak ordaindu, erderazkoak bezanbat. «Udaletxeetako tokiak, eta (...) bearrezko egin euskeraz yakitea.». «Ez artu euskera ikurraztat, apainduratzat (...)».

Lauaxetak «Irular»i erantzuten: «Egi utsa esan dok! Euzkera-gauzetan atzera ez ete-guazi? (...) Zer egiñen? (...). Erriak gogozago irakurri oi-dauz, ipuin barregarriak. Oraingo notizi batzuk be, emon biar yakoz. Nire asmoetan dabil ume-artian sariketa batzuk egin. Euzkerazko ipuin, bertsotxu, askaketa eta abar saritubak ixan biar dabe. Ume sariketa au beriala biribilduko dogu. Zure ta beste askoren asmuak jakin nai-doguz (...)».

- «Jautarkol»-i: «Uarra. Pozari nago (...). Lauaxeta» («Verdaguer'en olerkiak euzkeraz». Jauregi'tar Koldobika, Euzk 6659, 1934-4-12).
- Lauaxetak bere olerki bati («Udabarriko autorkuntza», egileak orrialdearen erdi-erdian kokatu zuen olerkia, apain-apain): «Uarra. «Olerki errikoyak egin bihar dirala dirauskubete. Tira, ba, bakotzak al-daun eran egin begiz. (...)» (Euzk 6669, 1934-4-24).
- «Endaitz»-i (E. Erkiaga), honen «Maite min?» olerkia dela-eta: «Uarra. Benetan polita auxete. L.» (Euzk 6688, 1934-5-17).
- Bedoñatik idazten duen «Txorizale»ri, honen «Nere begijen aurrian» olerkia dela eta: «Uarra. Adizkide: poliki ari zara bertsoetan. Jarrai bide ortaz. «L» (Euzk 6690, 1934-5-19).
- «Mañariko»ri (Errose Bustintza), sinatu gabe (ala I. Enbeitarena da oharra?) (Euzk 6691, 1934-5-20).
- «Satarka»ri, honen «Iturrian» olerkia dela-eta –Tagorerena, euskaratuta–: «Uarra.–Olerkari trebe ori: pozik zure lanak ikusten doguz. Ugari-txubago bidalduko dauskuzu zerbait, ezta? Ondokoen otza dala-ta ez ikera. Gustijen kontra bada be, olerkarijak aurrera egin biar dau. Lauaxeta.» (Euzk 6717, 1934-6-20).
- Bedoñatik idazten duen «Txorizale»ri, hark «Lauaxeta'ri» olerkian esandakoagatik, hots «Agur Maixu! Agur lagun!». «Jarrai deyozun lan eder'ortan / Guri begiak zabaltzen / Aberriaren semia danak / Asi gaitezen ulertzen.// Noiz edo bein, badakizu zuk / Ipuin ederrak bialtzen / Baserritarrok egoten gera / Poz-pozik ayek entzuten.». Lauaxetaren oharra: «Uarra. Mila esker, adizkide, olako bertso txukunak neuri opaldu daustazuzalako. «L»» (Euzk 6719, 1934-6-22).
- «Iramendi» Lazkaoko berriemaileari. Honek idazten dio: «Uarra. Lauaxeta jaun agurgarria (...) zure eskumunak jaso ditut. Anei esker (...). «Iramendi»» (Euzk 6725, 1934-6-). Lauaxetaren oharra: «Uarra. Zori-

jonak lloba berri ori dala-ta, Libe ixenak bidia dikur baña Amaya'k eztauko erderazkorik. "L"» (Errijetatik: Lazkano, Euzk 650, 1934-7-28).

– Bilboko «Txindor-kumia»ri ohar moduko bat, sinatu gabe (Euzk 6749, 1934-7-27).

– «Atarrene»ri (donostiar idazlea. Augustin Anabitarte ote??), honen artikululu bati erantzunez. Atarrenek bere artikuluan dio bere anaia bat *Euzkadiren* bulegoetara joan zela Lauaxeta ikustera.

«Agur Lauaxeta, jeltzale zintzo ta sutsua. Zu izango zera, noski, ori (...) Euzkadi'n nere anayagaz egon ziñana. / Mutil gaste, polit, rubio, dotore, ta betaurrekoaz zala esan ziran ta, ori zu izan bihar, «erreboluzionero» ori ezta? Nere anai-bidez esandakoa jaso det, baña ez uste izan *Euzkadi'n* idazten ez badet, aztuta nagolako dala. (...). / *El Dia'n* idazten ditu(d)an euskel-idaztiak, *Euzkadi'ri* biali ta, zure naya, bete nezake, baña ez naiz idazlan bat, bi izparringitara bialtze zale (...)».

Lauaxetaren erantzuna: «Uarra.–Ni ixan nintzan bai, zere anayarekin egon zana. Arek esan eutzuna nireketz zan. / Idazliak zer egitten dabene, itaunduten dozu. Askok ezerez. Bein zer bait agertu etxakiela-ta betoker dagoz. "L"» («Donostia'tik Bilbao'ra eskutitz irikia» «Atarrene», Euzk 6777, 1934-8-29).

– Miomako (Araba) «Txindoki»ri, honek «Larrunarriko Gurutza» idatzi ondoan. «Uarra.–Jauna: sarri-sarri datzi. Or txoko lirain orretan ixango dira berein jakingarri. Aunitz esker bidalduten ba-dauskuzuz. Zure lagun gara gaurgeroz izparringiko gustijok. Agindu Jel-pian jaun orrek. "L".» (Euzk 6758, 1934-8-7).

– «Kirol-zale»ri, Arnopere-ren omenaldia dela-eta. «Uarra. Ni ere iritxi ortan nago. «Arnopere» zanaren gogo-aldez jaitxu bat egitzea (sic) egokia dela iduritzen zait. Motriko'n toki berezia (...). Entzungo deguz (sic) beste idazle azkarren iritxiak. "L"» (Euzk 6778, 1934-8-30).

– Gatikako «Aberriazale»ri, honen «Gernikako espetxian» artikulua iren; izenpetu gabe, baina Lauaxeta izan behar du: «Uarra. Pozik nago Gatika'ko gazte zintzuok egin dozubena jakin dodanetik. Olako erri gitxi dago gero! Zuek zarie mutilak zubek! Euzkadi'n eztagoz beste lau. Ez ikeratu, geure aberri onen alde ori baño geyago be, egin bearko dogu-ba. Beste (erri)batzutan arro ibiltan dira, baña Gatikarrok orainguan onduen portau zarie. Espetxian zagozanoi besarkada bana. Gora Euzkadi! Eta kazike peste ta zitalok or elezondoko orregaz batera lupuak jango al dauz.» (Euzk 6805, 1934-9-30, Errijetatik).

1935

– Urretxuko berriemaileari («Andere bat»), honek «Arri-Gotzon» idazlea espetxean dela jakinarazten dio; Lauaxetak ezagutzen du Arri-Gotzon:

«Uarra.–Ederki (...) eznekian. Gaxua! Mutil azkar eta apala degu axe ba. (...) Zorionak bere sendikoai (...). L.» (Euzk 6948, 1935-3-31).

- Bergarakoari, «zuzendari jaunaren» baimena eskatzen baitu idazteko.
- Abertzale zintzo bati ohartarazteko (Euzk 69690, 1935-4-26).
- Zarauzko berriemaileari, hika (Euzk 6970, 1935-4-27).
- Begoñako berriemaile bati («Txorizale?»): «zu lako mutil azkarrai Lauaxetak laketuten dautse» (Euzk 6994, 1935-5-26).
- Sabin Muniategi olerkariari, honen «Zeugaitik» olerkiaren ondoan: «Uarra: Azana azala, *olerkarija az!* Ire beste olerki batzuk be, irakurrijak jaukodazak eta *punterengotzat aukot*. Gastia az? Orduban bai ixango intzakela olerkari trebia! Bilborantza atorran batian, *ikertaldi bat egiskuk*. Lauaxeta. (Euzk 7016, 1935-6-21).

Muniategiren «Lilluratubarena»-ren ondoan, Lauaxetaren oharra: «Uarra: Olerkari on bat agertu yaku. Orain arte be, esan dogu, baña barriro esan nai dogu. Muniategi gastia zer egin daiken igarri geinke. Abixen au buruban artu begije gure elerti-zaliak. L.» (Euzk 7061, 1935-8-13).

- Olerkariei. Elertizaleei ere tokia egin behar zaiela egunerokoan (Euzk 7141, 1935-11-14). Astean orri bat aterako dela, ostegunetan, olerkiekin.
- «Lotsati» olerkariari, honen «Bizitza eta maitasuna» argitaratu ondoan: «Uarra. Olerkari aundi-aundia egin zaitu Goikua»k: izkuntzearen sako-nak ikasiko dozuzanian, orduban bai, gauza txukunak egingo dozuzala! Olerkari onaen lanak irakurri egixuz, edertijaren arauak, be, adiraldu. Giar geiegi daukozun ezkerro, aurrera bildur-gabe. Lauaxeta.» (Euzk 7129, 1935-10-31).
- Etxeberriari uarra, «Izlarijok!» artikulua dela-eta (Euzk 7137, 1935-11-4).
- «Barrenso»ri (T. Agirre), honek eskatu duelako alderdiak euskara gehiago egitea. Lauaxetren erantzuna: «BBBko landoletan, *Euzkadiko* aretoetan eta beste toki gustijetan be, amaikatxu euzkera entzun daruagu (...). Lauaxeta.» (Euzk 7161, 1935-12-7).
- «Satar»ari: «Uarra: Aspaldiko olerkari au be, itxartu yaku! (...) Satar-ka ezta azkenengo malletakua. L.» (Euzk 7171, 1935-12).
- Bilbo-Zarra'ko (sic) «Iñor-ez» berriemaileari, euskara ikasi duela-eta: «Uarra. Ainbeste samintasun barruban darabilgunok poztuten gara ola-ko abertzale zintzuak aurkitzen doguzanian. Egunean-egunean ordu bete euzkereari emoten dautso (...). Lauaxeta.» (Euzk 6969, 1935-4-26).

- Begoñako (Bilbao) berriemaileari: «Uarra. Zu lako mutil azkarrai Lauaxetak laketuten dautse» (Euzk 6994, 1935-5-26). Begoñako berriemailearen erantzuna: «Eskerrak Lauaxetari, lengo astian ipiñi eban uarragattik» (Errijetatik: Begoña, Euzk 7000, 1935-6-2).
- «Uribitarte'tr Ibon»-ek S. Muniategiri, honen «Udabarriko eresija» dela-eta; itxura denez, Muniategik L. ikusi nahi du: «Uarra. Lauaxeta ikusi gura dozunian, emen ikusi zeinke, Bilbao'n aurkitzen da-ta. I.» (Euzk 7118, 1935-10-18).
- Lauaxetak (?) Bilboko Jatorrak-i: «Uarra. Bilbao»ko Euzko-Gastedija'n «Abeletxe» irakasliaren ardurapean euzkeraz irakurten eta idazten ikasiten asi diran euzkeldun jatorren idazkija da au.» (Euzk 7121, 1935-10-22).
- Otxandiokoari: «Uarra. (...). L.» (Orixeren poemaz). (Errijetatik: Otxandiano, Euzk 7137, 1935-11-9).
- Olerkariet: «Uarra. (...)» (Eu 7141, 1935-11-14. Elerti zaleei ere tokia egin behar zaiela).
- «Malko»ri, honen «Bakar-izketa itxuraz»-i erantzun gisa: «Uarra: Nai dezunian idatzi, geure orri oneik zeuregana dagoz. Lauaxeta.» (Euzk 7175, 1935-12-24).

1936

- Abadiñoko «Kukuzar» izparkariari: «Zuek daukazube umoria, zubek! (...). Beste erri askotako gastedijak lotan dagozan artian, (...) geure Euzkadi onen onerako. Lauaxeta.» (Errijetatik: Abadiño, Euzk 7252, 1936-3-22).
- «Erletxue»ri (J.M. Abando). Honek «Izpegi» olerkia eskaintzen baitio Lauaxetari. Lauaxetaren erantzuna: «Uarra. Eskerrik asko zeure esken-tza orregatik. Bakio'ko toki eder arek beste ixenik elei onartu. «Izpegi», «Panorama marítimo» «Balcón de mar» eta beste olako ixen batzuren ordezkua dogu. Neuri begiko yat. Bakio'tarrak eztagijela baztertu.-Lauaxeta.» (Euzk 7343, 1936-7-9).
- «Gaste-Belu»-ri, «Lorelleko Ametsa (Zintzotasuna)» olerkia idatzi ondoan: «Uarra. Ola adizkide: nundik ataraten dozak olako olerki ederrak? Poz-pozik irakurri yuat. Asko irakurten dokala, ondo agiri dok. Aurre-ra!.-L. « (Euzk 7343, 1936-7-9).
- «Andoni»ri, honen «Udara» olerkia argitara ondoan: «Uarra. Olerti-Atalok egubenetan argittalduko dira. Olerkari asko agertzen yakuz eta euren lanok argittalduta ikusi gura leukiez. Beraz gustijentzat tokija ixan dedin, egubanak olerkarijentzat ixango dira. L.» (Euzk 7343, 1936-7-9).

- «Erletxue»ri, honek Euzkel-Idazti-Alde egitasmoan lagundu nahi baitzion (Erletxue, «Entzun ondo!») : «Uarra. Erletxue adizkide zarrak «Entzun ondo!» dirausku, baña (...). / *Euzkadi* izparringijan idazten daben idazle gustijetatik iru-edo lauk baiño eztauskube erantzun.../ Bein eta betiko esan daigun: euzkeldunak eztau matte bere izkuntzea. / Garate osagille azkarraren itzak (...) egi utsak.» (Euzk 7344, 1936-7-10. Ondoren: Arpidedun-agiria eta helbidea: Euzkel-Idazti-Alde. Correo txaide, 17'gna).

Berririo Erletxuek beste idazlan bat Lauaxetaren asmoa azalduz eta zein liburu argitara daitezkeen zehaztuz: «Lauaxetaren asmoagaz Euzkel-Idazti-Aldek batu dagiazala lanik onenak, (...) euki daigun biblioteka aberatz bat. (...). / (...) or dagoz *Euzkadi*'ko orrietan ainbeste ipuin eder Mañariko, Arritokietan, Muniategi, Endaitz, Uzturre, Otxolua, Barrenso, Enbeita'tar Imanol eta beste askorenak. (...). Ez deritxazu lotsagarria dala oindiño, esate baterako, Enbeita'tar Kepa'ren bertso liburutxu bat eztogula egin?» («Entzun ondo ta ez aitzu!», Euzk 7346, 1936-7-12).

Lauaxetaren erantzuna: «Uarra: Ekin...Atzo be, bost arpide barri. Bilbotarrak ondo erantzuten dabe. Euzkerarik ezta kijenak be, euren ixenak emon dauskubez. (...). Alperrik gabiltz aberriaren alde, bere soñurik zarrena ta sustairik gogorrena galtzen badogu. Euzkerea!» (ibid.).

- «Belostikalekoa»ri, Euzko-Idazti-Aldez kanpaina dela-eta (Erletxuaren artikuluen ondoren) diotso beste 6 harpidedun berri + beste sei egin direla. Herrialde oso batzuetatik bat ere ez, Getxotik ordea bai.
- «Bortane»ri, honen olerki baten (Oleriti-Atalak sail edo izenburuz argitaratua) ondoan: «Adizkide: Geure euzko-olerkarien lanak irakurri egizuz, euren gandik asko ikasi daikezu-ta. Jel-arauz agurtzen zaitudala. Zeure, Lauaxeta» (Euzk 7349, 1936-7-16).
- Lizarraga'tar K.-i: «Uarra. Adizkide on-ona. Pozik jaso ditut zureak. Irrikitzen nintzan zure batzu irakurtzeko. Datorren igandez Beasain-alde ikango nauzu eta berriketaldi bat egiten (sic) atsegin izanen zait. Olerkari trebe zaitugun ezkerro, jarrai bide ortaz. Beti zure, Lauaxeta.» (Euzk 7349, 1936-7-16).

(Harrezkero, I. Enbeitak egiten ditu oharrek, 1936 azkenera arte).

Lauaxetaren beste ohar batzuk

1933

- Tolosako Olerki Txapelketa dela-eta, epaimahairen erabakia eta Lauaxetaren ohar laburra (Euzk 6287, 1933-1-31).

- Eskualherrizaleez (talde horretakoak ziren *Aintzina* kazeta argitaratzen zutenak): «Uarra: Jakingarrija (...)/ osuan orregaz ezkagozan arren, ondo baño obeto iruditu yaku» (izenpetu gabe) («Eskualerrizaleen xedeak», Euzk 6433, 1933-7-21).
- «Uarra. Bizkaiko idazlien ixenez autu ninduben ezkerro, neure gardiz egokijaguak diran aldakuntzak egin dodaz (...). Lauaxeta, urriaren 1. igandean (Euzkel-Idazle-Batza. Uarra 'Lauaxeta', Euzk 6487, 1933-9-22).
- «Uarra. Aldaketeak. (...) ondikarren aldaketa geyago be egin gura geunkez. (...). "Errijetatik" deritxon sallan, zerbait moztu biar-ixango dogula. / Erri-izparrak labur-labur agertuko dira. Gaur asi ta agertuten diran lez (...)» (Uarra, L(auaxeta)., Euzk 6512, 1933-10-21).
- «Udalaizpe»ren (J. Zaitegi) «Horatius ene begietan» artikuluari: «Uarra. Len Victor Hugo»taz idatzi euskun idazle azkarrak, Horatius olerkariaren baratzeraz jo dau. Geure elerti onetara lora ederrak ekarri gura dauskuz. Eskerrak emon biarrian gagoz, Sopokel'en Antigone, Horatius'en olerkijak, «Kizkiña» eta abar egin dauzan idazle gazte au gorraldu daigun. L.» (Udalaizpe, Horatius ene begietan», Euzk 6528, 1933-11-9).

Lauaxetaren beste artikuluetako iruzkinak (ez oharrak)

1931

- Zubimendi-ren ardurapeko «euskal atala»z eta Richepin olerkariaren olerki batez, hark itzulia: «Donostiako *El Pueblo Vasco*-k igandero euzkel orria agertuko dau. Areiñegun argitaldua irakurri dogu. Zubimendi dau artezkari. Ederki egiña dozu orri guztia. Eresi, olerki eta ipuin politak. Zubimendik euzkeratu dau Parantzeko Richepin olerkiaren (sic) olerki bat. // Orain urte (sic) izango da nerau olerki ori euzkeralduten asi nintzala, baña gatza iruditu yatalako itxi neban. Zubimendik egin daben lana ondo txalotu neike, au dala-ta. Osoan artu begiz neure txaloak. Argi ta samurkiro itzulia da olerkitxu ori. / Euzkaldunak geroago ta irakurgai geyago daukez. Izparringi askok orain euzkel-gauzak argitalduten dabez. *El Pueblo Vascoren* orri au ezta azkenengoa izango. Bide orretatik egunero zer edo zer argitaldutera iritxiko ete dira? Agur egiten dautsegu biotzez» («Egunekua»: «Euzkel orria» ataltxoa, Euzk 5669, 1931-2-10; ez sinatua baina egilea Lauaxeta dateke).
- M. Sotaren «Ator, mutil» antzerkiaz: gaia kontatzen du (Egunekua, Euzk 5677, 1931-2-19, L. dateke).

- Orixez: «Alper xamarra» omen Orixe, Lauaxetaren arabera (Egunekua, Euzk 5678, 1931-2-20).
- «Idazleai uarra» ataltxoa. (Idazleak haserretzen zirela-eta). «Guztioi erantzungo dautsuet, meresi be badozue-ta». «Izparringi onetan toki gixi itziten deuskue (...) ezin sartu daitekez gura doguzan idazki guztiak. Azketsi. / Uar bat. Bere idazkiak argitaldurik ikusi gura dabezanak, bialdu begiz ainbat laburren, moztuen. Izparrik giarrenak, muinenak batu begiez» (Egunekua, Euzk 5685, 1931-2-28).
- «Asarre eldu yat idazki bat, «merengez» eginak zirala auzkuak esan nebalako. / Elburu bakarra dogu. Aberrija. Bidiak asko oster» (Egunekua, Euzk 5687, 1931-3-3).
- Aquinotar Toma: «saratakaz eztogu ezer egingo, idazki sakon eta gixon argijakaz baño» (Egunekua, Eu 5692, 1931-3-8).

1933

- Joseba Altuna idazleaz, honen «Abendearen egerkunak (sic). Aberrija» artikulua eta hitzaldiaz. «Uarra. Larunbat gabaz entzun genduban itzaldija, itzaldi ederra ixan zan (...). Erritxu askotatik itzaldiak eskatuten dauskubez, edonok esateko languak. (...) Sabin'en bidez-bide dabillen gixon apal ta euzkel-idazle argijak lan ederrak egin dagikez. Zorijonak egitten dautsoguz. Lauaxeta.» (Euzk Eu 6317, 1933-3-7).
- Sestao'ko mitinean gorriek tiro abertzaleei. «Asaltokuak an ziran, baño trankil eta ben barre egijen. Neu katzeu ninduben beintzat» (Euzk 6424, 1933-7-11). «Neure bixijan (...) katxeau egin nauela. Sekulan eztot sentidu olakorik, baño igandian Asalto'ko batek esan eustan «Mesedez». / Eta goittik beraño igortzi ninduban. Aldian zer neukan? Euzkadiko ikurrintxu bat, iru laurleko, ingi zati batzuk, eta arkatza.» (Euzk 6425, 1933-7-12)
- *La Voz de Navarra*ren euskal atalaz (Lauaxetak?; letra etzanez, izenpetu gabe): «Izparringi onek euzkel-atala jarri dausku. *El Dia*, *La Gaceta del Norte*, *Tierra Vasca* eta *Euzkadi* ziran orain arte euzkel-atalak argittalduten ixan dabezenak baño beste lankide jator bat agertu yaku. «Egunekua» deritxo bere sail txukunari. Pozarren gagoz, egunez egun geure ele oni biar yakon lotsea emoten dautsogulako.

La Voz de Navarra izparringiaren euzkel-artezkari nor dan eztakigu, baño geure zorijonak artu begiz. «Irular» azkarra, geure adizkide mina, «Larreko» irakasle gorengua, gaste gustijok bijotzean daukogun bixar-zuridun idazle jatorra, Agerre, Tapia-Perurena, ta beste idazle asko dira Naparra-aldian. Orrein lanak non batu ixango dogu orain, eskerrak eguneroko eder orri. Geure zori-

jonik bijozkorrenak egiten dautsoguz ta bide artez jarrai dagijan laguntza eskeintzen dautsogu» («La Voz de Navarra», Euzk 6528, 1933-11-9).

1934

- Justo Garateren euskarazko artikulua bat dela-eta, midikuntza eta biologia ikasleez: «Uarra. *Euzko-Ikaskuntzaren Deya* deritxon aldizkingijan lantxo atsegingarri au argittaldu dauskube. Garate osalari argi ta azarri zor yako. Tamalez, yaun onek, gitxitxu idazten dausku geure ele maitean./ Euzko-kultura nai dabenak, euzkerara jo bihar-dabe. Jakintsu geyenak euzkeratzaz aztu dira-edo. Dana dala, Garate'ren oraingo au ederto egiña dogu. L.» («Sendagilleak eta landarabere ikasleak», «Eneko», Euzk 6776, 1934-8-28).

1935

- Eguzkitzaren *Gizarte-auzia* liburuaz: «Lehenago irakurrijak geunkazan liburu orretako artikulua geyenak, “Ekin” en agertu ziralako.». «Eguski-za lango idazlerik ez dago asko. Gorengoetan gorengo dogu. Euzkera erreza, errikoya, edonok ulertuten gorengo dana.» (sinatu gabe, «Liburu barri bat», Euzk 6938, 1935-3-20).
- I. Enbeita «Uribitarte'tar Ibon»-i, Batzokian euskaraz egiteaz: «Oker zuzentza: Larunbatan agertu zan Egunekuan, geure idazlekide dan Uribitarte'tar Ibon'ek (...) Euzkeldun batzokija(z) (...) bere eritxijak baño eztira» («Oker-zuzentza», Euzk 6990, 1935-5-22).

«Oker-zuzentza». Ixenburu ber-beronegaz asten zan ingoski onen artez-karijak atzo idatzi eban (...). Baña ez Batzokijetzaz, Batzoki orretako akeitarretuetan susmetan dan gaztelar-usañetzaz baño» («Uribitarte'tar Ibon», Egunekua, Euzk 6990, 1935-5-22).

Idazleek Lauaxetari

1933

- Lazkanoko Iramendik (Euzk 6474, 1933-9-7)

«Lauaxetari (1).–Kontxo...Lazkao'n izan omen ziñan eta nizaz galdetu ere ez...Asarre nago. Oturuntza joputu zuan neskatiñ argi ark eman zidan zezatasun guztiak. Enkantauta dago zuzaz ikusten naun guzian aitatuta oso atsegingarria zerala esaten dit. Ia egun baten antolatzen dezuten, laster ia...jai. Agur. Poztuten naz, eta urrenguan ia nola alkar ikusten degun.

(1) Lauaxeta oporraldija igazten dabil. Beraz zuk diñozunari ezin erantzun. (...)» (Euzk 6474, 1933-9-7).

- Mendexatik «Arteta»k: «Lauaxeta igazko udan Aralar’ko mendijetan margua gorrittuta geratu bazan, Mendexa’ko edurtzetara etorrijagaz margua zurittuta geratuko litzakijola uste dot» (Errijetatik: Mendexa, «Arteta», Euzk 6571, 1933-12-29).

1935

- «Lauaxeta, el poeta de la imaginación exuberante, que ha pretendido felizmente elevar al euzkera a los derroteros por los que discurren los literatos modernos creando su «Arrats-beran», encantador librito de ingeniosas letrillas que agradan por su ligereza y sencillez; (...)» (Kuntxu, «Renacimiento euzkérico», Euzk 7110, 1935-10-9).

Idazliai saileko manu, aholku, jakinarazte...

1933

- «Euzko Idazliei»: «Aberri»ren omenezkoan, behin-behineko batzorde bat sortu behar dela, Araudi-gai bat asmatzeko. Berriemaileei ordaindu behar zaiela geroke euskal egunkaria sortzeko (Euzk 6478, 1933-9-12)
- (labur) Elgoibarren izango dela batzarra, urriaren 1ean. Elkartasuna eratu behin eta betiko (Euzk 6492, 1933-9-28).
- Izpar Urtenenak-i buruz:

«Uarra. / Kanpora urten biarrak eragotzi dausku «Izpar Urtenenak» ateratia. Azketsi begiskube irakurliak. L.» (Euzk 6530, 1933-11-11).

«Uarra. / Lanaren lanez, auteskunde oneik gestau-eziñik, eztaukogu astirik be, «Izpar Urtenenak» egiteko. Azketsiki (sic) dauskube adizkide onok (sic).» (Euzk 6534, 1933-11-16).

1935

- (6 hilabeteko debekualdiaren ondoren, berrir idazteko deia): «Idazliok!! / Aspaldijon atseden egiñ dogu, (...). / Erritxubetako izparrak (...). / Geure euzkel-orri oneik zabalik dagoz. Guztijentzat! (Euzk 6938, 1935-3-20).

Idazleei oharra, ustez I. Enbeita «Uribitarte’tar Ibon»enak

1936

- (Lauaxetaren? «Ibon»en? oharra). Galdakaoko «Basakiña»ri, Lauaxetaren partez *Euzkadiren* irakurleei agur eginez: «Uarra. Bidaldu dozun

Euzko-Idazti-Alde'ko arpide-agiritxuba artu dogu. Lauaxeta egunokaz, beste zeregin batzubetan dabil, oraingo jazokunok gustijuon laguntzea eskatzen dabe-ta. Eskerrikasko ta agur. L.» (Errijetatik: Galdakano «Baskiña», Euzk 7363, 1936-8-1).

- «Matxinada au asi zanetik ona, gure euzkel idazle mattiak mututu-edo egin ixan dira, Mañariko zintzuaren aste-erri-izpar laburrak edo ondo biribildubak baño beste erri-izparrak eztogu artu-ta. / «Artikulu»-antzotzat idatzi ixan dauskubenak be, askorik eztira.» (Euzk 7371, 1936-8-11). («Euzkel-idazliak», Euzk 7371, 1936-8-11; sinatu gabe).
- Ogoñoperen artikulu baten zolan, hark azaltzen baitu euskal atalaren eta idazleen egoera («Ogoñope», «Bakotxari beria», Euzk 7374, 1936-8-14): «Uarra. Au (Lauaxeta) be matxinada onek beste egin biar garrantzitsubetara eruan dausku. Ikusten dodanian, baña, esango dautsat.» (ibid., Euzk 7374, 1936-8-14).
- «Bai, asteroko barri bat urtengo dok txaidera datorren illaren 4»gn. Guda santsube darijola. Ixena be (...) «Gudari». Zuzenbidea: Bidebarrieta 23, 2gn. («Entzun euzkel idazliok!», Euzk 7438, 1936-10-29).
- «Idaz-lan luzetxubak bialtzen dauskuzubez, eta ori dala-ta, (...) idatziziatz eta labur, ta asi zebe argazkijok bialtzen, lantzian bat argittaldu daiguzan». «Mai-ganian pilatu yakuzan idazlanak ara zeintzubenak diran: (...) Urkidi, Aixexixa, Biritxiñaga, Andoni, Kaiku, Ixaka, Bake-nai, Ilintxa, Gurtubai'tar Kepa, Iturriaga'tar Pantzeska, Mañariko, Mendigain, Montxor, Kerexeta'tar J., L.M., Aiz-zorrotz, Aitza, Agureak, Goxabaran, Otarmi, Eguzki.» («Idazliei uarra», Euzk 7489, 1936-12-29; izenpetu gabe).

III. EUZKADI EGUNKARIKO EUSKAL IDAZLEAK (1930-1936)

Ondoren, *Euzkadin* beren idazlanak argitara zituzten euskal idazleen zerrenda ezarriko dugu, olerkari eta bertsogileak barne. Gutxienez hiruzpalau idazlan behintzat argitaratu zituztenena baina ez egile ez idazlan guztiena, horretarako bibliografia lan zehatzagoa egin beharko bailitzateke. Idazleok erdaraz argitaratutako idazlanak ere jaso ditugu; ez ordea, erdarazko idazleenak edo ia beti erdaraz baizik idatzi ez zutenenak, nahiz eta euskal gaez izan.

Idazleonek zerrenda egiterakoan, lehenik idazlearen deiturak eta izena ipiniko dogu, ondoren noiz bizi izan zen, gero idazlearen ezizenak. Ondoren idazleari buruzko informazio labur bat eta, azkenik, idazleak *Euzkadin* idatzitako artikulu edo literaturlanak.

- Abando Urrexola, Jon (1885-1946). «Erletxue». Ik. Onaindia EL IV 76. Olerkiak (zehatzago bildu bear lirateke): Euzk 6804, 1934-9-29; Euzk

7343, 1936-7-9. Prosazko kazetalanak: (Euzkel-Idazti-Alde egitasmoaz): «Entzun ondo!» (Eu 7343, 1936-7-9); «Entzun ondo ta ez aitzu!» (Erletxue, Eu 7346, 1936-7-12).

- Agirre, Eli (1911-1935). «Agarel». Abadiñokoa, 24 urte zituelarik hila, Durangon hobiratu (Euzk 7130, 1935-11-1). Ik. haren heriotzaren ondoren hartaz «Endaitz»ek, «Arteta»k eta bestek idatzia (Euzk 7131, 7132, 7135, 7137).

Artikuluak: (Agarelek Lauaxetari proposatzen dio herrietako toki- (etxe-) izenak, hitzak, esakunak, oguzkera, aditza etab. batzea...) «Geuriari buruz. Euzkel-idazliai» (Euzk 6661, 1934-4-14); «Sarri ta sarrio» (Euzk 6938 1935-3-20); Euzk 6946, 1935-3-29; «Abixenak, toki-ixenak, itxorkunak» saila: Euzk 7020, 1935-6-26; Euzk 7025, 1935-7-2; Euzk 7050, 1935-7-31. Astronomia: «Gaudiziti gaitetzaz» (Euzk 6323, 1933-3-14); «Gaudiziti-gayetzaz: Gixona («Lauaxetari bi-jotzez»)» (Euzk 6410, 1933-6-24, prehistoriako kontuak). Artea: «Erti-idazkija» (Euzk 1934-9-11. Egileak frantsesa dakiela ageri da; literaturan sentimenduen eta irudimearen balioa aipatzen du). Euskara: «Euzkerearren. Lauaxetari» («Agarel», Euzk 6797 1934-9-21). «Rondando un verso de Etxepare», *Euzkerea*, ap Euzk 6950, 1935-4-3. Beste: «Txorimaluaren egazkadeak. I Egazkadea» (Euzk 6952, 1935-4-5; «Txorimaloaren Egazkadea» (Euzk 6957, 1935-4-11).

- Agirre Urdalleta, Tomas (Errezil 1898-1982). «Barrenso». *Gazi-gozokak* (Bilbao, 1933), *Uztaro* (Bilbao, 1937). Artikulu asko idatzi zuen, bai bizkaieraz bai gipuzkeraz. Olerkiak ere bai (ik. Onaindia MEOE 1024). Bizkaiko Aldundiaren Euskara Katedran irakasle ari izan zen.

Ideologia gaiak: «Sabin...? Hitler...? Zeñena da berarizko abertzaletasuna?» (Euzk 6315, 1933-3-4). Politika: «Zergatik jeiki gara «fascio»tarren aurka? (Barrenso, Euzk 7374, 1936-8-14; bizkaieraz). Euskara: «Nora doakigu euzkera? Batu gaitez euzkeltzaleak» (Barrenso, Euzk 6741, 1934-7-18); «Zelan gaizkatu euzkerea?» (Barrenso, Euzk 6748, 1934-7-26); «Euzkeldun-Batzoki bat Bilbao'n» (Barrenso, Euzk 7002, 1935-6-5); «Noiz arte idazliantzako zartakoak?» (Euzk 7119, 1935-10-19). «Euzkeraren alde barriro be» (Barrenso, Euzk 7157, 1935-12-3). Beste: «Lana? Zoazte baserrira! Artua-rena» (Euzk 6664, 1934-4-18); «Ara emen sagasti loretan» (Euzk 6669, 1934-4-24). Ik. Euzk 6653; Euzk 6765, 1934-8-15?; Euzk 7360, 1936-7-29; Euzk 7390, 1936-9-2; bizkaieraz. *Uztaro* (Barrenso, Euzk 7008, 1935-6-12; hor hasten da nobela).

- Agirre, Jose Maria (1896-1933). «Lizardi». Ik. J. M. Lizardi, *Euskera aundiki-soñekoz* (EEE, Klasikoak, 1995, L. Otaegiren edizioko batzuk *Euzkadin* argitaratuak izan ziren). «Aurtengo uda-ikastaldiak» (Euzk 1931-6-19, *Eusko-Ikaskuntzaren Deiatik* hartuta).
- Altuna Aldasoro, Joseba Andoni (Bilbao 1888–1971). «Amilgain», «Azparren». Lauaxetak goratua, harentzat maitagarriena Kirikiñorekin batera

(«Kirikiño», 1932-4-17). Euskararen aldeko langile amorratua. Euskal kazeta eta aldizkarietan idatzi zuen: *Bizkaitarra*, *Euzkadi*... Idazle klasikoak euskaratu eta argitara zituen: Esopo, Grimm, O. Wilde... Euskararen etimologia ikerketak, abizenen jatorria. Bizkaiko Foru Aldundian euskara irakasle 1936 arte. *Oskar Wilde'ren Ipuñak* (Bilbao, 1927); *Grimm Anayak. Ipuñak* (Bilbao, 1929). Ik. Onaindia *Euskal Literatura* IV 87-.

Ipuinak: Turkarren ipuñak (Euzk 5655, 1931-1-24; 1931-5-21; 1931-6-6; 1933-2-1); «Mutil tentela» (Euzk 5735, 1931-4-29).

– Anabitarte Irazu, Augustin (Donostia 1891-1981) «Anabi». «Atarrene»? Ik. «Atarrene».

– Arkotxa Martija, Jose Antonio (1911-1996). «Kirol-zale». Mutrikuko berriemaileetarik bat. Antzerkigilea (ik. Onaindia, *Euskal Literatura* VI, 84-86. «Arnopere'ren omena dala-ta» (Euzk 6778, 1934-8-30).

– Arozena Gomendio, Andoni (Lasarte 1907-1989). «A-Bi».

– Arruza Egia, Mikel (Bilbao 1890–Bilbao 1966) «Garbi Zale», «Garbi Zale Zarra», «Arrugain» «Urratza». (ik. Onaindia EL IV 91-93. *La Gaceta del Norteren euskal atalean idazle*). *Euskeraz ikasteko bide erraza* (Bilbao 1934).

«Euskalduna, entzun!» (Euzk 7214, 1936-2-7); «Euskaldunak, entzun!» (Euzk 7218, 1936-2-12).

– Arzelus, Ander (Donostia 1898–Baiona 1949). «Luzear». «Labur ta mardul» artikulua (Luzear, Euzk 7579, 1937-4-11. «Labur Ta Mardul» haren saila da beste egunkari edo astekari batzuetan.

– Arruti, Txomin (1897-1968). «Mendi-Lauta». «Madrid» (Euzk 6546, 1933-11-30); «Lizardi oroituaz» (Euzk 6709, 1934-6-10); ik. Euzk 7441, 1936-11-1?).

– Antonio Arza Llona (Loiu 1899–). «Torkatiko». Bilbo eta Getxoko berriemailea (1931). Ik. Onaindia, *Euskal Literatura* V, 79-80.

– «Atarrene»: «Aberri'ren omen ondoren» (Euzk 6448, 1933-8-8, Lauaxetaren oharrarekin). Ik. Euzk 6711, 1934-6-12; Euzk 6715, 1934-6-17; Euzk 7250, 1936-3-20.

– Aurre Apraiz. Ik. Beste ezizendun batzuk: «Age».

– Azkarraga y Mozo, Jose Maria (Aramaio 1914–1936? 1937). «Lurgorri». Eraila.

– Azpeitia, Julene (Zumaia 1888–1980). «Arritokieta».

Euzkotar Umien Aldez saila (1933?, 1934, 1935, 1936); Euzk 6344, 1933-4-7; Euzk 6372, 1933?-V-11; Euzk 7025, 1935-7; Euzk 7218, 1936-2-

12). Emakumeez: «Txekoslovakiako emakumeak» (Euzk 6784, 1934-9-18; Euzk 6801, 1934-9-26); «Norantz goaz emakumeak?» (Euzk 6945/6950/6956/6966, 1935-3-28; 1935-4-3/10/23. Euskara: «Utziko ete diogu euzkerari iltzen? (1935 edo 1936). Itzulpenak: «Muni umearen eriotza» (itzulpena, Euzk 7123, 1935-10-24). 1936ko gerraz: «Ante la guerra» (Juliana Azpeitia de Ezkauriatza, Euzk 7387, 1936-8-29, 1. or.). Ik. idazle hartaz: «Una gesta patriótica: Juliana Azpeitia de Ezkauriatza» (Euzk 6958, 1935-4-12).

- Barriola Aizpurua, Abelin (1885-1944). *Aldiz, aldiz* antzerkiaz ik. Euzk 7160, 1935-12-6?
- Belaustegi, Francisco (1869-1957). «Tabira». Ik. Onaindia, S., *Euskal Literatura* III 133-136. Durangoko berriemaile eta artikulu idazlea. «Euzkera erreza bai...» (Belaustegi jauparija, Euzk 7173, 1935-12-).
- Belaustegi Iturbe, Jon Joseba (1869-1945) «Iparragirren olerki-eresien bilduma ta erti-iritzi laburra» (Euzk 6438, 1933-7-27).
- Belaustegigoitia Landaluze, P(ederika) (1876-1947): «Euzkel-Idazle-Batzarra (?) begira zerbait (Durango, 1933-8-16; Euzk 6497, 1933-10-4).
- Bustintza, Errose (Mañari 1989-1953). «Mañariko». Kirikiñoren iloba. Bere herriko berriak, bertso eta koplak zaharrak bildu zituen, eta batez ere ipuin ugari. Idazle jarraiki eta hoberenatarik bat. Ipuinak: «Lamiñaren ostikadea» (Euzk 6378, 1933-5-18). Otsua ta axerija «Mañarikua» (Euzk 6415, 1933-6-30). «Orratzontziko sorginak» (Euzk 7117, 1935-10-17). «Norbera onduaz bestia ondu» (Mañariko, Euzk 7122, 1935-10-23). «Euzko-erri jakintza» (Euzk 7213, 1936-2-6).
- Bustintza, Paulin. Kirikiñoren anaia, *Euzkadin* idazlea, Almansazko erretorea. Ik. haren hilberria: «Bustintza'tar Paulin» (G.B.), Egunkua, Eu. 5680, 1931-2-22). Ezezaguna, inongo literatura eta bibliografietan (?) ageri ez dena.
- Dassance, Louis (Uztaritze 1888-1976): «Esneatzaz» (Euzk 6770, 1934-8-20?).
- Eizagirre, Joseba (1881-2-1949): «Eizagirre'tar Joseba jaunaren itzaldija» (Euzk 7463, 1936-11-27; 1. or.; gipuzkeraz).
- Eizmendi Manterola, Iñaki (Errezil 1913-Zarautz 1999). «Basarri». Zarauzko berriak; iritzi-artikuluak, bertsoak. Hitz-lauz: «Igandez. V. Oleriti-Eguna (Euzk 6706, 1934-6-7?). «Zizka-mizka» sail modukoa: Euzk 6779, 1934-9-13; «Alderdi ederra zeukagu!» (Euzk 6805, 1934-9-30).
- Elizalde, Jean (1883-1961). «Haur Prodigoa». Zortzitik Zortzirat sailean Iparraldeko berriak astero edo hamabostean behin gutxienez eman zituen (1931-1935).

- Enbeita Erretereria, Imanol (Manu) (1884-1946) «Uribitarte'tar Ibon», «Garbi-nai», «Enbeita'tar Imanol». *Euzkadi* egunkariko euskal kazetari profesionala, Kirikiñoren bulegoan idazten zuena. Gero, *Egunakoa*. Artibaik, hari buruzko artikulua batean, dio, I. Enbeitak *Bizkaitarran* aстерo idazten duela; «zeure esanak, ain egokijak» direla; gogoz irakurtzen duela Enbeita; guda egiten diotela (Errijetatik: Bilbo «Artibai», Euzk 5686, 1931-3-1). Euzkeltzale-Bazkunakoa (Euzk 5691, 1931-3-7). Olerkiak ere idatzi zituen. *Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian* (Artea, Bizkaia) bada haren olerki-koaderno bat.

Egunekua (1931-1935) eta Gayak (1935-1936) sailak betetzen zituen, egunero (astelehenetan izan ezik). Beste: «Umezurtzak» (Euzk 7107, 1935-10-?). Teatroa: ik. Euzk 7114, 1935-10-13.

- Enbeita Erretereria, Kepa (1878-1942): bertsoak, olerkiak. Euzk 7050, 1935-7-31 azken orrialdea, osoa.
- Erkiaga Alastra, Eusebio (Lekeitio 1912-1993). «Endaitz», «E'tar E». Lekeitioko berriemaile, idazle eta olerkari *Euzkadin*. Idazlan ugari *Euzkadi* eta *Euzkon*.

Euzkadi-n argitaratuak: «Euzkerea, esituta» (Euzk 6572, 1933-12-30); «V. Euzko-Olerti» (Euzk 6708, 1934-6-9?); «Euzkerea, euzkoen elia» (Erkiaga'tar Eusebi'k, Euzk 6700, 1934-5-31); «Ene azken negarrak: Eztalakuan, baidalakuan» (Endaitz, Euzk 6707, 1934-6-8?); «Larrinagako espetxean abertzaleak» (Endaitz, Euzk 6712, 1934-6-13); Euzk 6754, 1934-8-2; «Lekeitio!» (Euzk 6765, 1934-8-15?); «Euzkel-idazliak erdaltzale (¿)» (Endaitz, Euzk 6788, 1934-9-11); «Asarre barik. Etxekua'ri» (Endaitz, Euzk 6782, 1934-9-15. «Agarel zanari» (Euzk 7131, 1935-11-2). Olerkiak: «Ikastolara, mutiko» (Erkiaga'tar Eusebi, Euzk 6942, 1935-3-24); «Neska zuntzuna» (Endaitz, Euzk 6949, 1935-4-2).

- Etxezarraga Artiñano, Bizente (Zeanuri 1890? (N. de Cortazar), 1891 (Onaindia)-1968). «Zidorra». «asiduo colaborador de *Jaungoiko Zale*, *Euzkadi*, *Arratia'ko Deia*» (N. de Cortazar, *Cien autores vascos*, 1966). Ik. Onaindia *Euskal Literatura* IV 104-.
- Gabilondo, Jule. «Maite». Mungiakoa, Beasainen bizi. Emakume Abertzale Batzakoa. Hizlaria ere bai. *Euzkadin* idatzi zuen, gero *Egunan*, kolaboratzaile ordaindua izanik. «(...) escritora euzkerica que ha popularizado en la página de euzkera del periódico *Euzkadi* el pseudónimo de «Maite» señorita Gabilondo, cuyos trabajos se leen con tanta complacencia por todos los abertzales, y aun por muchos que, no siéndolo, gozan con su lectura» (Euzk 7121, 1935-10-22). Hizlari Galdakaon, 1935ean «la señorita G.» «habló en euzk.»; «como oradora nos causó mejor impresión» (Euzk 7127, 1935-10-29). Gerra garaian sarri idatzi zuen. Aurretik ere, *Euskal-Esnalean* (1931).

«Euzkotarra...entzun adi» (Maite, Euzk 7375, 1936-8-15); «Elburubaren indarra» (Maite, Euzk 7386, 1936-8-28). ik. Euzk 7387, 1936-8-29; Euzk 7479, 1936-12-16.

- Garate, Jose Maria. Bilbokoa; Euzko-Gastedijakoa, Lauaxeta bezala; BBBkoa Errepublika garaian hainbat urtetan. Idazlan ugari argitara zituena *Euzkadin*, bai kazetalan, bai olerki eta bertso. Euzko Gudariak-en egilea, ustez eta berak dioenez. Ez bedi nahas Aita J.M. Garate Markinakoarekin, Karmeldar Ordenakoarekin (1874-1948). Onaindiaren arabera 1860an jaioa (??), ik. Jose Maria Garate Gallastegi, *Euskal Literatura* V, 19-20).

Ohitura-idazlanak: «Sasi-koipetsu» (Euzk 6472, 1933-9-5). Ik. Euzk 6475, 1933-9-8; 6498, 1933-10-5; 6530, 1933-11-11; 6559, 1933-12-15). «“Erletxue””ri» (Euzk 6801, 1934-9-26). Olerkiak: Olerki-salla, Euzk 7171, 1935-12-.

- Garmendia Kortadi, Jon (Lasarte 1898-1989) «Zeleta» (gipuzkeraz idaztean), «Jeltzale» (bizkaieraz idaztean), «Gatarjon»?

Politika: «Euzko-Araudia» (Euzk 6511, 1933-10-20); «Bakarrik, danen aurka» (Euzk 6534, 1933-11-16); «Igandeko gurendea» (Jeltzale, Euzk 6544, 1933-11-28); «Atzerri-ziar» (Euzk 6560, 1933-12-16); «Sozialistak» (Euzk 6759, 1934-8-8). Euskara eta abertzaletasuna: «Euzkera’ganako zaletasuna (Irular idazliarentzat)» (Euzk 6675, 1934-5-1); «“Euzkadi””ren artezkari alde» (Jeltzale, Euzk 6803, 1934-9-28; Pantaleón Olano zuzendariari urrezko euzko-idazkortza emateko); «Abertzaletasuna, euzkeraren eraingija» (Euzk 6943, 1935-4-26). «Abertzaletasuna Baztan’en» (Jeltzale, Euzk 7210, 1936-2-2). «Arana-sendiaren edestija» (Jeltzale, Euzk 7250, 1936-3-20). Ik. Euzk 6384, Euzk 6651, 1934-4-3; 6658, 1934-4-11; «Farangortea» (Euzk 7215, 7220, 1936-2-8/14). Ideologia: «Karliten jainkotasun eta euzkotasuna» (Gatarjon, Euzk 6414, 1933-6-29); «Karlatarrak eta fueruak» (Gatarjon, Euzk 6415, 1933-6-30); «Zuzentza, azkatasuna, askaldartasuna» (Gatarjon, Euzk 6443, 1933-8-2).

- Garro Basterretxea, Bernardo Maria (Mundaka 1891–Bilbao 1960). «Otxolua». Ipuin eta kontakizunak; teatroa; zientzia dibulgazioko idazlanak.

Ipuinak: Barbier-en ipuinak: *Ipuin-mipuinak* (Euzk 6403, 1933-6-16), «Eskualdunak Egyptoan» (Euzk 6568, 1933-12-26); «Ixtorio-mixterio» (Euzk 6657, 1934-4-10); «J. Barbier. Lau ipuin Axularretaz» (Euzk 6663, 1934-4-17); id. Euzk 6667, 1934-4-21). «Kauserak, kruxpetak» (Euzk 1935-10-?). Teatroa: *Maluriñe’ren kapoiak*, L. Léon hazpandarraren antzerkilanaren itzulpena «Bizkaiko euzkera errezero» (I, Euzk 6535, 1933-11-17; II; III, Euzk 6540, 1933-11-23); *Saña* (Euzk 6967, 1935-4-24; Euzk 6972, 1935-4-30); *Kurutze ginda dagon lekuan* (itzulp) (Euzk 7008, 1935-6-12).

Ingelesezkotik poeten itzulpenak: W. Blake (Euzk 6436, 1933-7-25), Katherine Tynan-en «Patrike Deuna Auge uxaketan» (Euzk 6441, 1933-7-30, ingelesetik) etab. (Euzk 6521, 1933-11-1). Chesterton-en *Astoa* (Euzk 6563, 1933-12-20); C. Ballack-en itzulpena (Euzk 6569, 1933-12-27); poesia itzulia, ingelesetik (Euzk 6653, 1934-4-5). Ingelesezkotik prosa-irakurgaien itzulpenak: «Abere dontsuak» (Euzk 7212, 1936-2-5).

Pizti-Patariak saila, asteazkenero (1934-1936, adib. Euzk 7382, 1936-8-23). Ik. Euzk 6740, 1934-7-17; Euzk 6747 6774, 6777. «Satorra» (Euzk 7392, 1936-9-4). «Abere dontsuak» (Euzk 1936). Beste gai batzuk: *Euskara*: «Euzkerei buruz» (Euzk 7000, 1935-6-2); «Euzkereiaren arerioak» (Euzk 7021, 1935-6-27). Beste: «Bigarren gaua» (Euzk 7224, 1936-2-19).

– Gorostiaga Etxebarria, Eulogio (1904-1932). «Gizartizti-gayak» (Euzk 1931-5-1).

– Gurtubai, Kepa. «Ilintxa», «Ilitxa». Legazpiko berriemailea (Euzk 7362, 1936-7-31; aipatua da berriemaile edo idazleen zerrendan 1936 bukaran, Euzk 7489, 1936-12-29). «Su-zirik. Etxeruntz begira...» (Ilintxa, Euzk 1936-7-1). Olerkia (Euzk 6524, 1933-11-4). Hizlaria ere bazen?

– «Iramendi» (Lazkaoko berriemailea; olerkaria).

– Insausti Urkirizar, Jesus (1912-1993). «Uzturre». *Euzko Langille* aste-rokoan ere idazten zuen gerra garaian (Euzk 7453, 1936-11-15). Gero, *Egunan* kolaboratzaile ordaindua (1937).

«Lizardi'ri» (Euzk 6485, 1933-9-20). Beste: Euzk 6550, 1933-12-5. «Naskaldia» (Uzturre, Euzk 7407, 1936-9-22).

– Irigarai, Pablo Fermin (1869-1949). «Larreko».

Euzk 5637, 1931-1-3; Euzk 5652, 1931-1-21; Euzk 5654, 1931-1-23, Ori-xeren ohar batekin; Euzk 5660, 1931-1-30 «Orixeri»; Euzk 6300, 1933-2-15. «Orai-aldi ontako nor-ederragoka»z, Euzk 6303, 1933-2-18. Lizardiz, haren heriotzaren ondoren (Euzk 6330, 1933-3-22). Euskara: «Euskaraz ala erdaraz?» (Larreko, Euzk 6675, 1934-5-1; «Eztabaidak xuritzen edo naasten» (Euzk 6704, 1934-6-5). «Saraizuar, euzkalduna, agur» (Larreko, Euzk 6725, 1934-6-). «Euskera garbia» zer da? (Larreko, Euzk 7108, 1935-10-7?, I. En-beitaren oharra). «Pro Euzkera» (Euzk 7250, 1936-3-20). «Nafarroa'tik» (Larreko, Euzk 6782, 1934-9-15); «Itz sakonak» (Larreko, Euzk 6804, 1934-9-29); Errijetatik: Nafarroa'tik (Larreko, Euzk 6784, 1934-9-18). Nafarroa (Larreko, Euzk 7007, 1935-6-11; 7080, 1935-9-4).

– Irigarai Irigarai, Aingeru (Bera 1899–1983). «Irular». «Euzkerea ta abertzaleak», Euzk 6343, 1933-4-6). Larrekoren semea, sendagilea. «Andoni Labayen: Nere adizkide maitea,...» (Euzk 6497, 1933-10-4).

- Ituarte, Jose Maria «Artibai». Ondarroako berriemailea. Sevilla gobernadoreak salatua «Boikota» artikuluatik (Uribitarte'tar I., Egunekua, Euzk 6460, 1933-8-22), hark «Eskerrak zuri, Sevilla», erantzun zion (Euzk 6461, 1933-8-23). «Omena “Arnope”ri» (Euzk 6 (Euzk 7123, 1935-10-24)774-8-25); «La euskerización de Bilbao: Alegiña ta laguntza» (Artibai, Euzk 7010, 1935-6-14). «Antzez kixunak» (Euzk 7123, 1935-10-24); «Guda-otsak» (Artibai, Euzk 7390, 1936-9-2). Bertsok edo olerkiak.
- Jakakortexarena, Txomin (Berastegi 1906-): Euzk 6750, 1934-7-28, Nafarratetik. *Ziri-bertsok* argitara zuen (1935, Donostia).
- Jauregi, Luis (Koldo) (1896-1971). «Jautarkol». «Lizardi'ren *Itz-lauz dela-ta*» (Euzk 6695, 1934-5-25); «Apaizak euskeraren alde» (Euzk 7119, 1935-10-19; *El Día*-tik). Olerkiak: «Maiteño bat ba'nun», Euzk 6466, 1933-8-29; olerkia, Getxon Euskeraren Egunean saritua).
- Jemein Lanbarri, K. (Bilbao 1885-Bilbao 1965). «Jadarka», «Amandarro». *Las bellezas de Aralar* (1933), *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin* (1935), *Historia gráfica del nacionalismo* (Bilbao, 1935). Temas Vascos sailean zenbait lan (1931). Ik. Errijetatik: Mañari (Euzk 5694, 1931-3-11).Ik. Euzk 6546, 1933-11-30, 1. or.; Euzk 5694, 1931-3-11. Ik. ere Temas Vascos sailaz aritzean.
- Labayen Toledo, Antonio Maria (Tolosa 1898-1994). «Aspaldiko», «Ibalan», «Etxekorena», «Matxingorri», «L. Ayanbe». Artikuluak: «Lizardi'tar X.» (Euzk 6504, 1933-10-12); «Jakingarriak» (Matxingorri, Euzk 6699, 1934-5-30; teatroaz); «Antzerti» (Matxingorri, Euzk 6754, 1934-8-2); «Zarautz'ek Lizardi'ri: Umezurtz-olerrkiak» (L. Ayanbe, Euzk 6704, 1934-6-5). (Labaienen antzerkilanen argitalpen edo berriak: *Euskal Eguna* (1931?); *Berbizkundera* (Euzk 6767, 1934-8-17).
- Lafitte Ithurralde, Pierre (1901-1985). «P.L.» (Pierre Lafitte?): «Liburu-berri» (P.L., Euzk 1934-8-11; *Amattoren uztaz*).
- Larrakoetxea Agirrezabala, Alejandro (Hipólito, erlijio izenez) (Zeanuri 1892-1976). «Legoaldi». *Grimm anaien berrogeta hamar ume ipuin* (1929; lehenago, aldizkarietan zatika).
- Larrakoetxea Agirrezabala, Bedita (Zeanuri 1894-1990). Shakespeare-ren itzultzailea. Erlijio gaiak: «Santuen bizitzia: S. Antonio Padeva» (Euzk 6946, 1935-3-29). Ipuinak: «Artzayen maltzurkeriak» (Euzk 6717, 1934-6-20).
- Linazasoro Maiztegi, Karlos (1899-1965). «Altzeta». Zumarragakoa. «Euzkeraren malkoak» (Altzeta, Euzk 7163, 1935-12-10).

- «Lotsati» (olerkaria): Euzk 7110, 1935-10-9; Euzk 7124, 1935-10-25; Euzk 7159, 1935-12-5; Euzk 7165, 1935-12-12; Euzk 7171, 1935-12; Euzk 7236, 1936-3-4; W. Blakeren itzulpenak etab.
- Manterola Urigoitia, Gabirel (Zeanuri 1890-1977): «Mitarga», «Gama», «G» «Urigoitia», «Gabirel». *Jaungoiko-Zale* aldizkarian eta *Ekin* asterokean idatzi zuen. (N. de Cortazarren (N. Alzola Gerediaga) arabera, *Jaungoiko-Zalen* 1931 arte, agerraldi bakoitzean zenbait artikulua, eta halaberean *Ekinen* lau bat artikulua agerraldi bakoitzean (*Cien autores vascos*). *Euzkadin* baino lehenago: *Santuen bizitza laburra* (1922); *Itzaldiak* (1922); Schmid-en *Iputintxoak* (Amorebieta 1929).
- Katoliko bizitza* (Euzk 1931-6-7). Ik. ere Euzk 6742, 1934-7-18?
- Markiegi Olazabal, Peli (1905-1946). «Lizardiren omenez» (Euzk 6325, 1933-3-16).
- Moulier, Jean (1888-1958). «Oxobi»: «Eskualdunaren lerruak» (Euzk 6555, 1933-12-10; abertzaleen garaipenaz).
- Mujika Egaña, Errobustiana (Deba 1888-1981). «Tene». *Miren Itziar'i Idazkiak eta Olerkiak* liburua (Zornotza, 1923). «Gizasemeen lagunak» (Euzk 5757, 1931-5-27), «Gazigozoak» (Euzk 6365, 1933-5-3); «Itziar'ko gure eguna» (Euzk 7118, 1935-10-18)..
- Muniategi Astoreka, Sabin (1912-). *Goiz-aize* olerki liburua argitaratu zuen (1935-1936 (J. Bilbao), Lauaxetaren hitzaurrearekin. *Euzkadin*: Prosaz: «Garcia Lorca olerkaria» (Muniategi'tar Sabin, Euzk 7408, 1936-9-23?; Garcia Lorcaren «Egia da» eta «Zaldikariarena» olerkien itzulpena. «Lauaxeta gure gaur-eguneko gorengo olerkariak be, dakidanez iru-lau olerkitxu euzkeratu dauz, Garcia Lorca aundiarenak.». Olerkiak: Euzk 7387, 1936-8-29; «Narkis» (Euzk 7446, 1936-11-7; Lauaxetaren irudi eginez). Kanpoko poeten itzulpenak: Altolaguirrerena, Euzk 7388, 1936-8-30; Andre Adyrena, Euzk 7390, 1936-9-2; Garcia Lorcarenak, haren erailketa kari, Euzk 7408, hor esaten da Lauaxetak ere itzuli zituela Garcia Lorcaren batzuk: «Lauaxeta gure gaur-eguneko gorengo olerkariak be, dakidanez, iru-lau olerki euzkeratu dauz» (Oharra: ik. *Karmel* 250, 2005-2, apiril-ekain, J.U «F. Garcia Lorcaren hiru olerki, Lauaxetak euskeratuak», 82-87).
- Ormaetxea Pellejero, Nikolas (1888-1961). «Orixe». Kazetalanak euskaraz eta erdaraz. «El nuevo testamento en euskera» (Euzk 1931-6-23, 1. or.). «*El Díako* Urliari naiz Sandiari» (Euzk 6657, 1934-4-10). Olerkiak.
- Otamendi: Loramendiz, Euzk 6658, 1934-4-11.

- Peña, Josu. «Aitza». Eraila. «Euzko-Araudia» (Euzk 6522, 1933-11-2). Beste: ik. Euzk 6542, 1933-11-25.
- Renteria Leniz, Gorgonio «Perularra». Euzk 6742, 1934-7-18?; «La euskerización de Bilbao. Iturrira» (Perularra, Euzk 7004, 1935-6-7). (Elantxobe 1868-Baiona 1940).
- Ruiz de Azua, Andoni. «Ogoñope». Elantxobetar idazle eta esataria. Akordako berri-emailea eta euskal idazlea *Euzkadin*. Gerra garaian *Egunan* proba zuzentzaile eta gero *Euzkadi* egunkarian Bartzelonan (1938) euskarazko erredaktore izan zen. Irrati elestaria, bai Bilbon, eta bai gero Bartzelonan (ik. J. Agirre eta A. Iralari gutunak, bere zerbitzuengatik indemnizazio eske, Euskal Abertzaletasunaren Artxiboan, Artea, Bizkaia). *Ekinen* ere idatzi zuen. Ipuñak eta izkirimirajak argitara zuen (Bilbao, 1936).

Artikuluak: Euzk 6742, 1934-7-18?; Euzk 6756, 1934-8-4; Euzk 6761, 1934-8-10; Euzk 6769, 1934-8-19?; «Omena ta batzarra» (Euzk 6781, 1934-9-2); «Euzkel-orrijari begira», Euzk 6956, 1935-4-10; «Bidegarro ta zozua» (Ogoñope, Euzk 7129, 1935-10-31; natur-zientzia gaiak); «Entzun ba! Entzun!» (Ogoñope, Euzk 7349, 1936-7-16; Euzko-Idazti-Aldez egitasmoaz). «Bakotxari beria» (Ogoñope, Euzk 7374, 1936-8-14; Euzkadi-ko euskal idazleen egoera gerra hasieran). «Emakume joereak eta Euzko-Emakumiak».

- Sagarzazu, Klaudio (Hondarribia 1895–1971). «Satarka». *Txinpartak* olerki liburua (Donostia: 1922); olerkiak: Olerki-salla, Euzk 7165, 1935-12-12; «Arrantzale gaxua» (Olerki-salla, Euzk 7171, 1935-12-); «Maitasun-garra» (Satarka, Euzk 7355, 1936-7-23).
- Saint-Pierre, Jean (1884-1951). «Anxuberro». Ik. Euzk 5735, 1931-4-29; Euzk 5745, 1931-5-13.
- Soubelet, Domingo (1897-1970) (D.S). «Urthe Muga» (Euzk 1936-3-6).
- Tapia-Perurena, Alexander (1899-1957). «Iruña'tar Alexander». «Sagar loretsuak» (Euzk 6404, 1933-6-17).
- Uriarte Odriozola, Martin (1879-1960). «Martiaritu», «Barazar», «M.U.», «A. Martin». «Baserri gaiak». (ik. Onaindia *Euskal Literatura* IV 43-).
- Urkiaga Basaraz, Esteban (1905-1937). «Lauaxeta». Artikulu eta idazlan ugari idatzi zituen *Euzkadi* eta bestetan. Hemen antzerkikanak bai zik ez ditugu zerrendatuko: *Asarre-aldija* (Euzk 1931-5-29/30/31; *Epa-ya* (Euzk 1932-2-25/26); *Balbia* (Euzk 1932-12-15/23); *Iru gudari* (Euzk 1933-1-26, 1933-2-15).
- Yurre, Julen (Igorre 1898-1988), A. O. M. «Txinarren biziera» I) (Euzk 6437, 1933-7-26).

- Zaitegi Plazaola, Jokin (1906-1979). «Udalaiizpe». «Victor Hugo» (Euzk 6511, 1933-10-20); «Horatius ene begietan» (Euzk 6528, 1933-11-9); Euzk 6529, 1933-11-10.
- Zabala-Arana, Jose (1894-1936). «Nabarritzarra», «Otzategitxu'tar Jon»? («(...) Zugasti (Altza), ta Ixilik, Otzategitxu'tar Jon (Santander)», Euzk 6444, 1933-8-3). Umeentzako eskuliburuak (*Josutxu, Zenbakizti-ja*, ik. AB 191 etab.), «Hamaika gabetako ipuñak»-en itzulpena (Euzk 7373, 1936-8-13).
- Zatarain, Ambrosio (1881-1966). «Itaun-erantzunak» (Euzk 6949, 1935-4-2).
- Ziarso Gironella, Manuel (Bilbao 1902-1987). «Abeletxe». *Euzko as-terokoaren* (1932-1934) artezkari eta idazle (Astekua saila, Euzk 6447, 1933-8-6). *Euzkon* atera zuen bere Gazi-Gezak saila. 1937an zenbait artikulua argitaratu zituen *Euzkadin* lehen orrian. Gerra ostean *Euzko-Deyan* idazten du; 1946an Venezuelan da. «Gazi-gezak» (Euzk 6730, 1934-7-5?; Euzk 6755, 1934-8-3; Euzk 7114, 1935-10-13). Artikuluak: «Ixil-une ostian» (Euzk 6940, 1935-3-22); «Urte-barri» (Abeletxe, Euzk 7492, 1937-1-1; 1. or.); «Onian ezin ba da...» (Abeletxe, Euzk 7492, 1937-1-2; 1. or.).
- Zubikarai Bedaialauneta, Augustin (Ondarroa 1914-2004). «Arteta», «Augustin». 1935ean Omenaldia egin zioten («Arteta = zutik», Euzk 7141, 1935-11-14), Euzk 7160, 1935-12-6?).

Artikulu ugari idatzi zituen: «Elburuarren» (Euzk 6759, 1934-8-8); «Euzkel gaiz. Idazki idegija. Endaitz'eri» (Arteta, Euzk 6781, 1934-9-14; «Endaitz» eta «Etxekua»-ren arteko 1934ko polemikan «Endaitz»-en alde ateratzen da). «Euzkera-osasun alde. Etxekua'ri» (Euzk 6784, 1934-9-18). «Gudarik ez!» (Arteta, Euzk 6957, 1935-4-11). «Oldozpenak» (Euzk 7119, 1935-10-19). «J.O.C.» (Arteta, Euzk 7129, 1935-10-31). «Agarel» (Euzk 7137, 1935-11-4). 1936 martxoan erdiko artikulua idazten du (Euzk 7245, 1936-3-15), «Euzko-demokrazia» (Arteta, 1936-3-31).

Antzerkiak: *Aberrijagaz bizi* (I, Euzk 6771, 1934-8-22; II, Euzk 6772, 1934-8-23; III, Euzk 6773, 1934-8-24?); *Illobearren indarra. Ekintza bateko antzezkiñua* (Arteta, Euzk 6795/6/7, 1934-9-19/20/21.); *Itxas-lapurrak* (Arteta, Euzk 7375/7382, 1936-8-15/23).

- Zubiri Gortadi, Enrike (1867-1948). «Manezaundi». «Iruñeko itzulia. Benabarre'ko eskuaraz» (Euzk 7003, 1935-6-6).

* * *

Beste ezizendun batzuk. Ondoko hauek nor diren ez dakigu:

«Abaraska». Orioko berriemaile eta iritzi-artikulu egilea.

«Arriola». «Euzkera esituta» (Euzk 6569, 1933-12-27). Zubikarai?

«Aga». «Oldoztuten» (Euzk 6528, 1933-11-9; sabindar eskolako adizkiak darabiltza («egin ixan biar baleugu eleuguzan irabaziko»).

«Age». «Etxe zorijontsuba» (Euzk 6787, 1934-9-9; ipuina); Balendin Aurre Apraiz dateke (Axangiz 1912-1966, «Agerre'ko Balendin», «Agerrekoa», «Aurraitz», «Mendi-Bide»).

«Aiko Zera». «Aurretik guaz baserritarrak» (Euzk 1934-9-11). Lauaxeta bera ote? Garai horretan gai politikoei buruzkorik ez du izenpetzen, bai agian idazten. *Aiko zera!* Lauaxeta sortu zen herri inguruko adierazpide bat da.

«Basati». «E'nazazula berotu» (Basati, Euzk 7117, 1935-10-17); «E'naiz berotu» (Euzk 7127, 1935-10-29); «Batasuna edo esperantua?» (Euzk 7129, 1935-10-31). Agirre «Barrenso» ote? Ik. «Latsur».

«Belostikalekoa». Euzko-Idazti-Aldez kanpainan: «Entzun...? Bai zera!» (Belostikalekoa, Euzk 7345, 1936-7-11).

«Entzule». Euzk 6785, 1934-9-7 «Jakingarriak» saila (berriak, «Jakingarrienak» sailekoak baino luzetxoagoak, teatroaz etab. Agerraldi horretan beste atal bat dago, «Matxingorri»k (A.M. Labaien) izenpetua, eta gero beste batzuk, izenpetu gabe. «Entzule» eta «Matxingorri» egile bera, hots, Labaien? «Entzule» Lauaxeta da? Besteren bat?

«Etxekua». Endaitz eta Artetaren kontra, euskal joskerako hutsak direla-eta (Euzk 6779, 1934-9-13). «Samintasunaren gomutarriak» (Euzk 6544, 1933-11-28; «Tierra Vasca begiko ta anaikorra arretaz irakurten dogu burutik oñatzetara». L. bera ote?). «Nora guaz? Euzkel-idazlien alde» (Etxekua, Euzk 6779, 1934-9-13); «Euzkel idazlien alde» (Etxekua, Euzk 6782, 1934-9-15; «Euzkel-Idazlien alde» (Etxekua, Eu 6804, 1934-9-29; herrietako berriemai-leen alde; zerbait egin nahi du).

«Euskeltzale» (Euzkeltzale?): «Asi ezker, gauzak zuzen!» (Euzk 6654, 1934-4-6).

«Ibai-Gane». Foruko berriemailea eta idazlea; emakumea? Jagi-jagikoa, dirudienez 1934ko zatiketaz geroztik ere (?) baina *Euzkadin* idazten jarraitzen duena.

Gizarte- eta baserri-gaiak (horietako asko euzkel ataletik kanpo, beste orrialderen batean argitaratuak). «Lugiñak eta Alkartasuna» (Euzk 6948, 1935-3-31); «Basetxe-etxaguntzea» (Ibai-Gane', Euzk 7012 1935-6-16); «Gixateke-rija ta lugintzea» (Ibai-Gane, Euzk 7018 1935-6-23); «Lugintzea ta Laguntza-tasuna» (Euzk 7024, 1936-6-30); «Lugintza-Laguntzea» (Euzk 6954, 1935-4-7). Idazleak eta euskara: «Idazle-Batzarra» (Euzk 6798, 1934-9-22; vs Arteta); «Euzkera-aldez» (Euzk 6805, 1934-9-30). Beste: Euzk 7156, 1935-12-2?; «Eldu-gara» (Euzk 7174, 1935-12-22).

«Ikasle». Arrasateko berriemailea (Euzk 7004, 1935-6-7; Lauaxetaren la-gun arrasatearra ote?

«Ikusle». «Durangoko antzerki-jaya» (Ikusle, Euzk 6945, 1935-3-28).

«Imitxa», «Ziri-miri» sailaren idazlea, adib. Euzk 6662, 1934-4-15. Euzk 6669, 1934-4-24; Euzk 6674, 1934-4-29. A. Zubikarai ote? *Aberrin* ere (Jagi-Jagiren zatiketa ondoren) idazten du «Imitxa» horrek (1934 abuztu bukaeran, Euzk 6779, 1934-9-1; Euzk 6782, 1934-9-15).

«Kaialde»: «Erri-izkerari buruz» (Euzk 7115, 1935-10-13).

«Kutuntxu». Erdaraz idazten du, 1. or., euskal kultura/literaturako gaiez. Lauaxeta ezagutzen bide zuen. «Renacimiento euzkérico» (Euzk 7110, 1935-10-9): «Lauaxeta, el poeta de la imaginación exuberante, que ha pretendido felizmente elevar al euzkera a los derroteros por los que discurren los literatos modernos creando su «Arrats-beran», encantador librito de ingeniosas letrillas que agradan por su ligereza y sencillez; (...)» (ibid.). «Teatro euzkel-dun» (Euzk 7121, 1935-10-22, 1. or.). «Teatro euzkeriko» (Euzk 7164, 1935-12-11, 1. or?).

«Larrabide». Euzk 5645, 1931-1-13; Euzk 5672, 1931-2-13, ikasleez; Euzk 5678, 1931-2-20 «Gure idazleak»: Orixez etab.

«Latsur». «Ez berotu, otoi...» (Latsur, Euzk 7121, 1935-10-22; Barren-sorori erantzuna). «Ez zakit, arren, berotu...» (Euzk 7124, 1935-10-25). Ik. «Basati».

«Latsur» hori Debako Markiegitarren bat ote? Feli edo Peli Markiegi olerkari eta antzerki idazlea? Ik. «Poeta ahaztua gogoan. Peli Markiegi omen-duko dute Deban, haren antzezlanekin eta liburu batekin», *Berria* 05-9-23, 45. or.; *Latsurregitarrak* liburuaren iragarpena. F. Markiegik *Seme ondatzailea* argitaratu zuen (Antzerti, 1936, 1935ean saritua ap Labayen *Teatro Euskaro* II 173; J. Markiegi ere antzerki idazlea zen: P. Humpert-en *Todes Heg* itzuli zuen: *Eriotz-bide* (Antzerti 1935), baita H. Gehon-en *La farce du Pont du Diable*, *Txerren zubiko gertaria* (Yakintza 1934), ap Labayen ibid. Ik. erreseina Lauaxetaren kultura- eta liburu-erreseinetan).

«Malko». «Bakar-izketa itxuraz» (Euzk 7175, 1935-12-24).

«Mikelats». «Jolasak» (Mikelats, Euzk 7226, 1936-2-21); «Balizko oleak burdiñik ez» (Mikelats, Euzk 7233, 1936-2-29); «Udalak» (Euzk 7230, 1936-2-26). «Mari'ren semeak» (Euzk 7250, 1936-3-20). *Ekinen* ere idazten omen zuen.

«Ni». Euzk 7170, 1935-12.

«Norbait». «Ezagutu zazu Euzkadi» (Norbait' (III), Euzk 6970, 1935-4-27).

«Okertzale». «Janduba ala malluskauba?» (Okertzale, Euzk 7119, 1935-10-19).

«Ormaetxe». «Baserritar bikaña» «Ormaetxe» (Euzk 6766, 1934-8-16).

«Urtzago». Paristik idazten duen idazlea («Euzkeldunak Paris'en», Euzk 6556, 1933-12-12); ik. ere Euzk 7126, 1935-10-27.

«Urtzaga». «Euzkera, jalgi adi dantzara» (Urtzaga, Euzk 6958, 1935-4-12).

«Zaizuri» (F. Irigarai?, A. Irigarai?). «Aberearen arima ezta gogozkoa» (Euzk 6434, 1933-7-22)

Gehigarriak

1. Hona 1933ko uztailaren 30ean «Aberri» herri-berriemailearen omenaldira joandakoen izenak:

«Beste lan batzuk arazopetuta ibili nintzan onek, enebazan orok artu, baña tira geyenak emen ixango dira.

Aiztuta geratzen danak, azketsi begist: Mendi Lauta, Otxolua, Aberri, Ikur, Atarrene, Altzeta, Otarra, Anastaxio, Atxuri, Zonzezke, Zebain, Aingeru, Goi-kolako, Izparkari, A-Bi, M.'dar G., Leb'tarra, Andoni, Biriatu, Aloña, Basarri, Txaranbel, Euskal-irratsaioko pianista, Muru mendi, Alberdi, Ixaka, Miren'en alaba bat, Mokoroa, Mujika, Itziartxo, Lizarregi, Ayanbe, Arantza, Maitxo, Intza, Zorrospé, Txori Erreka, Intxirri, Jo ta ausi, Txirri, Aritzeta, Uzturre, Larraitx, Zimitz, Ylande, Arantxa, Armoya, Arkaitz arte, Txiki alai, Dris dras, Zaiaitza, Goxo-goxo, Lakatza, Kaiku, Aixerixa, Gotrole, Litargi, Udala mendi, Larreategi, Azpitarte, Garate, Kardantxillo, Errotari, Gogorra, Egi alde, Belaustegigoitia, Barrenso, Artibai, Abertzale, Oraitx, Agarel, Abeletxe, Basatxori bat, Jexuxa, Ira, Basanaitz, J. Elgea, Mañari'ko, Tene, Burni bide, Xapi, Murugain, Endoya, Burni bide, Gurutz ondo, Arno-mendi, Andoni ta Lauaxeta.

Urrun ziranak be alkartu ziran urrutidatzi bidez. Soñez etziran aragiño eldu baña bijotzez bai. «Luzear»en itzari gagoz: Ogeta amazortzi urrutidatz etorri ei-ziran. Nunguak ziran emen dogu:

Ernaiu (Etxarri Larraun), Arresigor, Txadon zaya (Astigarraga), Lekonde (Urkaregi), Zudupe, Atxondo, Maitane (Azkoitia), Murumendi (Isasondo), Jaber Zarra, Apala (San Lorenzo), Talo ta Iziartxo (Errezil, Arrugain (Espino-sa), Amagoya, Urretabarren (Tabira), Irular, Larreko (Iruña) Urreta (Lasarte), Miren Karmel (Zestua), Eriomendi, Igerra, Iturri-txiki (Azpeiti), Oñazkarra (Andoain), Beristain, Ibirixto, Nikomedes, Ulazia'tar Esteban, Maria, Bene, Fide ta Arantxa, Arrasate (Mutriku), Aitzol (Donostia), Lete (Soraluze), Zeleta (Logroño), Agirretxe (Orío), Belu-mendu (Gernika), Maite (Murgia? Mun-gia?), Orixe (Orexa), Arripe, Arri Gotzon (Urretxu), Mendi xuri (Orreaga),

Elordi (Arua), Luistar Itxasgain (Cadiz), Zugasti (Altza), ta Ixilik, Oztategi-txu'tar Jon (Santander)» (Lauaxeta, Euzk 6444, 1933-8-3, «Aberri»'ren omenari buruz).

Hona 1933-10-1ean Euzkel-Idazle-Batza-ren bilerara, Elgoibarrera joan-dakoen izenak. «¿Nortzuk batu gintzan, Ara batzuren abixenak edo bestien ixen-gordiak: *Amilgain*, Labayen, Errazti, Barrena, *Barrenso*, *Abeletxe*, *Aberri*, *Agarel*, *Amonatxo*, *Anaxtaxio*, *Andoni*, *Arnope*, *Artibai*, *Basanaitz*, *Belantz*, *Dris-Dras*, *Elgea*, *Ete*, *Gabe*, *Goiburu*, *Igerraitz*, *Ira*, *Iraurgitarra*, *Iturri-Txiki*, *Ixaka*, *Jexuxa*, *Kaiku*, *Keixeta*, *Luzear*, *Leizabe*, *Litargi*, *Lizarregi*, *Maitxo*, *Mirentxu*, *Murugain*, *Oraitz*, *Txalintxo*, *Urrategi*, *Urre*, *Zaloña*, *Zarraspe*, *Kirol* eta *Lauaxeta*.

Barrena jaunak ederki eruan eban batzarreko eztabaida otsa. ¡Arek dauko txistu berezija danari dantzarazteko! Urrutidazkiz geurekin ixan ziran: *Aretxabaleta*'ko, *Aitza* eta *Alberdi*; *Donostia*'ko, *Goikoleako txoria*; *Alegria*'ko, *Zapel* eta *Larrainzar*; *Berastei*'ko, *Mendizabal*; *Deba*'ko, *Tene*; *Orio*'ko, *Abarraska*; *Beasain*'en daguan mungittar idazle argia, *Maite*; *Zarautz*'ko, *Basarri* eta *Olabeaga*; *Arrasate*'ko *Peli*; *Irura*'ko, *Onintza*; *Lasarte*'ko, *Taldantzur* eta *A-Bi*; *Tolosa*'ko, *Arantza*, *Antzerti*, *Yolanda*, *Zimitz* eta *Uzturre*; *Goyaz*'ko, *Armoya*.

Onein arteko batek esan euskun; Gogoz or eta Butrongoan nago. Geure ustez gogoz batzarran eta sabelez Butronguan ixango zan. / Batzar eder onetan maipuru egon ziran: *Barrena*'tar *Polikarpa*, *Labayen*'dar *Andoni*, *Luzear*, *Ira*, *Zinkunegi* eta *Lauaxeta*» («Euzkel-Idazle-Batzarra, Euzk 6497, 1933-10-4)

2. Hona, gerratearen erdian, 1936ko berriemaile edo idazle batzuen izen eta ezizenak: «Mai ganian pillatu yakuzan idaz-lanak ara zeintzubenak diran: *Urkidi*, *Aixerixa*, *Biritxiñaga*, *Andoni*, *Kaiku*, *Ixaka*, *Bake-nai*, *Ilintxa*, (*Gurtubaitar Kepa*), *Iturriaga*'tar *Pantzeska*, *Mañariko*, *Mendigain*, *Montxor*, *Kerexeta*'tar *J.L.M.*, *Aiz-Zorrotz*, *Aitza*, *Agureak*, *Goxabaran*, *Otarmi* ta *Eguzki*'renak. («Idazliei uarra» Euzk 7489, 1936-12-29; izenpetu gabe: «*Uribitarte*'tar *Ibon*»ena?).

JESUITEN PEDAGOGIAREN ERAGINA LAUAXETARENGAN

Paulo Iztueta

Lauaxeta gazteak aurpegi asko ditu, ofizio asko bete izan ditu: poeta izan da, kazetaria, dramaturgoa, itzultzailea, politikaria. Haren ekarriaren alderdi anitza nabarmendu da komunikabideetan bere mendeurrena ospatzen ari garen honetan (1). Era berean, Lauaxetaz asko idatzi da, askok idatzi dute. Bere poesia musikatua izan da, bere bizitza pastoral modura antzeztua, filme bateko protagonista ere bilakatu da; haren poetika eta pentsaeraz doktore-tesiak burutu dira, hainbat euskal literatoren inspirazio-gai izan da. Eta bere mendeurrena iristean, erakunde politikoek zein akademikoek –hauen artean EHUK eta Euskaltzaindiak–, beren ekitaldiak antolatu dituzte, haren ekarria areago eza-gutzeko. Prentsak ere, leku zabala bezain oparoa eskaini dio, agian, beste inorri eman ez zaion bezalakoa.

Lauaxeta, orduan bezala, egun ere goresgarria dela eta egin zaizkion omenaldi-motak oro ondo mereziak dituela zalantzarik ez dut. Arazoa da, niretzat bederen, Lauaxetaz esana edo arakatua izan ez den zerbait berri agertzea ez zaidala batere erraza gertatu; bestalde, hari buruz egin diren balorazio kano-nikoez harago, beste ikuspegirik –berdin osatzailea bada ere–, aurreratzeak ez ohiko ausardia eskatzen baitu, aitortu behar dut deseroso sentitu naizela hitzaldi hau prestatzeko orduan, zenbait unetan bederen bai, nondik jo ezin asmatuz. Bere heriotza gaztearekin bere literatur ekarriaren gailurra jo ote zuen eta horrelako galderak –Lizardiren kasuan ere egin izan diren bezalakook, edo antzekoak–, lekuz kanpokoak iruditzen zaizkit, arrunt antzuak direlako, inora ez garamatzatenak.

Aurrera baino lehen, ohar-pare bat. Lauaxetari buruzkoa bere testuinguru soziohistoriko eta kulturean kokatu ahal izateko, egokia litzateke orokorrean euskal pizkundearen eboluzioa aurrean izatea, batez ere, gerrate aurrekoa, beste hitzaldi batean aztertua dudana. Hara igortzen dut, beraz, entzulea edo irakurlea. Nire aurretik beste batzuk jardunak badira ere, oraindik zer lan-

(1) Hala zekarren Urtzi Urrutikoetxeak: «Esteban Urkiagak poema bilduma garrantzitsu bi, antzerki lan bi, zenbait artikulu, itzulpenak eta poema solte batzuk idatzi zituen» (*Gara*, Muga-lari, 2005-VII-30, 3).

durik edo zer osaturik badela uste dut, batez ere, Lauaxeta idazlearen euskarari eta Lauaxeta abertzalearen pentsaera politikoari buruz eta, oraindik modu bereziago batez, Lauaxeta ikasle jesuita ohiaren pedagogi sustraiaren garrantziaz.

Hona hemen nire hipotesien zerrenda: bat, Lauaxeta laikoaren baitan, haren sakonenean, hezkuntza jesuitikoan ereindako hazia loratzen dela bere betetasun guztian, bereziki prestakuntza literarioan eta ispiritualitatean; bi, Lagundia utzi eta gero, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna elkartzean, pedagogia jesuitikoak eta ideologia sabindarrak gidatzen dutela bere bizitza laikoa, zeinetan garbiki jerarkizaturik baitatuz Jainkoa, aberria eta euskara, baina batasun organiko bat osatuz; hiru, haren poetikaren berritasuna klasizismoaren kontzeptua zabaltzean datzala, autore klasikoen baranoan aro modernokoak ere –bereziki, erromantikoak eta sinbolistak– sartuz; lau, ondorioetara etorrira, gerrate aurreko euskal kulturaren aldeko gizarte-mugimenduen zein ekimen instituzionalen baitan, jesuiten eskola berri eta berezi baten aurrean aurkitzen gara, zeinaren ezaugarria baita euskara, ordurarteko populismotik harago, kultura landuaren esparruan barneratu eta hortik aurrera eramatea (2). Orixe, Zaitegi, Andima eta beste hainbaten ondoan, Langundia oso gazterik utzi zuen Lauaxetako eskola horretan zer leku betetzen duen esatera mugatuko naiz. Beraz, lehen hiru puntuak beste baterako utzita, azkenekoari helduko diot.

1. LAUAXETAREN CURRICULUM LABURRA

1.1. Lehen urteak: Laukizetik Mungiara (1905-1916)

Gurasoak Jose Maria Urkiaga eta Bizenta Bazaras (sic) zituen, jatorriz baserritarrek. Laukizeko «Erriko Taberna» etxean jarri ziren bizitzen eta zazpi seme-alaba izan zituzten, lau mutil eta hiru neska, bera hirugarrena izaki, 1905eko abuztuaren 3an jaioa. Hile bereko 8an bataiatu zuten San Martin parrokian eta sendotzako sakramentua, berriz, 1910eko abenduaren 2an hartu zuen Gasteizko Jose Cadena Eleta gotzainaren eskutik Mungiako parrokian.

(2) Loiolako jesuiten eskolaz batek baino gehiagok eginak ditu galderak. Joseba Intxausti izan lehena horretaz mintzatzen («Zaitegi eta *Euzko-Gogoa*», II, *Jakin*, 12, 1979). Nik ere antzeko zerbait esaten nuen *Orixe eta bere garaia* lanean (1991, 494): «Nire ustez, kalitatez eta norabidez, gerraurrean jesuitena dela eskola izena merezi duen bakarra, bere emaitza umotuenak gerraondokoren eta atzerrian emango dituenak. Eskola hau egituratu eta bideratu J. Zaitegik egiten du; edertu, Orixe». Patxi Altunari (1990, 25) ere arrazoizkoa deritzo galdera horri: «A la luz de lo aquí expuesto no resulta exagerado hablar de una verdadera Escuela literaria de Loyola, como se ha hecho, que si no dio los frutos que de ella se esperaban, fue por razones de todos conocidas. Baste decir que es en torno a ese movimiento loyoleo donde por vez primera un plantel de escritores jóvenes concibe el audaz proyecto de verter a la lengua vasca las grandes obras de la antigua literatura clásica gregorromana».

Herri txikietan gertatu ohi den bezala, orduan 500 biztanle baino ez zituen Laukizen ere bizimodua nekez zela eta, familia Mungiara aldatuko da 1909an, Estebanek lau urte dituela. Gatigatik datorren bidean, garai hartan eraikin askorik ez zen toki ireki batean, jarri ziren bizitzen, jatorrizko izena zein zuen ziurtasunez ez dakigun etxe batean. Antza, Lauaxeta toponimoa, Esteban idazleak bere buruari ezartzen dion ezizena da, etxe hura lau haizetara irekia zegoela aditzera ematen zuena. Ziurrago dakiguna da garai hartan taberna zela, egun kafetegi eta hotel bihurtua (3).

Bere hiru anaiak merkatariak zirela dio (*negotiatores*, alegia), baina horrik ezin da jakin zein iharduera zehatzetan ziharduten. Arrebak artean ezkongeak zirela esatera mugatzen da.

Umetan Mungiako «Ventades» izeneko fraileen eskolara joan zen, eta hor egin zituen lehen ikasketak (4), emaitza ezin hobeak lortuz: lau «bikain» (*meritisimus*) Geografian, Espainiako Historian eta Historia orokorrean, eta Gaztelazko Gramatikan. Eskolaz kanpo, 12 urtetik aurrera eta hiru urtez, Oinarrizko Mailako Gramatika –Latina, alegia–, ikasi zuen herriko Florentzio Galartza apaizarekin, ikasgai honetan (ere ia antzeko kalifikazioekin: «bikain» bat eta bi «oso ongi» (*benemeritus*). Buru argia zelako edo/eta abadetzarako gogoia sentitu zuelako, 1920ko udazkenean Durangoko jesuiten ikastetxean sartu zen, 15 urterekin, Lekeition bizi eta aitaren anaia zen Frantzisko osabaren aholkuz (5). Nolanahi ere, hasierako bere bokazioari buruz ezer gutxi zehazten du bere txostenean, aditzaren forma pasibo hau baino ez baitator: «Deinde ad Durangense seminarium misus sum in cuius scholis ut internus humanitates per annum didici». Zuzen ez dakigu, bada, bokazioa noiz sortu zitzaion, Durangoko egonaldian, ala lehenago.

1.2. Durangoko Ikastetxe Apostolikoan (1920-1921)

Hasieran, Tuterakoaren antzera, Durangoko honi ere «Ikastetxea» deitu zitzaion, soilki horrela 1880an, berariaz kanpoko ikasleei zuzendua zegoena; gerora, ordea, «Ikastetxe Apostoliko» gisa ere funtzionatuko du, «bokazio erlijiosoetarako mintegi» izateko xede espezifikoarekin, Xabierkoaren antzera. Horregatik dio Lauaxetak «ut internus», barneko ikasle bezala, alegia, egon

(3) «La fecha de traslado no está fijada, pero Jon Kortazar, autor de la primera tesis doctoral sobre el poeta –publicada con el título de *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*– y autor también de la única biografía del mismo publicada en castellano –*Lauaxeta, biografía política*– apunta que pudo ser en 1909. Es el mismo autor quien escribe que el seudónimo de Lauaxeta –a los cuatro vientos– procede de la ubicación peculiar de la casa a la que se trasladaron a vivir en Mungía. Aunque en principio ése no era el nombre original de la casa, le fue propuesto como seudónimo cuando comenzó a publicar» (Edorta Jiménez, 2005, 20).

(4) Kortazar, Jon, 1995, 3.

(5) Mallona Legarreta, Agurtzane, 1991, 10.

zela Durangoko ikastetxean, bere garaian kanpokoak eta barrukoak zeudela-ko, hain zuzen. Barnetegi-egoeran zeudenak Gauonetako eta udako oporretan bakarrik joaten ziren etxera. Ikasketa orokorrak egiten zituzten, humanitatekoak zein zientzietakoak –batxilergoaren antzekoak–, baina apaizgintzarako zuzenduta zeudenak. Lauaxetak Humanitateko azken urtea, 1920-1921 ikasturteari zegokiona, Durangoko ikastetxean burutu zuen, honela, 1923ko «Catalogus Primus»en datorren bezala (6), lau urteko zikloa bukatuz: «Per quatuor annos Humanitates didicit». Azken esaldi honek nahasketarako bide eman dezake, lau urte horiek Durangon egin izan zituela iradokitzen bezala baita hor. Agian hala uste izanda, 11 urterekin joan zela idatzi dutenak ere izan dira (7), 1916-1917 ikasturtean, alegia, baina oker, Durangon ikasturte bakarra egin baitzuen, 1927ko Katalogoan eta «Nota handiak» izenez ezagutzen den agirian esplizituki datorren bezala, non esaten baita «ut internus humanitates per annum didici». Beraz, Loiolan Lagundian sartu aurretik Latina ikasten lau urte emanda etorri zela esatean, ulertu behar da horietatik hiru Mungian egin zituela hango apaizarekin, eta bat Durangoko ikastetxean.

Ikastetxe honetan ere nota disdiratsuak atera zituen: Grezierazko gramatika «oso ongi», Espainiako literaturan «bikain» eta Erretorikan «oso ongi» eta «bikain» bat. Lauaxetaren curriculumean ikasgai horiek bakarrik agertzen badira ere, litekeena da ikastetxe hartan beste batzuk ere landu izana, hala nola Historia Sakratua, Historia Unibertsala, Geografia eta Latina. Azken hauek ez agertzearen arrazoiak izan bide daiteke, horien oinarritzko ezagutzak Mungian jasota etorria zenez, besterik gabe gaindidutzat eman zizkiotela. Txostenaren testuingurua ikusita, hala dirudi, taula berean baitatoz Mungiako zein Durangoko emaitzak. Lehengo eta oraingo emaitza hauek aurrean izanda, ez da harritzekoa «Nota handiak» izeneko agirian bere buruaz esatea ikasketarako gaitua zegoela, gaiak ulertu eta oroimenean gordetzeko erraztasuna zuela, ikasten jarduteko berezko joera zekarrela.

Gotzon Garatek (2003, 5) esana da Lauaxetaren Durangoko egonaldiaz gutxi idatzi izan dela, eta hala da. Bada, halere, Lauaxetak 1932an idatzitako artikulua hunkigarri bat, zeinetan, elkarrizketa-modura atondutako pasarte honetan, bere ikasle-garai hartan Kirikiñorekin Mañarin izandako hartuemanaren

(6) «Catalogus Primus» izena daraman Gaztelako Probintziako inskripzio-kuadernoan urtez urte emanak datoz beren ikasketak Jesusen Lagundian eginak dituzten ikasle guztiei buruzko zenbait xehetasun, dena latinez, ataletan honela banatuta: 1) izen-abizenak, 2) «patria», 3) adina, 4) osasuna, 5) Lagundian egindako denbora, 6) ikasketa-denbora, 7) izandako karguak, 8) lortutako graduak Lagundian sartu aurretik. Latinezko «patria» izen generiko horren barruan, nazioa, sorterrria, elizbarrutia eta probintzia bereizten dira. Bistan da, nazioa izan, Espainia datorrela ezarria.

(7) Ez dakigu zein iturritan oinarrituta baina, hala dakar Estornes Lasak. Geroztik berdin Agurtzane Mallonak (1991, 10) ere, «1916an Durangoko jesuiten komentuan» sartu zela dihonean. Akats bera errepikatzen du Edorta Jimenezek (2005, 20): «Su infancia la pasó ahí y a los 11 años de edad, es decir, en el curso 1916-1917, cuando Europa se desgarraba en la hasta entonces mayor guerra de su historia, Esteban Urkiaga Basaraz ingresó en el colegio de Jesuitas de Durango. Dicen que fue tan intensa la impresión que recibió allí, que pensó en ingresar en la orden».

berri ematen baitu, gero harrotuko den haren euskara-ezagutzari buruzko eztabaidan argigarri gerta daitekeena: «Manarian iltegi apala datza. Iltegi orren barruban sarri otoi egin dogu, ez Irakaslia iltta gero, artian be bai. Orain urte asko dira. Udabarriko arratsalde eder bat zan. Gurdibillez juan nintzan eta antxe idoro neban Kirikiño. –Nor zattut gastetxu? –Inor ez. Euzkeraz ikasten iñardudan bat. –Polito berba egiten dozu ba? Euzkeldun barri bat zara? –Ez euzkeldun-barri ez. Txikitan euzkerea itz-egña nozu, gero, gero baña aztu yatan. Eta euzkereatzaz itz-egiten jardun geban. Lenengoz eta azkenez ikusi neban gixon maitagarria» (Urkiaga, 1991, 88). Aurrez aurre elkar-ikusi bai, baina *Euzkadi* egunkaria utzi baino bizpahiru egun lehen, berak argitaratu zizkion bere lehendabiziko lanak, idazten jarraitzeko aholkua emanez: «Uartxu bat jarri eustan. Jarrai egixu, idazteko gogoa daukozulako» (Urkiaga, 1991, 89).

Mañariko elkar-ezagutze hori ziurrenik 1921ko udaberrian izanen zen, Loiolara joan baino hilabete batzuk lehenago, eta hor hiru puntu jakingarri hauek ikasten ditugu, hots: euskara amaren bularrekoa zuela, Durangoko ikastaldian atzendua bezala zeukala eta euskararen inguruan jardun zutela hizketan. Garbi dago, bada, Loiolara baino lehen ere bazituela euskara-kezak eta ordurako euskara berreskuratzen hasia zela.

1.3. Loiolan: Nobiziatua eta Junioratua (1921-1926)

Loiolako Egunkarian ez baitator nobiziogaien etorrerari buruzko berririk, ezin da zehaztu data finkorik. Baina ziurrenik 1921eko uztailaren hasiera-aldera agertuko zen Lauaxeta Oñazko bailaran handikiro etzaten den Loiolako etxe dotorerara, Nobiziatua egitera, aita Leza probintzialaren baimenarekin. Hori diogu, zeren nobiziogaiak, nobizio izan aurretik, hamabi egunez (luzatzen zen «Lehen Probantza» deitua gaingitu behar izaten baitzuen. Epealdi horretan «aingeru» deitzen zioten nobizio bat izaten zuen laguntzaile, Nobiziatuko ohi-tura eta arauak irakasten zizkiona. Lauaxetaren kasuan epealdi hori ez zen hainbeste luzatu, uztailaren 23an hasi baitzen eta Nobiziatuan sartzeko azterketa 31n egin baitzuen Durangoko aita Nagusiaren eta Loiolako nobizioen Maisuaren aurrean, une hartan aita Martin Garmendia zena, euskara gartsuki maite zuen tolosarra.

Nobiziogaiek Lagundian sartzeko eskea egiterakoan, guztientzat berberak ziren bi formulario bete behar izaten zituzten, eskuz idatzita eta latinez, «Nota handiak» (eta «Nota txikiak» deitzen zitzaienak. Lehenengoan, luzeenean, nobiziogai bakoitzak beren etxeko familiaren, ikasketen, bokazioaren eta osasunaren berri ematen zuen; bigarrenean, Lagundiaren zerbitzura jartzeko bere hitza ematen zuen. Lauaxetak misioetara joateko gogo berezia agertzen du: «Quoad ministeria indifferenter me habeo quanvis sentio specialem inclinationem ad missiones inter fideles». Lauaxetak 1921eko uztailaren 31n izenpetu zituen agiri biak. Handik lau egunera beteko zituen 16 urte Lauaxeta nobi-

zio gazteak. Sotana hartzean, soldaduzkan bezala, ilea arrasean moztuta utzi ote zuten? Orixeren garaian hala zen usarioa.

Euskararen munduan lagunkide eta ikaskide izango zituen beste nobiziogai batzuek ere urte berean egin zituzten beren botoak: bere aurretik Andima Ibinagabeitiak urtarrilaren 27an; Erraimun Aragartek ekainaren 3an, Luis Sagastunek uztailaren 3an, Jokin Zaitegik berak baino 3 egun lehenago, urtarrilaren 27an, eta Frantzisko Sarobek eta Gilermo Larrañagak bere ondoren, hurrenez hurren, irailaren 2an eta 7an. Humanitateko ikasketak ikastetxe desberdinetan eginda etorri ziren: Ibinagabeitia Tuteratik, han hiru urteko ikasketak eginda; Jokin Zaitegi, Durangotik, Latinitateko urtea eginda; Sagastune, Andoaingo seminariotik, bertan lau urte eginda; Sarobe Xabiertik, bi urte eginda. Eta abar.

Kontuan hartu beharreko puntu garrantzitsua da, beraz, jesuiten curriculum-ean oso argi bereizten direla, batetik, Lagundikoak izan aurretik jesuitagaiek dakartzaten ikasketak eta, bestetik, Lagundikoak izatera pasatzean osatu eta burutu beharrekoak, *Catalogus Primus*-en zehazki mugatua datorren bezala: «Tempus studiorum: Extr. Soc.; In Soc.». Zentzu honetan, azken hauek soilki dira curriculum jesuitikotzat har daitezkeen bakarrak. Eta, Langundikoa izaten hasi, esana daukagunez, Nobiziatuko botoak egin ostean hasten da, ez lehenago.

Lauaxeta Nobiziatuan sartutako 1921-1922 ikasturtean, Loiolako etxea, den handia izanda ere, lepo beteta aurkitzen zen: 29 apaiz jesuita, irakasleak eta apostolu-zerbitzukoak batera hartuta; Junioratuko 24 ikasle, Erretorikako bi ikasturtetakoak eta Humanitatekoak kontatuta; nobizio eskolastikoak –mezarakoak, alegia–, 27 guztira, hauen artean ezagunak zaizkigun hainbeste, hala nola Ibinagabeitia, Sagastune, Zaitegi, Sarobe, Larrañaga eta Urkiaga aipatuak, baita Argarate ere; azkenik, ia beste hainbeste nobizio laguntzaile, edo lego, 24ko kopuruarekin. Guztira, beraz, 104 lagun, 1917ko irailaren 6az geroztik bertako errektorea den aita Inazio Iberoren esanera. Bera izango da ikasketen buru ere, azken kargu honetan aita Inazio Errandoneak ordezkaturiko duen arte 1923ko ikasturtearen hasieran. Errektoradutzan erlebua aita Pedro Bianchik hartuko dio 1924ko ekainaren 21ean, Oñatik etorrira, bertan errektore gisa 6 urte egin ondoren. Agintaritzan egotea zer zen bazekiena zen, Orixe bezalako euskaltzaleak probatzen abila.

Gazte-talde gotorra da bertakoa, biharko intelektualen mintegi esparantzakor izateko ederto ongarrirituta aurkitzen dena, zalantzarik gabe. Ondoko urteetan kopuru hori oraindik areagotuz joango da, Lauaxetaren azken ikasturtean (1925-1926) 130etik gora iristeraino. Orixeren garaian, Erretorikako bi urteak Burgos-ko «La Merced» ikastetxean egiten zituzten, baina Gaztelako probintzien arteko banaketa egitean 1918an, handik aurrera Gaztelako probintziak Loiolara ekarri zuen humanitate-ikasketa horien zikloa. Horregatik aurkitzen ziren nobizioak eta juniorrak egoitza berean, nahiz, arautegiaren arabera, espazio fisikoaren zein antolaketa aldetik elkarrengandik banandurik egon: basilikara begira jarrita, eskuineko hegalean, nobizioak 3. solairuan eta

juniorrak, berriz, 2.ean, bakoitza bere kaperarekin, orain biblioteca bihurtuta daudenak. Batera zuten frontoia, 3. solairuan aurkitzen omen zena. Urtean bos-pasei jai-egun handitan izan ezik ez bide ziren elkartzen.

Lauaxetak, ohi zenari jarraiki, Nobiziatuan bi urte egiten ditu. Lehen urtean denborarik gehiena Lagundiaren espiritualitatea, legeak eta arauak ezagutzen ematen zen: otoitz noiz eta nola egin behar zen, etxe-barruan eta kanpoan nolako portaera izan behar zuten, etab. Ikasketarik ia batere ez. Gehienez, latin pixka bat. Nobiziatuko bigarren urtean, ordea, nobizioei «cicerones» deitzen zaie eta horien egunero bizimodua ere aldatu egiten da. Lauaxetari dagokionez, haren izena Erdi Mailako Gramatika ikasten ari diren 10 lagunenean artean aurkitzen da 1922-1923 ikasturtean, besteak beste, Ibinagabeitia eta Zaitegirekin batera.

Nobiziatua 1923ko uztailaren 31n bukatzen du, San Inazio egunez, eta handik aurrera Junioratuari ekingo dio, zeina urtebeteko Humanitateko eta bi urteko Erretorikako ikasketek osatzen baitute. Hiru urteko ziklo hori, ordea, ez zen erabatekoa izaten, zeren, urte gutxiago edo gehiago egin, ikasleek ikasgai horietan lehendik zekarten ezagutza-mailaren arabera izaten baitzen. Noski, «ongi jantzita zeudenek urte gutxiago egiten zituzten» (Garate, 2003, 4-5).

Goi-Mailako Gramatika eta Humanitateak egiten pasatzen du Lauaxetak 1923-1924 ikasturtea, 19 laguneko talde batean, oraingoan, lehen aipatuez gain, Sagastune, Sarobe, Mujika, Felix Korta eta Iñaki Goenaga ere ikaskide dituela. Erretorikako beste bi ikasturteetan, 1924-1926 bitartekoetan, talde berak jarraitzen du, azkenekoan, hiru ikaskide gehiagorekin.

Lauaxeta, bere garaiko ikaskideek kontatzen dutenez, izaeraz lotsati eta izutia omen zen, dena barruan egosten zuen horietakoa (8). Gauza jakina da, bestalde, somnanbulua izan zela Loiolako egonaldian eta laguntzaile bat jarri ziotela zaintzeko. Lekukoak, ordea, ez datoz bat haren zaindarien izenak ematerakoan: Leon Lopetegik (9) dakarrenez –eta honi jarraitu diote gero Gotzon Garatek (2003, 11) eta–, aita Gotzon Martikorena izan zen, Lauaxeta baino 4 urte zaharragoa, Beteluko mutil indartsua, eta Loiolan Humanitateko eta Erretorikako ikasketak egiten ikasturte bat aurrerago zihoana. Aita Plazido Mujika (1982, 29), egiten dioten elkarrizketa batean, lehen pertsonan mintzatzen da gertakari horri buruz: «Lauaxeta nik adina ez du inork ezagutu. Hemen gauza txar bat zuen Lauaxetak: gauean jeiki ta izketan eta aritzen zen, sonanbulo, ta sonanbulo bezala sermoi ederrak botatzen zituen lotan. Jendea asko ikaritzen zen. Ni ez ninduen beldurtzen ta arekin jarri ninduten, lotarako, bi oeko gelak

(8) Ibid., 11.

(9) Leon Lopategik (1990, 111) dakarren lekukotza da hau: «Hay que tener en cuenta, que el poeta fue algún tiempo sonámbulo, y que por eso tuvo como compañero de cuarto al que luego fue P. Marticorena, del que nos acordaremos después, pues era muy sereno y forzado, por si hiciera falta en alguna ocasión enfrentarse con el sonámbulo».

izaten baikenituen. Ta leenengo gauean pentsatu nuen “ia gaur gauean jeikitzen den” ta aulki bat jarri nuen ekilibrio txarrean, ikuitu txikienarekin erortzen zela, ta iru egunetan jarri eta etzen jeiki. “Joan zaio oitura ori”. Laugarrenean ez nuen jarri ta jeiki egin zen. Bi ohen artean zegoen kortina ra! de golpe ireki zuen ta ni esnatu ta “Urkiaga!”. Baina norbait sonanbulo dagoela kolpetik esnatzea astakeria bat da; il daiteke. Ta pentsatu nuen etxean sonanbulo ibiltzen zenean etziotela apellidoarekin esaten, Esteban esango ziotela, ta “gaizki egin diot” ta geroztik “Esteban!” esaten nion ta esnatzen zen». Plazido Mujika hiztegitilea, Nobiziatuan urtebete geroago sartua izan arren, ondoko urteetan Urkiagaren ikaskidea izan zen eta arrazoi guztiak zeuzkan hura hurbiletik ezagutzeko. Hara hor bi lekukotasun, lehena bigarren batek idatziz utzia, eta bigarrena, zuzeneko lekuko gisa, ahoz emana eta xehetsunez betea. Seguru asko garai desberdinetan izango ziren biak –edo, agian, gehiago ere bai– Lauaxetaren jagole.

Nolahani ere, aipu horiek baino adierazgarriagoa iruditzen zait Lauaxetarak berak adiskide handi zuen aita Lopetegiri kontatu ziona: Espainia osoan (gerrate zibila hasi zela amets egin zuen eta guk ere, euskaldunok, parte hartzen genuela, alegia. Eta ametsa, neurri handi batean, egia bilakatuko da. Lauaxeta 1937ko ekainaren 25ean fusilatuko dute Gasteizko Santa Isabelgo hormaren kontra (Jimenez, 2005, 20-21). Gudaria zelako. Gotzon Martikorenak, berriz, erreketean kaperau bezala frentean galduko du bizia, Legution, bala batek jota. Kasu bietan, kointzidentziaren handia benetan!, aita Alfonso Moreno bilbotarra, Loiola eta Oñan ikaskide izandakoa, gertatuko da, hain zuzen, bien azken orduko lekuko zuzena. Lauaxetaz hauxe utzi zuen idatzia bere egunkarian, gartzelanian, euskaraz ez zekien eta:

Con el mal sabor de boca de la ejecución de Esteban Urkiaga. Sereno y cristianísimo, plenamente sumergido en la apacible dulzura de nuestra Santa Fe. La ha sentido (y gustado a través del Nuevo Testamento, que diariamente rumiaba en la lentitud de las horas de la cárcel, horas grises, sin objeto, eternas... ¡Jesús vida. Jesús, el único! Era lo que repetía. Luego, a las cinco y media, los cuadros de costumbre, (mientras hablaba con mi crucifijo, tiernamente enamorado por lo solemne del momento... ¡Toda la masa encefálica fuera! Le quito las medallas, recojo el Cristo y el rosario con los que ha muerto. «Si he de pecar el día de mañana, prefiero morir ahora». «Muero con Jesús». «Confío plenamente en la Virgen». «Dios... ¡mi padre! (10).

Pasarte honen argitan hobeto ulertuko da, ezin ulertutik gutxi badu ere, hil aurrean egindako «Azken oyua» poema.

1.4. Oñan Filosofia (1926-1928)

Ez dugu daturik Loiolako bailara zabaletik Oñako menditartera noiz joan zen jakiteko. Seguru asko 1926ko uda betean izango zen, Izarraitzeko hare-

(10) Edorta Jimenezek aipatua, 2005, 25.

harriak distiran eta inguruko zelaiak gizen eta arto-soroak gailurretan zeuden. Loiolako eraikin harrilanduzkoaren besoak zabal hedatzen badira Azpeitiko hiribidean, Oñako monastegiaren horma zaharrek are orube handiagoa besarkatzen dute bere barruan. Bertan bizi diren erlijiosoen kopurua ere dezentente garaia da Loiolakoaren aldean 1926-1927 ikasturtean: 28 apaiz jesuita, hemen irakasleak eta gainerakoak sartuz. Irakasleak, berriz, (193 dira guztira, honela banatuta daudenak: 101 teologo, hauetatik 66 «cursus major» edo ikasketa luzekoak egiten ari direnak –lizentziatura lortzera bideratuak, alegia– eta beste 35 «cursus minor» edo laburra egiten dabiltzanak, ibilbide biek 4 urteko iraupena dutelarik; filosofoak 92 dira, zerbait gutxiago, hiru ikasturtekoak batera hartuta; azkenik, esku-lanetarako anaia laguntzaileak, berriz, 40. Guztira, (beraz, 261 erlijioso teilatupe bakarrean. Loiolan halako bi eta gehiago. Urrezko aroa jesuiten intelektualitateak garai hartan bizi zuena! Filosofia-ko lehen ikasturtea hasten duten filosofoak 39 dira, Lauaxetaren talde berean aurkitzen direlarik, orain ere, lehengo euskaltzale lagunak: Felix Korta, Iñaki Goenaga, Ibinagabeitia, Plazido Mujika, Sagastune, Sarobe, eta Zaitegi. Bigarren ikasturtean, Lauaxetak egingo duen azken urtean, bi ikasle gutxiago izango dira.

Oñako ikastetxe honetan, aita Matias Ibinagabeitia zen bertako errektorea orduan. Kargu horren arduradun 1924ko ekainaren 21ean egin zuten eta, aldi berean, probintziako kontseilari ere bazen. Andimaren osaba genuen, bera bezala Elantxoben jaioa 1871ko otsailaren 23an, eta euskaltzalea.

Filosofiako irakasleen taldean, Orixeren garaitik Lauaxetarengana aldatarik eman zen. Honela, 1920-1921 ikasturtean, Orixe Filosofiako lehen urtea egiten hasi zenean, aita irakasle hauen izenak aurkitzen dira Katalogoan ondoko ikasgai hauek erakusten: Jose Aldasorok, Fisika eta Astronomia; Krisanto Ciaranek, Logika eta Metafisika; Emilio Etxagibelek, Matematika; Julian Hormaetxeak, Etika eta Zuzenbide Naturala; Jose Iberok, Kosmologia, Psikologia esperimentalak, Geologia eta Pedagogia; Joan Loinazek, Psikologia razionala eta Filosofiaren historia; Joan Restrepok, Biologia eta Kimika. Zazpi irakasle. Handik zazpi urtera, 1926ko ikasturte-hasieran, ikasgaiak ez dira aldatuko, funtsean lehengoak erakusten baitira, Fisiologia eta Anatomiarena gehituz, baina bai irakasleak. Ikasgai berak ematen dituzten aita Aldasoro, Etxagibel eta Ibero kenduta, beste zazpi (hauek berriak dira: Modesto Armisen, Romualdo Galdos, Jose Antonio Laburu, Jose Antonio Mentxaka, Jose Palacios, Joan Uribe, Isidoro Villar eta Inozentzio Aldanondo. Horrela izendatuta, ikasgai potoloak dira guztiak ere. Hainbeste diziplina desberdinetara zabaltzen den Filosofiaren sail horretan hiru urteren buruan ikasleek egiazki nolako ezagutzak lortzen zituzten jakin ahal izateko, hurbiletik aztertu behar-ko litzateke ikasgai horien edukia zein izan zen, zein, halaber, erabiltzen zuten metodoa. Horretarako, ordea, testu-liburuak edo apunteak behar-ko lirateke eskura, nire hemengo egitekoa ez dena. Gai monografiko batean tesi-lan baterako eman lezake zer zukutua iker-lerro horrek. Nire hipotesia da, garai

hartako testuinguru akademikoa aurrean izanda, ezagutza espekulatiboa esperimentalari nagusitzen zitzaiola, bereziki egun diziplina osoki autonomoak diren zientzia horietan. Kasurik onenean ere, 1960ko hamarkadan Erromako *Gregorianum* edo *Angelicum* unibertsitateetan erakusten zenaren antzekoa, funtsean eskolastikoa. Eskola-hizkuntza, jakina, latina zen, gerora ere luzarotan, 1960ko hamarkada-bukaera arte, erlijiosoen ikastetxe nagusietan halaxe izanez jarraitu zuena.

Jadanik Loiolan literaturarako hainbesteko grina erakutsi zuen Lauaxeta Filosofia ikasteari bakarrik lotu ote zitzaion Oñan? Badirudi ezetz. Han Frantziako poeten irakurle sutsua izan zen eta Francis Jammes eta Baudelairen zenbait olerki ere euskaratu zituen (11). Daniel Gaston lekukoak Gotzon Garateri kontatuta, orduko bere autore maiteak nortzuk ziren ere badakigu, zehazki hauek: Heine, Alfred Musset, Gerra Junqueiro, Goethe, Andreiev, Eichendorff, Homero eta Leopardi. Azken bi hauek eragin handia izan omen zuten Lauaxeta baitan. Honek Lagundia uztean bere gelan aurkitu baitzuten azken horren liburua, Daniel Gascon ikaskideak, antza, bibliotekariaren erretolika entzun behar izan zuen, liburuak elkarri uztea debekatua zegoelako (Garate, 2003, 15-16). Orduko bibliotekari ofiziala izan, aita Romualdo Galdos zen. Oñako egonaldian, poesian ez ezik, ipuingintzan ere aritu zen: *Iru adiskideak* eta *Ipuiña dirudin egia, adibidez* (bere lehen ipuinak, adibidez, 1927an argitaratu zituen aldizkari desberdinetan.

Filosofiako bigarren ikasturtea bukatzean uzten du Oñako ikastetxea, 1928ko uztailaren 9an, berak hala eskaturik, dimisioak izenpetu ondoren. Jesusen Lagundia uztearen arrazoiak? Erabaki hori hartzera zerk eraman zuen batere garbi ez dagoela dioenik baden arren (12), haren barrua hurbiletik ezagutu zutenek aurreratzen dituzte arrasto batzuk. Literaturarako zaletasuna, guztien gainetik, eta Lagundian euskara-kontuan sumatzen zuen epelkeria, bi arrazoi horiek izango dira D. Gascon lekukoak Gotzon Garateri aipatzen dizkionak (13). Ezaguna da azken arrazoi horrek pisu handia izan zuela Andima Ibinagabeitiaren kasuan, Jokin Zaitegirenean ez gutxiago. Lauaxetarenean ere bai? Bestalde, Gotzon Garaterentzat (2003, 18), ez dago batere garbi zergatik ohildua izan zen Orixe, berak dioenez, «arrazoiak gordeak daude(lako) artxiboetan». Lagundiko artxiboak hala egongo dira, baina ez erabat, Patxi Altunak (1991, 43-86) arakatuak baititu gertaera horren inguruan

(11) *Eusko Olerkiak, Poesias Vascas*, Euskaltzaleak, Donostia, 1930, 12-14.

(12) Jimenez, Edorta, 2005, 20-21.

(13) «Lehendabizikorik: “Apaiz izateko baino poeta izateko indar handiago sumatzen zuelako. Lauaxetak aspalditik nabaritzen zuen bere baitan literaturarentzako zaletasuna. Zaletasun hori josulagun izateko zaletasuna baino handiago zela konturatu zen eta utzi egin zuen Jesusen Lagundia. Bi indar horiek noiz eta behin elkarren kontra jardun lezaketela garbi dago. Gracian eta Coloma larri ibili ziren, Jesusen Lagundia utzia ala ez. Frauka-k utzi egin zuen eta beste askok ere egin du bere baitan gogoeta hori, jarraitu ala irten. Bestalde, Lauaxetak etorkizuna beltz ikusten zuen. Jesusen Lagundian ez baitzuen guztira, euskararentzako maitasun handirik hautesmaten. Lauaxetak sufritu egiten omen zuen josulagun askoren artean euskararenganako zabarberia ikusita. Erdal giroan bizi behar» (Garate, 2003,16).

hainbat puntu, eta zehatz, Orixeren mendeurrenekoan Uitzin egindako bere hitzaldian. Bestalde, ni neu ere jarduna naiz luze asko gai honen inguruan *Orixe eta bere garaia* (1991) eta *Orixe gaitzetsia* (2003) lanetan eta puntu gehienak –ilunenak– argituta daudelakoan nago, nahiz eta gertaeren edo erabakien inguruan interpretazio-desberdintasunik egon daitekeen.

Dena den, Lauaxetak Lagundikoen euskaraganako jarrera ahula edota, kasurik negatiboenean, aurkakoa bezala ikusten badu ere, eta hori bada Lagundia uzteko arrazoietako bat, segidan esan behar da, horrelako eta beste edozein oztoporen gainetik, Jesusen Lagundia bere osotasunean defendatzeko gertu agertzen dela. Horrela egingo du II. Errepublikak Jesusen Lagundia Espainiatik ohiltzeko erabakia hartzen duenean, *Euzkadi*-n, «Josulaunak» izenburuarekin, 1931ko urtarrilaren 27an argitaratutako artikuluan: «Euzkotarrak zer ikusirik ez pageunke josulaunetzaz be, geure samiña agertuko geunke, erabaki ori baño okerrik ezin dalako ikusi. Baña euzkuak zer ikusi andijak daukoguz lekaide oneitaz. Loyolatar Iñaki geure endakua ixan zan. Aren ixatia zabaldu dabe beti josulaunak eta geure aberri onen ixena barreyatu dabe» (Urkiaga, 1991, 53-54). Beraz, hau da lehen arrazoia, fundatzailea euskalduna izan zela, alegia. Eta bigarrena, Elizaren alde jokatzeko ausardia agertu dutenak, jesuitak izan direla: «Josulaunak ixan (dira) beti elexaren gudari ausartubenak eta amaikatxu gaste ta zar ziñismenean azi dabez» (Urkiaga, 1991, 54). Euskal Herrian bertan lan gaitza da jesuitek egiten dutena irakaskuntzan bezala gazteen apostoladutzan, gazteriaren hezkuntzan, orrialde bereko pasarte honetan dioen bezala:

Urrun jua biarrik eztaukogu, berton Bilbaon ikusten dogulako zer egin dabe [sic] irakastola nausi bi daukoez, ainbeste gasteri ikastaruak emoteko. Koldobikatarren bazkunean barriz millaka gastiak dagoz. Antxe alkarren arteko itzala ta kistartasuna ikasi dabe gastiak.

Baliozkoak izan ala ez, garai batean uste edo bizi izandakoekin kontraesanean egon ala ez, beude hor aipatuak Lauaxetaren lumatik hartutako bi arrazoi horiek, zeinak baitira jesuiten euskalduntasuna eta erlijioaren aldeko defentsa. Azken testu hau ikusita, ez dago batere garbi lehen arrazoi hori zein neurritan den aitzakotzat hartzekoa.

Balorzioak balorzio, jesuitekin ikasten egindako zazpi urteren balantzea egin eta gero, bistan da, prestakuntza akademikoaren eta, bereziki, literarioaren aldetik, handik ederki jantzia etxeratu zela. Bizitza laikoan, doi-doi bizitza erlijiosoan baino bi urte gehiago egingo ditu. Zer nolako urteak haiek, aldi berean lumari eta militantzia politikoari emanak. Horri pasa eta, itxi dezagun hemen Lauaxetaren curriculumari buruzko atala.

2. LEHEN SAIOAK POESIAN

Tamalez, ahalegindu naizen arren, Lauaxetak Erretorikako zein Filosofiako ikasketa hauetan lortutako emaitzak jakiterik ez dut izan. Hala eta guztiz ere, zu-

zenezan ez bada zeharka bederen, jakin dezakegu buru argitsuenak nortzuk izan zitezkeen. Garai hartan, urtean bi aldiz berritzen zituzten beren botoak (14), eskuarki Erregenetan eta San Pedrotan, edota Jesusen Bihotzaren egunean, eta horren karira, gaituenak ziren juniorrek eta filosofoek bere zain poetikoa erakusten zuten latinez, grezieraz eta hebraieraz egindako saio txikietan, gaitzat ospatzen zen festa-eguna hartuz. Ikasle dezente dira beren poematxoak ontzen dituztenak, eta gehienek latinez dihardute, hauen artean, Ibinagabeitia, Zaitegi eta Lauaxetaz gain, Frantzisko eta Felix Korta anaiak, Iñaki Goenaga, Luis Sagastune, Plazido (Mujika, Erraimun Argarate, Sarobe, Gilermo Larrañagak, eta gehiagok ere bai. Daniel Gastonek pare bat poema baditu grezieraz, eta hebraieraz idatzitakorik ere bada. Hauek denak eskuz letra argi eta dotorez idatzitako *Carmina renovationis* izeneko koaderno apainduetan gordetzen dira Loiolako artxiboan (15).

Lauaxetarenak lau poematxo atzeman ditut: bi Loiolako egonaldian egindakoak: bat 1925eko ekainean, beste bat hurrengo urteko data berean, eta beste bi Oñan, hauek 1927ko ekainean. Beraz, lau guztira, jarraian urtez urte transkribatzen ditugunak, ez baitira guztiak jasotzen Patxi Altunak (1990, 113-153) paratutako bilduman.

1.

Ad Cor Jesu

Descendunt timidi cervi de montibus altis,
Audax utque latus percussit spicula saeva
Venato, rapidi cursant ad flumina quaerunt
Et vivos claris restinguere fontibus ignes,
Ipse gero percussus cervus pectore vulnus
Eta dulci cupio satiari Cordis amore
Ut saliente animum restinguens flumine, pace
Mentis perpetua utar quae sit nuntia caeli

Stephanus Urquiaga, S. J.
Loiola, 1925eko ekaina

2.

Ad Jesum

Natus est nobis puer eta venustus
parvulus, surgens teneris in annis
ex sinu aurorae, rocisque mannis
solis ab ortu.

(14) «Nota txikiak» izeneko agiriaren atzekaldean datorrenez, Esteban Urkiagaren boto-berritzeak Loiolan, 1992ko otsailaren 3an eta abuztuaren 3an izan ziren, eta 1923an, berriz, urtarri-laren 30ean eta abuztuaren 2an.

(15) Loiolako artxiboa, Caja 28/1.

Tu potes nubes oculis serenis
 Cernere et rivos vitreos morari.
 Rupe muscosa et tumido reponis
 Aequora motu.
 Quin dolores tu lacrymasque risu
 admoves, tanta est tibi grata virtus.
 Dulce dum rides niveos dant flores
 Lumina pratis.
 Non meae vero lacrymae cadentes
 et dolores non animum lacescent?
 Heu!, puer preces tibi rite dicam
 vulnere laesus!

Stephanus Urquiaga, S. J.
 Loiola, 1926ko ekaina

3.

Totus desiderabilis

O rosei vultus ac oscula blanda, valete:
 Me Pueri rapiunt lumina orisve risus;
 Me, Jesu, rerum suavissime, pignus amoris
 Dulce racemi ebrium nectare redde tui!
 F. Urquiaga, S.J.

Oña, 1927ko urtarrila

4.

Ad Cor Jesu

Utque audax diro percussit latera telo
 Venator, rapidi cursant ac flumina quaerunt
 Et vivos claris restinguere fontibus ignes
 Ipse gero afflictum cervus pectore vulnus
 Et dulci cupio satiari Cordis amore
 Ut saliente animum restinguens flumine certa
 Pace fruar mentis; quae sit nuntia caeli.

A.M.D.G.

Stephanus Urquiaga
 Oña, 1927ko ekaina

Ohartzekoa da poema horietan, lehenengoa eta laugarrengoa Jesusen Bihotzari egindakoak direla biak, lehena Loiolan 1925ean eta bestea Oñan 1927an, eta laugarrengo hori, testua hobetzera aldera egindako aldaketa gutxi eta txiki batzuk salbu, lehenengoaren kopia bat besterik ez dela. Seguru asko, zerbait aurkeztu egin behar eta, errazera jo bide zuen. Ni, hemen, lehenengo

biak itzultzeraz ausartu naiz, jadanik poema hauetan antzematen baita hogei urteko poeta gazte honek adierazpen sinbolistarako daukan lera berezia. Nolanahi ere, irakurle ohartuari abisatu nahi nioke lehen poema horretako dudamudazko «ipse gero» horrek zalantzak sortarazi dizkidala. Ni baino latinista gaituago baten esku uzten dut, (bada, gaizkiulertuak zuzen ditzan, eskertuko diodana:

Jesusen Bihotzari

Ehiztari ausarta luzez atzetik dutela, baina gezirik bota gabe,
Orein lotsatiak goi-mendietatik behera datoz
Bizkor korrika ibaien bila,
Eta iturri argiez itzaltzen dituzte su biziak.
Bihotza zaurituta triste doan oreina daramat
Eta atseginez desiratzen dut bihotz-amodioz asetzeara,
Darion ibaitik arima pausatuz joan dadin,
Adimenak betiko bakea izan dezan
Eta zeruen iragarlea izan dadin.

Loiola, 1925eko ekaina

Jesusi

Jaio zaigu haurra, txiki eta polita,
Aspaldiko urtetatik bigun sortua egunsentiaren sabelean
Eta arrosa-koloreko eskuekin
Eguzkiaren sorreratik.

Zuk hodeiak begi narez ikus ditzakezu
Eta beirazko erreketan bizi zintezke.
Arroka goroldiotsu eta puztuan
Berritzen zoaz uren mugimenduan.

Hain zaizu atsegin bertutea,
Minik eta malkorik gabe irria darizu.
Zu irriz zaudela, zelaiko argiek
Elurrezko loreak ematen dituzte.

Niri isurtzen zaizkidan malkoek eta
Minek ez ote du egiazki neure arima larritzen?
Aupa!, haurtxo, zauriz mindua,
Zure alde egingo dut otoitz behar den bezala.

Loiola, 1926ko urtarrila

Arestian aipatutako jai-egun horiez aparte, urtero kantuak eta poesiak errezitatzen ziren Sortzez Garbiaren egunean eta Maiatzaren azken egunean. Ohitura honek luzaro iraun zuen, Marneffe-ko azken epealdi arte bai bederen. Aita Patxi Altunaren (1990, 113-153) bilduman 1914-1937 urte-bitartean eus-

karaz egindakoak jasotzen dira, oraingoan, lehengoez gain, poeten zerrendan izen berri gehiago sartzzen direlarik, hala nola Patxi Bolunburu, Fulgentzio Zaldua, Gotzon Martikorena, Erraimun Argarate, Inixio Albisu, H. Yurramendi, Jesus Joaristi, J. L. Olasagasti, Joseba Urrutia, Erroke Zabaleta, Jose Mari Alberdi, Yon Andoni Kolinas Agirrebengoa eta J. Goikoetxea. Jokin Zaitegik bi poema luze ditu, «Neure Amaren Eresia» eta «Urrindik» izenekoak, Oñan eginak 1926 eta 1928ko abenduaren 8an. Lauaxetarena bat bakarrik dator, eta, harriduraren handirako, bera gazteleraz burutua, hau ere Oñan, 1926ko abenduaren 8an, «Noche de la pureza» izenburua daramana. Ez al da bitxia gertatzen, bere ikaskideak euskaraz ari diren bitartean, berak gazteleraz jardutea? Galdera honen gakoa bere horretan utzi eta, goazen aurrera.

3. PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA

Behin puntu honetara helduz gero, derrigorrezkoa da galdetzea, lehenik, nolako prestakuntza akademikoa lortu ote zuten ikasle gazte haiek eta, bigarrenik, nolako eragina izan zuten orduko ikasketa humanistikoek Lauaxetaren obran. Lehen puntua, oso ertzetik eta orokorrean bada ere, Lauaxetaren curriculumaz jardutean ukitu baitut, bigarrenari helduko diot.

Junioratuan, batez ere, literatura klasikoa aztertzen zuten, tradizioak halakotzat daukana, horien artean, autore greziar eta erromatarrez gain, munduko idazlerik onenak ere irakurri eta iruzkinduz. Zehazkiago esanda, latina, greziera eta hebraierazko ikasketak, autore greko-latinoak –besteak beste, Homero, Demostenes, Sofokles, Virgilio, Horazio eta Zizeron–, Poetika eta Estetika, eta Literaturaren historia, gehienbat Espainiakoa. Hauek ziren oinarriko ikasgaiak. Bigarren mailakoak, berriz, haien osagarri gisa jai- edo erdi-jai egunetan –ostegun eta igandeetan, batez ere–, ikasten ziren beste hauek: Historia orokorra, Aritmetika eta Geografia, eta hizkuntza modernoren bat. Hala zen Orixeren garaian (Altuna, 1991, 53), baita geroxeago ere Lauaxetaren denboran (Garate, 2003, 11).

Lauaxetaren garaiko ikaskide gehienek eta ondokoek aho batez diotena da, Loiolan irakasle oso onak izan zituztela eta beren prestakuntza akademikoa eragin nabarmena izan zutela. Jokin Zaitegik (1974, 8) hiru irakasle aipatzen ditu, bakoitzak zer irakasten zuen zehaztuz: «Gainera, irakasle onak izaki, Elade-ko ta Erroma zaarreko idazle, olerkari ta izlariak ongi ezagunak izan genituen: Errandonea-k Kikero, Sofokel, Demostene, Tukidide-ta irakatsi zizkigun; gainera, Shakespeare, Vieira brasildarra, Kolonbia-ko ta Txile-ko izlariak. Estefania-k Bergilli-ren Eneida, Orati, Obidi, Tibul, Propertzi-ta. Orobat erderazko elertia, inglesa, frantzes, italiarra, alemana, portugesa, katalanerazkoa-ta. Olerkari bakoitzaren lanak irakurtzen zizkigun ugari. Erdal-izlariak, berriz, Luis de Granada, Luis de León, eta itz-lauzko erlijio idazleak barrena Nosedal-enganaino irakatsi zizkigun Juanjo Goikoetxea-k».

Beste lekuko batzuek, bereziki eta guztien gainetik, aita Errandonea eta Estefania nabarmentzen dituzte, biak ikasketak atzerrian eginda, letra klasiko zein modernoetan goi-mailako aditu bilakatzen direnak, bakoitza bere sailean eta bere izateko eta irakasteko modu bereziarekin (16). Garai hartan oso gutxi izaten ziren –Nagusiek zuzenean hautatutako banaka batzuk baizik ez–, beren ikasketak egitera norberaren probintziazatik kanpo egiten zituztenak. Horietakoa genituen biak, Rufo Mendizabalekin eta beste batzuekin batera. Lauaxetak bere ikasketak Loiolan egiten dituen garaian gero eta gehiago dira irakasle espezializatuak, ordurarte irakasle bakoitzari ikasgai asko ematea tokatzen baitzitzaion, askotan ezertan bereziki trebatuta egon gabe.

Lauaxetaren ikasle-taldea Oñara joan eta handik hiru urtera, biak 1929-1930 epealdian irakasle izandako J. I. lekukoak zertan ziren bereziak eta zertan osagarriak ere deskribatzen du. Izaera aldetik, aita Errandonea sutsu eta beroagoa zen, literatura aldetik linguistagoa, edo gramatikariagoa, hots, literatura adierazpenetara emanagoa (17). Honentzat hizkuntza klasikoak sakon eza-gutzea zen garrantzitsuena, horien itzulpen zehatzak egitea, azalpenetan iruzkin filologiko, historiko eta mitologikoak luzatzea. Edertasun artistikoaren sakona, benetan garrantzitsuena den hori, itzalean bezala geratzen da, haren muina dastatzera iritsi gabe. Horrela egitean, orde, edertasuna formula topiko eta inperersonaletara mugatuta azaltzen da, bitartekoak helburu bihurtuz (18). Humanista handi bat izan zen Errandonea, literatura ildo kulturalistatik begiratu eta aztertzen zuena.

Aita Estefaniarentzat, aldiz, lehenagokoa zen literatoa den gizakia bera, honek erabiltzen dituen literatur adierazpideak baino. Honentzat bigarren mailako zerbait zen literatur adierazpide desberdinen –irudien, erritmoen edo bes-

(16) «De entre los profesores que yo tuve, las dos eminencias eran el P. Ignacio Errandonea y el P. José M^a Estefanía. No creo que en el ambiente general (de los condiscípulos hubiera dudas sobre esto. Estos dos profesores, reconocidos cada uno en su propia línea, no se hacían de hecho competencia en su protagonismo educativo en lo humanista, aun cuando conjeturáramos que hubiera podido haber diferencias personales entre ellos» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 16).

(17) «Errandonea era temperamentalmente más fogoso y ardiente. Literariamente era más lingüista, gramático, sintáctico... más dado a las formas literarias de expresión. Reconocíamos su eminencia en el teatro griego, pero tal vez no se lo entendíamos: a mi personalmente me dejaba un poco ajeno su Coro de Sófocles. Podría decirse que Errandonea era un gran humanista en la línea culturalista» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], (1990, 16).

(18) «Errandonea era el gran conocedor de los clásicos latinos y griegos. A lo que juntaba una sensibilidad ática y pariente de la de aquellos, que le permitía calarlos en su más pura belleza. Pero, teniendo todos los valores de sus modelos, le faltaba lo que a ellos: modernidad (...) En los maestros de ellas abundaba la primera de esas dotes y el dominio sobre las lenguas clásicas. La traducción exacta y castiza al castellano centraba prioritariamente la atención. Se añadían comentarios filológicos, históricos, mitológicos. Mientras, la más trascendente belleza artística se quedaba en el transfondo, o se la definía con fórmulas tópicas e impersonales. Esto era una inversión de categorías que convertía los medios en fin (D. G. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 155-156).

te hainbat elementuren— edertasuna. Gizakia bera zen interesatzen zitzaiona (19). Aita Estefania, literatur ezagutza zabal eta sakonak zeuzkan norbait izateaz gain, poeta ere bagenuen aldetik, maisu handi bat izateko gaitasunez jantzia zegoen, literatur adierazpideen azpitik eta gainetik dagoen gizaki literarioaren arnasa sentitzeko gai zen (20).

Dena den, bi irakasle horiek estetikari buruz irizpide eta sentikortasun desberdinak zituzten arren, azken batean, beste lekuko batek egoki azpimarratzen duen bezala, osagarriak gertatuko dira, aita Errandonearen klasikotasun greko-latinoari aita Estefaniak modernotasuna eransten baitzion. Irakasleengan ohikoak izaten ez diren bi dohain zituen bere alde aita Estefaniak: adimena eta literatur sena (21). Estefania da, beraz, modernismoaren aitzindaria Loiolako irakasletzan, pedagogia jesuitikoan berritasunaren printzak zabalitzen hasten dena.

3.1. Errandonea

Aita Errandonea Berako semea zen, euskaldun garbia, baina bere amaizkuntza landu ez zuena. Hainbat euskal jakintsurekin gertatu izan den bezala, hari ere, zituen ametsetarako, euskara txikiegi eta txiroegi gertatu zitzaion, noski. Oñan Teologia ikasi aurretik, Kolonbian egindako maisutza-denboran latinezko gramatika argitaratua zuen, argitalpen asko izan zituen. Apaiz-ikasketak bukatzean, Oxford-eko unibertsitatera bidali zuten letra klasikoetan espezializatza eta, Sofokleren antzerkien gainean egindako bere doktore-tesia arrakastaz burutu eta gero, Loiolako irakasletzan ate handitik sartuko da 1922-1923 ikasturtean. Irakasle gisa, ikasgai bat baino gehiago ematen ditu: lehen ikasturtean Literatura eta Latina, eta ondokoetan Erretorika eta Greziera. Bere

(19) «Estefanía pisaba otro terreno, no sé si a nivel más elevado o más bajo, pero distinto. Por lo que recuerdo, la personalidad de Estefanía se centraba mucho más en el hombre que era el literato —fuera poeta o no—, que en las formas literarias que en sus expresiones adoptaba. La belleza literaria de las formas de expresión, de las imágenes, de los ritmos... era algo secundario. Interesaba mucho más el hombre que se expresaba» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna <prest.>, 1990, 16).

(20) «Era, además de gran crítico, hondo poeta o, mejor, su constitución poética le posibilitaba ser un crítico excepcional (...) Poesía, pues, lo necesario para ser un gran maestro» (D.G. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156).

(21) «Errandonea era el gran conocedor de los clásicos latinos y griegos. A lo que juntaba una sensibilidad ática y pariente de la de aquellos, que le permitía calarlos en su más pura belleza. Pero, teniendo todos los valores de sus modelos, le faltaba lo que a ellos: modernidad. Para lo que halló en Estefanía su complemento. Estefanía, al par de un amor a los clásicos, cuya preferencia le venía dictada por su elevado entendimiento, poesía más vasta cultura literaria, abierta a todos los aires. Y para apreciar los valores estéticos, reunía dos facultades que no solían encontrarse juntas en nuestros formadores de letras humanas: inteligencia y temperamento. En los maestros de ellas abundaba la primera de esas dotes y el dominio sobre las lenguas clásicas» (D. G. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 155).

irakaskuntzan, klasikotasunaren kontzeptua oso zentzu zabalean erabiliko du, hor barruan sartuz (autore greko-latino klasikoak bezala modernoak ere, bereziki Shakespeare bezalakoak, eta Hego Amerikakoak. Beraz, literatur irakurketaren esparruak asko zabaltzen ditu eta ez da geratzen soilki greziar tragediak azaltzen, horien artean Edipo, Elektra eta Antigona, idatzi izan den bezala (Garate, 2003, 12), nahiz horiek izan sakonen ezagutzen zituenak.

Alemana ondo itzultzen zuen. Ingelesa zer esanik ez, bera izan baitzen ingeles akademiaren buru, lehen aldiz, juniorren ministro eta ikasketen zuzendari egin zutenez geroztik 1922-23 ikasturtetik aurrera. Ordurarte kargu horretan aita Tomas Vicente egon zen, Avilako semea, erlijioso zintzoa baina ez, antza, (irakasle ona. Panama-ra destinatuko dute.

3.2. Estefania

Aita Estefania, Orirexen ikaskidea eta lagun mina, bilbotarra zen, familia abertzale batetik zetorrena. Deustuko unibertsitatean egiten ari zen ikasketak bertan behera utzirik, 1907ko ekainaren 14an iritsi zen Loiolara. Orduan etenda utzitako ikasketa haiek Oñan egindako egonaldian, udako oportretan ikasiz, burutu zituen Salamankako unibertsitatean, Letretako lizentziatura lortuz. Gaitua zelako, 1921eko ikasturte-hasieran Oñatik Holandako Valkenburera bidali zuten Nagusiek falta zitzaizkion azken bi urteko teologi ikasketak egitera. Teologiako hirugarren urtea bukatzean apaiz egitea tokatzen baitzitzaion, Oñara itzuli zen 1922ko udan, baina berriro lehengo lekura joango da azken urtea bukatzera. Hurrengo ikasturtean (1923-1924) «Hirugarren Probandza» egingo du Exaten by Baexen herrian. Loiolara 1924ko ikasturte-hasieran iritsi zen, 36 urterekin, prestatzen 17 urte luze eman ondoren. Hizkuntza klasikoez gain, alemana eta ingelesa ongi ezagutzen zituen, alemana ingelesena baino hobeto; euskara ere ikasi zuen, mintzatzeko erraztasunik gabe, baina irakurtzeko adina bai (22). Bestalde, haren alde asko esaten duen alderdia da hau, euskaldunak euskaraz idaztera bultzatu zituen. Ezin daiteke horrelakorik esan Errandoneaz, alderantzizkoa areago baino, beste nonbait zehaztuko dugun bezala.

Loiolara etorrita, 1924-1925 ikasturtean, Literaturaren historia –Orokorra eta Espainiako–, (irakasten die erretorikoei, lehen urtea egiten 19 ikasle dituelarik, horien artean Lauaxeta. Aleman akademiaren buru ere bera izendatzen dute, ordurarte Rufo Mendizabalen esku egon zena. Bere garaiko ikasle lekukoek diotena da, irakasle biziki ona zela. Europako literatura nagusiak

(22) «Sabíamos que él mismo hablaba con dificultad su euskera» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990., 162). A. C. lekukoak ere antzeko zerbait esaten du: «Por otro lado, aunque no dominaba el euskera hablado, recuerdo cómo nos hizo conocer el poema de Lizardi “Xabiartxo”ren eriotza» (Patxi Altuna [prest.], 1990, 165).

menderatzen omen zituen, nola klasikoak hala modernoak; baita, euskal literatura eta katalana, edo okzitanoa bezala, baztertuak zirenak ere (Altuna, 1990, 158; 164). Ez Jokin Zaitetik bakarrik, Andima Ibinagabeitiak ere, Gabino Garrigari 1957-12-20an egindako gutunean, men handia aitortzen dio irakasleari. Honen aipua zehatzagoa da azaltzen zituen autoreak izendatzeko orduan: «Estefania-Zabala-tar Joseba Mirena Aba zan gure elerti irakasle, bai Españi-elertiarrena baita mundukoarena ere. Ez genezakean ukan irakasle pin, zintzo, zorrotz eta iakitunagorik sail ortan. Ark zabaldu zizkigun Rusi, Poloni, England, Prantze ta Alemaniako literaturaren ateak. Orduan ezagutu genitun Andreiew, Mieckewitz, Uhland, Heine, Goethe, Verlaine eta abar e.a. Ark iarri gindun modernisten urratsetan ere zegokion artista esku-ikutu ahandzi-eziñez (...) Ertilari ta idazle bikaiñ zan ark, ez zun iñungo literaturarik baztertzen, eta berak erakusi zizkigun katalandar literaturaren ondasunak, baita euskal-literaturarenak ere. Kataluña-ko olerkariak maite zitun Estefania Abak eta beregandik iritxi gendun Verdaguer, Costa i Llobera, Alcover, Mestres, Gimera eta batez ere Maragall aundiaren ezagupen zintzoa. Estefania irakasle maite hura Aberriaren-martiri il zan» (23). Baina bera gehien lilurutzen zuena, izan, literatura alemana zen, hango poesia epikoa eta, bereziki, lirikoa. Goethe-ren espezialista zen. Eskolan askotan aipatzen omen zien Eichendorff eta honen pasarteak irakurtzen (24). Bere liburutegian alemanezko liburu asko aurkitzen omen ziren; Espainiako literaturan, Peredaren pasarteak ere bai (25). Literatura apalagoetan, besteok ziren bere hautatuak: Verdarguer, Maragall, Costa i Llobera, Alcover, Mestres, Gimera, Federico Mistral, eta urrutiko literaturetan, Petöfi eta Jokai hungariarrak, eta Kalidasa indiarra (26). Euskal literaturaren baranoan –Estefaniarentzat euskaraz nahiz gaztelaniaz egindakoak halakotzat hartzekoak ziren–, Antonio Trueba, Ramon Bastera, Iturribarria, José M^a Salaverria, Unamuno, Orixe eta Lizardi zitzaizkion gogokoenak. Schiller eta Orixe poeten artean kidesasunak ikusten zituen. Tagore, erabiltzen zituen gaiengatik eta idazteko moduengatik, Orixe bezain euskalduna iruditzen zitzaion. Eskolan sarritan irakurtzen omen zizkien Orixeren poesi zati batzuk (27), inoiz Lizardiren «Xabiartxo'ren eriotza» poema ere bai (28); batzuetan baita Lauaxetaren poesiak ere, beren gaztelaniazko bertsioan (29).

Estefaniaren zerrenda hautatu horietan nortzuk agertzen diren ikusita, bis-tan da, ikasleengan eragin handia izan zuela. Orduan jasotako ezagutzengatik izan ez balitz, Jokin Zaitegi batek, adibidez, ez bide zituen euskaratuta argi-tara emango *Euzko-Gogoa* aldizkarian Uhland, Eichendorff, Sully-Proudhom-

(23) Andima Ibinagabeitiaren aipua, in Iñigo Ruiz Arzallus, «Sarrera», 1992, IX.

(24) J. A. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 167.

(25) D. G. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156.

(26) D. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 163-164.

(27) D. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 163.

(28) A. C. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 165.

(29) I. A. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 169.

me, Pascoli eta Costa i Llobera baten poesiak. Era berean, Lauaxetak ez zituen ezagutuko Baudelaire eta Verlaine bezalako sinbolistak, nahiz azken honi ezkerreko begiarekin begiratzen zion, fedegabea omen zelako, garai hartan Estefania bezalako erlijioso zintzo batentzat zerbait serioa zena.

Hara hor, bada, bi irakasle handi, literaturaren irakaskuntzan bi ildo jorratzen dituztenak: batetik, klasikotasuna, jesuiten ohiko pedagogiari lotuagoa, eta, bestetik, modernotasuna, literatur pentsamenduan berrikuntzaren inflexio-puntu gisa har zitekeena, batez ere, garai hartako Loiolako ikastetxe kontserbadore batean. Aukerak aukera, orduan gehienek autore greko-latinoak euskaratzeko erabakia hartu zutela, dio Zaitetik, nahiz xede horri lotu zitzaizkion bakarrak Jokin bera eta Andima izan: «Andimak Bergili aukeratu zuen eta nik Sopokel» (30). Lauaxetak, aldiz, nabarmenki bere bizitza laikoan egindako poesian, azken garaietako poetikaren aldeko hautua egiten du, bere begirada horixe sinbolismoaren eta erromantizismoaren artean kokatzen delarik. Bi irakasle horien eragina, beraz, ezkutaezina da.

3.3. Beste irakasle batzuen itzala

Baina bi horiek ote dira Loiolako irakasletzan nabarmentzen ziren bakarrak? Gehiago ere baziren, maila apalagoan bada ere, beren itzala utziko dutenak.

Horietako bat, Zeanuriko aita Joan I. Goikoetxea izan zen, hau ere aita Estefania bezala Loiolara 1924ko ikasturtean joan zena, ondoko lau ikasgai hauek emateko ardurarekin: Erretorika, Greziera, Geometria eta Aritmetika. Beste lekukoek ez, baina Jokin Zaitetik (1974, 8) esplizituki dakar honen ize-na, Literaturako eskolan zer erakusten zien zehaztuz, hasierako testu hartan aipatu bezala. Euskaltzalea zelako bakarrik ote? Ez dirudi aski arrazoi izango zenik hori irakasle ontzat hartua izan zedin.

Bestea, aita Rufo Mendizabal donostiarra genuen, Lauaxeta Erdi-Mailako Gramatika ikasten hasitako ikasturtean (1922-23), Latina eta Hebraiera irakasten zituena. Gramatikari trebea zen, hainbat argitalpenen egilea hizkuntzaren sailean. Lagundian errektore gisa edo probintzia zaharreko probintzial bezala gobernu-zereginak bete behar izanak, ordea, maila batean bere irakasle-gaitasuna murriztuta utzi zuen. Alemanian egona baitzen, denboraldi batez –Errandonea etorri arte–, bera izango da aleman akademiaren buru, eta ikasle batzuk berarekin hasi ziren alemana ikasten ostegunetan eta opor-egun txikitetan. Leon Lopetegik (1990, 103) bere *Diario*-n dakarrenez, ez zekien euskararik, hitz solte batzuk besterik, baina ez omen zen hura lantzearen kontrakoa ere.

(30) Zaitegiren aipua, in Velez de Mendizabal, 1981, 39.

4. JESUITEN PEDAGOGI BERRIKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Jesuiten pedagogi berrikuntzaren ezaugarriez jardutean, Loiolako irakasleen taldea, lauko edo bosteko batek osatua bada ere, hemen aita Errandonea eta Estefaniaz arituko naiz, hauek baitira, Loiolara iristean, bertako curriculumen berrikuntza aipagarri batzuk egin zituztenak, berriro esanda, bakoitzak bere modura eta bere alorrean.

Aita Errandoneari dagokionez, pedagogia jesuitikoan funtsezkoa den greziar humanismoan espezializatutakoaren ohorez zetorren zuzendari berri honek, hasteko, ordurarteko irakaskuntzaren norabidean aldaketak egingo ditu. Aita Lopetegik (1990, 103) hiru berrikuntz mota bederen aipatzen ditu. Lehenik, antolaketaren mailan, gaiak zabaltasun gehiagoz landu ahal izateko, klaseen iraupena luzatu egiten du, gai batzuetan birekin bat eginez. Bigarrenik, didaktikaren mailan, testuak buruz ikasi ordeztu, gaiak hausnartzera bultzatzen ditu ikasleak, ordurarteko memorismoarekin hautsiz. Hirugarrenik, motibazio eta espektatiben mailan, idealak gaztetatik landu eta etorkizunari begira proiektu handiak egitera bideratzen ditu, baina bakoitzari ondoen dagozkion eta neurriko zaizkion gauza txikietatik hasita. Ikasketetan egindako berrikuntza honek bere eragina izango du berarekin eskolatzen den euskaltzale-talde honengan, kultur proiektu bat eraikitzeko gogoaz pizten baiti0 eta berehalakok lanean hastera bultzatzen baitu. Autore greko-latino klasikoak euskaratzeko hartzen duen erabakiak hor luke bere sorburua. Xede hau zein neurritan betetzen duen, besterik da. Jokin Zaitetik (1974, 8), «ontan porrot egin genuen nolarebait» badi0 ere, zalantzarik ez da orduko ikasle euskaltzale haiek urrats galanta eman zutela, euskararen etorkizuna kultura landuaren bidetan jarri baitzuten. Ezaugarri hau izango da, nagusiki hau, jesuiten eskola ordurarteko beste guztietatik bereiziko duena. Halere, aita Errandonearen berrikuntza honen mugarik handiena, klasikotasunean geratzen dela izanen da, literatura, bere adierazpen formalek harago, ez baitu historiaren joan-etorriek busti eta mantxatutako kolorez tindatzen, ez hezur-haragiz janzten, ez haren gorputza arimaren sukarrez berotzen. Harenean kontakizuna ahistoriko bihurtzen da. Horixe da, hain zuzen, Emile Durkheim-ek jesuiten pedagogia klasikoaz egiten duen irakurketa bere *L'évolution pédagogique en France* (1938) histori saio bikainean, jadanik aztertua dudana *Orixen eta bere garaia* (1991, 303-336) liburuan. Durkheim-ek esana berretsi egiten da Errandonearen ereduari, baita, neurri handi batean, Orixeren estetikan ere.

Aita Estefaniari dagokionez, esan behar da berari beste hainbat ekarpen zor zaizkiola. Lehenik, antzinako eskola klasikoari ukorik egin gabe, horren osagarri gisa, modernotasunari ere ateak zabaltasunez irekitzen dizkio, moderno klasikotzat har zitezkeen hainbat autoreri sarbidea emanez. Noski, berak bere gogokoak hautatuko ditu, baina irizpidea jadanik ezarria dago. Berrikuntza hau zerbait funtsezkoa da pedagogia jesuitikoaren historian zehar, zalantzarik gabe, aro berri bati hasiera ematen diona. Lauaxetaren estetika-ere-

duak, hain zuzen, bere maisuaren irizpide eta jokabide honetan du bere oinarria eta bera izanen da seguru asko bere garaiko euskal idazleetatik modernotasunari gehien atxikiko zaiona. Zaitegi, adibidez, lotuago zaio klasikotasunari. Bigarrenik, didaktika-mailan, irakaskuntza klasikoan nagusitzen zen ereduan ez bezala, ikasgelan, ez irakasle orojakitunaren autoritateak, baizik ikaslearen behaketak du lehen hitza. Haren eta honen literatur pasarteak irakurri ondoren, lehenik ikasleari galdegiten zaio zer pentsatzen duen, nola baloratzen duen; gero etorriko dira irakaslearen ohar osagarriak, zuzenketak, eta gaineratiko zehaztapenak (31). Ikasleak harriturik bezala omen zeuden irakaslearen metodo horrekin. Behin batez, literatur egileen idazlanak azaldu ordez, ikasleak zergatik bideratzen zituen haien testu hautatuak zuzenean irakurtzera galdetu zion ikasle bati, erantzun zion esanez euskaldunentzat metodo hori zela onena eta horregatik egiten zuela horrela (32). Eta hirugarrenik, pedagogian betiko ezaugarria izan den eta egun ere orokorrean baliogarritzat jotzen den beste elementu bat ere oso ondo zainduko du aita Estefaniak, zeina ikasle bakoitzarenganako arreta pertsonalizatua izatean baitatza, bereziki eskolaz kanpoko orduetan, zaletuak bere gelan hartuz eta horrela (33).

Lauaxetarengana etorrita, pedagogia jesuitikoaren baitan bi irakasle horiek egindako ekarpenak aurrean, ohar batzuk egingo nituzke:

Lehenik, Lauaxetaren poetika gehienbat adierazpen formalaren lanketan oinarritzen baita, bereziki sinbolistan, alde horretatik begiratuta esan dezakegula uste dut, poeta modernoa dela eta bere garaian euskal literaturari berritu ederra eman ziola, Europako literatur korronte desberdinak ekarriz; baina meritua izan, berak adina edo agian gehiago, bere irakasleak duela, ezagutarazlea eta eragilea bera izan zelako.

Bigarrenik, Estefaniak aldarrikatu bezala, Lauaxeta poetaren osinean Lauaxeta gizona aurkitzen dela, noiz nostalgikoa, noiz minbera, noiz kolpatua, gartzela-denboran egindako poema guztietan islatzen den bezala. Bestela esanda, poeta sinbolistaren ondoan edo, zuzenago esanda, hondoan poeta exis-

(31) «Sería primero el alumno quien por escrito expresara su apreciación comparativa. Después el maestro con sus hondas observaciones, en frases tan concisas como felices que enseñaban a un tiempo a mirar, y a expresar la belleza (...) Con formadores de su talla pienso abundarían más entre nosotros las grandes figuras de la poesía y de la literatura. No olvidar que de su contacto y de mi curso salieron Urquiaga y Zaitegui, a los que no creo fuesen inferiores en virtudes literarias otros posteriores que no se lograron» (D. G. lekukoaren aipua., in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156).

(32) «Y él me contestó que dada nuestra manera de ser y formación creía que era mucho mejor para nosotros los euskaldunes el avanzar por los caminos que él nos mostraba» (D. G. lekukoaren aipua., in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156).

(33) «Poesía, pues, lo necesario para ser un gran maestro. Pero no todos los así dotados lo son. Y él lo era, porque a sus cualidades personales añadía la de la consagración y la del saber enseñar, tanto en el aula como en el cuarto» (D. G. lekukoaren aipua., in Patxi Altuna [prest.], 1990, 156).

tentzialista ikusten dut, mila zalantzaren artean estekatua. Alderdi honetatik begiratuta ere, badu antzik bere maisuarekin.

Hirugarrenik, Orixeren klasikotasunari Lauaxetaren modernotasuna kontrajarri izan zaio. Eta hau esatean, ikusten edo sentitzen bezala nago Errandonea eta Estefaniaren arteko kontrapuntua. Bi hauen artean osagarritasunaren elementua ezarri beharra dagoelakoan nago, diferentzia honekin orde: Lauaxetak, antzinako autoreengandik harago, klasikotasunaren zerrenda askoz gehiago luzatzen duela, Orixeren kritikari erantzunez egindako artikuluetan agertzen den bezala. Hor, Orixek aipatzen dituen Dabid eta Fr. Luis Leon-goaz gain, klasiko garbitzat dauzka moderno hauek ere: Frantzian A. M. Chénier, Valéry; Baudelaire; Italian, Foscolo, Leopardi eta Carducci; Alemanian, Goethe, Novalis eta Hölderlin; Ingalaterran, John Keats; Katalunian Maragall, Costa i Llovera, eta abar.

Gai hau lehendik ere aztertua baitut *Orixe eta bere garaia* lanean (1991, 670-680), ez noa deus gehiago eranstera, galdera hau luzatzera baino: Lauaxetak dakartzan autore horiek ez al dira, bada, Estefaniak beren ikasleei azaltzen zizkienak? Eraginez ari garenez, hemen esango dudak bakarra da, klasikotasunaren kategoria zein autore modernori aplikatu dakiokeen eztabaida erdi-antzu alde batera utzita, Lauaxetak aurkezten duen autore-hautaketa horren atzean, berriro ere, aita Estefania aurkitzen dela. Artikulu horietako pasarte batean bere izena espreski aipatuz dakarren bezala, bera du literatur irizpideetan gidari, berak aditu du ondoenik bere poesiaren muina: «Neure olerkietan ondoen irakurri dauana, Estefania abea. Aren iritzia nere kutxan daukot. Ez *Razón y Fé* aldizkingian argitaldu ebana. Aren ondoan sakona neurri bialdua. Olerkiz olerki aztertuten dauz. Irizketa orretan ondo igarten dau Estefania abeak, batzutan neure gogoak bake giroan zala, beste batzutan, barriz, larri. Ordu bakoitzari zor jakozan bertsoak urtetan jatazan» (Lauaxeta, 1982, 138). Lauaxeta gaztea ikasle izanda, iraskaleak arrazoi guztiak zeuzkan haren poetika bere osotasunean ikusi eta baloratzeko, kontuan hartuz, ez bakarrik aldiari aldiko adierazpen formalak –noiz zapore garratzekoak, noiz gozoak, noiz milinga-itxurakoak izan zitezkeenak–, baita poetaren barne-giroa ere. Maisuarentzat, arestian esana denez, literatoaren azpian ezkutatzeko den gizasemea da garrantzitsuenak. Eta Estefaniak Lauaxeta baitan gehien estimatzen duena, agian, izan bide daiteke haren lumari darion artetatasuna, darabilan hizkuntza sinbolista baino gehiago.

Laugarrenik, Orixek, inoiz, manierismoaren ukitua ikusi bide zuen Lauaxetaren poetikan, zehazki Carducci-ri eskainitako «Palankari bati» poeman (1932). Orixek ere badu *Euskaldunak* liburuan (1950, 45-57) «Satsi edo balanka» izeneko poema, gai beraren inguruan jorratua. Bistan da, biak garai bertukoak izanik ere, bakoitzak ematen dion tratuera poetikoa arraz desberdina dela, Orixerena deskriptiboa, artean Euskal Herriko nekazal gizarteko festa-giroan ospatu ohi ziren herri-jokoetan oinarritzen dena; eta Lauaxetarena, aldiz, ahistoriko eta inbertsonala, Greziako gazte batengan idealizatzen dena. Lehe-

nari ahats partikularra dario, bertakoa izateak duen hurbiltasuna; bigarrenak, aldiz, janzkera unibertsala du, eta nonahikoa izateak leku batetik bestera, noiz-nongoez haraindi, hegaldi askeak egiteko parada ematen duena. Ez zait iruditzen, ordea, hegaldi hau hitz-joko hutsen haizeak daraman zerbait denik, amaneratua denik, bere mezua baduena baizik. Izan ere, gazte palankari hori ezartzen baitu poetak greziar esklabuak kateetatik askatu dituen sinbolo bezala. Gazte horren palanka izango da, bere jaurtiketan, urdina zulatu eta herriari askatasun-kezka itsasiko diona. Honela bukatzen du:

«Urrin jaurti nai yoguk endaren azkura,
palanka orrek legez oztiñak urratzen».

Jatorrizkoa bezain garden, edo gardenago, ematen du gaztelerazko itzulpena:

«Lejos anhelamos lanzar la inquietud de la raza
como esa palanca, rompiendo el azul».

Poema honetan, urrutiko diskurtso-mota unibertsaletik abiatuta, azkenean, oso labur bada ere, Euskal Herriak daraman borrokaren geroa iradokitzen bezala da, palankariaren egitekoa bideak urratzean zehazten da, zerbait konkretu eta lokalizatuan. Orixeren poemaren kasuan, aldiz, deskribaketaren prozesua justu alderantzizkoa da: dana euskal lurraldean gertatzen da, protagonistak bertakoak dira, horko herri desberdinetan jokatzeko dute, elkarren artean ezagutzen dira. Dena festa-egun batean, herriko plazan, begira bageunde bezala hasi eta burutzen da. Ez da partikularretik unibertsalerako jauzirik ematen. Bi joera hauek, ertzera eramanez gero, beren arriskuak dituzte: hizkuntza unibertsalak abstrakzioarena, ezer konkreturi lotzen ez zaionari dagokiona; lokalismoak, berriz, folklorismoarena, giza pasioek bizitza arruntean duten lekua kontakizunean ez agertzean zehazten dena.

Nolanahi ere, hizkuntza poetikoan molde klasikoak ala modernoak erabili, bada sakonagoko beste maila bat ere, zeinetan, irudimenaren mundua norberaren bizipenekin nahasten den muga ilun horretan, literatoa den gizakiaren baitan bere barne-mintzoa nagusitzen baita eta darion hizkuntza bero-beroa baita, oso hurbilekoa, begiak erre eta bihotza mintzen dituen horietakoa. Lauaxetarenean dimentsio poetiko hau ere oso presente dago, batez ere, kartzeladendoran egindakoetan. Poesia horietan ere, beste behin, ezin da ez ikusi Estefaniak hainbeste maite eta laudatu izan zuen poetaren giza dimentsioa.

5. EUSKALTZALETASUNAREN ERAGILEAK LAGUNDIAN

Lehen ere egina izan da aipamena, Lauaxetaren Lagundia uzteko arrazioez jardutean. Berririo puntu berberera gatoz, baina hemen ikasle jesuita batzuen artean loratu eta antolatzen den euskaltzaletasunak bere hurbileko sus-

traiak non dituen aztertuko da. Beren izena anonimatuan gordetzen duten garai hartako lekukoek kolore desberdinetako iritziak eman dituzte. Loiolako komunitatean, Lauaxetak bere ikasketak egin zituen garai hartan –arteana Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktadura indarrean zegoen garaian, alegia–, ez zegoen euskararen kontrako jarrerarik, ezta aldekorik ere (34). Ikasleen artean ere, beren etxeetatik zekarten pentsakeraren arabera, kolore denetakoak aurki omen zitezkeen: nor karlista, nor bizkaitarra, nor liberal-zentralista (35). Orokorrean, ordea, euskaldunak gutxiengo-egoeran aurkitzen ziren, hor barruan sartuta, nahiz jatorriz euskaldunak izan, euskara erabiltzen ez zutenak ere, orduan horrelakoak baziren eta. Baina euskaldunek Junioratuan gutxiengoa osatzen zuten, beste arrazoien artean, kanpotik –Burgos, Logroño, Segoviatik eta–, etorritako hainbat ikasle zeudelako han Loiolan (36). Orobat, Lauaxeta Oñara joaten den garaian, atzerrikoek hemen ere talde potoloa osatzen zuten, bertan iparramerikarrak, hispanoamerikarrak, portugesak eta alemanak aurkitzen baitziren (Lopetegi, 1990, 109).

Aurrera baino lehen, hiztegi-oharno bat: Euskaltzaleak esatean, euskara jakin, maitatu eta erabiltzen dutenak dira halakotzat hartzen; hemen, jakina. Loiolako komunitateko euskaltzaleen artean, hiru multzo bereiz zitezkeen Lauaxetak bertan egindako (epealdian zehar: batetik, beren apostoladutzan euskaraz jarduten zuten apaiz jesuitak, bestetik, irakaskuntzan zihardutenak eta, azkenik, soilik edo gehienbat euskarari emanak zeudenak.

Aita Lopetegi da gai honetan gehien sakontzen duena eta, honen ustez, Loiolako komunitatekoen euskaltzaleatasunean eragina izan zuten faktore soziopolititiko eta kulturalak aipatzean, Lagundiari kanpokoak zaizkionak eta barrukoak bereizten ditu.

Kanpokoan artean, nazioarteko mailan, Lehen Mundu-Gerra (1914-1918) eta, oraindik modu argiago batez, Errusiako Iraultzakoan planteatutako nazionalitateen printzipioa nabarmentzen da, kasu batzuetan praktikara eraman zena, orduan berrantolatu baitzen Europako mapa geopolitikoa, lurralde batzuetan estatu berri batzuk sortuz. Europan ekialdera zein mendebaldera zabaltzen den nazio-mugimendu honek bere oihartzuna Euskal Herrian ere izango du, orduan haizatzen baitira hemen errebindikazio nazionalistak. EAJko ordezkari batzuek, modu sinbolikoan izango bada ere, 1918ko urriaren 15ean telegrama bat zuzentzen diote Wilson iparramerikar lehendakariari, Versailles-

(34) «Dentro de la Comunidad no existía una actitud “anti” contra el euskara. Tampoco se veía un gran trabajo a favor» (A. C. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 164).

(35) «También era parte integrante de nuestro ambiente la composición humana de nuestro grupo escolar: por procedencias familiares, podían connotarse mentalizaciones en la línea carlista, o en la bizkaitarra, o quizás en la liberal-centralista. En lo lingüístico éramos minoría los vascos-parlantes, aun contando a aquellos, no raros entonces, quienes procedentes de familias vascoparlantes, habían abandonado ya el uso del euskera» (J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 159).

(36) J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna <prest.>, 1990, 162.

era, nazio bakoitzak bere etorkizuna erabakitzeke eskubidearen aldeko aldarrikapena eginez. Euforia nazionalistaren garaia zen hura, antza, euskal jesuiten artean ere bere eragina izan zuena.

Euskal Herrian, maila kulturalera etorrita, Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren sorrera daukagu, hau ere urte berean gauzatzen dena, udako ikastaroetan, zeinetan lehen aldiz elkartuko baitira pentsakeraz eta politikaz joera desberdinekoak diren Iparraldeko zein Hegoaldeko euskaltzaleak euskal kulturaren eta euskararen aldeko proiektu komun baten inguruan, nahiz eta orduan ere, egiazki euskaltzaleak izan, karlista eta maurista gutxi batzuen alboan, gehienak EAJko nazionalistak izango diren. Komunitate erlijiosoen aldetik, kaputxinoekin batera, jesuitak dira bazkide gisa gehien babesten dutenak, zehazki Donostia, Azpeitia, Tuter, Deustu eta Orduñako etxeak (Estornes Zubizarreta, 1983, 54). Erakunde honen zuzeneko emaitza goiztiarra da, halaber, Euskaltzaindiaren gorpuztea ere, eta haste-hastetik euskaltzain izendatua izango da aita Erraimun Olabide gazteiztar euskaldunberria, ordurako hainbat lan burutuak zituen, bereziki itzulpenetan, besteak beste, *Kisto'ren antz-bidea* eta *Giza-soiña*. Jesuitek bazuten, beraz, Lagundiari ohorea zekarkion norbait erakunde berri honetan sartuta. Horregatik, Europan nazio-eskubideak aldarrikatu zirelako eta, aldi bertsuan, Euskal Herrian kultur eta hizkuntz erakunde berri horiek sortu eta bideratu zirelako, kanpo-eragin honi esker, hain zuzen, euskaltzaleatasuna jesuiten pedagogian zein apostolutzan areagotuz etorriko da euskararen gizarte-ospea handitzen joan ahala.

Barruko faktoreei dagokionez, Gaztelako eta Leon-go probintzien arteko banantzea da guztiz aipatu beharrekoa, hau ere 1918ko martxoaren 12an gertatzen dena, Orixe Carrión de los Condes-en laugarren zigor-urtea egiten ari zela, hain zuzen. Banantze hartatik Aragoi eta Gaztelako probintziak sortu baitziren, hemengo gehienak euskaldunak izaki, euskarak ere gero eta babes gehiago izango du maila instituzionalean. Aita Lopetegi historialariak (1990, 104) dioenez, erabaki honek euskaltzaleatasunean bere eragina izan zuen, zeren, nahiz eta Gaztelako probintzia Espainia osoan zehar banatua egon eta berdin Hego Amerikan (37), ez izenez, baina bai gertatzez, euskal probintzia bihurtu baitzen, gehienak –gutzizko kopuruaren bostetik lau–, euskaldunak zirelako. Eta honek, jakina, gazte nahiz zaharren ikuspegi-aldaketa nabarmena ekarri zuen, baina, bere ustez, barruan kutsu politikorik ez zeramana. Lekuko honentzat, geroago aipatuko den *Ami vasco* liburuxkoaren inguruan gertatutakoa, adibidez, diziplina-arazo bat besterik ez zen izan –isilpeko zabalkundea–

(37) Beraz, 1918ko banaketa honetan bi probintzian antolatzen dira jesuitak: batetik Gaztelakoa deituan, hemen sartzen direlarik, penintslari dagokionez, Euskal Probintziak, Nafarroa, Burgos, Logroño, Soria, Segovia, Avila, gehi Kanariar Irlak, gehi Kolonbia, (Venezuela, Panama eta Txinako etxeak; bestetik, Aragoiko (probintzia jesuitikoan, penintsulan Alikante, Katalunia, Aragoi, Valentzia eta Balearrak, gehi Bonbay-ko etxeak eta Filipinetakoak (*Catalogus provinciae Castellanae*, Oniae, 1919).

ri zegokiona, alegia-, ez inola ere ideologi mailako zentsura-neurriaren ondo-
rio bat (38).

Probintzien arteko banantzearen ondotik eta seguru asko honi lotuta, zu-
zenean Erromatik datorren jokabide berria da aipatzekoa, (euskararen aldekoa
suertatzen dena. Izan ere, aita Pietro Boetto bisitatzailak 1921ean Gaztelako
probintziara egindako ikustaldian euskararen sustapenari babes ofiziala ema-
ten dio, urrats garrantzitsua benetan, euskara bertako hizkuntza dela idazten
baitu bere Oroitza-Txostenean. Nolahani ere, euskararen tradizioa ez zegoen
erabat etenda euskal probintzietan, *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkaria, adibi-
dez, Bilbon argitaratzen baita jadanik 1917an hasita, arestian aipatutako ger-
taera horiek baino urtebete lehenago.

Bi gertakari horien ondorio bezala, jesuitek beren euskaltzaletasunaren
eboluzioa barrutik begiratuta azaltzen duten ikuspegiaren arabera, euskarak ba-
zuen bere onarpena 1920ko hamarkada-hasieran, nolabait esateko ofizializat
har zitekeena. Honen froga da euskal akademiak egoera berri horretan bota-
tzen dituela bere sustraiak eta izaera instituzionala hartzen duela, bi ikasturte
lehenago Oñan Loiolan baino. Han Orixe izango da, hain zuzen, euskal aka-
demiaren lehen prefektua, zeina 1920-1921 ikasturtearen barruan finkatzen
baita, berak Teologiako lehen urtea egiten duen urtean. Handik bi urtera, 1922-
1923 ikasturtean, ezarriko da Loiolan, aita Frantzisko Apalategi buru dela.

Arestian aztertutako testuinguru horren barruan, bi euskal akademia ho-
rien sorrerak badu bere esanahi berezia, eta da, urteroko Gaztelako probintzia-
ko Katalogo Ofizialean agertzen den bezala, ohiko hizkuntza klasikoei –ze-
hazkiago esanda, greziera, latina eta hebraierari–, ematen zitzaizela erabateko
garrantzia eta hizkuntza modernoak, gizartean eta mundu zientifikoa eragin
gehien zutenak, osagarriak baino ez zirela. Honela, Oñan euskal akademia ezar-
tzen den ikasturtean, artean ikasle teologoak ziren alemana, ingelesa, frantsesa
eta txineraren akademiak zuzentzen zituztenak. Lauaxetaren Loiolako egonal-
dian, aldiz, irakasle adituak aurkitzen ditugu horien buru: Errandonea ingele-
sarena, Dionisio Goikoetxea frantsesarena, lehenik Mendizabal eta gero Este-
fania alemanarena, etab. Euskara bertakoa delako eta apostoladutzarako
beharrezkoa, xede espezifiko horri erantzuteko sortu omen zen euskal akade-
mia, hots, euskaldunentzat, sermoiak euskaraz egoki egiteko presta zitezen (39).

(38) «Muchos lo atribuían a política (hemen probintziak banantzearen ondoko giroaz ari
da), pero poco a poco se fue imponiendo el buen sentido, y no hubo choques ni incidentes espe-
ciales ni en Oña ni en Loyola, aunque aún hubiera cierta rigidez de criterio para permitir la lec-
tura de determinados libros. Esto hizo que el P. Joaquín Zaitegui, por ej., tuviera alguna dificul-
tad poco después con el P. Ignacio Errandonea, que era el Ministro o Director de los Retóricos
en Loyola, pero no tanto por la ideología del libro de un capuchino navarro, cuanto por la falta
de disciplina de hacer circular clandestinamente tal libro entre sus compañeros» (Lopetegi, in Pa-
txi Altuna <prest.>, 1990, 102).

(39) «Y los que lo cultivaban era “para predicar”. Es decir, el idioma en sí no valía la pena
de ser estudiado» (A. A. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 168).

Baina horretarako eta gehiagorako ere bazen akademia hori, ikasle gazte haien-tzat bederen, bai, hauen asmoa, zinezkoa eta sakona, kultura greko-latinoa euskaraz ematea baitzen, horien geroko emaitzek erakusten duten bezala.

Aita P. Boettok Loiolako bere ikustaldia egin eta hurrengo urtean izen-datzen dute Loiolan euskal akademiaren lehendakari aita Apalategi historiala-ri aipatua, donostiarra, Xabier Zubiri filosofoaren osaba, probintzien arteko banantzeari burutzean Valladolid-eko ikastetxetik etorri zena. Bera izango da irakasleen artean, ikasle gazteengandik hurbil bizi eta euskaltzaletasuna kutsatuko diena. Historia unibertsala eta Espainiakoa irakasten zituen, Artearen historia eta Aritmetikaren hastapenak. Horretaz aparte, bibliotekaria era bazen. Euskal akademia zenbait urtez –1926. urtea arte bederen bai–, zuzendu zuen eta bertan euskal aditza azaltzen eta eskola-ariketa batzuk egiten jardun zuen, behar bezala erabilia izan zedin. Bere eginkizun honetan aita Olabidek lagundu zion, ordurako landua baitzuen berak (*nor, nor-nori, nor-nork* eta *nor-nori-nork* eskema laukoitza, gero, zerbait aldatuta, Patxi Kortak hobetu eta argita-ratu zuena Oñako egonaldian (Altuna, 1990, 23). Hemen oparoa izan zen euskal akademia honen emaitza, 1930ean Uranga jesuitak Donostian emanda-ko hitzaldi batean azaltzen duen bezala (40).

Nolanahi ere, Loiolako euskal akademiaren sorreraz, izaeraz eta taldeki-deez denetarik irakurtzen baita, komeni da ohar batzuk egitea. Pako Sudupek, Iñaki Goenaga Alberdiri egindako elkarrizketa batean oinarrituta, euskal aka-demiaren sorrera 1923an kokatzen du, zeina, gainera, ikasle-talde batek gida-tzen baitu, Jokin Zaitegi buru eta Andima Ibinagabeitia idazkari direla (41). Gotzon Garatek (42) ere, ildo bertsutik, juniorrek sortu zutela, dio, aita Apa-lategi zuzendari eta aita Estefania laguntzaile zituztela. Baliteke hala izatea, ikasle euskaltzaleek beren aktibismo militantearekin protagonismoa izatea, ale-gia; baina ezin ukatuko da, lehendakariaren babes ofizialaz gain, honen ira-kasle-lana ere, goian aipatu dena. Horretaz gain, osoki euskaltzale izaki, aita Apalategi ikasleei beti euskaraz egiten zien horietakoa zen, nola eta haiekin elkartzean erdaldunen bat ez zen tartekatzen. Euskal Herriaren egoera politi-

(40) Oñako jesuita batek Donostian 1930ean Bitor Garitaonaindiari egindako omenaldian adierazten duen bezala, martxan jarria daukate «Euskal-Ele-Bazkuna» deitua. Oñako Joseba Uranga jesuitak Elkarte horren berri eman zuen Donostian 1930eko apirilaren 23an, Bitor Garitaonaindiaren omenez irakurritako hitzaldian. Garai hartan, Oñako Ikastetxe Nagusian 270 jesuita bizi ziren, ikastera lurralde desberdinetatik etorriak, hala nola: Kolombia, Venezuela, Peru, Argentina, Estatu Batuetatik. Gehienak, hala ere, Penintsulakoak dira eta, hemen, batez ere, Euskal Herrikoak. Astero bi aldiz batzartzen dira, noberak egindako lanak aztertzeko. Lanerako liburu-tegi hornitua daukate, baita euskarazkoa ere. Zortzi euskal aldizkari hartzen dituzte («Oñako Euskal-Ele-Bazkuna», *Euskal-Esnalea*, 317, 1930, 85-90).

(41) «Euskal Akademiakoa antolatua zuten Loiolako apaizgaitegian, hortxe 1923-1926 urteetan, Jokin Zaitegi buru, Andima Ibinagabeitia idazkari esango dugu, Plazido Mujika, Argarate, Sarobe, Lauaxeta, Korta anaiak eta Iñaki Goenagak-eta» (Sudupe, (2005).

(42) «Apalategi zuzendari zutela eta Estefania laguntzaile, 1923ana Academia Vasca sortu zuten juniorrek. Euskara lantzeko elkarte zen» (Garate, 2003, 12).

koaz nahiz kulturalaz, bereziki Euskal Ikaskuntzak egiten zuenaz, ongi jabe-tua omen zegoen eta erakunde horretako pertsonaia askoren bisitak izaten omen zituen. Jakina, gero ikasleei kontaktzen zien.

Nahiz irakaslea ez izan, aita Apalategirekin ondoan jarri beharrekoa da aita Olabide ere, beste eginkizun jakinik gabe, Itun Zaharra itzultzen ari zena. Euskaltzale biek oso harreman onak zituzten, euskal kulturaz ederki jantzita zeuden, eta elkarrekin joaten ziren paseatzera. Euskararen kontuan bezala ikasketetan ikasle gazte haiek asko ikasi omen zuten haien lan isilari esker, haiengandik datuak, aholkuak eta erraztasunak jasoz (Lopetegi, 103-104). Politikan zein joetarakoak ziren zehazten ez bada ere, esan beharrik ez da biak zirela errotik euskaltzaleak.

Euskal akademia honen inguruan ibilitako ikasle-taldeakien izenak ere iturri askotan agertu izan dira: Zaitegi, Andima, Lauaxeta, Mujika, Argarate, Sagastune, Lasa, Larrañaga, Sarobe, Patxi eta Felix Korta anaiak, Joxe Goenaga eta bere anaia Iñaki. Baziren beste euskaldun batzuk, Lopetegiren (1990, 101) kasuan bezala, noizbehinka bakarrik joaten zirenak, ikasleak beste hizkuntza modernoak, hala nola alemana, ingelesa eta frantsesa ikastera bultzatzen omen zituelako aita Errandonea ikasketa-buruak. Izan zen bere burua el-karte horretatik kanpo ikusi zuenik ere, euskaraz ez zekielako (43). Baina kontaktizun hau euskal akademiak Belgikan –filosofo eta teologoekin Marneffe-n Jokin Zaitegiren gidaritzapean (44) eta juniorrekin Tournai-n Estefaniaren ardurapean (45)–, funtzionatu zuen gerra aurreko epealdiari (1933-37) dagokiona da, desegin ere orduantxe desegin baitzen betiko.

(43) «Como te decía, de la Academia Vasca (así se llamaba, y yo me sentía rechazado...)» (I. A. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 169).

(44) «En todo caso, los de de mi generación (1924-36?) (gozamos de la batalla ganada por aquel grupo de jóvenes jesuitas que desde Loyola hasta Marneffe (Bélgica) llevaron bien enhiesta la bandera del euskera. Y nosotros, después de Tournai, donde terminamos la Retórica y las Ciencias, pudimos seguir fomentando los estudios euskéricos en tiempo de Filosofía. Con el mismo Zaitegi estudiamos el Mireio de Federico Mistral, traducido al euskera por Orixe y con las notas aclaratorias d preparadas por el P. Raimundo Argarate. Y también seguimos con nuestras homilías en euskera. Y durante el recreo de la noche charlábamos un buen rato en nuestro millenario idioma. Todo se nos hizo fácil gracias al P. José Aguirre-Ceciaga que, de Rector en Tournai, pasó a serlo en Marneffe. Y también por la actividad desplegada por el P. Estefanía» (A. C. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 166).

(45) «Por lo que hace al P. Estefanía y a su influencia directa en la formación vasca de los juniore de la época de Tournai, hemos de añadir a lo ya dicho que, cuando en 1933 se crea junto a la ya instituida Acaemia Vasca una de Oratoria vasca, es el propio P. Estefanía quien la dirige y, según atestigua un junior de aquella época, “con él teníamos los domingo homilía en euskera, ejercicio de redacción y lectura de los trabajos”» (Altuna, 1990, 24). A. C. lekukoak honela deskribatzen du aita-Estefaniak irakasle eta euskaltzale gisa Tournai-n egindako lana: «Creo que el gran cambio vino a la llegada de la República y al encontrarnos den Tournai (Bélgica), sobre todo durante el Rectorado del injustamente desterrado y olvidado durangués, Padre José Aguirre-Ceciaga. Entonces comenzamos a estudiar el *Euskal-aditza* según los paradigmas publicados en Oña por el P. Patxi Korta. Las homilías las componíamos y “echábamos” en euskera. En el

Ezagunak dira horien idazlanak, ez guztiak maila berekoak, baina bai, euskal kultura landuaren historiari dagokionez bederen, epealdi berri bati hasiera ematen diotenak. Bere aitzindari zuzenekoak Orixen eta Olabide izan zituen Lauaxetaren garaiko ikasle-talde hau hasiera hartan aski homogeneoa izan zen, errotik euskaltzalea, eta guztiek ekin zioten euskal kultura igoa lantzeari. Gerora, ordea, batean destinoak zirela eta bestean erbesteratze bortxatuak, hasierako taldeari asko kostatuko zaio berrantolatzea. Gerra ostean horietako batzuk Jokin Zaitegik bereganatuko ditu Guatemalako bere aldizkarian.

Irakaskuntzaren mundutik aparte, apaiz jesuita euskaltzaleen artean, bertako sermoilariak dauzkagu. Loiolako komunitatean, dezente ziren apostoladutzarako izendaduta zeudenak, herriz herri euskaraz sermoiak egiten edota gogo-jardunak ematen, 1920ko hamarkada-hasiera hartan: Bernardo Egaña markinarra, Rufino Beristain azpeitiarra, Eusebio Huarte, Migel Iriarte, Franzisko Lapeira, Joan Laspiur, Jose Antonio Laskibar eta Jorge Agirre. Aita zegamar hau 1925ean etorri zen destinatuta Loiolara, baina lehenago ere Deus-tutik noizbehinka etortzen zen Loiolako etxera, Azpeitia, Azkoitia eta inguruko herrietan garizumako sermoiak egitera. Aita Lopetegik Biktoriano Huitzi, Bizente Alkorta eta Migel Aizpuru ere aipatzen ditu, baina hauen izenak ez dotoz 1921-1926 epealdiari dagokion probintziako Katalogoan. Hauen garaiko ikasle lekukoek beren iritziak ematen dituzte euskal sermoilarien gainean. Aita Lopetegiri ((1990, 100) hizlari onak iruditzen zitzaizkion Laskibar, Huarte, Agirre, Alkorta, Lapeira, Laspiur eta. Beste batzuen ustez, ordea, orduko sermoilariak, hizlari onak ziren arren, ez zioten hizkuntza berritzeari ekin, aita Huarteren kasuan izan ezik, eta honek ere maila batean. Alderdi honetatik begiratuta, aita Iñaki Goenagaren iritzia biziki zorrotza da: «Lehengo sermoilariak-eta, egunduko astakeriak esaten zitiztean euskaraz, ume-umetan sartu ikastetxeetan, pasatu ez dakit zenbat urte euskara entzun ere egin gabe, eta etxeko euskara atzenduarekin gero euskaraz sermoiak egitera bidaltzen zitiztean; nola egingo zitean ba ondo euskaraz!» (46). Nohanahi ere, horien euskara-erabilera nolabaitekoa izanda ere, horien ikasleenganako eraginaz ari baikara, esan behar da, orduko sistemaren arabera irakaskuntzari lotuak ez zeudenez gero, apenas zutela harremanik ikasleekin (Lopetegiri; 1990, 105) eta haien eragina ere, ondorioz, ezin izan zitekeela hainbestekoa.

Azkenik, *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkaria ezin da utzi aipatu gabe, Bilbon argitaratzen zena 1917. urteaz geroztik. Orixek ere hor eskaini zituen bere lehen lantxoak eta junior gazte hauek ere beren lankidetzat hortxe emanez se-

curso 1932-1933, en Tournai, fue nombrado profesor de oratoria vasca el P. Estefanía. Y sobre todo en las “Tertulias” de Navidad, hicimos alguna representación para los euskaldunes (...) Ciertamente las circunstancias que a nosotros nos rodearon no eran las mismas que se dieron en tiempo de los Argarate, Zaitegi, Kortas, etc., cuando ellos estaban de juniors en Loyola. El ambiente predominante era el de la latino-filia y griego-filia. Acaba de llegar de Inglaterra el P. Ignacio Errandonea....» (Patxi Altuna [prest.], 1990, 165).

(46) Pako Sodupe aipatua (2005).

gituko dute. Aldizkari hori zuzentzen zuten Gorka Agirre eta Peli Areitioeren Berri On bateratua eta horrelako batzuk kenduta, («aldizkaria osorik geuk gazteok idatzi izan genuen amar urtetan-edo», hots, 1926-1937 epealdian zehar, dio Jokin Zaitegik (1974, 8). Aldizkariko orrialdeak ordena kronologikoaren arabera pasatuz, jadanik ezagunak zaizkigun hainbat izen agertzen dira: Argarate, Udalaizpe (Zaitegi), M. M. Zubiaga, Joaristi, Andima, Sistiya (Iñaki Goenaga), Abelegi'ko Patxi (P. Etxeberria), Sarobe, Mantzisor, eta ezizenez datozen beste hainbat sinadura. Urkiagaren izena ere hortxe dator, Zaitegiren ondoan, Basaraz bigarren abizenarekin. Hainbat artikulua eta olerki eman zituen hor argitara, Maragall-en eta olerki klasiko batzuen itzulpenak barne.

Ikasle gazte hauen orduko olerkien kalitateaz bere iritzia ematera ausartzen denik ere bada. P. E. lekukoari –seguru asko Patxi Etxeberria da izen-abizen horien laburduran ezkututzen den hori–, Loiolan nahiz Marneffe-n egindako poesiak, batzuenak salbu, aski maskalak iruditzen zaizkio: «... junior esaten genienek euskal ekiñaldiak eskeintzen zizkiguten, eta gu ere aien entzuera jeisten giñan. Nik orain ez dakit aien euskal ariketak Estefania'k zuzentzen ote ziztuan, ala Egibar'ek, ala Areitio'k, eta neri aien olerkiak iñola ere ez zitzaizkidan biotzeraño jeisten. Ni beste nonbaitetik nentorren, euskal arazoetan beintzat. Olerkiak mamiz eta joskeraz etaernal-bulkoz bikañak zitezken eta ortan ez naiz sartzen, bañan euskera aldetik nik oso maxkaltzat artzen nituan. Gero ere Marneffe'n alaxe iruditzen neri, an ordurako olerkari onak izan arren: Zaitegi, Argarate, Goenaga Iñaki, Ibinagabeitia, Arin Gotzon eta beste gehiago ere bai. Irure berriz ez makalena. Guztiak Olabide'ren itzalpean zebiltzala? Baietz esango al dizut? Orduan ordean olakorik ez zitzaidan bururatzen» (Altuna, 1990, 169). Aipu honen esanahia hobeto ulertuko da, baldin jarraian esaten bada apaiz jesuita hau Urretxuko Poesi Lehiaketan (1933) «Bost lore» poemarekin saritua izan zela, populismoaren joera indartzen zihoan garai postkultista hartan, zeinetan Aitzolek, ahozko literaturatik hurbil, euskal estetikan oinarritutakoari ematen baitio lehentasuna. Datu adierazgarria hau ere.

P. E. lekukoak dakarrenaren harian, Lauaxeta bezalako ikasle gazteak, euskara-ereduari dagokionez, bi tradizioen aurrean aurkitzen dira. Olabideren itzulpen-lana Larramendi baten jarraipen gisa begiratzen den bitartean –teknizismoari eta purismoari aski lotua, alegia–, sermoilarienak gehiago du Mendiburu eta Kardaberaz aho-hizkuntzatik, freskoagoa eta dotoregoa da (Altuna, 1990, 159). P. E. lekukoari iruditzen zaionez, hain zuzen, Olabideren euskara-eredua da garai honetako ikasle euskaltzaleen artean nagusitzen dena (Altuna, 1990, 169), berak «maxkaltzat» daukana. Tradizio klasikoan izen handikoak diren arren Larramendi, Mendiburu, Larramendi, Kardaberatz eta, (hurbilekonen artean, Loiolako gazte askorentzat Olabide izango da euskararen eredu. Gazteiztar jakintsuak zer nolako eragina izan zuen galderari, honela erantzuten dio J. Zaitegik: «Bai, 1921.etik aurrera Loiolan egon zen Olabide. Baina, beste galdera batetan garbi gelditu ahal izan denez, Olabide ez zen gudan euskaltzaletasunaren zuzia biztu zuena. Dena dela, urteak eman eta eredutzat hartu genuen josulagun jakintsu hura.

Kontutan izan: 1918.an Eusko Ikaskuntzak sorturiko Euskaltzaindian lehen euskaltzainetakoa genuen aita Olabide. Nolanahi ere, hamabost urterekin ezin genezakeen bereiz nahia errealitatek eta garai hartan gizon bitxi bezala hartzen genuen Olabide. Gizon jakintsu zela, bai, ba genekien baina kontzientziarik ezak ez zigun bere mailan aztertzea uzten. Izan ere, ez zuen gurekin harreman zuzenik euki. Olabideren idazkietan asko ta asko ikasi dugu gure belaunaldikoek. Aurreko josulagunen artean Mendiburu bakarrik izango da gehiena euskaraz idatzi duena. Beranduxeago, eta guztion gainetik, Olabide» (47). Orixez berak ere, euskara-mota arras bestelakoa landuko duen arren, Olabideren defentsa gaitza egiten du. Zaitegik, eskerronez, Olabideri ale monografiko bat eskainiko dio gerora *Euzko-Gogoa*-n (48). Euskara-eredu hori izango da, hain zuzen, Koldo Mitxelena zorrozki kritikatu duena *Egan*-en.

6. LOIOLAKO IKASLE EUSKALTZALEEN SUSTRAIAK

Ikasle horiei nondik zetorkien euskaltzaletasuna, etxetik ala Lagundian sortu zitzaizen? Eta zeren edo noren eraginez? Eta Lauaxeta noiz euskaltzale-tu zen?

Galdera hauen inguruan azalpen desberdinak eman izan dira, batzuetan kontrajarriak izanik ere, alde zehar oso garriak izan litezkeenak.

Hasteko, Jokin Zaitegik (1974, 6-7) dakarrenez, aita Ibero kaputxinoaren *Ami vasco* liburuxkoa izan zen Loiolan 1924an Junioratuan aurkitzen zen ikasle-talde aski handia euskaltzaletu zuena: «Kaputxino ospatsu batek idatzitako liburuxka bat irakurri genuen euskaldunei buruz: eta gure buruetaz iabe egin zen euskal-gaia. Leenik Ibinagabeitiatar Andima-k eta biok irakurri genuen. Aurten (1974ean) 50 urte bete dira: Loiola atzekaldeko galbani-iturri bazterrean eseri ginen udako arratsalde batetan biok: irakurri-ala, auxe esan nion gure Andima zenari: gu geu euskaldun gara, izan ere, ta euskera ikasi egin bear dugu (49). Egia esateko, ezkenuen euskera aazturik erabat, galduxe bai-zik. Liburuxka ura izan ezik, eztakit euskaldun bezala iraungo ote genukeen. Euskaldunen artean zabaldu genuen ixilpean. Tarteko ziren Urkiaga, geroko Lauaxeta, Goenaga-tar Iñaki, gero Schiller-en Wilhelm Tell euskeratu zuena, Mujika, geroko euskal-iztegile bikaina, Larrañaga, Karakas-ko Andima Ibina-

(47) Velez de Mendizabalek aipatua (1981, 37).

(48) *Euzko-Gogoa*, iraila-gabonila, 1958.

(49) Pasadizo honen berri ematean, beste bertsio bat ematen du Pako Sudupek (1997, 6), dioena nondik hartua duen esan gabe: «Andima eta Zaitegirentzat, behiala Pablorentzat Damasko izandakoa Txalintxo mendiska bilakatu zen. Zati bat Azkoitiarena eta bestea Azpeitiarena duen mendi horretara txango joaki –nor ote zen hirugarren nobizioa?– Ami vasco irakurri zuten, eta harrezkero bestelako begiez begiratu zioten elkarri, eta geroztik garbi izan zuten zein zen euren aberria, ez jesuitetan irakasten zieten baizik Euskadi». Hemen beste leku bat aipatzen da, baita beste hirugarren lagun bat ere.

gabeitia saria leenik irabazi zuen Azkoiti-ko semea, Argarate, Urretxu-ko seme den Euskal-idazle eta olerkari zoragarria: orren lan eder batzu euskal-langilei buruz Goatemala-ko *Euzko-Gogoan* argitarazi nituen. Sarobe, Lesaka-koa, Estrabon-i buruz azterketa sakona eman zuena. Martikorena, emengo azkengerratean Kapellau ari zelarik il zuten Betelu-ko semea. Azpeiti-ko Korta anaiak, Gaztelumendi, geroko eliz-izlari ospatsua. Gutarteko zen Zubiaga, *Zorion-bidea* liburu zoragarria argitaratu-berri duena ta gerraondoko euskal-izlaririk maitatuena ta zuzenena, nik uste. Azken onek liburuxka au irakurri zue-nik enaiz gogoratzen, egia esateko, baina, gu baino urtebete aurreratuagokoa izan-arren, euskaltzaleatasunean iritzi berdineko ginen». Hemezortzi laguneko talde horretan, denak Junioratuko ikaskideak ziren, erdiak urte horretan Erretorikako lehen urtea egiten ari zirenak, hauen artean Andima Ibinagabeitia, Plazido Mujika, Esteban Urkiaga eta Jokin Zaitegi bera, eta beste erdiak, Erretorikako bigarren urtea eta Humanitateak egiten ari zirenak.

Liburu miragarri hori nondik eta nola agertu zen haien eskuetan? Orduko lekuko guztiak ez datoz bat iritzietan. Batzuek diote Andima Ibinagabeitiaren amak sartu zuela Loiolan semeari egindako ikustaldi batean (50); beste batzuek, berriz, aita Apalategi bibliotekariaren laguntzaile izaki, Sagastune izan zela isilpean Liburutegi nagusitik atera zuena (51). Kontua da, eskuz esku ezkutuan zebilen liburu horren berri aita Errandonea ikasketa-buruarengana iritsi zenean, honek estu hartu zuena Jokin Zaitegi izan zela. Honek (1974, 6-7), orduko gertakaria gogoratuz, irakasle gisa hainbeste goratzen zuen apaiz jesuita ospetsu honi buruzko iritzi orokor hau eskaintzen du pasarte honetan: «Arkitu genuen leengo oztopoa gure arduraduna izan genuen, Errandonea gure latin eta eladera irakaslea, alegia. Eztut esker txarreko gizon izan nai. Alare, egiari berea zor diot: ezkenuen arengan elkarrekiko begirunerik arkitu. Salartari-aginpidea zeraman, eta liburuxka ura atzeman zuen: errudun neu egin ninduen. Ark esan zizkidan astakeriek negar onik eragin zidaten: liburuxka ura zela-ta, ogen larririk egin nuela ta abar. Berak uste etzezaken bidez nere burua xuritu aal izan nion, erantzukizun osoa neuk artuta. Errandonea lau eratarazagutu nuen: leenik euskeraren aurkako amorratua, Oxford-etik etorri berri zenekoan. Gero, errepublikaren garaiean, euskeraren eta euskaldunen arteko gertatu zen. Garai ontan Marneffe-ra etorri, dei egin eta parkeske egin zorionka erabili ninduen, Antigone euskeratu ta argitarazi nuela-ta. Elkarrekin izan genuen burutu-ezina inoren errurik gabe gerta zitekela-ta parkeske egin zidan, eta artuta nuen bidea barrena iarraitzeko. Gertatu bear etzitzaigun zoritxarra euskaldunei gertatzerakoan, *Razón y Fé*-n euskaldunen aurka ixuri ziren irainen erantzukizuna izan zezakeen berak, Errandonea bera baitzen aldizkari aren zuzendari. Azkenik, Madridera utzi ta berriro Donostiratu zenean il arte euskeraren eta euskaldunen aldeko iarrari omen zen bearrik. Orrelako gizonak eguz-

(50) Hala dio Iñaki Goenagak, orduan lekuko zuzena izandakoak bere elkarriketan (Sudupe, 2005).

(51) Altuna, Patxi [prest.], 1990, 23.

kia nora, zapia arakoak omen dira gure erritarren ustez». Beraz, oportunismoaren arabera, batean kontrako, bestean aldeko. Ez hotz eta ez bero. Euskal esakerak dioen bezala, «eguzkia nora, hara zapia». Beste batzuek, azkenik, aita Errandonearen jokabide horretan, ez preseski euskal nazionalismoaren kontrako jarrera, erlijioso bizitzako diziplina-arazo soil bat baino ez bide dute ikusiko (52). Hauek, bada, Zaitegiri egozten diote liburutxo hori lagunen artean zabaldu izanaren errua.

Baina lehen aipatutako ikaskide horiek guztiak batera euskaltzaletu al ziren, eta euskaltzaletu, hain zuzen, *Ami vasco* liburuaren irakurketa soilari esker? (Eta, zehazkiago esanda, noiztikoa da Lauaxetaren euskaltzaletzea?

Hor ere iritzia desberdinak daudenez, erantzun zehaztuak ematera behartzen gaitu. Esan izan da Lauaxeta Junioratuan egin zela euskaltzale, batez ere, Jokin Zaitegiren eraginez (Garate, 2003, 13). Ikaskide izan zuen Plazido Mujikaren (1982, 29) azalpena askoz ere zehatzagoa da eta, itxura batean, baita Lauaxeta poetaren izaera aldakorri egokiago erantzuten diona ere: «Azkar azkarra etzen –dio–. Nere ustez mito bat egiten ari dira. Hoiek biak, egia esateko, ez Zaitegi ez Lauaxeta etziren euskaltzaleak etorri zirenean. Hemen euskaltzaletu ziren. Biak ziren erdalzaleak. Gero, gainera Lauaxetak boladak izaten zituen. Euskaltzale su-tsua batzutan ta bestetan epeldu. Zaitegi ez. Zaitegi euskaltzaletu eta gero su-tsua, jo ta ke». Patxi Altunaren iritzia ere ildo beretik doa eta, zehazki Zaitegi eta Lauaxetaren euskaltzaletzeari dagokionez, (nolabaiteko eboluzio bat ezartzen du horien Loiolako epealdian. Zalantzarik ez da Andimari familiatik zertokiola euskaltzaletasunaren garra. Badirudi, hasiera batean, Zaitegi eta Lauaxeta euskararen aurrean txepelduta bezala geratu zirela, hotz bezala, gaztelaniazko poesiaren eta literatura orokorraren distirak lilutatuta. Euskal literaturak geroago bereganatuko ditu, lehenago Zaitegi Lauaxeta baino, eta betiko (53). Harritzekoa

(52) Honela dio, adibidez, A. C lekukoak: «Y dista mucho de la actitud que le atribuye Jokin Zaitegi, más, según mi opinión, por razones de orden disciplinar de vida religiosa, que por ninguna otra razón en el asunto del libro que hizo correr entre sus compañeros» (Patxi Altuna [prest.], 1990, 165-166). (Esanak gara aita Lopetegirentzat ere Zaitegiri Errandonearekin gertatua diziplina-arazo bat besterik ez zela izan, ez inola ere zentsura-neurri bat.

(53) «En los tres o cuatro años que el P. Apalategui dirigió la academia tuvo un puñado de discípulos, tales como Ramón Argarate, Guillermo Larrañaga, Plácido Múgica, etc. Por lo que hace a los Ibinagabeitia, Zaitegui y Lauaxeta de los cursos que van de 1923 a 1926, los tres años de su juniorado, los pareceres están divididos. Mientras ninguno de los coetáneos pone en duda el temprano entusiasmo y dedicación al euskara del primero de ellos, de claros antecedentes nacionalistas en la familia, no pocos se muestran reticentes y aun contrarios al papel impulsor de tales aficiones y al protagonismo que Zaitegui se atribuye, y se declaran claramente unánimes en cuanto a la apatía que mostrara Lauaxeta en el primer momento. Según estos testimonios, uno y otro quedaron al principio deslumbrados por la belleza sin par de la poesía castellana y literatura en general, mostrándose en cambio un tanto indiferentes ante lo euskérico, y sólo más tarde se dejaron ilusionar por la lengua y literatura vascas, antes en cualquier caso Zaitegui que Lauaxeta. Su «conversión» data de todos modos de la época de Loyola, y tuvo en ello no pequeña parte, sobre todo en el caso de Zaitegui, la lectura del libro *Ami vasco* («Biografía», in Patxi Altuna [prest.], 1990, 23).

ere ez da erdal literaturak liluratuta uztea, ez gutxi, agian, atzeritik etorritako irakasle berriek eskainitako (mundu-literatura zabal bezain oparoaren aurrean.

Dena den, azken irakurketa honen arabera, Jokin Zaitegik bere buruari ematen dion protagonismo-irudia zerbait erlatibizatua geratzen bada ere, harren geroko ibilbideak garbi erakusten du bera izan dela jesuiten eskolaren zutabe nagusia. Bestalde, Lauaxetari buruz eman den azalpena ere ezin da erabatekotzat hartu, zeren (egileak berak, («Kirikiño» artikulua aipatuan, Durangon ikasten zegoenean Mañarira egindako bisitaren berri ematen baitu, Loiolara etorri aurreko urtean egin bide zuena. Ordurako, bada, euskaltzaletasunaren hazia ereina zeukan gogoan.

7. NAGUSIEN EUSKARAGANAKO JARRERA

Lehen, Loiolako euskal giroaz jardutean, kolore guztietako ikuspegiak zeudela esan da. Lekuko bat, orokorrean probintzian eta zehazkiago irakasle-taldekoen artean, euskaldungoari buruz ikuspegi desberdinak zeudelakoan dago: «Sobre este grupo operaban las diversas mentalidades dentro de la Provincia de Castilla, que nosotros, desde nuestro estrecho ángulo, podíamos en realidad captar. Quizás existían diferencias en nuestro equipo profesoral... Sabíamos de diferencias en Deusto en tiempos del P. Leza. Nuestro P. Garmendia hablaba con fuerza en toda referencia a la mentalización política de nuestra provincia» (54). Zuhurtzia handiz dio hori, bere esaldian «agian» bat tartekatuz eta aita Garmendiaren aitortzan oinarrituta. Aita Lopetegik (1990, 105) irmotasun gehiago erakusten du bere esanean: «Los superiores locales que conocimos por entonces en Loyola no eran entusiastas de estas medidas, pero cumplieron lo prescrito». Zaletuak izan gabe, agindua bederen bete egin behar. Zentzu horretan uler daiteke aita Bianchi errektoreak, oso erregezale izanda ere, euskaldunak euskaldunekin paseatzera joateko baimena eman izana ikasle gazteei, ez ordurarte bezala hiruko taldeak zozketaz osatuz.

Komunitateko agintaritzan nagusitzen zen jarrera politiko, ideologiko eta linguistikora hurbildu ahal izateko, egunerokotasunaren kutxan ahaztuta geratzen diren anekdota antzeko datu batzuk aipatuko ditut, Loiolako Egunkaritik jasota (55). Izan ere, komunitateko aita idazle on bat izan ohi zen kronistak zein gertakariri ematen zion garrantzia eta zein ezkutatzen zuen ikusiz gero, bertako bizitza ofizialean zein giro arnasten zen gutxi-asko atera daiteke.

Orokorrean komunitate-bizitzako egitarauan sartzen diren gauza xehe eta txikiez ari da Egunkari hau, ikasketa-orduez, elizkizunez, aisialdiez, jai-ospakizunez, aita jesuiten joan-etorriez, eta horrela. Noizbehinka, ordea, agertzen

(54) J. I. lekukoaren aipua, in Patxi Altuna [prest.], 1990, 159-160.

(55) *Diarium Loiolae*, oct. 1919 – oct. 1951

dira ikasleen izen batzuk ere. Lauxetaz haxe dio 1926ko apirilaren 11ko kronikak: asteartez, Donostiako «Hospital Militar»era eramaten dituztela Esteban Urquiaga, Francisco Ibiricu, Eduardo Alonso, Florentino Garcia de Andoin eta Iñarra anaiak. Azken hau, anaia laguntzailea, egun berean itzultzen da beldurtuta; Ibiricu hurrengo egunean; beste hiruak, berriz, 15ean daude bueltan. Antza, soldaduska kontua zela eta, eraman zituzten, gehiagorik gabe. Hurrengo aipamenak, 1926ko maiatzaren 11koak, boto-ematearekin du zerikusia: larunbatez aita espirituala Ramirez Espinosa Vargas eta maisuak «Zabale» baserri-ra joan zirela eta, hara joan aurretik, guztiek –kronistak berak barne–, Primo de Rivera-ren «Plebiscito nacional»aren aldeko botoa eman zutela, esaten da (56). Hemen, bai, garbiago ageri da beren aukera politiko-ideologikoaren nolakoa. «Zabale» baserria, jesuiten santutegitik kilometro t'erdira, Oñazko bidean, gaintxo batean aurkitzen dena da. Izanak gara ikusten eta oraindik ere zutik segitzen du, ez orduan zen bezala, eraberrituta baino. Handik ederki bisitzen da Azpeitiko bailara osoa (57).

Espainiako Errege-erreginek Loiolako komunitatera egin zuten bisita ere zehaztasun osoz kontatzen da. Gertakari honek, duen izaera ofizialagatik eta ematen zaion handitasunagatik, badu bere garrantzi berezia. Etxeko kronistak, «Adventus SS MM Regun Alf. XIII et Victoriae Eugeniae» izenpean, luze deskribatzen du 1926ko ekainaren 20an Alfonso XIII.a erregeak eta Victoria Eugenia erreginak Loiolara egindako bisita. Latinezko testutik itzultzen ditut egun hartako gorabeherak:

«Opor-eguna. Dena beti bezala. Arratsaldeko 4,30etan (ofizialetan; berez 3,30etan) ... [lerro bat osoa ezin da irakurri, janda dagoelako]... etorri ziren Ansolaga eta aita Orosa, eta Nagusi guztiek egin zieten ongietorria Erregeri automobiletik jaitsi zirenean. Handik Paliopcan sartu ziren Basilikan, «con los acordes de la marcha real» (58), eta han debozio handiz errezzatu zuten; gure Erregek, batez ere, errege-maiestatearen itxura hartu zuen. «Serve regem» antifona eta «Marcha de S. Ignacio» (euskaraz) kantatu ondoren, Basilika bisitatu zuen eta berehala Etxe Saindua ikustera joan ziren. Han Sakristian «album» bat aurkeztu zieten gure errege-erregina txit agurgarriei, eta bertan

(56) «Rustication ad Zabale. Adfuerunt P. Spiritualis Ramírez Espinosa Vasrgas et magistri. Ante rusticationem omnes votum “Plebiscito nacional” pro Primo de Rivera dedimus» (Ibid.).

(57) Etxeko Egunkarian askotan aipatzen baita «rusticatio ad/in Zabale» (preposizioak bi modutara emanda), esan dezagun delako «Zabale» baserri hau Oñazko auzoan aurkitzen dela, Loiolako etxetik errepidez bi kilometro eta erdira edo; lehengo bidetik, oinez, gutxiago. Bi bizi-zakoa da, goian teiluan harrizko horma batez zatitua dagoena, sutearen kasuan erreketa ekidete-ko asmoz egina. Baserri hau 1890ean eraikitakoa da eta hiru solairu ditu: ikuilua, etxebizitza eta ganbara. Jesuitek, horren jabe egin zirenean, bere beharretara moldatzeko xedearekin berrikuntzako lan batzuk egin zituzten, hala nola zerbitzurako bigarren solairuan areto bat, baserriaren hormaz baliatuz frontoi bat, eta kapera txiki bat, bere bobeda eta guzti. Egun, baserri-lanetarako ego-kitua izan bada ere, lehengo berrikuntza haien aztarnak agerian daude, zehazki lurreko lauzak eta kaperako kontrahormak, frontoiko ezker paretako zarpeoa, eta abar.

(58) Honela dator jatorrizko testuan, kronistak, antza, latinez jartzeko zailtasunak zituelako.

lehenik gure erregeak ezarri zuen bere izena. Berdin erreginak ere. Errege-erreginaren ondoan zeuden «La Duquesa de Victoria», el «cuarto militar», armadako buruzagiez osatua, hauen artean aurkitzen zirelarik «el Duque de Grove», «General Berenguer», «Ministro de Gracia y Justicia», «Ministro de Guerra», «Duque de Miranda», «General de Marina» [hauek denak horrela gazteleraz emanda] eta, beharbada, beste norbait ere bai. Etxe osoa alderik alde ikusi zuten, aita Errektorea eta beste etxeetako Nagusiak gidari zituztela. Aita Espiritualaren gelan sartu ziren, eta hango gauzen txukuntasunaren handia miretsi zuten. Iritsi ziren –ra [...] (59), sartu ziren lehen gelan, eta pixkanaka-pixkanaka Jantokira hurbildu ziren. Gero «imperiales» edo «de los Papas» deituriko eskaileretatik jaitisiz, gure baratzara joan ziren eta handik Komunitateko Jantokira. Hemen «Tea» hartu zuten, nobizioek eta juniorrek zerbitzatuta. Hemen aski denbora egin zuten. Jantokitik irtetea, Venezuelako Gortesi Nuntzio jaunak bere ohoreak egin zizkion Erregeari, lehenago ezin izan baitzuen «etiketazko» jantziak falta zitzaizkiolako. Bien bitartean, denok zain geunden atarian, errege-erreginaren etorrerako prestatua zegoen lekuan. Agertu ziren bezain laster «Marcha Real»a jo zuten. Errege-erreginak, bien bitartean, tronoan zeuden. «Marcha Real»a bukatu eta gero, aita Errektoreak hitzaldi duin eta bikaina egin zuen, Errege-erreginarentzeko hunkipenez betea. Segidan, anaia Estebanek anaia Gastonek egindako poesia bat deklamatu zuen. Hauek guztiak bukatzean, Erregea bera mintzatu zitzaien guztiei, eta ahoz bihotzean sentitzen zuena adierazi zien. Lagundiari zion maitasuna agerian utzi zuen, laudorioak bota zizkion, eta esker mila emanez bukatu zuen. Erregea hizketan hasi aurretik, Errege-erreginari bi errege-makila oparitu zizkieten, Txinan landuak eta misiolariak hango eskualdeetatik egun horretarako, hau da, Espainiako Errege-erreginarentzat bidaliak. Errege-erreginek ez baitzuten espero horrelako oparirik jasotzea, asko gustatu zitzaien. Honela, behar bezalako duintasunez eman zitzaion bukaera Errege-erreginaren etorrerari. Gauza guztiak burutzean, Erregea zutitu zen eta, «Marcha Real»a kantatu ostean, kanpora irten zen, non herriko jende gehiena baitzegoen zain, eta goraki agurtzen baitzuten txaloka eta bibaka. Automobileran sartu eta berehala urrundu zen. Ospakizun honen ondoren Verdun-era joan ginen, eta han aita Errektorearekin denbora pixka bat egin ondoren, Erregearekin bizi izandako gorabehera batzuez mintzatu ziren».

Goian aipatu den gertakariak agerian jartzen duena da, geroztik ere, Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktadura-garaian, Espainiako monarkiarentzat Loiolak etxe kutuna izanez segitzen duela.

Oraintsu, Patxi Altunak (2005, 53-57), «Loiolako bisitariak» artikuluan, 1844-1870 epealdian zehar Loiolako sangutegia bisitatu edo bertan gogo-jardunak egin zituztenen sinadurak jasotzen dituen albunetako bat aztertzen du eta bertan kausitzen diren hainbat pertsonaia ospetsuren berri ematen. Hor datoz Luis

(59) Testuinguruak erakusten du irakurtezina egiten zaigun hitz bakar horrek etxeko lekuen bat izan behar duela, baina zehazterik izan ez dugunez, bego bere horretan itzulpenik gabe.

Luziano Bonaparte eta W. Van Eys euskaltzaleen izenak, hor Sabino Arana Goi-
riren familia osoarena eta, halaber, Isidro Berriotxoarena, Frai Balentin Berrio-
txoaren aitarena, Pedro Añibarro, Barbier eta Haristoy idazleenak, eta beste ba-
tzenak. Hau irakurrita, hor ezein ondoriorik ateratzen ez bada ere, bistakoa da
Loiolako santutegiak hainbat jende ospetsu erakarri izan duela eta, gainera, mota
desberdinetakak izan direla, sinaduren album horretan egiazta daitekeenez.

Hori guztia hala izanda ere, ezingo da ukatu, bestalde, Loiolak aspaldi-
koa duela bere erregezale-fama. Francisco Rodriguez de Coro historialariak
(1980, 198-200) dakarrenez, Loiola goi-buruzagi karlisten babesleku ispi-
rituala izana da liberalen agintealdian. Karlos VII.ak gutxienik hamabi aldiz bi-
sitate zuen Loiolako komunitatea 1873-1976 epealdian zehar. Azkenekoa,
1876ko otsailaren 14an egin zuen. Lizarraga jeneral karlistak ere urte horre-
tan bertan egin zituen bere gogo-jardunak, baina aurreko hilean, urtarrilaren
8tik 17ra. Errege-bisita horietako batean, 1974ko ekainaren 15/16koan, hain
zuzen, aita Gartziarena jesuitak belusaz forratutako kutxa bat oparitu zien Kar-
los eta Margarita errege-erreginei, errege-armekin apaindu eta erregearen ize-
na urrez bordadutakoa. Era berean, Karlos erregearen ama Maria Beatriz Bor-
bongoak Loiolako santutegirako misal bat oparitu zuen. Oparien harian,
Loiolak Errepublik-aurretik karlismoari lotua jarraitzen duela adierazten duen
beste datu bitxi bat ere bada, aita Lopetegik (1990, 103) ere Egunkarian kon-
tatzen duena. Museo karlista bat antolatzen jardun omen zuen aita Apalategik,
handik eta hemendik gauzak bilduz, hala nola liburuak, armak, pertsonaia des-
berdinen ezaugarriak eta jantziak, Karlos VII.arenak ere bai. Berak orduan bil-
dutako bigarren gerra kaslistari buruzko datuekin, aita Antonio Zavalak *Kar-
listen eta liberalen gerra-kontaerak* argitaratu berri du Auspoa sailean (60).
Lekukotasunen bilketa-lanetan aita Olabidek ere laguntzen omen zion.

Baina Loiolako komunitate zabal eta anitzean ez zen dena politika es-
painolaren aldeko lausengu. Izan ere, komunitateko agintaritzak egun hura
Errege-erreginak lausengatzen pasatu zuen bitartean, ikasle euskaltzaletu ba-
tzuek, Iñaki Goenagak kontatzen duenez, haiei ongi etorria egitera joateko egin
zitzaie deiari uko egin zioten, kanpora hanka eginez: «Gelara abisua, gelto-
kira joan beharra genuela *biba* batzuk esatera. Ezagutzen genuenez geltokiko
morroia jakin genian zer biba ziren: *Viva el general Primo de Rivera, Viva Al-
fonso XIII...* Trena iristen zela, guk mantsoagatik alde egin genian jesuita-etxe-
ra eta abantadan bagindoazela gure errektore Bianchiren *Viva Alfonso XIII* ho-
tsak entzuten genituan» (Sudupe, 2005). Talde horretan ote zen Lauaxeta ere?
Litekeena, zeren artean, 1926ko ekainean, Loiolan aurkitzen baitzen Erretori-
kako ikasketak bukatzen.

Aita Iñaki Goenagak berak beste protesta-ekintza baten berri ere ematen
du elkarrizketa berean, hau ere Sudupek (2005) jasotzen duena, zeinetan ko-

(60) Gara, 2005-X-5, 45.

munitateko Nagusien jokabide politizatua salatzen baita. Gertakari hau 1925. urte-ingurukoa bide da: «Jarri ditek bailarako umeen lehen jaunartzea zela-eta Espainiako bandera handia Loiolako kupula aurreko erlaiztean, tokirik ikusgarrienean. Igo gaituk gauez Andima eta biok eskailera estu batzuetatik kupulara, kendu bandera eta sartu diagu harako trastelekuan. Goizean, bere onetik aterata errektorea, banderarekin zer gertatu zen galdezka». Gerra osteko aktibismo-mota batekin antzekotasun nabaria duen erresistentzi keinu honek, zalantzarik ez da, Loiolako komunitatean giro politizatua zegoela adierazten du. Aipu horrek datarik ez dakarren arren, ezta Errektorearen izenik ere, seguru asko aita Bianchi da hori, bera baitzen 1924-1925 ikasturtetik aurrera kargu hori zeramana. Orixeri buruzko lanean idatzia dudanez, jadanik Comillas-ko bere agintaldian erakutsiak zituen aita donostiar honek euskaldunen kontrako bere fobiak.

Aita Iñaki Goenagak bere zahartzaroan ezagutzera ematen dituen kontu horiek, bere garaian diziplina-hutsegite larritzat hartuak izango ziren horiek, ez zituen jaso etxeko kronistak bere Egunkarian, nahiz, pentsatzekoa denez, bertako guztiek edo gehienek barra-barra erabiliko zituztela. Orduko gazte gordin haien ausardia ere ez zen makala!

8. BUKATUZ

Lauaxeta ikasle jesuita ohiaren ingurumari egindako ibilaldiaren helmugara iritsi eta gero, esan ote daiteke haren sorkuntza poetikoan eragin berezia izan zuela jesuiten pedagogiak? Ni baiezko irmoan nago. Zenbaterainokoa izan ote zen eragin hori? Zaila erantzuten, bizitzan zehar hasierako eragin batzuek ondoko beste batzuekin nahasten direlako. Nolanahi ere, Lauaxetaren sinbolismoak asko du aita Estefaniaren eskolatik hartua. Beste ikaskide batzuek gehienbat klasikotasunaren alorra hautatu eta jorratu zuten bezala, berak, izaera kezkatia hartaraxe areago bultzatzen zuelako, agian, azken orduko korronte estetikoetara beste ikaskideek baino irekiagoa egon zen. Hori bai, beti kristau tradizioari fidelki eutsiz, funtsezkoa zitzaion bizi-arrazoi honetan bateratuz, batetik, JEL (Jaun-goikua Eta Lagi-Zarra) sabindarra eta, bestetik, jesuiten espiritualitatearen AMDG (Ad Majorem Dei Gloriam) sigla. Biak dira osagarriak. Azken puntu hau areago zehaztuz, Jon Kortazarren iritzia da, Lauaxeta «modernista eta kristaua» izan zela, biak aldi berean, Espainian modernitatea, Frantzian ez bezala, sinbolismoaren zentzuan eraibili izan zelako, literaturaren sailean bederen (61).

(61) «*Bide barriak* erromantikoa da, eta *Arrats beran*, modernista (...) Estiloari dagokionez, modernitatearen barruan koka daiteke, edo sinbolismoaren barruan, Espainian modernitatea zenari Frantzian sinbolismoa esaten baitzioten. Lauaxetak sinboloen bidez adierazi zuen errealtatea; beraz, poeta sinbolista izan zen. Iñaki Aldekoak ezetz dio, kristaua zelako, baina poeta modernista asko izan ziren kristau» (Kortazar, Jon, *Berria*, 2005-07-13, 34).

Nik puntu horretaz emana baitut neure ikuspuntua eta, bestalde, eztabaida antzua iruditzen baitzait, ohar batzuk eginez emango diot bukaera gaurkoari.

Lauaxeta idazle modernista dela poeta sinbolista delako, horregatik bakarrik? Bai eta ez. Lauaxetaren baitan Lauaxeta gizona eta Lauaxeta poeta bereizi beharra dagoelakoan nago. Lauaxeta gizona, beronen ikusteko, sentitze-ko eta bizitzeko modua osotasunean hartuta, gerra aurreko euskal gizartean eta, zehazkiago oraindik, EAJn nagusitzen den ikuspegi gutxi-asko kontserbadorean kokatzen da, liberalismoak Europan hartzen duen esanahi sekularitutik aski urruti, eta zer esanik ez ezker joerako sozialismo edota marxismotik, edo liberalismo laikotik. Zentzu honetan ulertutako modernismotik deus ez du Lauaxetaren pentsamenduak. Aldiz, Lauaxeta poetaren sorkuntzan elementu anitz dira Europako eta mundu zabaleko literatur korrante moderno eta garai-kidetik hartuak; baina hartu eta beretzen dituenak, batez ere, literatur formak dira, hots, adierazpen estetikoak. Batak ez du bestea kentzen, nor batengan izaera eta maila desberdineko arazoak bereizten baizik.

Lauaxeta ez dela modernista, modernitatea kristautasunarekin etsai delako, horregatik bakarrik? Galdera honek ere ez du zentzu handirik, ez bederen erlijioen soziologian, zeren mota bateko zein besteko fede-bizipenak, berez eta nahitaez, ez baitauka zertan izan kontserbadurismoaren prototipoa, ez lehen ez orain. Kasu askotan, historian zehar, zenbait kristau mugimendu hainbat gizarte-iraultzaren indar-eragileztat hartuak izan dira. Max Weber-ek ez al zuen ezarri puritanismo kalbinista hasierako kapitalismoak ezagututako garapen azkarraren gizarte-faktore nagusi bezala? Azken batean, ez ideologia hutsen aldarrikapenak bakarrik, baizik gizarte-praxiak dira azterketetan aintzat hartu eta baloratu beharrekoak.

Lauaxeta literatoaz aparte, Lauaxeta (idazleaz, intelektualaz, politikoaz eta, balegoke zertaz mintzatu. Baina hau beste hitzaldi baterako gaia denez, bego gaurkoz.

BIBLIOGRAFIA

- ALTUNA, Patxi (1989): «Orixek Jesusen Lagundian emaniko urteak (1907-1923)», *Euskera*, XXXIV, Bilbo; orobat, in Paulo Iztueta (prest.): *Orixek. Mendeurena (1888-1988)*, *Hitzaldiak*, IV, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia, 1991, 43-86 orr.
- <prest.> (1990): «Biografía», op. cit., 13-26. orr.
- <prest.> (1990): *Jose Maria Estefania Zabala. S. J. (1889-1942). Maestro de vascos*, Mensajero, Bilbao.
- (2005): «Loiolako bisitariak», *Nerekin jaio nun, Txillardegiri omenaldia*, Iker-17, Euskaltzaindia, Bilbo, 53-57. orr.

- ARATXABALETA, B. (1981): «Lauaxetaren Ondartza», *Iker Atalak*, Labayru, 1.
- DURKHEIM, Emile (1982): *Historia de la educación y de las doctrinas pedagógicas. La evolución pedagógica en Francia*, La Piqueta, Madrid.
- ELUSTONDO, M. (2005): «Lauaxetaren mendeurrena: “Goiz eder onetan erail bear nabe...”», *Argia*, 1993, 2005-05-22, 4-7.
- ESTEFANIA, Jose Maria (1931): Lauaxetaren Bide Barriak, *Razón y Fe*.
- ESTORNES LASA, B.: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Literatura, IV, Auñamendi, Donostia, 1997.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia (1983): *La sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko-Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Eusko-Ikaskuntza, San Sebastián.
- Euzkerea*, 1932-03-15, 52. or. «Palankari bati» poeman.
- GARATE, Gotzon (2003): «Lauaxeta Jesusen Lagundian», *Karmel*, 2003, 244, 3-23.
- (2004): «Lauaxetaren alderdi erromantikoa», *Karmel*, 248, 2004, 23-55.
- IBIÑAGABEITIA, Andima (1992): *Bergiliren Unai eta Alor-kantak*, Klasiakoak, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- IZTUETA, Paulo (1991): *Orixe eta bere garaia*, V, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia.
- <prest> (2002): *Testu hautatuak euskal estetikaz. Aitzol, Lauaxeta, Orixe, Utriusque Vasconiae*, Donostia.
- JIMENEZ, Edorta (2005): «Lauaxeta. Centenario del poeta y comandante de gudarís», *Zazpika*, Suplemento dominical de *Gara*, 340, 2005-07-31, 18-25.
- KORTAZAR, J. (2005): «Liburutegia autorearen ispilu», *Argia*, 1993, 2005-05-22, 8-9.
- KORTAZAR, Jon (1990): «Sarrera», in *Antzerkia*, op. cit., 9-27.
- (1982): «Aukeraketa eta itzaurrea», in *Azalpenak 1931-1935*, op. cit., 9-34.
- (1986): *Lauaxeta: biografía política*, Ediciones Alderdi, Zarautz.
- (1986): *Teoría y práctica poética de Esteban Urkiaga*, Lauaxeta, Desclée de Brouwer, Bilbao.
- (1991): «Lauaxeta eta Europako poesia», *Hegats*, 4, 85-90.

- (1995): *Lauaxeta, 1905-1937*, Bidegileak, Eusko Jaurларitza, Gasteiz.
- LOPETEGI, Leon (1990): «Diario», in Patxi ALTUNA, <prest.> (1990), op. cit., 99-112 orr.
- MALLONA LEGARRETA, Agurtzane (1991): «Sarrera», in *Azalpenak eta beste, 1932* (op. cit., 9-41).
- MUJICA, Plazido (1982): «Plazido Mujikari elkarrizketa», *Argia*, 944, 1982-09-12.
- ONAINDIA, Santi (1974): «Urkiaga'tar Estepan'en bizi-urratsak», in *Lauaxeta: Olerkiak*, Etor, Donostia.
- <prest.> (1985): *Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta», Olerki guztiak*, Bilbao.
- ORMAETXEA, N. «ORIXE» (1950): «Satsi edo balanka», in *Euskaldunak liburuan*, Itxaropena, Zarautz, 45-57 orr.
- PENADES BILBAO, Josu (1996): *Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinesmena: kulturaren eta sinesmenaren arteko elkarrizketarako elkargia, solidaritza bizi-arrazoi*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao.
- RODRIGUEZ DE CORO, Francisco (1980): *Guipúzcoa en la democracia revolucionaria*, CAP, San Sebastián.
- RUIZ ARZALLUS, Iñigo <arg.> (1992): «Sarrera», in *Bergiliren Unai eta Alor-kantak*, op. cit., VII-LIX.
- SUDUPE, Pako (1997): *Andima Ibinagabeitia (1906-1967)*, Bidegileak bilduma, Kultura Saila, Eusko Jaurларitza, Gasteiz.
- (2005): «75 urtera handikiak erdaldun», *Berria*, 2005-06-27
- URKIAGA, E. «LAUAXETA» (1931): *Bide barriak. Nuevos rumbos*, GEU, Bilbao.
- «LAUAXETA» (1932). «Palankari bati» poema, *Euzkerea*, 1932-03-15, 52 or.
- «LAUAXETA» (1974): *Olerkiak*, Etor, Donostia.
- «LAUAXETA» (1982): *Azalpenak 1931-1935*, Labayru, Bilbao.
- «LAUAXETA» (1985): *Olerkiak*, Erein, Donostia.
- «LAUAXETA» (1990): *Antzerkia, Klasikoak*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- «LAUAXETA» (1991): *Azalpenak eta beste, 1932*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari (1981): *Iokin Zaitegi*, Arrasate

ZAITEGI, Jokin (1974): «Urkiaga eta biok. Sarrera bezala», in Lauaxeta: *Olerkiak*, Etor, Bilbao, 5-9. orr.

ZORRILA, J.A. (zuz.); AMIGO, A.; BERNAOLA, K.; GARCIA GALISTEO, Jose: *Lau haizetara. A los cuatro vientos* (Bideoa), Euskadiko Filmategia, Donostia.

ZUBIKARAI, Agustin (1981): *Non-daka*, Geu, Bilbao.

NAFARROA OINEZ, 2005

Altsasu, 2005-IX-23



ONGIETORRIA

*Luciano Agirre Goikoetxea,
Sakanako Mankomunitateko lehendakariordea*

Arratsalde on, guztioi:

Lehenik eta behin, eta Sakanako gainontzeko hautetsien izenean, eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari Sakanan bere ohiko bilera bat egiteagatik, eta gaurko hitzaldi sorta interesgarria antolatzeagatik. Era berean, ongi etorria eman nahi dizuet hitzaldi hauetara etorri zareten guztioi, eta eskerrak eman antolaketan parte hartu duten guztiei.

Gure erakundeetako helburuetako bat eskualdeko euskararen normalizazioa da. Helburu horri jarraiki, oso inportanteak dira Sakanako euskararen eta kulturaren ondarea jaso eta gizarteratzeko ekimenak. Alde horretatik, Sakanako euskarari eta kulturari loturiko izen handiak ditugu Jose Maria Satrustegirena eta Juan Goikoetxearenak, lan handia egin baitute alor horietan.

Beraz, Sakanako hautetsiendako eta oro har sakandar guztiendako ohore handia da bi euskaltzain horien bizitzari eta lanari buruzko saioak aditu ahal izatea. Halaber, azpimarratu nahiko nituzke Maria Floresek eta Koldo Zuazoren lanak, Burundako testigantzak jaso eta ikertu dituzten aldetik, egoki eta zuzen.

Ohorea da guretzat horrelako lanen berri izatea, are gehiago, aurtengo gure eskualdean eginen den *Nafarroa Oinezaren* ekimena den aldetik. Ohorea bikoitza da, beraz.

Eta, besterik gabe, Euskaltzaindiko burua den Andres Urrutiari emanen diot hitza.

NAFARROA OINEZ, 2005

Agurra

*A. M. Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Arratsalde on guztioi:

Beste behin ere, Euskaltzaindiak bat egiten du Nafarroako ikastolekin, *Nafarroa Oinez* ekimenaren bitartez. Altsatsuko herriak hartzen gaitu aurten, *Iñigo Aritza* bertoko ikastola ere ikusteko aukera izan dugula.

Askoren ustez, bisita hutsa izan daiteke urtero-urtero *Nafarroa Oinez* antolatzen duen ikastolari egiten dioguna. Gure Erakundearentzat, oster, abagune ederra eta aproposa izaten da urtean zehar Nafarroan egiten dituen hamaikatxo lan, bilera eta ekintza berresteko eta erakusteko.

Izatez, Nafarroa da Euskaltzaindiaren helburu nagusietariko bat; bide beretik ere, Nafarroan garatzen du Euskaltzaindiak bere ekinaren alderdi garrantzitsua, hain zuzen, egun zuen aurrean plazaratzen dena, gure Erakundeari ezinbestekoa baitzaio Nafarroan euskararen irakaskuntza sustatzea eta bultzatzea. Horien artean, zalantzarik ez, ikastolak joan diren berrogei urte hauetan egiten ari diren lan eragingarria.

Ez da, horratio, honako hau Euskaltzaindia Altsasura datorren lehen aldia. Izan ere, uda honetan gure artetik joan zitzaigun Aita Ondarra euskaltzainak hemen egin zuen bere sarrera-hitzaldia, Kaputxinoen konbentuan, orain dela hamalau urte. Zehatzago esanda, 1981. urteko martxoaren 22an. Gaia izan zuen Aita Polikarpok –hura ere euskaltzain osoa eta kaputxinoa– zituen euskal eskuidatzi zaharren aurkezpena. Berak bete zuen, hain zuzen, Aita Polikarporen heriotzak Akademiaren barruan utzi zuen lekua.

Haren aipamenak gogora dakarkigu Sakanako beste euskaltzain nafar batena, hain juxtu ere, Jose Mari Satrustegirena. Badakit Altsasuko ikastolak aspalditik hartu duela Satrustegiren bandera. Hortaz ere, gure goresmenak eta eskerrak, elkarrekiko lana onuragarria baita beti euskalgintzaren esparruan.

Aurrera doaz ikastolak, aurrera eraman nahi dute euskara, nafarrek betidanik izan duten hizkuntza ere aitzina joan dadin. Jakin bezate langintza horretan Euskaltzaindiaren laguntza eta bultzada dutela eta izango dutela.



Ez dezadan, alabaina, nire hitzalditxo hau larregi luza. Hemen dira jada arratsalde honetan hizlari izango ditugunak. Hasteko, Andres Iñigo euskaltzain osoa mintzatuko zaigu Juan Goikoetxea apaiza eta euskaltzain urgazleari buruz, arbizuarrek ongi gogoratuko duten euskaltzale fin eta zorrotzaz; horren hurrengo, Patxi Salaberri euskaltzain urgazleak Satrustegiren zereginak gogoratuko dizkigu; gero, Koldo Zuazo unibertsitateko irakasleak Burundako euskararen ezaugarriak xehetuko ditu eta amaitzeko, Maria Flores, bigarren hekuntzako irakasleak, hitz egingo digu Sakanako basolangintzari buruz.

Artean, musika emanaldi laburra izango dugu eta ekitaldia ixteko, Polentzi Goikoetxea, *Iñigo Arista* ikastolaren lehendakariordeak, agurra egingo du.

Eskerrak, beraz, Altsasuko herriari eta bere Udalari, gaur goizean Udaletxeko batzar aretoan egin baitugu hilabete honetako Euskaltzaindiaren osoko bilkura.

Orain hizlariak dute hitza.

Andres Iñigo euskaltzainkidea, zu zara lehena...



AGURRA

*Polentzi Goikoetxea,
Iñigo Aritza Ikastolako lehendakariordea*

Euskara eta euskal kulturaren aldeko lana izanik *Iñigo Aritza* gure ikastolaren jardueraren ardatza, ohore handia izan da guretzat gure hizkuntzaz arduratzen den Erakunde gorena gaur gure artean izatea, *Nafarroa Oinez*, Nafarroako ikastolen jai nagusiari bere babesa eta laguntza eskainiz.

Eskerrak eman nahi dizkizuet, hitzaldiak eskaini dizkiguzuenoi, Andres Iñigo, Patxi Salaberri, Koldo Zuazo eta Maria Flores, gaien edukia eta hurbiltasuna direla eta, biziki interesgarriak gertatu zaizkigulako zuek esandakoak.

Honekin batera, aipatu nahi dut baita ere, 2005eko *Nafarroa Oinez*-en Jose Maria Satrustegi euskaltzain, antropologo eta etnografo sakandarra omen-du nahi izan dugula, Nafarroan euskararen eta euskal kulturaren alde –eta bereziki ikastolen alde– izan duen lotura estua dela eta. Gure ikastolako hainbat ekintzatan –zuzenki zein zeharka– esku hartu zuen eta ospakizun hau gure eskerrona adierazteko une egokia dela, iruditu zaigu. Proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko ezinbestekoak gertatu zaizkigun Andres Iñigo eta Patxi Salaberriri gure eskerrik zintzoenak, zuen eskuzabaltasuna eta laguntza eskaintzeagatik.

Eta ekitaldiari amaiera emateko eskerrak eman nahi dizkiot *Iñigo Aritza* Ikastola osatzen dugun guztion eta *Nafarroa Oinez* 2005aren izenean Euskaltzaindiari, bere iraileko ohiko bilkura eta ekitaldi hau Altsasun ospatzeagatik; eta bide batez esan, noski, gonbidatuak zaudetela, guztiok, datorren urriaren 16an, *Olazti* eta *Ziordia* artean prestatutako ibilbidean egingo den *Nafarroa Oinez* 2005era.

Hantxe ikusiko dugu berriz elkar denok. Ongi izan eta mila esker.

JUAN GOIKOETXEA ZABALO, EUSKALTZAIN URGAZLEA, JAIO ZENeko MENDEURRENEAN

Altsasuko **Iortia** Kultur Gunea-n,
2005eko irailaren 23an

Andres Iñigo,
Euskaltzaindiaren ordezkaria Nafarroan

D. Juan Goikoetxea Zabalo, Larraun ibarreko Lezaeta herrixkakoa zen, Ualdea izeneko etxekoa. 1905eko azaroaren 18an (1) jaio zen eta Donostian hil 1973ko ekainaren 30ean. 1965az geroztik euskaltzain urgazle izan zen. Hori dela eta, Iñigo Aritza Ikastolak Nafarroa Oinez 2005 inguruko ekitaldietara gonbidatuta, Euskaltzaindiak Altsasun egin duen osoko batzar egunean gogoratu nahi izan du 40 urtez Arbizuko erretore izan zen Juan Goikoetxea euskaltzain urgazlea bere jaiotze urtearen mendeurren honetan.

Aldez aurretik, aitortu behar dut ez zaidala erraz izan zenbaitek «idazle argia» izan zela dioten euskaltzain urgazle honetaz informazioa jasotzea.

Zenbait liburu eta aldizkaritan informazio urria aurkitu ahal izan dugu. Erraterako, *Nafarroako euskal idazleak* (2) bi liburukietan ez da aipatu ere egin. Jose Mari Jimeno Juriok *Navarra. Historia del Euskera* (3) liburuan ez dakar bere aipamenik, ez gerra ondoko euskararen berpizkunde aroa tratatzen duenean ezta Nafarroa Garaiko eta Behereko euskaltzain oso eta urgazleen zerrendan ere. Jose Mari Satrustegik *Euskera* aldizkarian idatzitako hilberrian (4) hogeitaz eskaini zizkion. Santi Onaindiak *Euskal Literatura* (5) lanean egin duen aipamen xumea J. M. Satrustegik idatzitako hilberri laburraren laburpena da. Jon Bilbaok ere Satrustegiren hilberria besterik ez du aipatzen. Nafarroako Aurrezki Kutxak 1990ean hamaika aletan argitaratu zuen *Gran*

(1) Bere aita Martin Goikoetxea, Intzakoa zen eta ama Estefania Zabalo, Azpirozkoa. Aitaren aldeko aiton-amonak, Jose Maria Goikoetxea eta Maria Mikaela Otamendi, Intzakoak; amaren aldeko aitona, Juan Bautista Zabalo, Azpirozkoa eta amona, Maria Mikaela Olaetxea, Lezaetakoa. (Azpirozko parrokiako Bataio Liburuko 3. aleko 151. orrialdetik jasoa).

(2) *Nafarroako euskal idazleak I*, Jose Maria Larrea & Pedro Diez de Ultzurrun, Pamiela, 1987; *II*, Jose Maria Larrea, Pamiela, 1995.

(3) *Navarra. Historia del Euskera*, Txalaparta, 1997.

(4) Hil berriak atala. «Juan Goicoechea Zabalo (1905-1973)», *Euskera* XIX, 1974, 438. or.

(5) *Euskal Literatura*, V, 915-1940, Bilbao, 1977, 399-400. orr.

Enciclopedia Navarra (6) obrak eskaintzen dizkion bizpahiru lerrotan dioen bakarra da Arbizuko erretore izan zela eta *Príncipe de Viana* aldizkari gehigarrian euskaraz idazten zuela. Bere euskaltzetasunaz fitsik ez. Joxemiel Bidadorrek iaz argitara eman zuen *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra* (7) sei lerro eskaintzen dizkio. Eta horietan, batetik dio Gasteizen egin zituela apez ikasketak –han bakarrik bi urte egin zituen–, eta bestetik «sus colaboraciones en el Suplemento (*Príncipe de Viana*-n) solían ser crónicas informativas de lo acaecido en la villa barranquesa» –gero ikusidugun bezala, ez da informazio zuzena–.

Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian bi aipamen besterik ez dugu aurkitu. Bata Donostiako Diputazioan 1965eko irailaren 24an egindako bilkura-ko akta, non Juan Goikoetxea jauna euskaltzain laguntzaile edo urgazle izendatu zuten beste 31rekin batera, horien artean, Patxi Altuna, Jean Louis Davant, Karmelo Etxenagusia, Rudolf de Rijk, etab. Bestea, lehen aipatu dugun J. M. Satrustegiren hilberria. Arruazuarrak laburki egindako iruzkinean ageri diren ideia eta balorazioak bat datoz D. Juan ezagutu zutenengandik jaso ditugunekin. Honako hauek dira:

- Buru oso argikoa eta bihotz zabalekoa.
- Euskal nortasunean Nafarroako apezetatik jatorrenetako bat. Beregan aurkitu izan dute beti Sakanako apezkideek kontseilari jatorrena.
- Euskaltzale kementsua. Euskararen aldeko lan sakonaren lekuko Arbizuko herria da.
- Euskaltzaindiko laguntzaile eta zazpi-zortzi urtez *Príncipe de Viana* euskal aldizkarian elizako gaiez idazle.

Antzekoak izan ziren D. Juan zendu eta hurrengo egunetan beste zenbaitek idatzi zituztenak. Felipe Araña arbizuarrak (8), *Diario de Navarra*-n «Eskerrik asko Don Juan» izenburuko artikuluan herriaren alde egin zuen lana azpimarrazten du. Fermin Ixurko uitziarrak, egunkari berean eta *Príncipe de Viana* aldizkarian argitara eman zuen «Larraundar prestu bati, agur!» artikulua eskaini zion (9). Bertan dio Orixeren eragina sumatzen zuela Goikoetxearengan eta Orea eta Lezaeta (10) herrixketatik ateratako bi gizon handi hauek goraiatzen ditu.

Hau izan zen, gutxi gorabehera, hasiera batean aurkitu ahal izan genuena. D. Juanen euskararen aldeko lanaz zertxobait gehiago jakin-nahian bera ezagutu zutenengana jo genuen, apezengana bereziki. Horietako gehienek –eta badira franko oso hurbiletik ezagutu zutenak–, gezurra badirudi ere, zer eta

(6) *Gran Enciclopedia Navarra*, Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea, 5. zenbakia, 366. or.

(7) *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra*, Pamiela, 2004, 277. or.

(8) «Eskerrik asko Don Juan», *Diario de Navarra*, 1973-VII-13, 23. or.

(9) «Larraundar prestu bati, agur!», *Diario de Navarra*, 1973-VII-13, 23. or.; *Príncipe de Viana*, 1973ko uztaila–agorrila, 2. or.

(10) Ixurkok agiri zaharretan ageri den *Lezeta* izena erabiltzen du.

non idazten zuen ere ez zekitela erantzun ziguten. Beste batzuei esker informazio edo agiriren bat edo beste eskuratu ahal izan dugu (11).

Goazen, bada, Juan Goikoetxearen bizitza eta lana hurbilagotik ikustera.

Ez zuen, zenbaitek dioten bezala, apez ikasketa osoa Gasteizko Seminarioan egin. Sei urte zituela, Toloserriko Ikaztegieta herrira eraman zuten, Benito Ijurak dioenez (12), han zuen osaba apezaren etxera. Hamar urte betetzear zegoela Andoaingo Seminario Txikian sartu zen. Ikastetxe honetan bost ikasturte egin zituen. Ondoren, Filosofiako bi Gasteizen, lehendabizikoa Agirre apezgaitegian (13) eta hurrengoa Seminario Conciliar (14) delakoan. Handik Iruñeko apezgaitegira (15) joan eta bertan Teologiako lau lehendabiziko ikasturteak egin zituen (16). Azkenik, Teologiako bosgarrena eta Zuzenbide Kanoniko-ko ikasturte bat Zaragozan burutu zituen (17). 1928ko martxoan, 22 urte besterik ez zituela, apeztu zen (18).

Apeztu eta bi hilabete geroago, 1928ko maiatzean, Ultzamako Ilarregi herrixkara igorri zuten. Bost urte geroago, 1933an, Arbizura erretore. Azken honetan 40 urte egin zituen, 1973an hil zen arte.

Euskararen alde egin zuen lana hiru ataletan sailka genezake:

1. Arbizu herrian euskara eustearen alde egindakoa.

(11) Bereziki aipatu nahi ditut eta eskerrak eman. Felipe Araña, fraidea, Arbizuko semea; Joxe Mari Aleman, leiztarra, Azpirozko erretorea; Emilio Lintzoain, eugiarra, Orreagako kalonjea; Basilio Sarobe, lesakarra, Sunbillako erretorea; Migel Angel Sagaseta, iturendarra, Urdiaingo erretorea; Juan Mari Madoz, Arbizuko bikario ohia eta egun Baraibarko erretorea; Jose Luis Sales, Iruñeko elizbarrutiko artxiboko arduraduna; Kike Diez de Ultzurrun, *Príncipe de Viana* aldizkariaren zuzendari izan zen D. Pedoren semea; Milagros Goikoetxea, D. Juan zenaren iloba.

(12) «D. Juan Goikoetxea'ri Arbizuko erriak», *Arbizu* izenburuko aldizkaria (herrian bertan egin zen zenbaki berezia eta bakarra), 1974.

(13) Seminario Eclesiástico de Aguirre.

(14) Seminario Conciliar de San Prudencio y San Ignacio de Vitoria.

(15) Seminario Conciliar de Pamplona.

(16) Garai hartako ohituraren arabera, Iruñeko elizbarrutiko *Boletín Oficial Eclesiástico* delakoan urtero argitaratzen ziren apezgaien emaitzak. Juan Goikoetxea Zabalok teologiako ikasgai guztietan *Meritissimus* lortu zuen (Ikus aipatutako aldizkari ofizialeko 1923. urteko 191. or, 1924ko 300. or, 1925eko 389. or. eta 1926ko 488. or.). Gasteizko apezgaitegitik Iruñekora igorritako Filosofia ikasketetako espedientean ere ikasgai guztietan *Meritissimus* lortu zuen.

(17) San Francisco de Paula apezgaitegian.

(18) 1925ean, Eguberri aurretik hartu zituen «Ordenes Menores» direlakoak. Urte bat geroago, 1926ko abenduan, egin zen Subdiakono (Zaragozan), 1927ko abenduan Diakono (Zaragozan) eta 1928ko martxoan apez (Iruñean). Apez egiteko 22 urte besterik ez zituen gero, baimena eskatu behar izan zuen. Iruñeko gotzain zen Mateo Mujikak 1928ko martxoaren 6an sinatu zuen baimenak honela zioen:

Dispensamos al orador D. Juan Goicoechea Zabalo, diácono, del tiempo necesario para poder recibir el sagrado orden del Presbiterado, siempre que haya aprobado los cursos de Sagrada Teología previstos por la Iglesia, ejerza el Ministerio bajo la dependencia de un sacerdote de edad «profecta» y no se le conceda desde el principio licencia para oír confesiones, señaladamente de mujeres, sino en caso de necesidad «servatis in reliquis de jure servandis» (Archivo Diocesano de Pamplona. Expedientes de órdenes, caja 752, 1).

- Hori da lehen aipatu ditudan F. Araña, F. Ixurko, J. M. Satrustegi eta abarrek gehien baloratu zutena hil zenean. 24 urte geroago ere, Jo-xemari Murua Goñi jaunak (19) *Diario de Navarra*-n «Arbizu'ko Don Juan» izenburuko artikuluan honako hau zioen: «Beti esan izan da, Arbizu'k D. Juan'i esker eutsi ziola euskarari ... inguruko errietan atzerakada galanta egin zuen bitartean».
- Ildo bereko lekuko bitxia dugu Lekunberrin elkartzen zen –eta oraindik ere elkartzen omen den– apezan San Pedroren Anaitasunako (Ermandadeko) kideek 1973ko uztailaren 17an egin zioten hileta mezan Emilio Lintzoainek sermoian errandakoa. Hona hemen pasartetxo pare bat (20): «Don Juanek adimenez, oroimenez, jakinduriz, burua oso ongi orniturik zauken. Ala ere, etzuen jauregietara jo, baizik erri apalaren artean bere bizi guzia pasatu du» (21). Eta aurreraxeago dio: «Jesukristo bere erriaren izkuntzan mintzatu zen. Ez dugu uste latin edo elendarra ibili zuenik. Don Juan ere bere erriaren izkuntzaz –euskeraz alegia– geienean baliatu zen. Nik ezagutu nueneko, Don Juanen baitan gauza berexi eta aipagarri bat nabaritu nuen, «rara avis» denbora aietan. Don Juanek bere lagun apezai ere euskeraz zuzentzen zigun bere itza, naturaltasuneikin, alardetik egin gabe».
- Arbizuarrak, Don Juan zendu zeneko lehenbiziko urteurrenean, *Arbizu* izeneko aldizkari berezi bat argitaratu zuten. Bertan Benito Ijurrrak dio, Goikoetxeak erakutsi zuela euskaraz «erdaraz bezein ongi ta obeki ta gozoago esan ditezkeela egi ederrenak», eta horregatik «Arbizuko jendeari euskera atsegin izan dakio» eta arbizuarrak «euskera gauza aunditzat irui ta maitatu dute» (22). Santiago Urkiak beste artikulua batean honela zioen:

«escribo estas breves líneas para agradecer a D. Juan lo mucho que hizo en pro del Euskera al que no dejó morir como otros lo hicieron». Eta aurrerago: «Gracias a D. Juan nuestro Arbizu ha podido y débese sentir orgulloso de haber conservado, a pesar de las vicisitudes y contratiempos, su rico euskera. ¿Quién no recuerda sus enseñanzas transmitidas a través de su palabra sencilla, a la vez que robusta y suave? Desde los primeros pasos que nos acercaron a la preparación del catecismo y en todas sus pláticas supo aprovechar el medio de comunicación más adecuado para llegar al alma de los arbizuarras, el euskera» (23).

(19) «Arbizu'ko Don Juan», *Diario de Navarra*, 1997-X-10.

(20) Egileak berak emandako sermoiaren kopia hartutako pasarteak.

(21) Iruñeko parrokia bat baino gehiago erriak zioten, baita maila altuagoko karguren bat, baina berak, nonbait, ez zuen herri euskaldunetik atera nahi izan.

(22) «D. Juan Goikoetxea'ri Arbizuko erriak», *Arbizu* izenburuko aldizkaria (herrian bertan egin zen zenbaki berezia eta bakarra), 1974.

(23) «D. Juan Goikoetxea y el euskera en Arbizu», *Arbizu* izenburuko aldizkaria (herrian bertan egin zen zenbaki berezia eta bakarra), 1974.

- Aipagarria da *Príncipe de Viana* aldizkariak 1974ko maiatzeko zenbakiaren lehenbiziko orrialdean argitaratu zuen «Euskara parroketan» artikulua. Hizkuntzaren iraupenerako Elizak duen garrantziaz ari da, eta artikulua horren egile anonimoa deitoratzen hasten da herri batzuetan, apezten utzikieriatik, euskarak izan zuen atzerakada. Baina aurrerago dio: «apaiz danak ez dira olakoak ... Behin gure euskal erri egitazko bat ezagutzeko gogoia neukan. Arbizu euskal erri jatorra zela erran zidaten; pozik joan ere. Izen aundiko erretora zeukatzen, Juan Goikoetxea. Euskaltzale amorratua genuen, idazle argia ta apaiz ziñezkoa ... Don Juan'ek garbi asko erran zidan: “Guk Kristau-ikasbidea danok emen euskaraz egin izan ba'genu, Sakana'n (Barranka'n) gure izkuntza etzan galduko”» (24).
- Urte franko lehenago, Sakanatik urrutixeago ere izan zuten D. Juan euskararen alde egiten ari zen lanaren berri. Euskaltzaindiko artxiboan guk nahi baino informazio gutxiago aurkitu dugun arren, bada Azkue liburutegian gutun interesgarri bat: Juan Goikoetxeak 1956ko abenduaren 12an Norbert Tauer jaunari Pragara igorri ziona. Ikusten denez, Tauer-ek Goikoetxeari idatzitako baten erantzuna da. Erantzun gutun horretan, laburra bada ere, ongi eta argi ageri da zenbaitek aipatu dituguten Goikoetxearen izaera. Laburra denez gero, irakurri egingen dut:

Arbizutik Abenduaren 12^a 1956
Tauer'tar Norbert Jaunari
Pragan.

Nire jaun agurgarí ori, agur: Lotsa-lotsa egiñik naukazu zure idazki xamur ta ugariakin, ez naiz idazle, nagia nazu lankide otarako, aiean-aiean borxatu nauzu, ordea, erantzutera. Nire luzapen au azketsi, ařen.

Euskeraren alde zerbait egin dutela ta, ala ikasi duzula ta Amerikar izpaíngi batetik ta, besterik gabe idatzi diazu Pragatik, afiturik utzi nauzu, afiturik eta atsegiñez beterik, nundik eta Pragatik... atzefitar batek... lendik ere zure idazlan jatoraz ezagutzen zenitudan, baño ain gure genizunik ez nuen uste, zorionak bada zuri euskaldun ok ta gure izkuntz zar onek gartsuenak damaizkizu.

Emen nik egin dutena utsa da, ots, denok egin bear giñukena, euskaraz mintzatu, denakin, aufakin batez ere, ta Jaungoikoarekin euskeraz mintzatzen erakutsi ta besterik gabe ala jarduten dute, datozen atzeritafak berekin jolastekotan bearko ikasi, bi ilabetetarako lardaskatzen asten dira, urterako jatof.

Nire lantxo ori aipatu bear izatera tamalgarí zait, beste hainbeste gañerakoak ezdagitelako baita. Zapuzten ta baztartzen dijoakigu gure itzkuntza efi xean arlotetzat jotzen da, naiz jakitun ta letradu batzuk ikasteari eman.

(24) «Euskara parroketan», *Príncipe de Viana*, 99, 1974ko maiatza, 1.or.

Olako ilunbetan argi bat ytxekoa agertzea, atsegin ta txalogarí zaigu ta bide ortatik luzaro jafaitzea opa dizut, poz pozik senidetako jotzen zaitugu.

Nire moldakaizkeria azketsi befiz ere, Gabon zoriontsuak igaro ta agindu zure otsein oni.

Goikoetxea'r Jon

2. Itzulpenak.

Alor honetan erreferentzia izan zen Nafarroako elizbarrutiko lanetarako. 1965eko udaberrian liturgia gaiak euskaratzeko osatu zen batzordekide ageri da (25).

Garai hartako zenbait itzulpen bereak direla diote, erraterako Gene-siarena non Adan eta Ebaren arteko elkarriketa toka eta noka egin zuen. Geroago ere elizbarrutien arteko itzulpen lanetan parte hartu zuen. Basilio Sarobe, Sunbillako erretorea, aritu zen buru-belarri egitasmo horretako koordinazio lanetan. Sarobe jaunak, dena artxi-batzeko ohitura ona duenez gero, gorderik dauka lan horretan Juan Goikoetxeak 1969an egindako zatia. Berea dela dio «Ordenación general del leccionario de la misa» delakoaren sarreraren itzulpena. Itzulpen horrek argi erakusten du Goikoetxearen euskal sena. Sen horren lekuko gisa irakurriko ditut, gehiegi ez luzatzearen, itzulpen lan horren hasiera eta amaiera. Aipatu dugun izenburua, hots, «Ordenación general del leccionario de la misa» honela eman zuen euskaraz, *Mezaren irakurgaiak moldatzeko era*. Amaieran gaztelaniazko testuak dioen «En el aleluya y en el verso anterior al Evangelio predomina el sentido de aclamación, de grito entusiasta a la Palabra del Señor que va a escucharse como culminación de las lecturas» esaldi luzea honela sintetizatu zuen *Ebanjelio aurretik Alleluia edo bertsoa gorasarre ta poz-irrintzia da Jaunaren Itza entzuteko, irakurgaien pesta buru*. «Recitado pierde sentido» *Irakurri utsarekin gatzik ez du*.

Elizkizunetan erabiltzen ziren beste zenbait testu ere berak itzuliak direla diote (26).

(25) «Comisión para la versión al vasco de los textos litúrgicos» hartarako honako bost kide hauek izendatu zituzten: Blas Fagoaga, Seminarioko irakaslea, eta lau erretore hauek: Juan Goikoetxea, Arbizukoa; Eugenio Ulaia, Uitzikoa; Esteban Irigoien, Arantzakoa eta Jose Mari Satrustegi, Urdiaingoa. Ik. *Diario de Navarra*, 1965-III-06. Urrats honen berri eman zuen Jose Mari Satrustegik 1965-IV-30ean egindako Euskaltzaindiaren osoko bilkuran. Bilkura horretako aktak Satrustegiren ahoan honako hau jartzen du:

Nafarroan euskal-liturgiaren gora-beherak lehen ilun ikusten zituenak bide onean doazela orain eta Urmenetari esker bideratu dela. (*Euskera*, XIII, 304. or.).

(26) Hala nola, Tomas Otxandorena, Saldiasko erretorearen ustetan «XII Pio Aita Santuak Andre Mariaren urterako egin dun Otoiiza»ren itzulpena, etab.

3. *Príncipe de Viana* aldizkarian idatzitakoa.

Hasieran aipatu dugu zail egin zaigula Goikoetxearen lanaren aipamenak eta testigantzak lortzea. Berak idatzi omen zuen aldizkarietara jo ondoren ere arazo berberarekin egin dugu topo. Zer dela eta? Ez zituelako inoiz sinatzen egiten zituen lanak, ez itzulpenak ez artikulua. Erraterako, *Príncipe de Viana* aldizkariaren zenbaki bakar batean ere ez dugu aurkitu bere sinadurarik. Idazten zuela, ordea, kontu jakina da. Bera zendu eta hurrengo alean honako hau zekarren aldizkari horrek «On Juan Goikoetxea, Arbizu'ko Erretora, gizon guztiz ona, euskaltzale bikaiña il zaigu. Gure euskal aldizkari ontan, aspaldian anitz idatzi zuen Erlijio ta Elizari buruz». Horretaz gainera, urte horretako urriaren 28an *Príncipe de Viana*-ko Euskararen Aldeko Sailak (27) Arbizun omenaldia eskaini zion. Bertakoek seme kuttun izendatu eta elizaren sarrerako atearen ondoan dagoen oroitarrian honako hau jarri zuten «erri ontako kristau sinesmenari euskeraren bidez eutsi zion». Ezponda diputatuak oroitarri horren oihala kendu zuenean hitz hauek erran zituen «Juan Goikoetxea zana, Larraun'go euskaldun zintzoa, zainetako kristaua, berrogei urtez Arbizu'ko apaiz bikaiña, *Príncipe de Viana* aldizkarian asieratik idazle, Euskaltzaindiko laguntzaille, benetako euskaltzalea ospatu nai izan dugu; ar dezagun bere jarrai-bidea. Aurrera euskerarekin!».

Beraz, baditugu garai hartako hiru lekuko (aldizkaria bera, Ezponda diputatua eta J. M. Satrustegi) bat datozenak, Goikoetxeak aldizkariaren hasieratik idatzi eta lantzen zituen gaiak erlijioa eta eliza zirela aipatzen dutenak. Inolako zalantzarik ez dago *Príncipe de Viana* aldizkarian Juan Goikoetxearen atala «Elizaren itza» zela. Vatikanoko II. Kontzilioaren Batzar Nagusiaren inguruko gaiak lantzen zituen: Elizaren «agiomendua» eta batasuna, kristauen batasuna, Vatikanoren ondorioak, Eliza gaurko munduan, etab.

Hasieran aipatu bezala, Bidadorrek dio D. Juanek aldizkari horretan «crónicas de lo acaecido en la villa barranquesa» idazten zituela. Gauza jakina da Arbizuko berriemaileak bertako Felipe Araña, Benito Ijurrea, Jexux Razkin eta besteren bat izan zirela. Oker dago horretan eta oker «Elizaren itza» atala Ibarrondorena dela dioenean ere. Urte askoz Amaiurko erretore izan zen Jazinto Sanziñena Etxenike jaunak (28) Ibarrondo ezizenez sinatzen zituen bere lanak. «Elizaren itza» atalean

(27) Sección para el Fomento del Vascuence.

(28) Jazinto Sanziñena Etxenike Arizkungo *Landaberrokoa* etxean jaio zen 1910ean. Bidadorrek, ordea, horrela dio:

Nacido en Amaiur, en 1918, Jazinto Sanziñena Ibarrondo ejerció de párroco en su pueblo la mayor parte de su vida (*Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra*, Pamiela, 2004, 275. or.).

idatzi ziren 60 artikuluko ingurutik batek darama Ibarrondo izena eta beste batek «I». Gainerako guztiak ez daude sinatuak. Oraindik gehiago, Ibarrondoren bi artikuluko horietan argi ageri diren Baztango euskararen zenbait ezaugarri, hala nola, *nai bauzu*, *ez datzut*, *ekartzen daku*, *egiten zakun*, *dauke*, *erran zuen*, *erraten dabe*, *erran bezein laster*, *goiti*, *goitigalea*, *erreketan beiti*, *zulotik beiti*, *kopeta idor*, *aixtion erraneko*, *urrikalduta*, *deuseza*... ez dira behin ere ageri gainerako artikuluetan; bai ordea Arbizun arrunt diren: *asi zakioten*, *egin behar dakiote*, *iruditzen dakit*, *zailtzen dubie*, *uzten ez dubienak*, *ok*, *oik*, *oitatik*, *kisa*, *zenbatenez*, *geroan da geiago*, *albait*, *aixetu*, *dirua aittu* (ahitu –gastatu–), *bizitza aittu* (ahitu –bukatu–), *egiten den aîñean*, *ezain-ezain* (ezarian-ezarian)... Beraz, hizkeraren aldetik, oso zail da, ezinezkoa ez errateagatik, Ibarrondorenak izatea. Bestalde, Goikoetxeak *Mezaren irakurgaiak moldatzeko era* itzulpenetan eta Tauer jaunari idatzitako gutunean erabiltzen duen euskarak bide argia ematen du «Elizaren itza» ataleko artikuluko gehienak bereak direla egiaztatu ahal izateko. Gainera, harreman estuak izan zituen D. Pedro Diez de Ultzurrun *Principe de Viana* aldizkariaren zuzendariarekin. Euskal kulturako beste asko ere hurbiltzen ziren Arbizura berarekin egotera, besteak beste, Jose Migel Barandiaran.

Zer gehiago eta non idazten ote zuen bere lanak inoiz ez izenpetu arren «idazle argia» zela dioten D. Juanek? Hori jakiteko bidea oraingoz ongi aztertu ez diren argitalpen etxe edo erakundeetako artxiboen kudeaketak argi lezake beharbada, edo bere artxibo partikularrak, ematen duen bezala, behin bertiko galdu ez bazen behintzat.

Amaitzera noa. Emilio Lintzoainek zioen gerra ondoren eta frankismoaren garaiko giro hartan Juan Goikoetxearengan zerbait berezi nabaritzen zuela, nolabait errateko, *rara avis* bat, bai herrian bai orduko apezten bileretan, bere amahizkuntzarekiko agertzen zuen jarreragatik, nonahi eta beti euskaraz egiten zuelako, alegia, «naturaltasunarekin eta inolako alardetik egin gabe».

Gaur den egunean, XXI. mende honetan biziko balitz, beldur gara gure artean ere ez ote zuen *rara avis* bat izaten segituko. Batetik, euskararen eragin-kortasuna naturaltasun osoz eta inolako alardetik egin gabe lortzea orain ere oso bakar batzuen ahalmena dela uste dugulako. Bestetik, norgehiagokako mundu honetan, *curriculum* pertsonalak beste edozein interesen gainetik jartzen diren gizarte konpetitibo honetan, bere izena batere agertu gabe, modurik isil eta ezkatatuenean –anonimoan– bere lanak denen onerako eta zerbitzurako jartzen dituenaren benetan *rara avis*, *specimen unicum* ez errateagatik, izanen litzatekeelako gaurko gizartean.

Ohore, bada, jaio zeneko mendeurren honetan gure hizkuntzaren osasunerako eta iraupenerako eredu izan zen D. Juan Goikoetxea Zabalori.

JOSE MARI SATRUSTEGI, EUSKAL ONOMASTIKAREN ERAGILEA

Patxi Salaberri Zaratiegi

Altsasuko ikastolak eskatuta Andres Iñigok eta biok Jose Mari Satrustegiren biografia txiki bat prestatu genuen lehengo urtean Nafarroa Oinez 05en karietara, eta, besteak beste, Arruazuko euskaltzainak onomastikaren arloan egin zuen lanaren berri eman genuen, testuaren barnean lehenik eta bibliografia aukeratuan gero. Oraingo honetan, ataliño hura pixka bat garatu gogo dut. Lot nadin beraz lanari.

Jose Mari Satrustegiren lan garrantzizkoenetako bat onomastikan egin zuena da, nire irudiko. Hasieratik Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko kidea izan zen, eta, beraz, jakite horrekin erlazionatutako gai anitz ukitu behar izan zituen: Euskal Herriko herrialdeen eta udalen izenak, auzo anitzenak, mendienak, aurkintzenak, karrikenak, oikonimoak etab. toponimiari dagokionez, eta pertsona izenak, deiturak, hipokoristiko-txikigarriak eta beste antroponimiaren arloan.

1966an «Las casas de Valcarlos» argitaratu zuen lehen aldiz *Anuario de Eusko-Folklore*-n, eta lan hori bera 1968an berriz ere *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* ezagunean. Urte honetan bertan gehienbat, nahiz ez bakarrik, toponimiari dagokion «-Di botanika atzizkia?» izeneko artikulua karrikaratu zuen *Euskera*-n eta 1989an «Toponimia de Valcarlos» gorago aipatutako *Anuario de Eusko-Folklore*-n. Baditu, baita ere, artikuluxka labur bat baino gehiago Iruñeko *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskara sustatzeko gehigarrian argitaraturik: «Etxe izenak», «Herri-izenak», «Kale izenak», «Leku-izenak»... e.a. Inoiz pertsona izen bat argitzeko orduan toponimoaz ere mintzo da, erraterako «Xabier» izeneko lantxoan. Hauek guztiak Andres Iñigok egin berri duen edizioan ikusteko aukera izanen dugu laster. 1990eko «Planteamiento general de la etnografía de Urbasa» izeneko lanean mendi horretako toponimoak aztertzen ditu.

Toponimia dela eta, aipatutako artikuluez landara, Satrustegiren ekarpena Onomastika batzordean egindako lanera mugatzen dela erran dezakegu, hots, bileretan egindako lanera eta batzordeak bideratutako argitalpenetara. Hemen ondoko lan hauek aipa ditzakegu:

1. *Euskal Herriko Udalen Izendegia*

Lan honek 1979an ikusi zuen argia, Koldo Mitxelena buru zelarik. Bertan, tituluak berak dioenez, herrialde guztietako herrien izenak euskaraz nola erran behar den zehazten da, bai eta herritarren izena zein den ere. Ez dago dudarik lan hau hasierako, trantsizio garaiko urte zail haietan garrantzi handikoa izan zela, besteak beste testu liburuak apailatzeko baitezpadako baitziren herri izenak. Espero izatekoa zenez, baditu gerora zuzendu diren arautze proposamen batzuk, bereziki euskara aspaldi galdurik dagoen Euskal Herriko alderdi zabalean: *Agilar* = *Arranotegi**, *Kabanillas* = *Kapanaga**, *Kadereita*, *Kabredo* = *Ahuntzegi**, *Mirafuentes* = *Iturriaga**, *Monteagudo* = *Mendikute**, *Piedramillera* = *Miliarri**, *Ribaforada* = *Erripazuloaga** adibidez Nafarroan, baina, hori bai, denak izartxo ongi horniturik ageri ziren, asmakari berriak zirela adierazteko. Lan hau, bistan denez, bere garaiko umea da, eta oraingo begiz ikusirik harrigarri egiten bazaigu ere, irudi du Mitxelenak «berrogeizaro aspergarria» deitzen duen horretan euskara eta euskal izenak debekaturik ego-teak beste muturrera joanarazi zituela batzordekideak, askatasun pixka bat izatean. Nolanahi ere, berriz diot batzordeburu Mitxelena zela garai hartan.

2. *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herrien Izenak / Relación de las Poblaciones de la Comunidad Autónoma Vasca*

Lan hau Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen, 1986an. Hitzaurrean erraten den bezala, *e.d.e.b.e* edo *n.t.e.e.c.* ageri da zenbait aldiz, aspaldidanik erdal-dun diren alderdietan, bereziki Bizkaiko Enkarterrin eta Arabako eremu batean, neologismoen bidean «desbideratze arrisku bat dago»elako eta «oso kontu handiz» jokatu behar delako. Beraz, 1979ko obratxoan hartutako bidea alde batera uzten da eta daturik aski ez denean aipatutako akronimoa ezartzen da.

3. *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*

Lan hau oker ez banabil Nafarroako Gobernuaren eskariz burutu zuen Euskaltzaindiak (berau baita 86ko Euskararen legearen arabera hizkuntza aholkulari ofiziala Nafarroan) 80.eko hamarkadaren hondar urteetan, eta argitaratu 1990ean. Oraingoan koordinatzaileztat Jose Mari Jimeno Jurio ageri da eta izan ere, ikertzaile hau izan zen dokumentazioko lekukotasunak atera zituenak, bai eta ere herriz herri galdeketa eta grabaketak egiten ibili zena, ni laguntzaile, galdera-egile eta grabaketen transkribatzaile ninduela. Jose Mari Sastrategi batzordekidetzat azaltzen da; buru Henrike Knörr zen orduan eta buruordetzat Mitxelena ageri da, 1987an hil bazen ere. Ni batzordean lanean hasi nintzeneko zendua zen Errenteriako hizkuntzalari handia.

Liburu hau osatzeko 79koa moldatzeko egin ez zen ikerketa burutu zen: argitaratuta zeuden agiri bildumak miatu ziren, artxiiboak ere arakatu ziren, eta honekin batean, eta erran bezala, ahozko galdeketa franko egin genituen, usu hizkuntzaren mugako ibar-herrietan gelditzen ziren azken euskaldunekin: Aez-

koan, Arakilen, Erroibarren, Esteribarren, Gulibarren, Zaraitzun... eta abarretan, barrualdeko bestelako eremu euskaldunagoak aherentzi gabe.

4. *Onomasticon Vasconiae*

Onomastika batzordearen kide zen aldetik, Satrustegi bilduma honetan argitaratu diren lan guztietan agertzen da, 2003an hil zen arte. Liburu sorta honetan hainbat herritako toponimia txikia biltzen da eta gehienetan arautzen; azalpen etimologikorik, ordea, ez da horietako gehienetan agertzen.

Antroponimiaren sailean, Luzaidera iritsi eta berehala, 1957. urtean, «Apellidos vascos en documentos de la Baja Navarra» artikulua argitaratu zuen BRSVAP-en eta lau urte beranduago «Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca» *Euskera*-n. Azken honetan Luzaideko dokumentuetan ageri diren antroponimoak zerrendatzen eta iruzkintzen ditu, espreski dioten bezala burutik bururako lana egiteko asmorik ez bazuen ere. Ohar interesgarri batzuk egiten ditu, erraterako erdarazko *Pedro* izena eguneroko bizian *Predo*, *Pedro*, *Pedrito* / *Peio*, *Peito*, *Peitto* / *Pello*, *Pelo* / *Piarres*, *Pierre*, *Pier*, *Pierro* / *Betti* eta *Beti* «itzultzen» dela dioenean, edo bataio agirieta *Juan* (eta *Jean*) izenaren ordainetan *Juan*, *Juanito* / *Juanes*, *Joanes* / *Manez*, *Mañez* / *Manex*, *Mañex* / *San* –*Xan* seguruenara– erran litekeela dioenean. Hain zuzen ere, ugaritasun «gehiagizko» hau arazotzat hartzen du *Euskal Izendegia*-ren bigarren argitalpena egiteko aukera duela Euskaltzaindian jakinarazten duenean («Euskal Izendegiaz», 1977). Honela dio: «Azkenekotz, Mari, Pedro, Juan, eta beste halakoren baten oztopoa ugaritasuna da. Hoge eta gehiago aldaketa duen izenarekin zer egin! Zein aukeratu? Peru, Peyo, Pierre, Beti, Betiri...» (143. or.).

Nolanahi dela, Arruazuko euskaltzainak gogokoen zuen lana *Euskal Izendegia* zen. Egia da ez zela hutsetik abiatu, eta XIX. mendearen bukaeran Sabino Aranak zenbait arau fonetiko erabiliz «egokitutako» izenek Gerla Zibilaren aitzinetik arrakasta handia izan zutela, baina, ezaguna denez, Francok boterea bereganatzearekin izen horiek guztiak debekaturik gelditu ziren, halako moduz non hilerrietatik ere kendu behar izan baitzituzten; izenaren jabea bizirik zegoenean ere hari deus erran gabe egin ziren zenbait aldiz izen aldaketak, jaiotze eta bataio agiritan.

Hirurogeiko hamarkadan euskararen aldeko mugimendua indarberritzen hasi zen, eta, horrekin batean, hurrei bataioan euskal izenak paratu nahia ere izugarri bizkortu zen. Hau ikusirik, Euskaltzaindiak erabaki zuen berpiztua zen euskal izenen egartsu hari aterabidea eman behar zitzaiola, bai eta, orobat, urte batzuk lehenago A. Irigarai eta K. Mitxelena argitaratutako «Nombres vascos de persona» artikulua eta lehenaren *Nomenclátor Euskérico de nombres de pila* izen zerrenda osatu beharrak zirela. Zeregin hau Satrustegiren esku utzi zuten. Honek lanari ekin eta 700 izen zituen *Euskal Izendegia* liburuxka moldatu eta karrikatu zuen 1972an; gero, 1977an, bigarren argitalpen osatua ate-

ra zuen, igarotako bost urteetan jasotako 500 izen gehiago biltzen zituena, 1.200 Satrustegik dioenez, eta 1983an hirugarren edizioa, berriz ere osatua eta hobetua, 1.600 sarreraz goiti biltzen baititu.

Aurreneko argitaraldia Franco artean bizirik zegoela egin zen beraz, eta liburuan soilik herrietako ama birjinen izenak (*Aitziber, Aizpea, Erkuden, Nago, Naiara, Oskia...*) eta gaztelaniazko baliokiderik ez zutenak (*Eneko, Oneka, Saioa, Ziortza...*) sartu ahal izan zituen; adibidez, *Antonio* eta *Luisa* erdaraz baizik ezin zitezkeen erabil, eta berdin gertatzen zen Mariaren bizitzako misterioetan iturri zutenekin (*Asunción, Concepción...*). Bestalde, itzulpenik ez zuten izenen kasuan nondik zetozen erran behar omen zen haurra erroldatzerakoan, eta «hala ere, oztoporik aski» izaten zen, Satrustegik berak dioenez. Oztopo horien artean epaileak gurasoek nahi zuten izena ez, baizik eta haien erdarazko baliokidea edo baliokide ustekoa paratzea zegoen. Adibidez, *Amia* eta *Ainara*-ren ordez *Maria Fin* eta *Golondrina* jartzea aipatzen du Satrustegik, edo lehena «extravagante, irreverente eta ijito izentzat» hartzea. Oztopotzat eman daiteke, orobat, *Maite* eta *Iñigo*-ren ordainetan *Maria Teresa* eta *Ignacio* ezartzea, nahiz azkenak *Iñigo*-rekin zerikusirik ez duen, hau jakina den bezala *Eneko*-ren erdarazko kidea besterik ez baita, gure artean franko dokumentatzen bada ere. Egun hain hedaturik dagoen *Nerea* izena, bestalde, *Nereo* gizon izenaren aldaera femeninotzat eman beharra zen, epaileek onartuko bazuten.

Zenbait, euskal izenen aldeko giro hartan, izenak asmatzeari lotu zitzaizkion; Satrustegik, aldiz, idazki zaharretako bildumetan ageri direnak eta izen herrikoiak, herri tradiziokoak bildu nahiago izan zituen. Hemen, jakina, ibilitako irizpidea ezin erabat objektiboa izan, «herria» zehazki zer den eta honen «azken hitza» xeheki nola definitzen den ez baita aise erratea. Honela dio arruazuarrak: «Kriterio bat behar beharrezkoa dugu: nundik datozen usain usnaka ibili gabe, jator antzekoak jaso egingo nituzke eta, komeni etzaizkigunak utz. *Gorka, Ander, Iker, Jurgi*, eta abar, sartu; *Errapel* (Rafael) eta antzekoak bazertu, mendietan dabilten gazteei errapel izenak beste zerbaitek ekartzen bai die gogora (...). Beste alde, ez da laboratoriorio eta asmakizun hutsez egitekoa ere; herriarekin batera joan behar dugu, eta azken hitza zein hartu eta zein utz, berak du. Gure eginkizuna geroari begira gauzak zentzuz eramatea da».

Kristau izendegiko izen guztiak itzultzea edo itzultzen saiatzea ere ez zitzaion ongi iruditzen, ez baitzen, haren ustez, euskal izendegiaren egitekoa munduan zehar diren izenen biltzea. Bestalde, «Arana-Eleizalderen zerrendako izen gehienak baztertuak gelditu ziren, eta berdin han hemenka ikusten ziren beste zerrenda batzu. Azken orrietan, bigarren mailakoak izan balira bezala sartu genituen herriak zebiltzanetarikoak» («Euskal Izendegiaz», *Euskera* 22, 1977-1, 141-142. orr.).

Lehen argitalpenetik bigarrenera, izen kopuruaren berretzeaz landara, aldaketa grafiko batzuk ere izan ziren: aurreneko hartan <i>-z nahiz <y>-z age-

ri ziren izenak (*Amaia, Amaya; Leire, Leyre* adibidez) <i>-rekin agertzen dira bigarrenean, baina Jose Marik dioenez «oso sartuak» zeuden izen horiek Nafarroan, eta «ezin gogortasunez moztu». Bigarren arazoa hitz hasierako *h*-rena da: *Aritz / Haritz, Harkaitz / Arkaitz* erraterako; hau Satrustegik berak aipatzen badu ere, bigarren argitalpenean *Aritz* eta *Haritz*, biak, sartzen ditu, baina *Arkaitz* baizik ez. *Aimar / Haymar*-en kasuan aipatutako bi arazoak batean ageri dira, eta hemen ere biak ematen ditu bigarren argitalpenean, lehenetik batere aldatu gabe. 1976ko artikuluan azaleratzen duen hirugarren arazoa izen hasierako <I> versus <J> da, eta dio idazkera kontua ez ezik ebakera ere badela: *Jon / Ion, Jurgi / Iurgi, Jasone / Iasone...* e.a. Nolanahi ere, lehen argitalpenean gizonenetan *Iurgi* besterik ez da azaltzen, gerora arrunt zabaldu diren *Jokin, Jon, Joseba, Josu* falta baitira. Bigarrenean, berriz, <J>-rekin emanak dira horiek: *Jokin, Jon, Joseba, Josu, Julen, Jurgi*. Neskenetan lehenean ageri ez diren *Jaione, Jasone, Joana, Jokiñe, Jone, Josune, Julene* eta *June* azaltzen dira bigarrenean.

Kontuan hartu behar da 1977an onartutako legearen arabera Espainiako hizkuntzetako batean, edozeinetan, ezar zitekeela sortu berriaren izena, eta, gainera, lehendik jarritakoa «Espainiako beste edozein hizkuntzatan duen antzekora alda» zitekeela; honek, bistan denez, lehen Erregistro Zibilean ezin sar zitezkeen izenak sartzeko aukera eman zuen. Hau baliatuz kondairan, literaturan, mitologian eta egileak «herri ohitura» deitzen duen horretan ageri diren izenekin gehitu eta berretu zuen lehen argitalpena, alde batera utziz, ordea, «antzinako zaharkeriak», nik hauen mugak non dauden garbi ez badakusat ere.

Bestalde, Satrustegik azaltzen du bigarren argitalpen hau ez dela zerrenda itxia eta Euskaltzaindiak, agertzen diren izen guztien bilduma egiten duen bitartean, bigarren edizioan azaltzen ez direnen agiria ere eman lezakeela. Hirugarren argitalpena egin aitzinetik, 1980an, legeak hurrei nahi zuten izena (historikoa, mitologikoa, geografikoa, abstraktua...) ezartzeko aukera eman zien gurasoei, haurarentzat iraingarria ez bazen eta sexu nahasketarik sortzen ez bazuen. Satrustegik, hau ikusirik, mordo ederra gehitu zion lehendik zuen zerrendari. Denera, 1983ko edizioan, 1.600 sarreraz gorako lana apailatu zuen, erran bezala. Honetaz gainera, hirugarren edizioak duen berrikuntzarik nabarmenena «erdal izenen kidegoa» deritzan atala da, non euskarazkoen gaztelaniazko baliokideak ematen baitira, euskara -> gaztelania eta gaztelania -> euskara hurrenkeretan. Hondarreko honekin batean, gainera, frantsesa -> euskara zerrendak ere sartzen ditu Satrustegik.

Euskal Herriko lehen izen iraultza Sabino Aranaren eskutik etorri zen, halako moduz ezen egun ohikoak diren izen franko autore honi zor baitzaizkio. Neska izenei *-e* edo *-ne* (*-ñe* aurrean *i* dagoenean) bukaera ematea eta mutikoenei *-a* (ez denei hala ere), erraterako, Aranaren gauza da, gutxienez Aslarloa apologistagandik heldu dena, durangarraren erranetan bataiarrian, ura hartzean, neskatikoei *eee* negar egiten baitzuten, eta mutikoei *aaa*. Ustekeria

honen ondorio dira *Agurtza / Agurtzane, Aintza / Aintzane, Alberta / Alberte, Barbara / Barbare, Begoña / Begoñe, Edorta / Edorte, Endika / Endike, Estepa / Estepane, Joseba / Josebe, Kepa / Kepe...* eta beste anitz.

Jakina, gurasoei ez zitzaizkien izen hauek guztiak gustatu, *Barbara* eta *Begoña*, kasurako, neska izenak izan baitira azken denboretan gure artean, gaztelaniaz, ezaguna denez, *-a* letraz bukatzen diren izenak femeninoak direlako. Bokal horrekin amaitu arren arrakasta eduki dutenen artean *Edorta, Gaizka, Gorka* eta *Joseba* aipa daitezke. Aranaren zerrendetan baziren, bestalde, beste gisakoak ere, hots, maskulinoan *-a* bukaera ez zutenak: *Gotzon / Gotzone, Jayo / Jayone, Josu / Josune, Julen / Julene...* eta abar.

Satrustegik, 1983ko argitalpenean, izen horietako batzuk ontzat hartu zituen: *Abar / Abarne, Ander / Andere, Andolin / Andoliñe, Andoni / Andone, Euken / Eukene, Mikel / Mikele...*, baina ez denak: Aranaren *Erregin / Erregiñe, Erroman / Erromane, Gorka / Gorke, Iñaki / Iñake, Jagoba / Jagobe, Julen / Julene, Kepa / Kepe* pareen kasuan, adibidez, lehena sartu zuen baina bigarrena ez, eta *Alatz / Alazne, Bakar / Bakarne, Edur / Edurne, Etor / Etorne, Jaio / Jaione, Jaso / Jasone*-renean, berriz, aurrenekoa ez zuen kontuan hartu baina bai bigarrena. Inoiz Aranaren zerrendako biak eman zituen, baina ez sexu banaketa berarekin: *Gentza* eta *Gentzane*, erraterako, emakume izentzat sartu zituen, bizkaitarraren lanean lehena maskulinoa eta bigarrena femeninoa baziren ere; hauekin batean, gainera, berak asmatu edo nonbaitetik hartutako *Bakene* bildu zuen. Zenbaitetan ukituren bat *-edo* ukitua baino aise gehiagoko zerbait⁻ egin zien Aranaren bikoteei: *Paskal / Paskale* (Arana) // *Paskal, Paxkal / Paskalin* (Satrustegi), *Unai / Unañe* (Arana) // *Unai / Unaisa* (Satrustegi). Badira, orobat, nesken izenetan behintzat, Abandokoaren bidekoak izanagatik ere honek asmatuak edo moldatuak ez direnak: *Bakene, Egokiñe, Eguzkiñe, Goizane, Zuriñe...* eta abar.

S. Aranaren liburuko izenak edo hauen tankerakoak ez ezik, bestelako batzuk ere Satrustegik hedatu zituen, edo bere eragitez zabaldu ziren, hots, bere izendegian agertzeagatik; kasu honetan daude, besteak beste, ondoko izen hauek: *Ainhua, Aiora, Aitziber, Ainara, Amaia, Amagoia, Arkaitz, Asier, Egoitz, Eguzkiñe, Ekaitz, Eneko, Erkuden, Garazi, Garikoitz, Hodei, Ibai, Nagore, Oier, Oihan(a)* eta *Urtzi*. Huts egiteko beldurrik gabe erran daiteke Arruazuko euskaltzainaren lanak belaunaldi oso baten onomastika bideratu eta markatu duela, hainbestearino non, eskualdeen arabera, XX. mendearen erdialdean ohikoen ziren izenak lekutu eta haien ordainez *Euskal izendegia*-n agertzen direnak ibiltzen baitira orain.

Satrustegi hil baino bi urte lehenago, 2001ean, Euskaltzaindiak aski banaketa zabala izan duen *Euskal Izendegia*-ren argitalpen berria egin zuen eta 2002an argitalpen horren berrinprimaketa, liburua ahiturik baitzen orduko. Euskal izendegi hau Onomastika batzordean egin genuen, eta lan gehiena Mikel Gorrotxategiri eta neroni egokitu zitzaigun. Liburuan erraten denez, oina-

rrizko zerrenda Satrustegirena da, baina bi liburuak alderatzen badira garbi ikusten da lan desberdinak direla, besteak beste azkenekoan sarrera bakoitzaren azalpena ematen delako, euskaraz lehenik eta erdaraz gero. Jose Marik hitzaurretzat-edo «Pertsona izenen historia» deritzan atala apailatu zuen liburu honetarako, idazki benetan interesgarria euskaldunon izendabideen berri jakiteko. Arruazukoak aitzinekoen bidea, aita-amabixien aldia, eguneko santua, izen politak (-*ina*-dunak gerra aurretik: *Agripina*, *Avelina*, *Carolina*...) eta izen bikoitzak (*Marijoan*, *Marimartin* zaharretan, *Francisco Javier* edo *Mari Carmen* oraingoetan) sailak bereizten ditu bere idazkian.

Antroponimiaren arloan *Euskal Izendegia*-ren aipatu hiru edizioez gainera eta hauen prestalantako-edo, artikulua labur mordoxka bat badu idatzirik Iruñeko *Príncipe de Viana* aldizkarian euskara sustatzeko gehigarrian, hainbat izenen inguruan, laster Andres Iñigok prestatu duen edizioan aterako direnak. Horien artean ondoko izenok aztertzen ditu: *Aitor*, *Amaia*, *Edurne*, *Eneko* eta *Iñigo*, *Maite*, *Mari*, *Nerea*, *Nora*, *Oier*, *Unai*...e.a.

Horietaz gainera, eta nire hitzaldi luzeegi hau bukatzeko, ez dut aipatu gabe utzi nahi Onomastika batzordeak prestatu zuen *Nomenclátor de apellidos vascos / Euskal deituren izendegia*, Satrustegik honetan ere lan egin baitzuen, oraingoan pisu gehiena Mikel Gorrotxategiren bizkar gelditu baldin bazen ere. Egia da zerrenda hutsa dela, baina egia da, orobat, deituren arautzeak buruhauste franko eman dizkigula orain baino lehen, eta gero ere emanen dizkigula, gai benetan korapilatsu eta zaila baita hau.

Azkenik, erran nahi dut Satrustegiren eragina, azken urteotako euskal onomastikan, hagitz handia izan dela eta berak 60ko hamarkadan hasitako lanari esker dutela egungo haur, gazte eta dagoeneko hain gazte ez diren askok duten euskal izena. Ez dakigu nolakoa izanen litzatekeen orain gure paisaia onomastikoa Satrustegi bizi izan ez balitz eta egin zuen lana egin izan ez balu, baina seguru nago ez litzatekeela hain euskalduna izanen eta munduan barna hedatzen ari diren telebistako izen (nire ustez) itsusi horiek ohikoagoak izanzen liratekeela gure artean.

Bibliografia

EUSKALTZAINDIA (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.

—(1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

—(2001): *Euskal Izendegia*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz. Lan honen berrinprimaketa 2002koa da.

IÑIGO, A. (2005): *Jose Mari Satrustegi, ereile eta lekuko*, Iruñea.

- IÑIGO, A. & SALABERRI, P. (2004): *Jose Mari Satrustegi. Nafarroako euskaren ikurra / Símbolo del euskera en Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea.
- IRIGARAI, A. (1966): *Nomenclátor euskérico de nombres de pila aprobado por la Academia de la Lengua Vasca*, Bilbo.
- IRIGARAI, A. & MITXELENA, K. (1955): «Nombres vascos de persona», *BRSVAP* XI-3 eta 4, 405-425.
- SALABERRI, P. (2004): *Jose Mari Satrustegi (1930-2003)*, Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaritza, Bilbo.
- SATRUSTEGI, J. M. (1957): «Apellidos vascos en documentos de la Baja Navarra», *BRASP*, XIII-1, 249-251.
- (1961): «Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca», *Euskera* VI, 209-229.
- (1965-66): «Las casas de Valcarlos», *Anuario de Eusko-Folklore* XXI, 13-34.
- (1968): «Las casas de Valcarlos», *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* XXIV, 1 eta 2 koadernoak, 121-145.
- (1972): *Euskal izendegia*, Banco de Vasconia, Iruñea. Bigarren argitalpena 1977koa da eta hirugarrena, Euskaltzaindiak Bilbon egindakoa, 1983koa.
- (1977): «Euskal izendegiaz» eta «Euskal Izendegiaren azken orraztape-nak», *Euskera* 22, 1977-1, 141-143 eta 143-145.
- (1982): «Pertsona izendegiaren hirugarren argitalpena», *Euskera* 227, 1982-1, 255-261.
- (1990): «Planteamiento general de la etnografía de Urbasa», *Los Grupos Humanos en la Prehistoria de Encia-Urbasa*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 55-70.

IKER SAILA

HIZTEGIGINTZA

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA:
BILDUMAREN AUZKERPENA (16 liburuki)

Bilbo, egoitza, 2005-IX-17

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Agurra

*A. M. Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Arratsaldeon guztioi.

Orotarikoa, orokorra eta ororentzat. Hala zehaztuko nuke nik azken hogeita bat urteetan Euskaltzaindiak ondu duen *OEH* lanaren izaera.

Orotarikoa, euskara bera hartzen duelako bere barnean, euskalki, idazle eta testu desberdinak agerian dituela.

Orokorra, bertara bildu baitira gai askotako esparru eta alorrak.



Ororentzat, euskaldun izan zein izan ez, bertan daudelako iturburu zorrotz eta zehatzak, euskal hitzen nondik norakoak zertzeko.

Bukatu du Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegia*. Hortxe dago, guztion eskura, eginiko lana, 16 liburukitan antolatuta.

Badakigu, alabaina, horrelako proiektua aurrera eramateko, mota askotako ahaleginak behar direla. Ahalegin akademikoak eta instituzionalak, akademikotasunak ezinbesteko baitu, ikerlana behar den bezala egiteko, antolakuntzaren azpiegitura sendoa.

Izenak ere aipatuko dira, eta mahai honetan gaudenok horiek omendu nahi ditugu; eskertu ere bai, partaide askoren fruitua izan delako orduko hura.

Zuetako asko horien artean egon zineten, euskarak garai hartan behar zue-na egoki zertzen zeundetela uste izanda. Egun, bistan da, zuei arrazoi eman behar.

Latza izan daiteke horrelako lan baten egunerokotasuna. Latzagoa, zer esanik ez, bizirauteko itxaropenik ez daukan hizkuntza baten etorkizuna. Badago, beraz, euskara eskura, hiztegi honen bidez. Hiztegi bizia, bibliotekaren apaletatik kanpo ere hedatu behar dena, euskarari buruzko lan zinezkoaren eredu gisa.

Ospa dezagun, beraz, amaitu berri den lana. Zoriondu eta entzun ditza-gun errealtate hori gauzatu dutenak. Ez ditzagun gaur eguneko eskabideak ere bazter utzi, hauek baitira ekinean jarraitzeko akuilu apartak. Hartara, agerian jar dezadan Euskaltzaindiaren zina, egun aurkezten duguna euskarri digitalean jarri eta gizarteratzeko, egunotako teknikak baliatuz.

Dakizuenetz, prest dago gure erakundea lanerako, eta, jakina denez, aspaldikoari eutsiz, ekinean jarraitzen eta jarraituko du, euskal gizarteari gaurko lakoxe emaitza egokiak eskainiz.

Mila esker.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN HISTORIA

Bilbo, egoitza, 2005-XI-17

Jose Luis Lizundia eta Juanjo Zearreta

1. AURREKARIAK

Orotariko Euskal Hiztegiaren aurrehistorian eta, aurrekari bezala, Euskaltzaindiak Koldo Mitxeleneri emandako agindua aipatu beharra dago. Hain zuzen, Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* famatua eguneratu eta eraberritzeari hasiera emana zen Mitxelena, horretarako Bizkaiko Diputazioak zenbait urtetan laguntzatxo bat ematen zuelarik. Koldoren zapata kutxetako fitxak ere egitasmo horren barruan kokatu behar dira. Egia esan lana astiro zihonan, ezinbestean, kontuan izanik egileak familia aurrera ateratzeko beste ogibide bat zuelako, Euskal Herriatik kanpo, Torrelavegan, lehenik eta Salamancan, gero.

Dena zapuztu zen José Maria Martín Retanaren Akademiararen baimenik gabe Azkueren hiztegia bi liburukitan «La Gran Enciclopedia Vasca» haren argitaletxean kaleratu zuenean. Orduko Euskaltzainburu D. Manuel Lekuonak Erakundearen protesta gogorra bidali zion, baina Martín Retanaren erantzuna abokatu batena izan zen, ikasketez hori bai zen gainera: *Euskaltzaindiak ezin nezake auzitara eraman, zeren eta ez baitu behar hainako nortasun juridikorik*. Zorritzarrez, 1969an egia zen eta egitasmoa bertan behera gelditu zen.

1976an Euskaltzaindiak Estatuak ez bakarrik nortasun juridikoa eman zion, are gehiago, ofizialtasuna ere Hego Euskal Herriko lau probintzietan. Hala eta guztiz ere urte batzuk igaro behar ziren egitasmo berri bat gauzatu ahal izateko eta egokiera bi gertatu: 1. Mitxelena Salamancako Unibertsitateetik Euskal Herriko sortu berrira katedradun legez etorria izatea; 2. Autonomiari esker, bigarren Eusko Jaurlaritza indarrean jartzea, 1980ko apirilaren 9an Gernikan. Zenbait harreman izan ziren Gasteizen, hiri honetan bizi bai zen Mitxelena eta, Eusko Legebiltzarrak Bizkaiko Diputazioan hala erabakita, Gasteiz izango zen hiriburua, beraz bertan jarri zen martxan Gobernua eta Urdiaingo Jose Maria Satrustegiren etxean.

Aurrekariotan beste xehetasun garrantzitsu bat, Hondarribiko Jardunaldietan aztertu eta erabakitako Adierazpena dugu. 1981ko Eguberrietako opo-

rraldiaz baliaturik hiri horretan bildu bai zen Euskaltzaindia pare bat egunetan. Abenduaren 29ko bilkuran, euskaltzain osoek, aho batez onartu eta sinatu zuten Adierazpenean, honako hau irakur daiteke, besteak beste:

I HIZTEGIGINTZAZ... Hizkuntzarekiko plangintza orokor baten barnean sartua aurkitzen da hiztegegintza, eta Euskaltzaindiak erantzun egokiak eman nahi dizkio honi. Langintza horretan ordea, maila bat baino gehiago bada eta beren arteko lehentasuna kontutan eduki behar du. Euskal hiztegieta, adibidez: **Orokorra, Hiritartua, Espezializatuak.** 1 Hiztegi orokorrean, Euskaltzaindiak aspaldidanik hasiak dituen lanak aurrera daramatza ahalik eta lasterren buru emateko asmoz. 2 Bileran honetan beharrezkoa ikusi da batzorde bat sortzea, horretarako behar diren gaiak, ahalak eta lankideak biltzeko...

2. EGITASMOAREN ONARPENA

Hiztegiaren egitasmoari onarpen data formal bat jartzekoan 1984ko urtarilaren 20a jarriko nioke. Ikus, zer dion egun horretan Bilbon, Diputazioaren osteko Arbieta kalean Euskaltzaindiaren egoitzan, Zuzendaritza bilkuraren batzar-agiriak:

Bilduak: L. Villasante, J. Haritschelhar, J. M. Satrustegi, H. Knörr, L. Mitxelena, J. San Martín eta J. L. Lizundia. Lehen gaian J.J. Zearreta ere egon da eta bosgarrenean R. Badiola eta R. M^a Artza ere bai... 9. Azkenik, Euskal Hiztegi Orokorren prestakuntza buruzko planaz hitz egitera etorri da Joseba Arregi, Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkariari ematen zaio sarrera. Beronek gaiaren aurkezpen bat, zenbait puntu azpimarratuz, egiten du, hala nola: lan asmoa, langileen asmoa, egilearen eta lan taldea, lankideen zereginak eta esamoldea, lanaren antolamendua eta diru baliabideak.- L. Mitxelena lan taldearen zuzendaria izango denak, zenbait puntu hobeto osotzen ditu eta batzarkideek euren iritzia agertzen dituzte, adibidez, egilea: Mitxelena izango da bere taldearen laguntzaz, baina argitaratzailea: Euskaltzaindia.- Lan taldearen ordainketak zer status izango duen galdetzen du. Arregi jaunak, aipatzen baitu «Asociación Cultural»gisako batez izan behar dela eta ez Euskaltzaindia edo Jaurilaritzako langile bezala. Erantzuten zaio «Campion-Broussain» Elkarte Filiala horretarako sortua dela eta horren «contrato de obra» baitan egingo liratekeela lan taldekoak.- Finantza bideak Jaurilaritzatik eta Diputazioetatik izango direla aipatu du Arregi jaunak, nahiz eta hiru Diputazioekin oraindik gestio guztiak bideratu gabe egon. Falta izanik, Euskaltzaindiak hartzen dituen diru-laguntzak ere baliagarri izan daitezkeela, uste du. Honetaz, ezezkua esaten zaio, zeren eta urteko asignazio arruntak bere aurrekontu propioarako behar bai ditu eta Hiztegegintza honetarako gainerako subentzio partida berezietatik etorri beharko luke, diru-iturri batzuk eta besteak nahasi gabe.- Bukatzeko, Euskaltzainburuak eskerrak ematen dizkio HIZKUNTZA Politikarako Idazkari jaunari, albiste pozgarri bat ematen bai dio, zeren eta bera Euskaltzaindiko lehendakari denetik, izan duen asmorik nagusia eta orain arte ganoraz bideratu ezin izan dena, orain badirudi egiteko bidean jarri dela.

Esan beharra dago, Arregi jauna Pedro Migel Etxenike Hezkuntza eta Kultura sailburuaren agindu eta instrukzio zehatzekin etorri zela, besteak beste, sailburua guretariko zenbaitzuekin izana bai zen Gasteizen, gehienbat Mitxelena berarekin noski eta Urdiaingo apezetxeko sukaldean Satrustegirekin. Sukaldaritza beharrezko izaten baita honelako erabakiak hartu baino lehen. Noski Mitxelenaren alboan Ibon Sarasola zegoen, baina egitasmoaren hezur-mamia jadanik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean lanean ziharduen hirugarren batek prestatu zuen Mikel Zalbide, euskaltzain urgazleak, hain zuzen. Berau, gainera, Arbietoko egoitzara hortaz propioki etorria zen, nahiz eta une honetan datza zehatzik ez atzeman.

3. HERRI AGINTEEKIN HITZARMENA

Hiztegia martxan jarri baino lehen babesle izango ziren Herri Aginteekin hitzarmena adostu eta sinatu beharra zegoen, bistakoa denez. Aurreko data garrantzitsutik hiru hilabete baino lehenago, arin Administrazioaren abiadurako, Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkartzan oraingoan, 1984ko apirilaren 12an, bildu zen berriz Jaurlaritzaren ordezkaria Akademiaren arduradunekin, alegia, Euskaltzainburua, Buruordea, Idazkaria, Diruzaina, *Jagon* Sailburua eta Idazkariordearekin. Zuzendaritzako batzar-agirian ikus daitekeenez, ez zen izan bertan Iker Sailburua, Mitxelena bera, alegia. Tratututako 3. gaia bakarririk transkribatuko dugu:

Euskal Hiztegi Orokorra – Hitzarmena. Joseba Arregi Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkariak bidalitako zirriborroari, bakoitzak egin dizkion oharra aztertu dira. Pauta bezala J.L. Lizundiak ekarri duen zirriborroa hartzen da. L. Villasante, J. San Martin eta J.L. Lizundiak ekarri dituzte ohar zenbait eta onartzen dira. Knörr eta Lizundiak informatzen dute Hiztegiagintza horretarako lan bulegoaz sortu den aferaz, alegia, I. Sarasolak Gasteiz etorbidean bulego solairu bat alokatzeko asmotan omen dago eta, bien ustez, gestio bat egin beharko litzaiteke Ordezkaritza berrian toki gehiago izateko eta han kokatu Hiztegiagintzako bulegoa, Euskaltzaindiaren barne batetik eta aitzinkontuan merkeago, bestetik. Lizundia gelditu da Alberto Ansola foru diputatuarekin gestio bat egitekotan. Jarraian, Joseba Arregi jauna sartzen da eta denak onartzen ditu. Galdetzen zaio ia 2. Eranskinean agertzen den «Comisión de Seguimiento» delakoa paritarioa izango den eta baietz esaten du, 4 Administrazioetik: Jaurlaritzak 1 eta Diputazio bakoitzak 1 eta 4 Euskaltzainditik.

Urriaren 25arte ez du Zuzendaritzak Hiztegiarekiko gai zuzenik aztertzen, agian Gobernu berriaren kargu aldaketarengatik. Batzar-Agiriaren 7. puntuak hau dio:

Euskal Hiztegi Orokorraz hitz egin da, zeren eta Ekonomi batzordeko kontseilariak Hitzarmeneko lehen eta bigarren artean, aldakuntza batzuk atzeman bai dituzte, bateron bat garrantzitsua gainera. Badaude, bestalde, batez ere Sarasolarekiko, arazo ekonomi batzuk lortu behar. Guzti horrengatik, Hitzarmenean eska-

tzen den Jarraipen batzordea luzatu gabe izendatu beharra ikusten da izen hauek (osoko hileroko batzarrean) proposatuaz: Idazkaria eta Ekonomi Batzordeburua (Diruzaina), karguen arabera – baina oraingo Diruzainak nolabaiteko inkompatibilitate akademikoa duen, Ekonomi Eragilea izango litzateke egokiagoa – J. San Martin eta P. Altuna.

Berriz abiadura hartzen duela bistakoa da, zeren eta segidako beste hiru Zuzendaritza bileretan gaia jorratzen da. Azaroaren 19an Arbieta kaleko egoitzan izandakoaren 5. puntuak hau dio:

Euskal Hiztegi Orokorren Jarraipenerako batzordea, arratsaldean Zuzendaritzarekin bilduko baita, bilera horretarako dakarren txostena irakurri du Euskaltzainburuak. Horretaz luzaz hitz da eta, bide batez, Mitxelenarekin eta baita Joseba Arregi Kultur Kontseilariarekin eta, agian, Paco Garmendia Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Zuzendariarekin egon beharra ikusi da.

Azaroaren 29an, Gasteizko Ordezkaritzan izandakoan, 3. gaiak hau dio:

Azkenik eta, gai nagusi bezala, *Euskal Hiztegi Orokorren* inguruko gaiak tratatu dira. Alde batetik, Jarraipenerako Batzordearekikoak eta, bihar, agian, euskaltzain osoen batzarrean aterako dituztenak eta, bestetik, Mitxelena-Sarasolarekikoak.- Jarraian Mitxelenarekin bazkaria bai dugu. Lehendabizi egoeraz sarrera bat egingo du L. Villasantek; bigarrenik, Campion-Broussainen kontratazioei buruz, J. M. Satrustegik; hirugarrenik, Inbertsio, ekipamendu eta antzerakoez, Juan San Martinek; laugarrenik, Jarraipen Batzordeaz hitz egingo da.

Abenduaren 6an, Durangoko udaletxean egindakoan, 1. gaiak hau dio:

Euskal Hiztegi Orokorraz, Federico Gonzalezek prestatutako kodiziloa, lezroez lerro irakurtzen eta aztertzen da eta zenbait aldaketa egiten zaizkio, hala nola: «Párrafo IV. Serán un contrato específico entre la R.A.L.V/Euskaltzaindia y Luis Mitxelena, VI. 2.1.Gehitu» académico de número y presidente de la Comisión de Lexicografía, kendu «Ibon Sarasola».VI .2.2. Ibonena sartuko balitz, hemen sartu.VII. Anexo II zena, hona pasatu; Besteak baieztatzen dira; «Fondo de reserva»rena nonbaiten aipatu beharra ere ikusi da. Zer pausu eman orain aztertu da.- Eneko Oregi arduratuko omen da Hiztegiarekiko harremanetan Jaurilaritzaren ize-nean.- Abokatuekin, astelehenean egongo gara. Mitxelenarekin, asteartean, 11n. Baita ere asteartean. Agian. Joseba Arregi eta Paco Garmendiarekin. Idazkariordea arduratzen da, bihar bertan, Mitxelena eta Joseba Arregi deitzeko. Hileroko batzarrean, lehen puntu bezala. «Euskal Hiztegi Orokorraz, gestioen berri ematea» gaie-tan sartzea erabaki da.

4. BILKURA AKADEMIKOETAN HIZTEGIA

Zuzendaritzak, Akademia erakundearen gobernu erakunde legez, Administrazio erakundeekiko kudeaketa eraman bazuen ere, osoko bilkurari, ez bakarrik kontua eman, baita ere, gai akademikoetan hola delako, onarpena edo-

ta birrespena eskatzen zion. Hara hor, hileroko batzar-agirietan agertzen diren garrantzitsuenak:

1982ko otsailaren 26an egindako bilkuraren 2. gaiaz honako hau dio agiriak:

Hiztegiintza. Euskaltzainen goizeko bileran martxoaren 15ean Gasteizen Zuzendaritzak egindako batzarraren berri eman da. Hiztegiintzako batzordea ssortzeko asmoz bide urratze bat besterik ez bada ere, batzorde horren helburuak eta mugak, hala nola bertan parte hartuko duten lankideen gaitasuna aipatu ziren. Zenbait jaun-andreen izenak ere aurkeztu ziren. Beste batez jarraitzeko utzi zen arazoa.

Gaia geldi samar zegoela dirudi, zeren eta hurrengo urteko martxoaren 23ko bilkura arte itxaron behar dugu, honako hau irakurtzeko:

Batzordeen azalpena. Hiztegiintza batzordea bildu dela Gasteizen, adierazi du R. Badiolak. Aste Santua igaro arte lanean hasterik ez dago. Liburuez jabetzen hasiko dira gero eta fitxategia egiten. Mitxelenak bere fitxen kopia ateratzeko baimena emana du.

Behin-behineko batzordea izan behar du, zeren eta hurrengo hilabetearen azkenaldian, Araban bertan, Angostoko santutegian egingo ziren III. Barne Jar-dunaldietan finkatu bai ziren batzordeak. Hara zer dion bigarren eguneko, apirilaren 29ko batzar-agiriak:

III Batzordeen egoera. Batzordeen egitekoa eta beroien arteko eremuen mugak agertu zituen J. L. Lizundiak. Batzorde iraunkorrak eta suntsikorrak berezi zituen txostenean, eta kopurua gutxitzea proposatu zuen... Iker Saileko batzordeak lau izan daitezke: **Hiztegiintza**, Batzorde honetan sar daitezke: a) Maileguzko hitzak; b) **Mitxelenaren hiztegia**; c) Euskaltzaindiaren beste hiztegiak; d) hitzen normalizapenerako lanak.

Batzordekieen izendatzeak hurrengo hilean erabaki ziren. Hain zuzen, Maitzaren 23an, Pierre Lafitteren omenez, bildu bai zen Euskaltzaindia Uztaritzeko udaletxean. Irakur dezagun Batzar-Agiriaren zatia:

Batzorde eraberritzea. Angoston proposaturako batzorde eta batzordekieen zerrendak ikusi ondoren, honela gelditu dira: **1. IKER Sailekoak. 1.1. Hiztegiintza.** L. Mitxelena buru, I. Sarasola buru-orde, M. Zalbide idazkari, R. Badiola idazkari-orde, X. Kintana, L. M^a Mujika eta Tx. Peillen. Batzorde honen eginkizunetan sartzen dira: **Mitxelenaren hiztegia**, maileguzko hitzen....

1984ko apirilaren 27ko Batzar-Agiriaren lehen gaian honako hau irakur daiteke:

Eusko Jaurlaritzak Autonomi Lurraldeko hiru Diputazioekin batera Mitxelena jaunaren ardurapean «**Euskal Hiztegi Orokorra**» burutzeko finantziabidea onartu duela jakinerazi zion aurreko astean J. Arregi jaunak Euskaltzainburu-ga-ri. Laguntza honen funtsa honela bideratuko da: 1) Eratzailak Euskaltzaindiarekin izenpetuko dute lehenik akordioa. 2) «Campion-Broussain S. A. Azpi elkar-

goaz eramango du Euskaltzaindiak L. Mitxelenarekin, zuzenean, ekintza honi dagokion legezko hitzarmena. Eta 3) Eratzailleen aldetik lau ordezkariak eta Euskaltzaindiak izendatuko dituen beste laurek osotuko dute lanaren jarraipen batzordea. Euskaltzaindiak goizeko bileran gehiengoaz onartu ditu baldintza guztiak, eta aipaturiko bi lehen urratsak eman ahal izateko baimena jaso dute arduradunek. Jarraipen batzorderako izenak ematea beste egun baterako utzi da.

Urriaren 26an egindako osoko batzar-agiriak hau dio:

6. **Euskal Hiztegi Orokorraz** mintzatu da, hain zuzen berari buruzko proposamen bat egiten du Euskaltzainburuak eta luzaz eztabaidatu ondoren, jaun hauek izendatzen dira: Patxi Altuna, Alfonso Irigoien, Federico Krutwig eta Jose Maria Satrustegi. Hau atzeritik denez, honen hutsunean, behar balitz, Juan San Martin Jagon Sailburua. Ondoko bezala, arazo ekonomikoen harremanetarako soilki, Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea.

1985ko martxoaren hondarrean, Euskaltzaindia Baztanera dora Lekarozko Ikastetxean IV. Barne Jardunaldiak egitea eta Arizkun Pello Salabururen sarrera-hitzaldia ospatzera. Bigarren egunean, 30ean, lehen gaiaz honako hau dakar batzar-agiriak:

Hiztegi gintza. Txosten mardula aurkeztu zuen batzorde horretako idazkari den M. Zalbidek. Datorren 1984-1986 epealdirako egitaraua aipatzean, ekintza nagusiok atera zituen: Egiten ari diren **Orotariko Euskal Hiztegia**; eguneroko euskal hiztegi jasotzea;.... Behar hauek hobeki aztertze eta finkatzeko egun osoko Jardunaldi berezi bat antolatzea erabaki zen.

Atsedenaldi baten ondoren, bi urte lehenago izendaturiko Hiztegi gintza Batzorde berberak jarraitzea erabaki zen, hots, Mitxelena, Sarasola, Zalbide, Badiola, Kintana, Mujika eta Peillen.

Aurreko lerrokadan agindutako Jardunaldi berezia, hurrengo urtean, A. Damaso Intzaren mendeurrenkari Lekunberrin antolatu genuen, urrian, baina aurretiaz, aintzinako osoko bilkura akademikoan, hots, Donostian, 1986ko irailaren 26an, Iker sailburu eta Hiztegi gintza batzorde buruak, Koldo Mitxelenak, alegia, txosten jakingarri hau aurkeztu zuen, alegia, **OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN INGURUAN** izenduna. Bost kapitulutan banatu zuen:

1. **«Zer den.** Urteak eta urteak dira batzar hauetako batean Euskaltzaindiaren hiztegiak mintzatu nintzela... 2. **Testuak.** Hizkuntza bizi deino ez du sekula hiztegi oso baterik izango... 3. **Nolakoa izango den.** Tomo edo liburu bakoitzak izango du gutxi gora-behera Corominas nahiz Corominas-Pascuelen tankera... 4. **Norentzat den eta zertarako.** Inoiz ez dio erakutsiko, hau da lehen puntua, euskal hitzen arteko aukerak nola egin. Hori zuzenean erakusteko asmorik ez badu ere, orde, eskainiko ditu hautabiderako oinarriak... hizkuntza idatzia astiroago aztertu dugula ahozkoa baino. Nora ezean gertatu da.... 5. **Zenbait osagarri.** Leku eta pertsona izenetan ageri diren lekukotasunak ez ditugu baztertu, kontuz jaso baditugu ere... Etimologia ere agertzen da zenbaitetan, bide errazetik lor daitekeenean...

Hizkuntzalariak bere maisutasunaz eta dogmatismo izpirik gabe txosten horretan agertzen du O.E.H.ren egitasmo akademikoa.

Arestian esan bezala, Urrian, 24an hain zuzen, egingo zuen Larraungo herriburuan Jardunaldi monografikoa. L. Villasante euskaltzainburuaren agurrari, Mikel Zalbide Hiztegitintza batzorde idazkariaren txosten mardulak eman zion segida, izenburua: «*LEXIKO-BERRIKUNTZAREN INGURUKO ZENBAIT OHAR-AZALPEN*».

Hasi 1983an, Angoston egindako Barne-Jardunaldietatik, zeinetan sortu bai zen Hiztegitintza batzordea eta aurreko hilabete arte zer pausu, egitasmo eta lan, bere ohiko zehaztasunez azaldu zituen. Hiru eginbehar azpimarratu zituen:

Orotariko Euskal Hiztegia (aurrerantzean **OEH**); Lexikologi Erizpideen Finkapena (aurrerantzean **LEF**); Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (aurrerantzean **EEBS**).

Guri orain dagokigun arloari mugatuz, honela hasten da:

c) Orotariko Euskal Hiztegiari 1984ean bertan eman zitzaion behin-betiko abiada. Luis Mitxelaren zuzendaritzapean eta Ibon Sarasola lagintza osoaren arduradun eragile izanik, OEH programa asi bideratua dago jadanik eta, azken orduko atzerapen bat gertatzen ez bada behintzat, ekintza sendo honen lehen uza (800 eta 1.000 orrialde arteko liburukia) berandu baino lehen eskuartearen izatekoa dugu. Hiztegitintza batzordearen epe ertain eta luzerako plana prestatzerakoan *Orotariko Euskal Hiztegia* egin eta argitaratze lanari aitortu zitzaion erabateko lehenitasuna. Arrazoi sendo eta ugariak sendo eta ugariak zeuden...: bere lan-bolumen handia; euskaldungoaren erabilera zuzenerako sortuko duen emaitza osatua; gainerako hiztegi guztietako jakiniturri nagusi izatea...

Urte betera kaleratuko zen liburuki hori. Txostenak beste gai jakingarri ugari aztertzen ditu, pare bat dakartzkigu orain:

... Gidaritza hori (hiztegitintzaz ari da Zalbide) Euskaltzaindiari dagokio aurrez aurre eta bere osotasunean. Bide paraleloak era daitezke noski, eta halakorik aldarrikatzen duen euskaldun-jenderik ere ez da gure artean falta. Azken bide hori erro-errotik okera dela uste izan dut nik, eta ez dut gaur ere eritziz aldatzeko arrazoi nahikorik ikusten... Ez nioke nire azapeltzintza honiamaiara eman nahi uste-aburu bat agertu gabe: **euskararen hitz-altxorra** (azpimarra geurea da) berrikuntza askozaz eginbehar zabal eta bihurriagoa da... Hiztegitigile saiatuen buru-argitasunaz gainera bestelako faktore asko dira...

Beste zenbait osoko bilkuretan ere aztertu zuen Akademiak O.E.H. gaia baina gaurkoz horretan uzten dugu.

5. O.E.H.-REN LAN-TALDEA OSATZEA ETA HITZARTZEA

Egitasmoa ahalbideratu bezain laster, Mitxelenak lan-taldea sortu behar zuen. Ibon Sarasola bere ondokoarekin batera euskal filologian lizentziatuekin hornitu zuen gehienbat. Garai haretan Euskaltzaindiko diruzain eta Arabako ordezkari zen H. Knörr eta gu biok, idazkariorde eta ekonomi eragileok, lantokia aurkitzen saiatu ginen, behin-behingo bulego-etxe batean, baina gero, Alberto Ansola foru kultura diputatuaren laguntzaz, egun Euskaltzaindiaren Gasteizko Ordezkaritza kokatua dagoen eraikuntzaren beheko solairuan. Toki egokia, baina Mitxelena jubilatuta Donostiara bizitzen joan zelako, erabili gabe gelditu zena, geroztik Diputazioak Real Sociedad Bascongada de los Amigos delakoari lagatakoa.

Juan San Martinek Euskaltzaindiaren izenean sinatu zuen 1986ko abenduaren batean hitzarmen bat Koldo Mitxelena eta Ibon Sarasolarekin, hauek OEH hiztegitzaren «kontratista» legez, zeinetan, besteak beste, dioen

«... 1º REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA, en su condición de COMITENTE (J. San Martín), suscribió en 16.5.84 y con diversas Entidades Públicas, convenio de financiación para la elaboración de un Diccionario General de la Lengua Vasca.- 2º Por medio del presente escrito y de acuerdo con los términos del convenio de financiación que se ha hecho referencia, COMITENTE viene a encomendar a CONTRATISTAS (L. Mitxelena, I. Sarasola) ... la elaboración para la REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA de un **Diccionario General de la Lengua Vasca** ...

Gero, ondorioz, Euskaltzaindiarekin hitzartuta lan-taldea hasieran osatu zutenak hauek dira: Isabel Arrigain, Arantxa Egia, Gabriel Fraile, Mª Jose Kerejeta, Iñaki Segurola eta Eduardo Valencia. Ibonen hasieran esandakoa birretsiko dut:

Bada Mitxelena irakaslearen lanaren alderdi bat oraindik ia-kontuan hartzen ez bada ere, oinarritzak dena: hain zuzen irakasle gisa egin zuena. Izan ere, bere Gasteizko ikasleak dira bere jakituria zuzen-zuzenean eguneroko harremanetan jaso duten bakarrak. Hor eman zuen Koldok bere eskolarik oparoena. Ikaslego hori gertatu da bere zientzi hil-burukoa. Horregatik, hiztegi honen argitaratzearen eskaintza heldu zenean, ikasle horien artean hautatu zituen lankideak...

Lan-talde horretatik alde egin zuten arrazoi desberdinengatik aipaturiko Isabel Arrigain, Eduardo Valencia eta Mª Jose Kerejeta. Geroago sartuko ziren Blanca Urgell, Elizabete Kruzeta, Ana Mari Loidi. Ainhoa Otamendi, Ainhoa Aranburu, Ainara Estarrona eta Amaia Olabarriak, azken bostok ere bukatu zutelarik lan-hitzarmena. Hamasei liburukiok finitu arte Euskaltzaindiarentzat lanean jarraitu dutenak hauek dira: I. Segurola, A. Egia, G. Fraile, Elizabete Kruzeta, Ana Mari Loidi eta Ainhoa Otamendi. Batzuon eta besteon izenok, gaur hemen egon edo ez, urteetako kudeaketa harremanen gazi-goza guztiak gora-behera, aipatzea bidezkoa da, aurrenik Ibon Sarasola egitasmo zuzendaria, noski.

6. O.E.H.-REN ARGITALETXEEKIKO KUDEAKETA

Garai hartan Euskaltzaindiak ez zuen ahalmenik O.E.H. bezalako egitasmoaren emaitza erraldoiak argitaratzeko. Horregatik, Zuzendaritzak, egileari, iritzia eskatuz deliberatu zuen egokiena enkante publiko baten bidez argitaletxe bati adjudikatzea. Euskaltzaindiaren ordezkariak Jarraipen batzordean planteatu zuten, Herri Aginteen ordezkariak ere begi onez ikusi eta hala erabaki.

Juan Maria Larruzea Urteaga notario jaunaren aurrean egin bai zen enkantea, hara hor nola ematen duen fede berak:

... Que la Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA acordó editar el denominado *OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA o DICCIONARIO GENERAL VASCO*, habiendo sido publicadas el pliego de condiciones en Vitoria el día 9 de Junio de 1986. Que en el domicilio de la Real Academia se han recibido las siguientes solicitudes de adjudicación, que constan en sobre cerrado: 1.- HARANBURU ALTUNA; 2.- EDICIONES MENSAJERO; 3.- DESCLÉE DE BROUWER; 4.- EDITORIAL ITXAROPENA; 5.- ELKAR, S.A. ... DILIGENCIA.- Para hacer constar que siendo las trece horas del día 6 de Agosto de 1.986, me persono en los locales de EUSKALTZAINDIA, calle Arbieta, nº 3. de Bilbao y bajo la presidencia de D. Luis Villasante Cortabitarte, y hallándose presentes D. Luis Michelena, D. Patxi Altuna, D. Mikel Zalbide, D. Ibón Sarasola, D. José Luis Lizundia y D. Juan Luis Cearreta, así como los representantes de las Editoriales se procedió a la apertura de los sobres que contenían las solicitudes de las cinco Editoriales participantes. Todas las cuales fueron leídas

Zuzendaritzak, opor garaia igaro ondoren, irailaren 26an, ikusirik Mensajero eta Desclée de Brouwer argitaletxeek elkarrekin hiztegi bilduma osoa argitaratzeko borondatea agertzen zutela, bieki batera adjudikatzea erabaki zuen, hori bai, Mitxelari entzunda, bileran baitzen, bestalde. Hala eta guztiz ere argitaletxeekin Hitzarmena sinatzeak bere denbora eraman zuen, zeren eta xehetasun ugari lotu behar baitziren. Bat aipatzekotan, hara hor zer zioen Juan San Martin diruzainak, J.J.Zearreta ekonomi eragileari zuzendutako gutun batean:

Hitzarmenaren aurreproiektua egitea argitaletxe horien esku utzi genian apirilaren 23an. Aurekeztu ziguten proiektuan bi puntu hituan onar ezinak: epe aldaketa eta penalizazioa... Dena dela, arazo hauek Zuzendaritzako bileran ikusi beharko dizkiagu.

Hitzarmena sinatu zuten 1987ko azaroaren 12an A. Luis Villasante euskaltzainburuak, Akademiaren izenean eta Josu Legina eta Javier Gojeaskoetxea, Mensajero eta Desclée de Brouwer argitaletxeen izenean. Ezaugarri nagusienak bakarrik aipatuko ditugu:

ESTIPULACIONES.- 1ª La Academia cede a «Editores» que aceptan, el derecho exclusivo de imprimir, publicar, difundir, distribuir y vender por todo el mundo, la obra titulada «Diccionario General Vasco»... 2ª La obra «*Diccionario General Vasco*» constará de ocho tomos, de 800 páginas aproximadamente cada

uno de ellos... 3ª La entrega del material correspondiente antes del 1º de noviembre de cada año... 6ª Los «Editores» se comprometen a distribuir la obra al menos a los siguientes puntos: a) Distribución a todo el País Vasco, a través de los canales de venta usuales b) A las principales capitales del Estado c) A las Universidades y Centros de Investigación Lingüística del Mundo...

Eta horrela hamabost estipulazio.

Lehen Hitzarmen horrek bere gora-behera guztiekin, bigarren bat behar izan zuen, liburukien atzerapen eta gehiketa guztiei aurre egiteko. Hau Jean Haritschelhar euskaltzainburu berriak sinatu zuen 1993ko urtarrilaren 26an, zeinetan partaidetza zuzena izan bai zuen orduko Diruzainak, Jose Antonio Arana Martijak. Hala dio akordioak hasieran eta zati garrantzitsuean:

Reunidos, de una parte los miembros de la Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia D.- Jean Haritschelhar Duhalde, Presidente de la Institución; D. Juan María Lekuona Berasategi, Vice-Presidente; D. José Antonio Arana Martija, Tesorero; y D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario y de la otra, los editores del *Diccionario General Vasco* D. Francisco Javier Gojeascoechea Arrien, en nombre y representación de Desclée de Brouwer S.A.; y D. Jesús Leguina Garay, en nombre y representación de Ediciones Mensajero, S.A.... (izandako gorabehera nagusiak aipatzen ditu dokumentuak)... 4º Que los reunidos llegar a formular el siguiente ACUERDO: 1. Que sin que el **Diccionario General Vasco** pierda en ningún caso la línea científica de su contenido mantenida hasta el presente, ni los Editores se vean obstaculizados en su labor de edición y difusión, la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia se compromete a gestionar el trabajo de preparación de los textos a editar, poniendo de su parte cuantos medios personales y materiales sean necesarios para este fin.- 2. Que el **Diccionario General Vasco** se compondrá de CATORCE TOMOS que se terminarán de preparar para el año 2000 ...

Zortzigarren kapituluan garatuko ditugu akordio honen segidako xehetasunak.

7. LEHEN LIBURUKIEN AURKEZPENAK

Mitxelena lehen liburukia kaleratu baino bi hilabete lehenago hil zen, urriaren 11an, hain zuzen. Urduñara joatekoa zen, Licenciado Pozaren laugarren mendeurrenkari, 1987ko irailaren 23an, II. Onomastika Jardunaldietan hitzaldi bat ematera, omenduari buruzko gai hau jorratuz: «Cuestiones acerca de la biografía de Andrés de Poza». Azken orduan gaixotu eta esan zigun ez zuela Jaurerriaren hiri historikora iristerik, deitu zigun – beretzat bazuen herri horrek beste historia bat, 1936-37ko hango frentean izana-. Eta egun gutxira, zendu zen, bere egitasmo nagusiaren lehen uzta ikusi gabe. Azkenengoz orduan hitz egin genuen elkarrekin. Zer pena!

* * *

Euskaltzaindiak oraindik ez zuen bere Egoitza berria bukaturik Plaza Barrian, baina bagenekien non nahi zuen *Orotariko Euskal Hiztegia* aurkezte, Gran Viako Foru Jauregian, zeren eta gogoan baitzuen zein erakunde izan zen Mitxelenaren hiztegirako lehen erakunde laguntzailea, Bizkaiko Diputazioa, hain zuzen. Aurkezpena ospe handiz antolatu genuen, 1987ko abenduaren 17an, batzar-aretoan. Jose Alberto Pradera diputatu nagusiaren ongietorriaren ondoren, Fr. Luis Villasante euskaltzainburuak hitzaldi sakon batez egin zuen aurkezpena. Mahaiburuko Praderaz gain, Ardantza Lehendakaria, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako foru ordezkariak eta M. Karmen Garmendia Jaurlaritzako sailburua zirelarik. Lehen lerroetan ziren Mitxelenaren alargun eta seme-alabak, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza kideak eta euskaltzain osoak; alderdi desberdinetako Bizkaiko Batzar Nagusietako bozeramaileak, Iparraldeko hautetsi bat: Miarritzeko auzapez-orde Jakes Abeberri, euskaltzain urgazle, OEH.ren lantaldeko, kazetari eta abar. Honela hasten zuen Euskaltzainburuak bere berbaldia:

Egun zoragarria hau. Hodei moduko batek goibelduko ez balu: egilea bera ez baita gurekin. Hiztegi honek argitara irten behar zuen unean bertan joan zaigu (G.B.)... Gaur kaleratzen den obra hau dugu, Koldoren ikerketalanak ekarri digun emaitzarik handienetariko bat, handiena ez bada.»Handiena ez bada» diot, ezen Mitxelenak badu bere izenarekin betiko lotua geldituko den besterik ere, esate baterako, euskararen batasuna; baina bego.

Testu mamaittua benetan, XXXIII. *EUSKERA* agerkarian irakur daitekeena. Erdarazko zatitxoia ez da itzulpena eta baditu pasarte zenbait, hiztegi honen historiarako jakingarriak, hara hor:

... Empecemos por los ya lejanos orígenes de este Diccionario. En la sesión académica celebrada el 28 de Octubre de 1955... se hace saber que ya no esta a la venta, por haberse agotado, el *Diccionario Vasco-Español-Francés* de D. Resurrección M^a de Azkue en 2 tomos, publicado 50 años antes, gracias a la ayuda de la Excm. Diputación de Vizcaya. En la siguiente sesión, Mitxelena presenta una especie de ponencia sobre este tema de la reedición, y se le pide que traiga un plan o proyecto detallado. Por extravío seguramente no aparecen las actas de las siguientes sesiones. No hay que olvidar que por aquellos años no se publicaba el órgano *Euskera* y la Academia no llevaba una vida normal. A buen seguro fue en una estas sesiones cuando Euskaltzaindia encargó a Mitxelena la preparación de la reedición de Azkue, pero puesto al día, o sea, corregido, completado, etc...

Bistan da egoera anormal hartan - eta bazekien Villasantek, beretzat, Mitxelenarentzat eta orduko, 1955ko Euskaltzaindiaren idazkari eta legelari D. Nazario Oleagarentzat zergatik ez zen egoera normala – zergatik ez zen posible hiztegi egitasmo bat gauzatzea. «Aurrekariak» kapituluan ere aipatu dugun zerbait. Jarrai dezadan beste Euskaltzainburuaren zenbait pasarterekin:

... del Diccionario. Este poco a poco fue saliendo de sus manos de tal modo reelaborado, transformado y agrandado, que ya no era el Azkue, sino obra ente-

ramente nueva. Llegó también un día en que aquello desbordara las posibilidades de una sola persona. El autor se convenció de que hoy no se puede hacer una obra de esta naturaleza a base de fichas y cuadernos, como fue el caso de Azkue. Se hacía preciso el recurso al ordenador. Encontró también un colaborador fiel que trabajara a sus órdenes, Ibon. Por fin, Mitxelena halló también el Mecenaz, sin cuya ayuda no hubiera sido posible realizar la obra: el Gobierno Vasco y las Excmas. Diputaciones Forales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya; y, hoy mismo, precisamente antes de este acto, se ha formalizado y firmado la adhesión y participación de Navarra a esta magna obra cultural. Debo dar las gracias a nuestras autoridades, que, al patrocinar esta iniciativa, demuestran tener conciencia de su trascendencia y significación... Permitidme un desahogo. Creo que en los años que llevo al frente de la Academia éste es el día más feliz para mí. Siempre fue mi mayor preocupación al ver que esta obra, tan necesaria para la lengua y cultura vasca, se demoraba... Debo dar también las gracias a los editores Desclee y Mensajero, a quienes se les adjudicó, tras subasta, la edición. Ellos se darán perfecta cuenta, creo, de que esta obra no es sólo para andar dentro de casa, sino que se le debe dar una difusión internacional o mundial, y espero que así sabrán hacerlo.

Ibon Sarasolak *Orotariko Euskal Hiztegia aurkeztean* ospakizun berean Bizkaiko batzar-aretoko atriletik irakurri zuen txostena ere oso jakingarria da. Ez gara gu luzatuko, seguru asko, berak ere gaur zenbait pasarte errepikatu beharra izango duelako. Hala ere, pare bat pasarte dakartzizuegu:

Orotariko Euskal Hiztegiak garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da beraz, eta ez arauemailea, ez normatiboa... Gure lana ez da liburuki hau kaleratzean bururatzeko. Eta tamalez, umezurtz gelditu den obra honen gainerako liburukiak prestatzea ez da zailtasun gabeko lana izango. Baina Koldoren lankide-taldekook ongi dakigu hau dela utzi digun betekizuna.

Mari Karmen Garmendia andreak eta Jose Antonio Ardantza lehendakaria ere mintzatu ziren lehen aurkezpen horretan, *Euskera* agerkarian irakur daitezkeenak. Aipamen bana, beraz. Hala zioen Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiak:

... Eta gaur eskuartean dugun *Orotariko Euskal Hiztegia*, neurri on batean, belaunaldiz belaunaldi kultur ondare horren transmisioa ahalik eta osatuenean mantendu eta indarberritzeko tresna egokia gertatuko dela espero dugu denok...

Lehendakariaren hitzetatik:

... azkenik, O.E.H. bideratze, nola edo hala partaide izen diren guztiei: A) Zorionak Euskaltzaindiari, bere sortarauetako eginbehar nagusi bati gogotsu erantzuten saiatzeagatik; B) Eskerrak lantaldeari, beharrezko profesionaltasunez langintzari bete-betean erantzuteagatik; C) Eta gorazarreko oroi-aipamena, bere heriotzera arte OEHRen iturburu eta zuzendari izan genuen Koldo Mitxelena irakasleari. Berak erakutsi zigun, inork baino zuhurrago, herri batek bere nortasunean iraun ahal izateko, bizi nahi izatea ez dela aski: bizi-nahiari bizibideak

erantsi behar zaizkiola esan zigun berak, behin baino gehiagotan, ametsetik izate sendoko izanera igarotzeko...

O.E.H.ren bigarren liburukia 1989ko martxoaren 16an aurkeztu zen Gipuzkoako Jauregian. J. Haritschelhar euskaltzainburu berriaz landa, Imanol Murua diputatu nagusiak eta Ibon Sarasolak hitz egin zuten. Beharrezkotzat jo zen, Gipuzkoako Diputazioa, bost Herri Aginteetarikoa bat izanik eta lehen zuzendaria eta bigarrena gipuzkoarrak, Donostian aurkezpen hau egitea.

Durangon XXIV. Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztu genuen, urteko nobedadeen artean azpimarratzekoa zelako Gerediaga Elkarte eratzailearentzat ere, 1989ko abenduaren 10an, hain zuzen, III. liburukia. Esan behar da, Mitxelenarentzat Azoka hau gune garrantzitsu bat zela euskal kulturarentzat.

Orotariko Euskal Hiztegia Nafarroan eta Araban aurkeztea ere bidezkoa zela Euskaltzaindiarentzat. Norbaitek aipatu bazuen ere liburu bat hainbeste aldiz aurkeztea gehiegi zela, ez ahantz bi Foru Administrazioak egitasmoaren babesle izanik, Akademia beraiekiko nolabait zordun zela. 1990eko abenduaren 13an, IV. liburukia zeinetan mintzaldi interesgarria egin baitzuen I. Sarasolak (ikus XXXVI *Euskera*). Aipamen soil bat egingo dugu: *Nafarroak toki berezi bat betetzen du euskararen historian, eta alde honetatik, gure Hiztegiaren zereginetan. Erdi Aroko, Erdi Aroan edo Erdi Aroari dagokionez erabiltzen dugun ia material guztiak, Nafarroari dagozkio... Eta are gehiago, eman dezagun XVIII. mendearen erdi alde arte edo, ez ditugu Hegoaldean, Beriayn bezalako autorerik...». V. liburukia, Araban, 1992ko urtarrialaren 31an, Alberto Ansola Arabako diputatu nagusi mahaiburu zela aurkeztu zen Floridako Kultur-etxean 1992ko urtarilaren 31n. Bosgarren hau «transizio alea da» esan zuen I. Sarasolak.*

LUIS MICHELENA

DICCIONARIO GENERAL VASCO
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

XVI

Ut~Z



Real Academia de la Lengua Vasca
EUSKALTZAINDIA

BILBAO 2005



Editorial Desclee De Brouwer, S.A.
Hirao, 6 - 48009 BILBAO

Ediciones  Mensajero

Sascho de Arpeitia, 2 - 48014 BILBAO

8. V.enetik XVI. LIBURUKIEN ARTEKO IBILBIDE LABURTUA

Geroztikako Zuzendaritzaren babesa, batez ere Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren eta Jose Antonio Arana Martijarena – honek sartutako orduak eta orduak eta artxiboa ezinbestekoa izango zaigu)–, baita Jose Mari Satrustegi, Juan Mari Lekuona eta Patxi Goenagarena, ahanzi gabe azken garaiko Henrike Knörr –(honek bi Zuzendaritan ardura desberdinak izan zituen)–, Andres Urrutia –(Zuzendaritzako eta euskaltzain oso izan baino lehenago bere izena agertzen zaigu batzorde Juridikoan aholkulari legez, 1991a geroztik)– eta Beñat Oiartzabalena oso eskergarri suertatu zaigu Hiztegi honen kudeaketa azken zenbakiraino eramateko. Noski, beste aldetik, alegia, Hiztegiaren bulegotik, Ibon Sarasola zuzendariaren eta lantalde osoarena ere ezinbestekoa gertatu zaigu.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN AURKEZPENEAN: HIZTEGIAK GAUR

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2005-XI-17

*Idoia Zenarrutzabeitia,
lehendakariordea*

Eskerrik asko. Itzelezko sarrera izan da eta lehenengotan arratsaldeon edo arrastion nire herrian esaten den moduan, guztioi eta eskerrak ekitaldi honetara gonbidatzeagatik.

Pozgarria egiten jat gaur hemen egotea, ez dalako hain sarri gertatzen ekitaldi baten nigan, Idoia modura nago berbetan orain, bi asmo bateratzea. Bata, euskaltzale lez, nik Euskaltzaindia ezagutzeko neukan gogoa eta beste, bisita hau, hain bere biziko aurkezpen baten inguruan izatea. Hainbat urtetako lanaren ondotik, Orotariko Euskal Hiztegia, Euskaltzaindiaren egitasmo nagusietariko bat burutu da, abentura hau hasi zuena harro egongo zen gaurko ekitaldiagaz eta nik ikusten dodan modura, euskara bera be, harro sentitu beharko litzateke, 16 liburutako etorkizunera zabaltzen den leiho honen ondoren.

Benetan Orotariko Euskal Hiztegia lan itzela izan da, 35 urte iraun daben bide luzean zehar, asko izan dira proiektu honetan parte hartu daben pertsonak, hemen aipatu dira, eta erabili diren diru baliabideak, metroak edo kilometroak, ia ez dakit, edozein kasutan eta arlo honetan ezin dot ahaztu erakunde publikoen laguntza ezinbestekoa ezin dela, lehen aipatu da.

Aurrera begira zer gelditzen jaku gaur?, nire iritsiz gauza bi, bata, euskaltzaleon buruan betirako finkatuta geldituko dan imajina bat, ikono bat, ia-ia, eta beste alde batetik, erronka bat. Imajina hauxe, Orotariko Euskal Hiztegiaren enbrioi bezala, Koldo Mitxelena zapata kaxetan fitxak gordetzen; Ibon Sarasolari burua grisatzen jakon bitartean eta erronka hauxe, 1970. urtetik gaur eguneko teknologi berrietara mundua dezente aldatu denez, burututako lana sekulakoa izanik ere, emaitza horren gizarteratzeak, gero eta derrigorrezkoagoa egin dala. Ziur nago erronka honen aurrean ere Euskaltzaindiak ekin eta jarraitu egingo diola, gure laguntza izango dau, betiko modura. Horregatik hiztegian parte hartu daben guztiei zorionik beroenak. Euskaldunok beste pausu bat emango dogu eta edozein kasutan holan hasi naz eta holan amaituko dot.

Mila esker danori eta mila esker gonbidatzeagatik.

GRAMATIKA

GRAMATIKA JARDUNALDIAK
ETA *EGLU*-VI LIBURUKIAREN AURKEZPENA

Bilbo, egoitza, 2005-VI-09

EUSKAL GRAMATIKA: LEHEN URRATSAK (EGLU) VI Liburuaren aurkezpena

2005. urtean, 25 urte bete dira Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea sortu zela. Hori dela eta, eta *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU) VI (Mendeko perpausak 2)* liburua –bildumaren azken liburukia– argitaratu dela aprobetxatuz, Gramatikaren inguruko Jardunaldia antolatu du Euskaltzaindiaren batzorde horrek, ekainaren 9an, egoitzan.

Jardunaldi horren barruan, Jose Antonio Mujikak «Gramatika batzordeak 25 urte» izeneko mintzaldia eman zuen eta Itziar Lakak eta Pello Salaburuk, aldiz, «Gramatikaren izaera eta deskribapena» gaiaz hitz egin zuten.

Horren ostean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Pello Salaburu Gramatika batzordeburuak *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak VI (Mendeko perpausak 2)* izeneko liburua aurkeztu dute.

Hona hemen, gramatika-bilduma honetan gaur arte argitaratu diren liburuki guztiak:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak. Euskaltzaindiaren Gramatika bilduma

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU) izeneko gramatika-bilduma, 1980 urtean jarri zen abian, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea sortu zen urtean, alegia.

Euskaltzaindiaren Gramatikaren lehen oinarriak finkatzea zen batzordearen lehendabiziko eginkizun nagusia, eta 25 urte hauetan lan horretan aritu da, batez ere.

Gramatikaren egitasmo honetan Gramatika batzordeak 2.500 orrialdetik gora argitaratu ditu jadanik. Hona hemen batzordearen orain arteko etekinak; alegia, 2.500 orrialde horiek nola banatzen diren:

1) *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I (1985).*

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I (Eranskina) (1987).

1985eko argitalpena, eta geroago (1987an) argitara emandako eranskina 1991n bildu ziren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I liburuan.

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I (1991).

Euskaltzaindiaren X. Biltzarrak lan hau «aitzin urrats handitzat» eman zuen eta esan zuen berau hartuko zuela oinarritzat aurrerantzean euskal gramatikari begira erabakiak hartzerakoan. Perpaus bakunaren egitura, osagaien hitz-ordena, izen sintagmaren egitura eta deklinabidea aztertu ziren lehendabiziko liburu mardul honetan.



2) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II* (1987).

Liburu honetan aditza aztertu genuen bere osotasunean: aditzaren inguruko xehetasun guztiak eta aditz-taulak bildu genituen.

3) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (Lokailuak)* (1990).

Testu- edo diskurtso-mailako lotura-hitzak, lokailu izenekoak, landu ziren liburuki honetan. Lokailu horiek era monografikoan aztertzen ziren lehendabiziko aldia izan zen euskal gramatikagintzan.

4) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak IV (Juntagailuak)* (1994).

Liburuki honekin ekin genion perpaus konplexuen azterketari. Hasierako honetan perpaus juntatuak aztertu genituen, koordinazio edo juntadura deitzen duguna.

5) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko perpausak 1)* (1999) .

Liburuki honetan, mendeko perpaus konplexuak aztertzen hasi ginen. Menderakuntzaren gainean hiru liburuki argitaratzea da gure helburua, eta hau izan zen hiruretan lehenbizikoa: aditz jokatua duten perpaus osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak eta ondoriozkoak aztertu genituen honetan.

6) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VI (Mendeko perpausak 2)* (2005).

Gaur aurkezten den lan honetan, aurrekoan aztertu ez ziren perpausak landu dira: baldintza perpausak, denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak, konzesiozkoak eta moduzkoak. Betiere, aditz jokatua duten perpausak.

Bestalde, esan behar da liburu bakarra argitaratzea falta dela bilduma osatzeko: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VII (Mendeko perpausak 3)*. Aditz jokatugabea duten mendeko perpaus guztiak bilduko dira azken lan honetan. Gramatika batzordekideak hasiak dira liburua ontzen.

EGLU-VI: Aurkezpena

Agurra

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Mende laurdena aukera ona izaten da proiektuen eta ekimenen balantzea egiteko. Hogeitabost urte bete ditu aurtan Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak. Horren oroigarri eta ospagarri, horra hor goizeon entzun ditugun hitzaldi egokiak.

Izan ere, Euskaltzaindiak 1980ko apirilaren 18an hasi zuen historia baten lekuko da Gramatika Batzordea. Hasieratik bertatik gaur arte horren buruzagiak izan dira Piarres Lafitte, Jean Haritschelhar eta Patxi Altuna, egun izendatu berri-berria dugun Pello Salabururengana etorri arte.

Goresmenak eta zorionak beraz, beraiei eta hogeitabost urte bitartean Gramatika batzordekide izan diren guztiei, guztion lana baita batzordearena. Hamaitxo bilera, neke-min eta buruhauste izan badute ere, pozgarri da, bestalde, horren fruituak erakutsi ahal izatea. Horiek dira, besteak beste, aldiro-aldiro Euskaltzaindiak euskararen eta gizartearen zerbitzuko jartzen dituenak.

Bada, bestalde, gure artean, aurkeztu beharrekoa, *EGLU-VI* liburukia plazaratzen duelako gaur Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak. Jakina denez, zeregin printzipalenetakoa da gramatikarena Akademia baten barruan. Lehendik datorren *EGLU* sailari segida ematen dio horrek, jarraian ere ildo berekoak etorriko direlakoan. Eskerrik beroenak Akademiaren eta oro har, euskaldunen partetik, zehatz eta ganoraz egindako lan bikainagatik.

Aurrerantzean ere, halako proiektu eta ekimen berriak bideratzeko asmotan diharduzuela jakinik, Gramatika batzorde buru berriak, Pello Salaburuk, hain zuzen ere, zuzen eta artez azalduko dizkigu, eskuartean dugun liburuaren xehetasunak eta batzordeak etorkizunerako dituen egitekorik behinenak.

Mila esker.

GRAMATIKA BATZORDEAK

25 URTE

Jose Antonio Mujika

Hogeita bost urte bete ditu aurten Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak. Ondo bete dituela esan dezakegu, emaitzak ikusita. Emaitza nagusia, ez dut uste esan beharra dagoenik, EGLU saileko liburu mardulak dira. Hamai-ka txosten idatzi eta eztabaidatu ondoren, bilduma horretako liburukiak argitaratzen joatea izan du batzordeak eginkizunik handiena. Gaur, hain zuzen, VI. liburukia aurkezten dugu, eta horrek proiektuaren «azken txanpan» sartuak garela esan nahi du. Azken liburua falta zaigu orain proiektua bururatzeko –perpaua jokatu gabeei dagokiena–, eta hasiak gara dagoeneko hori ere prestatzen.

EGLUrena gutxi ez dela, beste lan batzuk ere egin ditu batzordeak. Hala, esate baterako, aragaiak prestatu izan ditu, Euskaltzaindiaren eskariz, euskaltzainei proposamen moduan aurkezteko. Azken urte hauetan, gainera, JAGONETetik etorritako galderei erantzuten ere jardun du.

Hogeita bosgarren urteurrena dela eta, batzordeak egindako lan horien inguruan aipamen eta gogoeta labur bat egiteko eskatu didate batzordeko lagunek. Ez dut, bistan da, lan guztien kontaketa xehe eta luzea egingo, astirik ere ez baita horretarako. Batzordearen ibilbidean izan diren une esanguratsuenak ekarriko ditut gogora, bakoitzaren iruzkin laburra eginaz.

Eta, ohi denez, hasieratik hasiko naiz.

- *Batzordea 1980ko martxoan eratu zen*, Euskaltzaindiak Hondarribian eginiko bilera batean. Asmoa aurreko urtetik zetorren, Arrasaten egindako IX. biltzarretik. Partaide asko izan ziren biltzar hartan egun pare batez gramatika kontuak jendaurrean jorratzen. Hori ikusita, gramatika gaiak aztertuko zituen lantaldea edo batzordea eratzekeo garaia iritsia zela erabaki zuen Euskaltzaindiak (1). Hala, Hondarribian, batzordeko arduradunak izendatu zituen: P. Lafitte, buru; J. Haritschelhar, buruor-

(1) Eratu beharreko batzordeaz eta haren egitekoei buruz artikulua bana idatzi zuten L. Vilasantek eta K. Mitxelena, «Gramatika lanak koordinatzeko bilera» izeneko lehena, eta «Hondarribiko bilerak direla eta» izeneko bigarrenak. *Euskeria 1981 (1)*-ean argitaratuak daude biak.

de; P. Goenaga, idazkari; eta M^a. P. Lasarte, idazkariorde. Batzordekideak, ordea, ez zituen izendatu. Izenik eman gabe, «Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak, eta gaur egun gramatika lanetan sartuak direnak» deitu zituen batzordean parte hartzera. Lehen bilera maiatzaren 29rako deitu zuen.

Berehala hasi zen lanean batzordea, baina, egia esan behar bada, zer egin behar zuen, eta nola, zehatz jakin gabe. Eginbehar nagusia Euskaltzaindiak emana zion: egunen batean haren Gramatika izango zena taxutu ahal izateko langaiak biltzen joatea. Hori zuen xede nagusia. Nola egin, ordea? Helburu hurbila eta hartara eramango zuen metodologia zehaztea falta zitzaion. Ez zen, hala ere, geldi egon batzordea, kontu horiek erabaki artean. Ibilian hasi zen, itsumustuan bezala bada ere, ibiliak berak bidea erakutsiko ziolakoan.

Batzordea bera ere aldatuz jon zen hasiera hartan; kide batzuk joan eta beste batzuk etorri ibili zen hilabete batzuetan. Hala, 1981. urtearen hasieran Loiolan eginiko Barne jardunaldietan, esandako lau arduradunetz gain, P. Altuna, A. Irigoyen, X. Kintana, J. A. Mujika, K. Rotaetxe eta R. Badiola izendatu ziren batzordekide, baina horietako batzuek berehala utzi zuten batzordea eta, aldi berean, beste batzuk etortzen hasi ziren, inoizka batzuk eta modu jarraituan beste batzuk (2). Denbora luze gabe, ordea, finkatu egin zen taldea. Egokia izan al zen hori? Baietz esango nuke nik. Talde irekiak aberatsagoak izan daitezke, egia da, irizpideetan zabalagoak, baina talde finkoek jarraipena eta iraupena ziurtatzen dute. Eta horixe zen orduan, aurrean genuen lanerako, behar genuena.

- *EGLUren aurreko garaia izan zen hura*, 1980 eta 1981 urteetan luzatu zena. Kide batzuek ekarritako lanak aurkeztu ziren hasierako bilera haietan, bakoitzak nahi zuena, gaiak beren artean inolako loturarik ez zutelarik. Lan haietako lau, P. Lafittek, P. Altunak, L. Akesolok eta J. Haritschelharrek aurreneko bileretan aurkeztuak, *Gramatika batzordearen lanak* izeneko bildumaren 1. zenbakian eman ziren argitara, 1981. urtean (3).

Aurrera jarraitzeko asmotan jaio zen bilduma hura, noski, baina bide laburra egin zuen, zenbaki bakarrean geratu baitzen: lehen zenbakia izan zuen azkena, ondoko bileretan aurkeztutako lanak beste nonbait argitaratu baitziren.

Batzordearen lanak abiatzea, horixe izan zuten batez ere meritu hasierako bilera haiek.

(2) Bileretara etortzen zirenen artean zeuden I. Sarasola, P. Salaburu, L. Akesolo, M. Azkarate, J. Uranga, J. M. Larrarte, A. Arejita...

(3) Hauek dira liburuxka hartan argitaratutako lanak: «-A Artikulu atzizkia», P. Lafitte; ««NON» Ziburuko Etxeberrigan», P. Altuna; «Sintaxi kasu bakantxo bat: Noren-Zeren sailekoa. *Ghiristinho perfezionariaren Pratika* liburua aztertuz», L. Akesolo; «Euskararen bi latiboak», J. Haritschelhar.

Gogoan dut, garai hartakoan artean, P. Lafitte batzordeburu zenaren interesa gramatika kontuak taldean eztabaidatzen ikusita. Irizpide zehatzak izaten zituen beti, eta batzuetan aski berriak. Zenbaitetan bere pentsamenduetan bildua zegoela ematen zuen, isilik eta bileratik at bezala, baina berehala irteten zen isiltasunetik zerbait interesgarri edo eztabaidagarri entzuten zuenean.

- *Hasierako urte bi haiek igarota, EGLUren garaia etorri zen.* Inoiz egin beharko den gramatikarako langaiak prestatu nahi baziren, zerbait sistematikoago egin behar zela pentsatu zuen batzordeak eta perpaus bakanaren azterketari ekitea erabaki zuen, perpaus elkartuena gerorako utziz. Perpaus bakuna bera ere bi urratsetan aztertzea erabaki zuen. Gai batzuk, aditzari dagozkionak batik bat, bigarren urrats baterako utzi ziren. Urraska aritu zen, bada, batzordea, eta izena ere halakoa jarri zion bere lanari: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*, laburtuz EGLU.

Hasteko, bada, 1982tik 1985era bitartean EGLU-I liburukia prestatzen jardun zuen batzordeak. Liburuki lodia da, 500 orritik gora dituen.

Merezi du liburuki horri eta horren atzean dagoen lanari erreparatzea, hor jarri baitziren ondoko lanaren oinarriak.

Hasteko, lan sistematikoa egin nahi izan zen, izen sintagma eta honen osagaiak –izena, izenordainak, determinatzaileak, adjektiboa, izenlagunak etab.– modu zabalean aztertuz; eta berdin gainerako gaiak ere –hala nola, perpausaren egitura, deklinabidea etab.–. Hortik lanaren luzera eta neurri handia. Lehen liburuki hartan errazagoa izan zen horrelako azterketa zabala egitea, han aurkezten ziren gai gehienak aski aztertuak baitzeuden aurreko gramatiketan, eta batzordearen lana, neurri handi batean, aurretik esandakoa biltzea izan baitzen. Biltze lan horretan geratu izana kritikatu izan dute batzuek, hain zuzen ere, baina hori egitea ere ez zen lan makala izan.

Testuaren argigarri emandako adibideetan-eta orain gabiltzan baino murriztago ibili ginen orduan, artean ez baikenuen eskura OEHko corpusak eskaintzen digun laguntza handia. Bakoitzak ahal zuena ekarri zuen, liburu batetik eta bestetik, eta baita ahozkotik ere, bildua. Zaila da horrela oreka gordetzea, jakina.

Bestetik, euskarazko terminologia ere lantzen joan behar izan zuen batzordeak, ibilian-ibilian (4). Hala sortu ziren «adjektibo –arteana *adjetibo*–, izenondo eta izenlagun», edota «adberbio, aditzondo eta adizlagun» bereizketak, eta horrelako beste asko. Denetan ez genuen asmatuko, noski, baina bidea ireki zen behintzat.

Lana egiteko modua ere aipatzekoa da urte haietako jardunaren ezaugarrien artean, gerora bere horretan jarraitu baitu, aldaketaren bat edo beste go-

(4) Aurreko gramatikari askok erdaraz egin zituzten beren lanak. Hala, esate baterako, L. Villasantek, P. Lafittek, R. M^o Azkuek, R. Lafonek eta beste batzuek.

rabehera. Taldelana izan da beti batzordearena, taldean eginikoa. Horrela, lehen liburukiaren edukia zein izango zen erabaki eta gero, hartan agertuko ziren gaiak sailkatu eta batzordekideen artean banatu ziren, bakoitzak zegokion gaiari buruzko txostena presta zezan. Hori egin ondoren, eztabaidaren txanda etorri zen. Txostenak osorik irakurri eta eztabaidatzen ziren bileretan, txandan-txandan eta kapituluz kapitulu. Eztabaidak, zenbaitetan, luzeak eta biziak izaten ziren, baina baita, dudarik ez, aberasgarriak ere. Horrek, jakina, txostena bi edo hiru bider –edo are gehiagotan– idaztea eta berridaztea ekarri izan du zenbaitetan. Egia esan, lan neketsua da hori, baina hartara jo zuen batzordeak, zalantza handirik gabe, lan horretatik aterako zen emaitza egokia eta irakurleentzat erreferentzia izatea nahi baitzuen.

Beste ezaugarri hau ere aipa daiteke EGLU-Ieko lanari dagokionez: liburua erabiliko zutenen iritzia jasotzeko prestasuna eta are gogoia. Beti izan du nahi hori batzordeak. EGLU irakurleentzat erreferentzia izatea nahi zuen, esan dudan bezala, eta, hortaz, adi egon da beti kanpotik zer entzungo bere lanari buruz. Liburukiak amaitutakoan, jendearen aurrean aurkeztu izan ditu gehienetan, inprentara baino lehen zenbaitetan, erabiltzaileen iritzia eskatuz.

Hala, lehenbiziko liburua bururatua eta inprentarako prest zegoela, jendurrean aurkeztu zen Iruñean, 1984an, Campionen omenez eginiko Euskaltzaindiaren X. biltzarrean. Proba moduko bat zen hura: ea jendeak zer iritzi zuen hiru urte luzez eginiko lanari buruz. Gogoan genuen Oihenartek bildutako atsotitzak dioena: «Begi batez aski du saldunak, ehun ez ditu sobera eros-tunak». Ehun begirekin begiratu zuten «erostunen» iritziaren zain geunden, bada, jakinminez. Biltzarrean esandakoak entzunda, adierazpen bat zabaldu zuten Euskaltzaindiak Jardunaldien amaieran, egindako lana ontzat emanaz eta batzordeari aurrera segi zezala eskatuz. Proba gainditua zegoen. Hurrengo urtean argitaratu zen liburua, eta aurrera segitzeko prestatu zen batzordea.

Handik bi urtera, 1987an, lehen liburuki horren *Eraskina* (sic) argitaratu genuen, zenbait gai osatzeko –hitz ordenarena, –ko atzizkiarena eta hitz el-karketarena–, eta deklinabide taulak emateko.

- 1984tik 1987ra EGLU-IIren garaia izan zen. Aditzaren azterketa sakon-zabala aurkeztu zen liburuki horretan, gure artean ohikoak ez ziren aurkezpen-modu eta deiturak proposatuz. Ez ginen aditz-paradigmak txukun aurkeztera mugatu. Hori lehendik egina zuen Euskaltzaindiak Txillardegi prestatutako *Euskal Aditz Batua* liburuan. EGLU-IIin aditzaren eta haren jokoaren ezaugarriak sakonago aztertzea eta deskribatzea zen helburu.

Hasteko, aditz motak aurkezten dira, *NOR* eta *NOR-NORK* motako aditzen artean dauden gorabeherak aipatuz. Ez dira, artean, gerora maiz erabiliko diren zenbait kontu aipatzen, hala nola, esate baterako, aditz inakusatibo, inergatibo eta iragankorren arteko aldea, edo lexiko-aspektuari dagozkionak,

baina azalpen interesgarriak ematen dira *NOR* eta *NOR-NORK* sailetakoa adizei buruz, inpersonaltasunari dagokionaz etab.

Ekarririk aipagarriena, ordea, adizki jokatuerei buruzkoa da beharbada. Modu koherente batean eman nahi da forma guztien berri, ezaugarri formalekin eratzen diren oposizioak baliatuz: aspektu marka dutenak eta ez dutenak bereizten dira aurrena, moduari dagokion *-ke-* morfema dutenak eta ez dutenak gero, tempusari dagozkion oraina, iragana eta alegiazkoak ondoren, eta pertsona markak azkenik. Oposizio horiekin forma gehienek berri ematen da. Azalpen sistema horrek formak aurkezteko deitura berriak dakartza, eta ez dakit zenbateraino sartu diren gure artean. Liburuaren 137. orrian ematen dira parez pare deitura-sistema biak, *Euskal Aditz Batuan* ematen zena eta EGLUk proposatua. *Litzateke* forma, adibide bat emateagatik, baldintzaren «Ondorioa» zen hartan, eta «*Izan-en* KE alegiazkoa» honetan. Bidea egin al du deitura berri honek? Tempus gramatikala eta denbora kronologikoa deituraz bereizteak ere ez dakit zenbaterainoko bidea egin duen. Dena dela, hori aukera horiek, baliatu nahi dituenak.

Sailkapen formalak eta erabilerak ere ondo bereizten dira, kapitulu banatan, irakurlea aurkezpen morfologikoaren gatibu gera ez dadin.

Besterik gabe paradigmatar jo eta adizkien formak ikusteko erabiliko dute beharbada batzuek EGLU-II. Hori baino askoz gehiago aurkituko du, ordea, paradigmetatik aurrera jo nahi duenak.

Liburu hau prestatzen ari ginela hil zen P. Lafitte, gure lehen burua. P. Altuna izan da geroztik batzordeburu, buruarde hasieran J. Haritschelhar zela, eta handik urtebetera P. Salaburu, Haritschelharrek batzordea utzi zuenean.

- *1988an, EGLU-II amaituta, aurrera begira jarri zen batzordea.* Zortzi urte ziren sortua zela eta lehen eginkizun nagusia bururatua zuen: perpaus bakunaren azterketa egin zegoen. Horrenbestez, perpaus elkartua aztertzen hasteko garaia zetorren. Zuzenean hori egin baino lehen, ordea, denbora hartu eta beste lan batzuk egin zituen batzordeak.

EGLU-I eta EGLU-II kontsulta-liburu modura erabiltzen hasiak ziren irakurle asko, eta gaiak aurkitzen ez zela beti erraza jakinarazi zioten batzordeari. Honek orduan, 1988an, liburuki horien *Gai aurkibidea* argitaratu zuen, kontsulta-lanak errazteko.

Eta aurrera jarraitu zuen EGLU sailarekin ere, baina perpaus elkartua aztertzeari ekin gabe artean. Lokailuei eskainitako EGLU-III landu zuen 1988tik 1990era bitartean. Zalanza eta eztabaida handiak izan genituen, liburuki horren inguruan. Gramatikari baino gehiago ez al dagokio lexikoari lokailuen kontu hori? Izan ere, hauen zeregina ez da perpaus elkartzea. Ez dira gramatika-kategoria. Aditzondoak dira gehienak, neurri handi batean perpausen arteko lotura, testu-mailakoa, adierazteko erabiltzen direnak. Zalanza zalan-

tza, ondo etorri zen haiek aztertzea, ondoren aztertu behar genituen juntagailuetatik bereizteko balio izan baitzigun. Zaku batean sartu izan dira maiz, kidetasun semantikoak hartara bultzatuta, zinez juntagailu diren *eta*, *edo*, *baina* eta horrelakoak, perpausak juntatu eta elkartzen dituztenak, eta juntagailu ez diren *halaber*, *bestela*, *ordea*, *hala ere* eta horien antzeko lokailuak. Bereizketa hori oso argigarria izan zaigu gerora.

Eta, gainera, gramatika azterketarako beharbada hainbeste ez, baina testu-idazketa lantzeko ondo etorriko zitzaizkion askori liburu horretan emandako azalpenak. Horrela aitortu izan dute, behintzat, langintza horretan ari diren batzuek.

Idazketa-lana amaitua zela, jendaurrean aurkeztu genuen liburuki hau ere, Andoainen, 1990ean. Hartan aipatzen ziren gaiak aski berriak zirenez, modu horretan azalduta behintzat, interes berezia zuen batzordeak irakurleen iritzia entzuteko.

- *1991an, azkenik, hasiera eman genion perpaus elkartuen azterketari*, egin ditugun lanetan beharbada berriena eta luzeena denari. Oraindik amaitu ez den ibilbide luze eta ez batere errazari ekin genion orduan, EGLU egitasmoa bururatzeko xedearekin. Gaur aurkezten dugunarekin hiru dira perpaus elkartuak aztertzeko egin ditugun liburukiak. Perpaus juntatuak aztertzen ditu horietako lehenak, eta adizki jokatuak duten mendeko perpausak beste biek.

Perpaus elkartuak aztertzen hasita geundela, bestalde, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakuna* liburua argitaratu zuen batzordeak 1993an. Lehenbiziko EGLU bietan esaten zena modu trinkoagoan aurkezten zen hemen, liburu bakarrean, bide batez ikusitako hutsune batzuk betez, kontu zenbait emendatuz eta terminologia egokituz. Erabilitako gaiak modu erosoago eta errazago batean kontsultatu ahal izango zituen horrela irakurleak. Pello Salaburu batzordekidea izan zen liburu horren moldatzailea.

- *1991-1994 bitarteko urteetan perpaus juntatuak, hau da, maila bereko perpausen elkarketa, aztertzen aritu zen batzordea*. Elkarketa hori bideratzen dituztenak *juntagailuak* dira –emendiozkoak, hautakariak eta aurkariak–, eta horiexek dira 1994an argitaratu genuen EGLU-IV liburukiaren gaia eta edukia. Horri buruz ere lan zabala egin zuen batzordeak, inoiz egin den zabalena, seguru asko. Horren jakitun zen batzordea, Patxi Altuna batzordeburuak sarreran idatzitako hitz hauek argiro erakusten duten moduan:

Batere harrokeriarik gabe esan dezakegula uste dugu euskaraz juntagailuen gainean inoiz eman izan den informaziorik joriena eta oparoena aurkituko duzula liburuki honetan.

Adibide bat emateagatik, aski luze aipatzen dira liburuki horretan juntaduran egin ohi diren osagaien ezabaketak.

Azalpen horiek guztiak egin ahal izateko, baliabide berria genuen, guztiz baliotsua eta artean ezagutu gabea: OEHrako eginiko corpus handira jotzeko modua zabaldua genuen 1990etik aurrera, eta hori aukera paregabea zen. Hasiara hartan, ez genuen zuzeneko irispidea corpusera, Eusko Jaurlaritzako EJIeren bitartez baizik. Lan hori bideratzeko laguntzaile bat behar zuen batzordeak. Hartarako aurkeztu ziren lagunetatik Jesus Mari Makazaga izan zen aukeratua, eta honen bitartez hasi ginen eskuratzen EJIeri eskatutako materiala. Ez daukat esan beharrik zenbat zabaldu zuen horrek gure lanaren esparrua. Pentsatzen ez genuen kontu bat baino gehiago aurkitzen genuen inoiz, hainbeste testu biltzen dituen corpusean barrena mugitzen hasitakoan.

- *Bost urte geroago, 1999an, mendeko perpausaz ari den lehen liburukia, EGLU-V, eman genuen argitara.* EGLU-V honek ematen dio hasiera mendeko perpausen azterketari. Aztergai konplexua da hori, denok dakigun bezala, gainerakoak baino gutxiago landua euskal gramatikaren tradizioan, eta, hala izanik, ahalegin handiagoa eskatzen duena. Hone-l a esaten da liburuaren sarreran: «orain arteko gramatiketan gai hauei eskaini zaien orrialde kopuruarekin alderatuz, oraingoa zertxobait gehiago kontatzen dela pentsatzekoa da».

In crescendo moduko bat ikusten da EGLU liburuetan. Lehena, esan du-dan moduan, aurretik esandakoaren bilduma izan zen, neurri handi batean. Bi-garrenak, aditzarenak, aurreko gaiak biltzen zituen, baina formen aurkezpen zehatza eginaz. Hirugarrenak eta laugarrenak, inoiz eman den informaziorik handiena eskaintzen dute testu-mailako loturari eta juntadurari buruz. Eta bos-garrenak honek are gai konplexuagoak aztertzen ditu: mota guztietako perpaus osagarriak –adierazpenezkoak, galderazkoak, subjuntiboak eta izenak gober-natuak–, era guztietako erlatiboak –arruntak, ardatzik gabekoak, apositibaok, ZEIN- eta BAIT-erlatiboak etab.–, konparazio perpausak –berdintasunezkoak eta desberdintasunezkoak, maila, zenbatasuna edo modua alderatuta, eredu erromanikoz eratuak etab.–, eta ondoriozkoak. Gai zailak eta konplexuak dira horiek egileontzat ez ezik, baita irakurleentzat ere. Oihartzun hori iritsi zaigu inoiz irakurle zenbaiten aldetik, liburu hau astuna egiten zaiela, alegia. Gaiak dira, ordea, halakoak. Eta guk ez diegu zailtasunei izkin egin nahi, gai kora-pilatsuak albo batean utzirik.

Azterketa zabalari adibideen kopuru handia erantsi behar zaio. Azalpen agorrek ematera mugatu beharrean, testuak adibide ugariz hornitzea erabaki genuen, aurreko liburukietan baino areago, beharbada. Arazoak argitzen asko laguntzen dute adibideek, eta baita egituren taxu zuzena erakusten. OEHko corpora izan genuen berriro baliagarri, EJIe eta UZEIren laguntzari esker.

Epe hartan idazkari berria izendatu zen. Ordu arte corpuserako zerbitza-ri izan genuen Jesus Mari Makazaga da harrezkero batzordeko idazkari. Ba-tzordekideak, berriz, urtetan batzordera biltzen joandakoak ziren. Honela ze-go-en eratua batzordea: Patxi Altuna, buru; Jesus Mari Makazaga, idazkari;

kideak, berriz, Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Piarres Charritton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose Mari Larrarte, M^a Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oyharçabal, Francisco Ondarra, Karmele Rotae-txe eta Pello Salaburu.

1998. urtean, liburua argitaratu baino urtebete lehenago, liburuaren lehen zirriborroa aurkeztu genuen Areatzan egindako jardunaldietan. Horixe izan zen jardunaldi haietako gaia, araugai-zerrenda luze batekin batera. Han zeudenen oharrak jaso genituen, ahoz lehenbizi eta idatziz gero, eta kontuan izan geni-tuen, noski.

Gogoratu daiteke, bidenabar, jardunaldi haietan irakurri zuela R. De Rijk hizkuntzalari ezagunak batzordearen eskariz idatzitako EGLUri buruzko arti-kulu kritiko bikaina. *Euskera* agerkarian argitaratua dago, 2002 urteko 1. zen-bakian (5).

Urtebete geroago aurkeztu genuen liburua, erabat amaitua, Etxarri-Ara-natzen Victoriano Huizi eta Aingeru Irigaraireren mendeurrenean eginiko jar-dunaldietan (6).

- *2005ean, azkenik, EGLU-VI ematen dugu argitara, azken bost urteota-ko lanaren emaitza.* Aurreko liburukiaren gaiarekin jarraituz, honetan adizki jokatzeko gainerako perpaus mendekoak aztertzen dira, luze eta zabal: baldintzazkoak, kontzesiboak, kausazkoak, helburuzkoak, denbo-razkoak eta moduzkoak. Liburu hau lantzeko zuzeneko irispidea izan dugu OEI eta UZEIren corpusetara, eta horrek are errazago egin digu adibideak-eta aurkitzea.

Ez naiz luzatuko liburu honen ezaugarriak aipatuz, beste batzuk mintza-tuko baitira horretaz, liburuaren aurkezpenean.

Gogoratu nahi nuke, hori bai, liburuki hau prestatzen ari ginela, kide berriak etorri zitzaizkigula batzordera, odol eta indar berria ekarriz. Iñaki Amundarain, Juan Garzia, Nora Iriarte, Itziar Laka eta Paskual Rekalde ditugu lankide berriak, liburuki honetan iritzi emaile izan direnak, baina jadanik lantzen hasiak garen EGLU VIIan, bildumako azkenean, txostengile lanean ere ari direnak.

- *EGLUz bestelako lanak.* Badirudi, horrenbestez, hemen amaitu beharko nukeela neure hitzaldia gure gramatikari dagozkion kontuak aipatu eta gero. Ez nuke, ordea, amaitu nahi beste kontu jakingarri batzuk aipatu

(5) Aurretik ere izana genuen inoiz De Rijk gure artean, bilera batean edo bestean bisita-ri. Inoiz bisitatu gaituztenen artean aipa daiteke, halaber, K. Rotaetxek gogorarazi didanez, Georges Rebuschi hizkuntzalaria ere.

(6) Jardunaldi haietan, batzordeko lana aurkezteaz gain, bestelako txosten batzuk ere ira-kurri ziren: Juan Carlos Odriozola, «Postposizioak EGLUn: Egitura motak eta gramatika katego-riak», *Euskera*, 1999, 2, 841-863. Eta Igone Zabala, «Gramatika-kategoriak eta EGLU», *Ibidem*, 865-896.

gabe. Ohartu al zarete gero eta urte gehiago behar izan ditugula EGLU liburukiak prestatzeko? Aurrekoak bizpahiru urteetan egiten genituen; bosgarrena eta seigarrena egiteko, berriz, bosna urte behar izan ditugu. Zergatik hori? Gaiak konplexuagoak eta zailagoak zirelako, noski. Bururatzeko nekezagoak, alegia. Beste arrazoirik ere izan da, ordea. Hasierako helburu nagusia ahaztu gabe –Euskaltzaindiko Gramatikarako langaiak prestatzearena, alegia–, bestelako lan batzuetan ere aritu behar izan du batzordeak azkenaldiko urteotan, Euskaltzaindiak hala eskatuta. Horrek, jakina, EGLUren lanetan mantoago ibiltzea izan du ondorio.

Arauei dagokiena izan da lan horietako bat, eta JAGONETeko kontsulta-zerbitzuari dagokiona bestea.

- a) *Araugaiak prestatzen eta proposatzen 1994an hasi ginen*. Euskaltzaindiak bere 75. urteurrena ospatzeko Leioan egin zuen XIII. biltzarrerako araugai batzuk prestatzeko eskatu zitzaion batzordeari. Txosten luzea prestatu zuen honek, atal bitan banatua: aurrenekoan, euskaltzainek hala erabakiz gero batasunerako arau bilaka zitezkeen 17 puntu aurkeztu genituen; eta bigarrenean, «Okerrak zuzenduz» deiturikoan, beste 20 puntu (7). Ez dut uste biltzar hartako aportaziorik txikiena izan zenik gure batzordeak eraman zuena. Lan handia egin genuen araugai horiek prestatzen, proposamenak ondo aztertuak eta oinarrituak izatea nahi baikenuen. Esan dezakegu, eta pozik esan ere, proposaturiko araugai guztiak onartu zituztela euskaltzainek ondoko hilabeteetan, eta, zegozkien aldagetak eginga, batasunerako arau bihurtu zirela.

Lan horrek fruitu ona eman zuela ikusiz, hurrengo urteetan ere araugai gehiago proposatzeko eskatu zitzaigun, eta hala egin genuen, beste araugai batzuk landuz. Horien zerrenda bat aurkeztu genuen, hain zuzen ere, lehenago aipatu ditudan Areatzako Jardunaldietan, jendaurrean eztabaidatzeko, euskaltzainen esku utzi baino lehen.

- b) *JAGONETeko kontsultei dagokiena da aurrekoez gain etorri zaigun beste lan bat*. Azken urte hauetan Euskaltzaindiak martxan jarri duen kontsulta-zerbitzu horretatik ere galdera franko etortzen zaizkigu. Ia bilera guztien hasieran izaten ditugu horrelako galdera batzuk. EGLUko txostenekin hasteko, ordubate edo are denbora gehiago joana zaigu askotan, galdera horiei nola erantzun erabakitzen. Gure erantzunak ez dira arau, noski, baina galdetzaileei zor zaien errespetuagatik, ahalik eta txukunen erantzuten saiatzen gara. Erantzunak galdetzaileari berari bidaltzen zaizkio aurrena, eta *Eusker*a agerkarian argitaratzen gero (8).

(7) Ikus *Eusker*a 1994-3, 831-968.

(8) Beste lan batzuk egin izan ditu inoiz batzordeak, Euskaltzaindiak eskatuta. Hala, inoiz, Eusko Jarlaritzatik etorritako liburu edo txosten batzuei buruzko iritzia eskatu izan zaio. Orain urte batzuk, bizkaiera baturako gida izan nahi zuen liburu bati buruzko iritzia eskatu ziguten, eta orain berriro «Erdarazko egituren kalko okerrak» izenekoa izan dugu aztergai. Horiek, ordea, inoizka egindako lanak izan dira.

Eta horrenbestez bai, horrenbestez uste dut amaitutzat eman dezakedala gure batzordearen historian barrena egindako ibilbidea. Uztazue, hala ere, bi kontu labur esaten, erabat isildu aurretik.

Etorkizunari dagokiona da lehenengoa. Atzera begira aritu naiz neure mintzaldian –egindakoari begira, alegia–, hori bainuen hartutako agindua. Etorkizunerako ere baditugu proiektuak, ordea. Washingtongo Artxiboaren sarreran omen dagoen esaldiak –Sheakespeare-rena dela uste dut– honela dio: «Iragana prologoa da». EGLU liburuak ere beste zerbaiten atariko dira. Haiekin amaitzen dugunerako, beste proiektu handi bat aurreikusia du batzordeak, lehen urrats horien ondotik datorren EGO –*Euskal Gramatika Osoa*– prestatzea, hain zuzen ere. EGLUn egindakoa berrikusiko da lan berri horretan, kendu beharrekoa kendu, erantsi beharrekoa erantsi, aldatu beharrekoa aldatu, laburtu beharrekoa laburtu, aurkezpena egokitu, erabilitako kontzeptuak eta terminoak berraztertu etab. Hitz batean esateko, batzordearen helburu nagusia betetzeko beste urrats sendo bat egitea izango da proiektu horren helburua.

Ondo etorriko dira lan hori egoki bururatu ahal izateko bai batzorde berriua, arestian aipatu dudana, bai iaztik hona eskaini zaigun aukera berria ere, lan horretan arituko den liberatu bat izatea, alegia. Izan ere, orain arte esan ez badut ere, gorago aipatutako lan guztia beren ohiko lanak utzi gabe egin dute batzordekideek. Lan orduetatik kanpoko denbora hartarako baliatuz, alegia.

Bigarren, erabat amaitu aurretik, aipamen berezia eskaini nahi nieke gorago esandako lankideetatik jadanik gure artean ez daudenei. Piarres Lafitte gramatika-maisu handia noiz hil zen aipatu dut gorago; ondoren, Lino Akesolo euskal testuen ezagutzaile apartak utzi gintuen; eta joan den urtean hil ziren Andolin Eguzkitza, espiritu zabaleko gizona, bileretan hitza hartzeko eta bere iritzia agertzeko inoren akuilurik behar ez zuena, eta Jose Mari Larrarte, itzultzaile trebea eta euskararen ezagutza sakona zuena. Esan beharrik ez daukat gogoan dauzkagula (9).

(9) Txosten hau irakurri ondoren beste bi kide hil dira: Patxi Ondarra eta Patxi Altuna, luzaz batzordeburu izana eta iaztik Ohorezko buru genuena.

GRAMATIKA BATZORDEAREN IRIZPENA «GALDEGAIA ETA DEFINIZIO-TRIBUZIOAK» KONTSULTARI BURUZ

Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak, 2005eko irailaren 16ko ohiko bilera, aztergai izan du honako izenburua duen testua: *Galdegai eta definizio-tribuzioak: kontsulta Euskaltzaindiari*. Jagonet zerbitzuaren bidez iritsi da kontsulta, eta ondoko erakunde, zerbitzu eta enpresetako arduradunek sinatua etorri da: IZO, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, EHUKo Euskara Zerbitzua, Nafarroako Parlamentuko itzulpen zerbitzua, Elhuyar eta Berria egunkaria.

Galderan planteatzen zaigun auziaz luze eztabaidatu ondoren, honela laburbilduko genuke gure iritzia:

- Galdegaiaren kasuan, Gramatika batzordeak argi du badela arau orokor bat, baina, horrekin batera, baita arau hori aplikatzeko malgutasun bat ere. Horrekin esan nahi duguna da, erabilerak erabilera, ez dagoela zertan arauari bete-betean lotzen ez zaion adibidea arbuia edo gaitzetsi.
- Gaian murgildu nahi duenarentzat nahikoa izango ez bada ere, *EGLU I* liburukira jo dezake irakurleak, batzordeak galdegaiak idatzitakoa zer den jakiteko. Liburuki hura prestatu zenean, ordu asko igaro zituen batzordeak galdegaiaren kontua aztertzen eta eztabaidatzen, baina behar-bada ez genuen euskararen erabiltzaile askok behar adina zehaztapen eta gomendio egin. Nolanahi ere, gramatikaren bertsio osatua (*EGO*) prestatzen dugunean, ausartagoak izango garela uste dugu, eta konpromisoa hartzen dugu gai hau xeheki aztertzeko eta beharrezko ikusten ditugun gomendio zehatzagoak emateko.
- Gaur gaurkoz, alabaina, iruditzen zaigu Gramatika batzordeak ezin eman dezakeela iritzirik, eta gutxiago eredu horietako bat hobetsi eta besteak bigarren maila batean utzi. Izan ere, gramatikaren ikuspegitik begiratuta, ez dugu eragozpenik ikusten galderan agertzen diren perpausak erabiltzeko.

Pragmatikaren aldetik, horietako zein perpausak funtzionatzen duen horiekien eta zein nagusitzen den, geroak esango du; itzultzaileen eta testu akademikoaren egileen erabilerak erakutsiko du etorkizunean –hala uste dugu– zein moldek egiten duen bidea eta zein geratzen den bide bazterrean. Hori izango da erabakigarria, molde horien artean definitzioak emateko zein nagusituko den jakiteko.

- Azkenik, honako ohar hauek gaineratu nahi genituzke:
 - Bereizketa garbia egin behar dela iruditzen zaigu definizioen eta gainerako atribuzioen artean.
 - Ongi bereizi behar da, halaber, zein den definizioa eta zein den definigaia.
 - Definizioek nolabaiteko marka bat behar dute, testuaren hartzailea jakinaren gainean uzteko definizio baten aurrean dagoela: elementu katarforikoren bat, bi puntuak, entonazio berezia ahozko jardunean, eta abar.
- Eskaera bat ere egin nahi dizuegu galdera egin diguzuenoi: jakinaren gainean gaudenez gero galdegaiazen auziei buruzko adibide asko eztabaidatzen dituzuela eta adibide zerrendak badituzuela, biziki estimatuko genizueke galdegaiazen inguruko kezken (eta adibideen) zerrenda bat bidaliko bazenigute. Gramatikaren bertsio osatua prestatzeko lagungarri izango zaigulakoan egiten dizuegu eskaera hau.

Gasteizen, 2005eko urriaren 7an.

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea

DIALEKTOLOGIA

II. DIALEKTOLOGIA JARDUNALDIAK:
«Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna»

Uharte, 2005-IX-28 eta 29

AHOZKO EUSKARA: DAKIGUNA ETA DARABILGUNA

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

Izenburuan, behar bada, dakiguna eta darabilguna baino irakasten duguna eta erabiltzen duguna jarri beharko genukeen. Hala ere, quod scripsi scripsi lema urrun hari eutsi diogu. Horretarako arrazoia irakaskuntzako sarean aurkitu dugu, zeren ebaluaketa sisteman –zoritxarrez– euskaldunak dakiena bakarrik baloratzen baita eta neurri oso txikian baino ez darabilena. Horregatik lotu gatzazkio dakiguna eta darabilguna izenburuari.

1. ATARIKOAK

Hizketaren ebaluaketa xede duen txosten honek ikasgelan egin arren in-dar, begiak erne dituen oro aise ohartzen da euskarak zein gizarte motatan dirauen, zeintzuk diren Axularren hizkuntzak dituen gunek likidoak, zeintzuk solidoak, edo inoiz etereoak. Oso ondo dakigu lan jardunaldietako partehartzaileok gure neska-mutilek erdietsiko duten hizkuntzaren garapena erabat loturik bizi dela inguruak duen hizkuntzaren erabilerarekin, ez direla behar bezain sarri edo usu euskaraz mintzo, edo mintzagai batzuen gainean erosoago jardun daitezkeela erdaraz euskaraz baino. Hala ere, ikerlan honetarako ikasgelara mugatu dugu ebaluaketa, oharturik, beti ere, gizarteaz gain ikastetxean bertan ere jolas orduak, atsedenaldiak eta gainerako egoera naturalak behatzea oinarrizko dela.

Ahazkotasunaz mintzatzen garenean, ez dugu ahanzten ezen gaur egun ez dela gure ikasleen artean idazkera ezagutzen ez duenik, beraz, ezin mintza gaitezkeela ahozko kultura primarioaz, oraindik ere honenbeste euskaldunek bizi dutenaz.

Ez genuke ahanzti behar, behin ere, giza hizkuntzako arau gramatikalak erabili egiten direla lehenik eta geroago formulatu. Bestalde, testua irakurtzea hots bihurtzea da, dela boz goraz edo irudimenean. Alde horretatik idazkerak ezin bazter lezake ahazkotasuna. Ikerlan honetan baieztatu dugunez, ebaluaketa ahozkoa jasotzetik abiatu arren, idaztea, transkribatzea ezinbesteko da ahozkoa bera ebaluatu ahal izateko.

2. IRAKASLEA AHOTAN HARTUTA

Ahozkoan irakaslea ahotan hartzea ezinbestekoa da, ez lehengo erara gelako ahots bakarra izan dadin, baina bai beti bezala koordinatzaile delako.

2.1. Irakasleen ezagutzak

Nahiz eta guk ahozketasuna lantzeko metodologia jakina azaldu gaurko saioan, argi-argi konturatzen gara ezin mintza gaitezkeela irakaste ortodoxiaz, ezen proposatzen dugun helburura iristeko bideak anitzak baitira.

Dakigunez, metodoa osatzen dute: ikas helburuak ikasleei ezartzen zaizkienak; irakasleak gelan dituen jokabideak horiek eskuratzeko; gehi prozedurak eta tresneriak eta ikas materialek. Gainera, neurpide jakinak ere sartzen dira ikas helburuak noraino lortu diren aztertzeko. Gu pozik geundeke aipatuko ditugun alderdi guztien artean ematen den batasuna eta koherentzia erakustea erdietsiko bagenu. Gelako metodologiaren batasun, koherentzia hau, sarri askotan irakaslearen bizkar geratzen da, hartzen dituelako, batetik erakunde ofizialaren programa; bestetik, argitaletxearen testuliburua; eta gero ikastetxeko erabakiak. Hor da irakaslea nor izan beharreko. Egoera horretan, inoiz irakasleak berak sortzen du metodoa, tradizio desberdinetako baliabideez eta bere esperientziaz baliaturik.

Bestalde, irakaslea metodoen oinarrian diren zientziak ezagutu beharreko ere aurkitzen da:

Linguistika beharrezkoa du: fonetika, fonologia, gramatika, pragmatika, semantika, lexicologia, berbaldi analisia, baita linguistika aplikatua ere, zeren linguistika aplikatuaren laguntzaz aukera eta ordena baitaitezke programazioak.

Psikolinguistikak, bere aldetik, eduki horiek nola eskuratzen diren azalduko digu.

Psikopedagogiak, irakastearen urratsez urratseko analisia eskainiko digu.

Horrez gain, teknologiaren ezagutza ere beharrezko zaio irakasleari: ordenagailua, minidiska, bideokamera nahiz ahozketasun sekundarioa, irratikoa, telefono mugikorretakoa, telebistakoa, zeinek idaztea eta inprimatzea behar duten existitzeko.

Soziologiak, faktore sozialak kontuan hartzera garamatza, hizkuntza horren estatusera; gainera, psikolinguistikarekin batera estatus horrek ikasleengan izango duen eragina aztertuko du.

Elebitasuna ere bai, gure testuingururako suposatzen duen ezagutzaren-gatik.

Beraz, irakaslearentzat ez da zeregin xamurra aipaturiko faktore guztiak eta gehiago aintzat harturik hizkuntza ikasgelan irakastea.

Hortaz, ziurtasun osoz baieztu genezake ikasketa prozesuan irakaslearen eginkizuna aldagairik garrantzitsuen dela, baita ahozkoa irakastean ere.

Beste arlo batzuk alde batera lagata frogatu genezake, irakasleak bere burua irakaslearen ikasketan konprometitzeak eta ikasleok motibatzeak eragin zuzena duela emaitzetan, baita ahozkoetan ere.

Horrekin guztiarekin esaten ari garena da, irakasle modernoaren betebeharrak ikasleei informazioa ematea baino, ikasketako jardueren zuzendari izatea dela.

2.2. Irakasleen hizketa

Ahazkora etorririk, onartzen dugu ikasgelako hizketarik gehiena irakasleak betetzen duela. Baliokoa da jokabide hori ikasteko? Guk ezagutzen ditugun irakasleak on onak gertatu badira, kontu kontari bikainak izan direlako da, hizkera liluragarrikoak –izan ere horixe izan da mendeetan metodorik oinarritzakoa eta–. Gure egunotan, lastimez, neurri handian lehen hezkuntzara murriztuta geratu da.

Egin behar dena da bereiztu irakaslearen hizketa egokiaren eta desegokiaren artean. Badakigu, esate baterako, irakaslearen hizketak klase osoaren aurrean badituela erabilera batzuk: ideia berrien azalpena, oharak ematea, laburpenak egitea, istorioak kontatzea...

Azken baten, irakaslearen hizketa musikako tresnaren modukoa da. Erabil zenezake oso gauza desberdinak egiteko; modula zenezake bilatzen duzun helbururako. Baina, zoritxarrez, gutariko askok melodia bat edo bi baino ez ditugu ezagutzen.

3. IKASLEAREN HIZKUNTZAZ JABETZEKO PROZESUA

Ikaslearen hizkuntzaz jabetzeko prozesuan, helburu bi izan ditugu gogotan: bata, ahozko berbeta bera ezagutzea eta indartzea; bestea, hizketa ikasketak akademikoekin lotzea Tough (1977), hots tresnatzat erabiltzea ezagutza akademikoak ulertu eta adierazteko.

Umea haurtzaindegira datorrenean –hizkuntza ez badaki– murgiltze ereduaren irakasten hasten gataizkio; jakin badaki, atxikitze ereduari lotzen gataizkio, beti ere, hasieratik euskaraz mintzatuz. Ordea, euskara ikasgai izateaz gainera tresna ere badenez, beste asignatura batzuk ikasteko –berdin da zein

mailatako euskaran aurkitzen den— euskaraz irakasten zaizkio matematika, gizarte arloa nahiz gorputz heziketa. Ez gara zain egoten honenbesteko euskara maila lor dezan asignaturak irakasten hasteko. Ondorioz, oso erraz ulertzen da ikasle anitz euskara eskasa tresna dela matematika lantzen aritzea. Futboleko emaitzetan «Hiru eta bat» baino «Hiru bat» esaten badute, hor akatsa finkatuz, gorputza hartuz joango da.

Era berean, euskara bera mailetan gora joan ahala behikular izateari utzi gabe, ikasgaiago bilakatzen da fisika edo matematikaren erakoa. Nork jorratuko du bereziki ahozkoa egoera honetan? Ezen hizkuntzaren jabekuntza ez baitzen burutu behin betiko han beheko mailaren baten, zenbait egitura goi mailetaraino azaldu ere ez dira egiten eta. Hala ere, unibertsitateko irakasleek hara ezkerro hizkuntza erabat ikasita edukitzea eskatu ohi dute. Ez ote da ausardia handiegia! Imanol Berriatuak aipatu ohi zuenez —hil zela 1986an, dira 25 urte— Israeleko ministroek telebistan direnean ere oraindik inoiz akatsak egiten dituzte, geuk ingelesean bezala. Elkarriketako trebetasunen garapenak heldua izan arte dirau eta ez da amaitzen sekula. Hizkuntzen irakaskintzako arriskua beti izan da denbora mugatuko kurtso bat osotzat hartzea. Horrek beti ekarri izan du ondorio legez, tarte horretan forma linguistiko guztiak sartzeko ahalegina egitea, gehiago arduratuz irakatsiko diren elementuen kopuruez, beharko luketen sakontasunaz baino.

Horrela jokaturik arazo bi behintzat sortuko zaizkigu: Bata, gramatika-koa, euskarazko gramatika zuzen ez daukanak, osorik ez daukanak, espainolezkoa zein frantsesezkoa ditu eskura eta haietara joko du: «Noa autobusera». Bestea, erabilerakoa irakasgai guztietako irakasleek ez badiote jarraitzen euren gaiari dagokion euskara hobetzen, euskarako mintegikoek ezin zuzenduko dutela arlo horretakoa.

3.1. Ahozkoaren irakaskuntza inplizitoa eta esplizitoa

Irakaskuntza inplizitoaren defendatzaileak, gehituko litzaizkieke uste dutenei ahozko hizkera banatu egiten dela eskolan, nolabait esateko, irakasle guztien artean. Ostera, irakaskuntza esplizitoaren aldekoak, adibiderako pentsatzen dute hizkuntzaren ikasketa ohitura bat baino zer edo zer gehiago dela, eta ondorioz, haren irakaskuntzak esplizito izan behar duela, trebetasun intelektualei dagokien eran.

Guk ahozko berbeta modu inplizitoan eta esplizitoan irakastea proposatzen dugu; ahozkoa klase guztietan eta irakasle guztiek lantzea; modu esplizitoan, ahozkoa irakastea Hizkuntza eta Literaturakoei utzirik.

3.2. Irakasle guztiak hizkuntza irakasle

Irakasle guztiek dakite kultura transmititzailerik diren. Horrexegatik, euren berbakera eredu eta erreferentzi gune garrantzitsua da ikasleentzat. Ez dute, beraz, arazo larriegirik ahozko berbetaren irakaskuntza inplizitoaz berba egiten zaienean. Bestalde, Krashen (1981) eta beste teoriko batzuk ados dira honetan, uste delako, edozein ikasgelatako hartu eman berbalak egokiak direla ikasleen komunikazio-trebetasunak hobetzeko.

Ahozko berbeta funtzionala irakasle guztiek irakatsi ahal izateko, irakasleen hasierako borondatea ezinbestekoa da, baita koordinaturik lan egitea ere. Gure esperientziak diotenetik, gaian aditua den pertsonaren bat ere behar da irakasleen taldean. Gainera, gai desberdinetako irakasleek ere oinarri-oinarrizko formakuntza jaso beharra dute ahozko berbeta irakasteko metodologia eta edukien gainean, esate baterako, Ingurunean gaian agertzen den eztabaida probetxuz eramateko.

Ondo jarduteko, metodologia parte hartzaileari egin beharko litzaioke lekua, irakaslearena izan ez dadin input bakarra ikasgelan. Hortxe agertzen zaigu etxetik euskaldun datozen neska-mutilen eta erdaldun datozenen arteko ekarri desberdina, atxikitze-eredukoek –etxetik euskaldunek– jarriotan, egokitasunean, erregistroetan lagunduko digute, murgiltze-eredukoek, –hau da, familia erdaldunetatik etorriek– batez ere, gaitasun komunikatiboan.

Eskolan beti eta klase guztietan ematen den ahozko berbetaren irakaskuntza inplizitoaz gainera, beharrezkoa da ahozkoaren irakaskuntza esplizitoa ere, alegia, hizkuntza eta literaturako irakasleak gauzatzen duena. Zeren esperientziatik baitakigu Frans Van Passel-ek zioen: «Badirudi ezen hamabi urtetik beherako haurrek baino ezin beregana dezaketela hizkuntza bat era intuitiboz eta imitatibo soilaz». Van Passel (1973:62).

Adinekoak, aldiz, ezin ikas dezake ezpada modu arrazional eta logikoz». Beraz, nahitaezko da irakasleak azalpenak nahiz zuzenketak egitea. Gainera, beron dagokio beste irakasleen ahozko irakaskuntza kriterioak jartzea ere.

3.2.1. Lau hizkuntza trebetasunen irakaskuntza

Hizkuntza eta Literaturako irakasleei dagokie

	Atxikitze-eredua	Murgiltze-eredua
1 Entzumena	Euskalkia eta batua	Euskalkia eta batua
2 Mintzamina	»	Batua (Beti euskalkitua)
3 Irakurmena	»	Euskalkia eta batua
4 Idazmina	»	Batua

Laukietan ikusten dugunez, gela berean dira eredu bietakoak, bitzuak euskaldun osoak izateko.

Ezin ahaztuko dugu atxikitze-eredurako ukipenean bizi direla euskara batua eta euskalkia pertsona berak txandaka darabiltzanean (Weinreich 1979) eta egoera diglosikoan –Ferguson-ek diglosia hizkuntza eta dialektoaren arteko harremanak azaltzeko sortu zen eta–.

Bestalde, gogoan hartu behar da euskalkia heteronomoa dela, zerbaiten –kia, hau da euskara bakarrarena.

Idazmena aztertzen badugu, aipatu beharko dugu atxikitze-ereduan ardatza euskara batuak eramango duela eta euskalkia aldamenen joango dela. Horrexegatik da egokia euskara batua ardatz dela lantzea euskalkia, ezen 12 urte arte euskalkian bakarrik ikasiez gero, ez bailitzateke ohartuko ikaslea euskalkikotzat hartzen dituen elementu ugari euskara batuko ere badirela.

Planteamendua ez da adin batera arte euskalkia eta ostean euskara batua, baizik batua ardatz bai, baina paralelismo diglosikoan euskalkia ere ikasiz. Horrenbestez, umeak hiru urterik hamazortzira etengabe behar du euskalkia eta batua joratu.

Baina euskalkia beti ikasi behar da, zeren euskara batua ikasteak ez baitakar euskalkian alfabetatzea. Euskalkia ikasten ez bada, etxekoa osotu barik gelditzen da, fosilizatuta.

Ahozkoan dihardugunean atxikitze-ereduan, ardatza ikasleak dakarren berrera izango da haurtzarotik hasi eta batxilerra burutu artean.

3.1.2. *Hizkuntza kontzeptu berrien sorkuntzan*

Zelan erabiltzen dugu hizkuntza kontzeptu berriak sortzeko? Eskolako ikasleek hizketaren bitartez zelan ikasten duten azaltzeko Britainiako autorengana joko dugu. Ulertarazi digutenetariko gauza bat da, garrantzitsua dela norbera ikasten ari denaz berba egitea, zeren orduan baita unea zeinetan guk kontzeptu berria linguistikoki adierazten dugun eta orduantxe baita guk gradualki hura garatzen dugun unea.

Baliteke kontzeptua –neurri baten– geure garunetan garatzea, baina gu hasi arte hori adierazten linguistikoki ez dugu ezagutzen zein argi –edo ez argi– garatuta dagoen. Barnes-ek (1975) erakutsi zuen ikasleak talde txikiari kontzeptu bati buruz mintzatzeko ari direla grabatzen dituzunean eta gradualki kontzeptu hori berdoitzen, eta gero hizketa transkribatzen dutenean, ikus zenezakeela ikasleek nola erabiltzen duten ahozko hizketa beraien pentsamendua garatzeko. Kontzeptu erdi formatua beraren gainean hitz eginez jartzen dute agerian, eta ostean, moldatu egiten dute hizketaren bidez, jarraian berriz

barneratzeko; azkenean, apur bat gehiago hitz egiten dute oraindik zehaztutako gera dadin.

Kontzeptuei buruzko hizketa/elkarrizketa honetan oinarritzkoa da solaskidearen funtzioa, entzule moduan betetzen duena. Entzulea bitzuak da: Batetik kontzeptuen gainean hitz egiteko arrazoia, bestetik, hiztunarentzat isla kontzeptua zenbateraino dagoen ondo eratua frogatzeko.

Ahozko hizketa lantzeaz dihardugunez, prozesu zikliko honetarako, hizkuntzaren bidezko barneratze eta kanporatzerako egokia da erdi osatuko hizkuntza, etenduna dei genezakeena. Izan ere elkarrizketa halakoa baita. Praktikarik dakigu ikasleen arteko eskola elkarrizketak perpausa amaigabeekin eginak direna, halako anitz erabilirik sortuak: *baliteke, behar bada, agian*, edo esaldi berpentsatuekin: *A ez! Esan dudana oker dago, zera...* Hori hizketa zirriborratua da, Barnesek (1975) *esplorazio hizketa* deitzen duena. Geuk ere, horrenbestez, hizketa molde hau egokitzen hartzen dugu.

Hau da elkarrizketa modurik onena kontzeptu berriak garatzeko. Ez genuke pentsatu behar forma osatu gabea delako, nolabait gogoko ez duguna dela. Alderantziz, balioa eman egin behar genioke. Eta sartu behar genituzke testuinguruan, zeinetan ikasleak naturalki mintza daitezten. Ez genieke eskatu behar ikasleei goizegi erabil dezaten hizketa biribildua, dotorea eta zehatza. Horrek kontzeptuen garapena blokea dezake eta.

Gogoan dugun *esplorazio hizketa* hau hobeto garatzen da talde txikietan, ikasgela osoan baino. Eta askotan hobeto irakasle barik irakaslearekin baino. Beti ere kontuan izanik: *esplorazio hizketa* ez dela gauzatzen, hain zuzen, neska-mutilak taldean ipini eta eskatzen badiezu: «Mintza zaitezte zerbaiti buruz». Oso alde handia dago hizketa sozialaren artean eta eskolako gaiei buruzkoaren artean. Baita eskolako hizketa kaotiko edo alferriketaren artean eta helburudun ikasketako hizketaren artean. Azken hau da guk gura duguna eta berau gerta dadin, ikasleak prestatu egin behar ditugu eta gero gidatu gauzatzarakoan, tentuz arituz talde atazak arduraz eraiki ditzaten.

Ahozkoaren ondoren datorren idazketak, aldiz, ahazko hizketak ez bezalako betekizuna dauka. Idazketa, batez ere, azken faserako da egokia, kontzeptuak doitu eta zehazteko.

Dena dela, nekez uka genezake irakaslearen artean kontzeptuak ezagutzen baditu ikasle multzo bat ikasketetan aurrera doala, hizkuntza molde okerrak erabili arren. Horrela, ordea, azken fasean ere hizketa baldarrez, ez osatuz badirau, noraino onar genitzake molde horretan azalduko kontzeptuak? Historiako azterketan idatz baleza: *Kaisar Bruto hil zuen* ongi jarriko genioke? Zergatik? Ikasleak badaki ala usteetatik balioztatzen dugu?

3.1.3. *Adierazteko gai zarena dakizu*

Ingalaterrako James Brittonek eta beste ikerlari batzuek iradokitzen dute, kontzeptu jakin baten ikasketa –edozein irakasgaitan– ez dela lortzen harik eta kontzeptu horren gainean berba egiteko edo idazteko gai izan arte, hau da, geure ahozko edo idatzizko diskurtsoan integratzen dugun arte. Cassany (1991:184).

Gai bat badakigu, gogoan duguna, ikasitakoa berbalizatzeko gauza garenean. Zelan berbalizatzen dugu? Ba, geure berbak erabiliz, geure terminologiara ekarrita. Ez buruz ikasia errepikatuta, ezen ideiari eusten baitiogu, baina adierazi nork bere hitzen bidez.

Hara oinarria, ahozko testuak irakasle guztiek eska eta lan ditzaten. Baina arterago aipatu bezala, euskara eskasa zenbateraino da egokitzen hartzekoa? Ahozkoari gatzexkiolarik, baliozkotzat hartuko genuke euskalkian nahiz euskara batuan mintzatzea, jakinik, beti ere, zientzia horretako ideolektoak eta molde asko inposatuko zaizkiola ikasleari.

4. EBALUAKETA

Hizkuntzaren ebaluazioaren gaia XX. mende erditik gora dator. Lehen test konduktistatik hona –(ITPA): *Trebetasun Psikolinguistikoetako Illinois Testetik* hona– Chomsky-k sintaxiaren garapenari garrantzia ematen dion garaia dugu; baita alde semantikoaren garrantzia indartzen duen Piaget-en inguruko sasoia ere edo, ostean, testuinguruaren balioa azpimarratzen duen pragmatikaren ingurumaria ere. Edozein kasutan, hizkuntzaren ulerkerak hauek erabat loturik joan ohi dira ikaslearen hizkuntzaren jabetzeaz. Finean, dena den, aitortu beharrean gara, ez dela teoriarik behar bezain bestean azaltzea lortzen duenik haurrak nola jasotzen eta garatzen duen hizkuntza.

Ebaluaketa zereginerako badira unibertsalki ezagunak diren test estandarrik, gorago aipaturiko ITPAren gisakoak, erakundeek-eta gure ikastetxeetan pasatzen dituztenak. Guk, ordea, estandarizatu gabeko frogak aurkezten ditugu hemen. Berauetan hiru estrategia desberdin erabiltzen ditugu:

4.1. BILKETA, TRANSKRIPZIOA ETA HIZKUNTZA LAGINEN ANALISIA

Berezko hizketaren produkzioa da erabiltzen dugun ebaluazio estrategia. Behin paperera transkribatzen dugunean, araketa mota ugari eraman dezakegu aurrera: fonologikoa, morfosintaktikoa, semantikoa, pragmatikoa.

4.1.1. *Laginen bilketa*

Laginak bideoan graba daitezke edo magnetofon. Bideoaren alde ona keinuak jasotzea da. Transkripzio zuzenak –Resurreccion Maria Azkuek-eta egiten zituztenak– baditu oztopo bi: esaten den guztia nekez bil daitekeelako, eta atzera jota berriro ezin entzun daitekeelako.

4.1.2. *Transkripzioa*

Transkripzioa ohiko erara bidera daitekeen arren, badira gaur egun hizkuntza laginak aztertzeako programa informatikoak ere. Horietan bikain neur-tzen dira ikaslearen zalantzak nahiz errepikapenak edo autozuzenketak.

4.1.3. *Eragindako produkzioa*

Batzuetan astirik ezagatik edo lagin berezia lortu nahia dugulako, geu gara hizketa sortarazten dugunak: perpausak osatu, roleplaying-en tankerako jokoak egin; hitzak definitu; sinonimoak eta antonimoak eman...

4.2. Pragmatikaren ekarria ebaluaketarako

Ebaluazioa hizkuntzaren aspektu estrukturaletan edo formaletan bakarrik zentratzeak, ez digu azaltzen ez haren jabeakuntza, ezta ikasle askok erakusten diguten komunikazio porrota edo akatsak ere. Hizketaren garapenak ez du eskatzen gaitasun gramatikala edo linguistikoa soilik, hots, arau gramatikalak ezagutzea eta gauzatzea, ezpada, horrez gain, *gaitasun pragmatikoa* ere eskatzen du, alegia, beharrezko trebetasunen jabe izatea solaskide eta inguru desberdinetan hizketa egokia sortzeko.

Irakasleok, askotan, jokabide estrukturalistak edo joera formalekoak jaso izan ditugulako, eta bestetik, arau gramatikalak neurtzea bideragarriago dela-ko, ez dugu ebaluatu behar bezala gaitasun pragmatikoa.

4.3. Ebaluaketarako prozedurak

4.3.1. *Proba estandarizatuak*

Hizketaren dimentsio pragmatikoa ebaluatzeke ez da proba estandarizatu askorik. Dagoenaren artean aipagarria da Aginagarena eta kideena (1990) Prueba de Lenguaje oral de Navarra (PLON), 4 urterik 6rako haurrentzat atondua.

4.3.2. *Portaeraren behaketa*

Pragmatika ebaluatzeko aukera ideala egoera naturaletako behaketa zuzena eta sistematikoa da: ikasleak gelan zein gelaz kanpo behatzea, komunikazio egoera benetako eta berezkoetan, horrela frogatu ahal izateko, ea testuinguru desberdinetan eta solaskide desberdinekin jarduteko gai diren. Jokabide honek zailtasun handi bezain neketsuak ekarri ohi ditu irakasleontzat.

Behaketa iraunkor horretan begiratu beharko genuke: ea txandak gordezten dituen; hizkuntzako alde formalean eta pragmatikoan koherentziaz jokatzten duen; adierazpenak zehatzak diren eta abar.

4.3.3. *Estandarizatu gabeko probak*

Berezko egoera norberak sortarazietan egitekoak dira. Egoerotan, hezitzaileak hasierako markoa baino ez du ematen: gai posibleak, solaskideen kopurua, elkarrizketak, jokoak, role-playingak edo pertsonaiak antzestea sartzen dira eredu hauetan.

4.4. *Zuzenketarako irizpideak*

Hizketaren dimentsio pragmatikoa ebaluatzerakoan, ezin balia gaitzke tradizionalki erabili ohi diren irizpideekin, alegia, hizkuntzaren alde formala ebaluatzeoekin: zuzentasun gramatikala, adierazpen lexikoko aberastasuna eta abar, nahiz eta guk hauek ere ebaluaketan sartzen ditugun William Littlewood-i (1998) jarraituz.

Jokamolde honetan produkzioak ez dira behin honezkero ebaluatzen zuzen edo ez zuzen modura, baizik eta trukea gertatzen deneko testuinguruari edo solaskideari egokitzen zaion neurrian. Horrenbestez, ume batek hiztegi urria izan dezakeen arren edo esaldi akasduak sor ditzakeen arren, jarduera funtzional egokiari euts diezaioke. Guztiarekin ere, guk abiapuntutik beretik baieztatu dugunez, zuzentasun gramatikala-eta eskatu egiten ditugu, ezen irakaste ortodoxiaz baino esperientziaren eraginez, jarduera sinkretikoetan aritu beharra izan dugu eta.

Horrek guzti horrek zaildu egiten du pragmatikaren ebaluatze egokia.

4.5. *Amaierako hausnarketa*

Joko zelai mugatuan bada ere, ikasleen portaera linguistikoa ebaluatzeko era kualitatiboa eskaini nahi izan dugu, hala teorikoki, nola praktikoki.

Berez, hizkuntza ebaluatzea ataza gaitza da, izan ere ez delako ikerketa gai sinplea. Hizkuntza modu ebolutiboan ulertzeak dakarrena da –hasieran aipatu bezala– jarrera eta funtzio anitzen arteko harremana, eta horren analisia irakasgai oso desberdinei dagokie: linguistikari, psikologiari, pedagogiari... Hortaz, hizkuntzaren inguruko arazoak argitzeko diziplina arteko ikuspegia inposatzen da. Hizkuntzaren jabekuntza ikasleen beste arlo batzuetako garapenarekin batera doa. Horregatik dago behartuta irakaskuntzako profesionaletarako hausnarketa globala egitera, eskema soilegietatik aldentuz.

Finean eta buruan, nola ebaluatu galdetu ohi dugunean, erantzun genezake hizkuntza probak egoera naturalean, askean jasotzea, transkribatzea eta aztertzea ordezka ezina dela. Jokabide honekin ezin hobeto araka daitezke funtzio komunikatiboak, elkarriketarako trebetasunak, egitura morfosintaktikoen ugaritasuna, intonazioa, eta hizkuntzaren aspektu prosodikoak, ugaritasun lexikoa eta esanahien arteko lotura.

5. AHOZKORAKO ESTRATEGIAK IKASGELAN

Ahazkorako metodologikoki banatu arren, ez da ahaztu behar eguneroko bizitzan mintzamina eta entzumena elkarren osagarri eta banatu ezinezko trebetasunak direna.

Guk azterketetan eskatu arren, oso egoera anormala da eguneroko bizitzan ikasle guztiek aldeztu aurretik dakitena elkarri kontatzea. Berez, elkarrekin trukatzeko dugu informazioa, bata besteari ez dakiguna kontatuz.

Guk azterketetan eskatuko duguna erdi-ahozkoa izango da, hots, eredu-tzat testuliburuko testu idatzia hartuko da ahozkorako eta ondo dakigu berba egitea idatziz mintzatzea ez dena. Hala ere, denboraren presiopean mintzatu da, hori beti da ahozkoaren berezitasunak nagusia eta.

Brumfit-en iritziz, behe mailatan zehaztasunak du lehentasuna –hizkuntzari buruz diogu–, baina zehaztasunari zor zaion arreta gutxituz joango litza-teke ikasmaila gora doan neurrian, eta goi mailatan jarriotasunari legokioke le-hentasuna. **Jarriotasuna** hizkuntzaren berezko erabilerrari loturik doa: formari baino gehiago komunikatu gura denari, edukiari begiratzen baitaio. **Zehaztasuna**, berriz, hizkuntza zuzentasunari eta zehaztasun gramatikalari dagokie: edukia ez, baina forma azpimarratzen da.

Zerbait beti zuzendu behar genioke ikasleari –elementu bat edo bi, ez asko– ezen ongi baitakigu gehiegizko zuzenketak esanahietatik formetara aldatzen duena ikaslearen interesa. Beti ere, egitekotan, amaieran egin beharko genituzke zuzenketa nagusiak.

Euskara eredu, euskara batua nahiz euskalkiko kolokiala nahiz literarioa izan daiteke.

5.1. Ikasitako gaia azaltzea

5.1.1. Gaia azaldu klasekoen aurrean. Arteko egunekoa bada, saioaren hasieran; klase egun horretan landua bada, irakasleak azaldu bezain laster.

Kalifikatu egingo du irakasleak, kontuan harturik: ikasgela guztian oso ondo entzun behar dela; mezua ulergarria den ala ez; hizkuntza zuzen darabilen; gai horretako edukiak badakizkien.

Pare bat ikaslek eta irakasleak akatsen bat edo beste apuntatuko dute, ahal dela esaldi osoaren barruan hartuta. Dena dela ikasleak azalpena amai dezan arte ez zaio zuzenketarik egingo.

Azalpenaren iraupena ere ikasleren batek kontrola dezake.

Azalpenaren iraupena hiruren bat minututakoa izatea komeni da.

Kurtsoan behin, behintzat, ikaslearen azalpena magnetofon edo bideoan grabatzea komeni da.

5.1.2. Irakaslearen ondoan banan banako azalpena egitea. Bigarren hau aurrekoaren aldaera besterik ez da.

Euskara eredia liburuan datorrena izatea da errazena, hau da, testuliburuan euskara batuan datorrena euskara batuan azaltzea, euskalkian baletor, atxikitze-eredukoek –etxetik euskaldun datozenek– euskalkian egitea.

5.2. Monografiak

Gaia irakasleak emango du.

Azalpen unean, ikasleak gidoia edukiko du eskuan edo retroproiektora erabiliko du.

Hitz tekniko batzuk edo esaldi motaren bat eman ikasleari, azalpenean zehar tarteka ditzan. Esate baterako: *arren; nahiz eta*; edo matematikan badabil-tza asignaturako termino jakin batzuk, hiztegi teknikoaz baliatzen ikas dezan.

Lauzpabost minutuko iraupena eskatu behar zaio ikasleari.

Kalifikatu egingo du irakasleak, kontuan harturik: ikasgela guztian oso ondo entzun behar dela; mezua ulergarria den; hizkuntza zuzen darabilen; gaia ondo dakien.

Denbora kontrolatzeko ikasleren bat izendatzea da egokiena.

Hitzaldia egin baino astebete lehenago, berbaldiaren idatzizko zirriborroa irakasleari eskura ematea komeni da, oker idatziak oraindik zuzendu barik direla buruz ikas ez ditzan.

Ohartarazi klaseko guztiak, amaieran monografia egiten duenak galderak zuzenduko dizkietela berak azaldutako gaiari buruz.

Ikasle pare batek apuntatuko ditu monografiagileak egin dituen akatsak.

Ikastordu bakoitzean pare bat monografia azaltzea da egokiena, klaseko guztien berbaldiak entzuteko hiruhilekoa beharko baita.

Euskara moldea izan daiteke etxekoa –hitzak osorik esanda–, edo eskolakoa, hots, formalagoa.

5.3. Ariketen berbalizazioa

Arbelean dihardutenean edo ekintzaren bat gauzatzen ari direnean, une horretan bertan egiten dutena hitzez esanarazi, berbalizatzeko eskatu, dela formulazioa, dela entziklopediako kontsulta, dela beste edozein ekintza.

Jokabide bera erabiltzea komeni da norbait berandu heltzen denean, Euskal Herrian gertaera nabarmenen bat ezagutu denean nahiz zer edo zer galdu zaionean ikasleren bati, alegia, berbaz esan eragitea.

5.4. Ahozko azterketak

5.4.1. Ikastetxeko curriculumean sar dadin onartzen badugu, ezinbestekoa da kurtso osoan asignaturako gai bat, behintzat, ahoz galdetu eta kalifikatzea. Ikasle zuhurrek ezin hobeto dakite azterketetan sartzen ez den gaia –ahozkotasuna– ez dena garrantzitsua.

Zenbait ikaslek azterketako gaiari dagozkion zati batzuk buruz ikasirik ahoz esatea onargarria da, beti ere, positiboena izan arren, gaia jakinik norbere hitzez adierazten jakitea, ezagupen kognitiboen jabetzeaz baieztatua gogotan harturik.

Ikaslearen azalpenaren bukaeran, irakasleak galderak egin ditzake, ea zenbateraino menperatzen duen frogatzeko.

Egia esan, azalpenerako trebetasuna baino edukia ondo jakitea baloratu da jarduera honetan.

5.4.2. Arteko azterketa motaren aldaera da ikasleak banan banan irakaslearen mahaitik pasatuz ikasgaia azaltzea, bitarte horretan gainerako ikaskideak ariketa muturen bati erantzuten edukirik

5.5. Neurketarako eredu bat

HIZKETAREN EBALUAKETA

	Ondo	Txarto
Zuzentasuna		
Deklinabidea: ergatiboa		
Aditza: aspektua baldintza		
Perpausak		
Ordena		
Zehar galderak		
		2
Jatortasuna		
Erdararen morrontza		
Euskalkiaren oihartzuna		
Esamoldeak		
		2
Komunikagaitasuna		
Komunikatzea lortu du		
Perpaua ulertezinak		
		2
Jariakortasuna		
Isilune oso luzeak		
Autozuzenketa		
Zalantzak		
		2
Aberastasuna		
Makila hitzen erabilera		
Sinonimoez baliatzea		
Elementu deitikoak		
		1
Ahoskera		
Artikulazioa		
Intonazioa		
		1
		10

6. AINTZAT HARTZEKOAK

Irakaslearen zeregin minimoetan sartzen dela onartzen dugu, ikaslea irakasleari euskaraz zuzen dakion eskatzea, baita euskararen erabilera positiboki baloratzea ere.

Ikasgelan eztabaida bizia bada, espontaneitateari leku egin behar zaio eta ez da egokia erdaraz zerbait esan duen oro zuzentzen aritzea.

Ingeleseko klaseetan ingelesa baino ez da erabili behar, eta gaztelerakoan gaztelera baino ez?

Berbalizazio sistema osoak eskatzen duena da, irakaste sistema magistratetik parte hartzailerako urrats guztiak ematea.

7. GEHIGARRIAK

7.1. Ahozkoa ikasgelan. 2003/2004 ko ikasturtea. Klaustrorako proposamenak (1)

7.1.1. Jarraipeneko taldea: 2003-2004ko ikasturtean egingo diren esperimentzietarako laguntza eta koordinazioa eskainiko duen taldea. Hiru edo lau irakasle behar dira.

7.1.2. Programazio laburrean –2003-2004koan–:

7.1.3. Atal bat gehitu ahozkoa programatu ahal izateko, hala edukietan, prozeduretan, jarreretan zein baliabideetan edo ebaluazio sisteman nahiz berreskurapenean.

7.1.4. Gai bat ahoz itaunduta kalifikatu: Irakasle bakoitzak zein gai edo zeintzuk ikastunitateak galdetuko –eta kalifikatuko– dituen ahoz izendatuko luke. Horretarako, programazio laburrean idatziko luke.

7.1.5. Estrategia bana aukeratu: Irakasle bakoitzak –edo mintegika– estrategia bat aukeratu eta landu. (Ereduak «Ahozko estrategiak ikasgelan» ize-neko orrian banatu genituen). Jakina da berriak ere sor daitezkeena.

(1) Gogoan hartzen ditut Txorierrri Institutuko lankideak: Ana Hurtado, Jose Luis Egiluz, Ane Azpiri eta Euskarako Mintegikoak: Agus Ibarluzea, Karmen Zelaia eta Lurdes Amigo. Proba hauek taldean sortuak dira.

7.2. Ahozkoa: 2003-2004ko ikasturtean. 2004-04-01

7.2.1. Helburua

Ahoz komunikatzeko trebetasuna lantzea. Badakigu erabili ezean ez dela ikasten. Ahozkotasunean trebatzea hizkuntza guztietako zeregina da, baina euskararen egoeran normalkuntzarako neurria ere bada.

7.2.2. Egoera

Orain arteko irakaskuntzan, euskarari dagokionean, irakasleriaren helburua hizkuntza atxikimendua, sentimendu mailakoa, borondateari begirakoa indartu izan da. Ondorioz, hainbeste ikasle dira gure artean, euskaldun sentitu arren, euskaraz eroso jardun ezin dutenak, euskaldun izateaz harro sentitu arren, erdararen itsasoan bizi direnak.

7.2.3. Ikasle motak

Txorierrri Institutuan ikasle mota bi bereiz ditzakegu:

7.2.3.1. Murgiltze-eredukoak: etxean euskararik jaso ez dutenak. Hauek eskolatik herren ateratzen dira.

7.2.3.2. Atxikitze-eredukoak: Etxeko euskara bera ez da nahiko edonora joateko.

7.2.4.1. Orain arte egin dena:

Mintzapraktika baino gehiago izan da jendearen aurrean berba egiten irakastea, eta ikasgaiak idatziz baino ahoz azaltzea.

7.2.4.2. Lehen ebaluaketan: Froga bi egin ditugu:

Lehenengoan, 9. gaia azaldu dute banan bana, gutxi batzuek klasearen aurrean, gehienak magnetofonia eskuan dela irakasleari.

Bigarrenean, eguneroko jarduna, eguneroko gai atala itaundu da hurrengo egunean.

Hirugarrenean, gutxi batzuek gai monografikoa atondu eta ikasgelakoan aurrean azaldu dute.

7.4.3. 2. ebaluaketan: 12. gaia azaldu dute, baina oraingoan ez bakoitzak gai osoa, ezpada atal bana, beti ere testuliburuan datorrena internetetik edo hornituz.

Egindakoaren ebaluazioa:

Gutxi batzuek bikain ezen, eskema eskuan dela jardunik mintzatu baitira:

- Jendeari begiratzuz, begiak jasota egin dute berba.
- Euren hitzak erabiliz
- Diskurtsoa kontrolaturik.

Gehienek:

- Papereko eskemaren menpe
- Jendeari begiratu barik
- Buruz errepikaturik testuliburukoa.

Orokorrean lortzen dena:

- Ahoz egiten dituzten akatsik arruntenak detektatzea
- Jendearen aurrean hitz egiten ikastea
- Euskalkia nahiz euskara batua gelan entzutea.
- Programazioko erritmoa ez galtzea ahozkoarekin.

7.5. Konpondu gabe daukaguna

- Mailaka antolatzea ahozkoa, hau da, programatzea DBHn hasi eta batxilerrerrainoko ahoz eskatzen dena. Esate baterako: 1. DBHn antzerkia; 3. DBHn monografiak; batxilerrean, testuliburuetakoko edukiak ahoz azaltzea.
- Ahozkotasunaren berezitasunak aintzat hartzen irakastea. Adibidez: denboraren presiotik askatzeko sortzen ditugun makuluak: *zera, ba, lehen esan dudan legez...*
- Zutik egoten irakatsi eta eskuak-eta erabiltzen.
- Irakasleek azalpenaren amaieran akatsik larrienak argitu ikasleari.

Kritika sozialak egiten (zuten) zituzten.

Autore (hau) honek idatzi zuen eleberri hori.

BIBLIOGRAFIA

ACOSTA, M. ACOSTA ETA BESTE. (1996): Aljibe. Málaga.

ALZUETA, KARMELE ETA BESTE. (1981): *Hasiera zikloko euskararen programakuntza*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria/Gasteiz.

- AUSUBEL, P. DAVID ETA BESTE. (1993): *Psicología educativa*, Trillas. Mexico.
- BARNES, D. (1975): *From Communication to Curriculum*, London, Penguin.
- CASSANY, DANIEL. (1991): *Describir el escribir*, Paidós, Barcelona.
- CLEGG, JOHN: *The National Literacy Strategy*, in IX. Jardunaldi Pedagogikoa, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Donostia.
- GAMINDE, IÑAKI ETA BESTE. (2004): *Bizkaian zehar kantetan*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria/Gasteiz.
- GOIKOETXEA, JUAN LUIS. (2003): *Euskalkia eta Hezkuntza*, Bilbo, Euskaltzaindia, Iker-13.
- KRASHEN, S. D. (1981): *Second Language Acquisition and Second Language Learning*, Oxford: Pergamon.
- LITTLEWOOD, WILLIAM. (1981): *Communicative Language Teaching*, Cambridge University Press, Espainolezko argitalpena (1998).
- MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA. (2003): *Ahazkotasuna aztergai*, 7, Bilbo.
- TOUGH, J. (1997): *The development of meaning: A study of children's use of language*, New York, Routledge.
- VAN PASSEL, FRANS. (1973): *Linguistique et enseignement des langues étrangères*, Paris, Nathan.
- VILLASANTE, LUIS. (1988): *Euskararen auziaz*, Arantzazu, Colección Eleizalde, 9.
- WEINREICH, U. (1979): *Languages in contact*, The Hague, Houton Publishers.
- ZUBIMENDI, JOSE RAMON. (1995): *Jokaera-liburua*, Sendoa, Oiartzun.

BAZTAN-BIDASOAKO HIZKEREN EKARPENA (Dialektologiatik ikasgelara)

Edu Zelaieta*

1. SARRERA**

Ba ote dakigu egiatan zer den euskara batua? Noiz-nola erabili behar dugun? Euskaldun askok maiz aski erabiltzen duten *Harluxet* Entziklopediak, adibidez, honako hau dio euskara batuaz:

Euskaltzaindiak proposatutako euskara-eredu bateratua da.

Definizioa hagitz ulergarria da, bai, baina zer proposatzen du zehazki Euskaltzaindiak? Filologoa ez den euskaldunak ba ote daki zehatz-mehatz zer den euskara batua? Hizkuntzaren maila guztietan modu berean proposatzen ote duen: fonetika-fonologian, izenaren morfologian, aditzaren morfologian, sintaxian eta lexikoan? Edota, noiz bukatuko den bateratze prozesua, bukatu egin ez badago? Aise erantzuten ez diren galdera interesgarri hauekin hasiera eman nahi izan diogu gaurko hitzaldiari.

Euskara batuaren jaiotza, Euskaltzaindiak Arantzazun 1968an antolatu zuten bilkura haietan datatu ohi da. Euskara batzeko prozesuaren oinarriak eta ardatzak orduan ezarri ziren. Jakina denez, euskara batua finkatzeko, aditzaren morfologia arautu izan da gehienik. Halaber, euskara idatzia izan da batez ere bateratzeko prozesuan jarri dena, ahozko euskaraz eztabaida franko (egin gabe) daudela. Beraz, euskara batua erraten dugularik, arestikoak kontuan hartu behar ditugu; neurri handi batean, batuaren etiketapean ez baita ahozkoa sartzen, eta sintaxiaren nahiz lexikoaren arloetan, zinez, malgutasun handia baitago (jende anitzek uste baino malgutasun handiagoa).

«Euskara batua eta euskalkiak» edo «euskalkiak eta euskara batua» delako eztabaidari interesgarria deritzogu hagitz. Denok ados gaude euskarak dituen dialekto eta hizkeretan iturri ezin aberatsagoa daukala. Kontua da nola

* Euskal filologian doktoregaia. Iruñeko *Jaso* ikastolako irakaslea DBHn.

** Iñaki Camino irakasleari artikulu honi ohar aberasgarriak egin izana eskertu nahi diogu.

kudeatu hizkuntza aberastasun hori; eskualde bakoitzetik zer hartu batuan sartzeko. Hitz batez, zer bataiatzen ahal da euskara estandartzat, eta zer ez.

Euskalkien forma guzti-guztiak ezin dira maila berean jarri. Forma batzuei lehentasuna eman zaie, hedatuak, emankorrek eta ulerterrazak diren heinean. Baina hau ez da beti horrela gertatu. Adibidez, *gernu-debeku* «prostataren eritasuna» ez da hiztegi gehienetan ageri. Baztan-Bidasoan eta eremu handiagoan erabiltzen dela badakigu, (Mariano Izetak ere badakar bere *Baztango Hiztegia*), beraz, bizirik dago, emankorra da eta gainera ez du iduri gainerako euskaldunentzat sobera zaila denik. Zerengatik ez sartu erabilera orokorrerako?

Artikuluaren hezurdura eta helburuak

Gure proposamenak azaltzeko, Nafarroako hizkerez, eta batez ere, Baztan-Bidasoako hizkerez baliatuko gara saio honetan. Lehenik eta behin, Baztan-Bidasoako mintzoen berri emanen dugu, gaingiroki baldin bada ere. Dialektologiatik abiatuko da ikasgelan bukatu nahi duen lantxo hau. Baztan, Bertizarana, Malerreka nahiz Bortzerrietako ikasgela batean. Edo, zergatik ez, Iruñeko ikasgela batean, geroxeago ikusiko dugunez. Lehen hezkuntza aipatuko badugu ere, bigarren hezkuntza (12-18) izan dugu gogoan hitzaldia ematean eta artikulua idaztean. Hezkuntzaz ari garelarik, eta, ikasgela barrenean zenbait erabaki hartu beharra dela eta, gure ikuspegi teorikoa emanen dugu, hezkuntza eta dialektologia uztartuta. Trudgill dialektologialari ezaguna, errate baterako, ikaslearen jatorrizko dialektoa onartzearen aldekoa da (1983). Alde horretatik, zenbait proposamen praktiko aipatuko ditugu: Nafarroako Baztan-Bidasoan mintzatzen diren euskal hizkerak kontuan harturik, euskara baturako zein ekarpen egoki egiten ahal diren azaltzera saiaturiko gara. Zehazkiago errateko, euskara estandarrari Baztan-Bidasoatik begiratuko diogu bera aberasteko. Izan ere, euskara batuaren prozesua ez da guztiz akitu; eta, beraz, oraindik zenbait ekarpen egin ahal/behar dira. Gure helburua, alde horretatik, dialektologiatik abiatuz betiere, euskara batua aberastea izanen da. Ikasgelan eta kanpoan. Horretarako, aurtengo jardunaldien leloak dioen bezalaxe eta ahozko euskarari loturik: dakiguna eta darabilguna bi kontu ezberdin direla salatu gogo dugu (cf. Goikoetxea 2003).

2. DIALEKTOLOGIATIK: BAZTAN-BIDASOAREN KASUA

Autza (1305m) mendiaren mazelan, *Xorroxin* izeneko alderdian sortzen da Baztan ibaia, Erratzun, Izpegi inguruan. Izen horrekin ezagutzen zaio Bertizaranara iritsi bitartean, Oiiregin berean Bidasoa izena hartzen baitu; bai eta izen horrekin jarraitu Txingudiko Badian hiltzen den arte ere. Guztira 69 ki-

lometroko bidea du; hauetako 59 Nafarroan eta 10 Gipuzkoaren eta Lapurdi-
ren artean.

Hain zuzen ere, ibai honek Nafarroan ureztatzen dituen bazterretan ba-
rrera murgildu gara hondarreko sei urteotan, bertako hizkerek nondik norako
mugak dituzten erakusteko asmoz. Alabaina, hizkuntzari ekin aitzinetik, ber-
tzelako esparru batzuei ere erreparatu behar izan diegu. Izan ere, dialektolo-
gian ezaguna denez, anitz dira eremu bateko mintzoan eragiten duten faktore-
ak: demografia, orografia-hidrografia-geografia, harreman sozio-ekonomikoak
eta egoera soziolinguistikoa, bertzeak bertze. Horiek guztiak sakon ezagutu be-
har dira, delako eremuko hizkerarekin zer gertatu den jakinen badugu. Erran
nahi baita, solasa aztertzeko, solas hori egiten duen jendea ere aztertu behar-
ko dela, bai eta jende multzo hori biltzen duen eremua ere. Azken batean, min-
tzoaz haratago, mintzo hori duen jendeaz ari gara.

Hona hemen, Baztan-Bidasoa ibaiaren kokapena Euskal Herriko mapa fi-
siko batean:



Baztan-Bidasoa ibaia

Ekar dezagun bertze mapa bat ikusi ahal izateko zein diren Baztan-Bida-
soa eskualdea inguratzen duten herriak eta ibarrak; hots, Baztan-Bidasoako
euskaldunek (izan) dituzten ondoko lagunak nor diren jakiteko nola orain arte
norekin eduki dituzten harremanik oparoenak jabetzeko:



Baztan-Bidasoa inguratzen duten herriak eta ibarrak

Baztan-Bidasoa: bi izen, bi izan

Baztan-Bidasoaren kokapenaren berri eman eta ondoan, arestiko mapen bitartez, lan honetarako egoki diren zenbait ezaugarri aipatuko ditugu. Lehen-lehenik, izen bikoiztasunaz ohartarazi nahi dugu: Baztan-Bidasoa. Izenak izana salatzen du, nonbait. Eskualdeak bi izen eta bi izan ditu, alegia: Baztan ugaldea vs. Bidasoa erreka.

Berriki egin dugun doktorego-tesian (Zelaieta 2005) erakutsi denez, bi ur korrante ezberdin daramatza Baztan-Bidasoa ibaiak. Alde batetik, Baztan aldean aditzen den solasa, eta bertze aldetik, berriz, Bidasoa alderdikoa (Bertizarana, Malerreka, Sunbilla eta Bortzerriak). Hizkeren sailkapenari dagokionez, bi multzo bereizten ditugu, hortaz; nahiz eta bi hizkera hauek euskalki beraren barrenean dauden, egungo euskara nafarraren barrenean, hain zuzen. Honenbertzez, gure datuen arabera betiere, Nafarroa Garaiko euskararen bi hizkera mota ditugu Baztangoa eta Bidasoaldekoa.

Gure oraingo artikuluko honetarako hizkuntza berdintasunak hartuko ditugu hizpide, hau da, Baztan-Bidasoa eskualde osoan dauden hizkuntza ezauga-

rriak lehenetsiko ditugu, lan honen bukaera aldean zenbait proposamen zehatz egiteko. Alderdi horretatik, Baztan eta Nafarroako Bidasoaldea elkartzen dituzten ezaugarriok maiz eremu zabalagoak ere besarkatzen dituztela ohartarazi beharra dugu, Nafarroa Garaiko bertze eskualde batzuetan nahiz Ipar Euskal Herrian ezagunak direlarik. Era horretantxe frogatu nahi da Baztan-Bidasoan erabiltzen diren zenbait hizkuntza tasun eremu zabalagoetan ere erabiltzen direla. Hots, ez gaudela lokalismo antzuetan, baizik eta geografia hedadura handi samarra hartzen duten ezaugarrien aitzinean.

Oronoz-Mugairi, muga-hiri

Aspaldi samarretik, Bonaparte printzearen garaitik, Oronoz Baztandik aparte agertu izan da zenbait dialektologia sailkapenetan. Nonbait, bertatik pasatu diren euskalari nagusiak ohartuak ziren Oronoz Baztango euskaratik at utzi behar zela, eta Bidasoaldeko hizkerekin batean sartu beharra zela. Geuri ere gertatu izan zaigu, hondarreko urteotan galdeka ibili garelarik, Oronozkoak ez direla baztandarrak, *errekarrak* baizik aditu izana. Halarik ere, gainerako baztandarrek zirikan erraten dutela/dietela argitu beharra da. Honekin ez dugu Oronozen –Baztan guztian bezalaxe– sendo erroturik dagoen baztandar sena ukatu nahi. Alde horretatik ez baitago zalantzarik: Oronoz-Mugairi Baztango herria da, eta Baztan harana hamabortz herriek egiten dute. Edo hobeki erran, gure dialektologia eginbeharra dela eta, Baztango muga-hiria dugu.

Oronoztarrak berak aise ohartzen dira solasa ezberdin samarra dutela, baztandarrak izanda ere. Ildo honetatik gogoratu nahi ditugu Oronozek Bertizaranako hiru herriein (izan) dituen harreman historikoak. Eta horrek ekarri duen ondorio linguistikoa: Oronoz-Mugairi Baztango gainerako herrietatik aparte samar gelditu izana. Adibidez, Oronoz Baztango artzapez-barrutitik kanpo egon da, Bertizaranarekin, Malerrekarekin, Basaburu Tikiarekin, Sunbillarekin eta Bortzerriekin batean, Doneztebeko artzapez-barrutiaren baitan. Zinez, hagitz adierazgarria da, kontuan hartzen badugu, elizak duela guti arte izan duen garrantzia berebizikoa izan dela.

Hizkuntzaren azterketari gagozkiolarik, Bidasoan goiti heldu dena, Bortzerriak-Malerreka aldetik, Oiieregin eta batez ere Oronozen hasten da aldatzen. Nafarroako Bidasoaldek heldu den indar hori herri honetan apaltzen da. Ezaugarri anitzek Oronozen hartzen dute hondar hatsa. Hizkuntza trantsizioa, beraz, Oiieregin hasi eta Oronoz-Mugairin mamitzen da, nahiz eta Bidasoaldeko ezaugarri batzuk Baztango Basaburura iristen diren (ez, ordea, Baztango gainerako tokietara). Oronozko solasa muga-mugakoa da (cf. Pagola 1992, Iriar 1992), eta arestikoaren seinale garbiena Oronoz-Mugairiko euskaran dagoen polimorfismo maila handia da. Hona hemen erraten ari garenaren adibide batzuk:

- Oronoz-Mugairiko hitzun batzuek automatikoki bustitzen dute (Bidasoaldean bezala), baina bertze batzuek bakan bustitzen dute (Baztango eredura hurbilduz): *itten & iten*, *ttu & tu* «ditu», *aita & atta*...
- N-N-N sailen arteko lehia bizia dago, batzuek *didazu* erako adizkiak baliatzen dituzte (Bidasoaldean bezala), baina bertze batzuek, berriz, *datazu* erakoak baliatzen dituzte (Baztanen bezala).
- Lexikoan ere ohikoa da bitasuna (ezkerrekoa Bidasoaldekoa da, eta eskuinekoa, aldiz, Baztangoa): *aspo & ausko* «hauspo», *ate & piro* «ahate», *bezpera & mezpera*, *ernatu & iretzarri*, *ideki & edeki* «ireki», *soñu & asots* «soinu, zarata».

Ornoz-Mugairiko hizkuntza aldakortasuna ez dago hitzun bakoitzaren baitan, baizik eta Oronoz-Mugairi osatzen duten euskaldunen artean. Bi joera nagusiak ageri dira, mendebaletikoa eta ekialdetikoa; baita doinuaren ere. Lehia hau ekialdetikoa *irabazten* ari dela iduri du. Oronoz-Mugairiko euskararen norabidea argi dago, beraz: Baztan aldera ari da. Kasu bakanetako bat izanen da alde horretatik, baina hizkera gehienak Euskal Herriko erdigunera hurbiltzen ari diren honetan, Oronoz-Mugairikoa Baztan aldera ari da (cf. Zuazo 2003: 110). Bidena-barrekoan, Oieretik ere aldaketa giro horretatik hartu du, neurri aise apalagoan.

Alderdi bakoitzeko ñabardurak

Goraxeago erakutsi da Oronoz-Mugairik Bidasoaldea eta Baztan banatzen dituela. Zernahi ere den, dialektologiaren atal llabur hau akitu baino lehen, Baztango nahiz Bidasoaldeko hizkeren baitan ere badirela ezberdintasunak eta ñabardurak adierazi gogo dugu. Geolinguistika azterketetan ohi denez, multzo bakoitzaren baitan hedadura ezberdina hartzen duen ezaugarri batzuk ageri dira. Bidasoaldeko euskaraz den bezainbatean, Bortzerriak eta Malerreka ez datoz beti bat. Zenbaitetan, Bortzerriek ondoko Lapurdirekin nahiz Gipuzkoarekin bat egiten dute, eta Malerrekek, berriz, ondoko hizkera nafarrekin bat egiten du usuago. Halaber, Baztanen, Baztangoiza Ipar Euskal Herritik nahiz Urdazubi-Zugarramurditik hurbilago dago, eta Baztango Basaburua, ordea, Oronoztik nahiz Ultzamatik hurbilago dago. Geografia hurbiltasunok badute beren ordain linguistikoa: Baztangoizan aurkitu ditugun zenbait ezaugarri ez ditugu Baztango gainerako herrietan atzeman, eta bai, ordea, Baztangoizarekin muga egiten duten Zugarramurdi-Urdazubin nahiz herri lapurtarretan eta baxenafarretan. Hizkuntza ñabardura hauek mendeetako giza harremanen ondorio dira: Bortzerrietako herriek –Berak eta Etxalarrek, bereziki– eta Baztangoizakoek –Azpilkuetak, Amaiurrek, Arizkunek eta Erratzuk– muga inguruko herri lapurtar nahiz baxenafarrekin hartu-eman sakonagoak eduki izan dituzte gainerako herriek baino. Honekin erran nahi duguna da Ipar Euskal Herrian, Etxalarren eta Erratzun badirela zenbait ezaugarri, Donezteben, Urro-

tzen, Narbarten edo Arraiozen ez daudenak. Adibidez, Etxalarren eta Erratzun *-rat*, *-ganat*, *-t(z)erat* adlatiboak aukeran daude, eta bertze herrietan *-ra* da atzizki emankor bakarra (1).

Gaude, arestiko dialektologia ñabardura edo ezberdintasun hauek Baztan-Bidasoako hizkerak dialektologikoki aztertu izanak ekarri dituela. Beraz, eremu bateko hizkerak aztertu ahala, direlako ñabardurak agerian gelditzen dira. Euskal Herriko errealitate dialektologikoa zenbat eta hobeki ezagutu, orduan eta ñabardura gehiago sumatuko ditugu euskararen herrian. Errealitate dialektala —ez bertzea ere, maiz— ez baita izaten, dialektologialariak nahiago izaten duena bezalakoa, baizik eta hainbat eta hainbat eragilek denboraren joanean marraztu duten bezalakoa.

Baztan-Bidasoako hizkerak euskara nafarraren baitan

Ezberdintasunak ezberdintasun, ñabardurak ñabardura, Baztan-Bidasoako eskualdeko hizkerak egungo euskara nafarraren barrenean kokatu behar ditugu gure datuen arabera. Euskal Dialektologiak historian izan duen eztabaida klasiko bati helduz, Baztango euskara lapurtera edo nafarrera ote den, alegia, erantzuna emana dugu gure doktorego-tesian. Izan ere, Bonaparteren sasoian, Baztan mugako hizkera izaten ahal baldin bazen ere, XXI. mendean, ordea, gauzak aldatuak dira, eta Baztango euskara aski nafartua sumatzen dugu. Garai batean, Baztanek Ipar Euskal Herriarekin zituen harremanak azkarragoak ziren, eta ondorioz, bertako euskarak nafar-lapurterarekin lotura gehiago ageri zituen. Alabaina, arestian erran bezala, Baztan Hego Euskal Herriko hizkeren dinamika berean edo bertsuan dago egun. Mugaren eragina gero eta nabariagoa da, nahiz eta aduana gehienak kenduak diren. Beharbada, aitzineko mendeetan kanpotik ezarritako muga egiazko muga bilakatu da denboraren poderioz. Eta orain, ongi barneratutako muga dugu, denen edo gehienen gogoan dagoena: kultura erreferentzia anitz ezberdinak dira, ordutegi ezberdinak daude alde bakoitzean... eta ezberdin mintzatzen da. Hau guztia dela eta, Baztango euskara Nafarroa Garaiko euskararen baitan sailkatu beharra dakusagu (2).

Nafarroako Bidasoaldeko hizkerari dagokienez, berriz, zalantza gutiago dago, eta aspalditik Nafarroa Garaiko hizkeren artean sailkatu izan dira. Bortzerrietan, Malerrekan eta Bertizaranan erdialdeko euskararen oihartzun zenbait badaude ere, Baztanera apenas iritsi direnak, ezaugarri gehiago eta garrantzikoagoak dira Bidasoaldea Nafarroari lotzen diotenak. Honenbertzez, ataltxo honen lehenbizian adierazi dugun gisan, Bidasoaldeko nola Baztango euskal hiz-

(1) Nahiz eta badakigun Baztan-Bidasoako osoan *norat* kasuaren hainbat forma fosilduta dauden, erakusleak nagusiki: *unat/onat*, *orrat*, *arat*.

(2) Nolanahi ere den, Baztango eta muga inguruko mintzo nafar-lapurtarrek gorde dituzte zenbait kidesatun.

kerak Nafarroa Garaiko gainerako euskal hizkeren artean sailkatu behar ditugu, nahiz eta gure azter-eremuko multzo bakoitzak ezberdintasunak ageri dituen.

3. IKASGELAN, ZER-NOLA?

Baztan-Bidasoako hizkeren gaineko ikuspegi orokor bat eman eta ondoren, euskarazko ereduiko ikasgeletara hurbilduko gara. Azken batean, sarreraren aitortu bezala, hizkuntzatik abiatu gara hezkuntzara iristeko asmoz. Bertze era batera nahiago bada, ikasgela barreneko ahozko hizkuntzari buruzko erabakiak hartzeko, euskarak duen errealitate dialektalean oinarrituko gara. Dena den, ez beza inork pentsa tokian tokiko aldaerak euskara estandarra edo batua lekutu behar duenik, ez baita hori gure proposamena inondik ere. Bistan da eskolak eskaintzen duen hezkuntza formala dela. Hortaz, eskolako kodeek ere aski formalak behar dute izan, non eta ez garen ttikienen hezkuntzan ari, hau da, haur eta lehen hezkuntzako lehenbiziko urteetan (3). Zernahi ere den, eskolako kode mintzatua eta kode idatzia ez dira gauza bera. Eskolako idazmena eta mintzamina ez dira gauza bera. Edo, ez lukete izan beharko.

Euskarak Nafarroako Baztan-Bidasoan duen errealitate dialektalean oinarrituko gara bertako ikasgeletako euskara ñabardurez janzteko, ikasleen ahozko adierazpena aberasteko. Tokian tokiko ahozko tradizioa jasotzeko bildumak agertzen ari diren honetan (4), ikasleak etxetik dakarrenak nola eskolan ikasten duenak balio dute. Biak dira kultura, biak dira hezkuntza arlokoak, nahiz eta bakoitzak bere testuingurua duen. Hain zuzen, hortxe sartzen da irakaslearen lana: berebiziko garrantzia du, gure iduriko, ikasleak ezagun dituen bi mundu horiek noiz elkartzen ahal diren eta noiz bereizi behar diren jakitea. Ikasleak bere ahozko euskara landu eta garatu beharko du mailakako prozesu baten baitan. Hasieran, beharbada, hizkuntza modalitateekin nahasiko da, eta baliteke zein aukera erabili behar duen sobera ongi ez jakitea. Baina denboraren poderioz, ikasgelan egindako lanaren poderioz, ikasleak ezagun dituen bi iturrietatik edanen du, zer-nola adierazi behar duen aise ikasiko duelarik.

Euskara batua egunerokoan definitzen: teoriak haratagoko praktika

Dena den, ikaslearen ahozkotatasuna behar bezala garatzeko eta ñabardurez hornitzeko, ahozko euskarak eskaintzen dituen aukerez ohartarazi gogo

(3) Puntu honetan, batzuek euskalkiak ere erregistro formalak eta informalak lantzeko bali dezakeela aldarrikatzen dutela aipatu nahi dugu. Halaber, euskalkiek eta herri hizkerek idazteko modu arautua izan dezaten eginahaletan ari dira bertze zenbaitzuk.

(4) Ahozko kultura ez galtzeko dagoen nahiaren seinale garbia dugu, zorionez. Gure azter-eremuari gagozkiolarik, adibidez, bi lan interesgarri argitaratu dira hondarreko urteotan: *Bortzietako ahozko tradizioa* eta *Malerreka solasean* (ikus bibliografian). Gisa berean, Baztanen eta Nafarroako bertze zenbait ibarretan ere horretan ari direla badakigu.

dugu; hain juxtu ere, euskara estandarrek berak ematen dituen aukerez. Izan ere, uste sendoa dugu euskara batuari dagokion baino eremu murriztagoa ematen zaiola frankotan (5). Bertzenaz, gure ustea ustela bada, zilegi bekigu gaurko mintzaldira etorri zaretenon artean galdera batzuk agertzea, gure arteko adostasun maila neurtzeko. Hitz batez, izen beraren gibelean gauza bera ote dugun denok buruan:

1. Zer da euskara batua ikasgelan/kanpoan?
2. Iruñeko euskara batuak eta Gasteizko euskara batuak berdin-berdinak izan behar dute? Ez da inolako moldatzerik onartzen?
3. Balmasedako, Legutioko, Berako eta Mauleko ikastoletan, euskara batua aipatzen delarik, gauza berbera ote da? Mauleko eta Legutioko irakasleek era berean mintzatu behar dute beren eskoletan?

Ez erantzun arestiko galde-moduei, ez baitira instantean ihardesteko galderak, gogoeta egitekoak baizik. Halarik ere, zuen baimenarekin, ariketa praktikotik bat eginen dugu. Minutu bat hartuko duzue mandatu erraz bat egiteko: nola erraten da euskara batuan erdarazko «hablar»/«parler»? Gogoan hartu euskara estandarraz ari garela.

(Hitzaldira etorritako 30-35 lagunek zintzo bete dute egitekoa. Gehienak lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak dira, Nafarroako zenbait ikastetxetan ari direnak. Badaezpada ere, ariketatxo hau egiteko oztoporik ba ote duten galdetu diegu; baliteke-eta bati baino gehiagori egoera bortitza suertatzea. Arazo kozkorrik ez dagoela eta, aitzinera segitzeko bidea eman digute)

Minutua pasatu ondotik, galdeka hasi gara banan-banan. Laburbilduta, hiru erantzun mota jaso ditugu aretoan:

- a) «hitz egin».
- b) «solas egin», «hitz egin», «mintzatu», «berba egin»...
- c) normalean, ikasgelan «hitz egin» erabiltzen badute ere, ez dakite ziur nola den.

Bertzelako erantzunak-komentarioak ere jaso ditugu tartean. Erraterako, batuan «hitz egin» ala «hitzegin» idatzi behar ote den kezka adierazi dutenena. Une nahasi samarrak izan dira. Gaurko ikasleak, eguneroko irakasleak, erantzun irmo baten esperoan daude. Filologiako aditu batek zalantzak noiz uxatuko zain daude. Aitzitik, bazterrak gehixeago nahasten segitzea erabaki dugu, eta agertu ez diren zenbait aukera aipatu ditugu ozenki: «ele egin», «elekatu», «solas(ta)tu»...

(5) Pello Salaburuk (1994) *euskara batu soziologikoa* eta *euskara batu formala* bereizten ditu. Euskara batu soziologikoa jende askoren ustean sartutako euskara batuaren eredu murrizta da; euskara batu formala, berriz, Euskaltzaindiak onartutako hizkuntzaren erabilera gutzia.

Horrela, irizpideak finkatu beharraz hasi gara solasean. Hizketan. Berbetan. Eleketan. Zer ote da euskara batua? –hasierako galderara itzuli gara– Zeren arabera erranen dugu aukera bat batua dela eta bertze bat ez? Zeren arabera jakinen du hezkuntzako profesionalak, irakasleak, zein aukera baliatu behar duen?

Euskaltzaindiak *Euskeran* argitaratutako hiztegi batuaren arabera, bi dira irizpide nagusiak (2000: 481):

- a) tradizio idatziko eta egungo erabilera; gaur egun, orain arte ez bezala, Hiztegi Batuari berme sendoarekin ekiteko moduan ezagutzen ditugu erabilera horiek *Orotariko Euskal Hiztegia*-ri eta *Egungo Euskararen Bilketan-lan Sistematikoa*-ri eskerrak.
- b) alde bateko eta besteko euskaldunak batzen gaituzten formak hobestea; maileru berrietan, esaterako, nazioarteko formen alde egin dugu, eta horrelakorik ez dagoen kasuetan, Iparraldeko eta Hegoaldekoentzat onargarri gertatzen direnei eman zaie lehentasuna. Forma bakarrera iristeko oinarririk edo indarrik ikusi ez denean, forma lehiakideak eskaini dira, kasuan kasuko argibideak emanez, beherago adieraziko den eran.

Hau da, tradizioa nahiz gaurko erabilera kontuan harturik, euskaldunak elkarrengandik aldentzen ez dituzten forma guztiak euskara batuari dagozkio, euskara batuan erabiltzeko egoki dira. Euskaltzaindiaren lana eskuartean dugularik, lehengo ariketari erantzuna eman nahirik, baturako proposatzen diren honako forma hauek aurkitu ditugu (alfabetikoki): «berba egin», «ele egin», «elekatu», «hitz egin», «mintzatu», «solas egin» eta «solastatu». Arestiko guztiak, beraz, euskara baturako egoki dira Euskaltzaindiaren iduriko. Honenbertzez, bigarren erantzun mota eman dutenak zuzen zeuden, entzuleen heren bat, gutxi gorabehera.

Egia da goiko kasua lexikoari dagokion afera dela, eta lexikoan, mailuago jokatzeari ere badagoela. Halarik ere, aretoko erreferentzia kontuan hartuz gero, iduri du *honetaz sobera ez dakien* jende gehiago badagoela dakiena baino. Gainera, ez dugu ahantzi behar gure mintzaldira etorri direnak ez direla nolanahiko euskaldunak, baizik eta egunero hizkuntza tresnatzat erabiltzen duten profesionalak. Nafarroako lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak, hain zuzen. Eta mintzaldira etorri badira, euskararen gaineko kezkak erakarrita (eta ziurrenik, zenbait soluzioren bila) etorri dira.

Zilegi bekigu, gaurko bigarren lizentzia, definizio ez-akademiko(egi)a ematea, baina, zernahi ere den, euskara batuaren izpirituarekin bat egiten duena eta denok ulertzeko modukoa: Euskaltzaindiak emandako/proposatutako oinarriko arauak betetzen dituzten euskara oro batua dira. Hori bistan da erraten ahalko du bakarren batek. Bai, bistan da; baina bistan egonagatik ere, zenbaitzuek, eta ez gutik, ez dute behar bezala ikusten. Adibide fresko-fresko bat ematen dugu izena salatu gabe: gaurko hitzaldia hasi baino lehentxeago, areto honetara sartu aitzinetik, adiskide batek *nafterraz* egiteko komenien-

tziaz gaztigatu digu. Eta kontent joanen da hemendik, gaur, hemen, zuen aitzinean euskara estandarrean ari izanagatik ere, *nafarreraz* mintzatu garelakotan. Eta kontua ez da horrela.

Hitzaldi hau gure sorterrian eman izatera, Gasteizen eman izatera, argi dugu ez ginatekeela horrelaxe mintzatuko zuen aitzinean. Gasteizen, Uharten bezalaxe, euskara batuan eginen genuke, baina ez modu bere-berean. Lehenago galdetu dugu Iruñeko euskara batuak eta Gasteizko euskara batuak berdin-berdinak izan behar ote duten. Orain, datorrela gure erantzuna: ez. Iruñean nahiz Gasteizen euskara batuan mintzatuko gara, hitzaldia emateak halaxe eskatzen baitu. Nolanahi ere den, euskara batuak aukera bat baino gehiago eskaintzen du. Hortaz, batua ez dadila erabateko uniformitatearen baliokidea izan; baizik eta partida jokatzeko zelai komun bat, non denek arauak ezagutzen ditugun, nahiz eta bakoitzak jokatzeko modu ezberdinxeak ageri dituen.

Jarraian, azter ditzagun Euskal Herriko ohiko bi egoera: euskalkia bizirik dagoen ikasgela/herria eta euskalkiak bizirik ez dagoen ikasgela/herria.

Euskalkia bizirik dagoen ikasgelan

Ezaguna denez, Baztan-Bidasoan euskalkia bizirik dugu. Nafarroako eskualde honetako herrietan, beraz, euskal komunikabideetako hizkera estandarrez gainera, herri hizkerak ere entzuten dira egunero. Gakoa da eskola bezalako toki formal batean zein toki utzi behar zaion etxeko mintzoari, edota tokirik utzi behar zaion etxeko euskarari. Alde horretatik, beraz, irakasleak gogoan hartu beharreko lehenbiziko kontua hauxe izanen da: nongo ikasgelatan ari gara eskola ematen? Era berean eginen ote dugu Iruñeko ikasgela batean nahiz Urrotzen?

Euskalkia bizirik dagoen neurrian, ikasleak etxetik dakarren ezagutza ere balia daitekeela pentsatzen dugu. Kontua da zein neurritan eta nola bideratu behar dugun ikaste prozesua. Ez du iduri etxeko hizkerak idatzirako eta mintzaturako berdin balio duenik. Ikasleak hortxe hasi behar du bere bi ezagutzei —etxekoari eta eskolakoari— ahalik eta etekin handiena ateratzen. Hori dela eta, lehen hezkuntzako ikaslea, idazten ikasi ahala, ahozkoa eta idatzizkoa bi kode ezberdin direla jabetuko da. Hasieran, ziurrenik, biak nahasiko ditu; batez ere, etxean entzun eta erraten dituenak paperean ere islatuko dituelako. Dena den, hau ez da arazoa bi kode hauen arteko bereizketa behar bezala ikasteko. Ahozkoa ez dela idatzizkoa eta idatzizkoa ez dela ahozkoa bereiztera lagunduko dio irakasleak ikasleari.

Edozein kasutan, etxeko ezagutzak ere balio dezake ikasgelan, bereziki, ahozko adierazpena lantzeko. Izan ere, mintzatzen den bezala ez duela idatzi behar ikasi eta gero, ikasleari maiz gertatzen zaio uste izatea idazten duen bezala solas egin beharra duela. Eta hori ere ez da horrela. Adibidez,

Berako haur batek idatzi badu ondoko hau (egiazko kasua da, bidenabar) *aitari mandiotte alta*; irakasleak adieraziko dio hori «aitari alta eman diote» idazten dela. Gisa berean, haur horrek urte batzuen buruan solas egiten badu ikasgelan irakurri dituen liburuek bezala, eta ondorioz-edo, halako zerbait erraten badu: *biar beste bat joango da*, irakasleak aukera paregabea izanen du bereizketaren bigarren alderdia oroitarazteko: *zuk ikusi nola erratten duzun erran nai duzuna, biño yakizu uskaraz itteko tenorin benpin, itxeko uskara duzula obena. Orduan, zerengatik ez erran beti bezala, biar bertze bat yuanean da*. Bi adibide xume dira, artikulua honetan proposatu nahi denaren erakusgarritako:

1. Modu jakin batean idaztean dela (ahoz ez bezala)
2. Bertze modu batean hitz egiten dela (idatziz ez bezala)

Gure iduriko, horrela, irakasleak noiz-zer erabili behar duen jakinen du: kode idatzia mintzatua baino arautuago dagoela ohartuko da batetik; eta bertzetik, ahozko erregistroa ñabarduraz janzteko aukera izanen du, ahozkoa etxeko (eskualdeko) euskaratik hurbilago dagoen heinean. Batean nola bertzean, adierazpen egoki, zuzen eta aberatsa garatuko du. Gainera, ahozkotasunari dagokionez, bere inguruko (adineko) euskaldunekin komunikatzeko arazorik ez du izanen, etxeko/herriko euskararen ere mintzatuko baita. Era horretan, mendeetako ahozko tradizioa gordetzeaz landa, eskolak bere funtzio akademikoa beteko du.

Euskalkia bizirik ez dagoen ikasgelan

«Euskalkia bizirik badago, irakasleak badu erreferente bat» baieztapena aski ezaguna da euskal hezkuntza arloko profesionalen artean. Baina bertako euskal hizkerak aspaldi itzali badira, nola jokatu behar da? Ez da aise afera. Zenbait ideia azalduko dugu, jakinik ere eztabaida hau oraindik egiteko dagoela.

Lehenik eta behin, bertako euskal hizkera bizirik ez badago ere, bertako euskal hizkerak gogoan hartzeko gomendioa egiten dugu guk. Hortaz, irakasleak nongo ikasgelatan ari den kontziente behar du izan berriz ere. Gasteizen eta Iruñean, tamalez, euskal herri hizkerak itzaliak dira. Hala eta guztiz ere, badira bertze zenbait erreferente lagungarri suerta litezkeenak. Dialektologia diakronikoa, errate baterako. Azken batean, euskara berreskuratzaren ari bagara, eta berreuskalduntzearen definizio estu eta zehatzena hori da, zergatik ez berreskuratu tokian tokiko euskara, ahal den neurrian? Badakigu batzuetan arunt zaila dela, ia ezinezkoa, baina ez beti. Zenbaitetan, baliabideak-eta izaten dira. Gainera, ez da aherentzi behar hizkuntza —edo dialektoa, kasuaren arabera— nortasunari gogor atxikia dela. Hau da, hizkuntzaren, hizkuntza motaren bidez, hiztunak nortasun kolektibo batez jabetzen

dira (6). Frankotan aipatu izan da euskara batuaren ahulguneetako bat, hain juxtu, nortasun eza izan dela. Bada, euskalkia bizirik ez badago ere, zergatik ez hornitu bertako euskal hizkeraren ezaugarri batzuekin? Horretarako, dialektologiaren ekarria garrantzizkoa izan daiteke: dialektologia diakronikoak bertako euskara nolakoa zen jakitera laguntzen ahal digu, eta dialektologia sinkronikoak, berriz, inguruan antzeko hizkera bizirik ote dagoen jakitera laguntzen ahal digu.

Bertze alde, Iruñeko lagunek maiz Nafarroako euskaldunekin harremanak izaten dituztela gogoan hartu beharra dugu. Iruñeko eta Iruñerriko lagunengandik hurbilen dauden euskaldunak gainerako nafar euskaldunak dira: Ultzamakoak, Imozkoak, Baztangoak, Bidasaldekoak... Kontuan hartzeko argudioa da honako hau nafar euskaldunen artean mintzatzeko tenorean, beren arteko komunikazioak oztoporik izan ez dezan. Euskaraz egiteko trabarik egon ez dadin.

Honenbertzez, Baztan-Bidasoako euskarak Iruñerako balio digu? Gure iduriko, bai. Izan ere, lehenago erran baldin badugu Baztan-Bidasoako hizkerak egungo euskara nafarraren baitan daudela, pentsatzekoa da Baztan-Bidasoako hizkerak Iruñeko euskarak zituen zenbait ezaugarri badituztela. Gainera, errana dugu ezaugarriok ez direla eremu txikikoak eta zenbait eremu nafar euskaldunetan ere ohikoak direla. Adibidez, gure ikasle iruindarrek «esan» ziurtatua dute (telebista, irratia, prentsa...); ez, ordea, «erran». Biak batua dira, eta bigarrena da Nafarroa gehienez erabiltzeaz gainera, Iruñean ere erabiltzen zena. Irakasleak «erran» baliatuta, onura baizik ez dugu ikusten:

- a) koherentzia geolinguistikoagatik
- b) ikasleak erabilera ziurtatuak bertako aldaerekin osatuko dituelako, bere hiztegia aberastuz.

Hona hemen zerrendaxka bat antzeko bertze batzuekin:

- *esan* (kanpotik ziurtatua) + *erran* (bertakoa)
- *asko* (kanpotik ziurtatua) + *a(u)nitz* (bertakoa)
- *oso* (hau dokumentatua ere bada) + *hagitz*, *arras*, *arrunt*
- *beste* + *bertze*
- *behintzat* (hau dokumentatua ere bada) + *behinik* *behin*, *bederen*
- *izango*, *egingo* + *izanen*, *egonen*
- *Atzera*, *aurrera* + *gibelera*, *aitziner*

(6) «zeregin demarkatiboa» dio Iñaki Caminok (2005: 158) Séguy hizkuntzalariaren hitzak gogora ekartzearekin batean.

4. ZENBAIT ONDORIO ETA PROPOSAMEN

Beraz, zenbait azalpen emanda, ondoko galde-moduei erantzuteko tenorea heldu da:

Irakasleak dialektologo bihurtu behar ditugu?

Irakasleak ez du dialektologia sakon ezagutu beharrik, baizik eta tokian tokiko errealitate dialektala. Bertako ondare linguistikoa ezagututa, irakasleak ikasgelako ahozketasuna bideratzeko aukera berriak izanen ditu, linguistikoki nahiz kulturalki (ahozko tradizioa, oro har).

Irakasle guztiek gisa berean solas egin behar dute ikastetxean?

Dialektologiaren ikuspegi idiliko samarretik baietz erran liteke, baina ez dirudi sobera errealista izan daitekeenik. Dena den, ikastetxeetan plangintzak eta proiektuak egiten diren modu berean, ahozketasuna lantzeko tenorean, tokian tokiko hizkeren gaineko mintegiak, eztabaidak eta abar antolatzen ahal dira. Ikastetxeko irakasleek era koordinatu batean jokatzeko dute bertzeko zenbait arlotan, honetan, beraz, zergatik ez? Era koordinatu batean jokatzeko ez da irakasle guztiek berdina-berdina hitz egitea, baizik eta ikasleei kontrako mezurik ez helaraztea (hau erabili behar da irakasle honekin, hau, berriz, bertzeko honekin e.a.). Alde horretatik, irizpide nagusi batzuk ezartzeari komenigarria deritzogu.

Eta, tokian tokiko euskara erabiltzen ez duten bitartekoak (testu-liburuak, ikus-entzunezkoak...) bota behar ditugu?

Ikasteko-irakasteko gai gehienak eredu estandarren sortuak dira. Alabaina, berdina-berdina erabiliko ditugu i(ra)kasgai horiek. Eskolan, irakasleak euskara batua ongi ikasi beharra du, eta langai horietan euskarri espresak aurkituko ditugu. Berriz diogu garrantzitsuena bereizketa dela, bi ereduak –estandarra eta bertakoa– baliatzea. Bereizketatik franko aberastuta aterako da ikaslea.

Zein da, bada, Baztan-Bidasako hizkeren ekarpena? (ondorio nagusi zenbait)

Lehenik eta behin, ohartaraztea dakiguna darabilguna baino aise gehiago dela. Irakasleak etxetik dakarrena ez da galtzera utzi behar.

Bigarrenik, adierazi gogo dugu Baztan-Bidasoatik ere euskara batua aberastean ahal dela. Eta, jabe gaitezen arestiko «ere» horretaz, zeren eta nagusi-ki Baztan-Bidasoaz jardun baldin badugu ere, gauza bera edo bertsua erran liteke Euskal Herriko bertze zenbait eskualde nahiz eremuz.

Hortixe heldu da, hain zuzen, hirugarren aportazioa: Euskal Herriko gainerako Baztan-Bidasoetatik ekarpenak egiten ahal dira, estandarrari muzin egin gabe. Frankotan aipatzen da euskalkiek batua osatzen dutela, eta egia da, baina euskara batuak ere euskalkiak osatzen ahal ditu. Uztartze honetatik ikasgelan erabili beharreko ahozko erregistroak sortzen dira. Gelako ahozko ereduaz ari ez, baina izpirituz antzeko diren «tokiko batuak» ederki azaltzen ditu Koldo Zuazo irakasleak bere hondar lanean: (Zuazo 2005: 238):

Hori dela eta, hizkera bi bereizi behar genituzke euskara batuaren barruan. Ez luke guztiz berbera izan behar Euskal Herri osorako egiten den egunkariko euskarak, eta eskualde jakin baterako egiten den egunkarikoak. Ezta Euskal Herri eta mundu zabaleko euskaldunendako egiten den liburuiko euskarak, eta eskualde jakin baterako egiten den liburuikoak. Era berean, Euskal Herri osoko pertsona edo elkarteei bidaltzen zaien oharreko euskarak, eta eskualde jakin batekoei bidaltzen zaien oharrekoak ez luke guztiz berbera izan behar. Azken batean eta laburbilduz, euskara batu mota bat dagokio euskaldunen osotasunari, eta beste bat leku jakin bateko euskaldunei.

Orain arteko jardunean ez da horrelako bereizketarik egin: euskara batu berbera erabili da edonon, edonorekin eta edonoiz, eta hori ez da zuzena eta zuhurra. Batez ere irakaskuntzan ekarri ditu ondorioz gaiztoenak; Hego Euskal Herrian bereziki. Euskara batu berbera erabili da alderdi euskaldunetako eta erdaldunetako ikastetxeetan, euskara batu berbera Bizkaiko herri euskaldunean edo Nafarroakoetan. Berdin jokatu da Sartaguda herri erdalduneko eta Bera herri nafar euskalduneko ikastoletan edo Oion erdalduneko eta Gernika herri bizkaitar euskalduneko euskaltegietan. Berrit diot: jokabide hori ez da zuzena eta zuhurra.

Hots, eredu estandarrak ematen dituen aukera guztiak baliatuz, ikasgelako ahozko euskara tokian tokiko hizkerek dituzten ñabardurez jantzi eta aberastea da gure proposamena.

Hortaz, «tokiko batuak»zer(tarako) dira?

XXI. mendearen hasiera honetan, etxetik euskaldun diren ikasle gehienek (zer erranik ez, etxetik erdaldun direnek) batez ere eskolako diskurtsoa hartzen dute gogoan. Gogoan eta mintzoan. Ikastolan ikusitako nahiz irakurritako liburuak bezalatsu mintzatzen baitira, eta hori, hizkuntza pobretzea da. Arazo honi nolabaiteko konponbidea eman nahirik, «tokiko batuak» ditugu Zuazoren hitzetan, edo artikulua honetan azaldutako gelako ahozko ereduak. Ahozko adierazpenetan, ikasleak etxeko euskararen ekarria baliatzen ahal du, eskolan ikasitako kode mintzatua aberasteko eta osatzeko. Elizondoko ikasto-

lan, konparazio baterako, *datazu* «didazu» erratea ez diogu bertako ikasleari galaraziko, jakinaraziz betiere kode idatzian eta ahozko batuan *didazu*»dida-zu» dela forma estandarra, gainerako euskaldunek aise ulertuko dutena. Azken batean, tokian tokiko ondare dialektala kontuan hartzen duen ahozko eredua da guk proposatzen duguna.

Nafarroako Baztan-Bidasoatik euskara batuari egiten ahal zaizkion zenbait ekarpen zehatz

Ondotik, euskara batua aberasten ahal duten zenbait proposamen zerrendatuko ditugu, betiere, guk hobekien ezagutzen dugun eremutik, Nafarroako Baztan-Bidasoatik. Honekin ez dugu erran nahi euskara batuari egin dakizkiokeen ekarpen guztiak ondoko hauek direnik, ez eta aipatzen ez direnak baliagarri ez direnik ere. Gure asmoa apala da: adibide batzuk agertu nahi ditugu, Euskal Herriko gainerako *Baztan-Bidasoetatik* ere bertze ekarpen batzuk egin litezkeela erakusteko. Ezaugarrietatik batzuk ezagunagoak dira *euskara batuaren zirkuitoan* sartu diren neurrian (*Berria*, *EITB*...); bertze batzuk, berriaz, ez dira ohikoak gure hedabideetan. Adibide guztiak bizi-bizirik daude gure azter-eremuan. Datuak guk bilduak dira.

Izenaren morfologia

1. Soziatiboaren erabilera izenekin nahiz aditzekin: *ortzegunakin zatten da merkatua* «ortzegunarekin izaten da merkatua». Aditzekin, denbora adieraz gainera, balio kontsekutiboa ere hartzen ahal du: *bera nagusi zattekin, itten al tzun nai zuna* «bera nagusi izatearekin/izanik, egiten ahal zuen nahi zuena».
2. *-ketari* atzizkia izenak osatzeko: *esneketari* «esnezale», *ogiketari* «ogi saltzaile», *ardoketari*, *arrainketari*, *egurketaria*... Garraioa nahiz ofizioa adierazten du.
3. *-xko* atzizkia: *ongixko*, *soberaxko*, *beranduxko*, *erixko*, *lodixko*... «aski» nahiz «pixka bat» adierak hartzen dituzte arestikoek.

Aditzaren morfologia

1. aditza + *gogo* «asmoa izan»: *nik yuango nun eben eske, miño kotxia izortu zait* «nik joan gogo nuen beren bila, baina kotxea izorratu zait»; *ze afaldugo zu* «zer afaldu gogo duzu».

2. *aditza + alde: lan ori eñ alde manen dizute sosa* «lan hori egin alde/egitearen truke/egiteagatik emanen dizute sosa; *ama zaitze alde banun soldadokua ez itteko aukera* «ama zaintze alde/zaintzeagatik banuen soldaduska ez egiteko aukera».

Sintaxian

1. *Etorri bada etorri* moduko errepikapenak «*etorri denetik, etorri denez geroztik*»: *etorri bada etorri, ez da isildu; erittu bazen erittu ez zun burua altxatu*.
2. *Jakin izatera, jakitera* moduko baldintzazko perpausak, aditz laguntzailerik eskatzen ez dutenak: *yakitterat, eniken yeus ere erranen* «jakitera/jakin banu ez nian deus ere erranen». *yakin zatera, xira karriko nuen* «jakin izatera/jakin izan banu, zira ekarriko nuen».
3. *ezik, ezen ez* konparazio-perpauetan: *obe da lan ittia ezikan ez ittia* «hobe da lan egitea ezik ez egitea»; *obe da goiz yiki ezen ez gero lasterka ibilli* «hobe da goiz jaiki ezen ez gero lasterka ibili».
4. *agian (ere)* desioa adierazteko: *agiyan ere martxa pollita hartuko du fabrikan; Bentta berri bat paratu te Ibardiñan, ya ongi ateitzen zayoten. Agiyan bai!* «Benta berri bat paratu dute Ibardin, ea ongi atezatzen zaien. Agian bai!»

Lexikoan

Lexikoari dagokionez, adibide bakan batzuk emanen ditugu sobera ez luzatzeagatik, zeren eta anitz dira multzo honetan sartzen ahal diren hitzak: *Bes-ta Berri* «Corpus Cristi», *bokata* «arroparen garbitzea», *laketu* «ohitu, jarri», *marranta(tu)* «ahotsa lastu, zintzurra hartu», *aldaira* «mudantza», *gernu-debekua* «prostataren eritasuna», *lapastu* «esnea mindu», *soraio* «minik sentitzen ez duen pertsona», *teku* «elikagaiek botatzen duten usain txarra» eta abar.

Gaizki egindako ekarpenak: erabilera okerrak

Batzuetan, ordea, euskara baturako garraio okerra egin da, eta Baztan-Bidasoako nahiz eremu zabalagoko hainbat ezaugarri gaizki erabiltzen dira maiz. Hona hiru adibide dakartzagu, nahiz eta gehiago ere izan litezkeen:

1. *-ki* aditz atzizkia: hiru adiera izan ditzake atzizki honek, Iñigo, Salaberri & Zubiriren artikuluan ageri den bezalaxe: diosala egiteko (ze,

ariki? «ari zarete», hanpadura adierazteko *jakinki han nitzela arat joan zen* eta puntukaritasuna adierazteko (*yuaki naiz* = noa). Bigarrena da batez ere komunikabideetan hedatu dena, baina gaizki baliatzen da maiz, perpaus gerundial hutsaren balioa ematen baitzaio: «Beraiekin batera, Berango herriko Ekaitz Hernández gaztea dabil baxujole moduan, hain gaztea **izaki**, etorkizun oparoa ikusten zaiolarik baxujole moduan» (Gaztelupeko hotsak Disketxea); «Bestalde, gehienbat jende gaztea **izaki** ahalmen ekonomiko txikikoak dira» (Boletín aldizkaria). Erabilera egokiaren adibide batzuk emanen ditugu ondotik: *nik uste niken hamabiak zirela, hamarrak izaki; ohartu gabe atia etsi zuen, biatzak bertan izaki; i ostatutan, sosik gabe ibilki*. Gainera, bitxia da, baina «jakinki», egoki, ariki, ibilki, eramaki... ez dira normalean komunikabideetan agertzen. «izaki» bertzerik ez, eta arestian ikusi bezala, adiera okerrean.

2. Ofizioa edo lana adierazten duen *-go* atzizkia: ekialdeko euskalkietan arrunta da (Ibarra 1995: 412, Salaberri & Kamino 2001: 76) *artzain-gua, nekazalgua, sorgingo, alkatego*. Halarik ere, Nafarroako Bidasoaldean *-ko* da aldaera nagusia: *artzainkun ibilli, alkatekua, txoferkuan...* Zenbaitzuek, ordea, ondoko forma hauetan bakarrik erabiltzen dute: «ikaslego», «irakaslego», «hauteslego» e.a. Hots, delako talde horren plurala egiteko. «ikaslego» erratea edo idaztea «ikasletza» erratea/idaztea bezal-bezalakoa da. Ez du zentzurik, alegia.
3. Lexikoan, adibide bat: «arestian». Baztan-Bidasoan nahiz eremu zabalagoan honelako aleak atzematen ahal ditugu *aixtin tor da* «arestian etorri da»; *aixtian erran diat, ba!*. Halarik ere, gaur den egunean, zenbaitetan erabilera okerra egiten da: «Hizkuntz diskriminazioa», «jokabide fundamentalista», «garbiketa etnikoa» eta antzeko ale ederrak entzun eta irakurri ahal izan ditugu **arestian...**» (2005-04-16 Berria egunkaritik hartua); Berriak (05/03/06) «**arestian** plazaratu duena...» (2005-03-16 Berria egunkaritik hartua). Hamar egun pasatu eta ondoran, arestian!

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- CAMINO, I. 2005: «Euskal soziolinguistikaren atarian» in P. Etxeberria & H. Knörr (arg.). *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*. Iker 17. Euskaltzaindia, Bilbo, 157-187.
- EUSKALTZAINDIA. 2000: «Hiztegi batua», *Euskera* agerkaria, 45-2, 481-757.
- GOIKOETXEA, J.L. 2003: *Euskalkia eta hezkuntza: dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*, Iker 13, Euskaltzaindia, Bilbo.

- IBARRA, O. 1995: *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- IÑIGO, P., SALABERRI, P & ZUBIRI, J.J. 1995: «-Ki aditz-atzizkiaren gainean», *FLV* 69, 243-295.
- IRZAR, P. 1992: *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* (2 liburuki), Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- NAFARROAKO GOBERNUA. 2004: *Bortzirietan aditutakoak, Bortzirietako ahozko tradizioa*, Iruñea.
- . 2005: *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Iruñea.
- PAGOLA, R.M. 1992: *Euskal fonetika Nafarroan* (2 liburuki), Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- SALABERRI, P. & KAMINO, P. 2001: «Hitz eratorriak Luzaideko hizkeran», *FLV* 86, 223-262.
- SALABURU, P. 1994: «Euskara batuaren egungo premiak», *Euskera* agerkaria, 39-3, 675-695.
- TRUDGILL, P. 1983: *Accent, Dialect and School*, Arnold, London.
- ZELAIETA, E. 2005: *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* UPV/EHUko tesi argitaragabea, Vitoria/Gasteiz.
- ZUAZO, K. 2003: *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.
- . 2005: *Euskara batua. Ezina ekinez egina*, Elkar, Donostia.

AHOZKO EUSKARA: DAKIGUNA ETA DARABILGUNA-JARDUNALDIA

*EIBZ (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide
Zentroa) – Uharte (Nafarroa)
2005eko irailaren 29a*

MAHAI-INGURUA: AHOZKO ADIERAZPENA IKASGELAN

Parte-hartzaileak: Bittorio Lizarraga, Eratsungo IPko irakaslea.
Josema Leitzza, *Nafarroako Bertsozale Elkartearen* ardura-
duna.
Unai Errazkin, *Lizarra ikastolako* irakaslea.

Moderatzailea: Paskual Rekalde.

SARRERA

Mahai inguru honetako partaideak honako hauek dira:

1. **Bittorio LIZARRAGA.** Leitzar hau maisua eta euskal filologian li-
zentziaduna da. Urte luzez (12z) helduen irakaskuntzan aritua, gaur
egun 6 urte daramatza Eratsungo eskolan.
 - a. **Gaia:** herri koxkor bateko eskolako gorabeherak.
2. **Josema LEITZA.** Arbizuar honek urte anitz darama bertso munduan
(Nafarroako Bertsozale Elkarteko kidea da). Bertsogintza eta hezkun-
tza uztarturik egiten dute lan Nafarroako ikastetxeetan. Ahozko hiz-
keraren larriaz kezkatutik agertu zaigu beti.
 - a. **Gaia:** bertsolaritzaren curriculumaz
3. **Unai ERRAZKIN.** Lasartear honek urte batzuk daramatza Lizarra in-
guruan (bizitzen eta lanean). Gaur egun Lizarra Ikastolako euskara eta
gaztelaniako irakasle da.
 - a. **Gaia:** ahozketasuna Lizarra Ikastolan nola lantzen den.

* * *

PARTE-HARTZEAK

Bittorio LIZARRAGA: «Herri koxkor bateko eskolako gorabeherak»

Aurkezpenean esan bezala, ni herri koxkor bateko maisua naiz. Eskola arrunt ttikia da eta, hiru urtetik seigarren maila arterainoko haur guziak elkarrekin egoten dira. Eratsun da aipatu herria. Baina, hango irakasle titularra baina ere, alderdi hartako hiru herrixketako eskolak, hau da, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaien elkarrekin aritzen gara jarduera askotan. Gure egoera berezi samarra baita, ez dakit Nafarroan gureak bezain eskola ttiki asko ba ote den. Denen artean 21 ikasle ditugu. Berezitasun honetan dago astero Doneztebera jaitsi beharra, eta han denak elkarrekin aritzea, eskurtsioak elkarrekin egitea, espezialista berak izatea... Azken buruan hiru herrixketan banatutako eskola komunitatetxoa osatzen dugula esan genezake.

Honetara ezkeror, esanen dut hiru eskola hauetako, eta gutxi-asiko inguru hartako eskola ttikietako egoera, franko poliki ezagutzen dudala.

Irakasleei dagokienean, ia ikasturtero aldatzen da irakaslea. Urte askoan ez dute Eratsunen hainbeste urte egin duen irakaslerik izan, ez dakit sekula izan badute ere, arruntena beste aldera izaten baita. Arrazoi nagusia haxe da: gisa honetako eskoletan bakarrik aritzeak inor gutxiri eragiten dio atsegin, eta beraz, irakasle funtzionarioek muzin egiten diote. Hortaz, joan-etorrian ibiltzen diren irakasle interinoak izaten dira lanpostu hauek hartzen dituztenak. Horretaz gainera, noizbait irakasleren batek urte bat baino gehiago egin badu, eta segitzeko asmorik baldin badu, zerrendetan atze samarrean baldin bada, aurreagokoren batek hartuko dio lanpostua beste hoberik ezean. Aurten berean Beintza-Labaienen gertatu da.

Bestalde, Euskal Herriko ia nondinahi etortzen zaizkigu irakasleak, jakina, Iparraldetik ez bestetik. Izan ditugu bizkaitarrak, giputzak, Nafarroako Iruñerrikoak... Izan ditugu, era berean, euskara gaitasun eta jakintza maila guzietakoak. Baina, hau ere ez da harritzekoa: euskara hutsean irakatsi behar eta oposaketak gazteleraz egiteko aukera izatea ere... Haxe baino kontraesan gogorragorik!

Hagitz ongi dakit, esaten ari naizen hau ez dela inolako berritasunik, baina, honetara ezkeror, agudo aski ohartuko gara berebiziko nekeak dituela den gutxieneko segida izanen duen programa, plangintza edo tankerakorik egitea. Irakaslea eta haurrak elkarrengana jartzerako behar dute urte erdia behinik; euskalkiaren berririk ez badu irakasle etorri berriak, zailtasunak handitu egiten dira. Jakina, ahozkotasuna lantzekoaz gainerako beste edozein programak ere hark adinako zailtasunak izanen ditu segida izateko. Alabaina, testu liburuak, fitxak eta abar idatzirik gelditzen dira, ahozkotasunak berriz, beste ñabardurak ditu, sarri ikusiko ditugunak .

Egiturazko arazo hauei eguneroko eskola arierakoa erantsi behar dizkiegu. Curriculumean aipatzen da ahozkoaren garrantzia; aipatu ere egiten da zer gaitasun bereganatu beharko lituzkeen ikasleak; zehaztuak ageri dira gaitasun horietara ailegatzeko ezinbesteko diren bitarteko gramatikalak... Euskalkien gainean, ordea, deus gutxi azaltzen da. Nolanahi dela ere, taiu antzean eraikitakoa dela irudi du, hitzez behinik behin. Hitzez bai, baina, izatez ez. Gero eta bazterragokoa da ahozkoa, are eta bazterragokoa diskurtso formal eta akademikotik kanpo dagoena.

Hizkuntza eta matematika landu behar dira, emaitzak hobetu behar dira, Finlandiaren pareraino, behinik behin, ailegatu behar dugu heldu den urterako, eta hurrengorako igaro inondik ahalbaitean. Berdin dio zer bitarteko, zenbateko autonomia izanen duen ikastetxeak, zer gizarte motatan bizi garen...

Bai, baina, hizkuntza delako horretan sartuko da, bada, ahozkotasuna? Ustez bai, baina... Idatzizkoak du lehentasuna eta hoberenean hain hurbileko duen ahozko mintzaira jasoa da haren hurrengo.

Ebaluaketak, barrengoak eta kanpokoak eginen dira; emaitzak zehaztu behar dira, eta emaitzen arabera eskola bakoitzeko kalitate maila jakinen da: behar adinakoak ez badira moldatzeko bideak paratuko dira. Ekoizpena, emaitzak, kalitatea...

Dudarik ez da, egoera honen aurrean, irakasleok gainean dugun zamaren azpian, buru-belarri lan hauetan murgildu behar dugula, beste gainerakoak alde batera utzita. Ez dago beste alderdirik; ez dugu ahozkotasuna lantzeko betarik, eta gainera, jakinaren gainean dago ikasleak behar bezain ongi dakiela mintzatzen edo... Beti ere, eskoletan ez da ahozkotasuna lantzeko inolako plan-gintzarik eskatzen. Hori eskola bakoitzaren esku dago.

Aldez aurreko hau esan ondotik, nirera etorriko naiz. Eratsunen aurkitutako egoera azalduko dut. Deus ere baino lehen, esanen dut egoera berdintsua aurkitu izan dudala beste zenbait eskolatan ere.

Ni ailegatu nintzenean eskolako haurrek bere hartako euskalkian mintzatzen ziren eskolaz kanpoko jardueretan eta, beti ere, elkarren artean. Eskolako jardueretan eta nirekin, berriz, inondik ahalean sasieuskara moduko batean mintzatzen saiatzen ziren, batez ere, goiko ziklokoak eta hein batean erdiko ziklokoak. Nolabaiteko hizkuntza estandar, batua gisakoa egin nahi zuten, euskalkiko ezaugarriak ere nahasiz; ez baterako ez besterako, inorako ez zena. Hona ezaugarri nabarmenen konparazio ale batzuk: *u* eta *i* ondoren *a* ingurune guzietan (*zakurra*, *tokia*) (1); *j* yodaren ordeztu (*joan* ez *yoan*); neurri ttikiagoan despalatalizazioa (*arrituta*, *oilaskoa*, *oina*) mugagabeen beti *ura*, *elurra*, *aizea* eta beste hainbeste kontaezinezko elementu lexikoekin, beren euskal-

(1) Ahozko euskararen ispilu izan nahi baitu hemen azaltzen dudan honek, ez dut ortografia estandarra erabiliko tankera honetako erakusgarrietan.

kiaren usuarioan ez bezala; gertakizuneko *-ko/-en* bikotearen ordeztu, *-ko/-go* ingurune guzietan; *obeto* obeki-ren; ezer deus-en ordeztu, irurogei, irurogeitamar eta abar irutanogei, irutanogeitamar-ren ordeztu; benetan egi(a)tan eta ziñetan-en ordeztu; jolasa yosteta-ren ordeztu eta abar. Hauetako batzuk jada osotara berretuak dituzte.

Dudarik gabe, eskola ez da aldaketa hauen eragile bakarra: euskalkiak aldatzen dira eta eragileak era askotakoak eta bide askotatik ailegatzen dira. Honen zer pentsatua eman zidan, ordeza. Batez ere, zenbait ikasleren ezinadierazia eta erakusten zuten nahastea ikusita.

Gogoan hartu behar dugu ama hizkuntza euskara duen ikasleak, badakarrera etxetik eskolan garatuko duen hizkuntzaren aldaera bat. Eskola porrota deitzen dugun horren arrazoietakoa bat, irakaskuntza prozesuan erabiltzen den hizkuntzaren desegokitasuna izaten da. Askotan hizkuntza hau arrotz egiten zaio ikasleari. Honengatik komeniko litzateke hizkuntza estandarerako sarbidea mailakatua izatea eta sekula ez ordezkatzeko hutsa, ezta eskola prozesua bukatzean ere. Hartara ezkeror, askoz ere errazago egiten zaio ikasleari bere hizkeratik abiatuta hizkera formal, akademiko edo zientifikorako pausua. Horretaz gainera, baldin eta ikaslearen garapen osoa badugu helburu, sentimenduak, emozioak, bat bateko pentsamenduak adierazteko bidea eman behar diegu eskolan ere. Idatzizkoaren garapena bera ere, pentsamenduan garatzen dugun mintzotik etortzen da.

Ezin ahaztu baitugu gainera, ikaslea honelako edo halako ingurune sozial eta kulturean bizi dela, eta hartan ere mintzoa duela komunikatzeko era nagusia. Eskolak eskaintzen dioten hizkuntza eta ikaslearen hizkeraren arteko aldea handia baldin bada, arriskua dago komunitateko beste gainerako bizilagunek arrotzatakoa hartzekoa ikasleak eskolatik daraman hizkuntza (oroitzen dut eskolan aurkitu nuen bideo batean ikusi eta entzundakoa. Ni joan aurreko kurtsoaren batean egina zen. Bideo horretan herria erakusten ari ziren eskolako ikasleak. Horretarako herrian barrena zebiltzan bazter-txoko guziak grabatuz. Herriko zenbaiti elkarrizketa ere egiten zieten, tartean garai hartako alkateari. Dena batuaz. Halako batean beste galdera askoren artean, «zer jarduera egin behar dituen udaletxeak?» galdetu zion ikasle batek. Gizonak ez zekien zer erantzun, eta azkenean galdera ez zuela ulertzen esan zion. Baina, ikasleak ere ez zuen nonbait oso ongi ulertzen jakin ez zuelako beste era batera esaten. Galdera erantzunik gabe geratu zen, jakina). Arrisku hau ez da balizkoa, gertatzen baita: askotan izaten da bere ama-hizkuntzan eskolatu gabekoak direlako bizilagun horiek, eta ezin sinetsi izaten dutelako euskara beste diskurtso mota batzuetako balio dezakeela. Makina bat aldiz entzun dugu, «oingo euskera berri au eztago entenditzeik». Azken buruan, egoera diglosiko gogor hauetan gertatzen ohi den konplexuaren ondorioa da. Baina, beste batzuetan eskolak berak zokoratzen du kode estandar eta ikasitiki ate dagoena. Hizkuntzari izaera aldaezinari buruzko usteak, eta kode ez-formalei buruzkoek zeresan handia izan dute zenbait irakasle hedatutako aurreiritzi hauetan. Orain

dela urte batzuk, bilera batean, gure mutikoaren euskara irakasleak esan zigun, azken buruan euskalkiak euskara batuaren degenerazioa besterik ez zirela. Gurasoeekin egindako bilera batean euskara batua eta euskalkiaren gaia azaldu zenean, horrelako erantzunak jaso nituen: «gure euskara txarra baita, guk ezta-kigu ongi itzitten, guk erdaz itten dugu erdie, guk entenditu esaten dugu eta gure umek ulertu, ori bai euskaaz». Ziur aski ere, maiz entzunak dituzue denak gisa honetako esaldiak.

Eskolan ditugun irizpide nagusiak hizkuntzari dagokionez.

Elkarren arteko hizkera euskalkia da. Nik horretan suerte handixkoa dut, ni Leitzarra bainaiz, eta hango euskalkiarekin ez baitugu alde izugarririk.

Euskara estandarerrako zubia pixkan-pixkan eraikiz joaten gara: haur hezkuntzan hizkuntza estandarrekiko lehendabiziko harremana idazketa prozesuan hasten direnean izaten dute, eta kantak ikasten dituztenean. Bestela, dena euskalkiko hizkeran egiten dute.

Ahokotasuna, eta beti ere, euskalkia dela bide, komunean egiten ditugun joko, ipuin kontaketa, eta kontakizun guzietan erabiltzen dugu. Gogoan har haur guziak elkarrekin daudela, halako jarduerak denok batera egiten ditugula; jakina, bakoitzari berea emanez. Horrela bada, gure plangintza modukoan egunero kontatzen dugu bezperan egindakoa, baina, bortxatu gabe bakarren batek deus esatekorik ez badu, edo esan nahi ez badu, dagoela lasai. Hala ere, beti sortzen da tira egiteko moduko haritxoren bat eta hari lotzen zaizkio denak (ez dakit nor erori eta min hartu zuela; herriko norbait eri eta ospitalera eraman dutela; halakoren zakurrak norbaiti hozka egin diola...). Gai desberdin asko azaltzen da. Hau, eskuarki saio motza izaten da, ordu laurdenekoa egunero. Asteburu ondokoa, orde, luzeagoa izaten da; ordu erdikoa. Horretan bai, saiatzten naiz denek zerbait konta dezaten.

Ipuin kontaketak astean behin egiten ditugu. Neronek kontatzen diet ipuinen bat, beti ere, beren euskalkian. Saio horretaz baliatzen gara, alde batetik ulermena lantzeko galderak nik egin beharrean elkarri egiteko. Hau zikloka banatuta egiten dugu: txandaka handiek ttikiei egin behar dizkie galderak eta hurrengoan ttikiek handiei. Ttikiek ari naizela esanen dut bost urterekin hasten direla ariera honetan. Gero zenbaitetan antzestu egiten dugu ipuina; edo bukagabea baldin bada bukatu; edo hasieragabea baldin bada, hasi. Azken ariketa hauek lehenbiziko ahoz eta gero idatziz egin behar izaten dituzte erdi eta goi ziklokoek. Bestelako ariketa berezirik egin behar ez badugu, ipuina txandaka irakurtzeko ematen diet eta, horrela kode idatzia ere lantzen dugu.

Kontakizun ekoizpena hiru sailetan banatua dugu: ikasia duten edozein ipuin, istorio edo bestelako edozein kontakizun kontatu; norberak asmatutako ipuin, istorio edo kontakizuna kontatu; etxekoen artean jasotako ipuin, istorio edo kontakizunen bat kontatu. Baldintza bakarra beren euskalkian kontatzea izaten da. Gero, zenbaitetan ipuin hauek idazteko baliatzen ditugu. Jakina, as-

kotan ikasle batek baino gehiagok kontaktzen dute ipuin bera. Baina ikasle ba-koitzaren kontara berea baizik ez da.

Maiztasuna aldatu egiten da ikasturtearen, ikasleen mailaren eta beste hainbeste eragileren arabera; beti ere, ziklo bukaerero egiten dugu, eta horrelakoetan grabatu egiten dugu, nolabaiteko ebaluaketa egiteko. Oso ondorio interesgarriak eta aberasgarriak ateratzen dira ariera hauetatik.

Jokoak, kantak eta abar ere sartzen ditugu ahozkotasanari berariaz dago-kion atalean. Jokoetan bai kanpokoak, bai barrengoak, hala nola: karta joko-ak, partxisa, xakea...

Ahozko hizketa, ordea, eskolako jarduera eta asignatura guzietan sartzen da. Bai matematikan, bai ingurunean, bai hizkuntzan eman behar izaten diren azalpenak, ulertzeko moduko hizkeran ematen saiatzen gara. Ez nahita nahiez euskara sinplean, baizik eta bere hizkeratik ahalik eta hurbilenen dagoen hizkeran. Baina ez gara, horretan bakarra gelditzen, urratuz baikoaz hizkuntza ja-soagoak eskatzen duen bidea: sinonimoak erabiliz eta ikasiz; pixkan-pixkan arrazonatutako diskurtso bati dagozkion egitura lotuagoak eta luzeagoak sar-tuz; eta kopularen erabilera gehiegizkoa baztertu eta mailaz maila lokariru eta juntagailu gehiago sartuz. Arrunt egokia da ahozkotasuna lantzeko ingurunea, askotan hurbileko gaiak azaltzen baitira. Horrelakoetan beti aprobetxatzen dugu bizi garen inguruneak ematen digun aukera. Gaiaren aurkezpena eta le-henbiziko azalpenak egindakoan, hurrengo urratsa etxekoei, herrikoren bati edo gaiarekin lotura estua duen norbaiti galdetzea izaten da eta informazioa jasotzeko. Arruntean hiztegiari dagozkionak baizik ez dira izaten galderak, bai-na beste batzuetan prozesua azaltzeko edo beste gisa batekoak. Gero ikasge-lan jasotakoa kontatu behar izaten dute eta testuliburuan edo, ikusitakoarekin konparatzen dugu.

Bukatzeko hiru gauza nabarmendu nahi nituzke: batetik hitz egitea eta idaztea gauza desberdinak direla; bestetik ikasleak ongi bereizten dituela bi kodeak: ahozkoa eta idatzizkoa; azkenik ahozkotasuna eskolako ariera guzie-tan lantzen ez badugu, eta gainera hizkuntza ikasgaien bere tokia ematen ez badiogu, nekez lortuko ditugu euskaldun osoak. Behar bada, irakurtzen, idaz-ten eta lurraren sorrera ongi azalduko digute, baina, aurki, ez dute jakinen ez jostetan, ez euskaraz irri egiten, ez haserretzen eta ez...

Josema LEITZA: «Bertsolaritzaren curriculumaz» (laburpena)

Bertsozale Elkartearen lan esperientzia

1986an hasi ginen irakaskuntzan lanean orduko OHO zenean ikasturteko sei bat orduko ikastaroa emanez 8. mailara arte. Horrelaxe jarraitu genuen ha-rik eta Hezkuntzako erreforma indarrean sartu arte. Egokitzen horrek, ahoz-

ko hizkeraren larriaz ohartarazten zuen kezkarekin bat egin zuen denboran (1996). Geroztik, bi lan ildoak batera joan dira Elkartean barruan: bertsogintzak ahozko hizkeraren egokitasunari egin diezaiokeen ekarpena landuz. Curriculum bat garatu dugu Lehen Hezkuntzarako eta 100 Aho-fitxa osatu dira DBHn Andoni Egaña eta Joxerra Gartzia-aren metodoa aplikatzeko. Batetik, bertsogintzaren oinarritzako ezagutza (Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan) eta, bestetik, ahozko hizkera egokirako baliabide eta teknikak, bertsozko adibideetan oinarriturik (DBH).

2000az geroztik, Nafarroan, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan 30 orduko ikastaroa eskaintzen dugu 30 ikastetxeetan.

Parte-hartzearen laburpena

- Bertsolaritzaren curriculum: zer da? Bere baitan biltzen dituen lau atalak:
 - Bertsogintza
 - Euskararen normalizazioari ekarpena
 - Trebetasun pertsonalak
 - Musika arloa
- Ikastaroaren ezaugarriak: norbanakoaren sormena da gakoa. Ikastaroa, ikaslea ahozko sormen hori bultzatzeko tresna baten jabe izan dadin antolatua dago. Bertsoa bitarteko bat baino ez da, irratigintza, antzerki-gintza edo ipuin kontalaritza izan daitezkeen bezalaxe.
- Bertsoaren «abantailak» sormena bultzatzeko: bat batean sortzen da eta bat batean gozatu, berehalakotasuna; kultur mugimendu bizia da, neurri batean «prestigiduna»; sormena indibiduala izan arren, taldean ari-tzea ezinbestekoa da; ez du azpiegitura handirik behar; teknika mende-ratzea erraza da eta bertsorik egin gabe ere, teknika horrek beste ahozko produkzio batzuk bultzatzen ditu (zirtoa, txistea, ipuin laburrak..)
- Ahozko hizkeraren motela herri euskaldunetan ere errotua dago.

Unai ERRAZKIN: «Ahozkotasuna Lizarra Ikastolan» (laburpena)

1. Ahozkotasuna bereziki lantzeko arrazoiak
2. Ahozkotasunak urteko plan estrategikoan duen presentzia
 - a. Eredu ez kurrikularra: klasean egiten den lanaz gain, eredu ez kurrikularraren bidez ahozkotasuna indartzeko martxan ditugun helburu/ekintzak zeintzuk diren eta hauen nondik norakoak.

b. Eremu kurrikularra:

- i. Planteamendu orokorra: urteko plan estrategikoan ahozketasunarekin loturiko helburu nagusiak eta hori gauzatzeko ekintzak zeintzuk diren azaltzea.
- ii. Klasetako planteamendua: ahozketasuna, klasean lantzeko jarraitzen ditugun pausoak eta metodologia.

DIALEKTOLOGIA: BESTE ZENBAIT TXOSTEN

TWELFTH INTERNATIONAL CONFERENCE ON METHODS IN DIALECTOLOGY

**(Université de Moncton, Moncton, New Brunswick,
Canada, 1-5 August 2005)**

2005-VIII-07

G. Aurrekoetxea

Dialektologian entzute handiko ikertzaileen gidaritzapean ospatzen den «International conference on methods in Dialectology» kongresuak 13.a burutu du 2005eko udan Moncton (Canada) hirian. Biltzar hau eratzen duen batzordea Ipar Amerika, Europa eta Asiako dialektologoez dago osatua; beste batzuen artean Wladyslaw Cichocki, Daniel Long, Clive Upton, Chitsuko Fukushima, William A. Kretzschmar, Heinrich Ramisch eta Sali Tagliamonte.

Canadako Eki-Hegoaldeko New Brunswick probintziako 5 unibertsitateen artean (Atlantic Baptist University, Mount Allison University, Université de Moncton, University of New Brunswick eta University of Prince Edward Island) eratu da joan den udan ospatu den biltzarra.

Unibertsitate hauek Canadako eta AEBetako erakunde eta administrazio desberdinen sostengua eta babesa izan dute. Hala nola, American Dialect Society, Association for Literary and Linguistic Computing, Bureau du Québec dans les Provinces atlantiques, Department of Training and Employment Development, Government of New Brunswick eta Social Sciences and Humanities Research Council of Canada, besteak beste.

Batzorde zientifikoan alor honetan ezagunak diren izen asko agertzen da, hala nola Sandra Clarke, Inés Fernández-Ordóñez, David Heap, William A. Kretzschmar, John Nerbonne eta Dennis Preston.

Kongresuan goiz eta arratsaldean txostenak aurkeztu dira eta iluntzean, eguneko azken ekitaldi akademikoan, hitzaldiak:

- Txostenak: biltzarrean aurkeztu diren 123 txostenak 16 arlotan banandu dira. Hauek dira batzuk: metodo berritzaileak, teknika berritzaileak, datu-baseak, aldaketa fonetikoa, nortasuna, ukipena, dialektologia historikoa, aldaketa gramatikala, lexikoia...

- Hitzaldiak: goi mailako ikertzaile gonbidatuek eman zituzten 4 hitzaldiak: lehena J.K. Chambers-ek («Moebius bands and discontinuities in a vast speech community»), bigarrena Natalie Schilling-Estes-ek («Dialect contact and linguistic performance»), hirugarrena Jacques Durand-ek («French schwa: empirical and methodological issues») eta laugarrena Hans Goebel-ek «Dialectometry: theoretical prerequisites, practical problems and concrete applications»).
- Bestalde, biltzarrean zehar 5 workshop ospatu dira:
 - New perspectives in Iberian Dialectology
 - Les variétés de français en Amérique du Nord
 - Finno-Ugric languages in contact with English
 - Approches descriptives pour les français d'Amérique du Nord
 - Progress in Dialectometry: toward explanation

Biltzarrean 150 unibertsitate eta ikerketa gunetako 176 dialektologo bildu dira. Hauen artean izen handiko ikertzaileak; oraindik aipatu gabeko izen ezagun batzuk bakarrik emateko: Peter Trudgill, Fumio Inoue, Rose Mary Babbitt, Wilbert Heeringa, Robert Neuman eta Alain Thomas aipatu beharko lirateke, beste askoren artean.

Euskal Herritik partehartzaile bakarra izan da: EHUKo irakaslea eta EHHA egitasmoko arduraduna den G. Aurrekoetxea. Ikertzaile honek biltzarreko bi ataletan hartu du parte:

- a) «The Basque Atlas (EHHA): renewing methods in geolinguistics» txostena aurkeztu du Havid Heap-ek zuzendu duen «New perspectives in Iberian Dialectology» workshopean. Berarekin batera Bartzelonako Unibertsitateko M. Pilar Perea («Electronic maps and the dialectal borders of Catalan»), Madrileko Autonomako Inés Fernández-Ordóñez («L'espagnol rural de la Péninsule Ibérique étudié dans une perspective grammaticale: le nouveau apport du «Corpus Oral et Sonore de l'Espagnol Rural»-COSER»), Enrique Pato («Selection of informants and its impact on data collected in Spanish dialectology studies»), University of Torontoko Laura Colantoni («Exploring the limits of phonetic variation in Spanish: the role of an on-line phonetic database»), Tokioko Sophia Universityko Antonio Ruiz Tinoco («Spanish Lexical Variation in Context: COVARES, Joining Lexical Surveys and Variational Corpora»), Valentziako Unibertsitateko Vicent F. García Perales («Méthodologie comparée de l'AL-PI»); ikertzaile berak irakurri zuen joaterik izan ez zuen E. Casanovaren «L'Atlas linguistique de la Communauté Valencienne (ALCV): Principes et leçons méthodologiques». Workshop-a oso aberatsa izan da bai partaidetza mailan eta baita partaide bakoitzaren ekarrian. Halaber, begi bistan gelditu da Penintsulako hizkuntza eremu

desberdinetan gauzatzen ari diren proiektuen artean harreman zientifiko eta metodologiko gutxi dagoela.

Que el nombre eusquérico del barrio de Okondo que en la actualidad figura como San Román es **Okondogoiena**.

El pueblo de Okondo tradicionalmente se ha estado dividido en dos cuadrillas, **Okondogoiena**, que corresponde a la parroquia de San Román y **El Valle** u **Okondoibarra** que esta, ligado a la de Nuestra Señora de Untza. En la segunda mitad del siglo XX por razones administrativas se dividió el pueblo en seis barrios: *Irabien*, *Villachica*, *Jandiola*, *Zudibiarte*, *Ugalde* y *San Román*. Cuando la Comisión estudió los nombres de los barrios, entendió que es preferible recuperar la forma original, **Okondogoiena**, aunque esté reducida su extensión primitiva. Para tomar esta decisión tuvo en cuenta que la sustitución de los topónimos por los hagiónimos, o nombres de santos, es un fenómeno común en Euskal Herria, ligado a la pérdida del euskera.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a veintinueve de julio de dos mil cinco.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico de la junta administrativa de *Zurbano* del municipio de *Arrazua-Ubarrundia*, en su forma eusquérica académica actual es: **Zurbao**. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *zurbaotar*


Que dicho nombre se documenta en los años de 1025 y 1257 bajo la forma *Zurbano*, tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.

Que el nombre empleado por el pueblo, era, sin duda, *Zurbao*. Así se observa en la toponimia menor, en la que entre los siglos XVI-XVIII se recogen, entre otros, los siguientes testimonios: *Zurbaobidea*, en el propio lugar; *Zurbaorabidea* en 1715 en Arroiabé; *Zurbaorabidia* en 1699 en Durana; *Zurbaubidea* en 1706 en Uribarri-Arratzua y *Zurbaorabidea* en 1608 en Ilarratza, todos estos topónimos con el significado de «El camino hacia Zurbao». Posteriormente, con la pérdida del euskera, predominó el nombre de *Zurbano* empleado de forma oficial, ya que la administración tiende a mantener formas más arcaicas. La pérdida de la consonante *-n* entre vocales es una de las características de la fonética vasca, tanto en palabras de origen eusquérico (*ardoa* o *gazta*, de **ardano* y **gaztan*), como en préstamos latinos (*katea* y *area*, en castellano *cadena* y *arena*). Dicho fenómeno es también habitual en toponimia, tal como lo demuestran, entre otros muchos, los nombres de las localidades de *Aramaio* (A), *Dorrao* (Na), *Galdakao* (Bi), *Lazkao* (Gi) y *Otxandio* (Bi).

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, se ha de respetar la grafía eusquérica, salvo cuando ambas formas sean sensiblemente diferentes, en cuyo caso las dos tendrán consideración oficial.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a veintinueve de julio de dos mil cinco.

Vº Bº



Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre de la junta administrativa de *Víllodas* del municipio de *Iruña Oka*, en su forma eusquérica académica actual es: **Biloda**. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *biladotar*.

Que dicho nombre se documenta en el año 1196 bajo la forma *Gorrebusto*, en el Fuero de Labraza otorgado a dicha villa por el rey de Navarra Sancho el Fuerte, y en 1368 como *Gorribusto* y *Gorrubusto*, tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.


Que dicho nombre se documenta como *Billodas* en 1025 y *Villodas* en 1257 tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.

Que el nombre empleado en euskera por el pueblo, era, sin duda, *Biloda*. Así se observa en la toponimia menor, en la que entre los siglos XVI-XVIII se recogen, entre otros, los siguientes testimonios: *Villodabidea*, en Margarita y Trespuentes en 1707 con el significado de «El camino hacia Billola» y *Villolabidegaña*, en Ariñez en 1717, este último con el significado de «El alto del camino hacia Billola». Posteriormente, con la pérdida del euskera, predominó la forma *Víllodas* empleado de forma oficial, ya que la administración tiende a mantener formas más arcaicas

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, se ha de respetar la grafía eusquérica, salvo cuando ambas formas sean sensiblemente diferentes, en cuyo caso las dos tendrán consideración oficial, a saber: **Víllodas** / **Biloda**.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a siete de octubre de dos mil cinco.

Vº Bº



Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico de la junta administrativa de *Barriobusto* del municipio de *Oion*, en su forma eusquérica académica actual es: ***Gorrebusto***. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *gorrebastar*


Que dicho nombre se documenta en el año 1196 bajo la forma *Gorrebusto*, en el Fuero de Labraza otorgado a dicha villa por el rey de Navarra Sancho el Fuerte, y en 1368 como *Gorribusto* y *Gorrubusto*, tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.

Que en los nomenclátorez publicados en 1986 y 2001 por esta institución académica figuraba la forma *Gorrebusto*.

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, se ha de respetar la grafía eusquérica, salvo cuando ambas formas sean sensiblemente diferentes, en cuyo caso las dos tendrán consideración oficial.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a veinte de octubre de dos mil cinco.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico del municipio que figura con el número 224 en el Nomenclátor de los Municipios del País Vasco realizado y editado por esta Real Academia y conocido en su forma oficial romance como *Elciego*, es **Eltziego**.

Que la forma usada extraoficialmente por dicho ayuntamiento y propuesta para su oficialización en euskera, *Zieko*, es aparentemente un error de transcripción.

Así, en la edición del Cartulario hecha en 1930 por el padre Serrano (1) y recogida por G. Lopez de Guereñu en su libro *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia, aparece la primera mención de este lugar como *Cieko* y *El Cieko* con fecha 1067.

...ego igitur senior Azenari Didaz de **Cieko**.. id est in **El Cieko** villa meum propium palatium...

Pero en la posterior edición de 1976 aparece como *El Ciego* dándole la fecha de 1072 (2) en el Cartulario de San Millán de la Cogolla:

LX. VII De Palacio cum hereditate in villa nomine **El Ciego**

...ego igitur senior Azenari Didaz de **El Ciego**... id est in **El Ciego** villa meum propium palacium...

Esta discrepancia puede deberse a las distintas fuentes, ya que el padre Serrano utilizó la llamada *Colección Minguella*, que es una copia del siglo XVIII del desaparecido Becerro Gótico, mientras que en la edición de 1976 se usó el Becerro Galicano original. En las citas posteriores de este lugar siempre aparece la terminación *-iego* que parece corresponder a la evolución ro-

(1) *Cartulario de San Millán de la Cogolla* por D. Luciano Serrano Osb, abad de Silos, Centro de Estudios Históricos, Madrid 1930.

(2) El documento no puede ser de 1067 puesto que el abad Blas empezó su actuación en 1069. Seguramente se confundió U=X.


mance del sufijo *-ecu*, con diptongación del la *e* tónica y sonorización de la oclusiva, semejante a la que aparece en *Samaniego* y *Lanciego*.

La Real Academia de la Lengua Vasca recogió en su Nomenclátor de 1979, *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, la forma *Eltziego*, que sin cambios ha mantenido hasta la fecha.

Asimismo, que hasta ahora no se ha hallado constancia del gentilicio eusquérico del lugar, pero de acuerdo con los usos de la lengua sería *eltziegar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao a catorce de noviembre de dos mil cinco.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico del lugar de *Guillarte* de la Junta Administrativa de Luna, del municipio de Kuartango es **Gillarte**.

Que *Gillarte*, era, sin duda alguna, el nombre empleado en lengua vasca por el pueblo, aunque en la documentación más antigua de la comunidad de *Gibijo* aparece *Guibjoarrate* (1530), compuesto de *Gibillo*, modernamente *Gibijo*, sierra de la zona y *arrate* «portillo», con el significado de «Portillo de Gibillo». Es probable que la forma *Guilosarrate* que en 1587 recogió Gerardo López de Guereñu en *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Desplados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia, en Katadiano, sea una variante de este mismo nombre.


La presencia del sonido *ll* en el nombre del lugar es consecuencia del uso en euskera del mismo. Este fenómeno también ocurre en el pueblo de la Llanada *Subijana*, en euskera *Subilla*.

Asimismo, que hasta ahora no se ha hallado constancia del gentilicio eusquérico del lugar, pero de acuerdo con los usos de la lengua sería *gillartear*.

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, se ha de respetar la grafía eusquérica, salvo cuando ambas formas sean sensiblemente diferentes que no es el caso que nos ocupa.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a catorce de noviembre de dos mil cinco.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico del lugar de *Iñúrrita* de la Junta Administrativa de Luna, del municipio de Kuartango es ***Iñurrieta***.

Que *Iñurrieta*, era, sin duda alguna, el nombre empleado en lengua vasca por el pueblo, documentado como *Ynurrieta* en 1257 en la carta del obispo de Calahorra Jeronimo Aznar, según recoge Gerardo López de Guereñu en su obra *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia. La forma *Iñúrrita*, en uso actualmente y documentada desde 1870 es debida a la acentuación de este nombre.


Que en los nomenclátore de 1986 y 2001 la Academia propuso la forma *Iñurrieta*.

Asimismo, que hasta ahora no se ha hallado constancia del gentilicio eusquérico del lugar, pero de acuerdo con los usos de la lengua sería *iñurrietar*.

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, se ha de respetar la grafía eusquérica, salvo cuando ambas formas sean sensiblemente diferentes, que no es el caso que nos ocupa.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a catorce de noviembre de dos mil cinco.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:


Que el nombre eusquérico del lugar de *Urbina de Basabe* de la Junta Administrativa de Marinda, del municipio de Kuartango es ***Urbina Basabe***. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *urbinar*.

Que *Urbina* y *Basabe* son claramente nombres eusquéricos, documentándose ambos de forma abundante en la provincia de Álava, tanto en la toponimia menor como en la mayor, como se observa en el mismo municipio de Kuartango y en el de Legutiano donde existen otros dos concejos de igual nombre. Que se añade *Basabe* para diferenciarlo del otro *Urbina* (*Urbina Eza*), con la inclusión del topónimo *Basabe*, que comprende la parte alta de Kuartango.

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, se ha de respetar la grafía eusquérica, salvo cuando ambas formas sean sensiblemente diferentes, que no es el caso que nos ocupa.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a catorce de noviembre de dos mil cinco.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión

GARAZIKO HERRI BATEN IZENAZ: *AINHIZE VS. AINHIZA*

Patxi Salaberri Zaratiegi

Izkribu honetan Nafarroa Behereko Garazin den *Ainhize* herriaren izentzat, frantsesez *Ainhice* deitzen den horren izentzat, *Ainhize* –eta ez *Ainhiza*– zergatik aukeratu zen arrazoitu nahi dut. Honetaz landara eta bidenabar, toponimoaren etimologiaz ere mintzatu gogo dut, laburki baizik ez bada ere. Honetarako, gehienbat, berriki argitara emandako Nafarroa Behereko herri izenen gaineko nire lanean ageri den dokumentazioa ibiliko dut, nahiz ez den nahi nukeen bezain aberatsa.

Beraz, nik ditudan datuetan ikusten dut *Ainize* eta *Ainiza* azaltzen direla, bigarren hau gehiago ahoz bildutako aldaeretan, baina egia da galdeketa gutxi egin nituela eta arlo hau aise aberats eta ugari daitekeela. Dokumentazioari dagokionez, itxuraz *Anhiz* irudikatzeko ibili zen *Anfiz* da ezagutzen dugun lehen lekukoa, 1135-1136 urteetakoa. Hemendik aitzina toponimoa beti bukaeran bokala duela (izan dadin hau *-e*, izan dadin *-a*) agertzen da, *aniça* 1264an eta 1266an, *anice* 1294an. XIV. mendetik aitzina bi aldaerak azaltzen dira, menturaz arduraxeago *-e* duena. Hitz barneko hasperenketa 1304ko *Anhice*-n aurkitzen dugu lehen aldiz, aipatutako *Anfiz* aldaera alde bat uzten badugu.

Laburbilduz, eta datuak ikusirik, hurrengo ondorioak atera daitezkeela uste dut:

1. Etorkizko aldaera bukaeran bokalik ez duena bide da, egungo grafian *Anhiz* idatziko genukeena.
2. Bukaerako bokala *—e*, izan dadin *-a*– geroke gehigarria dela dirudi, baina datu gutxiegi izateak ziurtasunez mintzatzetik gibelatzen gaitu. Nolanahi ere, aspaldi-aspaldiko eranskina da, eranskina bada behintzat, ez Iparraldeko egungo franko toponimok duten *-e*-ren garaikoa.
3. Azken bokalaren irekitze maila ezin zaie, nire irudiz, aldameneko erdarari edo erdarek leporatu, XIII. mendekoa delako. Alegia, ez dut uste *-e* bukaerakoa *-a* baino erdaldunduago dagoela.
4. Hasperenketa zaharra da eta, nik uste, atxiki beharrekoa, neronek bildutako ahozko datuetan ageri ez bada ere. Hizkuntza ofizialean azaltzen den <h>, ezbairik gabe, oraindainoko euskal ebakeraren ispilu da.

5. Etimologia ez da argia. Nihaurk (2003: 91) Baztango *Aniz*-endako proposatu nuen *Hanni*, *Anni* antroponimo ongi dokumentatua eman daiteke oinarritako (**Anniz* > *Anhíz*). Toponimoaren barneko hasperenketa segur aski azentuari zor zaioke (cf. *aunatu* / *unhátu*, *mánü* / *manhátü*, *máñü* / *mañhátü*. Ikus Mitxelena 1977: 407-410 eta Agud & Tovar, 1990: 105); badaiteke, zernahi dela, **Hanníz* > **Hanhíz* > *Anhíz* bilakaera gertatu izana (cf. *haur* baina *aurhíde*, *hil* eta *herri*, baina *ilhérri*, Mitxelena, 1977: 211-212), hau da, lehen hasperenketat atzeranzko disimilazioz galdu izana. Leku izenaren erdiko -i- hori, bestalde, bigarrenkaria da -XIV. mendearen bukaeran ageri da lehendabiziko aldiz, baina 1412-13an oraindik bokal sabaikaririk gabeko *Anhice* dago-, *aingeru*, *aingira* eta *aingura*-n dugunaren modukoa, sudurkariarekiko ukipenean garatua. Toponimoaren lehen adiera, honen arabera, (*H*)*anni* izeneko baten (tarteko sudurkaria, -*nm*- idatzia, gogorra da eta horregatik ez da erortzen) bazterretxea edo lur-eremua zatekeen. Izan ere, bukaerako -(i)(t)z hori, nire irudiko, jabetgoa adierazten zuen latineko genitibotik atera baita. Guztiarekin ere, azalkizun gelditzen da zergatik ez den erraten, eta ez den erran, guk dakigula, **Ainhitz(e)* edo **Ainhitz(a)*, Lapurdiko *Beraskoitz* (< *Berasko* + -*itz*) > *Beskoitze*-ren eta Nafarroa Garaiko *Ilurdotz*-en (< *Ilurdo* + -*tz*) erara, baina igurzkaria agertzea aski gauza zabaldua da Euskal Herriko mendebaldetik kanpo ere (cf. Baztango *Aniz*).
6. Literaturan, berriz ere nik bildu datuetara mugatuz, toponimoak ez du bere burua erakustera sobera eman, eta aurkitzen dugunean -e-rekin (behin) nahiz -a-rekin (hirutan) agertzen da.
7. Toponimia lanetan eta hiztegieta gehienbat -e-dun aldaera bildu da (Hatan, Azkue, Lhande, Dassance, Goihenetxe, Lemoine), -a ere inoiz azaltzen den arren (Lécluse). Orpustanek *Ainhiza* eta *Ainhize*, biak, jasotzen ditu.
8. Orain arteko erabilera gidatu duen Euskaltzaindiaren 1979ko lanean *Ainhize* dago, *Ainhize-Monjolose* elkartuan.
9. *Ainhiza*-ren aldeko pisuzko arrazoi erabakigarriak ez baitzen, Onomastika batzordeari zentzuzkoena lehengo bidetik, aipaturikako 1979ko lanak urratutakotik jarraitzea iruditu zitzaion, hots, *Ainhize* berrestea.
10. Osoko bilkuran *Ainhize* onartu zen aho batez, ez *Ainhiza*, eta horrela argitaratu zen Akademiaren arauetan (122.a da, Euskaltzaindia, 2002: 716).

BIBLIOGRAFIA

AGUD, M. & TOVAR, A. (1990): *Diccionario Etimológico Vasco II. Ardun-beuden*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

EUSKALTZAINDIA (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.

— (2002): «Nafarroa Behereko herri izendegia (I)», *Euskera* 47, 2002-2, 716-720.

MITXELENA, K. (1977): *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2. argitalpena.

SALABERRI, P. (2003): *Euskal Deiturategia: Patronimia*, UEU, Bilbo.

— (2004): *Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Onomastika batzordeak, Patxi Salaberri batzordekideari eskatu zion txosten hau onartu zuen 2005eko uztailaren 14an, Ziordian egin zuen bileran.

OHAR BATZUK *DEIO* IZENAREN GAINEAN

Iruñean, 2005eko urriaren 21n

Patxi Salaberri

Deio izena *Deierri* toponimoaren baitan dago bizirik, hau, Onomastika batzordeak ikusi zuen bezala (2004: 246), *Deio herria* baita, hots, «Deioko, Deio inguruko eremua». Batzordeak, Jimeno Juriori jarraikiz erraten duen moduan, *Deio* eskualde osoaren izena zen, nahiz eta gero, *Lizarra* edo *Estella*-ren garapen ekonomikoagatik, *Estellerria* edo *Tierra Estella* izan nagusitu zen deizioa, *Deierri*-ren kaltetan. Bestalde, dokumentazioak salatzen duenez, *Dicastillo* edo *Deikaztelu*-ren oinarrian ere *Deio* bide dago; honetan, gainera, eta itxuraz behintzat, osagaien hurrenkera euskararena da, ez erromantzearena.

Ondoko lekukotasun hauek aurkitu ditugu dokumentazioan: *Senior Sancio Fortunionis dominator Sancti Stephani de Deio, testis, confirmans*; *Senior Sancio Furtunionis dominans Sancti Stephani de Deyo, testis* (1060, Lakarra, 1965, 17, 18), *Senio Santio Fortunnonnes, dominator Sancto Stephano de Deio* (1060, Martín Duque, 1983, 62), *Senior Eximinus Garsie in Deyo testes* (c. 1068, Goñi, 1997, 21), *Senior Garsias Sanz in Sancti Stephani de Deio* (1080, Martín Duque, 1983, 107), *Senior Santio Sanç in Sancti Stephan de Deia* (1084, Martín Duque, 1983, 113), *nominatim senior Eneco Fertuniones de Deio Castello* (1099, Lakarra, 1965, 74). Ikusten denez, XI. mendean *Deio* ze-goen 1084ko *Deia*-z beste lekukotasun guztietan.

Deio izenaren etorkia dela eta, erran behar da ez dela aise ikusten nondik atera den: egia da *-io* bukaera duten beste leku izen batzuk badirela Euskal Herrian: *Berrio* (*Berriobeiti*, *Berriogoiti*, *Berriozar*), *Elorrio*, *Gorrio* (Oibar haraneko herri hustua), *Orio* (cf. *Oria* ibaia), *Orrio*... eta abar, Estellerriko bereko *Etaio*-z landara. Toponimo hauetako batzuk deskribatzaileak izan litezke (*Elorrio* < *elorri*, *Orio* < *hori* kolorea, *Orrio* < *orri* «hostoa»... Honen inguruan ikus Salaberri, 1997), baina *Deio*-ren azpian egon litekeen *de(i)*- zer ote den ez dakigu; *deia* euskal hitz arrunta ez ohi da, dakigula, toponimian ageri.

Izena azaltzeko beste bidea, deskribatzailea ez dena, antroponimikoa da, alegia, oinarrian pertsona izena dagoela kontu egitea, *Labio* (< **Labiao* < *Labiano*), *Otxandio* (< **Otxandiao* < *Otxandiano*) eta *Undio* (< **Undiao* < *Un-*

diano)-n bezala (1), hots, **Deiano*, **Teiano*-ren moduko bat, edo, baita ere, eta erromantzearen esku-hartzea onartzen bada, **Debiano*, **Dediano*, **Tebiano*, **Tediano*-ren tankerako zerbait, beharbada *Deiyo*- (< *deiuos* «jainkoa, jainkotiarra») izen zeltaren eratorriren bat (Albertos, 1966: 104), *Deiyo*- > *Deiyo*-metatesia gertatu dela ontzat hartuz gero behinik behin; hau, zernahi gisaz, alegiazko kontu hutsa besterik ez da. Albertosek berak (ibid., 224) alegiazko forma horien eite zerbait duen *Teda* biltzen du «Galia Cisalpina» delakoan, *Tedi* genitiboa Pedrosa del Rey-n eta *Teida* Sigüenzan (lehen a eta azkena femeninoak dira). J. Gonzálezek (1997: 202) Pedrosa del Rey-ko idazkun osoa biltzen du (2): *Monum(entum) / Tedi vicani / Vadiniensis, / Doiteri f(i)lii, / an(n)orum / XXX* «Monumento de Tedo, aldeano vadiniense, hijo de Doitero, de treinta años».

Tedi hori genitiboan dago, eta nominatiboa, beraz, *Tedus* izanen zen, J. Gonzálezek berak aurkibidean idazten duenez. Jakina, gorago aipatutako **Tediano* lortzeko **Tedius*-en moduko bat behar genuke, ez *Tedus*, baina irudi du hau ez dela baitezpadakoa, erraterako aipatu ere dugun *Otxandiano* izena segur aski *Otxoa*-ren hipokoristikoa den *Otxando*-n oinarrituta dagoelako, ez **Otxandio*-n. Beste aukera, balizkoagoa gure irudiko, jatorrian **Otxande*-ren tankerako bat zegoela pentsatzea da, *Otxandez* patronimikotik abiatuta (ikus Salaberri: 2003: 371). Honen arabera **Otxandeano*-ren taxuko batetik *Otxandiano* aterako zen lehenik, **Otxandiao* gero eta *Otxandio* azkenik, hau dokumentazioan aski goiz ageri bazaigu ere, 1150ean zehazkiago erran, Iturritza eta Zabalarri sinestera behintzat (1884: 94).

Otxandiano, *Otxandio*-rako eman dugun aurreneko azalpenaren oinatzetan, badirudi **Tediano* *Tedus*-etik ere atera zitekeela, alegiazko **Tedius*-etik ez ezik; honela dio Kajantok (1982 [1965]: 107) jabegoa adierazten duten *-anus*, *-ana* / *-ianus*, *-iana* atzizkiez latineko *cognomina*-k aztertzean:

«In Latin, *-anus* was largely a suffix of proper names, forming adjectives from PNs and from personal names, primarily from gentilicia, subsequently also from cognomina. The original form was *-anus*, the form *-ianus* originated through false analogy from cognomina derived from gentilicia, *Aemil-ianus*. Cicero still avoided *-ianus* except in *-on*-stems, but afterwards it replaced the older form».

Zentzu berean mintzo da liburu horretan behin baino gehiagotan (ikus, orobat, 31. or. eta hurr., 101-104. orr. eta 109. or.). Latineko sistema onomastikoaren bilakaeraz Piel (1947: 147 eta hurr.) eta Salaberri (2003b: 15 eta hurr.) ikus daitezke, besteak beste, eta aipagai dugun atzizkiaren toponimiako erabileraz Piel (ibid.) eta Caro Baroja (1945, 4. atala).

(1) *Zandio* ere multzo honetakoa dela irudi du, baina inoiz ez da dokumentatzen **Sandiano*, **Zandiano*-ren modukorik (ikus NHI, 146).

(2) Nafarroako erromatar idazkuntan ez da ageri *Deio*-ren oinarritzat har daitekeenik, 1981 arte ezagutzen zirenetan segurik ez; ordu artekoak biltzen dituen Castillo, Gómez-Pantoja eta Mauleónen lanean, behinik behin, ez dago horrelakorik.

Etorki antroponimikoaren alde eginen luke hastapenean horzkaria (*d-*) azaltzeak, hau, jakina denez, ez baitzen ageri euskararen sistema fonologiko zaharrean. Honetarako Bähr (1948: 171), Mitxelena (1951: 579-580) eta Lakarra (1995: 201) ikus daitezke. Mitxelenaren arabera, hasieran *d-* duten euskal hitzak adizki trinkoen eratorriak dira, maileguak, hots hitzak eta *d-* bigarrenkaria dutenak (*dostatu* erraterako, *jostatu*-tik). Cf., honen kariatara, Uxueko *Durtunbera* toponimoa, gero *Turtunbera* bihurtu dena (asimilazioz segur aski), Bizkaiko *Durango* ezaguna, Santanderren eta Burgosen *Tudanca* etorkikidea dukeena (A. González, 1999: 378), edo indoeuropar jatorriko *Deba*, zein urekin lotutako *deva* «jainkosa» zelta izenetik atera baita; ikus García Arias (2005: 782-783).

Nolanahi ere, Mitxelenak 1951ko lanean dioenez, *e-da-n*, *e-du-ki* bezalako partizipioek euskarari noizbait hasieran horzkaria -ahostuna kasu honetan zuten hitzak izan zirela frogatzen dute. Lakarraren arabera (1995: 201), hitz hastapeneko *d-* guti izatea errepikapen hitzetan lehen horzkaria disimilazioz galdu izanari zor zaio: **de-der* > *eder*, **do-dol* > *odol*... e.a. Ikertzaile honen irudiko *d-* adizkietan agertzea hauek esaldi hasieran ezin joatearen ondorio dateke. Akitaniako idazkuntan *D-dun* antroponimoak badira, gehienak galierari badagozkio ere, hizkuntza honetakotzat ezin har daitekeen bat edo beste izanagatik (ikus Mitxelena, 1954: 451-452, J. Gorrotxategi, 1984: 195 eta 1985: 618-619). Bigarren ikertzaileak, 1984ko lanean (196. or.), *Dunaio* aztertzean honela dio: «Nombre que por su terminación -aio- pertenece a un grupo de antropónimos de varón atestiguados homogéneamente en la llanura del Gers: *Attaio-rigis* (gen. 463, Auch), *Condai* (gen. 555, Ciotat), *Dunai* (gen. 456, Auch), el presente *Dunaio* (dat.) e *Illai* (gen. 477, Nux)». Autore honen iritzian -aio- atzizkia indoeuroparra izan ohi da, baina akitaniarra ere izan liteke, oinarriaren arabera, noiz nola. Beranduagoko beste lan batean aipatutako izen horiek akitanierara egokitutako galier izentzat ematen ditu (1995: 211).

Labur-bilduz, azalpen deskribatzailea ilun samar dakusagu eta antroponimikoa da, argi egon gabe ere, egiantzekotasun handiena aurkezten duena, ahulguneak ere izan arren. Honen arabera, *Deio* toponimoak *Tedus* izeneko pertsona baten lurra, etxea, bazterretxea adierazten zukeen hasieran. Bilakaera, orain arte errandakoarekin garbi gelditu ez bada ere, hau izanen zen: **Tedianu* > **Tediano* > **Dediano* (hasmentako herskariaren ahosuntzea dela-eta cf. *Torrano* / *Dorrao*, eta, beste maila batean, *Torres* / *Dorre*) > **Dediao* > **Dedio* > *Deio*. Azalpen honen ahulguneak hauek dira: lehena oinarritzko antroponimoa dokumentatua egotea baina ez honen -ianu-, -iano-dun eratorria, eta bigarrena euskararen (**Dediano* > *Dediao*) eta erromantzearen (**Dedio* > *Deio*) eragina, baina, ikusi behar izatea.

Bigarren oztopoa gainditzeko pentsa dezakegu euskarak izena hartu orduko hau **Teiano* zela eta *-dj-* > *-j-* bilakaera erromantzearen barrenekoa izan zela. Lehen urratsa, emaitzatat *-u* > *-o* izan duena, euskararen arauen kontrakoa da; honek hartu zueneko izena **Tediano*, **Teiano* zela proposatzeak ere ez du sobera laguntzen, gurean joera *-o* > *-u* egitekoa izen delako, *dermaua* (< *termi-*

na(d)o (3), baina *dermioa* < *término*), *portillua* (< *portillo*) maileguetan ikusten den bezala. Hor ditugu, dena dela, *Galdakao*, *Lazkao* eta beste, *Labio* eta *Un-dio* ez ezik, hauek, edo hauen tankerakoak, inoizka, bukaeran euskararekin adosago dagoen -u dutela ere agertuagatik: *Pero Periz Amilauco*, *Çandiu* (Eraul, 1350, 1366 Carrasco, 1973: 367, 565), *Dorrau*, *Dorrou* (orain)... e.a.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERTOS, L. (1966): *La onomástica personal primitiva de Hispania Tarraconense y Bética*, CSIC & Instituto «Antonio Nebrija», Salamanca.
- BÄHR, G. (1948): *Baskisch und Iberisch*, in *Eusko-Jakintza II*.
- CARO BAROJA, J. (1945): *Materiales para un estudio de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca. Bada Txertoak Donostian 1990ean egindako beste argitalpen bat.
- CARRASCO, J. (1973): *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea.
- CASTILLO, C. & GÓMEZ-PANTOJA, J. & MAULEÓN, M^a D. (1981): *Inscripciones Romanas del Museo de Navarra*, Nafarroako Foru Aldundia, PV Erakundea, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra (NHI)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIAREN ONOMASTIKA BATZORDEA (2004): «Dictamen de la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre *Deierri*, nombre del Valle de Yerri en lengua vasca», *Euskera* 49, 245-246.
- GARCÍA ARIAS, X. Ll. (2005): *Toponimia Asturiana. El porqué de los nombres de nuestros pueblos*, La Nueva España, Oviedo.
- GONZÁLEZ, A. (1999): *Diccionario Etimológico de la Toponimia Mayor de Cantabria*, Estudio, Santander.
- GONZÁLEZ, J. (1997): *Los Cántabros*, Estudio, Santander.
- GOÑI GAZTANBIDE, J. (1997): *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona 829-1243*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- GORROTXATEGI, J. (1984): *Onomástica Indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

(3) Hemen menturaz gaztelaniaz aski ohikoak diren oraingo formen ildoko **terminau* proposa daiteke iturburutako.

- (1985): «Lengua aquitana y lengua gala en la Aquitania etnográfica», *Symbolae Lvdovico Mitxelena Septvagenario Oblatae*, J. L. Melena arg., I, 613-628, Gasteiz.
- (1995): «Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas», *Veleia* 12, 181-234.
- ITURRITZA ETA ZABALA, J. R. (1884): *Historia General de Vizcaya*, Barzelona. Azalean ageri den bezala, jatorrizko bertsioa 1785ekoa da.
- KAJANTO, I. (1982 [1965]): *The Latin Cognomina*, Giorgio Bretschneider arg., Erroma.
- LAKARRA, J. A. (1995): «Reconstructing the Pre-Proto-Basque», *Towards a History of the Basque Language*, J. I. Hualde & J. A. Lakarra & R. L. Trask arg., John Benjamins publishing company, Amsterdam / Philadelphia, 189-206.
- LAKARRA, J. M. (1965): *Colección Diplomática de Irache. Volumen I* (958-1222), CSIC, Zaragoza.
- LAKARRA, J. M. & MARTÍN DUQUE, A. (1986): *Colección Diplomática de Irache. Volumen II* (1223-1397. Índices 958-1397), Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- MARTÍN DUQUE, A. (1983): *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Nafarroako Foru Aldundia, PV, Iruñea.
- MITXELENA, K. (1951): «La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet», *BRSVAP* 7, 571-582.
- (1954): «De Onomástica aquitana», *Pirineos* X, 409-455.
- (1977): *Fonética Histórica Vasca*, bigarren argitalpen zuzendu eta handitua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- PIEL, J. M. (1947): «Nomes de «possessores» latino-cristãos na toponímia asturo-galego-portuguesa», *Biblos* 23, 143-202.
- SALABERRI, P. (1997): «Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)», *FLV* 74, 7-39.
- (2003): «Onomastika, euskararen azterketarako tresna», *Basque and (Paleo) Hispanic Studies. In the wake of Michelena's work. Proceedings of the First Conference of the Koldo Mitxelena Chair*, J. Gorrotxategi arg., Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 365-375.
- (2003b): *Euskal Deiturategia: Patronimia*, UEU, Bilbo.

UNAS BREVES NOTAS ACERCA DEL NOMBRE *DEIO*

Pamplona, 21 de octubre de 2005

Patxi Salaberri

El nombre *Deio* está presente, tal como vio la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia (2004), en el topónimo *Deierri* «la tierra de Deio», que se ha convertido en castellano en *Yerri*, debido a su empleo en secuencias del tipo de *el valle de Deierri* -> *el valle de Yerri*. Al parecer forma parte también del topónimo mayor *Dicastillo*, documentado *Deio castello*, *Deyo castellum* (véase Euskaltzaindia, *NHI*, 214).

En cuanto a la vertiente histórica de *Deio*, en la documentación encontramos casi siempre esta variante, escrita también con <y>: *Senior Sancio Fortunionis dominator Sancti Stephani de Deio, testis, confirmans*; *Senior Sancio Furtunionis dominans Sancti Stephani de Deyo, testis* (1060, Lacarra, 1965, 17, 18), *Senio Santio Fortunnones, dominator Sancto Stephano de Deio* (1060, Martín Duque, 1983, 62), *Senior Eximinus Garsie in Deyo testes* (c. 1068, Goñi, 1997, 21), *Senior Garsias Sanz in Sancti Stephani de Deio* (1080, Martín Duque, 1983, 107), *Senior Santio Sanç in Sancti Stephan de Deia* (1084, *ibid.*, 113), *nominatim senior Eneco Fertuniones de Deio Castello* (1099, Lacarra, 1965, 74). Como puede observarse, la única forma que disuena un poquitín es *Deia* de 1084, lo cual no es de extrañar, dado que variantes más o menos desfiguradas no son raras en la documentación medieval.

En lo que respecta al origen del nombre *Deio*, lo primero que debemos decir es que no es nada claro; se pueden hacer elucubraciones de diferente calibre, pero el topónimo no es diáfano. De todos modos, y puestos a dar alguna explicación, vemos dos posibilidades: que se trate de un topónimo descriptivo similar a otros acabados en *-io* como *Elorrio* procedente tal vez de *elorri* «espino», *Gorrio* con base *gorri* «rojo», *Orio* quizás de *hori* «amarillo», *Orrio* de *orri* «hoja»...etc., o que estemos ante un topónimo de origen antroponímico, es decir, basado en un nombre de persona, de formación similar a *Labio*, forma euskérica de *Labiano*, *Otxandio* llamado en castellano *Ochandiano*, y *Undio*, correspondiente vasco de *Undiano*.

Sin embargo, ambas explicaciones presentan problemas: la descriptiva porque no se ve claro cuál pueda ser la base (*dei* «llamada» es, por lo menos,

raro en toponimia), y la antroponímica porque no sabemos bien en qué nombre de persona puede estar fundamentada. De todas maneras, y con los datos que ahora poseemos, tendríamos que inclinarnos quizás por la segunda vía y asumir que en el origen del topónimo hay algo así como **Debiano*, **Dediano*, **Tebiano*, **Tediano*, o mejor, y puesto que el paso *-bi-* > *-i-*, *-di-* > *-i-* no se puede explicar fácilmente según la fonética vasca, habría que admitir que el euskera partió de una forma evolucionada como **Teiano*, de donde **Deiano* (como *Torrano* / *Dorrao*), **Deiao* > *Deio* (paso similar al experimentado por los nombres *Labio*, *Otxandio*, *Undio* arriba citados).

En Navarra no encontramos ningún nombre que pueda explicar la forma propuesta, pero en Pedrosa del Rey, en Cantabria, se documenta el genitivo *Tedi* (Albertos, 1966: 104, González, 1997: 202), cuyo nominativo sería *Tedus*, de donde **Tedanus* o **Tedianus*, origen del propuesto **Teiano*, con sufijo *-anus*, *-ianus* empleado en toponimia para designar la posesión (Caro Baroja 1945, Piel 1947, Kajanto 1982) y presente por ejemplo en *Amillano*, localidad de Tierra Estella, *Amillao* o *Amilao*, en euskera, nombre basado según Mitxelena (1997: 250) en el antroponimo *Aemilius* o *Mamilius*.

BIBLIOGRAFÍA

- ALBERTOS, L. (1966): *La onomástica personal primitiva de Hispania Tarraconense y Bética*, CSIC & Instituto «Antonio Nebrija», Salamanca.
- CARO BAROJA, J. (1945): *Materiales para un estudio de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca. Hay una edición de 1990 realizada por Txertoa en San Sebastián.
- CARRASCO, J. (1973): *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Universidad de Navarra, Pamplona.
- COMISIÓN DE ONOMÁSTICA DE EUSKALTZAINDIA / REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA (2004): «Dictamen de la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre *Deierri*, nombre del Valle de Yerri en lengua vasca», *Euskera* 49, 245-246.
- EUSKALTZAINDIA / REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra (NHI)*, Gobierno de Navarra, Pamplona.
- GONZÁLEZ, J. (1997): *Los Cántabros*, Estudio, Santander.
- GOÑI GAZTANBIDE, J. (1997): *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona 829-1243*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- KAJANTO, I. (1982 [1965]): *The Latin Cognomina*, ed. Giorgio Bretschneider, Roma.

- LACARRA, J. M. (1965): *Colección Diplomática de Irache. Volumen I* (958-1222), CSIC, Zaragoza.
- LACARRA, J. M. & MARTÍN DUQUE, A. (1986): *Colección Diplomática de Irache. Volumen II* (1223-1397. Índices 958-1397), Gobierno de Navarra, Pamplona.
- MARTÍN DUQUE, A. (1983): *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, Pamplona.
- MITXELENA, K. (1997): *Apellidos Vascos*, Txertoa, San Sebastián, quinta edición.
- PIEL, J. M. (1947): «Nomes de “possessores” latino-cristãos na toponímia asturo-galego-portuguesa», *Biblos* 23, 143-202.

EUSKALTZAINDIA, ICOSEN XII. BILTZARREAN

Pisa, 2005-IX-1etik 4ra

Euskaltzaindiak parte hartu zuen Pisan (Italia) egin zen ICOS (International Council of Onomastic Sciences) elkartearen XII. Biltzarrean. «Izenak denboran eta espazioan» izenburuean burutu zen biltzar horrek abuztuaren 28an hasi eta irailaren 4ra bitartean iraun zuen. Euskaltzaindiko partaidetza Onomastika batzordearen bidez gauzatu zen eta lau kidek txosten bana aurkeztu zuten, irailaren 1 eta 2an.

Hauek dira ICOSen XXII. Biltzarrean parte hartu zuten Onomastika batzordeko kideak eta irakurri zituzten txostenen izenburuak:

- Irailaren 1ean, Patxi Salaberri: «Nicknames, origin of some of the family names in Basque». Erdi Aroan erabiltzen ziren goitizenak euskaraz nola deitura bihurtu diren (*Andia, Gorria...*).
- Irailaren 2an, Henrike Knörr: «Satznamen dans la toponymie du Pays Basque. Satznamen»-ak aztertu dira, hots, esaldiz osatutako toponimo euskaldunak, *Euridakarrena*, adibidez.
- Irailaren 2an, Jose Luis Lizundia: «La normalisation onomastique à Euskal Irrati Telebista (EiTB)». Euskal Irrati-Telebistan onomastikaren normalizazioa nola gauzatzen ari den.
- Irailaren 2an, Mikel Gorrotxategi: «La répression et la traduction des noms dans la dictature de F. Franco». Euskarazko pertsona-izenen bilakaera aztertzen da, II. Errepublikatik hasi eta Francoren diktaduran zehar.

Euskaltzaindiko kideekin batera, 22 herri eta nazio ezberdinetako partaideak izan ziren Pisan, eta 48 txosten irakurri (hogei ingelesez, zazpi frantsesez, hamalau italieraz eta beste zazpi alemanez). Biltzarrak sei atal izan zituen: Onomastika eta hizkuntzalaritza; Onomastika eta gizartea; Literatura onomastikoa; Ponte-izenak; Izen geografikoak; eta bestelako izenak. Horretaz gain, sail bereziak ere izan zituen Biltzarrak: Onomastikak eta didaktika; Onomastika eta informatika; Onomastika eta komunikabideak; Onomastika terminologia; eta ekimen eta proiektu berriak.

ICOSen Nazioarteko Biltzarrak hiru urterik behin burutzen dira. Azken aldikoei dagokienez: 1999. urtean, Santiago de Compostelan (Galizia) egin zen eta, 2002an, Uppsalan (Suedian).

LITERATURA

VIII. HERRI-LITERATURA JARDUNALDIAK:
«HERRI-PROSA ETA AHOZKOTASUNA»

Donostia/San Sebastián, 2005-XI-24 eta 25

VIII. HERRI-LITERATURA JARDUNALDIAK, «HERRI-PROSA ETA AHOZKOTASUNA» GAIAZ

Azaroaren 24an eta 25ean, Euskaltzaindiaren Heri Literatura batzordeak *VIII. Herri Literatura Jardunaldiak* egin zituen Donostian, Koldo Mitxelena Kulturunean. «Herri-prosa eta ahozkotasuna» izenburupean burutu ziren jardunaldi horietan, Bernardo Atxaga eta Pello Esnal izan ziren hizlari. Atxagak «Ahozkotasuna euskaldunei buruzko Ipuin Orokorrean» gaia jorratu zuen eta Esnal, berriz, «Herri-prosa: oinarri eta bide» gaiaz mintzatu zen.

Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordeak egiten dituen lanak eta egitasmoak plazaratzea, batetik, eta euskal herri-prosari erakusleihu egokia ematea, bestetik, izan ziren jardunaldi hauen xedeak, are gehiago kontuan hartuta herri literaturan dagoela bildua gure arbasoen aberastasuna, Pello Esnal batzordeburuak azpimarratu zuen bezala. Haren hitzetan:

herri-literatura paregabeko altxorra da. Hor dago bildua gure tradizioa. Eta tradizioa aintzat hartu gabe ez dago etorkizuna eraikitzerik.



Euskara bizirik badago, ahozko euskarari zor diogu:

Ahozko euskarak, eta ahozko euskararen esparruek –zioen Esnalek– eutsi diote bizirik euskarari. Hortxe landu eta ondu da euskara eta, oro har, gure kultura. Hori ezagutu gabe ez dago aurrera egiterik. Herri-prosak lexikoaz jabetzeko adina –gaineratzen zuen– balio lezake prosa egokia moldatzen laguntzeko ere.

VIII. HERRI-LITERATURA JARDUNALDIAK

Bernardo Atxagari aurkezpena

*Donostia, Koldo Mitxelena Kulturgunea,
2005-XI-24*

Jabier Kaltzakorta

Arratsalde on eta berri on areto honetara hurbildu zareten guztioi. Eskerrak ematen hasiko naiz: Eskerrik asko Bernardo Atxagari gugana etortzeagatik, eta eskerrik asko jardunaldi hau bideratu duten lagunei. Gaur-biharretan, hemen bertan, Koldo Mitxelena hitzaldi-aretoan, Euskaltzaindiko Herri-literatura batzordeak eratu dituen VIII. Jardunaldiak ospatuko ditugu. Gaurko hitzaldia Bernardo Atxagari dagokio, eta biharkoa Pello Esnali. Hitzaldi hauek irekiak dira, bihar ere, beraz, gonbidatuta zaudete etortzera, hona, leku berera eta ordu berean.

Orain denboran atzera eginez, duela laurogeiren bat urte, hemendik ez oso urruti, Gipuzkoa eta Nafarroako mugan, Ataungo herriko San Gregorio auzoan, mutil koxkor batek ipuin eta ixtorio zahar polit askoak entzun zituen sutondoan. Mutiko horrek, beste askok bezala, sutondoan, neguan egiten ziren artazuriketetan ixtorio harrigarriak entzun zituen. Joxe Arratibel zen mutil koxkor hori eta umetan supazterrean entzundako ixtorio horiek Estibalizko beneditarren komentuan, Arabako lautadan idatzi zituen entzun eta berrogeita hamar urte geroago. Jose Arratibel beneditarrek izkribitutako ipuin-liburuak *Kontu zaarrak* du izenburua. Liburu horretan bada ixtorio harrigarri bat «Aralargo txabola» deitzen dena, hona hemen:

Bein bi lagun jua ziran Aralar mendira, arratsalde bat pasatzera. Mendian zebiltzela, txabola bat ikusi zuten, ia dana sasiak artuta. Lagun aietako batek bazekian aren berri berea zuan da, orregatik, sasiak kendu, ta giltza bat atera poltsikotik, eta zabaldu zuan.

Barruan sartu zanean, giltzea eman zion beste lagunari esanez:

—Orain atea itxi zak, ni barruan utzita. Gero jua emendik, eta bota zak giltza ori itxasora, al dean urrutiena. Ni emen geldituko nok.

Lagun ura jua zan itxas ertzera, ta besteak esan bezela, an bota zuan giltzea uretara. Gero bere etxera etorri zan, ta gehiago ez zan akordatu giltza artaz.

Urte batzuen buruan, juan omen zan motill ori Donostira, ta arrandegi batean zegola, giltza bat atera omen zioten arrai bati tripatik. Orduan akordatu zan motill ura, giltza bat nola bota zuan itxasora, ta bere laguna nola utzi zuan txabola baten barruan, Aralar mendian.

Arrandegiko nagusiari eskatu zion giltza ura, zer gertatu zitzaion esanez. Urrengo egunean bertan igo zan Aralar mendira, lagun aren arrastorik ote zegon. Kosta zitzaion txabola ura ikusten, duna sasiak estalita omen zegon. Al zituan bezela sasiak kendu, ta ateraño iritxi zanean, ots egin omen zion barruan zegonari.

—Bizi al aiz?

—Oraindik bai, —erantzun zion barruan zegonak.

Giltzaz atea zabaldu ta barrura sartu zanean, an ikusi omen zuan bestea, baztar batean eserita.

—Oso ondo egon zala erantzun omen zion besteak, bakar bakarrik sagu batzuek eman ziotela lan pixka bat. Belarri puntak zerbait moztuta omen zeuzkan, saguak janda.

Txabola ura itxi, ta biak errira etorri omen ziran, arratsaldeko bueltea egin bazuten bezela.

* * *

Arratibelen liburuko kontakizun honetan, entzun duzuenetz, Aralar eta Donostia agertzen dira. Baina kontakizun hau ez da gurea bakarrik, izan ere, Herodoto Halikarnasokoak ere badakar bere 3. eta 4. liburuan, eta harrezkero Herodotoren liburuan bezala ezagutzen da, *Polikratesen eraztuna*. Kontakizun hau *Mila gau eta gau bat gehigo* liburuan ere badator, Indiako *Kalidasan* ere aurkituko duzue eta baita Hans Cristian Andersen-en «Berunezko soldadu ausart»-aren ipuinean ere.

Esan dezadan ere, azkenik, jaun-andreok, *Eclesiastes* delakoan agertzen den esaldi bat:

Bota zeure ogia uretara denbora askoren buruan aurkituko duzu eta.

Uste dut idazlearen langintza bete-betean definitzen duela esaldi honek. Eta orain dela aspaldi idaztera gorputz eta arima eman zen idazle baten ausardia ekartzen dit batez ere gogora. Idazle hori, jakina, Bernardo Atxaga da. Gaur, hemen, gure artean dugu eta ipuin bidezko ongi etorri eta diosala hau eginez emango diot hitza. Zurea da hitza, Bernardo.

VIII. HERRI-LITERATURA JARDUNALDIAK

Herri-prosa eta ahozkotasuna

*Donostia, Koldo Mitxelena Kulturunea,
2005eko azaroaren 25ean*

Jose Ramon Zubimendi

Jaun-andreok,

Euskaltzainburu jauna.

Gabon eta ongi etorri denoi!

Atzo eta gaur, *VIII. Herri Literatura Jardunaldia* egiten ari da Euskaltzaindia hemen, Donostian, Koldo Mitxelena kulturagune honetan.

Euskaitzaindiak 1989an egin zuen Herri-literaturari buruzko lehen Jardunaldia. Hauek dira urtez urte eta jardunaldiz jardunaldi landutako gaiak:

- Villabona-Amasan, 1989an, *Kontapoesia*.
- Donostian, 1992an, *Herri-narratiba*.
- Oiartzunen, 1994an, *Ahozkotasuna*.
- Durangon, 1996an, *Paremiologia* (esaera zaharrak, atsotitzak...).
- Tolosan, 1998an, *Herri-antzerkia*.
- Bilbon, 2000an, *Euskal fraseologia*.
- Eibarren, 2002an, *Kantu laburrak*.
- Donostian, 2005ean, *Herri-prosa eta ahozkotasuna*.

Euskaitzaindiak denon eskura jarriak ditu, *Euskera* agerkarian argitaratuz, Jardunaldi horietako guztietako hitzaldiak eta ekarpenik mamitsuenak, eta oraingo hauekin ere beste horrenbeste egingo du, noski. Beraz, *Euskera* agerkarian aurkitu ahal izango dituzue bai Bernardo Atxagaren atzoko hitzaldia, «Ahozkotasuna euskaldunei buruzko Ipuin Orokorrean» izeneko eta bai Pello Esnalek oraintxe egingo diguna, «Herri-prosa: oinarri eta bide» izeneko.

Pello Esnalen iritziz,

paregabeko altxorra da herri-literatura. Hordago bildua gure tradizioa, eta tradizioa aintzat hartu gabe ez dago etorkizuna eraikitzerik. Ahozko euskarak eta

ahozko euskararen munduak eutsi diote bizirik euskarari: hortxe landu eta ondu da euskara eta, oro har, gure kultura, eta hori ezagutu gabe ez dago aurrera egiterik.

Ea, ba, zer aurrerabide erakutsi nahi digun Pello Esnalek herri-prosan oinarriturik. Horixe du hizpidea, oraintxe du aukera eta oraintxe du hitza. Eta haxe dugu Pello Esnal: euskaltzain urgazlea, lankide jakintsua eta adiskide maitea.

HERRI-PROSA: OINARRI ETA BIDE

Zer dugu herri-prosaren alde. Zer dugu herri-prosaren kontra

Donostia, 2005-XI-25

Pello Esnal

SARRERA

«Herri-prosa eta ahozketasuna» Jardunaldietako bigarren hitzaldi honetan, prosa den aldetik landuko dugu euskal herri-prosa –ez literatura den aldetik– eta bi galdera gidari, Joxe Azurmedik Orixeri buruz idatzitako saio bikoitz hura ere gogoan (Azurmendi, 1976, 1977): zer dugu herri-prosaren alde eta zer dugu herri-prosaren kontra.

Gaur egun, ezin hitz egin daiteke herri-prosaz Antonio Zavalaren obra kontuan izan gabe. Niri, behintzat, ezinezkoa egiten zait. Horregatik, hitzaldiaren lehen zatian, herri-prosak tolosarraren obran duen lekuaz mintzatuko naiz. Bigarren zatian, berriz, Zavalaren lekukoa hartuta, herri-prosak gaur duen zereginaz jardungo dut, betiere euskal prosa orokorraren baitan. Horrela, ondorio batzuk ateratzeko egokiera izango dugu.

Euskal prosaz oro har –eta euskararen gaurko egoeraz– hitz egiten has-teko, nekez aurkituko dugu, oraindik ere, Luis Villasantek 1988an idatzitako pasarte bat baino egokiagorik. Honela zioen gernikarrak, artean euskaltzain-buru zela (Villasante, 1988: 142):

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Denok egiten dugu geure, noski, pasartearen lehenengo zatia: bizirik irautea du euskarak premia nagusia. Baina inor gutxi ausartuko ginateke, seguerenik, bigarren zatia esatera: prosa egiteko moldea duela euskarak bigarren premia; ezinbesteko baldintza, gainera, aurrera egingo badu. Pasarte harrigarri horrek esanahi beteagoa hartzen du, konturatzen garenean behin eta berriro esan zuela hori Villasantek alde eta moldez; ez dela, alegia, une jakin bateko sukarraren emaitza; bai, ordea, bere bizitzako egitasmoaren adierazpena.

Luis Villasantek, nire ustez, euskal prosa umotzea eta umotze hori bideatzea izan zuen euskararen alorrean egitasmo nagusi. Baina gehiago ere esan daiteke, huts egiteko beldur handirik gabe: egitasmo bertsua izan zutela Koldo Mitxelenak eta Alfonso Irigoyenek ere; eta halakoxea ari dela hezurmamitzen, hein batean, Antonio Zavala. Laurak euskaltzain oso; eta, beharbada, hori bezain garrantzizkoa: laurak belaunaldi bereko.

Hori horrela bada –eta nire ustez hala da–, merezi du gutxienik bi gai sakon aztertzea.

Lehenengoa. Zer dela-eta lau euskaltzale handik, aldezturik elkarren ezaguerara handirik izan gabe, egitasmo bera hartu zuten beren bizitzako ardatz eta ipar? Euskal prosaren zer egoerarekin egin zuten topo? Eta, medikuntza-terminologia erabiliz, egoeraren zer diagnosi egin zuten?; eta zer tratamendu aplikatu?

Bigarrena. Zein da gaurko egoera? Zein neurritan da larria, oraindik ere, egitasmo laukoitz horren oinarrian zegoen beharra eta problema? Zein da gaur euskal prosaren egoera? Eta diagnosa? Eta tratamendua?

Hemen, aldezturungo diegu galdera horiei. Izan ere, aurreratu dudanez, Antonio Zavalaren obrara mugatuko gara, eta herri-prosan egindakoari erreparatzera soilik, nahiz eta beste hiruen ekarriak ere aipatu zeharbidez eta osagarri moduan.

Badakigu Zavalak berak guk baino hobeto emango zukeela bere obraren berri; baina geuk emateak ere baditu alde onak; askotan, ez baita norbera izaten egokiena bere buruaz mintzatzeko; eta are gutxiago, horren obra erraldoia gauzatzen ari denean eta beti, apaltasunez-edo, dena baino gutxiago azaltzeko joera duenean.

Eta hemen *gu* esatean, Euskaltzaindiaren Herri Literatura azpibatzordea esaten ari naiz. Egia da neuk ondu eta idatzi dudala lana. Ez da egia txikiagoa, ordea, azpibatzordearen lana eta babesa dudala atzetik, eta ez soilik azpibatzordearen gaurko lankideena. Bereziki aipatu nahi ditut, eskerrik onenaz, Alfonso Irigoyen, Joxe Mari Aranalde eta Juan Mari Lekuonaren izenak. Hain izan ditugu, lankide jator ez ezik, lagun zintzo eta leial; eta aparteko maisu. Garai bateko artisauak bezala ikasi dugu maisu handi horiekin: batzordearen eguneroko jardunean, lanari lotutako etengabeko ahaleginean.

Ez da erraza esaten, bestalde, zenbat zor diogun Antonio Zavala adiskideari. Izan ere, bere lana oso gertutik, barru-barrutik, ezagutzeko aukera eman digu, eta beti prest azaltzen zaigu galderarik gaiztoenari ere erantzuteko. Ez da erraz ordaintzen horrelako maisuarekiko zorra.

Hiru atal ditu lanak: 1) herri-prosa, Antonio Zavalaren obran, 2) herri-prosa, gaur egun eta 3) ondorioak. Eranskin bat ere gehitzen dut amaieran, galdegaia arazoa nola ikusten dudan azalduz labur-labur.

Behin eta berriro erabiltzen ditut hemen besteren ahotsak. Amaieran aipatzen dut bibliografia, zenbait argigarri gerta dakiokelakoan.

Esan gabe doa: neure gain hartzen dut lan honetan esandakoaren erantzukizuna.

I. HERRI-PROSA, ANTONIO ZAVALAREN OBRAN

Beti lotu izan ohi da Antonio Zavalaren obra bertsolaritzarekin; baina, askotan, bertsolaritzarekin soilik. Bikoitza da, ordea, tolosarraren obra, nahiz eta hasieran bakuna izan beraren egitasmoa: bertsopaperak bildu, aztertu eta plazaratzea.

Arantzazun, 1956ko irailaren 15ean emandako hitzaldian plazaratu zuen Zavalak egitasmoa (Zavala, 1996: 21-40), Euskaltzaindiak gerra ostean eratu-tako lehen batzar irekian (Euskera, 1956). «Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*», esan zuen orduan (Zavala, 1996: 34). Eta, ordurako, berrogeita hamar mila bertso inguru omen zituen bilduta, eta mordoxka bat gehiago eskuratzeko esperantza. Material hori bildu eta osatu ondorengo asmoa ere azaldu zuen: bertso berrien bilduma handi bat plazaratzea, estudio batez hornitua; hitzez hitz: «magna edición de *bertso berriyas* que pretendemos vaya precedida de un estudio» (Zavala, 1996: 24).

Baina horiek 1956ko kontuak dira. Geroztik, egitasmoa hazi, ugaltu, biderkatu eta aberastu besterik ez da egin. Eta, hain zuzen, merezi du ibilbide oparo hori urratsez urrats garatzen ikustea; emaitza bezain argigarria baita luze--sakonean ezagutzeko Zavalaren obra. Ondoren etorriko da baloratzeko ordua eta aurrera begira jartzea.

1. ANTONIO ZAVALAREN OBRA

Egitasmoa abiapuntu, Antonio Zavalak sutsu ekin zion lanari. Sutsu eta ausart, geroaren beldur handirik gabe eta oztopoak eragile.

1.1. Bi ezaugarri

Zavalaren obra behar bezala ulertzeko, bi gauza hartu behar dira kontuan.

Lehen-lehenik, egitasmoaren izaera dinamikoa. Zavalaren egitasmoa ez zen itxia eta zurruna. Antoniok, lanean hasteko, ez du beharrezkoa egitasmoa ondo finkatzea; bidea ibiliz egiten duen horietakoa baita tolosarra; eta bide berriak urratzeak, izutu ez baina, adorez betetzen du. Are gehiago: nahiago du,

aukeran, ibili gabeko bideak urratzea, behin eta berriro zanpatuetakoetan eroso ibiltzea baino. Halaxe aitortuko du, 1999ko azaroaren 17an, Deustuko Unibertsitateak *Honoris causa* doktorea izendatutakoan emandako hitzaldi garantzitsuan (Zavala, 2000a: 36):

Nunca he podido comprender que muchos prefieran seguir senderos trillados a sentir el gozo de adentrarse en regiones donde no se advierte huella de nadie que nos ha precedido.

Eta hitzaldi berean esana da, euskaraz; ele bitan hitz egin baitzuen (Zavala, 2000a: 34):

Bertsoa ez-ezik, gure erriaren prosa-esparruan ere atxurkada batzuk emanak gera. Bide au irikitzea kosta egin zitzaigun. Baiña orain ederki zabaldua dagoala derizkiot.

Hain zuzen, herri-prosa izan da Zavalaren bigarren lan-eremua, gutxi gorabehera Auspoa liburu-sailen laurdena hartzen duena, berehala ikusiko dugunez.

Antonioren lanerako bigarren ezaugarria, berriz, higaduraren taktika da. Funtsezko ezaugarria da hau ere. Arazoari ezin dionean zuzenean aurre egin, alderdi samurrenetik erasoko dio eta pixkana-pixkana joango da erdigunera hurbilduz. Halaxe aitortu zigun, joan den urriaren 4an, Apalategiren liburu bikoitza (Apalategui, 2005) aurkeztu zuen egunean, hitzaldiaren ondorengo galde-erantzunetan.

1.2. Egitasmoaren garapena, mugarriz mugarri

Esan bezala, Arantzazuko batzarrean azaldu zuen Zavalak hasierako egitasmoa, 1956an: bertso berrien edizio handi bat atera, estudio bat aurretik zuela. Bertso biltzen hasia zen 1954an, eta berrogeita hamar mila bertsoetik gora bilduak zituen urte eta erdian, eta berehala eskuratuko zituen askoz gehiago.

Hainbat eta hainbat bertso bildu ondoren, haiek gaika eta egileka sailkatzen hasi zen; egileka sailkatzen, baldin eta egilearen izenik bazuten; eta ez bazuten, egilea nor zuten ikertzen. Baina ez zen nahikoa. Bertsolarien bizitza eta bertsoen testuingurua ere jaso nahi zituen, bertsoak plazaratzekotan. Eta, hala, lekukoen bila hasiko da; eta, pixkana-pixkana, ahozko munduko hainbat gizon eta emakumerekin harremanetan jartzen. Lehendik ere, bai Euskal Herrian eta bai kanpoan, begiz joa zuen horrelako jendea; hiztun egokiak asko eta asko, kontalari bikainak bat baino gehiago (Zavala, 1999: 123):

Ni gauza batek arritu nau beti, bai Euskal Errian eta bai emendik kanpo ere: erri-gizon eta emakume asko eta asko zein kontalari onak diran. Makiña bat ordu pasa izan ditut nik, Euskal Erriko mendi eta baserrietan ez-ezik, baita Aragoi,

Gaztela, Kantabria eta abarretan, artzai eta nekazari jendearekin izketan. Baiña izketan baino geiago, entzuten eta ikasten, eta bitartean nere buruari onela esanez: «Kontaera auek merezi lukete, ba, papereratzea. Zer literatura ederra egin litekean, aozko *narrativa* au idatziko balitz!».

Eta hala, bertsoak gero eta gehiago eskuratu, lekukoek testigantzak gero eta gehiago jaso..., lana hazi eta neurritz gainezka egiten hasi zitzaion, konturatzerraino ezin izango zuela bertso-bilduma hura guztia liburuki batean edo gutxi batzuetan plazaratu. Zer egin, orduan?

Adiskide baten hitzek lagunduko diote bidea aurkitzen. Halaxe kontatu zuen berak, *Honoris causa* doktore izendatu zuten biharamunean egindako hitzaldian (Zavala, 2000b: 116):

Zein urtetan izan zan ez dakit seguru esateko, baiña 1960 urte inguruan Igel-doko Balentin Zamora apaiz jaunarekin adiskide eginda nengoan. Bertsoren batzuk ere eman zizkidala uste det. Zera bat garbi ikusten genduan: Euskal-Erria euskera errezez idatzitako liburuen premian zala. Asiera emango ote genion, beraz, orrelako liburu-sorta berri bati? Sorta ori bildutako bertso zaarrak argitaratzeko bidea izan zitekean, prosa-liburuekin tartekatuz.

Beraz, bitarikoak jaio zen Auspoa. Ez, soilik, bertsoaren mundura emana. Bertso zaharrak ez ezik, prosaz idatzitako liburu errazak ere argitaratuko zituena. Hortik aurrera, lanak berak eta irakurleen iritziek erakutsiko zioten zer egin (Zavala, 2000b: 117):

Asiera artako gure libururik aulenak prosazkoak dirala uste det. Saldu ere berak gutxiago egiten ziran, bertso-liburuak baiña. Erriak zerbait erakusten zigun orrekin. Orregatik, prosa alde batera uzteko joera nabari da *Auspoa*-ren leenengo berrogei ta amar zenbakietan.

Hala ere, dena ez da kolpe huts izango (Zavala, 2000b: 118):

Prosa-liburuetan, besteak baiña suete ohea izan zutenak, bi ipuilarirenak izan ziran: Bitoriano Iraola eta Pedro Migel Urruzuno. Arena bat argitaratu genduan, eta bestearenak lau. Jendearen gogokoa izan zan, beraz, aien umorea.

Auspoa bildumaren bosgarren alean plazaratu zuen Zavalak lehen prosa-liburua: Pedro Migel Urruzunoren *Euskalerritik zerura ta beste ipui batzuk* (Urruzuno, 1961). Bederatzigarrenean etorriko zen Bitoriano Iraolarena: *OROITZAK eta beste ipui asko* (Iraola, 1961). Ez da kasualitatea Urruzunoren izatea lehenengoa. Ezta gero beraren beste hiru prosa-liburu argitaratu izana ere: *Iru ziri (ipui eta bertso)* (Urruzuno, 1965a), *Ur-zale baten ipuiak* (Urruzuno, 1965b) eta *Sasiletrau baten ziriak* (Urruzuno, 1973). Izan ere, lehentxeago aipatutako 1956ko hitzaldian dioenez (Zavala, 1956: 34):

Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*. Cuando hojeo ahora algunos de nuestros libros euskéricos, siento a veces la frialdad y languidez más delatorias de la falta de vida.

No dudo de que aquí radica mucho de la repulsa del pueblo a nuestros libros y gran parte de su devoción a los bertsos. Encuentran ellos en este euskera palpitación, calor, nervio; en una palabra, todo ese substrato espiritual que es el alma y la vida de un idioma.

Lau urte lehenago, 1952an, esperientzia argigarria bizi izan zuen Zavalak, Oñan filosofia ikasten ari zela. Han, euskal liburutegia zuen eskueran, baina ezin euskal liburuez gozatu; irakurri bai, baina ezin gustua hartu. Harik eta bi liburu eder topatu zituen arte: Pedro Maria Otañoren *Alkar* eta Pedro Miguel Urruzunoren *Ipuiak* (Zavala, 1999: 114). Eta haiek irakurtzen hasita, hura euskara, hura gozamen!

Bertso-liburua zen Otañorena. Hitz berroz gogoratuko du berrogei urte geroago (Zavala, 1993: 13):

Irakurtzen asi eta nere gozamen! Uraxe zala euskera eta aiek bertsoak! Denbora berean, ura zan, gorputzez Gaztelako txoko batean nengoala, buruaren barruan Zizurkil eta Adunako parajeak bertan banengo bezela bizi-bizi ikustea!

Andik bereala, etxekoei enkargu berezi bat eman nien: Tolosako Zerkausi-
ra bertso-sailtzailleren bat agertzen bazan, paper bat erosi eta bialtzeko faborez. Ala egin zuten eta ale batzuen jabe egiten asi nintzan.

Era ortan, Otañoren liburua zala eta etxetik bialdutako bertso-paperak zira-
la, batere uste gabe, bertso-biltzeari ekion nion. Sarritan orrela gertatzen da: ge-
ren bizitzako erabakirik garrantzizkoenak ia oartu gabe eta nola ez dakigula ar-
tzen ditugu.

Horra hor, Antonio Zavala lehen bertsoak biltzen, nahiz eta bilketa serioa geroxeago hasi zuen: «1954-ko Errege bigarrenaren edo irugarrenaren illuntzean» (Zavala 2000b: 115).

Oñako bigarren liburua, berriz, prosa-liburua zen. Eta zirrara bera eragingo dio Urruzunoren prosa biziak, urte haietan ohikoa zen euskal prosaren motela salatuz. Horregatik esango du Elgoibarren, hogeita bat urte geroago, Urruzunori egindako omenaldian (Zavala, 1996: 306; 2005: 32-33):

Nekez arkituko da euskal idazlerik, arek bezin ondo erriaren euskera ematen duanik [...]. Garai artan, euskaltzaleen artean modan jarria zegoen garbizale-
tasuna [...] Urruzunok etzion moda orri jarraitu. Arek egin zuana zera da: euske-
rarik errikoiena ta jatorrena bere lanetan erabili [...] Orduko idazle guziak
Urruzunoren bidetik abiatu izan balira, beste txori batek joko zion gaur kuku eus-
kerari.

Uste dut merezi zuela Oñako gertaera horretan zertxobait gelditzea. Ikus-
teko nondik eta nola hasten den Zavala garatzen herri-prosari buruzko egitas-
moa. Eta konturatzekeo hasieratik bertatik ia bateratsu ibili zirela bertso-mun-
dua eta herri-prosa tolosarraren lanean, nahiz eta lehentasuna bertso-paperei
emango zien.

Bertsopaperek zabalduko diote bidea. Hain zuzen, Txirritaren eta Pello Errotarenek. Izan ere, horien bertsoak bildu, identifikatu eta testuinguruz hornituz aterako zituen oinarri-oinarrizko bi liburu: *Txirrita (Bizitza ta bat-bateko bertsoak)* (Zavala, 1962), Txirritari buruzko hainbat eta hainbat testigantzaz osatua; eta *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* (Elicegui; Zavala, 1963). Bietan, Antoniok berak idatzia dira testigantzak, lekukoen hitzak magnetofonoz edo ahoz jaso ondoren. Halaxe dio berak (Zavala, 2000b: 118-119):

Andik laster [...], bi biografi aundi osatzeko egokiera izan nuan. Bata, Txirritarena (*Bizitza ta bat-bateko bertsoak*); bestea, Pello Errotarena (*Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*).

[...] Txirritaren liburua asko gustatu zan. «Orrelako beste libururik ez dezu berriz egingo» esan zidan Manuel Lekuona jauna zanak. Juan Goikoetxea jesuita zanak, berriz, onela: «Pernando Amezketarraren antzeko beste pertsonaje mitiko bat sortu dezu».

Pello Errotarena gutxiago txalotu zan orduan. Aren goralpenak egin zituztenak, Gabriel Aresti eta Antonio Valverde izan ziran, leen ere kontatu izan dedanez. Orain, berriz, Pellorena oso aintzat artua dago, aren alde Bernardo Atxagak itzezin zuan ezkerotzik, batez ere.

Baiña liburu oien prosa etzan liburu zaarretatik aterea, guk sortu arazia baizik. Bazan or landu zitekeen eta uzta ugaria eman zezakeen soroa. Baiña garbizalekeriak artean ere idarra zuan ezkerotzik, «guk euskerarik ez dakigu, gure euskerak ez du ezer balio» eta olako esaerak maiz entzuten nituan bere denbora guzian euskera beste izkuntzarik erabili etzuten baserritarren aotik. Batzuetan, ordea, gure artu-emanetan, eskutitzen bat edo beste idazten zidan erriko jende jator orrek, neri zerbaiten berri eman nai zidatelako eta garbizalekeriaz eta abarrez aaztuta. Eta euskera ori zoragarria zan, neretzat behintzat.

Baina nola jarri idazten herritar jator horiek? Lehenengoa, behintzat, ia-ia ustekabea. Honela kontatzen du Antoniok (Zavala, 2000b: 119):

Andik pixka batera Sebastian Salaberriaren prosa-liburua atera zan. Berak Txirritaren berri asko eman zidan, eta ezaupidea ortik egina genduan. Gerrako bere ibillerak kontatuz liburua osatu zuan; baiña ez magnetofonoz grabatuta, nik esan nion bezela, baizik-eta berak idatzita. Askoren gustokoa izan zan. Erriaren izkuntza ona zan, beraz.

Auspoaren 38. zenbakiaz ari da. Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nitzkin* liburu hori da (Salaverria, 1964) Zavalak eragindako lehen prosa-liburua. Bera oharatu zen liburuaren garrantziaz. Horregatik idatzi zuen hitzaurrean (Zavala, 1964: 8):

Gure erriko gizonak olako kontaera [Salaberriak bere nobelan kontatzen dituenak bezalako kontaera] asko dute, eta ayek berrituaz denbora-pasa egoten dira askotan lagun-artean eta etxeko sukaldean. Gaya, Salaverria-ri bezela, bizitzak erakutsi die, eta kontatzeko abilidada aparta dute askok, Jaungoikoak doai ori emanda.

Oraindañokoan, paperera gabe aotik aora ibili izan dira kontatera oyek. Salaverria-k, ordea, berea paperera paseaz, euskal literaturan bide berri bat azaldu du.

Bejondayola, beraz, eta Jaunari nai dakiola, Salaverria-k urratutako bidetik beste asko etortzea ondoren.

Bai. Bide berri bat zabaldua zuen euskal literaturan Salaberriaren liburuak, baina hamaika urte beharko ditu Zavalak hurrengo prosa-liburua argitaratzeko. Izan ere, 1975ean, plazaratzen du Uztapideren *Lengo egunak gogoan* (Uztapide, 1975), beste mugarri bat jarritz Auspoaren herri-prosan, muga erabakiorra oraingoan, Zavalaren egitasmoa bitan banatuko duena, berak aitortuko duenez hogeita sei urte geroago, Uztapideren *Berriz plazara* (Uztapide, 2001) argitaratu zuenean (Zavala, 2006: 138):

Bolara artan ni erri-prosa au zutik jarri nairik nenbillen. Baiña etzan erreza jendea ortaratzen. Parregarri gelditzeko bildurra zuten. Uztapiderena atera ondoren, berriz, gauzak batekoz bestera aldatu ziran. Andik aurrera, jendeak errez ematen zuan baiezkoa. Parregarri gelditu gabe, txaloak jasotzen zituztela ikusi baizuten. Eta, bestetik, gure Manuelen euskera berena zutela. Orregatik, erri-prosa onek bi garai ezagutu ditu: Uztapideren *Lengo egunak gogoan* liburuaren aurrekoa eta ondokoa.

Eta *Lengo egunak gogoan* liburuaren ondoren, «era ontako liburu-zerrenda luzea agertuko da, dantza-soka batean bezela», Zavalak berak *Neronek tirako nizkin* bigarren aldiz argitatzearan idatzi zuenez (Zavala, 1994: 9).

1.3. Emaiza

Antonio Zavalak herri-prosaren arloan egina bilduz, batetik, berak argitaratutako obrak eta idazten jarritako idazleak topatuko ditugu eta, bestetik, lan horren inguruan Zavalak landutako kontzeptuak.

Obrak eta idazleak

Zalantzak zalantza, guztira herri-prosazko 68 obra argitaratu ditu Zavalak, 73 liburukitan bilduak.

Zalantzak, bi aldetan sortzen zaizkigu. Batetik, non hasten da herri-prosa?; hau da, non amaitzen da ahozko jarduna, idatzia hasteko? Eta, bestetik, non amaitzen da herri-prosa; alegia, non hasten da prosa landua-edo?

Hemen, Zavalaren beraren irizpideari jarraituz jokatu dugu. Eta, herri-prosazko liburutzat jo ditugu, herri-idazle batek idatzitakoez gain, norbaitek ahoz esandakoak eta (ia beti) Zavalak transkribatuak; baina ez ditugu prosazko liburutzat hartu, beste muturrean, prosa landuaz idatzitakoak, nahiz eta euskalkiren batean idatziak egon.

Horiek horrela, hogeita hamabi herri-idazleren obrak argitaratu ditu Zavalak. Oparoenak dira: Ataño, hamazazpi obrarekin; Txomin Garmendia, sei-ekin; Manuel Lasarte, bostekin; Bizente Barandiarain, laurekin; eta Sebastian Salaberria eta Jose Azpiroz, hirunarekin. Ondoren datoz, bina obrarekin, Bartolo Ayerbe, Jose Maria Etxaburu, Joxe Mari Lertxundi eta Inozentzio Olea. Gero, hogeita bi idazle ditugu obra banarekin: Jose Ramon Zubillaga, Manuel Olaizola «Uztapide», Jose Ramon Erauskin, Jose Manuel Arrizabalo, Juan Jose Irazusta, Iñaki Alkain, Mari Treku, Marzelino Manterola, Patxi Lazkano, Erramun Etxebarne, Jesus Lete, Beñat Karrika, Basilio Pujana, Agustin Zinkunegi, Teodoro Mujika, Faustino Etxebarria, Lino Ayesta, Nikolas Zendoia, Kosme Lizaso, Jose Agustin Garziandia, Leon Albeniz «Iruñtxiberri» eta Tomas Gerrikagoitia.

Euskalkiz banatuta, nabarmena da gipuzkeraren nagusigoa: hogeita hamabi idazle horietako hogeita hiru baitira idazle gipuzkoarrak.

Oinarrizko kontzeptuak

Zavalak berak esana du, sarritan, bere lana ez dela teoria egitea izan. Espresuki galdetu zion Joxerra Garziak: «Beste edozeinek, zuk dakizunaren laurdenaren laurdenarekin, sekulako teoria osatuko zukeen aspaldi. Zuk, ordea, ez dakit teoria gorrotatzen duzun, ala teoria egiteko joerari eutsi egiten diozun. Bildu dituzunak bilduta, ez al duzu ikusten corpus hori aztertu eta arrasto teoriko batzuk ateratzeko premiarik?». Eta Zavalak erantzun: «Nik ez dut horretarako astirik izan. Teoria pixka bat egin dut. Oiarzunen eman nuen hitzaldia, adibidez: *Pensamiento intuitivo y discursivo en la poesía popular vasca*. Mokoroaren liburuari egin nion hitzaurrean, berriz, esan-modu edo modismoei buruz jardun nintzen. Baina lehen esana: denborarik ez dut. Lehen pausoa eskuratu ditugun materialak argitara ateratzea da. Eta gero gerokoak.» (Garzia, 2001: 88).

Baina, teoria ez badu gorpuztu ere, zenbait gogoeta egina da Zavalak hitzaldi edo hitzaurretan. Hemen, bi pasarte baliatuko ditugu soilik. Lehenengo, Deustuko Unibertsitateak *Honoris causa* doktore izendatu zueneko hitzaldikoa; bigarrena, bi urte geroagokoa, Uztapideren *Berriz plazara* (Uztapide, 2001) argitaratzean egindako hitzaldikoa.

Lehenengoan, dio (Zavala, 2000a: 44-45):

Nuestro idioma, así como supo hace mucho encontrar un buen sistema de versificación, me da la impresión de que sigue todavía dando palos de ciego en su búsqueda de una prosa que sea un expedito cauce de comunicación, y la halla aquí de golpe [herri-prosan, alegia], al haber pasado al plano escrito los recursos del cotidiano comercio oral del pueblo.

Bigarrenean (Zavala, 2006: 138):

Gure izkuntzak, izan ere, badu aspalditik auzi bat. Auzi ori ez degu maai gaiñean jartzen, eztabaida gogorra sortuko duan bildurrez edo ez dakit zergatik. Baiña erabaki bitartean or izango da, gaitz isil bat bezela, pipiak egiten duan lana egiñez.

Auzi ori zera da: gure euskerak, itzegiten danetik idazten danera nolako tar-tea bear duan. Nere iritzia auxa da: batetik bestera tarte geiegi dagoala eta alkarrengana urbildu-premia dagoala; ori egitera, gure izkuntzak eta literaturak me-sede luketela.

Nere iritzia ori izanik, poz artu det Uztapideren prosa berriz irakurtzean. Arek, izan ere, itzegiten zuan bezelaxe idatzi zuan; itzegiten zuanetik idatzi zuan-nera tarterik utzi gabe. Bertsotan orrela jarduten zan, eta prosaz ere berdin. Nik ere ortik jotzeko esango nion. Ala eskatzen diet idazten asten diran erri-gizon gu-ziei: tabernan lagunekin eta sukaldean etxekoekin egiten duten euskera paperera-tzeko, alegia.

Uztapideren prosa orrekin, itzegiten dan bezela idatzita dagoalako geienbat, esaten dituanak leen kolpean ulertzen ditugu, eta kontatzen dituan gauzak ia ikusi, ikutu eta usaitu egiten ditugu. Kontatzen dan gertakaritik ain urbil jartzen gaitu.

Bolara artan ni erri-prosa au zutik jarri nairik nenbillen...

Bi pasarte horietan ditugu, besteak beste eta labur-labur, zein den Zava-lak gaurko euskal prosari buruz egiten duen egoeraren analisia, non dituen gai-tzak sustraiak eta zein den tratamendua.

Egoeraren analisia:

Nuestro idioma [...] me da la impresión de que sigue todavía dando palos de ciego en su búsqueda de una prosa que sea un expedito cauce de comunicación.

Gaitzaren sustraiak:

Batetik [ahozko euskaratik] bestera [euskara idatzira] tarte geiegi dago...

Tratamendua; hasteko, behintzat:

[Euskara idatzia eta ahozkoa] alkarrengana urbildu-premia dagoala; ori egi-tera, gure izkuntzak eta literaturak mesede lukete...

Eta, hain zuzen, herri-prosan ditugu ahozko euskara eta idatzia elkarren-gandik hurbil, ezin hurbilago. Beraz, horra hor herri-prosa, komunikabide den prosa, gaitzaren sendabidea:

Nuestro idioma [...], en su búsqueda de una prosa que sea un expedito cau-ce de comunicación, [...] la halla aquí de golpe [herri-prosan, alegia], al haber pasado al plano escrito los recursos del cotidiano comercio oral del pueblo.

Bide batez, herri-prosaz zer ulertzen duen esaten digu Zavalak: «itzegi-ten dan bezela idatzita dagoana geienbat». Baina gehiago ere zehaztu izan du.

Guk honela laburbilduko genuke Antonioren pentsaera: herri-prosan idazten dute euskaraz pentsatu eta idatziaren eraginik gabe idazten dutenek.

Bestalde, Zavalaren pentsamoldeaz jabetzeko, egoki datorkigu ikustea zer irizpide erabili dituen berak Auspoako liburuen artean herri-prosakoak bereizteko. Nola herri-prosazko liburutzat jotzen dituen, herri-idazleek idatzitakoez gain, norbaitek ahoz esandakoak eta Zavalak berak (ia beti) transkribatuak; baina ez dituen prosazko liburutzat hartzen prosa landuaz idatzitakoak, nahiz eta euskalkiren batean idatziak egon.

2. ANTONIO ZAVALAK HERRI-PROSAN EGINDAKOA BALORATUZ: HIRU LORPEN

Horraino ekarri gaitu Antonio Zavalaren ibilbidea jarraitzeak. Uste dut oinarri polita eskaintzen digula, Zavalak berak egin duena ezagutzeko ez ezik, guk aurrera egiteko ere.

Lehenago, ordea, ebalua dezagun Zavalak egindakoa. Asko esan daiteke, baina hiru puntu azpimarratzera mugatuko naiz. Hiru puntu, soilik; baina funtsezkoak.

2.1. *Herri-prosa aurkitu eta sortu izana*

Lehenik eta behin, Zavalak aurkitu egin du herri-prosa. Eta orain, *herri-prosa* esatean, *herri* azpimarratzen dugu.

Egia esan, herri-prosa, egon, bazegoen, baina jende ikasiak egina zen, idazteko ofizioa zuenak ondua. Dena den, bigarren mailakotzat joa zen... Zavalak, ordea, hasteko, lehen mailara ekarriko du zegoen herri-prosa. Eta, horretara mugatu gabe eta batez ere, jende «ezikasía» idazten jarriko du. Errazago esaten da, egiten den baino.

Zavalak berak askotan aipatu du zenbat kostatu zitzaion jende «ezikasía» lanean jartzea. Eta aipatu duen aldi bakoitzean azaldu du arrazoiak ere: jende «ezikasi» horrek, euskara besterik ez zekien horrek, esaten ziona: «nik ez dakit euskaraz». Eta gehitu ere egiten du zerk eragiten zien uste hori: giroan zegoen garbizalekeriak.

Hala ere, ez dut uste hori horrela denik erabat. Gutxienik, beste bi arrazoi ere erantsi beharko zaizkio «nik ez dakit euskaraz» horri. Lehenengoa, «nik ez dakit idazten». Eta bigarrena, «nik esan dezakedanak ezer gutxi balio du». Benetan, pisuzko arrazoiak dira hauek ere.

Luze hitz egin daiteke bigarren arrazoi horri buruz. Gauza bakarra esango dut, ordea. Arrazoiak bainoago, ustea da; baina *ustea* ulertuta Ortega y Ga-

ssetek *creencia* ulertzen duen moduan: arrazoi guztiak baino sakonagoa den oinarritzko sinestea; gizaki batek eta gizarte batek barru-barruraino sartua duen konbentzimendu osoa, inola ere zalantzan jartzen ez dena, ia-ia-ia aldaezina. Esaiozu idazteko «nik esan dezakedanak ezer gutxi balio du» uste duen bati. Jar ezazu idazten. Hasteko, norberak egon behar du ondo konbentzitura, askotan gizarte osoaren aurka. Eta gero gerokoak.

Lehenengo arrazoia, ordea, «nik ez dakit idazten», ez da ustea. Askotan, egia baizik. Ondo asko dio Uztapidek, *Lengo egunak gogoan* liburuaren lehen orrialdeetan (Uztapide, 1975: 37-38):

Irakurtzen ere ikasi genduan frenorik gabeko automobilak bezela: ez puntu ta ez koma. Dana segiran. Guk ez genduan iñon kerarik egiten. Lana ugari ateratzen da orrela. Eskribitzen ere jarduten genduan, ortografia auzoan. Baña ni orrekin serbitzen naiz orain ere.

Merezi du pasarte hori irakurtzea Uztapideren eskuizkribuan. Halaxe dago idatzia: ez puntu eta ez koma, inolako kerarik gabe, ortografia auzoan.

Nola jarri horrelako bat idazten? Eta ez soilik, horrela idazteak eman diezaiokeen lotsagatik. Denok dakigu zenbat kostatzen den idaztea. Ofiziolako ez den bati, berriz, nekeza egiten zaio boligrafoa-edo dena delako idaz-tresna hartzea ere. Baina kontua ez da hor amaitzen. Izan ere, nork pasa zirriborro hori garbira? Nork jarri ulertzeko moduan? Antonio Zavalak *sekretariotza egitea* deitzen dio lan horri. Zer esan nahi duen jakiteko, ongi dator jatorrizko eskuizkribuak ikustea; esaterako, Manuel Lasarteren azken liburuarenak (Lasarte, 2005).

Hori guztia, eta gehiago, esan nahi du herri-prosa aurkitzeak. Aurkitu ez ezik, landu... eta, azken batean, sortu.

2.2. Herri-prosari erreparatu izana

Gaur, aitortzen zaizkio zenbait balio herri-prosari: balio kultural, etnografiko, antropologiko, historiografiko...; era berean, egokia ikusten da hiztegiak hornitzeko, esapideen corpusak osatzeko... Baina hori baino ere urrunago joan da Zavala: herri-prosaren alderdi testualari ere erreparatu dio, prosaren beraren balioa ere aintzakotzat hartuz; beraz, herri-prosaren *prosa* azpimarratuz.

Eta *prosa* esatean, *testu* eta *joskera* esan nahi dugu.

Hizkuntzen irakaskuntzan, gaitasun komunikatiboaz hitz egiten da gaur. Azken batean, gaitasun gramatikala osatzera dator. Izan ere, hizkuntza egoki ezagutzeko eta erabiltzeko, ez da nahikoa –nahitaezkoa bada ere– gaitasun gramatikalaren jabe izatea. Ezin muga gaitezke gramatika ongi ezagutu eta erabiltzera. Beharrezkoak ditugu beste gaitasun batzuk ere. Esaterako, Canale eta Swain adituen arabera, beste hiru gaitasun ere beharko ditugu: gaitasun tes-

tuala, gaitasun soziolinguistikoa eta gaitasun estrategikoa (Canale, Swain: 1980; Canale, 1983).

Oso labur esanda, gaitasun soziolinguistikoari esker, testuinguruari dagokion modura erabiltzen du hiztunak hizkuntza; hau da, kontuan hartuz zer rol jokatzen duen berak, zein duen hartzaile, zer erabilera-esparrutan diharduen, zer testu-genero darabilen, eta zer xede lortu nahi duen. Gaitasun estrategikoa, berriz, aldian aldiko erabakiak hartzeko gaitasuna adierazten du. Izan ere, gramatikak hizkuntzaren gai asko arautzen ditu. Ez denak, ordea. Ezta hurrik eman ere. Hori dela-eta, hizkuntz erabiltzailearen esku geratzen da hainbat eta hainbat erabaki hartzea.

Baina gera gaitezen gaitasun testualean; honetaz ari gara-eta. Gaitasun testuala duenarentzat, hitzen hurrenkera soila baino gehiago da esaldia, eta esaldien pilaketa baino gehiago testua. Izan ere, badaki –jakinaren gainean nahiz oharkabea– batasun bat osatzen dutela hitzek eta esaldiek, elkarrekin ondo lotu eta uztartuta; eta ondo antolatu behar direla esaldiaren osagaiak, eta ondo neurtu informazioa... Alegia, hitz-ordena, lotura eta neurria dela testua.

Ba, ikusi dugunez, Zavalak ere gaitasun komunikatiboaz dihardu, eta gaitasun testualaz, gaitasun gramatikaren ikuspegi motza gaindituz. Eta gaitasun komunikatibo eta testual horiek ikusi ditu hainbat hiztunengan. Eta hiztun horien ahozko testuak papereratzean, probatu eta frogatu du testu idatzi egoiki batek behar dituen ezaugarriak dituela; eta horregatik irakurtzen direla erraz, eta horregatik komunikatzen dutela (Zavala, 2000a: 44-45):

Nuestro idioma [...], en su búsqueda de una prosa que sea un expedito cauce de comunicación, [...] la halla aquí de golpe [herri-prosan, alegia], al haber pasado al plano escrito los recursos del cotidiano comercio oral del pueblo.

Eta testu-izaeraren frogarritzat ipintzen du, hain zuzen, testua irakurri eta lehen kolpean ulertzea. Esaldi hau bera –«lehen kolpean ulertzea»– erabili genuen Zubimendik eta biok ere *Idazkera-liburuan*, testu baten egokitasuna adierazteko (Zubimendi, Esnal, 1993: 152). Azken batean, testu izatea eskatzen diogu testuari; ez hitz-pilaketa hutsa, nahiz eta denek banan-banan gramatika-arauak bete eta zuzen-zuzenak izan.

Hain zuzen, herri-prosaren balio testuala ere aurkitu izana da Antonio Zavalaren bigarren lorpena.

2.3. Euskal prosaren arazoa ahozketasunarekin lotu izana

Baina hirugarren lorpen bat ere aitortu behar zaio Zavalari: euskal prosaren arazoa ahozketasunarekin lotu izana.

Oraingoz, bego honetan. Berehala helduko baitugu gai honi.

II. HERRI-PROSA, GAUR EGUN

Zirrimarra handiz, horixe dugu Antonio Zavalak herri-prosa sortzen, sus-tatzen eta lantzen egindako lana. Berri osoagoa eta beteagoa nahi izatera, ezin-besteaz aztertu beharko genuke, besteak beste, zein egoeratan ondu zuen tolo-sarrak bere egitasmoa, egoeraren zer diagnosi egin zuen, nolako eragina izan duen euskal gizartean... Baina, oraingoz nahikoa dugu egindakoa.

Lan honetan, euskal herri-prosa dugu aztergai, betiere prosa den aldetik. Eta, bigarren atal honetan, aurrera begira jartzea dagokigu, bi puntu nagusi landuz: 1) zer egiteko duen herri prosak euskal prosa orokorraren baitan, eta 2) zein arlo dituen bereak herri-prosak. Berez, logikoagoa litzateke bigarren puntu hau aurretik lantzea, baina aipatutako ordenan landuko ditugu hemen, gauzak argitzeko egokiagoa delakoan.

1. HERRI-PROSA, PROSA OROKORRAREN BAITAN

1.1. Euskal prosaren gaurko egoera

Sarreran esan dugunez, euskal prosaren gaurko egoeraz mintzatzeko abia-puntu ezin hobeia dugu gogoratzea zer zioen Luis Villasantek 1988an (Villa-sante, 1988: 142): «Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. [...] Horra gure mintzairaren premietan [...] bigarrena», bizirik irautearen on-dorengoa.

Villasanterekin bat etorriko gara asko. Izan ere, badakigu zeinen zail egi-ten zaigun bai solturaz idaztea eta bai solturaz irakurtzea; edo, idazle kezka-tuaren ikuspegitik ikusita, zeinen zail egiten zaigun solturaz irakurtzeko mo-duan solturaz idaztea.

Hala ere, Villasantek pasarte hori idatzi zuenetik ez dira alferrik pasa ha-mazazpi urte. Eta uste dut urrats garrantzitsu batzuk egin direla azken urte hauetan; eta gaur hizkuntzalaritzan nagusi diren ikuspegiak ere lagungarri di-tugula euskal prosaren moldea landu eta sendotzeko ahaleginetan.

Batez ere, bi gai ditu euskarak argi beharrean: hitz-ordenarena eta testu-antolatzaileena.

Hain zuzen, testu-antolatzaileei dagokienez, testu-ikuspegi berrian oina-rrituz landu zuen Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak *EGLU III*, lokailuei buruzkoa (Euskaltzaindia, 1990). Oinarritzko lana da, nahiz eta osatu beharra dagoen, testu-antolatzaileen baitan (Esna, 2002).

Era berean, oinarri-oinarritzko lanak egin ditu Gramatika batzordeak be-rak hitz-ordenari buruz, 1987an hasita (Euskaltzaindia, 1987; 1993). Ordukoa

da, halaber, Eusebio Osaren doktore-tesi garrantzizkoa ere (Osa, 1990); eta ondoren etorri zen Bittor Hildalgorena (Hidalgo, 1994), hainbat datu argigarri eskainiz. Geroztik, etengabea da Hildalgoren ekarpen baliotsua (besteak beste: Hidalgo, 1996a; 1996b; 1996c; 1998; 2000a; 2000b; 2002), eta ondo kontuan hartzekoa Mitxel Kaltzakortarena ere (Kaltzakorta, 2003; 2004a, 2004b). Alabaina, ezin ahantz ditzakegu, batez ere, ez Koldo Mitxelena galdegaiaz esanak (Mitxelena, 1988b), ez Alfonso Irigoyenen ekarria (Irigoyen, 1980).

Bestalde, esanguratsua da zenbat estilo-liburu edo antzeko plazaratu den azken hamahiru urte hauetan. Hiru atera zituen *Egunkariak* (Egunkaria, 1992; 1995; 2001). Lau argitaratu ditu IVAPk (IVAP, 1994; 1997; 2003; 2005). Eta IVAPk berak atera zuen Juan Garziaren *Joskera lantegi* (Garzia, 1997). Euskal Herriko Unibertsitateak ere bideratu du bere estilo-liburua (Alberdi, Sarasola, 2001). Orokorrangoak dira beste batzuk (Arrasate, 1992; Zubimendi, Esnal, 1993).

Merezi du aztertzea zer toki eta tratamendu ematen dieten liburu horiek hitz-ordenari eta testu-antolatzaileei. Edo, bestela esanda, zer arreta jartzen dioten testualitateari. Gurean (Zubimendi, Esnal, 1993), esaterako, ehun orrialdetan jorratzen dugu arlo hori, nahiz eta *joskera* deitu genion. Eta, gaitasun testuala ez ezik, gaitasun estrategikoa ere landu genuen, batik bat Mitxelena-ren eta Orixeren testuak adibidetzat hartuta, nahiz eta ez genuen *estrategia* terminoa erabili. Eta testu komunikatiboak sortzeko estrategien artean, espresuki aipatu genuen «ahozko euskara oinarri» hartzea (181-189.or.) Eta lan horretakoa da, hain zuzen, euskara zuzenaren eta euskara egokiaren arteko bereizketa garrantzizkoa ere (151-153.or.), geroztik hain harrera ona eta zabala izan duena, Euskaltzainditik bertatik hasita.

Estilo-liburu eta antzeko horiek guztiak moldatzen egindako ahaleginak argi erakusten du zabaldua dagoela euskal prosarekiko ardura. Eta horien eragina ere gero eta nabarmenagoa da. Horrexegatik, gehiegitxo iruditzen zaizkit arestian aipatutako Antonio Zavalaren hitzak: «me da la impresión de que [el euskera] sigue todavía dando palos de ciego en su búsqueda de una prosa que sea un expedito cauce de comunicación».

Oraindik ere asko faltako da egiteko, baina uste dut gauzak ondo bideratuta doazela.

1.2. Gaurko egoeraren aurrekariak

Euskal prosa zergatik dagoen oraindik ere gordin salatuz, behin eta berriro idatzi zuen Luis Villasantek, sakon eta egoki idatzi ere.

Gernikarrak dioenez, euskal prosak bazuen bide luzea egina. Eta XIX. mendearen amaieran iritsia zuen halako heldutasun bat. Apurka-apurka, eus-

kal prosa-moldea egiten ari zen, euskalkiz euskalki. Baina okertu egin ginen (Villasante, 1991: 607):

Behin baino gehiagotan esan dut prosa egiteko moldea oraindik normaldu gabe eta helgabe, adin batera heldu gabe dugula, alegia, eta ez idazle zahar batzuegan aski zoritua ageri ez delako –zoritua, idazle haiek Etzinalde osoan onartzen zen perpausak muntatzeko moldea, egokitzapen batzuekin, onartu ez zutelako—. Baina, gure artean maiz gertatu diren iraultzekin, erregebide horretatik saihestu egin ginen gero.

Euskaltzainburu zela esan zuen hori, Gernikan, 1988an, Euskaltzaindiak estilistikaz egindako lehen Jardunaldietan. Urte berean idatzi zuen *Euskararen auziaz*, liburu ezin baliotsuagoa. Horkoa dugu lan honen lehen aipua; eta bertakoa beste hau ere (Villasante, 1988: 146):

Prosa egiteko tresna hau behar-beharrezkoa dugu. Hori gabe hizkuntza ez da trebe, ez da erreminta egokia. Eta tresna hori tradizioz moldatzen da. Euskararen kasuan esan behar da, gainera, euskarak baduela tradizio hori. Kuestioa da gaizki ezagutzen dugula geure tradizioa. Joan den mende-hondarrean [XIX. mendearen hondarrean] eta oraingoaren [XX.aren] hastean eten bat gertatu zen, haus-tura bat. Txartzat jo zen lehengo dena. Hutsetik dena berriro egiten hasi nahi zen, eta tradizioari gibelat eman zitzaion.

Funtsez-funtsezkoa da pasartea. Azpimarra ditzagun zenbait puntu: «prosa egiteko tresna tradizioz moldatzen da»; «euskarak badu tradizio hori»; «tradizio hori eten egin zen XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran: txartzat jo zen lehengo dena eta hutsetik dena berriro egiten hasi nahi izan zen». Merezki du, labur bada ere, puntu horiek hausnartzea.

Prosa-moldea

Prosa-moldea sortzea eta lantzea, azken batean, ahozko hizkerako moldea hizkera idatzirako egokitzea da. Urteak eta urteak behar izaten ditu egokitze-prozesu horrek; ezaugarri desberdinak baititu molde bakoitzak. Esaterako, doinua –ahozkoak hain berezkoa eta funtsezkoa duen doinua– galdu egiten da idatzira iragatean. Ahoz ari garenean –hizketan nahiz entzuten–, doinua baliatzen dugu, besteak beste, hitzak eta hitz-kateak eta esaldiak lotzeko. Idatzizko komunikazioan, ordea, bestelako baliabideak erabili behar izaten ditugu doinuaren orde. Adibidez, lokailu eta testu-antolatzaile gehiago. Idatziak, gainera, gauzak gehiago zehazteko aukera ematen du, eta ñabardura gehiago tartekatzekoa, eta itzulginguruka jardutekoa. Horrek hitz-kateak eta esaldiak luzatzea dakar berekin.

Modu askotara egokitu ohi da ahozko moldea idatzizkora. Hizkuntza batzuetan, idazle jakin batek hartzen du protagonismoa; adibidez, Dantek, italiararen kasuan; edo Luterok, alemanarenean. Hala, Dantek erabilitako dia-

lektoa –toskanoa– bilakatuko da italiera idatzi; eta Luteroren prosa-moldea aleman idatzi. Beste batzuetan, talde jakin batek hartzen du protagonismoa. Adibidez, Frantzian. Frantses Iraultza bitartean, Paris inguruko frantsesa ezarri joan zen gortean, administrazioan eta hiriburuko idazleen artean; herriak, ordea, ez zuen frantses-molde hori erabiltzen. Gero, Iraultzaren ondoren, bihurtuko zen dialekto hori frantses idatzi eta estatuaren hizkera. Hala ere, urte asko eta trikimailu bihurriak behar izan zituen herritar guztien hizkuntza bilakatzeko; besteak beste, eskola-hizkuntza bihurtzea (Bronckart, 1993).

Baina, banakoak nahiz taldeak izan protagonista, antzeko faseak bereiz daitezke ahozko moldea idatzizkora egokitze-bilakaeran. Azken batean, lau fase: 1) protagonistak estrategia jakin batzuk aukeratzen ditu, irakurleak ahalik eta errazen uler dezan testu idatzia; 2) estrategia horiek, pixkana-pixkana, ohitura eta mekanismo bihurtzen dira; hau da, estilo; dela idazle jakin batena, dela talde jakin batena; 3) estilo hori zabaltu egiten da, hiztun-talde handiago baten ondare –prosa-molde– bihurtzeraino; 4) prosa-molde hori tradizioz iragaten da belaunaldi batetik bestera.

Eta euskarak? Zer ibilbide egin du euskarak ahozko moldetik idatzira egokitze horretan?

Hiru gai landuz zirriborra dezakegu erantzuna: 1) zortzi euskalki ahozko eta lau euskaldi idatzi, 2) tradizioaren etena eta inboluzioa, XIX. mendearen hondarrean eta XX.aren hasieran, 3) Arantzazuko biltzarra, 1968: Koldo Mitxelenaen txostena.

Zortzi euskalki ahozko eta lau euskalki idatzi

Lehenik eta behin (Villasante, 1988: 218-226), kontuan izan behar da euskalki guztiek ez dutela egin ahozko moldetik molde idatzirako ibilbidea. Bonapartek bereizitako zortzi euskalkietako lau baino ez dira iritsi euskalki idatzi (literario) izatera: lapurtera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera. Bidean gelditu dira goi-nafar hegoaldekoa, goi-nafar iparraldekoa, behe-nafar sartal-dekoa eta behe-nafar ekialdekoa.

Bestalde, lau horiek ez dute ibilbide bera egin (Villasante, 1988: 224):

Lau euskalki literario horien artean, denborari bagagozkio –eta denbora hemen monta handikoa da–, Lapurdikoari zor zaio lehen tokia. Lapurdieraren abia da XVI. mendean hasten da eta halako bir-jaiotze bat ezagutzen du Materren inguruan XVII.ean. Alde honetatik lehentasun bat du, bada, euskalki honek, eta hori ezin da ahantzi guztiontzat euskara batu bat moldatu nahi dugun une honetan. Berrehun urte geroago, hots, XVIII. mendean, moldatzen da gipuzkera Larraamendiren eraginari esker. Eta XIX.aren hasieran bizkaiera, Mogel eta Añibarrarekin. Zuberoakoa, berriz, XVII eta XVIII.ean Belapeyre eta Maister-ekin.

Tradizioaren etena eta inboluzioa: eragileak eta ondorioak

Euskal prosa-moldea egiten ari zen, euskalkiz euskalki; baina eten egin zen tradizioa, lehentxeago Villasanteri irakurri diogunez (Villasante, 1988: 146). Baina gehiago ere zehaztu zuen (Villasante, 1976: XIV-XV):

Gure artean euskarari lege bat, disziplina bat emateko egin den saiorik eta ahaleginik handiena joan den mende azkenean eta gurearen aitzinaldean egin da [XIX. eta XX. mendeetan]. Denok ditugu gogoan horretan saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, Orixe, eta abar.

Halako aro berri bat sortzen da orduan euskal literaturan. Lanean ari diren langileok badute gogoan ideal bat, jomuga eta xede bat, eta berek amestutako lege horren arabera lantzen dute euskara. Ez dira idazleak bakarrik. Badira gramatikariak ere, bada Euskaltzaindia, badira irakasleak, etab.

Mobimendu hunek bere fruitu umoak eman ditu. Lan hori ez da baztertzekoa eta are gutiago gaitzestekoa. Hau aitortu beharrezkoa da, zeren askotan botatzen baitigute aurpegira eskertzarrekoak garela lan guzti hori burutu zutenekin. Ez da hori horrela. Egin den lanaren balioa aitortuz, urrats bat gehiago egin dadin nahi genuke: hori da guztia. Orduan gure artean –Hego Euskal Herrian, alegia– sortu zen mobimenduan halako muga eta hertsikeria batzuk nabari baitira, eta hoientzat osatze batzuk bilatzen ditugu. Ez da besterik. Horrekin ez dugu jaun hoi en lana madarikatzen; aitzitik, haintzat hartzen eta aurrera eraman nahi dugula iruditzen zaigu.

Gehiago ere zehatz daiteke. Esaterako, zer egin zuten Txomin Agirrek, Orixe eta Altubek. Baina beste lan batean egin dugu hori, doinuari –doinu-aldaketari– erreparatuz (Esna, 2003). Orain, nahikoa izango dugu bi pasarte gogoratzea.

Bata, Orixerena da (Ormaechea, 1918: 8):

Queríendonos decir el bardo Iparraguirre que el árbol de Guernica era bendito, nos dijo: «el árbol de Guernica es el que ha sido bendecido». Solo por no haber puesto el *da* al fin, con lo cual alteró no solamente la sintaxis, sino también el acento; ó por mejor decir, no solamente alteró el acento, sino también la sintaxis; que lo uno y lo otro son inseparables en nuestra lengua.

Bestea, Koldo Mitxelena, Orixe hil berritan idatzia (Mitxelena, 1988a: 119):

Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal-prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu.

Horrela eragin zen etena. Eten bikoitza: batetik, ordu arteko ibilbidea eten egin zuelako (batik bat Hegoaldean; beraz, bizkaieraren eta gipuzkeraren ahozko hizkeratik idatzirako ibilbidea) eta, bestetik –eten gozoagoa ez dena–, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkien ibilbideak ere –ordu arte antzekoak izanak– bereizi egin zituelako.

Hori baino larriagoa ere izan zen, ordea. Hegoaldekoa, etena ez ezik, inboluzioa ere izan baitzen: ordu arte egindako bidean atzera egitea; berriro ere ahozko hizkerara itzultzea.

Eten eta inboluzio horiek bi ondorio formal izan zituzten euskal prosan: 1) esaldiaren osagaien ordena-aldaketa eta 2) testu-antolatzaileen murrizketa eta, honekin batera, prosa-jarioaren etena.

Testu-antolatzaileen murrizketa eta prosa-jarioaren etenaz, zorrotz eta egoki mintzo da Villasante, Altuberen *Erderismos* liburua berrargitaratzean egindako hitzaurrean (Villasante, 1975). Urtebete geroago, Axularren *Geroren* seigarren edizioaren aitzinsolasean, esango digu zer ondorio ekarri zuen testu-antolatzaileen murrizketak (Villasante, 1976: XV):

Joera hau laster ikusi zen gehiegizkoa zela eta hizkuntza bera inorarik gabe, besoz eta zangoz katigatuta, uzten zuela.

Esaldiaren osagaien ordena-aldaketa dela-eta, ohart dezagun, hasteko, zer gertatu den, gaztelaniaz eta euskaraz behinik behin, ahozko moldetik idatzirako ibilbide luzean. Ez dakit zer neurritan aztertu den nola aditzaren koka-pena esaldiaren barnean aldatuz joan den. Izan ere, gaztelaniaz nahiz euskaraz, gramatikaren arauak askatasun handia uzten dute aditza esaldiaren baitan kokatzeko; eta berdin onartzen dute subjektua – aditza – osagarriak (SAO) ordena zein subjektua – osagarriak – aditza (SOA) ordena. Hala, gaztelaniazko testu zaharretan, askotan ikusten da SOA ordena. Baina, aldi berean, nabarmena da nola, pixkana-pixkana, SAO ordena joan zaion lekua hartuz, erabat nagusitzeraino, gaurko testuetan ageri denez. Aise suma daiteke arrazoiak: errazago irakurtzen da SAO ordena, SOA baino. Hemen ere, ahalegin txikienaren legea agintari.

Antzeko bilakaera gertatzen ari zen euskaraz ere, Bittor Hidakok azaldu duenez bere doktore-tesian (Hidalgo, 1994). Izan ere, SAO ordena ari zen gailentzen pixkana-pixkana. Baina SOA ordenara bihurtuko da ondoren apurka-apurka, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako etenaren ondorioz.

Horretaz jabetzeko, nahikoa da irakurtzea, adibidez, Agirre Asteasukoaren (1742-1823), Mogelen (1745-1804) edo Añibarroren (1748-1830) testuak. Agirre omen da gipuzkerak izan duen idazlerik onenetarikoa; Mogel eta Añibarro, berriaz, bizkaiera idatziaren aitzak. Nabarmena da horien testuetatik (Agirre, 1803; Mogel, 1995; Añibarro, 2001) gaur egungoetara dagoen doinu-aldaketa.

Testu horietako zenbait esaldiren doinua (SAO) arrotza egiten zaigu Hegoaldeko gaurko irakurle askori: arrotza edo bigarren doinua. Doinu hau erabiltzen dugu hizketan, irakurtzen testu zaharretan eta gaurko Iparraldekoetan ere, baina badirudi debeku gaizto batek eragozten digula idatziz erabiltzea.

Nola irten zulo honetatik?

Arantzazuko biltzarra, 1968: Koldo Mitxelenaren txostena

Dena ez zen, ordea, atzerapausoa izan. Izan ere, 1968an egin zuen Euskaltzaindiak, Arantzazun, biltzar gogoangarri hura. Patxi Altunaren hitzetan (Altuna, 1972: 93):

Nik [...] haxe bakarra esango dut [Arantzazuko 1968ko biltzarra dela-eta]: Arantzazun euskara idatziari mugarria jarri zitzaioela, zuzena ala okerra; euskara idatziaren lehena eta geroa bereizten eta narbarmentzen dituen mugarria.

Eta, hain zuzen, biltzar horretarako idatzi zuen Koldo Mitxelena, Euskaltzaindiak hala eskatuta, «Euskararen batasun bidean» (Arantzazuko txostena), (Mitxelena, 1988c). Oinarri-oinarrizkoa izan zen txostena. Eta, gaurko begiz irakurrita, harridura sortzen du. Hain da sakona!

Txostenak sei atal ditu: I) Oinarriak. Zer batasun bila gabiltzan, II) Ortografiaz, III) Hitzen formaz. Antzinako euskal hitzak, IV) Hitz berriak, V) Morfologia eta VI) Joskera.

Badirudi, gutxi edo asko, ibilia dugula, edo urratua behinik behin, lehen bost ataletan markatutako bidea. Seigarrenak markatutakoa ibiltzen hasi besterik ez dugu egin, ordea.

Ondo poliki eta arretaz irakurtzekoak dira seigarren ataleko bederatzir puntuak, ohartzeko zertaz ari zen Mitxelena joskeraz ari zenean –gramatikataz haratago– eta zer proposatzen zuen: lege zaharrei eta tradizioari eustea ahalaginean, mendebaldeko eta nazioarteko prosa-moldea onartzea eta bide horretatik aurrera egitea. Azkenik dio, bederatzigarren puntuan amaitzeko, Kanten hegaztiarena gozotan:

Hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko gateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar izkutua nabarmenduaz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuaz, hizkuntza menderatu, hizkuntz-legeen lokarriak eta trabak, airea hegaztiarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur daitezten.

1.3. Herri-prosaren ekarpena

Testuinguru zabal horretan kokatu behar da, eragilea izatea nahi badugu, herri-prosaren ekarpena. Hemen, hiru ekarpen besterik ez ditugu aipatuko.

Testualitatea juzgatzeko irizpidea

Euskal idatzi batek funtzionatzen ez duenean (nekez irakurtzen denean), badakigu zergatik izaten den normalean: ez dituelako testu on baten (testuali-

tatearen) legeak betetzen. Edo gaizki lotuta dituelako esaldiak, edo desegoki ordenatuta dituelako esaldietako hitzak; edo biak batera.

Badakigu, gainera, akats horiek areagotu egin direla euskal prosan, Villasantek zorrotz salatutako etenaz geroztik, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran eragindako urraduraz; hain zuzen, testu-antolatzaileen murrizketa eta hitz-ordenaren aldaketa direla medio.

Baina murrizketa eta aldaketa horiek idatzirako eman ziren eta idatzian (izan) dute eragina. Eta are ondorio nabarmenagoak (izan) dituzte, esaldi luzeetara-eta aplikatzen diren neurrian. Idatzi askok ez dituzte testualitatearen legeak betetzen, eta esaldiak bitan irakurri behar izaten dira: lehenengo irakurraldian, nola irakurri behar diren ohartzeko; eta bigarrenean, behar bezala irakurriz esanahiaz egoki jabetzeko. Ahozko komunikazioak, ordea, lehenengo bidetik jarraitu zuen; bestalde, esaldiak luzatzeko eta tartekiaz hornitzeko pretentsiorik gabe.

Horrela, areagotu egin zen idatziaren eta ahozkoaren arteko berezko aldeak; belarritz jasotzen baitira ahozko testuak; begiz, idatziak (isilik irakurtzen diren neurrian). Kontuan izan behar da, izan ere, idatziak ahoz gora irakurtzeko egiten zirela lehen; eta pixkana-pixkana joan zela irakurketa isilduz; beraz, apurka-apurka joan dela begia belarriaren egitekoa hartuz.

Ezin izan daiteke neurrigabekoa, ordea, belarriaren (ahozko euskararen) eta begiaren (euskara idatziaren) arteko aldentzea, nahi ez bada behintzat ezina bihurtzea idatziaren bidezko komunikazioa.

Testuinguru honetan, esanahi beteak hartzen dute Antonio Zavalaren hitzek. Bai gaurko euskal prosaren gaitza salatzen dutenek —«Batetik [ahozko euskaratik] bestera [euskara idatzira] tarte geiegi dago...»—; bai zer egin esaten dutenek —«[Euskara idatzia eta ahozkoa] alkarrengana urbildu-premia dago...; ori egitera, gure izkuntzak eta literaturak mesede lukete...»—.

Eta hobeto ulertzen dira beste honako hauek ere (2000a: 44-45):

Nuestro idioma [...], en su búsqueda de una prosa que sea un expedito cauce de comunicación, [...] la halla aquí de golpe [herri-prosan, alegia], al haber pasado al plano escrito los recursos del cotidiano comercio oral del pueblo.

Izan ere, azken batean, testualitatearen irizpidea dakarkio herri-prosak euskal prosa orokorrari: ekarpen oharkabeko bezain baliotsua. Irakurlearen ikuspegitik, «lehen kolpean ulertzean» gauzatzen den irizpidea. Eta idazlearenetik, «belarriaren arabera idaztean» (Esnal, 1991):

Jar gaitezen belarriaren esanetara. Belarriak gida gaitzala idazlanetan. Eta zuzenketan. Begien menpekoegi idazten ohitu gara [...]. Itzul gaitezen belarrira.

SOA prosa-moldea

Herri-prosaren sena berdin gauzatzen da SOA ordenako nahiz SAO ordenako esaldietan.

Auspoa bildumako liburuetan, askoz ere ugariagoa da SOA prosa-moldea, ia gehienak baitaude gipuzkeraz (eta bizkaieraz) idatzita. Baina harrigarria da nola, nahiz eta berez irakurgaitzagoa izan beharko lukeen SOA ordenaz gauzatutako idatziak, oso irakurteraza egiten zaigun. Batez ere, hitz-kate txikiak erabiltzen dituelako.

Gaur egun, ia erabatekoa denean SOA ordenaren nagusigoa euskal prosa orokorrean, herri-prosan dute idazleek eredu egokia, nahiz eta horrek hitz-kate txikiagoak erabiltzera eramán.

SAO prosa-moldea

Alabaina, SAO prosa-moldea ere aurkitzen dugu Auspoako testuetan. Iparraldeko idazleetan, batik bat. Esaterako, Mari Treku honela hasten da kontatzen Mattin senarraren bizitza (Treku, 1982: 15):

1916-an, Urriaren hamekan sortu zen Mattin Ahetzekoa, Harrieta laborari etxean.

Bazituen bi arreba, Mari Terexa eta Mari Luixa. Biak ezkonduak dira aspaldian.

Burrasoak, Pantxoa aitak eta amak Mayi Jeanne, hauek ere zenduak orai.

Zonbeit urte etxe hortan iraganik, Mattinen burrasoek deliberatu zuten joaitea handik berrehun metra urruntxago, aitonak erosi etxe tiki batetarat, Kaxandegia deitzen dena.

Batez ere, esaldi luzeetan —«Mattinen burrasoek deliberatu zuten joaitea handik berrehun metra urruntxago»— topo egingo dugu SAO ordenarekin, nahiz eta horietara soilik mugatu ez.

Baina, Hegoaldeko herri-idazleek ere erabiltzen dute «bigarren doinua», hauek ere esaldi luzeetan batik bat. Adibidez, honela hasten du Sebastian Salaberriak *Neronek tirako nizkin* autobiografia (Salaverria, 1964: 9):

Ni mundu ontara sortu nintzan Abenduaren 26-an, 1915-garren urtean, gaubeko amabietan, Oiartzun-go partean dagoan Elbitxuri izena duan baserrian.

Baina hauetan ere ez da arrotza bigarren doinua esaldi laburretan. Hala dio aurrerago (13. or.):

Gure familian izan gera zortzi anai ta bi arreba.

Dena den, beti oso gertu sumatzen dugu ahozkoaren oihartzuna (33):

Nagusi ari gustatzen zitzayon iya jai-arratsaldero pasiatzera joatea, eta bere amets guztia izaten zan ardo-puska bat edan eta gero mutur-joka ibiltzea. Iñoiz etorri izan zan etxera arpegia markatuta, bañan oso gustora gizona. Astelenean jarduten zan neri esaten igandeko goraberek, eta beti pantasi ori izaten zuan, esanez:

–Atzo eman zizkat alakori ederrak, neronek ere artu nizkian baña!

Funtsezkoa dugu, ordea, gauzak ez nahastea. Esaterako, *Marijane konta zan* liburuan dugu nahasmenduaren adibiderik nabarmenena (Minaberry, 1998). Izan ere, bi bertsiotan datoz liburuan Marijane Minaberryk idatzitako herri-ipuinak: eskuineko orrialdeetan, egileak idatzi bezala; eta ezkerrekoetan, Juan Kruz Igerabidek egokitu bezala. Baina aurkezpenean esaten zaigu: «Ipui-na eskuin aldeko orrian doa idazlearen euskalkian. Eta ezkerrekoan, aldiz, euskara batuan, Juan Kruz Igerabidek egokiturik» (9. or.). Egia da: egokipen-lana egina du Igerabide idazle finak. Baina, egilearen euskalkitik batura aldatu ez ezik, doinua ere aldatu die hainbat esaldiri, jatorrizko SAO ordena SOA bihurtuz, hain zuzen. Hala, lehen ipuinaren lehen esaldian, dio Minaberryk (11. or.): «Izar Xuri emana zioten izena, kopetan bazuelakotz ile xuri puxtuka bat». Eta Igerabidek (10. or.): «Izar Xuri emana zioten izena, kopetan ile xerlo zuri bat zuelako». Irizpideak irizpide, doinu-aldaketak ez du zerikusirik euskara batuarekin. Ez dezagun orain euskara batuaren izenean egin, arren!, lehen garbizaletasunaren izenean egindakoa.

2. HERRI-PROSA, BERE ERABILERA-ESPARRUAN

Herri-prosa ez da, ordea, soilik prosa orokorrerako bide eta bitarteko. Ez da, soilik, prosa landuago bat iristeko pasabide. Ez da hor agortzen bere balioa. Berez ere badu balioa. Funtsezkoa, gainera.

Hasteko, egoki-egokia da hainbat zereginetarako, Antonio Zavalak erakutsi duen bezala. Esan dezakegu herri-prosak bere plaza aurkitu duela Zavalaren eskutik: bere berezko plaza. Oinarri-oinarrizkoa.

Baina, horretara mugatu gabe, hara non plaza berria zabaldu dion aro elektronikoak herri-prosari. Plaza liluragarria. Eta honetaz ere mintzatuko gara berehala.

2.1. Herri-prosaren berezko eta oinarrizko plaza

Antonio Zavalak berak adierazi digu zein duen herri-prosak berezko plaza, *Neronek tirako nizkin* liburuaren hitzaurrean (Zavala, 1964: 8): «Gure erriko gizonak olako kontaera [Salaberriak nobela honetan kontatzen dituenak bezalako

kontaera] asko dute, eta ayek berrituaz denbora-pasa egoten dira askotan lagun-artean eta etxeko sukaldean». Euskarak (ia soilik) ahozko plaza horri esker iraun du bizirik gaurdaino. Eta hortik zabaldu da, batik bat idatzia esker, gainerako plazetara: eskolara (lehenik, oinarritzko hezkuntzara; gero, ertainetara eta unibertsitatera), lan-mundura, komunikabideetara, administrazioetara...

Bai: plaza apala da herri-prosarena; ahozko euskararena apala den bezalaxe. Baina oinarri-oinarritzko plaza da euskararen berreskurapenerako, Joshua Fishman soziolinguista handiak azpimarratu digunez (Fishman, 1990). Izan ere, familiak eta lagunarte hurbilak osatutako plazan jokatzeko da hizkuntza baten etorkizuna, belaunaldien arteko lotura. Hor irabazi du euskarak gaur arte iraun izana; eta hortxe irabaziko du, irabazten badu, iraupena ziurtatuko dion belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ere. Are gehiago: eskolan, lan-munduan, komunikabideetan eta administrazioan egindako lanak ez du ezer balioko, ez badu etxeko eta lagunarteko euskal giroa elikatzen eta indartzen. Horren jakitun izan behar du hizkuntz politika zuhurrak. Eta hortxe du, hain zuzen, hizkuntz politika orok bere ahuldadea: bera nekezen irits daitekeen gunean jokatzen da hizkuntzaren geroa; edo, bestela esanda, alferrikakoak dira diru-laguntzarik handienak, gunerik merkeenak erantzun ezean. Paradoxa handiagorik!

Kontua ez da gune batzuk soilik –oinarritzko guneak: familia eta lagunarte hurbilak– saritu eta gainerakoak saihestea. Gaur egun, beharrezkoak dira batzuk eta besteak, etengabeko harreman dialektikoan. Baina hori bai: familiari eta lagunarte hurbilari aitortuz lehentasuna. Nahitaezkoak baitira hauek, nahiz eta –gaur egun– nahikoak izan ez.

Horixe da herri-prosaren patua ere. Nahitaezkoa da, nahikoa ez bada ere. Horrela erantzuten diegu, hain zuzen, izenburuko galderei. Zer dugun herri-prosaren alde, eta zer kontra? Nahitaezkoa dela, nahikoa ez bada ere, nahiz eta nahikoa den uste dugun baino egiteko gehiagotarako eta funtsezkoagotarako.

Gehienok, noski, horren guztiaren irakurketa soziologikoa egingo dugu. Baina merezi du irakurketa psikologikoz eta pedagogikoz osatzea. Esaterako, hona hemen zer dioten Ortega y Gassetek (Ortega y Gasset, 2004: 124-125).

... yo creo que imágenes como las de Hércules y Ulises serán eternamente escolares. Gozan de una irradiación inmarcesible, generatriz de inagotables entusiasmos. Un pedagogo practicista despreciará estos mitos y en lugar de tales imágenes fantásticas procurará desde el primer día implantar en el alma del niño ideas exactas de las cosas. «Hechos, nada más que hechos!» [...]. Para mí los hechos deben ser el final de la educación; primero, mitos; sobre todo, mitos. Los hechos no provocan sentimientos. ¿Qué sería, no ya de un niño, sino del hombre más sabio de la tierra si súbitamente fueran aventados de su alma todos los mitos eficaces? El mito, la noble imagen fantástica es una función interna sin la cual la vida psíquica se detendría paralítica. Ciertamente que no nos proporciona una adaptación intelectual a la realidad. El mito no encuentra en el mundo externo su objeto adecuado. Pero, en cambio, suscita en nosotros las corrientes inducidas de

los sentimientos que nutren el pulso vital, mantienen a flote nuestro afán de vivir y aumentan la tensión de los más profundos resortes biológicos. El mito es la hormona psíquica.

Mitoei buruz dihardu Ortégak. Eta, geurera etorriz, beste horrenbeste esan dezakegu ahozko euskaraz eta herri-prosaz ere, arestiko ikuspegi soziologikoa osatuz eta biribilduz, eta ahozko euskararen eta herri-prosaren nahitaezkotasuna are nahitaezkoago eginez. Hitz egin ote daiteke sutsuago?

Baina ez da, ordea, hor amaitzen herri-prosaren egitekoa. Ez baita ahoz-kotasunaren mundura mugatzen.

2.2. Herri-prosaren plaza berria: bigarren ahoz-kotasuna

Ahoz-kotasunaz eta idatziaz ari garela, ezinbestekoa dugu oinarritzko liburu bat, askori begiak zabaldu dizkiguna: Walter J. Ongen *Oralidad y escritura*. Liburu horretakoak dira honako hitzok (Ong, 1987: 12):

Nuestra comprensión de las diferencias entre la oralidad y la escritura nació en la era electrónica, no antes. Los contrastes entre los medios electrónicos de comunicación y la impresión nos han sensibilizado frente a la disparidad anterior entre la escritura y la oralidad. La era electrónica también es la era de la «oralidad secundaria», la oralidad de los teléfonos, la radio y la televisión, que depende de la escritura y la impresión para su existencia.

«Oralidad secundaria» darabil Ongek, komunikabide elektronikoetan erabiltzen den hizkera izendatzeko. Horretaz baliatzen da, adibidez, irratiko eta telebistako hainbat esatari, hizketan ariko baltiz bezala irakurtzen duenean. Azken batean, testu idatzia da, baina esatariak ahoz gora irakurri eta entzuleak belarriaz jasoko duena. Ez da, beraz, isilean irakurriaz jasotzeko idatzia izan den testua; entzunez jasotzeko ondua baizik; edo, bestela esanda, idazleak entzuteko sortzen duen testua.

Lehendik ere ezaguna dugu entzuteko testu idatzia. Zer beste da antzerkietakoa? (Bide batez, merezi du gogoratzea hamaika ale -2, 6, 8, 11, 14, 17, 21, 26, 29, 44 eta 48.a- eskaini zizkiola Auspoak antzerkiari, guztira hogeita bi obra argitaratuz.) Baina, Ongek dioen bezala, komunikabide elektronikoei esker hasi gara ohartzen ahoz-kotasunaren eta idatziaren arteko aldeaz, nahiz eta oraindik ere gai ez garen ondorio guztiak ateratzeko. Besteak beste, idatzia abiapuntutzat hartuta jokutzen dugulako. Ongek berak diosku. Luzea da aipua, baina merezi du osorik aldatzea hona (Ong, 1987: 21-22):

Considerar la tradición oral o una herencia de representación, géneros y estímulos orales como «literatura oral» es algo parecido a pensar en los caballos como automóviles sin ruedas. Desde luego, es posible intentarlo. Imagínese escribiendo un tratado sobre caballos (para la gente que nunca ha visto ninguno) que comience con el concepto, no del caballo, sino de «automóvil», basándose

en la experiencia directa de los lectores con los automóviles. Procede a profundizar sobre los caballos, refiriéndose siempre a ellos como «automóviles sin ruedas»; explica a los lectores muy acostumbrados al automóvil, que nunca han visto un caballo, todos los puntos de diferencia, en un esfuerzo por extirpar toda noción de «automóvil» al concepto «automóvil sin ruedas», a fin de dotar al término de un significado estrictamente equino. En vez de ruedas, los automóviles sin ruedas tienen uñas agrandadas llamadas cascos; en lugar de faros o quizás espejos retrovisores, ojos; a cambio de una capa de laca, algo llamado pelo; en vez de gasolina como combustible, heno; y así sucesivamente. Al final, los caballos sólo se componen de lo que no son. Sin importar cuán precisa y minuciosa sea tal descripción por omisión, los lectores conductores de automóviles que nunca han visto un caballo y que sólo oyen hablar de «automóviles sin ruedas» con seguridad se llevarían un extraño concepto de un caballo. Sucede lo mismo con aquellos que hablan de «literatura oral», es decir, de la «escritura oral». No es posible describir un fenómeno primario comenzando con otro secundario posterior y reducir poco a poco las diferencias sin producir una deformación grave e inoperante. En efecto, haciendo las cosas al revés –colocando el carro delante del caballo–, resulta absolutamente imposible descubrir las verdaderas diferencias.

Gurera, oker ez banabil, Juan Mari Lekuonak ekarri zuen lehenengoz hitz horien oihartzuna, Euskaltzaindian sartzean, «Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz» hitzaldian (Lekuona, 1989). Ekitaldi hartan zegoen Luis Villasante euskaltzainburua ere. Eta Lekuonak esandakoaz baliatu zen gero, Euskaltzaindiak Gernikan estilistikaz egindako jardunaldietan, besteak beste honela mintzatzeko (Villasante, 1991: 607):

Behin baino gehiagotan esan dut prosa egiteko moldea oraindik normaldu gabe eta helgabe, adin batera heldu gabe dugula, alegia, eta ez idazle zahar batzuegan aski zoritua ageri ez delako –zoritua, idazle haiek Etzinalde osoan onartzen zen perpausak muntatzeko moldea, egokitzapen batzuekin, onartu ez zutelako–. Baina, gure artean maiz gertatu diren iraultzekin, erregebide horretatik saihestu egin ginen gero.

Juan Mari Lekuona euskaltzain berri jauna, bere sarrera-hitzaldian, erdi ahozkotasunaren estiloaz mintzatu zitzaigun. Horrek esan nahi du euskal literaturan badagoela, alde batetik, estilo bat zeharo ahozko hizkuntzarena dena; bestetik, hizkuntza idatziarena; eta beste bat, nolabait esan, bien bitartekoa, tartekoa, alegia. Hizkuntza idatziarena, oraintsu esan dugun bezala, ez da bere adin betera heldu oraindik, besteak beste, gure idazle zaharren tradizioa, gehiegizko purismo baten ondorioz, eten egin zelako.

Baina bada hor aldea. Lekuonak, erdi-ahozkoaz mintzatzean, herri-literatur lanak soilik aipatzen ditu; Villasantek, ordea, edozein testu. Hemen, gernikarrari jarraitzen diogu, erdi-ahozkoaz edo bigarren ahozkotasunaz jardutean. Eta esan gabe doa, jakina, erdi-ahozko molde horietakoak direla, besteak beste, herri-prosan idatzitako Auspoa bildumako liburuak. Ikuspegi honetatik, gainera, herri-prosa horren beste ezaugarri batez jabetzen gara: entzunez idatzia da, entzunez ere irakurtzeko.

Hain zuzen, entzunez jaso daitekeelako da molde hori egokia ikus-entzunezko komunikabideetarako. Eta, moldea ez ezik, egokiak dira idatziak berak ere. Ildo horretatik egokitu zuen Joxe Ramon Zubimendik *Txantxangorri kantaria*, Atañoen eleberri ospetsua (Ataño, 1979), Euskadi Irratian irrati-nobela moduan emateko (Zubimendi, 1995).

Urte batzuk lehenago, honako hitz hauekin amaitu nuen «Ahozko euskaratik kazetaritzako euskarara» hitzaldia, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak antolatuko Euskal kazetarien jardunaldietan (Esnal, 1991: 40):

Eta lan honi ezin bukaera egokiagorik eman, liturgi euskaratzaile talde horretan [Elizbarruti Arteko Liturgi Euskaratzaile Taldean, alegia] erabilitako lan-modua aipatuz baino. Ba omen zen taldean lagun bat, beti zutik lan egiten zuena. Besteak eserita arituko ziren lanean, paperak irakurri eta zuzendu; lagun hau, berriz, zutik. Besteak altuan irakurri eta honek belarritz epaitu lana; lana epaitu eta testua landu. Emaizta begien bistan dago: belarriaren arabera moldatutako testu bikaina, aho-idatzizko euskararen eredu paregabea. Asmatuko bagenu kazetaritzan beste hainbeste egiten!

Gaur, puntu hau amaitzeko, liturgiako testuak ontzen zutik lan egiten zuen lagunaren izena emango dut: Joxe Mari Aranalde. Horrenbeste zor diogu, noski, Herri Literatura batzordean lankide jatorra eta leiala izandakoari.

III. ONDORIO MODUAN

Azkenik, oso labur bada ere, merezi du, batetik, biltzea Antonio Zavalaren obrari buruz herri-prosaren ikuspegitik esandakoa eta, bestetik, azaltzea herri-prosaren esparruan egiteko duguna.

1. ANTONIO ZAVALA: HERRI-PROSAREN AITA

Ez dut uste gehiegizkoa denik Antonio Zavalari «herri-prosaren aita zabal» deitzea. Izenburu hori jarri nion artikulu bati. Eta orain egoki datorkit hango pasarte bat, lan honetan esandakoa laburbiltzeko (Esnal, 1999: 100-101):

Funtsean, molde bereko prosa da idazle horiena [Auspoa bilduman idatzi dutenena], nahiz eta azal ezberdineko izan, euskalkien arabera. Behartu gabeko prosa, ahozko jarriotik oso gertukoa. Herri-prosa. Ortografiaz ez da batua izango, baina muinaz bai. Are gehiago: formaz euskara batuan idatzitako zenbait idatzi baino batuagoa da. Euskalduna baitu muina. Eta, hori gutxi balitz, ereduazko prosa dugu, gainera: hau da, idatzi batek testu izateko bete behar dituen baldintzak betetzen dituen. Barne-koherentziaren jabe da: esaldiak elkarrekin egoki josita dituelarik, eta hitz-kateak behar bezala antolatuta.

Beraz, badugu, bai, euskaraz idazteko molde bat; heldua eta umotua, Antonio Zavalak erakutsi digun bezala. Ez dela nahikoa? Konforme. Itzulpenetarako-

-eta beste molde bat ere garatu behar dugula, nazioarteko prosa-moldearen araberakoa? Konforme. Baina horrek ez gaitu, noski, daukaguna gutxiestera eraman behar. Are gutxiago, hainbat alorretarako egokiagorik aurkituko ez dugunean; esaterako, irrati, telebista eta ahozko jardunetarako. Izan ere, hain ulergaitz egingo ote litzaiguke komunikabideetako zenbait saio, ahozkotasanaren legeak beteko babilitu?

Bai. Badugu euskal herri-prosa, Antonio Zavalak bere AUSPOA liburu-saillean eskuzabalez bildua eta maitasun handiz zaindu eta ondua. Bertsolaritzak zor izugarria diola tolosarrari? Ez dio txikiagoa herri-prosak. Bera baitu aita zabala. Bera ari baitzaigu AUSPOA altxor paregabea osatzen.

Horregatik, Pello Zabaleta poetaren hitzak errepikatuz amaituko dut. Joxerra Garziak dakartza, Pelloren *Bigarren bizia* liburuaren azkenaldean (841. or.): 'AUSPOA irakurri gabe ez lukeela inork euskaraz ezer idatzi behar'. Eta kito.

2. EGINKIZUNAK HERRI-PROSAREN ARLOAN

Azken batean, bost ardatzen inguruan bil genezake, labur-labur, herri-prosaren arloan eginkizun duguna.

Orain arte egindakoa bildu

Herri-prosan idatzitako asko dago Auspoa bildumetan plazaratua. Baina ez dena. Eta horixe dugu lehenengo lana: ahalik eta gehien biltzea; edo, bestela esanda, herri-prosan idatzitakoaren inbentarioa egitea.

Orain arte egindakoa osatu

Baina ez da agortu herri-prosaren ekoizpena.

Batetik, oraindik ere bada euskaldunik «euskaraz soilik pentsatzen» eta «idatziaren eraginik gabe» idazten duenik. Esan gabe doa zeinen garrantzizkoa den horien ekoizpenak jasotzea, dela beraien hitzezko jarduna jaso, dela beraiek idazten jarritz.

Azaldu dugunez, Zavalak argitaratutako herri-prosa, batik bat, gipuzke-raz idatzia da. Mereziko luke beste euskalkietako ekarritz ahalik eta gehien osatzea.

Lan horietan jardun duenak badaki batzuetan ez dela erraza izaten, dena delakoagatik, hiztunen jarduna jasotzen. Askoz ere zailagoa da, jakina, apenas idatzi duena idazten jartzen. Eta beti geldituko da ondorengo lana eginkizun: lehenengoen esanak transkribatu eta idaztea, eta bigarrenengoen idatziak orraztea.

Bestetik, merezi du *herri-prosa* kontzeptua zabaltzea, eta bigarren ahoz-kotasunaren arloan idatzia ere jasotzea, ahal eta komeni den neurrian.

Egindakoa zabaldu

Lanak ez dira amaitzen, ordea, herri-prosan ekoiztua bildu eta osatzean. Zer balio du biltzeak, ez bada bildutakoa plazaratzen?

Gaur egun, bestalde, inoiz baino erraztasun handiagoak ditugu ekoizpe-nak plazaratzeko, Interneti esker.

Aztertu

Ia dena eginkizun dago arlo honetan. Izan ere, herri-prosa apenas ezer az-tertu dugun prosa den aldetik. Eta badago zer aztertua. Hasteko, euskal tradi-zioaz jabetzeko. Eta, horretaz gain, bigarren ahoz-kotasuna eta prosa orokorra elikatzeke. Esaterako, ba ote da euskal libururik modalizazioa (Elosegi, Esnal, 2004) Manuel Lasarteren *Plaza-gizonak* argitaratu berriak bezain oparo erabi-li duenik (Lasarte, 2005)?

Erabili

Aurreko lau egiteko horiek gaizki ulertuko genituzke, herri-prosaren era-bilera areagotu ezean. Aurreratu dugunez, gainera, plaza berri bat zabaldu di-gute komunikabide ikus-entzunezkoek.

Komunikabide horien eskutik berreskura eta indar dezakegu, bestalde, *bi-garren doinua* deitu duguna.

ERANSKINA

Galdegaiaz

Oso labur jardungo dut hemen galdegaiaz. Laburregi: hamalau puntu soi-letan. Hala ere, argigarri gerta dakioke norbaiti. Beste baterako geratzen da azalpen beteagoa; besteak beste, hitzaldi honetako zenbait oihartzun jasoz.

1. Galdegaiaren gaia ez dagokio gramatikari. Lehenik eta behin, horixe esan behar da galdegaiari buruz. «Ni izan naiz Donostian» edo «Ni Donostian izan naiz», biak dira zuzenak: bata bezain zuzena da bes-tea, bata bezain gramatikala.

Horrek ez du esan nahi, noski, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak ezin dezakeela hitz egin galdegaiaz. Baina gauzak garbi utzita: galdegaia ez da gramatikaren gaia.

2. Hain zuzen, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordearen lanak (Euskaltzaindia, 1987, 1991, 1993) lagun diezaguke galdegaiaren auzia behin betiko egoki bideratzen. Iruzkina hanpatua besterik ez da galdegaia.
3. Funtsezkoa da bereiztea iruzkina eta iruzkin hanpatua (edo galdegaia). Azken batean, galdera bati erantzuten dio iruzkin hanpatuak edo galdegaia; ez, ordea, iruzkin soilak.
4. Altubek, hain zuzen, ezin hobeto adierazi zuen zer den galdegaia, *Erderismos* liburuaren hasiera-hasieran (Altube, 1975).
Baina, tamalez, labaindu egin zen geroxeago. Ia hasieran bertan lerratu zen, bi kontzeptu nahastuz: iruzkina eta iruzkin hanpatua; edo, nahi bada, iruzkin soilak eta galdegaia.
Eta, Altuberen ondoren, askok eta askoz nahastu ditugu biak. Eta uste izan dugu (ia) esaldi guztietan dagoela galdegaia, noiz eta gutxitan erabiltzen denean (horrexegatik: hanpatua delako). Eta hori berdin gertatzen da euskaraz zein erdaraz.
5. Formaz, doinuaren edo intonazioaren nabarmentzen da iruzkin soilaren eta galdegaiaren arteko aldea, eta horretan soilik.
6. Berez, berdin joan daiteke iruzkina (soila nahiz hanpatua izan) aditzaren aurrean zein atzean (baiezko esaldietara mugatuko naiz, gauzak erraztearren). Kokapenak ez du berez hanpadura adierazten (ezta hanpadurak kokapen berezia eskatzen ere esaldiaren baitan).
7. Hizketan, ahoz, bi ordenak erabiltzen dira euskalki guztietan.
8. Ahozkotik idatzira pasatzean, bi ordenak eman dira euskalki guztietan. Harik eta...
9. Harik eta, joan den mendearen hasieran, etena etorri zen arte.

Luis Villasantek inork baino zorrotzago salatu du etena; erantsiz, gainera, Hegoaldean gertatu zela, baina ez Iparraldean.

Etena, baitik bat, «galdegaiaren legea»k eragin zuen.

Bittor Hildagoren esanetan, ordu arte nagusi izandako hitz-ordena (SAO: subjektua, aditza, osagarria edo iruzkina; iruzkin soilak nahiz galdegaia) irauli egin zen, SOA bilakatu zelarik.

Bide batez, hobe genuke terminologia egokitzea, gauzak eta mailak ez nahastearren. Hala, *subjektua* eta *osagarria* erabiliko genituzke kategoria gramatikalak adierazteko soilik; eta *mintzagaia* eta *iruzkina*, kategoria testualak izendatzeko.

10. Gauzak horrela –etena sakoneraino eraginda, iruzkin soila eta hanpatua bereizi ezinik eta «galdegaia»ren legea muinetaraino sartuta–, nola bideratu auzia?
11. Ezer baino lehen, funtsezkoa da gauzak argi izatea, teorian gutxienez. Kontuan izatea, lehenik, galdegaia ez dela gramatikaren esparrukoa; bigarrenik, ez direla iruzkina eta iruzkin hanpatua nahastu behar; eta, hirugarrenik, intonazioak bereizten dituela formaz bi iruzkinak, eta ez esaldiaren baitako kokapenak.
Horrekin batera, ez dut uste euskara batua hitz-ordena jakin batekin identifikatu behar denik.
12. Bi ordenak onartu ez ezik, SAO ordena indartzen hasi beharko litzateke.
Ordena hori berreskuratzen hasia dago, beharrak eraginda. Hala, gero eta zabalagoa da ordena hori definizioetan-eta. *IVAPeko estilo-liburua* da horren lekuko (IVAP, 2005: 145-146). Ildo beretik, «esatezko aditzekin, osagarria ondoren» proposatzen du *Euskaldunon Egunkaria*-ren *Estilo liburua*-k, aditz horiek zerrendatuz: *esan, adierazi, jakinarazi, eskatu, pentsatu, uste izan...* (*Egunkaria*, 2001: 34-35). Baina bada besterik ere (Esnal, 2004: 60-61).
13. Azken batean, erabilerak berak lagunduko digu arazoa bideratzen, ikus-entzunezko komunikabideena lehenengo dela.
14. Dena den, zuhur jokatu beharra dago. Ikonoklasta izatea mesedegarri izan daiteke; piromanoa izatea ez.

AIPUAK ETA BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Juan Bautista (1803): *Confesioco eta comunioco Sacramentuen ganean eracusaldiak*.
- ALBERDI, Xabier; SARASOLA, Ibon (2001): *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- ALTUBE, Sebero (1975): *Erderismos*. Bilbo, Indauchu.
- ALTUNA, Patxi (1972): «Euskararen batasun bideak», in *Mitxelenaren idazlan hautatuak*. Bilbao, Ediciones Mensajero: Gero: 93-94.
- (1988): «Aurkezpena», in Mitxelena, Koldo: *Euskal idazlan guztiak I: Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak*. Euskal Editoreen Elkartea: Klasikoak, 21: 11-33. [Aurkezpen bera dute 22. eta 23. zenbakiek ere.]

- AÑIBARRO, Pedro Antonio (2001): *Gueroco guero*. Bilbao, Euskaltzaindia: Euskararen lekukoak, 22.
- APALATEGUI, Francisco (2005): *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak. Relatos de guerra de carlistas y liberales*. Donostia, Auspoa, Gipuzkoa-ko Foru Aldundia. [Bi liburuki: Auspoa, 292, 293.]
- ARRASATE, Manu (1992): *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*. EITB.
- ATAÑO, Salvador Zapiain (1979): *Txantxangorri kantaria*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 137-138.
- AZURMENDI, Joxe (1976): *Zer dugu Orixeren kontra*. Arantzazu-Oñati, Jakin.
- (1977): *Zer dugu Orixeren alde*. Arantzazu-Oñati, Jakin.
- BRONCKART, Jean-Paul (1993): *Hizkuntzaren zientziak: irakaskuntzarako desafioa?* Donostia, HABE: Itzulpen Saila, 33. [Jatorrizkoa: *Les sciences du langage: un défi pour l'enseignement?* Paris, Unesco - Delachaux & Niestlé, 1985. Gaztelaniaz: *Las ciencias del lenguaje: ¿un desafío para la enseñanza?* París, Unesco, 1985.]
- CANALE, Morris (1983): «De la competencia comunicativa a la pedagogía comunicativa del lenguaje», in Varios autores (1995): *Competencia comunicativa. Documentos básicos en la enseñanza de lenguas extranjeras*. Madrid, Edelsa.
- CANALE, Morris; SWAIN, Merrill (1980): «Fundamentos teóricos de los enfoques comunicativos. La enseñanza y la evaluación de una segunda lengua», in Signos, 17 (1996): 54-62 eta 18 (1996): 78-89.
- EGUNKARIA (1992): *Estilo liburua*. Donostia, Egunkaria.
- (1995): *Estilo liburua*. Andoain, Egunkaria.
- (2001): *Estilo liburua*. Andoain, Egunkaria.
- ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio (1963): *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 32.
- ELOSEGI, Lourdes; ESNAL, Pello (2004): «Modalizazioa», in *Hizpide*, 57: 99-107.
- ESNAL, Pello (1991): «Ahozko euskaratik kazetaritzako euskarara», in *Euskal kazetarien jardunaldiak*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: 27-40.
- (1999): «Herri prosaren aita zabala», in *Bertsolari*, 34: 100-101.
- (2002): «Testu-antolatzaileak», in *Hizpide*, 50: 25-36.

- (2003): «Hitzaurrea», in *Loiolako San Ignazioren Gogojardunak* (Patxi Altunaren itzulpena). Bilbo, Klasikoak.
- (2004): «Egokitasuna hizkuntzaren erabileran: oinarrizkoak», in *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran. VIII. Jardunaldiak*. Bilbao, Mendebalde Kultura Alkartea: 39-63.
- EUSKALTZAINDIA (1987): «Hitz ordena», in *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I (Eranskina)*. Bilbo, Euskaltzaindia: 19-46. Bigarren argitalpena: EUSKALTZAINDIA (1991): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo, Euskaltzaindia: 355-379.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (1990): *Euskal Gramatika. Lehen urratsak – III (Lokailuak)*. Bilbo, Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (1993): «Osagarrien ordena perpausaren barnean: mintzagai hanpatua eta galdegaia», in *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo, Euskaltzaindia: 22-31.
- EUSKERA (1956): «Euskaltzaleen biltzarra, Euskaltzaindiaren itzalpean», in *Euskera*, 1: 163-304.
- FISCHMAN, Joshua (1990): «What is reversing language shif (RLS) an how can it suceed?», in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 11: 5-36. [Laburpena: Txillardegi: «Hizkuntzaren berreskurapena Fishmanen arabera», in BAT. Soziolingusitika aldizkaria, 6 (1992): 115-122.]
- GARZIA, Joxerra (1995): «Pello: zabal eta sakon», in Zabaleta, Pello: *Bigarren bizia. La vida paralela (1964-1992)*. Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea: 835-855.
- (2001): «Antonio Zavalari elkarrizketa», in *Jakin*, 126: 73-94.
- GARZIA, Juan (1997): *Joskera lantegi*. Gasteiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa: IVAP.
- HIDALGO, Victor (1994): *Hitzen ordena euskaraz*. S.l., s.n. [EHUko dokto-rego-tesia]
- (1996a): «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean», in *Zutabe*, 35: 39-51.
- (1996b): «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II). Euskararen hitz-ordena libre», in *Zutabe*, 36: 21-27.
- (1996c): «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (III). Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran», in *Zutabe*, 37: 23-31.
- (1998): «Baina, zer da euskal joskera», in *Administrazioa euskaraz*, 21: 18-19.

- (2000a): «‘Galdegai’ bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez. Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (I)», in *Uztaro* 33: 43-85.
- (2000b): «Informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren ordenamendu eta informazio-egituraren aukerak eta eraginak. Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (II)», in *Uztaro* 34: 39-85.
- (2002): «Hitzen ordena esaldian», in *Senez*, 25: 75-109.
- IRAOLA, Bitoriano (1961): *OROITZAK eta beste ipuin asko*. Tolosa, Auspoa: Auspoa, 9.
- IRIGOYEN, Alfonso (1980): «Severo Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak», in *Euskera*, 25: 325-353.
- IVAP (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) (1994): *Hizkera argiaren bi-detik*. Gasteiz, IVAP.
- (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) (1997): *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. Gasteiz, IVAP.
- (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) (2003): *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez*. Gasteiz, IVAP.
- (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) (2005): *IVAPeko estilo-liburua*. Gasteiz, IVAP.
- KALTZAKORTA, Mitxel (2003): «Galdegai-lekua testu hastapenetan (I)», in *Hizpide*, 54: 39-56.
- (2004a): «Galdegai-lekua testu hastapenetan (eta II)», in *Hizpide*, 55: 43-59.
- (2004b): «Galdegai-lekua testu osoetan (I)», in *Hizpide*, 56: 61-79.
- LASARTE, Manuel (2005): *Plaza-gizonak*. Donostia, Gipuzkoako Foru Al-
dundia: Auspoa, 294.
- LEKUONA, Juan Mari (1989): «Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz», in *Euskera*, 34: 17-44.
- MINABERRY, Marijane (1998): *Marijane konta zan*. Donostia, Elkarlanean.
- MITXELENA, Koldo (1988a): «Orixeren heriotzean», in Mitxelena, Koldo: *Euskal idazlan guztiak V: Literaturaren inguruan I*. Euskal Editoreen El-
kartea: Klasikoak, 25, 117-124.
- (1988b): «Galdegai eta mintzagaia euskaraz», in Mitxelena, Koldo: *Eus-
kal idazlan guztiak VI: Hizkuntzalaritzaz I*. Euskal Editoreen Elkar-
teea: Klasikoak, 26: 137-167.

- (1988c): «Euskararen batasun bideak», in Mitxelena, Koldo: *Euskal idazlan guztiak VII: Hizkuntzalaritzaz II*. Euskal Editoreen Elkarte: Klasiakoak, 27: 135-153.
- MOGEL, Juan Antonio (1995): *Ipuinak*. Labayru Ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa, Eibarko Udala: Ego Ibarra Batzordea, Markina-Xemeingo Udala.
- ONG, Walter J. (1987): *Oralidad y escritura*. México, Fondo de Cultura Económica.
- ORMAECHEA, Nicolás [«Orixe»] (1918): «Acento vasco», in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, IX: 1-15.
- ORTEGA Y GASSET, José (2004): *Misión de la Universidad*. Madrid, Revista de Occidente en Alianza Editorial [bosgarren argitalpena, editorial honetan; jatorrizkoa 1930ekoa da].
- OSA, Eusebio (1990): *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Leioa, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- SALAVERRIA, Sebastian (1964): *Neronek tirako nizkin*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 38.
- TREKU, Mari (1982): *Mattin, nere gizona*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 158.
- URRUZUNO, Pedro Miguel (1961): *Euskalerritik zerura ta beste ipui batzuk*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 5.
- (1965a): *Iru ziri (ipui eta bertso)*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 47.
- (1965b): *Ur-zale baten ipuiak*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 51.
- (1973): *Sasiletrau baten ziriak*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 113.
- UZTAPIDE, Manuel Olaizola (1975): *Lengo egunak gogoan*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa berdea [bi liburuki].
- (2001): *Berriz plazara*. Oiartzun, Sendoa: Auspoaren Sail Nagusia, 11-12 [bi liburuki].
- VILLASANTE, Luis (1975): «Hitzaurre gisa», in Altube, Sebero: *Erderismos*, V-XII.
- (1976): «Seigarren edizioari aitzinsolasa», in Axular, Pedro: *Gero*, IX-XXXIV.
- (1988): *Euskararen auziaz*. S.I., s.n. «Luis Eleizalde» saila, 9.
- (1991): «Gernikako Euskal Jaiei (1988) oroitzapenetan estilistikaz lehen Jardunaldiak. Euskaltzainburuaren agurra», in *Euskera*, 36: 603-607.

- ZAVALA, Antonio (1956): «Bertso berri billa Euskalerria zear», in *Euskera* 1: 233-245.
- (1962): *Txirrita (Bizitza eta bat-bateko bertsoak)*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 18-19.
- (1964): «Itzaurrea», in Salaverria Sebastian: *Neronek tirako nizkin*. Tolosa, Auspoa Liburutegia: Auspoa, 38.
- (1993): *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I)*. Oiartzun, Sendoa: Auspoaren Sail Nagusia, 6.
- (1994): «Itzaurrea», in Salaberria Sebastian: *Neronek tirako nizkin*. Oiartzun, Sendoa : Auspoa, 38 [bigarren argitalpena].
- (1996): *Auspoaren auspoa I*. Oiartzun, Sendoa: Auspoa, 238.
- (1999): *Auspoaren auspoa III*. Oiartzun, Sendoa: Auspoa, 262.
- (2000a): «Doktore berriaren hitzaldia, *Honoris causa* doktore izendapean», in Zenbaiten artean: *Antonio Zavalaren ohoretan*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbao: 31-46.
- (2000b): «Buru atzera jiratuta edo liburu sail baten gorabeerak eta gozomikatzak», in Zenbaiten artean: *Antonio Zavalaren ohoretan*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbao: 113-126.
- (2005): «Urruzuno idazle», in Urruzuno, Pedro Migel: *Koroi eder bat*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia: Auspoa, 291: 26-38.
- (2006): *Auspoaren auspoa IV*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia: Auspoa, 300 [argitaratzear].
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon (1995): *Txantxangorri kantaria*. Donostia, HABE / Euskadi Irratia: Antzoki Iluna, 18.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

JAGON SAILA

**IX. JAGON JARDUNALDIAK: «ELIZA ETA EUSKARA
BILBOKO ETA DONOSTIAKO ELIZBARRUTIETAN»**

Bilbo, egoitza, 2005-XII-16

JAGON IX. JARDUNALDIAK

Aurkezpena

*Andres Iñigo,
Jagon sailburua*

Euskaltzaindiak bere betebehar nagusiak bideratu ahal izateko bi atal ditu, *Iker* eta *Jagon* Sailak. Euskara ikertzea dagokio lehendabizikoari eta jagotea edo zaintzea bigarrenari. Bigarren honek, *Jagon* Sailak alegia, euskararen erabilera zertan dagoen ikustea eta aztertzea du helburuetako bat. Gauza jakina da Eliza euskararen euskarri izan dela mendeetan zehar eta bere eragina erabakigarria gure hizkuntzaren erabileran.



Baina garaia aldatzen dira eta garaiekin batera egoerak. Horregatik, *Jagon* Saileko Sustapen batzordeak, egoera hori hurbiletik ezagutu nahian, komenigarri jo zuen gaur den eguneko errealitateari pultsua hartzea, euskararen erabileraren termometroan merkurioa nontsu kokatzen den ikustea.

Andres Urrutia orduko *Jagon* sailburuak lehenengo Jardunaldien aurkezpenean zioen Iparraldeko *Herria* astekarian agertutako albistea izan zela, besteak beste, gai hau garatzera bultzatu zuena. Zer zela eta? Albiste horren arabera kezka nagusia sortzen ari zen Elizaren zereginetan euskararen erabilera maldan behera zihoalako, euskararen betiko euskarria zalantzan eta kinka larrian jartzen ari zelako.

Euskal Herri osoko ikuspegia izan nahi eta egitaraua hiruzpalau urtez garatzea pentsatu zen. Euskal Herria bat izanik, hiru lurralde administratibotan zatitua baldin badago, oraindik zatituago dago eliz administrazioan, zortzi elizbarrutitan alegia: 3 Iparraldean (Baiona, Leskar eta Oloroe); 2 Nafarroan (Iruñea eta Tuteran); 3 Euskal Autonomia Erkidegoan (Gasteiz, Bilbo eta Donostia).

Gure ibilbide honek 2002an izan zuen hasiera. Hendaian egindako Jardunaldietan azaldu zen Iparraldeko hiru elizbarrutietako egoera, 2003an Irunberrin aurkeztu zen Nafarroako bi elizbarrutietako azterketa sakona, 2004an Gasteizen izan genuen bertako elizbarruti historikoarena eta gaur amaiera emateko Bilbo eta Donostiako elizbarrutietako ordezkari bana dugu hemen. Eskerrak eman nahi dizkiegu bere kolaborazioagatik eta, besterik gabe, hitza eman.

EUSKARAREN ERABILERA BIZKAIKO ELIZAN: IRIZPIDE NAGUSIAK

A. M. Unzueta Zamalloa

ABIAPUNTUKO OHARRAK

1. Eliza gizon-emakume boluntarioz bildutako elkartea da. Sarrera dohain da eta, sartzean, eliztarra eskubideen jabe egiten da. Hauen artean, fedea areagotzeko behar diren laguntzak (formazioa eta sakramentuak batez ere) daude. Fededun bakoitzak laguntzok bere hizkuntzan hartzeko eskubidea osoa du, beraz, hizkuntza guztiak baitira ofizialak Elizan Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren. Aniztasuna dagoenean, denen artean landu eta berriztatu behar dira bideak, elkar konbentzitu, nekez dekretuz.

2. Helburuak zehazten du Elizaren izana. Nortasuna eta zeregina bat bera dira, beraz. Elizaren izana eta zeregina ebanjelizatzea da, hau da, Jesukristoren berri ematea hitzez eta egitez. Horregatik, ebanjelizatzean izan behar du oinarria edozein erabakik (hizkuntzaren erabilerari buruzkoak ere bai).

3. Euskararen zabalkundea dela eta, elizbarruti bakoitzaren egoera nahiko desberdina da. Are gehiago, diozesiaren barruan ere, euskararen mapa oso desberdina izan daiteke. Eta, estu hartuta, eskualde askotan ere, parrokiak eta inguruak bereiztu behar izaten dira. Honenbestez zera esan nahi da: Bizkaian, esaterako, elizbarruti osorako argibide nagusi batzuk besterik ezin direla pentsatu eta horren aplikazioak eskualdeetan eta parroketan egin behar direla.

4. Inkesta soziologikoa hasi berri dago Bilboko Elizbarrutian. Beraz, datu zehatzik ez dago oraindik. Ahalik eta lasterren bildu eta zabaltzeko asmoa dago. Parrokiak eta elizbarrutiko zerbitzu nagusiak agertuko dira bertan. Era berean, erakundeotan erabiltzen diren irizpideak eta arazoak aipatuko dira hemen. Beste alor batzuk (Elizaren eskuetan dauden ikastetxeak, klinikak edo nagusien egoitzak, esaterako) ez dira agertuko.

ARGIBIDE OFIZIALAK

Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluak izandako saio biren ondoren, 2002. urteko martiaren 1ean, Gotzainak ondorengo argibideok jarri zituen indarrean elizbarrutirako:

1. Fedearen heziketan, batez ere erlijio esnaera fasean, familiak duen garrantzia gogoan hartuz, eskolako irizpideari besterik gabe jarraitu beharrean, aintzakotzat hartu behar da etxeko hizkuntza edo lehen hizkuntza. Azken erabakia gurasoen eskuetan utz daiteke, elkarrizketa izan ondoren.

2. Liturgiarako oinarritzko irizpidearen iturriak Kontzilioak esandakoetan bilatu behar dira: alde batetik, eliztarren partaidetza osoa, jakinekua eta gogotsua bultzatzean (ik. SC 14 eta 21), eta bestetik, Jainko herriak liturgi ekingizaren egile bezala duen nortasunean (ik. SC 26). Toki eta une bakoitzean batzen den elkartearen hizkuntza pluraltasuna jaso behar da elizkizunean. Elizbarrutiko elkarte guztiek, guztion fedea ospatzean, elizkizunaren atal batzuetan hizkuntza biak erabili ahal izan dezatela bilatu behar da. Hizkuntza baten alde egiteak ez du esan nahi bestea galarazi behar denik.

3. Agiri ofizialak eta elizbarrutirako zerbitzuetatik datorren informazioa euskaraz eta erdaraz emango da. Inguruko txikiagoetarako berri ematean ere, hizkuntza biak erabiliko dira, tokian tokiko egoera soziolinguistikoari ahalik eta egokien jarraituz.

4. Terminologia bateratua eta Euskaltzaindiak onartutako idazkera erabiltzea bultzatu behar du Bikaritza Nagusiak.

ARLOZ

Katekesia

Bi arazo agertzen dira batez ere arlo honetan: lehenengoa, euskararen eza-gutzak eta erabilerak proportzio desberdina dutela umeen artean eta katekisten artean. Hau da, eskabidea eskaintza baino zabalagoa da. Tarte hau gutxitzeko ez da nahikoa euskaraz egitea; hori baino lehenago sinestadun izan behar da, eta honetan arazo handiak ditu Elizak, erreleboa dela eta.

Beste arazoa lehen aipaturiko lehen argibidean agertu da: katekesiaren hasieran, batez ere gurasoen nolabaiteko erlijio ardura dutenean, eskolako ereduak ez da besterik gabe egokiena. Guraso askoren irizpidea eskolakoa da; hau da, umea D ereduaren dabilenez, katekesia ere euskaraz har dezala. Baina fedearen transmisioa eta bere lehen pausuak esnatzeko eta bideratzeko, askoz ere inportanteagoa da etxeko hizkuntza. Hau ezin da inposatu, baina gurasoen hortaz jabetzea inportantea da.

Hasierako bigarren oharrean esandakoa agertzen da hemen: Elizaren lehenengo ardura ez da euskararen (edo beste edozein hizkuntzaren) zabalkundearena, baizik eta fedea transmititzearena.

Liturgia

Vatikanoko II.ak, liturgiako hizkuntza guztien duintasuna eta balioa onartuz, euskara ere hizkuntza ofizial egin zuen Elizan. Kontzilioaren oinarria edo abiapuntua bide-erakuslea da liturgiaren eta Eliza osoaren erreformarako. Hauxe da, hain zuzen: «fededun guztiak liturgi ospakizunetan oso-osoan, ohar-tuki eta era aktiboan esku hartzera zuzentzea» (SC 14). Helburua, beraz, zera da: «ahal den neurrian kristau-herriak erraz ulertu eta, ospakizun oso, bizi eta elkarteari dagokion erakoan esku har dezala» (SC 21). Hori bultzatzen duena onuragarria da eta hori oztopatzen duena, kaltegarria.

Irizpidea edo helburua honetan hauxe da: ahalik eta euskararik gehien erabili, elkartearen egoera linguistikoaren arabera. Elkartea konkretua da, hau da, elizkizun batean biltzen dena. Galdera: bada zerbait euskara hutsean egiterik? Elizkizuna bakarra denean (hileta, ezkontza, bataioak, igandeko Meza bakarra), ez da erraza, gehienetan partaide denak euskaradunak ez baitira izaten. Eskaintza zabala denean (igandero Meza bat baino gehiago dagoenean, hau da, parrokia edo herri handietan), hizkuntza egoeraren arabera edo euskararen aldeko aukera egitearren, ahal denean, Meza bat eskaintzen da euskaraz. Honelakoetan ordua izaten da arazoa, euskaraz egiten dutenak gutxiengoa izaten baitira gehienetan. Horrez gainera, kontuan izan behar da, Mezara joateko ordua ez dela erabakitzen gaur egun hizkuntzaren arabera, baizik eta jaiegunerako nor berak izan dezakeen planaren argitan.

Dena den, sarri askotan, irizpide teorikoen eztabaida biderapen praktikoa baino gehiago kostatzen da. Hau da, elizkizuna hizkuntza eta hizkera aldetik ondo prestatu eta ospatzen denean, apenas erreparatzen da hizkuntza bien arteko proportzioa.

Atal hau amaitu aurretik, irizpidea ez bada ere, Euskal Herriko elizbarrutietan nahiko zabaldua dagoen uste sendo hau agertzea komeni da: elebidunak eta elebakarrak dauden elkartean hizkuntzen erabilera bakegintzarako sakramentu – hau da, ezaugarri eta tresna – bihur daiteke.

Formazioa

Umeen katekesitik aurrerako pausuak sar daitezke hemen. Eskaintza apala bada, apalagoa da eskabidea. Gogoan izan behar da, gaurko krisia azken ur-

teotan euskaldunduta eta alfabetatuta daudenengan agertzen dela argien eta in-dartsuen.

Eliz ekintzetan edo pastoraltzan dihardutenen formazioa gehienbat erda-raz egiten da, euskaldunek ere parte batez teologiazko gaiak erabiltzean era-gozpen dezenteak izaten dituztelako. Honen iturri bat honetan dago: euskaraz sortu eta landutako kontzeptu eta material larregirik ez dago. Behin maila ba-tera helduz gero, itzulpena da nagusi.

Teologia ikasleen kopurua ere oso apala izanik, bai Seminarioan eta bai Fakultateetan euskaraz taldetxo bat biltzea ia ezinezko egiten da. Ikasle ba-koitzaren zaletasunetik dingilizka dago arlo hau.

Beste era bateko galdera da, zenbateraino den beharrezkoa euskara aba-de edo arduradun izateko Bizkaian. Baloratu egiten da, dudarik gabe, ahal den neurrian. Hau da: ez da erabakigarria edo kasu guztietan ezinbestekoa. Ga-rrantzia badu, baina berea, hau da, neurri batekoa. Gotzainaren erreleboa izan zenean, Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluak ez zuen euskaraz egitearena irizpi-de derrigorrekoen artean jarri, baizik eta garrantzitsuen artean. Antzera gerta-tzen da beste arlo batzuetako arduradunak aukeratu eta izendatzean. Batzue-tan, nahi izan arren, ez da kandidaturik izaten.

Euskararik ez dakiten abadegaien euskara ikastea dela eta, hainbat fakto-re sartzen dira. Seminarioak ahaleginak egiten ditu, baina kontuan izan behar dira ikaslearen kapazitatea eta bizimoduak erakusten dion premia, batez ere.

Informazioa

Elizbarrutiko zerbitzu nagusietatik ateratzen den informazioa hizkuntza bietan joaten da ia hutsik gabe. Inoiz, presaka edo oso epe laburrean bidali be-har bada zerbait (prentsa agiriren bat edo) erdaraz bakarrik ere joan da, baina horrelakoak kasu bat edo beste baino ez dira.

Eskualde edo herrietan ahoz edo idatziz zabaltzen den informazioan eus-kara gutxi erabiltzen da, oro har. Proportzioa gehienetan euskararen kaltetan doa, gehiengoaren hizkuntza ez bada. Honen arrazoiak era askotakoak izan daitezke: norik euskaratu ez dagoela, errepikapenik gabe denek uler dezatela (ahoz emandakoetan batez ere), ardurarik eza, sormen falta.

Itzulpenak

Elizan erabiltzen den euskara idatzia itzulpena da neurri handi batean. Hizkuntza minorizatu bezala, euskara bere inguruko hizkuntzak baino askoz ere apalagoa da. Nolabaiteko menpekotasunean bizi da eta hala izan beharko

du, seguru asko. Badago egon euskaraz sortutakorik ere: kantuak, gogoetak, poemak, otoitzak, artikuluren batzuk...

Elizan erabiltzen diren testuak (biblikoak alde batera utzita) latinetik edo gazteleratik euskaratuta daude gehienbat: latinetik, Eliza osorako testu ofizialak; gaztelaniatik gainerakoak. Baina hori esan ondoren, itzulpen onak duen kreaizio alderdia azpimarratu behar da. Oraintsu argitaratutako artikulua baten zera irakur zitekeen:

Convendría dejar claro que, salvo intromisiones de advenedizos que deshonran el gremio, la labor de los traductores resulta con frecuencia reparadora de los estropicios y las torpezas del texto original, a la vez que insustituible, por mucho que ahora se empiecen a divulgar ciertos programas informáticos de traducción automática. Programas que nunca lograrán suplantar ese aporte de sensibilidad e intuición lingüística que permite a un traductor salvar y dejar intacta la furtiva belleza del texto original (Juan Manuel de Prada, *Semanal*, 2005.XI.06).

Liturgiako euskaraz egin diren itzulpen ofizialetan frogatu daiteke argi eta garbi itzultzaileen goraipamen hori.

Baina eguneroko eliz bizitzan arazo dezenteak sortzen dira itzulpenak egin eta agertzean, bizkor, zehatz eta askatasunez joka dezakeen itzultzaile askorik ez dagoelako. Honetan ere borondate ona, beharrezkoa izan arren, ez da nahikoa eta boluntarismo gerta daiteke. Hainbat lankide eta pastoralgile daude Elizan euskaraz oso ondo egiteko gai. Baina zerbait argitara eman behar denean, nekez ausartzen dira euskaraz jartzera, edo alfabetaturik gabe daudelako (hainbat euskaldun zahar) edo erraztasunik ez dutelako (hainbat euskaldun berri, EGA titulua izan arren).

Eguneroko itzulpen lanari, batez ere idatziari (euskal) sormena falta zaio sarritan. Hori dela eta, euskaraz irakurtzen ari denak behin baino sarriagotan erdarara jo behar du edukia ulertzeko. Bestalde, itzulpen estuegia errepikape-na suertatzen da euskal irakurlearentzat, bera baita elebiduna. Testu ofizialetan sormenaren edo askatasunaren neurria ez da handia itzultzailearentzat, bai-na bai bestelakoetan.

Bizkaiera ala batua?

Kasu bakoitzean erabakigarria zera da: norentzat den jakitea. Galdera horri ematen zaion erantzunak argitzen du jokabidea. Gauza laburretan (lemak, tituluak, kontsignak edo antzerakoak), batua erabiltzera jotzen da. Gehienbat alfabetaturik daudenentzat euskara batua erabiltzen da sarritan, beti ez bada ere. Formazio teologikoko materialetan euskara batua erabiltzen da. Liturgiako oharra eta lagungarriak bizkaieraz egiten dira. Parrokietara bidaltzen den informazioa bizkaieraz doa. Esan bezala, hartzailea epaile.

AMAITZEKO

Orain arte esandakoa bi puntutan laburbil daiteke:

1. Hartzaileek erabakitzen dute Elizan euskararen eta beste edozein hizkuntzaren erabilera: zenbat, noiz, nola eta zein eratakoa. Komunikabideak irakurle, entzule edo ikusleen zerbitzurako eta hauen eskabideen arabera eratuta dauden bezala, hizkuntza arloan ere emititzen duenak hartzaileari begira egon behar du, hizkuntza komunikabide nagusia dela, hau da, gizon-emakumeok komunikatzeko dugun tresnarik ederrena dela kontuan izanik.

2. Elkarre osoa (elizbarruti, parrokia, elkarre txiki zein komentu) izan behar da kontuan irizpideak eta erabilera bera zehaztean. Kristau elkarre oso gizon-emakume desberdinek osatzen dute eta elkartasuna da bere helburu eta jomuga. Denen izaera, iritziak eta sentipenak kontuan hartzeko, elkarriketa beharrezkoa da, eta lur honetan bakea eta adiskidetasuna erein eta landu nahi duen Elizari sakramentu gertatzen zaio ahalegin hori.

Eskerrik asko.

EUSKARAREN ERABILERA DONOSTIAKO ELIZBARRUTIAN GAUR EGUN

Euskara idatzia eta ahozko euskara

Eustasio Etxezarreta

Sarrera

Euskal elizbarrutietan euskararen erabilera nola doan jakin nahirik, Euskaltzaindiko *Jagon* Sailak eratutako Jardunaldietara deitu gaituzue horren berri ematera. Azken urteotan beren azalpenak eginak dituzte hiru euskal Elizbarrutitako ordezkariak: Baiona-Leskar-Oloroekoek lehenengo, 2002. urtean Iruñeko eta Tuterako elizbarruti-ordezkariek ondoren, 2003. urtean eta Gasteizkoek azkenik, joan den urtean, 2004an.

Bilboko eta Donostiako Elizbarrutien txanda dugu oraingoan. Anjel Mari Unzuetak bere hitzaldian esan berri dituen irizpide nagusiak baligarriak dira orokorrean gure eremuko eliz jarduerarako. Guk onetsi eta geure egiten ditugu printzipio horiek. Gure txosten honetan euskarak gure Elizbarrutian duen erabilerari begiratu diogu zuzenean.

Txostenaren eremua

Ezertan hasi baino lehen, argi utzi dezagun zenbait puntu. Gauza jakina bada ere, esan dezagun Donostiako Elizbarrutia esatean Gipuzkoako probintziaz ari garela, lurralde honetako eliz jardueraz, alegia, euskararen erabilerari dagokionean. Eta Eliza Katolikoaren esparrura mugatuko dugu geure txosten honetako azalpena; badira, izan ere, Gipuzkoan beste eliz elkarteak: Ebanjelikoak, beste protestante-elkarteak, musulmanak, baita ortodoxoak ere..., baina ez dugu horien ezagupide behar adinbat zehatzik haien izenean hitz egiteko.

«Gaur egun» esatean, bestalde, euskararen erabileran bilakaera bat izan dela adierazi nahi dugu; gaur egungo egoera azken urteotan emandako pausoen ondorio dela, alegia; eta txosten honetako informeak batez ere oraingo

egoerari begiratzeko badio ere, euskararen erabileran egin behar izan dugun ibilbideaz zerbait esan beharko dugu, gainez gain bada ere. Eta ibilbide honen nondik norakoa adieraztekoan, Vatikanoko II. Kontzilioa hartuko dugu mugarri gisa, hau da 1964az geroztiko 40 urteak.

Azpitituluan, azkenik, «euskara idatzia» eta «euskara erabilia» edo ahozko euskara aipatzen ditugu, euskararen bi era horien erabilera nolakoa den adierazteko gure elizbarrutian gaur egun. Hain zuzen, eliz bizitzan eta jardueran behar-beharrezkoak ditugu oinarritzko testuak eta idatzkiak, bai elizkizunetarako eta katekesi-hezierarako, baita maila guztietan irakaspena emateko eta eguneroko bizitzak dakartzigun eskakizunei erantzun ahal izateko ere.

Nolanahi ere, euskara idatzia esatean ez dugu ahaztu behar, eliz literaturaren zati handi batek duen berezitasuna: Bibli taldeetan, liturgian, katekesian, erlijio-hezieran, etab., erabiltzen diren testuak, idatzkiak izanik ere, aldi berean ahoz erabiltzeko eginak eta pentsatuak daude. Beraz, ahozkotik hurbil egon behar duten testu idatzkiak dira.

Aztertzea da, bestalde, zenbaterainokoa den gure eliz giroan euskararen ahozko erabilera, zer-nolako prestaera edo alfabetatze-maila daukagun eta nolakoa den gure euskararen kalitatea. Elizan darabilgun euskarari buruz egin dugu orain baino lehen azalpen bat, Euskaltzaindiak 1978an Bergaran egingadako VIII. Biltzarrean, «Euskal Herriko Elizaren Jokabidea Euskarari buruz» titulupean (1).

Egia da, gure elizbarrutian ez dugula dekretu moduan emandako gotzain-idatzki berezirik, parroki lanetan euskara erabiltzera zehazki behartzen duenik. Aztergai izan izan da euskararen erabilera apaiz Batzordeko, edota Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluko eta beste batzarretan; baina, adostutako txostenik ez da argitara eman. Bada, bai, han-hemenka oharren bat edo beste, apaizei horretaz arretatsu izatera dei egiten diena. Kontua da, puntu hau hasieratik onartua izan zela eta ez dela inoiz zalantzan jarri izan gure elizbarrutian. Gurean ardura, batez ere, euskara idatziaren nolakotasunak aztertzean jarri izan da. Gainera, garaian garaiko eran bada ere, gure Gotzainak berak izan dira beren jokabideaz egin behar hau aurrera eraman dutenak eta, neurri batean, aitzindari ere izan direnak.

Gogora dezagun, 1964an Lorentzo Bereziartua Gotzainak, Espainiako Gotzainen Batzarraren aurrean liturgia euskaraz ere ospatu behar zela adierazi ondoren, gure Elizbarrutiko itzulpen-taldea sortu zuela. Geroago, 1968ko abenduan, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra euskara batuari buruz egin berria zenean eta, beraz, eliztarren artean ere kultur giro berri bat sortzen ari zela ikusirik, Jazinto Argaia Gotzainak, Iruñeko eta Bilboko Gotzainekin ba-

(1) Ikus *Euskera*, 1978-2, 829-855. orr. Hitzaldi hartan aurki daitezke Kontzilio ondorengo lehenengo urteetako historiari eta lanei buruzko datu zehatz ugariagoak.

tera, eta Baionako Gotzainaren oniritziarekin, elizbarruti desberdinetan ari ziren itzulpen-talde autonomoak talde bakarrean biltzeko erabakia hartu zuten. 1975ean, Setien Gotzainaren eskutik, aurrerago aipatuko dugunez, euskarazko eliz argitalpenak bideratu ziren eta «Idatz» Elizbarrutiko argitaletxea sortu zen, bereziki euskarazko eliz argitalpenak egiteko.

I. EUSKARA IDATZIAREN IBILBIDEA GURE ELIZAN

Euskara idatziari dagokio, batez ere, aurreko oharretan aipatzen genuen bilakaera. Orain 40 urte, 1964an, Kontzilioaren eraginez Meza-liburua euskarara itzuli behar izan zenean bere otoitz, Bibliako irakurgai eta salmoekin, euskararen egoera, eta bereziki euskara idatziaren egoera, ez zen gaurkoa.

Ez naiz ni inor, Batzar honen aurrean historia alorreko irakasle-lanetan hasteko. Baina gogora ekarri nahi nuke, orduan sortu zirela egiaz euskara bateratzearen aldeko mugimendua eta alfabetatzeari buruzko irizipideak; eta orduan hasi zirela lehenengo pausoak ematen. Gero, 1968an jarri zuen Euskaltzaindiak Arantzazun euskara batuko eraikuntzaren lehenengo harria esan dezakeguna. Eta urteak behar izan ziren euskararen normalkuntzarako oinarriak sendo jartzeko.

Gure Elizaren jokabideari dagokionez, ahaztezina den beste puntu bat euskararen arazo honen inguruan sortu zen borroka bizia da, euskara batuaren aldekoen eta kontrakoen artean. Eliz barruan suma zitezkeen bi alderdi horiek. Apaiz gazteak eta ikasleak ziren, batez ere, euskara batuaren aldekoak. Gogora dezagun, esate baterako, Donostiako Seminarioko apaizgaiek, 1966. urtean hasita, ikasgaiak euskaratu eta elkarri pasatzen zizkietela gure Elizbarrutietako hiru seminarioetako ikaskideei, batuan idatziak, jakina.

Baina Elizako sektore garrantzitsu batek euskara batuaren mugimenduari aurre egiteko jarrera hartu zuen. Ez ziren horretarako arrazoiak falta, hasieran behintzat. Izan ere, Euskaltzaindia bere iker-lanak egin eta erabakiak hartzen hasi zen arte, idazle bakoitzak bere moduko batua egiten zuen; oraindik eratu gabea zegoenez, euskara horretan egindako lehenengo idazkiak ez ziren askotan oso eredugarriak; eliz giroko jendea, adin bateko apaizak batik bat, euskara alorrean ordu arte izen bat zutenak, alboratuta sentitu zuten zuten beren burua; hainbat jenderi eta eliz arduradunei beraiei kezka sortarazten zien nabarmena zen batuaren aldeko idazle gazteen presioak: hauts asko harrotu ondoren ez ote zen, berehalako batean, ahaztuta ezerezean geratuko asmo hori.

Eliza euskara baturantzako bidean

Horiek eta beste arrazoi batzuk medio, kontua da, izugarritzko buruhaus-tea sortzen zuela une hartan euskara batuaren ikur bereizgarria zen «H»ak. Ondorioz, Eliza, orokorrean hartuta, ez zen bete-betean euskara batuaren bidean sartu. Bete-betean esan dut; izan ere, gauzak axaletik begiratuta ez badirudi ere, egia da, batzuen haserreak haserre, jarrera arduratsua hartu zutela gure Gotzainek beren aholkularien laguntzaz, eta ahalegin zintzoa egin zuela gure Elizak baturantzako bidea onartzen.

a) *Datu adierazgarri batzuk*

Bizpahiru datu eman genitzake euskara batuaren aurrean Elizak izan duen jokabidearen adierazgarri. Hasiera batean, euskal elizbarruti bakoitza bere aldetik hasi izan arren itzulpen-lan hauetan, gerora, 1969an, Elizbarruti arteko ordezkariekin itzulpen-talde bakarra eratu izana bada pauso bat baturantzako bidean. Aurrerantzean oinarritzko itzulpen bakarra egin izan da euskaraz, nahiz eta gero hiru argitalpenetan eman: lapurteraz, bizkaieraz eta... gipuzkera osatua izan izan den horretan.

Beste datu bat: Donostiako Gotzain Laguntzailea zen Jose Maria Setienek, euskal Elizbarrutietako Gotzainek hala eskatuta, euskara idatziari buruz gure Elizak egoera hartan hartu beharreko bidearen azterketa eta planteamendua egin zien gotzainei. Bi urtetan zehar hainbat bilera egin, batzuen eta besteentz iritziak entzun eta hainbat eliz arduradunen ikuspegiaren argira egindako azterketaren ondorioz, sortu zen 1975ean Eliz Idazki Ofizialetarako batzordea, Setienen beraren ardurapean.

Eliz argitalpenetan euskara bi maila edo eredutan erabiltzea izan zen erabakia:

a) alfabetatuak zirenentzat edota alfabetatze-bidean zebiltzanentzat –haur eta gazteentzat batez ere– egiten ziren argitalpenak euskara batuan egingo ziren, ikasle horiek beren liburu-etako ikasgaiak era horretan idatziak zituztenez, ez baitzegoen arrazoi objektiborik bide hori ez hartzeko;

b) alfabetatu gabeko eliztarrei zuzenduak zeuden beste argitalpenak, berriaz, gipuzkera osatua esaten zitzaion euskarari.

Elizak ahalegin zintzoa egin zuela baturantzako bidea onartzen esaten dugunean, horren egia azaltzen duen beste puntu bat «gipuzkera osatua» delako euskara-motaren nolakotasunak dira. Lehen adierazi dugu eta gauza jakina da, orain dela 40 edo 30 urte eliztar askori eta bereziki euskarazko itzulpenak egiten aritu zirenei onartezina gertatzen zitzaizela euskara idaztean «H»a sartzea eta «ñ» eta «ele bikoitza» («ll») uztea. Azken batean, borroka horretan pedagogiarik gabe jokatu, edota pedagogia ondo erabili ez izanaren ondorioz, kontrako muturrerako bidea hartu zuten.

Hala ere, eta, lehen genioen bezala, itxura batean besterik badirudi ere, gipuzkera osatuan-edo egindako argitalpenetan, «H», «ñ» eta «ele bikoitza» («ll») alde batera utzi izan arren, onartu egin ziren euskara batuaren beste ezaugarririk gehienak, edo asko behintzat; hala nola, deklinabidea bere osoan, hiztegia neurri handi batean, eta aditz-jokorik gehienak, alde batera utzirik gure eliztarrentzat berriak eta arrotzak gertatzen ziren aditz-jokoak, ulergaitz egin zezaketelako entzun hutsez jaso behar zen testua. Era horretan argitara emandako testua entzulearentzat ez zen hain urruti gelditzen euskara batuan idatzitakotik.

Bada oraindik beste ñabardura bat agerian jartzea eta azpimarratzea komeni dena. Eliz Idazki Ofizialetarako batzordeak hartutako erabakien artean, beti ere baturantzako bidean jardutea zegoen; esan nahi da, itzulpena egitekoan, ahalik eta eremu zabalagoko euskaldunentzat egokia izango zen testua lortu nahi zela; eta argitaratzekoan ere euskara batua zela norabidea eta helburua. Une hartan aurrerago joatea egoki ikusten ez zelako, gipuzkera osatua erabiliko bazen ere argitalpen batzuetan, euskara baturako bidea prestatzen zihoan heinean helburu hartara iristea zen asmoa.

Eta hala gertatu da. Poliki-poliki gauzak errazten joan ziren. Batetik, euskararen normalkuntzarako lanabesak eskura izan ditugu Euskaltzaindiak egindako ikerketa eta emandako araudiei esker. Bestetik, ikastetxe, unibertsitate, komunikabide eta orokorrean kultura munduan sartu da euskara, eta erabili egin da, guztiontzat etxeko eta ezaguna bihurtzeraino neurri batean. Gainera, hasierako haserre eta amorru haiek arintzen joan dira, denborarekin ia deseginak gelditzeraino. Horiek eta beste arrazoiak medio, ia konturatzeke bezala, urte gutxiren buruan eta inolako etenik gabe euskara batuaren munduan sarturik dago gure Eliza azken 20 urteotan.

b) *Elizaren jokabidea*

Gogoratu dugu, batera samar gertatu zirela Kontzilio ondorengo eliz itzulpenak eta euskara batuaren aldeko mugimendua eta Euskaltzaindiak hori guztia bideratzeko egindako lanak. Gauza bat argi utzi nahi genuke hemen: Elizak bere argitalpenak egitekoan hartu zuen jokabidea ikusita, norbaitek pentsa dezake, Euskaltzaindia eta euskal kultur mundua alde batera utziz eta nolabait horien kontra hartu zuela bere erabakia, euskararen akademia paralelo baten pare jarriko balu bezala bere burua.

Baina, gauzak ez dira egiaz horrela. Begirada batean hala badirudi ere, eliz lanetan ari izan garenok ez dugu inoiz zalantzan jarri, ez Euskaltzaindiaren prestutasuna eta autoritatea, ez erabakien bidezkotasuna eta balioa. Eliza lanetan aritu izan garenok geure bidea hartu izana ez da Euskaltzaindiaren aurrez aurre euskarari buruzko beste «jakinduria» eskaintzeko asmoz izan, baizik eta une hartan oraindik eliz giroa eta fededunen prestaera ez zelako aski egokia ikusten arau horiek guztiak erabiltzeko, beti ere kontuan izanik nola-

koa zen gure eliztarren alfabetatze-maila, eta ahoz aldarrikatu eta belarritz entzunez jaso beharreko testuak zirela.

c) *Euskara idatzia elizbarrutiko beste eliz alorretan*

Arreta guztia liturgiarako egindako itzulpen eta argitalpenetan bakarrik ari gara jartzen, baina ez dira horiek kontuan hartu beharreko bakarrik. Egia da esanahi berezia dutela hauek, itzulitako testuen eta argitaratutako liburuen kopuruagatik, horietan aritu izan den taldea euskalki desberdinetakoa zelako eta talde horrek markatu zituelako eliz euskararen ezaugarriak.

Baina, liturgiako liburuaz gainera, badira Elizak bere jardueran erabiltzen dituen era askotako beste argitalpenak: katekesiko eta erlijio-hezierako testuak, Gotzainen pastoral idazkiak, beren eliz lanetan Gotzainek hilero-hilero eliztarrei idatzi ohi dizkieten gutunak eta idazkiak, Gotzaindegiko Aldizkari Nagusia ia erabat elebitan argitaratzen dena, igande eta jaiegunetako Mezetarako lagungarri gisa euskara hutsean argitaratzen den *Mintzo eta Kantu* izeneko aldizkaria, Gotzaindegiko Idazkaritza eta Ordezkaritza guztiek egin ohi dituzten gutun eta mezuak, hedabideekiko harremanak eta bidaltzen zaizkien informazioak, parrokietako artxibo-liburuak, eliz ateetan jarri ohi diren iragarki edo kartelak, parrokietan eliztarren artean banatzeko egin ohi diren orriak eta batzar-deiak, etab.

Orokorrean, eliz bizitza eta pastoralgintza aurrera eramateko egin ohi diren mila eratako idazki eta argitalpenak euskara batuan egiten ari gara aspaldidanik Donostiako Elizbarrutian, esan dezagun duela 20 urtez geroztik, nahiz eta beti-beti batek nahiko lukeen bezain euskara txukuna ez erabili.

Gaur egungo teknologia berriak ere erabiltzen ari gara. Donostiako Elizbarrutiak badu bere WEB orria, www.elizagipuzkoa.org, euskaraz ere gaztelaniaz bezain ongi hornitua. Katekesirako eta eskolan ematen den erlijio-hezierarako lagungarri gisa baditugu 40 bideo-zinta euskarara itzuli eta bikoiztuak, Bibliako pertsonaia, Jesusen parabola, ipuin, sakramentuen azalpen, etab., gai dituztenak.

d) *Beste erakundeak*

Aparteko arazorik gabe igaro dira gure Elizaren bizitzan euskara batua-ren gai honi buruz azken 20 urteak. Bitarte horretan garrantzi handiko itzulpen eta argitalpenak egin dira, euskara batuan noski, eliz alorreko euskal kulturari dagokionez. Esanahirik handieneko pare bat aipatuko ditugu beste askoren adierazgarri. Bata, katoliko eta protestanteen arteko elkarlanean itzuli eta euskal elizbarrutietako Gotzainen eta Bibli Elkarte Batuen ardurapean argitara emandako *Elizen Arteko Biblia*; aparteko esanahi erlijioso eta kulturala duen gertaera izan da argitalpen hau; une honetan, hain zuzen, egina dugu bigarren argitalpen eraberritua, eta testua CDan eta interneten emateko azken ukituak egiten ari gara, biak batera kaleratzeko.

Horrekin batera, kontuan hartzekoak dira *Erljio Kulturaren Bilduma* izenburupean, irakasle- eta euskalzale-talde batek Deustuko Unibertsitatearen babespean argitara eman berria duen 25 liburuz osatutako sorta eta Kontzilio-ko dokumentuen euskarazko argitalpena. Biblia, Teologia, Morala eta Kristauaren Bizitza lantzen dituzten liburu hauek euskaraz ematearen helburua, ikasle, irakasle eta maila desberdinetako hekuntza-lanetan ari direnei material egokia eskaintzea izan da.

Guk txosten honen lehenengo zati honetan egin dugun azalpena elizbarrutiari dagokio, batez ere, Gotzaindegia eta parrokiei, alegia; baina Elizaren jarduera hori baino zabalagoa da. Ez ditugu ahaztu behar erlijioso-erlijiosen ikastetxeak, aldizkariak, irratia, etab. Are gutxiago, Lazkaoko Beneditarrek, Arantzazuko frantziskotarrek, Loiolako jesuitek eta Urretxuko pasiotarrek, besteak beste, euskara lantzen egin duten lan aipagarria.

Atal honi bukaera emateko esango dugu, azken urteotan eliz liturgiako liburu guztien errepasoa egiten ari garela, argitalpen eraberrituak egiteko asmoz. Batetik, itzulpena bera da aztertzen ari garena, 40 urtetako itzulpen-esperientziaz eta *Biblia* euskaraz izateak ematen digun laguntzaz baliaturik; eta, bestetik, liturgi liburuetako euskara gaurkotzen dugu batua bere ezaugarri guztiekin onartuz.

II. AHOZKO EUSKARA

Elizaren jardueran euskararen ahozko erabilerari eskainiko diogu bigarren parte hau. Irudipenetan eta oinarritzko daturik gabe ez aritzearren, galdeketa bat egin dugu geure elizbarrutietako apaizen artean, parroketako jardueran euskara zenbateraino erabiltzen den jakiteko. Beraz bigarren zati honetan datuak emango ditugu batik bat; soziologoak hitz egingo du, nire ahoz bada ere.

Inkestaren bidez jasotako datuak:

Soziologoak prestatu digun txosten hau ez da ikerlan osoa, aurrerapen bat baizik; ez diogu betarik eman azterketa osoa eta sakona egin ahal izateko. Hala ere, baliagarriak izango dira datu hauek.

Hemen aurkeztuko ditugun datuak, bestalde, parrokiei dagozkienak dira; parrokie-tako jarduera bakarrik jasotzen da; datuak bilduak dauden arren, ez da oraindik beste hainbat erakunderen azterketa egin: Gotzaindegiko pastoral sail desberdinak, Seminarioa, Pio XII.a Erljio Zientzietarako Goi Ikastegia, erlijioso-erlijiosen ikastetxeak, etab.:

Puntu honetan, Power-Point sistema erabiliz zenbait daturen aurkezpena egi-tearekin batera, datu horiei buruz soziologoak idatzitako azalpenak egin ziren; baina ikerketa soziologikoa ez dago oraindik bukatutzat emana; han egin genuen azalpena presaka egindako aurrerapen bat besterik ez zen; horregatik ezin dugu hemen argitara eman, ondorioak ere behin-behinekoak baitziren. Ikerketa-lan hori burutzen denean, argitaratu eta ezagutzera eman ahal izango dugu.

Soziologoaren txostenaren osagarri esango dugu, Gotzaindegiko kargudun gorenak ezezik erdi mailako arduradunek ere, guzti-guztiekin ez bada ere, ia denek euskara menderatzen dutela. Esan behar da, gainera, 1972an gotzainekin zuten geroztik, Jose Maria Setien eta orain Juan Maria Uriarte, azkeneko gure bi Gotzainak, izan direla arduratsuenak Elizaren jardueran euskara normaltasun osoz erabilia izan dadin.

Seminarioari dagokionaz, irakasleek gaztelaniaz ematen dituzte beren ikasgaiak; baina ikasleek hobeto menderatzen dute euskara, eta euskaraz egin ohi dituzte beren azterketak eta lanak. Euskara jakitea eskatzen zaio Gipuzkoan apaiz izan nahi duenari.

Pio XII.a Erlijio Zientzietarako Goi Ikastegian eliza lanetan sartuta dauden edota sartu ahal izateko prestatzen ari diren laikoak dira ikasleak. Oinarritzko heziketa-ikastaroa euskaraz ere eskaintzen zaie eta badute egokiera ikasgaiak euskaraz entzuteko eta azterketak ere euskaraz egiteko.

Zenbait gogoeta

Euskararen ahozko erabileraren zenbatekoak aipatu ondoren, beste galdera batzuk datozkigu burura. Aztertu beharreko gauza bakarra ez da zenbat hitz egin den euskaraz; kontuan izatekoak dira, alde batetik, zein euskara-mota egiten den ere; nolako aldea dagoen, alegia, idatzitako euskararen eta ahoz egiten denaren artean; zenbateraino ari den sartzen idatziz erabiltzen den euskara batua ahozkoan ere. Ahozkoan, bestalde, ez da berdin etxean edota lagunartean egin daitekeen hizkera, eta jendaurrean egiten dena; berdina ez den bezala, orokorrean apaizek egiten dutena eta alfabetatu gabeko eliztarrek egin dezaketena.

Beste alderdi bat, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak hizkuntz kalitateari buruz dioena da: kalitatea ez dagoela gramatika ondo erabiltze hutsean. Euskararen hiru maila bereizten dituzte: zuzentasuna, jatorritasuna eta egokitasuna.

Galdera hauen aurrean ez dugu oraindik balio-irritzi zehatzik gure elizbarrutirako. Orokorrean esan genezake, hori da gure ustea, apaizek aski ongi zaintzen dutela jatorritasuna eta egokitasuna; agian, ez hain ondo zuzentasuna; beren alfabetatze-maila ez da, gehienetan behintzat, ikasketak eginez lortutakoa, entzun, irakurri eta erabiliaren bidez lortua baizik. Eliztar arruntak, berriaz, ahoz erabiltzen duen hizkera, bere bizitzako beste esparruetan egiten dena izan ohi da, eta, beraz, bere inguruan ere erabili ohi dena.

Jendaurrean egiten dena jantziagoa dela esan dezakegu. Ez, noski, idatziz egiten denaren maila berekoa; beste hizkuntzetan ere horrelako zerbait gertatzen bada, are gehiago euskaraz. Baina jendaurrean egiten dena ez da etxean eta lagunartean egiten dena ere, jantziagoa baizik.

Zenbait kezka

Esanak esan, aitortu beharra daukagu behin baino gehiagotan erosokeriaz edota eliztar erdaldunen presioaz ez dela behar bezala zaintzen euskararen erabilera.

Euskarazko argitalpenak askoz urriago zabaltzen dira; irakurri, berriz, oraindik gutxiago. Ikusten da, erdaraz moldatua dagoela gure arteko askoren pentsatzeko era, eta zail gertatzen zaio askori eta askoz ahalegin handiagoa eskatzen dio pentsamendu-liburua irakurri eta sakontzea.

Zailtasun berezia sumatzen da batzarretan edota talde-bileretan euskara erabiltzeko. Elizatik kanpo ere bizitzako edozein alorretan gertatu ohi den bezala, taldea euskaldunez eta erdaldunez eratua dagoenean, erdara nagusitu ohi da: nekagarri egiten delako elebitan aritzea, presioa nabaritzen delako...

Inoiz kexaren bat edo beste etortzen zaigu Gotzaindegira hiletak edota haurren lehenengo Jaunartzeak direla eta... Ez da beti erraza denekin ondo asmatzen. Hiletei buruzko pastoral aholkuetan esana dago, ondo zaindu behar dela hizkuntzen erabilera; baina horrekin batera esaten da, baita ere:

hileta-ospakizunean zein hizkuntza erabili jakiteko, irizpide orokorrak hartu behar direla oinarri, hau da: nola eratua dagoen batzarra (zenbatsu erdaldun eta euskaldun, alegia), ulergarritasuna, liturgi osagai bakoitzaren izaera, lagungarriak, etab. Dudarik gabe –jarraitzen du aholkuak–, kontuan izan beharrekoa da hildakoaren ingurunea eta senitartekoen nahia; baina ez da ahaztu behar, ospakizuna ez dela familiarena, kristau-elkartearena baizik.

Lehenengo Jaunartzeak direnean, badira parrokiak ospakizuna erdaldunentzat egun batean eta euskaldunentzat beste batean jartzen dutenak; baina sarritan gertatzen da, euskal haurren gurasoak edota gurasoetakoren bat ez dela euskalduna, eta horiek ere kontuan hartzekoak dira.

Kezka hauei erantzun nahirik, gure elizbarrutirako onartua daukagun eliz ereduan esana dago, euskararen erabilera gauza normaltzat hartzea eta elebitasunaz egoki baliatzea joan-etorri handiko kontua direla bizikidetzat lortze-bidean.

Eta bost urteotarako Elizbarrutiko Pastoral egitarauan eskatua dago, «euskararen benetako erabileraren azterketa» egin behar dugula, non gauden eta nola aurrera egin behar dugun jakiteko. Eskari hau betetzera etorri da egin berria dugun galdeketa.

Kontuan hartzen dugun gaia da, beraz, eta une egokian etorri dela uste dugu *Jagon* Jardunaldiak direla medio euskararen erabilera gure elizbarrutian nola dagoenaren berri ematera egin zaigun deia. Lagungarri izango da, zalan-tzarik gabe, Euskaltzaindiaren aurrean gaur egin dugun aurkezpen hau euskararen erabilera eta kalitatea zaintzen jarraitzeko Donostiako gure Elizbarrutian.

JOGONET: 2005. URTEAN EGINDAKO LANEN BERRI

Donostia, 2005-XII-28

*Joxe Ramon Zubimendi,
JAGONETen arduraduna*

Hona hemen, labur-labur, JAGONETeko 2005eko datuak, urte guztikoak:

1. Galdelekuan jasotako galderak: 1.387
2. Banan-banan emandako erantzunak: 1.360 (iaz baino % 118 gehiago: iaz 841 galdera erantzun ziren, baina zortzi hilabetea)
3. Datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 520 (2005eko abenduaz geroztik)
4. JAGONETeko datu-baseak hartutako bisitariak*: 48.836 (batez beste, egunean 134; iaz baino % 125 gehiago)
5. JAGONETeko datu-basean egindako bilaketak*: 45.239
* Izarñoa duten kopuruak EUSKALTELeK emanak dira

* * *

Euskararen erabilerari buruzko galderak erantzuteko tokia da JAGONET; baina, Euskaltzaindiaren erabakiz, JAGONET ez da:

- ez teoria mailako erantzunak ematekoa
- ez itzulpenak egitekoa edo gainbegiratzekoa
- ez hiztegieta bilaketak egitekoa edo hiztegi-sarrerak aztertzekoa
- ez hitzen, izenen, deituren... jatorria edo etimologia azaltzekoa
- ez Euskaltzaindiaren erabakien zergatikoa azaltzekoa
- ez Euskaltzaindiaren erabakiei buruz eztabaidatzekoa.

Ez adiorik.

**EUSKALTZAINDIAREN
BARNE HISTORIAZ
(VIII)**

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIAZ

*Xabier Kintana,
idazkaria*

SARRERA

Gure Hizkuntzaren Akademiak aspaldidanik ikerketa eta arautze arloan egiten dituen lanak eta euskara sustatu eta jagoteko asmoz ematen dituen pausoak gero eta ezagunagoak dira, eta horiek gure gizartean sorrarazten duten oihartzunak eta dituzten aplikazio zabalek aski ongi erakusten digute jendeak zer nolako interesa duen gure egitekoez.

Badira, ordea, gure erakundearen historian hain ezagunak ez diren puntuak, beraren sortze, jardunbide eta bilakaeraren gorabeherei buruzkoak, hor-han-hemenka gutun argitaragabe, artikulu eta dokumentu sakabanatueta barreiatuak. Horietan guztiotan nolabait Euskaltzaindiaren barne historia deienezakeena datza, maiz, zoritxarrez, aski ezezagun eta gaizki adituen eta ulerkera okerren iturri, eta, horrexegatik, gure ustez, barne historia horretako zokomokoak argitu eta gure argi-ilunak islatzea egokia bezain komenigarria litza-teke. Beraz, xede horrekin, zenbaki honetan hasi eta hemendik aurrera osatuz joan nahi genukeen atal honetan, Euskaltzaindiaren ibilbide historikoa hobeki ulertzeko lagun dezaketen era guztietako agiriak eta lekukotasunak agertzen hasiko gara, P. Xarrittonek oraingoan argitaratzen dituen dokumentu baliotsuak lehenbiziko urratsak izanik.

PIERRE LAFITTEN GUTUNDEGIA

Prestatzaileak:
P. Charritton - P. Andiazabal

Aldi honetan aurkezten diren 12 gutunak Piarres Lafitteri zuzenduak Antonio Maria Labayen (1898-1994) euskaltzainkideak bidaliak 1953-tik 1977-ra doazenak dira ez dute ohar berezirik merezi, adin batetara helduak garenontzat bederen, zeren hor aipu diren presonak Luis Dassance, Manuel Lekuona, Etienne Sallaberry, Tournier, aita Villasante, edo lerro-tartean aipu diren Arantzazuko beste fraide zenbait eta bizkaitar euskaldun berri F. Krutwig edo Gabriel Aresti jende ezagunak baitziren 60-eko eta 70-eko urte nahasi eta aberatsetan. Diren bezala argitaratzen ditugu beraz A. Irigarayentzat egin genuen bezala A.M. Labayenentzat ere honen seme Erramun Labayen jaunak baimena eskaturik.

P. Xarritton

1. Antonio Ma Labayen
(Tolosa)

Donostia, 1953-X-05
Av. Gralissimo-4-6°

Pierre Lafitte jauna'ri
Ustaritz'era.

Agur jaun eta adiskide on:

Orain azkena Euskaltzaindi'ko biltzarrean agertu ginalarik ez nuen astirik aski izan «Elizamburu» nere lanttoaz mintzatzeko.

Orregatik onako lerro aukeratu dizkizut gai beraz zenbait xehetasun ematearren.

Iru «cliché» gertuak ditut. Batto: 10x14 cm azalerako eta biga 9x12 cm barnerako. Irurak Elizamburu'ren irudiaz. Esan nizun bezala Errotaran «*Musée Basque*» aldizkarian agertu lanean, Elizamburu'k bere eskuz egindako «*Nere Etchea edo Laboraria*»-ren neurtitzak musikan ipiniak «cliché»-an dau-de. On litzake hori ere fac-simil berriz nere lanean agertzea.

Nik bildutako neurtitzak 18 dira eta emen doazkizu lerroz-lerro emanak. Bateonbat peitu ba'zaizu kopia bat igorri nezaizuke. Ortografiari buruz, ene iritziz, Euskaltzaindia'rena behar luke, naiz bi «r», «h», bi «tt» eta abar sarturik. Zuek duzute ordea azken itza. Ni, Azkue'ren «gipuzkera osotuan» (lapurtarrez kutsutua, naski) egiten, leia naiz eta batik bat euskera adi-errezean idazten, alik eta irakurle ikasi geienak aisa uler dezaten.

Zure «*Lexique Français-basque*» ortaz jabetzeko al bezain laister 1,000 Frs igorriko dizkitzut eta, sar nazazu arpidedun-souscripteur artean.

Egun gutti barru Andaluzi ta Maroko aldera abitzen naiz baina lenago norbaitekin «clichés» ta dirua bidaliko dizkitzut.

Il ontan, Euskaltzaindia'ren biltzarrera ezin joan izanen naiz, baina eldu den ilabetea ea elkartzen giran berriz J. nai duelarik, astiro, astiro mai inguruan itz-aspertu luze bat eginaz.

Arte ontan ekin eta jarrai
eta ikusi artian, beti zure

A.M. Labayen.

2. Tolosa,
San Francisco 35-1°

1956-VI-09

Pierre Lafitte jauna'ri
Ustaritz'era.

Agur apez jaun eta adiskide:

Aspaldi ez dugu elgarren berri eta uste dut beti bezala bizkor ibilliko zera la zure lan eta egin-beharretan.

Zertan doa «GERO» liburua ren salketa bizkitartean? Zerbait jakin nahi nuke erran ulertzen ahal duzuna.

Oraintxe-orain Paris'etik galdegin daute sei ale arat bidaltzea: eta ortik errezago dela igortzea ta othoi zuk dituzuenetarik adresa ontarat zuzentzea:

Mr Antoine d'Urrestarazu
7, avenue Wilson
PARIS-XVI.

3.

Arren lenbailehen postaz ea aren eskuetara eldu arazten dituzun.

D. Bernardo apezak erran daut Sara'n aurtengo udaran Axular'en ome-
nez jai bat ospatu nahi dutela. Ez al litzake on Euskaltzale Biltzarre'koa «mu-
turra» sartzea obeki egin dadin jai hori? Zuek ikhus!

Arras lanpeturik zabiltzala badakit alare zure yardespenaren begira gel-
ditzen natzaizu».

Itz bi bederen igorri zaizkidazu jakin dezadan nere letra ta gutunak har-
tzen dituzun ala ez? Ez da geiegi eskatzea! Nola nahi millesker anitz!

Zure,

A.M. LABAYEN.

4.

P. LAFITTE jauna'ri
USTARITZ.

Ene apez jaun ta euskaltzale agurgarria:

Askain'go bazkarian zure ondoan eseritzeko atsegina izan nuen ta besterik gabe eskutitz onen bidez eskaritxo bat zuzentzera ausartzen natzaizu.

Euskerazko liburu zenbait erosi nahi nituzke: Axularren «*Geroko-gero*»; Joanategi'ren «*Sainduen bizitza*»; Oienart, Chourio, ta beste olakoen lanak.

Beraz, arras poztuko ninduzuke esan al ba'lidazu nunbait gutun oriek salgai arkitzen direla ta bere saneurri edo prezioa.

Aurretik bijoazkitzu nere eskerr miñenak ta agindu zuk ere orobat, neri, berr izan ezkeru.

Manterola apez jauna ikus ta agurtu nuan joan dan ilaren 30'n Zumarraga'n ta zure goraintziak eman nizkion. Euskal-egun aundia egin zan, anitx ta anitz jendeekin ta ondorengo onan emanen ote ditu.

Emen bertan aurkituko dituzu...25 libera meza bat opa dezaidazun ongi datorkizunean.

Egun batez maikide ta luzaroan adiskide izango geran nago ta uste ontarra atxikia gelditzen naiz beti euskaldun ta fededun.

Antonio Ma Labayen.

Nere zuzenbidea:

D. Antonio Ma Labayen
San Francisco 35-1
Tolosa-3-K 85.

5.

Milesker anitz P. Lafitte eta adiskide onari, zure zorion eta itz adeitsuen-
gatik.

Orobat opa dauzkitzut osagarri eta adore bete betea Euskal Kultura eta
Jainkoaren goresmenen lanean jarrai dezazun urte luzeetan.

Laister «*Honoris Causa*» merezi izendapena jaso izanen duzularik an
izan nai nuke zuri,

Agur bero bat emateko.

Beti zure menpeko eta ikasle nere seme Erramun izan zenuen arabera.

Sallaberry jaun «So egille» argiari goraintzi,

Antonio Ma LABAYEN.

6. Antonio Ma LABAYEN
San Francisco 35-1

Tolosa, 1970 Uztailaren 24

Lafitte Piarres jaunari
Ustaritze'ra.

Jaun eta adiskide maite:

Datorren astezkenean il onen 29ean, dakizunez Euskaltzaindia'ren biltzarra dugu. Lendakari ta idazkari autumena egitekoak gira. Guk emengo euskaltzain geienok Manuel Lekuona berriz autatu nahi genuke. Zuek ere iritzi ortakoak zeratelakoan, otoi! Ea biltzen zaitezten biltzar orretara, ezen ez bait da balio boza besteri eman araztea. Arren! Jakin arazten duzun albistia zure lagun euskaltza neri.

7.

Tolosatik, 1970-11-06

Lafitte Pierre jaunari
Ustaritze'rat.

Adiskide maitea:

Millesker lehengoz zure azken gutun amultsuagatik.

Ene antzerki-lantxoak zure gogoko izan dituzula jakiteak arras poztutzen nau.

Berriz esker aundi bat esku zabalez opa didazun «Plaute»'ren komerien liburu joriagatik. Benetan ederra da ta atseginez jaso da. Gaingiroki Ernout jakintsuaren Introduction sakon eta aberatsa irakurri dut. Zer ikasia ba dizu. Emen espaiñolez Menendez y Pelayo'k egindakoa nun ohea oraindik. Ain biotzez eskeñi didazun «Gonzalve edo Ostatu betea» puska bitxia da, «bouffe, cocasse»

Espaiñiar teatroaren «paso» ta «entremes» antzekoa. Lope de Rueda'ren eite aundia dizu. Hain zuzen ba da liburu bat «La Comédie Espagnole» (Lope de Rueda'ren) 8 komeriatxo dakarzkiana Germond de Lavignek prantzsera itzuliak.(Flammarion, Paris, Librairie Théâtrale, L. Michaud, 1883). Euskeraz aspalditxo «Antzerti» aldizkariak batto «Las Aceitunas» (olibokanak) euskeraz argitaratu zuen.

Elemir Bourghès idazleari buruz ematen dituzun berriak jakingarriak ditugu. Ez nuen izen ori ezagutzen. Eta are guttiago Donibane'n komedient euskaldun batzu 1890 urtean erriz erri teatroa egiten ibiliak ziralarik. Egia ote? Eta nola? Zuk aipatzen duzun euskal komeria hori atzematea eder litzaiguke. Ez ote da izanen Bourghès'ek sorturiko gezurrezko historia bat?

Nola nai den zorionak zuri Gonzalve edo «Ostatu betea» agertu arazi duczulakotz eta jarrai lanean anitz urtez!

Aspaldixko ez zera Euskaltzaindiko biltzarretara etorri. Zer gertatzen da? Damurik samurturik gabiltza eta zuk ezagutzen dituzun zenbait buru-bero ta ideia makurren erruz ez dugun gauza onik aterako.Mintzatuko gera egunen batean ontaz.

Bizkitartean zaude beti bizkor jaun kalonje ta adiskide begikoa, eta onartzazu nere agurrik adeitsuena.

Beti zure,

A.M. Labayen.

8.

Tolosa, 1971-XII-14

Pierres Lafitte jaunari
Ustaritz'era.

Apez agurgarri ta adiskide maitea:

Azken illabete auetan ez dut zure berririk eta arras poztuko nau jakiteak zure begi-ikusmena sendatzen doazela; eta gaiñerantzeko osasun eta umorez orobat bizkor zabiltzala.

Ni, neu, udaldian maizko kanpo aldetik ibilia nauzu ta orain etxean sarturik, ez dut, egia esan inon agertzeko gogo aundirik... «et pour cause»...

HERRIA: Emen arkituko dituzu...

100-(eun) libera astekari orri diodan zorraren ordaiñez. Bainan oar; urte guzian ez ditudala jaso 14/16 zenbaki baizik. Ez dakit bertzeak non galdu edo nork geldi arazten dituan.

Onela dalarik erraiezu ez zezaidatela geiago bidali: ta nere izena ken deztatela arpidedunen artetik.

«GURE HERRIA»: Aldizkari onen azken banakoa ez da eldu nere eskuetara. Igorri al zidaten?... Ez dakit. Banako ori ikusia dut Lopez Mendizabal'en etxean eta baita ere an argitaratu dituztenez nere bi lantxoak irakurri...

Erraiozu, arren, Dassance jaunari igorri zaizkidala berriz, azken banakotik Bi ale; eta aurtengo lehenengotik beste bat, au garaiz jaso nuen, bainan beste batto beharrezko zait nere liburutegirako. Millesker anitz!

Euskaltzaindia: Deitoragarri da biltzar ontan gertatzen ari dena. «Enfant terrible» baten beldurrez ankazgora doala. Nor dan ba-dakizu: arro-gaitzo «eskizofreniko» dohakabe bat aspaldi azkarki estekatua ero-etxe batean egon behar lukena. Ori gidari dela amildegira goazela, ez da dudarik. Okerrena da «fratricelli» sektakoak eta «bulego-komitern» delakoak laguntzaile dituala.

Onokoan bada, kalonje jaun adiskidea, orien pean egon baino lehen etxean geldituko naiz.

Emen doazkizu, irakur ditzazun Villasante jaun lendakariari igorri ditzakiodan gutunen airaldiak:

«Euskal-Erri ta euskaldungoaren etorkizuna oso illun, gaizki ikusten dituz. Zuk ezagutzen dituzun buru-bero batzuek kristau-fedearen kontra azpi-lan hitsa egiten ari dira: oitura garbien kaltean (Marcuse-tarrak omen dira), Ake-larre bilkurak inventatzen dituzte, apezkiak barne... Oriek dituzu abertzaletasunaren batasun eta indarra zatitu ta birrindu dutenak... Zentzuzko politika bi-deak ito ta itxi dituztenak gaztedia ondamendira eramanez. Sarri ikastolak fundituko dituzte eta naski erio-urren dugun euskerari egin araziko diote “fin gaizto”!».

Gauzak illun eta beltz ikusten ditudala egingo duzu, behar bada. Hola da, ez bait dut zoritxarrez gure artean, jendetasunik arkitzen eta bai gorroto ta ezin-ikusi ugari.

Aitor-entzule bati bezala barnean ditudanak jaulkiz'ari natzaizu, bai da-kit ez dituzula behar ez dan lekuan azalduren.

Nola nai den izatez optimista, baikor nauzu eta Jainkoagan dudan sines-men oso-osoari esker zure asmo ta lanei ekingo diet beti Ark osasun eta bizi-kemena ematen ahal diran arteraiño

Berdin opa dizut zuri adiskide maitea etorriko diran Eguberri jaiak dirala-ta zorionik sutsuenak biotzez bialtzen dizkitzut.

Agian, uste gabe, elkar ikusi ta besarkatuko dugu. Bizkitartean nere etxea nun duzun jakitun gero.

Zure esanera, agindu, beti, zerbitzari duzun onoko lagun zahar oni.

A.M. LABAYEN.

Goraintzi Dassance jaunari.

9.

Tolosatik-1976-IV-11'n

P. Lafitte jaunari!

Zure txartel adeitsuak arras unkitu nau nere barneari atsedean pozgarria emanez.

Besteak beste orain gutxi anai-maite Josep genuena (G.B.) illa dugu ta eskerrik bizienak igortzen daukitzut zure dolu-mina agertu nai izan duzula-kotz; eta eskerron beteago oraino meza sainduan are alde egindako otoitzez.

Millesker anitz berriz ere!

Parada ontaz baliaturik gogor datorkit aspaldidanik «Gure Herria» aldizkariaren urte-saria ordaintzeke nagola. Otoi, galdegin ote zenezake noiz ezkerroz? Eta nere zorra zenbatekoa den? Bainan, orobat jakin araz bear dautzuet ez ditudala banako guztiak artzen. Ara nola peitu zaizkidan:

- 1974- 3.garren banakoa,
- 1975-1ena eta 3.garrena, bilduma osatzeko. Azken eldutakoa 1975-4.garrena da. Goraintzi L. Dassance jaunari eta baita ere E. Goyhenetche'ri. Onen agurra nere semeak ekarri zidan. Guztiok bizkor zaudetela jakitea atseginez entzuten dut. Jarrai ortan! Ikus artio eskumun eta besarkada estu batez. Zure berrien ardura beti zure,

A.M. Labayen.

10. Antonio Ma Labayen
San Francisco, 35
Tolosa.

1976- Abenduaren-5'an

Piarres Lafitte jaunari
Ustaritze.

Jaun eta adiskide on ori!

Urte burua urbil dugula-ta, Eguberri jaien kariaz ere Oles eta zorion mi-
ñenak igortzen dauzkitzut.

Ez dakit nik azken bidali nere liburu «Teatrogintza ta Yakintza» artu ze-
nuenetz. Geroztik ez bait dut ukan zure berririk.

An esan arabera «Gure Herria»'ren banako batzu peitu zaizkit eta utsu-
nea osa nai nuke, arenganako dudan zorra, jakiña, ordainduz... Otoi! Zenbat
den esaidazu.

Oraintsu orai argiratu berri dudan «Muñagorri eskribaua, pakegille, ta
fuerozale» nere liburu berria pozik bidaliko dautzut, emen atzeman ez badu-
zu.

Zure albistien begira, zaude bizkor jaun kalonje agurgarria! Ar itzazu nere
biotz-oparik oberenak.

Besarkada estu batez,

Beti zure

A.M. Labayen.

11. Antonio Ma Labayen
Calle San Francisco, 35
TEL.: 65 10 82
TOLOSA

1977-11-18

Zure lanetan jarraikitzeke eta gorde zaitzala anitz urtez Eskualdun'aren onerako.

Agur adiskide maite. Damurik nago, ez bait dut nik zuri igorritako gutu-neri yardespena artzeko atsegiñik ukan. Ez nuke jakin orai nerekin samurturik edo eri zaudenik. Jainkoak eman dakizula osasun.

A.M. Labayen.

12.

Tolosa 1977-XII-31

Oles eta zorion! Urte zaarrez! Pierre Lafitte jaun eta adiskide maiteari!

Zure azken gutunak pozkarioz bete nau eta eskerrak ematen dizkitzut zure itz amultsuengatik. Ez dut «*Herria*» astekaria artzen, baiñan atsegin litzaidake nere liburuengatik egin dituzun aipamenak irakurtzea.

Aitzitik «*Gure Herria*» iñoiz eltzen zait eta «zordun» natzaizutela aitor-tzen dut. Zenbat? Ez dakit! Nola nai emen doakizu. 100 frs (libera) ordaiñez, aurrerantzean ere bidali dakidazuten.

Azkenik; gogoko izanen duzun berri bat: «Elizanburu» gaiz bi liburuxka «inprimerian» ditudala laister «Auñemendi-etxeak» edatuko dituanak.

Besterik gabe beti zure,

A.M. Labayen.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Bilbon, 2005.eko ekainaren 23an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana-Martija,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea eta Juan
Jose Zearreta kudeatzailea, eta Mikel Go-
rrotxategi, zegozkien gaietan.

30ean hil dela iragarri du. Beraz, arautegiaren arabera, datozen bi batzarretan horren hutsunea betetzeko kandidatuak proposa daitezkeela gogoratu du.

3. Arautegiaren aldaketa berrestea

J. L. Lizundiak aurkeztu du, Argomaizen tratatu eta eztabaidatu zenaren arabera moldatua. Idazkariak ahalak irakurri ondoren, testua aho batez berretsi da.

4. Hizkuntza gaiak

4.1. Onomastika. «Bizkaiko Herri izendegia (III): Lea-Artibai» zerrenda onartu da.

4.2. Onomastika. «Bizkaiko Herri izendegia (IV): Busturialdea» aurkeztu du A. Iñigok, oharrak uztailaren 15erako aurkeztu behar direla adieraziz.

4.3. Hiztegi Batua: «berriz-buzuntz» zerrenda, oharrik gabeko hitz onartuena, banatu da.

4.4. Hiztegi Batua: «berrizale-byte» zerrendari egin zaizkion oharrak aztertu eta erabakitzen jarraitzea. **Bihotz**-etik **bitxi**-rainoko hitzak aztertu era erabaki dira.

5. Batzordekideak berriztatzea

Euskaltzainburuak batzordekide berrien zerrendak irakurri ditu, eta kide berri batzuen curriculumak banatu dira. J. Haritschelharrek eskatuta, J. M. Lekuona Literaturara batzordearen ohorezko buru izendatzea proposatu du. Ontzat eman da.

Ezin etorriak eta ahalak:

Miren Azkaratek, ahala P. Salabururi;
Patxi Goenaga, ahala J. Haritschelharri;
Patxi Ondarrak, ahala A. Iñigori;
Ibon Sarasolak, ahala P. Salabururi;
Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 5etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko bilkuraren akta ontzat eman da.

2. Juan San Martin euskaltzainaren heriotza. Euskaltzainburuak, J. San Martin euskaltzaina aurtengo maiatzaren

6. Eskuartekoak

6.1. P. Telleria idazkariordeak 2004ko oroitidazkia banatu du.

6.2. Euskaltzaindiak ekainaren 15ean FEVErekin lankidetz hitzarmena sinatu duela jakinarazi da, horren ardurapeko trenbideetan elebitasuna bermatzeko asmoz.

6.3. Ekainaren 17an Euskaltzaindiak Iruñean Jimeno Jurioren familiarekin beste hitzarmen bat sinatu du, horren bidez haren senideek Euskaltzaindiari zenduaren toponimia-fitxak eta beste material batzuk emanez.

6.4. Era berean, Euskaltzaindiaren eta Erandioko Udalaren arteko hitzarmenaren berri eman da, ekainaren 20an sinatua, udal horren toponimia eta hizkuntza normal-kuntzan aurrera egiteko.

Euskaltzainburuak adierazi duenez, hitzarmen horietako batean interesaturik legokeen euskaltzainak kopia eskatzea dauka.

6.5. H. Knörrek Aramaion antolaturiko uda ikastaroaren programa banatu da.

7. Ahoz esandakoak

7.1. Uztaileko osoko batzarra eta inguruko bilera-ospakizunak nola antolatuko diren azaldu da.

7.2. Santurtziko Udalak, bertako ikerketa zentroari A. Eguzkitza euskaltzain zenduaren izena jartzea erabaki duela jakinarazi da. Udalari zorionak ematea erabaki da.

7.3. J. J. Zearreta kudeatzaileak A. Arejitaren sarrera-hitzaldi ospakizunetako egitarau-protokoloa nola garatuko den azaldu du.

7.4. Adolfo Arejitak eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari bere anaiaren hiletan izandako ordezkaritzagatik. Arantzazuko euskarazko sermoien kopia eskuratzeko gestioaz ere mintzatu da. Bere omenaldirako eginarazi den kartela gehiegizkoa iruditua zaio.

Bukaeran, azkeneko *Eusker*a agerkaria eta EGLU VI banatu dira.

Bilera arratseko 19,50ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

ADOLFO AREJITA EUSKALTZAINAREN SARRERA HITZALDIA Ageriko Bilkura

Bilbo, 2005-VI-24

Bilboko Udaletxean, 2005eko ekainaren 24an, bildu da Euskaltzaindia, goizeko 10:30etan, Adolfo Arejitaren sarrera-ekitaldia gauzatzeko. Andolin Eguzkitza zenaren lekua betetzen du Arejitak. Ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta 3. zenbakia duen domina eman dizkio. Domina hau izan duten aurretiko euskaltzainak hauek dira: Julio Urkixo, Luis Villasante eta Andolin Eguzkitza.

Bildu dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; H. Knörr, Iker sailburua; A. Iñigo, Jagon sailburua; J. Haritschelhar, euskaltzainburu ohia eta J. A. Arana Martija, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, P. Goenaga, E. Larre, Tx. Peillen eta P. Salaburu euskaltzain osoak.

Euskaltzain ohorezkoak: A. Manterola, J. Intxausti eta J. Lopategi.

Euskaltzain urgazleak: J. Agirreazkuenaga, K. Altonaga, X. Altzibar, X. Arbelbide, G. Aulestia, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, L. Baraiazarra, G. Barandiaran, X. Erdozia, I. Etxebarría, J. M. Etxebarría, I. Exebeste, S. Garcia Trujillo, J. L. Goikoetxea, M. Gorrotxategi, J. Otaegi, J. Kaltzakorta, M. Ruiz Urrestarazu, K. Segurola, P. Uribarren, P. Telleria eta J. J. Zearreta.

Batzordekideak: N. Etxebarría, P. Galé, J. Irigoras, I. Lasa eta J. Rekalde.

Euskaltzaindikoko langileak: L. Alberdi, N. Altuna, K. Arana, B. Amundarain, J. Artza, P. Artza, P. Gartzia, I. Kareaga, A. Lopez Aretxaga, A. Okariz, J. Olabarria, R. Orbe eta E. Porras.

Euskal kultura eta gizarteko pertsona ezagunak ikusi ahal izan dira. Besteak beste, bertan izan dira Belen Greaves, Bizkaiko Kultura diputatua; Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia; Anton Mari Aldekoa-Otalora, Gerediagako ohorezko lehendakaria; Juan Ignacio Lejarraga, Morgako alkatea; Jose Antonio Torrontegi, Mungiako alkatea; Andoni Barandika, Arratzuko alkatea; Jokin Gorozika, Labayru Ikastegiko presidentea; Ibone Bengoetxea, Ana Castro eta Jon Sanchez Bilboko Udaleko zinegotziak; Bilboko Udaleko alderdi politikoetako bozeramaileak; Amaia Basterretxea, Euskal Museoko zuzendaria; Miren Agur Meabe idazlea; Imanol Ubieta UZEIko kudeatzailea; EiTBko Bingen Zubiria; Emilio Mujika, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko presidentea; Irune Zuloaga eta Andoni Olabarri, Sabino

Arana Fundaziokoak; Santiago Larrazabal, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko burua; Rosa Miren Pagola, Deustuko Unibertsitateko Euskara errektoreordea; Ignacio Pérez Iglesias, EHUKo errektorea; Edurne Brouard eta Fernando Landaburu, AEK-koak; Gipuzkoako Foru Aldundiko Peru Bazako; Victor Sarriugarte, Alberto Errasti, Karlos Zarraga, Jose Mari Zeberio, Juanjo Pujana eta Leopoldo Zugaza.

Mahaiburuan eseri dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; Iñaki Azkuna, Bilboko alkatea eta, X. Kintana, idazkaria.

Lehenengo eta behin, ongietorria eman die Alkate jaunak bertaratu direnei, eta Euskaltzainburuak agur-hitzak esan ditu. Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Euskaltzaindiko Barne Erregeletako 57.8 eta 57.9. ataletan ezarritakoa betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoak azaldu ditu.

Horrela, euskaltzain berriaren bila irten dira Jose Luis Lizundia -azken aurrez izendaturiko euskaltzaina- eta Andres Iñigo -haren aurkezleetariko euskaltzaina-, eta batzar aretoan satu da Adolfo Arejita euskaltzain berria.

Jarraian, Adolfo Arejita euskaltzainak bere sarrera-hitzaldia irakurri du, *Idatzizko eta ahozko tradizioa gaur egungoari buruz* izenekoa. Lehenik, hartu duen aulkian aurretik eseri diren Julio Urkixo, Luis Villasante eta Andolin Eguzkitza izan ditu gogoan euskaltzain berriak. Ondoren, batetik, idatzizko tradizioaz jardun du, edizio kritikoen garrantzia azpimarratuz eta gaur egungo baliabide teknikoek corpusak sortzeko eta hizkuntza eskuragarri izateko ematen dituzten erraztasunak gogora ekarriz; horrek guztiak lagundu du lexiko-ondareaz hobekiago jabetzen, hitz eta esamoldeen erabilera mende mende nolakoa izan den ikusten, zer den erabiliagoa eta zer bakanagoa, zer den zaharragoa eta zer azken aldian sortua... Bestetik, ahozko euskarak euskal literaturan izan duen eragina azaldu du, eta gaur egun kalitatezko euskaraz argi garenean ere oso kontuan hartzekoa dela aitortu.

Segidan, Andres Urrutia euskaltzainak erantzun dio Adolfo Arejitari, *Zaharrek berri, euskararen bizigarri* izeneko hitzaldia irakurritz. Mintzaldiaren hasieran, gogora ekarri du Adolfo Arejitarekin izan zituen lehen hartu-emanak, 1982an Labayruren udako ikastaroetan irakasle izan zuenean, euskal testu zaharrei buruzko kurtso batean. Arejitak duen egitasmo garrantzitsuena hau dela esan du Urrutiak: gure tradizioari zer etekin atera, hau da, atzoko moldeak gaurko euskarara nola ekarri. Ahalegin hori gaur egungo euskaldunen eginkizun garrantzitsuenetarikoa dela adierazi du Urrutiak: euskara modernoari iraganeko moldeak txertatu, ahozketasun klasikoaren jariora geureganatu, etorkizuneko hizkuntza sendotu, arlo guztiak beteko dituen corpusa bermatu. Arejitaren lan nagusia euskararen morfojosquera eta lexikografia ikertzea eta irakastea izan dela esan du Urrutiak, eta horrekin batera Labayru Ikastegian egin duen talde-lana azpimarratu du. Amaitzeko, hau gogorarazi dio Urrutiak Arejitari: kargua hartzean, horrekin batera karga ere hartzen duela, eta lanerako gonbita egin dio.

Erantzun-hitzaldia amaitu denean, denak zutik jarri dira eta Euskaltzainburuak euskaltzain osoari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio Adolfo Arejitari eta eskua eman; ondoren, euskaltzain guztiak hurbildu zaizkio eskua edota besarkada ematera.

Ondoren, opari bana egin diote Arejitari Bilboko Udalak eta Labayru Ikastegiak. Iñaki Azkuna alkateak zilarrezko luma, Bilboko ikurra grabatua duena, eman dio. Labayru Ikastegiaren izenean, bestalde, Kurtziagako gurutzearen irudia eman dio Nago-

re Etxebarria Labayruko kideak.

Idazkariak ekitaldi akademikoa bukatutzat eman duenean, Alkateak gonbidaturik, Udaletxeko ohorezko liburuan idatzi dute euskaltzainek.

Jarraian, Udalak eskaini duen luntxa hartu ondoren, euskaltzainak Morgara abiatu dira, bertako Udalak ere omenaldia eskaini baitio Adolfo Arejitari. Izan ere, Morgakoa zen Adolfo Arejitaren ama eta Bizkaiko herri horretan igaro zuen euskaltzainak bere haurtzaroa. Omenaldi xume bezain hunkigarria izan da eta dantzariak eta Jon Enbeita bertsolaria aritu dira. Ondoren, alkateak Morgako urrezko armarria duen intsignia eman dio Arejitari. Morgako *Katxi* jatetxean bazkaldu dute gonbidatuek. Karmelo Etxenagusia ohorezko euskaltzaina ere bertaratu da euskaltzain berria agurtzera.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

FRANCISCO LAPHITZ ETA JEAN-PIERRE ARBELBIDEREN OMENEZ

Ageriko bilkura

Irisarri, 2005-VII-21

Irisarrin, Herriko Etxearen ondoan dagoen Denen Etxean, 2005eko uztailaren 21ean, bildu da Euskaltzaindia, arratsaldeko 17:00etan, F. Laphitz eta J.P. Arbelbideren heriotzaren mendeurrenean.

Bildu dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; H. Knörr, Iker sailburua; A. Iñigo, Jagon sailburua; J. Haritschelhar, euskaltzainburu ohia eta J. A. Arana Martija, A. Arejita, P. Charritton, J. L. Davant, E. Larre, Tx. Peillen eta P. Salaburu euskaltzain osoak.

Euskaltzain ohorezkoak: J.B. Dirassar, J. Camino eta J.B. Orpustan.

Euskaltzain urgazleak: G. Alfaro, X. Arbelbide, Erramun Baxok, I. Camino, J. Casenave, J.P. Curutchet, J.B. Etcharren, L. Etxezaharreta, R. Idiart, M. Itçaina, D. Lantart, M. Pagola, P. Telleria eta J. J. Zearreta.

Batzordekideak:

Euskaltzaindiko langileak: A. Okariz eta M. Mongabure.

Ekitaldiaren hasieran herriko auzapezak, Jean-Pierre Indaburu jaunak, ongietorria eman die bertaratu direnei eta euskaltzainburuak ere agur-hitzak esan ditu, eta ondoren hitza eman die hizlari desberdinei.

P. Charritton: «Frantzisko Laphitz–Arriadaren bizia eta lanak»

Euskaltzaindia Irisarrin, zertarako. Galdera eta erantzuna, biak batera egin ditu, gaurkoan, Piarres Xarritton euskaltzain eta Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko ordezkariak: «Euskal literaturaren historia apur bat badakienak ihardetsiko dio bakoitzari XIX. eta XX. mendeetan badela Irisarrin beste lan eder asko ere euskararen alde eginik».

Hausnarketa horren kariaz, izen batzuk ekarri ditu gogora Xarrittonek: Salvért Monho, Pierra Haristoy, Lukuze Kattileneko seme Aguerre, Joseph Gosterratxu gazteen apeza, Jean Hiriart Urruty euskaltzain hazpandar zena. Klaudio Harluxet –«euskal mundu osoan bere itzal indartsua zabaldu zuena»– izan da Xarrittonek aipatu duen azken izena. «Jakín bezate beraz –azpimarratu du– gaur gure herri ondarea zaindu nahi

omen duten herri gizon guziek izan dela eta badela Irisarrin harri zaharrez besterik, badela euskara».

Xarrittonek azaldu bezala, Frantzisko Laphitz Larresoroko eta gero Baionako Seminarioan apezteko eskolak egin zituen eta 1857an apezte zuen. Gero, Baigorriara igorri zuten apez laguntzaile eta hortik Altzaira erretore, 1866an. Orduan idatzi eta argitaratu zuen, Baionan, 1867an, *Bi saindu heskualdunen bizia* hots, San Iñazio Loiolakoaren eta San Frantzisko Xabierrekoaren historia. Horren ostean, Altzaitik Berramera joatea erabaki zuen Mixel Garikoitzek sortu ordenan sartzeko «eta horrela Ameriketara saldoka joaten ikusiak zituen gure mendien bi aldetako euskaldunen apez izaiteko gisan».

Uruguain eta Argentinan ibili zen misiolari. Argentinan, hain zuzen ere, euskal elkarteak sortzen ari ziren: «Hor du erakutsiko aita Laphitzek oraino bere bitartekari dohain berezia. Errekaborde zalgiztar puxantaren eta beste dirudun eta fededun andere zenbait bildurik *Euskal Herrietako Zazpiak Bat* eginik sortuko dute Buenos Airesetik 35 kilometrotan dagoen Llavalloleko zelai zabalean hiru adar bederen izanen dituen obra nagusia: euskal gizon eta emazte xaharren etxe berezia, ikastegi bat neska umezurtz eta besteentzat, ikastegi bat eta laborantza eskola sail bat mutikoentzat».

P. Salaburu: «F. Laphitz: euskara batua eta euskara ereduak»

Laphitzen euskararen ezaugarriak, alde batetik, euskararen beraren aberastasuna, bestetik. Horiek biak izan dira Pello Salabururen gaurko hitzaldiaren xedeak.

Euskararen batasunaren bidea abiapuntutzat hartu du euskaltzainak eta halaxe azaldu du: «Entzuten hasiak gara aspaldixko hizkuntzaren batasuna –itxuraz bada ere– nolabait zalantzan jartzen duten ahotsak: ustez, nonbait, euskarak kolorea galdu duen, beldurrez gure baserrietako hitz jarioaren aberastasuna atzenduxe dugun, egungo euskara batu hori, batua bai, baina batzuetan ez gehiago dela euskara iduri, haien aburuz. Batzuek, akiduratik hurbil ikusteraino ailegatu dira. Eta, diote, hori konpontzeko moduetako bat dugu herri hizkerara, herrietako mintzoetara, itzultzea, erran nahi baita, baldin gai izaten bagina, maila batzuetan, gure baserrietan ibiltzen genuen euskara goxo eta hurbil hura egungo arlo landuetan ibiltzeko ere, orduan batasuna bera ere aberastuko genuke, eta bere on bidera ekarriko mintzaira batua». Gauzak, baina, ez dira hain errazak, hori onartzetik atera diren ondorioetako batzuk, bederen, ez baitira batere zuzenak, Salabururen iritziz.

Euskarari «kolorea eta distira» ematea ez omen da hitz baten truke lortzen den saria. Jendeak praktikan ibiltzen duen batasun eredu kolokan jarri beharreko kontua litzateke: «Euskaltzaindiak –esan du Pello Salaburuk– batasun eredu baten proposamena egin du urteen joan-etorrian, bai, baina gero idazleek batasun proposamen hori modu batera ulertu dugu, aise estuago den modu batera bakarrik». Hala bada, gaineratu du euskaltzainak, «Euskaltzaindiak definitu duen ereduaren interpretazio bat egi ten dugu, interpretazio batek hartu du indarra, bat nagusitu da praktikan egiten ahal ziren gainerakoen artean, eta hori ez da gauza ona. Euskararendako ez da gauza ona».

Euskararen Akademiak gaur omendu duen Laphitzek utzitako ereduak ontzat hartu du Salaburuk. Horrek, erran du, «idazle trebearen argitasun eta erraztasuna erakutsi

zigan» eta *Bi saindu euskaldunen bizia* izeneko liburua, adibidez, «erreferentzia behar luke izan, nire ustez, euskaraz idatzi nahi duen ororentzat».

Azken batez, hauxe da gakoa: hizkuntzaren osasunaren mesedetan, berdintasun homogeneoa hautsi egin beharko litzateke, beti ere homogeneo hitzean jarrita azentua: «Ezik batasunak bide bat baino gehiago badu. Eta denak ibiltzen ahal baitira. Hobeki erran: denak ibili behar dira. Hori da hizkuntza aberasteko bidea. Zeren hizkuntza idatzia nekez aberastuko baita funtsean oinarritzat eredu estandarra hartzen badugu eta txokokeria batzuk sartzen han-hemenka, atzenduz aldi berean badirela bertze bide batzuk aski erabilgarriak izan daitezkeenak».

Laphitzen lanak balio du hori frogatzeko, berak erabilitakoak «euskara batuan idazteko eredu aberasteko aldarrikatu nahi nituzkeen bideak» baitira, amaitu du Pello Salaburuk.

Xipri Arbelbide: «Jean-Pierre Arbelbideren bizia eta lanak»

Jean-Pierre Arbelbide Zaron jaio zen 1841eko abenduaren 20an, eta Baionan hil, 1905eko urtarrilaren 27an. Eliz gizona izan zen eta argitaratu zuen libururik ezagunena *Erlisioea: Eskual-herriari dohazkon egarik beharrena* da, 2004an Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak berrargitaratua.

Arbelbideren bizitzaren joan-etorriak gogora ekarri ditu Xipri Arbelbidek gaurko hitzaldian: lehenengo ikasketak Baionan egin zituen, ondoren Larresoroko seminarioan sartu eta, azkenik, Baionan egin zuen seminario handia, 1867an, apeztu zelarik. Hazparneko misiolarien kongregazioko burua izendatu zuten. 1887an, bere lehen liburua idatzi zuen, *Bokazioea edo Jainkoaren deia*. Gero *Hazparneko Galbarioa* (1892), *Erlisioea* (1890), *Igandea eta Jaunaren Eguna* (1896) plazaratu zituen.

Xipri Arbelbidek esan bezala, Ameriketako Euskaldunetz arduratzea zen Arbelbiden kezka handietarik bat. Eta holaxe egin zuen, 1897. urtean joan baitzen Buenos Airesera, bost hilabeterako. Itzuli zenean, apezpikuarekin arazoak izan zituen, honek Hazparneko apezgaiak ez zituelako ordenatu nahi. Arbelbide Erromara eta Argentinara joan zen, arazoa bere kabuz konpondu nahian, baina ez zuen lortu: misionesten zuzendari-tzatik kendu zuen apezpikuak.

Xipri Arbelbidek esan bezala, «hil arte, denbora pasatuko du seroretan erretiro predikatzen».

Piarres Broussainekin eta Azkuerekin eskutitz ugari trukatu zituen, baita Julien Vinsonekin ere.

J. Haritschelhar: «Duny-Pétre gogoan»

Bestalde, Laphitzen eta Arbelbideren omenezko bilkuraz gain, zendu berria den Pierre Duny-Pétre euskaltzain urgazlea ere gogoan izan du Euskaltzaindiak. Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak gogora ekarri duenez, Pierre Duny-Pétre «euskaltza-

le eta abertzale suharra» Donibane Garazin sortu zen 1914ko apirilaren 3an, eta eza-gutu zuen bi gerlen arteko Donibane Garazi herri euskalduna.

Duny-Pétre Erresistentziako kide izan zen: «Hogeita bost urte zituen Pierre Duny-Pétre-k hasi zelarik bigarren gerla, jadanik senditu zuela bere bihotzean Espainiako guda, euskaldunen zorte tristea, bilduak zirelarik Donibane Garaziko gaztelu zaharrean erbestean ziren euskaldun haurrak Lafitte apezari eta orduko Donibaneko alkateari Haranburu jaunari esker».

Haritschelharrek azaldu duenez, «1940.ean, Somme ibaiaren ondoan Alemanek preso hartu zuten, bainan hor agertzen da Pierre Duny-Pétre-ren jeinua, bost aldiz eskapatuko dela, seigarren aldia 1942.ean askatzen dela osoki, Marseillara etorri bere osaba Jean Pétre-ren ondora. Jaun hau da Frantzia Hego Ekialdeko erresistentziaren buru eta berehala jarraitzen zaio osabari, gerla segituz Alemanen kontra sasi-gudari gisa».

1944an, DST zerbitzu sekretuetan sartu zen, gero komisario izendatu zutelarik. *Enbata* aldizkariaren eta mugimendu politikoaren sortzaileetarikoa izan zen gizona «abertzale izan baino lehen euskaltzale da». *Basajaunaren historia*, *Garaziko hiri nagusia*, *Manexen marrazak*, *Garaziko solasak* eta *Xirula Mirula* ipuin eta kontakizunak idatzi zituen: «Ikusirik zer beherakada daukan euskarak Garazin eta Iparraldean, biltzen ditu haur kantak, eskolako jostetak, erran zaharrak, horiek guztiak berak entzunak Alduden, han bizi zelarik edo Donibane Garazin, bilduz ere bere familian, bai eta ere bere andrearen familian».

Euskaltzaindiak 1963ko maiatzaren 18an izendatu zuen euskaltzain urgazle, «berreziki bere olerkari emaitzarengatik», Haritschelharren esanetan. Erabili zuen gai nagusia, hauxe: «Iragana bere oroitzapen xoragarriekin *«Mais où sont les neiges d'antan!»* delakoaren oihartzuna, ezeztatzen ari dela, hautetsiek, agintariak ez dutelarik deus egiten euskararen hiltzaile den bizitzeko manera berriaren kontra, gehienetan haren laguntzaile hurbil ez baldin badira esku mutil bilakatzen».

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Irisarrin, 2005.eko uztailaren 22an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburoordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose
Zearreta kudeatzailea eta Mikel Gorro-
txategi, zegozkien gaitan.

tzeta. A. Iñigok, egin diren bi oharrak aztertu ondoren, Onomastika batzordean *eatar* eta *sukarrietar* = *samikolar* herritar izenak onartu direla adierazi du.

2.1.2. Onomastika: Bizkaiko Herri Izendegia, V. Eskualdea. A. Iñigok Uribe I eskualdeko udalerrien zerrenda aurkeztu du. J. L. Lizundiak euskaltzainei, eskaintzen den bibliografia dokumentazioa arretaz irakurtzeko eskatu die. Aurrekoan *Plentzia* izenarekin batera *Gaminiz* ere zergatik jarri zen galderari erantzunez, M. Gorrotxategik, bilduriko datuen arabera, *Gaminiz* toponimoa herrialde osoari dagokiola azaldu du. Oharrak irailaren 15erako bidali beharko dira.

2.1.3. Bizkaiko Herri Izendegia I-II. Mahai gainean utziriko herri izenak (*Iurreta* eta *Igorre*). A. Iñigok horiei buruz aurkituriko dokumentazioa azaldu du, udal horietako egoera soziologikoa ere kontuan hartuz. Ondorioz *Iurreta* eta *Igorre* uztea erabaki da. J. L. Lizundiak ere argitasun gehiago eman ditu. A. Arejitak eta M. Gorrotxategik *Derio*, *Zamudio*, *Laudio* herri izenen ahoskeraz ere oharrak egin dituzte, hor ez dela diptongorik azalduz. A. Arejitak zaharrek *Iorre* diotela dio eta ohar hori sartzeta eskatu du. Ontzat eman da.

2.2.1. Euskaltzainburuak E letrako hitz zerrendako berba markatuak bidaltzeko epea irailaren 5era arte luzatzea proposatu du eta ontzat eman da.

2.2.2. Hiztegi Batua: berrizale-byte zerrendari egin zaizkion oharrak aztertu eta erabakitzen jarraitzea. *Bixi*-tik *bon*-erainoko hitzak aztertu eta erabaki dira.

Ezin etorriak eta ahalak:

M. Azkaratek, ahala P. Salabururi; P. Xarritonek, ahala Jean Haritschelharri; Patxi Ondarrak, ahala A. Iñigori; Patxi Zabaletak (iritsi bitartean), ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Irisarrin, bertako udaletxearen ondoko «Denen Etxea» kultur aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hizkuntza gaiak

2.1.1. Onomastika: «Bizkaiko Herri Izendegia (IV): «Busturialdea» onar-

3. Jagon Saileko eta egiturazko batzordekideak berriztatzea

Euskaltzainburuaren aurkezpen-azalpenak egin ostean, paperean ageri diren organigramak komentatuz, A. Iñigok Jagon Saileko berriztapenak batzordez batzorde aipatu ditu. Horren ondoren, P. Telleriak egiturazko batzordeen organigramako berriztapenak azaldu ditu.

4. 2006.eko Aurrekontuen aurkezpena

Paperez euskaltzainen artean 2006.eraiko aurrekontuen laburpenak banatu ondoren, Juan Jose Zearretak horiek aurkeztu eta azaldu ditu, oraingoak behin-behinekoak direla esanez, eta, beraz, bere egunean herri-aginteekin sinatuko den hitzarmenaren arabera egokitu beharko direla. Ondoren, J.L. Lizundia diruzainak ohar-argitasun batzuket eman ondoren, horien artean batzordeen lana zehatz banatu beharra, aurrekontuei buruzko oharrik irailaren 5erako bidali behar direla gogoratu du.

Jose Antonio Arana Martijak artxiboen taxuketa eta digitalizazioaz egiten ari den lana zertan ari den azaldu du. Patxi Zabaletak, Orotariko Euskal Hitzegiaren salmenten etekinez galdetu eta J. J. Zearretak erantzun dio.

5. Esku artekoak

5.1. Eugenio Agirretxeren heriotza. Ohorezko euskaltzain hau uztailaren 7an hil da. Hilberri-txostena egitea Paulo Agirrebaltzategi frantziskotarrari eskatzea proposatu du Zuzendaritzak eta onartu egin da.

5.2. Euskararen Erakunde Publikoa. Bezperan, uztailaren 21ean, arratsaldean, Baionan Kontseilu Orokorraren etxean frantses administrazioak euskara bultzatzeko sorturiko Euskararen Erakunde Publikoak Euskaltzaindiarekin egindako aurkezpenaren berri eman du Euskaltzainburuak, erakunde horren asmo onak azalduz. J. Haritschelharrek atzoko ekitaldiaz *Sud-Ouest* egunkarian ez dela deus agertu deitoratu du.

5.3. Iraileko batzarrez. Iraileko batzarra Altsasun dela gogorarazi da, hilaren 23an: goizean osoko batzarra eta arratsaldean ageriko bilkura.

5.4. Euskara Institutuaren jardunaldiak. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak aurtengo abenduan «Espezialitate-hizkerak eta terminologia» gaiari buruzko II. jardunaldiak antolatuko dituela jakinarazi du P. Salaburu euskaltzainak, eta dokumentazioa banatu da.

5.5. Atzeraturiko zorrak kitatzea. Euskaltzain batzuei oraindik kitatzeko gelditzen ziren ordainketa batzuk egunotan egingen direla azaldu du J. J. Zearreta kudeatzaileak.

5.6. Eskerrak emanez. A. Arejitak Euskaltzaindiari eta bere langileei eskerrak eman dizkie bere sarrera-hitzaldia hain egoki antolatzeko izandako ardura eta zehaztasunagatik, eta bereziki J. J. Zearretari.

6. Banatu diren argitalpenak

Batzarra amaitzean ondokoak banatu dira:

Separatak:

- Maurice Harrieten omenez iaz Larresoron irakurritako hitzaldiak.
- J. L. Lizundiaren sarrera-hitzaldian irakurritakoak.

- 2004.eko *Nafarroa Oinez*-ko hitzaldiak.
- VIII. Jagon Jardunaldietako hitzaldi eta txostenak.

Liburuak:

- 2004an BBK eta Euskaltzaindiak emandako lau sari nagusien lan argitaratuak.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Euskaltzaindiko Gramatika eta Exonomastika batzordeen irizpenarekin, argitaratu berri dituen bi liburuok banatu dira: *Kalko okerrak* eta *Onomastika*.
- Xipri Arbelbideren *Zoriona* liburua, Labayruk argitaratua. A. Arejitak gaia azaldu du.

Batzarra 13:15ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Altsasun, 2005.eko irailaren 23an.

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Ibon Sarasola,
Piarres Xarritton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-
riz eta Mikel Gorrotxategi, zegozkien
gaietan.

3.1.2. Onomastika: «Bizkaiko Herri Izendegia (VI) Uribe II» aurkeztea. Pro-
posamena euskaltzainen artean banatu da, datorren hileko 14ra arte oharrak bidaltzeko
epea emanez.

3.1.3. Onomastika: Arteaga, Munitibar eta Zornotza herri-izenak onartzea.
A. Iñigok hirurei soluzio berbera ematea proposatu du, lehendik onarturiko izenak be-
rretsiz. J. L. Lizundiak *Amorebieta-Zornotza* eta *Munitibar* izenei buruz argitasun ba-
tzuk eman ditu.

4. Juan San Martin-en ordezkioaren aurkezpena

Kandidatu bakarra aurkeztu da: Ana Maria Toledo Lezeta, J.L. Lizundiak, J. Ha-
ritschelharrek eta X. Kintanak aurkeztua.

5. Eskuartekoak

Euskaltzainburuak ondokoen berri eman du:

5.1. Nafarroa: ahozketasunari buruzko jardunaldiak. Euskaltzaindiak Nafa-
rroako Gobernuarekin sinatua daukan hitzarmena betetzeko, aurtengo irailaren 28an eta
29an, jardunaldi horiek antolatu dira. Egitaraua batzar-karpetetan banatu da.

Ezin etorriak eta ahalak:

Pello Salaburuk, ahala J. Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Altsasu-
ko Udaletxearen batzar aretoan, ezkerre-
ko zutabearen ageri diren euskaltzainak
bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Aurreko ba-
tzarraren akta, H. Knörren ohar batekin,
ontzat eman da.

2. Patxi Ondarraren heriotza. P. Onda-
rra uztailaren 30an hil zela eta, haren hu-
tsunea iragarri du Euskaltzainburuak.

3. Hizkuntza gaiak

**3.1.1. Onomastika: «Bizkaiko Herri
Izendegia (V) Uribe I» onartzea.** A.
Iñigok azaldu duenez, ez da oharrik jaso
eta, hortaz, besterik gabe, proposamena
onartu egin da.

5.2. J. Haritschelharri omenaldia. Zuzendaritzak hala erabakita, datorren urtean euskaltzainburu ohiari omenaldia egingo zaio. J.L. Lizundiak, B. Oihartzabalen ezin etorria aipatuz, gaingiroki azaldu du zertan mamituko den omenaldia. Zehaztasunak hurrengo batean emango dira.

5.3. Cervantes Institutuarekiko harremanak. Pragako bidaiaren errendapena eman du txosten idatziaz H. Knörrek. Batzar-karpetan ere sartua da. Cervantes institutua dela eta, A. Urrutiak uztailaren 28an Euskaltzaindiak harekiko hitzarmena sinatu duela jakinarazi du. P. Xarrittonek Cervantes Institutuarekiko hitzarmena sinatzeaz bere kezka azaldu du. Euskaltzaindia ez dela politika-kontuetan sartzen erantzun zaio. P. Zabaletak galdetu du ea institutu horren izena aldatzeko zurrumurrua heldu ote zaigun. Euskaltzainburuak horretaz ez dakiela ezer erantzun du.

5.4. Hilberri-txostenak. Zenduriko azken euskaltzainen hilberriak idazteko, Zuzendaritzak ondokoak proposatu ditu: J.L. Lizundia, Juan San Martinena egiteko. Patxi Ondarrarena, A. Iñigok (alderdi biografikoa, instituzionala eta dialektologian egindako lana) eta Paskual Rekaldek (P. Ondarrak gramatika arloan egindako lana).

5.5. UZEIrekiko hitzarmenak. 2005. urteari dagokion protokoloa sinatu da irailaren 20an. Bide batez, jabetza intelektualari buruzko auzia ere argitu da.

5.6. Euskal Autonomia Erkidegoko herri aginteei hitzarmen berria. Euskaltzainburuak adierazi duenez, testua jadanik adostua eta ontzat emana da, eta urriaren 7an, goizeko 9etan sinatzeko asmoa daukate.

5.7. Euskara Nafarroako ondarea. Patxi Zabaletak Nafarroako Gobernua lege berri bat tramitatzen ari dela jakinarazi du, hor, ondare immaterialen artean, euskara sartuz. Horretaz adi egotea komeni dela esan du.

5.8. Urriko batzarraz. Euskaltzaindiaren urriko osoko batzarra eta Lauaxetaren ageriko bilkura urriaren 21ean eta Mungian izango direla iragarri da.

5.9. Baionako ordezkariarenak. P. Xarrittonek Markiegi apez fusilatua lan baten atzetik dabilela eta horren berri lekiketenei laguntza eskatu die. Bestalde, Baionan ematen segitzen den D Mailako Hizkuntza Agiria behar den bezala bideratzeko, laguntzaileak behar direla adierazi du. Euskaltzainburuak txostena Zuzendaritzari bidaltzeko eskatu dio, eskatzen duena konpondu ahal izateko.

6. Hiztegi Batua

6.1. Hitz markatuak. *E - ez* zerrendan markatu diren hitzen zerrendak banatu dira. Euskaltzainburuak oharrak irailaren 30erako bidali behar direla gogoratu du.

6.2. Hiztegi Batua. Jose Antonio Aduriz batzar aretora sartu ondoren, Miren Azkarateren gidaritzapean *berrizale-byte* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertu eta erabakitzen jarraitu da. *Bon-bon*-etik *burkide*-erainoko hitzak aztertu eta erabaki dira.

7. Liburuak.

Txillardegiren omenezko liburua banatu da, *Nerekin yaio nun* izenekoa, Iker bildumako 17. liburukia dena, Henrike Knörr eta Pilartxo Etxeberriaren ardurapean paratua.

Batzarra 14etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

NAFARROA OINEZ

Ageriko bilkura

Altsasun, 2005eko irailaren 23an

Aurreko urteetan bezalaxe, aurten ere *Nafarroa Oinez* festarekin bat egin du Euskaltzaindiak eta Altsasun hainbat ekitaldi burutu ditu gaur, goizez eta arratsalde. Aurretik iragarri bezala, goizean, osoko bilkura egin du Euskaltzaindiak Altsasuko Udal-etxean eta arratsaldean, *Iortia* Kultur Gunean, ageriko bilkura burutu du, urrian izango den *Nafarroa Oinez* jaiaren egitarauaren barruan. Hori baino lehenago, baina, arratsaldeko 16:30etan, 2005eko *Nafarroa Oinez* antolatu duen Iñigo Aritza Ikastolara bisita egin dute euskaltzainek. Han, haur-talde batek harrera egin die euskaltzainei *Nafarroa Oinez*-en kantarekin eta bertsoekin, eta logoaren inguruko eskulanak erakutsiz.

Ondoren, Altsasuko *Iortia* Kultur Gunean, 2005eko irailaren 23an, bildu da Euskaltzaindia, arratsaldeko 17:00etan, *Nafarroa Oinez-05* dela eta Juan Goikoetxearen mendeurrenean.

Bildu dira: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, *Iker* sailburua; Andres Iñigo, *Jagon* sailburua, Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Emile Larre eta Txomin Peillen euskaltzain osoak. Koldo Artola, euskaltzain ohorezkoa. Ricardo Badiola, Fermin Ixurko, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak, eta Amaia Okariz eta Gema Insausti Euskaltzaindiko langileak.

Hasieran, Luziano Agirre Urdiaingo alkateak eman die ongietorria bilduei, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak ekitaldiaren aurkezpena egin du eta, ondoren hitza eman die hizlari desberdinei.

Andres Iñigo: «Juan Goikoetxea euskaltzain urgazlea jaio zeneko mendeurrenean»

Andres Iñigo *Jagon* sailburuak, D. Juan Goikoetxea Zabalo apaiz eta euskaltzain urgazlearen bizitza eta lanaren zertzeladak eman ditu: Larraungo Lezaetan jaioa 1905ean, eta Donostian hila 1973an. Juan Goikoetxea 1965az geroztik euskaltzain urgazlea izan zen eta 40 urtez Arbizuko erretore. Euskararen bultzatzaile sutsua izan zen eta beste aldetik ez zen bere burua agertu zalea. A. Iñigok adierazi bezala, euskararen aldeko beste ekarpena itzulpenak eta idatziak izan ziren. Egiten zituen lanetan bere izena inoiz jartzen ez zuenez gero, zail da bere lan guztia ezagutzea. Dena dela, Iruñeko elizbarrutian liturgia gaiak itzultzeko egin zen lehenbiziko batzordeko kideen artean

ageri da eta geroago ere beste elizbarrutiek in batera egindako lanetan parte zuzena izan zuten. Bere idazlan ezagunenak Diputazioko *Príncipe de Viana* aldizkariako «Elizaren itza» atalekoak izan ziren, bereziki Vatikanoko II. Kontzilioari buruz argitaratu eman zituen artikuluak. Buru argi eta bihotz zabalekoa, gizon apala, apezkideen kontseilari jatorra, euskaltzale kementsua. Goraipatua bai apezzen artean bai arbizuar guztien ahotan.

Patxi Salaberri: «Jose Mari Satrustegi, euskal onomastikaren eragilea»

Aurtengo *Nafarroa Oinez*-ek Jose Mari Satrustegi zena omendu nahi izan du. Hori dela eta, Satrustegiri buruzko erakusketa bat ere ikusgai izan da, urtean zehar, hainbat herritan. Horretaz gain, urte honen hasieran, euskaltzain zenaren biografia eta lana bilduten liburua argitaratu zen. Andres Iñigok eta Patxi Salaberrik prestatua. Liburu hori, hain zuzen ere, ekarri du gogora Patxi Salaberrik gaurko hitzaldian:

Arruazuko euskaltzainak Onomastikaren arloan egin zuten lanaren berri eman genuen, testuaren barnean lehenik eta bibliografia aukeratuan gero.

Patxi Salaberriren ustez, Jose Mari Satrustegiren lan garrantzizkoenetako bat onomastikan egin zuena da. Hasieratik Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko kidea izan zen, eta, beraz, jakite horrekin erlazionatutako gai anitz ukitu behar izan zituen. Hala bada, Satrustegiren hainbat lan aipatu ditu: *Las casas de Valcarlos*, *Etxe izenak*, *Herri-izenak*. Onomastika batzordean egindako lana ere aipatu du P. Salaberrik, bereziki batzorde horrek argitaraturiko argitalpenetan izan zuten partaidetza azpimarratuz.

Koldo Zuazo: «Burundako euskara»

Koldo Zuazo euskaltzain urgazleak egindako hitzaldian, Burundako euskararen ezaugarri nagusiak aipatu ditu. Bere iritziz, oso berezia da sei herri horietako euskara: nafarra gehienbat, baina Gipuzkoaren mugan dagoenez, harekin ere kidetasunak dituen. Arabarekin ere egiten du muga eta mendebaldeko bereizgarritzat dauzkagun ezaugarri batzuk ere badira Burundan.

Horretaz gain, Zuazoren aburuz, zenbait gauzatan gordetzailer agertzen da Burunda, eta arkaismo esanguratsuak daude bertan eta harritzekoa da hori, Burunda leku bakarti eta ezkutuan gabe, bidegurutzean dagoelako.

Azkenik, Maria Flores, Bigarren Hezkuntzako irakasleak, «Basolangintza Sakana» izeneko hitzaldia eman du.

Ekitaldiari bukaera emateko, Polentzi Goikoetxea *Iñigo Aritza* Ikastolako presidenteordeak hartu du hitza, Euskaltzaindiaren eta hizlarien partaidetza eskertuz.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Mungian, 2005eko urriaren 21ean

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu eta
Piarres Xarritton euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-
riz eta Mikel Gorrotxategi, zegozkien
gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak:

Ibon Sarasolak ezin etorria adierazi du.
Patxi Zabaletak ere bai, ahala A. Iñigori
emanez; bai eta Antonio Zavalak ere, eta
ahala A. Arejitari eman dio.

Batzarra goizeko 10,10etan hasi da Mun-
giako Agirre jauregian, ezkerreko zuta-
bean ageri diren euskaltzainak eta bertan
direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko ba-
tzarraren akta ontzat eman da.

2. Onomastika

2.1.1. «Bizkaiko Herri Izendegia (VI) Uribe II» onartzea. X. Kintanak bere oharra azaldu du *Bilbao* forma zaharra mantentzearen alde. A. Iñigok azken mendeotan idazle gehienek erabili duten forma *Bilbo* dela dokumentuekin erakutsi

du. J.L. Lizundia eta A.Arejita ere *Bilbao*-ri ere jatorrizko euskaltasuna aitortzearen alde agertu dira. X. Kintana bat dator proposamen horrekin. P. Goenaga, P. Salaburu eta M. Gorrotxategi ere mintzatu dira, oin-oharren bat jartzekotan oso argia izan dadila eska-
tuz. Azkenean «Bilbo da euskal izen arautua. Bilbao erdaraz gorde den euskal izen za-
harra da» oin-oharra onartu da. Gainerako izen guztiak oharrik gabe ontzat eman dira.

2.1.2. «Bizkaiko Herri Izendegia (VII) Enkarterri» aurkeztea. Proposamena A. Iñigok aurkeztu eta azaldu du. Oharrak datorren hileko 17ra arte bidali ahal izango dira.

3. Eskuartekoak:

3.1. Lauaxetaren inguruan Mungiako egitekoen programa banatu da.

3.2. BBK – Euskaltzaindiaren arteko lau literatur sari nagusietarako 2005eko epaimahaikideak izendatzea. Zuzendaritzaren proposamena ontzat eman da, izendapen hauek berretsiz:

- Txomin Agirre sarian: Maria Jose Olaziregi, Ur Apalategi eta Ana Toledo.
- Toribio Altzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

3.3. Jose Mari Aranalde euskaltzain urgazlearen hilberri txostena Jose Mari Iriondo euskaltzain urgazle eta Herri Literatura batzordekideak egitea proposatu du zuzendaritzak. Holaxe onartu da.

4. Juan San Martin euskaltzain zenaren ordezkoa hautatzea

Kandidatu bakarra izanez, botazioa eginda, Ana Toledok bere alde 18 boto izan ditu, eta horrela, aho batez, euskaltzain izendatua izan da.

5. Hiztegi Batua

5.1. E letratik oharririk gabeko hitzen zerrenda banatu da.

5.2. Pello Salabururen gidaritzapean *berrizale-byte* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertu eta erabakitzen jarraitzea. Jose Antonio Aduriz euskaltzain urgazle aholkularia batzar-aretoa sartu da. *Burlatze*-tik *byte*-erainoko hitzak aztertu eta erabaki dira.

5.3. Ondoren C letrarekin hasi da. Pertsona-izenetan oinarrituriko hitzen grafiaz eztabaida luzea egin ondoren, arazo hori argitzeko, Hiztegi Batuko lantaldeak zerrenda egin beharko du pertsona-izenetatik eratorririko izenen grafiaz. Ingelesetik hitz hartu berrien arazoa ere eztabaidatu da. *Cava* hitzeraino heldu da.

Batzarra 14etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Mungian, 2005eko urriaren 21ean

Urriaren 21ean, Mungian eta Laukizen, zenbait ekitaldi burutu ditu Euskaltzain-diak, Esteban Urkiaga «Lauaxea»ren omenez.

Hasteko, goizean, osoko bilkura egin du Akademiak Mungiako Agirre Jauregian. Osoko bilkura amaitu ostean Mungiako hilerria joan dira euskaltzainak, han baita po-etaren jaiotzaren mendeurrena gogorarazten duen oroitarria. Hilerrian, Esteban Urki-a-garen arrebarekin elkartu dira euskaltzainak.

Ondoren, Laukizera abiatu dira, *Lauaxeta* sortu zen herrira. Joseba Llona Lau-kizko alkateak ongietorria eman die euskaltzainei eta jarraian Esteban Urkiagaren sor-tetxean –gaur egun Laukizko Udaletxea dena– bi erakundeen izenean ezarritako oroi-garria agerian utzi du Andres Urrutia euskaltzainburuak. Honela dio plakak: «Esteban Urkiaga “Lauaxeta”ren mendeurrenean, Laukizko Udalak eta Euskaltzaindiak. 2005-X-21». Bazkalondoan, zenbait euskaltzainek Lauaxetaren olerkiak irakurri dituzte, Mun-giako Udala mendeurreneko ekitaldiekin egiten ari den bideo batean jasotzeko.

Arratsaldean, ageriko bilkura egin da Mungiako Agirre Jauregian.

Bildu dira: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, Jagon sailburua, Jean Haritschelhar, euskaltzainbu-ru ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Pierre Charritton, Txomin Peillen eta Ana Toledo euskaltzain osoak. Karmelo Etxenagusia, Jon Lopategi, Ander Mante-rola, Patxi Oroz Arizkuren eta Karmele Rotaetxe euskaltzain ohorezkoak. Xabier Al-tzibar, Ricardo Badiola, Luis Baraiazarra, Jon Casenave, Sebastian García Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Abel Muniategi, Rosa Miren Pagola, Pello Telleria, Patxi Uribarren eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak eta, Amaia Okariz, Euskaltzaindiko pren-tsa arduraduna.

Jose Antonio Torrontegi alkatearen eta Andres Urrutia euskaltzainburauren hitzak entzun ostean, Xabier Altzibarrek eta Paulo Iztuetak hitzaldi bana egin dute.

Xabier Altzibar: «Lauaxeta eta Euzkadi egunkariko euskal atala»

Xabier Altzibarren hitzaldiaren bitartez, Lauaxeta kazetaria ezagutzeko parada izan da. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta euskaltzain urgazleak esan bezala, *Euzkadi* egunkariaren euskal atalaren arduraduna izan zen poeta. Olerkari bikaina zen eta euskal idazleen ardura zeukan. Altzibarren aburuz, Lauaxetak euskararen alde egin zuen lana gaitza izan zen oso, eta suntsitu nahi izan zuten lan hori guztia.

Jarraian, Lauaxetaren hainbat alderdi azpimarratu ditu Altzibarrek, herrietako berriemaile eta idazleekin egin zuen lana, bereziki. Idazle horien antolaketa bultzatu zuen, bai eta idazleak prestatzeko ahaleginak ere egin ere. Gizarte gaiak landu zituen, argitaratutako euskal liburuen propaganda egin, umeen liburuak bultzatu, herri folkloreari ere bultzada ederra eman zion. Funtsean, euskararen egoeraz guztiz arduratuta eta kezkatuta agertu zen beti Lauaxeta eta horretaz artikulu asko idatzi zituen, eta eztabaida askotan parte hartu zuen.

Paulo Iztueta: «Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan»

Lan-hipotesi batzuk erabili ditu Paulo Iztuetak bere hitzaldia ematerakoan. Lauaxeta laikoaren baitan, haren sakonenean, hezkuntza jesuitikoan ereindako hazia loratzen da bere betetasun guztian, bereziki prestakuntza literarioan eta espiritualitatean. Lagundia utzi eta gero, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna elkartzean, garbiki jerarquizaturik datoz Jainkoa, aberria eta euskara, baina batasun bat osatuz. Haren poetikaren berritasuna klasizismoaren kontzeptua zabaltzean datza, autore klasikoen inguruan aro modernokoak ere –bereziki, erromantikoak eta sinbolistak– sartuz. Ondorioetara etorrira, gerrate aurreko euskal kulturaren aldeko gizarte-mugimenduen zein ekimen instituzionalen baitan, jesuiten eskola berri eta berezi baten aurrean aurkitzen gara, zeinaren ezaugarria baita euskara, ordurarteko populismotik harago, kultura landuaren esparruan barneratu eta hortik aurrera eramatea.

Lauaxetaren bizitzaren pasarte batzuk aipatu ditu Iztuetak, besteak beste, haren lehen urteak, Durangoko Ikastetxe Apostolikoan eman zuen urtea, baita Loiolan eta Oñan igarotakoak ere. Oñan zegoela, hain zuzen ere, Filosofiako bigarren ikasturtea amaitzen ari zela –1928. urtean– Jesusen Lagundia abandonatu zuen. Jesuitekin ikasten egindako zazpi urteren balantzea egin eta gero –adierazi du Iztuetak– bistan da, prestakuntza akademikoaren eta, bereziki, literarioaren aldetik, handik ederki jantzia etxeratu zela.

Hauek ere izan ditu hizpide Iztuetak: Lauaxetaren lehen saioak poesian, Jesuiten pedagogiak Lauaxetaren sorkuntza poetikoan izan zuen eragina, Lauaxeta poetaren sorkuntzan Europako eta mundu zabaleko literatur korronte moderno eta garaikideek izan zuten eragina, batez ere, literatur formak dira, hots, adierazpen estetikoak.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2005eko azaroaren 25ean

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak:

Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla. Eguerdian, 14:00ak arte egin da batzarra eta, arratsaldean 16:30etatik 18:30etara.

1. Aurreko akta onartzea

Aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Euskaltzain berriari harrera egitea.

Ana Toledo andreari, aurreko bilkuran euskaltzain oso izendatuari, ongi etorria eman dio euskaltzainburuak.

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Onomastika: «Bizkaiko Herri Izendegia (VII) onartzea. A. Iñigok A. Arejita euskaltzainarengandik jasoriko

oharrak komentatu ditu, eta zenbait tokitako herritarren izenak zeuden bezala uztea erabaki du batzordeak. **Alonsotegi** dela eta, oraingo datu batzuen arabera **Alontsotegi** ere utz litekeen arren, datu horiek ez dutela aski indar lehendik onarturik zegoena aldarazteko eta, beraz A. Arejitak eskatu bezala, bere horretan, hots, **Alonsotegi** uztea erabaki du batzordeak. Era berean, **sestaotar** aldaera baztertu da, **sestaoar** forma utzirik.

3.2. Hiztegi Batua. E letrari egindako oharrak banatu dira.

3.3. Hiztegi Batua. F letrako hitzen zerrenda urriaren amaieran banatu zen. Hiztak markatzeko epea azaroaren 30ean amaitzen dela gogoratu du euskaltzainburuak. Horiei buruzko ohar idatziak bidaltzeko epea, aldiz, otsailaren 28a denez gero, ordu-rako bidali behar direla esan du.

3.4. Hiztegi Batua: C eta D zerrendei egindako oharrak aztertu eta erabakitzea. *Chakra*-tik *curriculum*-rainoko hitzak ikusi eta onartu dira.

Bazkarirako etena egin ondoren, arratsaldean *dadaista*-tik *deitzi*-rainokoak aztertu eta onartu dira.

4. P. Ondarraren hutsarterako hautagaiak aurkeztea

Nafarroako euskaltzain zenduaren hutsunea betetzeko, Patxi Salaberri jauna (Andres Iñigo, Henrike Knörr eta Patxi Zabaleta euskaltzainen sinadurekin), eta Rosa Miren Pagola andrea (Patxi Goenaga, Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu eta Piarres Xarritton euskaltzainen sinadurekin) aurkeztu dira. Arautegiaren arabera, hautatzea abenduko bilkuran eginen da.

5. Ahoz esatekoak eta eskuartekoak

5.1. Ana Toledoren izendapen-erantzuna. Barne Erregelek diotena betetzeko, idazkariak euskaltzain izendatu berriari ea izendapena onartzen duen galdetu eta honek baietz erantzun duela jakinarazi da. Beraz, Ana Toledo andreak euskaltzain osoaren kargua onartu du.

5.2. Iruñeko Udalak antolaturiko literatur sariketarako epaimahaikide bat izendatzea. Urtero bezala, aurten ere Iruñeko Udalak Egile Berriendako Literatur Lehiaketa antolatu du eta Euskaltzaindiari epaimahaikide bat izenda dezala eskatu. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak azaroaren 11an egin zuen bileran, zeregin horretarako, Aingeru Epalza Ruiz de Alda jauna izendatzea erabaki zuela adierazi du Euskaltzainburuak.

5.3. EITBren Administrazio Kontseilurako ordezkaria proposatzea. Eusko Legebiltzarraren eskariari erantzunez, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, orain arteko pertsona bera proposatzea erabaki du: Jose Luis Lizundia. Erakunde horrek, ondoren, erakundeetako ordezkarien artean bere aukera egingo duela azaldu du Andres Urrutiak.

5.4. Jesuiten Jeneralaren bisita. Bileran Jesusen Konpainiako jenerala, Aita Kolvenbach euskaltzainak bisitatzera etorri da Gipuzkoako Diputatu Nagusi Joxe Joan Gonzalez Txabarri jaunak lagundua. Euskaltzainburuak Akademiaren izenean ongi etorria eman eta Euskaltzaindiaren lan eta egiteko nagusiak azaldu dizkio. Ondoren, gainerako euskaltzainak agurtu eta haiekin solasean aritu da.

6. Maixa Goikoetxeari domina ematea

Maixa Goikoetxea langileak Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkarian 25 urte lanean egin dituela eta, Erakundeak omenaldi bat eskaini dio, bere zerbitzuak eskertu eta ospatzeko. Hor, langile honen bizitza, merezimendu eta erakundearentzat zintzoki egindako lan ugariak glosatu eta azpimarratu ditu euskaltzainburuak, eta ondoren, lore sorta batekin batera, zilarrezko domina bat eskaini dio gainerako euskaltzain eta langile guztien txalo artean.

Batzarraren amaieran Azkue literatur lehiaketan 2004an sarituriko lanen liburua banatu da, *Bidegileak* bildumako azken argitalpenak (Juan San Martin, Patxi Altuna, Xabier Diharce «Iratzeder» eta Juan Mari Lekuona euskaltzainei buruzkoak), Txillardegiren omenaldi-liburuko separatak eta gabonetako zorion-txartelak ere bai.

Batzarra arratsaldeko 18,30etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2005eko abenduaren 16an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita, ahala idazkariari; Miren Azkaratek, ahala J. Haritschelharri; Ibon Sarasolak, ahala P. Salabururi; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori. Antonio Zavalak, euskaltzain berriaren hautaketarako ahala euskaltzainburuari emanez.

2.4. Literatura Ikerketa batzordearen eskaria. J. Haritschelhar batzordeburuak eta Ana Toledo batzordekideak sinaturiko eskabidea jaso da Euskaltzaindian, bi kide berri izendatzeko proposamenarekin: Sebastian Gartzia Trujillo, euskaltzain urgazlea, Azkue Biblioteka batzordeko eta Ekonomia azpibatzerdeko kidea, eta Iñaki Aldekoa Beitia, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Zuzendaritzak abenduaren 9ko bileran ontzat eman du proposamena, eta Osoko Batzarrean aurkeztu ondoren, beronek berretsi egin du.

2.5. Jean Haritschelharren omenaldia. Andres Urrutiak 2006ko abenduan Baionan eginen den osoko batzarraren inguruan Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiari omenaldia eginen zaiola iragarri du. Ospakizun hori antolatzeko, J.L. Lizundia eta B. Oihartzabal izendatu dira. Beste gauza batzuen artean, Euskaltzaindiak, euskaltzainen partaidetaz, omenaldi-liburu bat argitaratzeko asmoa daukala azaldu du. Horretarako artikulua bidaltzeko epea laster iragarriko da.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Euskaltzaindiaren Egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Azaroko batzarraren akta oharrrik gabe ontzat eman da.

2. Eskuartekoak eta ahoz esatekoak

2.1. Batzarraren iraupenaz. Euskaltzainburuak osoko batzarra bakarrik goizez egingo dela jakinarazi du.

2.2. Juan Mari Lekuona euskaltzainaren heriotza eta hutsarte. Euskaltzainburuak Juan Mari Lekuona euskaltzain abenduaren 5ean hil dela jakinarazi du, poeta eta euskaltzain horrek Akademian uzten duen hutsunea aldarrikatuz. Barne Erregelek diotena betetzeko, horren ordezko kandidatuak datozen bi hiletako batzarretan aurkez daitezke.

2.3. J. M. Lekuonaren hilberri-txostena. Zuzendaritzak J. M. Lekuonaren hilberria Ana Toledo euskaltzainak egitea erabaki du, bera konforme badago eta osoko batzarrak kontrakorik ez badu. Ontzat eman da.

3. Exonomastika: «Antzinateko hirien euskarazko izenak» aurkeztea. Zerrenda hau Jose Luis Lizundiak aurkeztu du, hor eskaintzen diren hiri-izenak irakaskuntzan (Geografia, Historia, Filosofia...), kazetaritzan eta turismo munduan sarritan erabiltzekoak izateaz aparte, Eusko Jaurlaritzak ere maiz eskatuak dituela azpimarratuz. Izen-zerrendarekin batera hiri-izenok biltzeko orduan kontuan izandako dokumentazioa eta irizpideak ere, euskaltzainen artean banatuak, azaldu ditu.

Oharrak urtarrilaren 20rako bidali beharko direla adierazi du.

4. Patxi Ondarraren hutsarterako hautagaiak bozkatzea. Euskaltzaindiaren Arautegiaren 33, 34 eta 35. artikuluetan eta Barne Erregelaren 57. artikuluan euskaltzainen hautatzeaz esaten dena kontuan izanik, Patxi Ondarra nafar euskaltzain zenduaren hutsunea betetzeko aurkeztu diren bi kandidatuen artean bat hautatzeko bi botazio egin dira: lehenengoan Rosa Miren Pagolak 9 boto izan ditu eta Patxi Salaberrik 11 boto. Bigarreanean R. M. Pagolak 8 boto eta Patxi Salaberrik 12 boto. Hortaz, Patxi Salaberri izendatu da euskaltzain oso.

5. Hiztegi Batua

5.1. F letrako zerrenda. F letrako zerrendan euskaltzainek markaturiko hitzen zerrenda banatu da. Hitz markatu horiei buruzko oharrak otsailaren 20rako bidali beharko direla gogorarazi da.

5.2. D letrako zerrendari eginiko oharrak aztertu eta erabakitzea: *Dejadatik demas*-erainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

6. 2006ko batzar egutegia onartzea

Pello Telleria idazkariordeak aurkeztu du 2006rako egutegia, hilez hileko azalpen-xehetasunak emanez. Bilerak Euskaltzaindiaren egoitzan otsail, irail eta azaroan egingen dira. Urtarrilean Donostian; martxoan Gasteizen; apirilean Urnietan; maiatzean Elantxoben; ekainean Zaldibian; uztailan Antzuolan; urrian Nafarroan eta abenduan Baionan.

7. Azken ordukoak: Julián Mariásen heriotzaren berri. Atzo, abenduaren 15ean, Julián Mariás filosofo, idazle eta *Real Academia Española*-ko kidearen heriotzaren berri eman du A. Urrutia euskaltzainburuak eta Euskaltzaindiaren izenean doluminak helaraztea proposatu. Ontzat eman da.

Azkenean, Ines Pagolaren *Neologismos en la obra de Sabino Arana* Iker bildunako 18. zenbakidun liburua banatu zaie euskaltzainei.

Batzarra 14,10ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

LVI. ARAUEN TESTU OSOA

145

BIZKAIKO HERRI IZENDEGIA

I) Herrien euskal izena

Euskal izena	Izen ofiziala	Herritarra	Eskualdea
Abadiño	Abadiño	abadiñar	Durangaldea
Abanto ¹	Abanto y Ciérvana- -Abanto Zierbena	abantar	Ezkerraldea
Ajangiz	Ajangiz	ajangiztar	Busturialdea
Alonsotegi	Alonsotegi	alonsotegiar	Enkarterri
Amoroto	Amoroto	amorotar	Lea-Artibai
Arakaldo	Arakaldo	arakaldar	Hego Uribe
Arantzazu	Arantzazu	arantzazuar, arantzazutarr	Arratia
Areatza	Areatza	areatza ²	Arratia
Arrankudiaga	Arrankudiaga	arrankudiagar	Hego Uribe
Arratzu	Arratzu	arratzuar	Busturialdea
Arrieta	Arrieta	arrietar	Mungialdea
Arrigorriaga	Arrigorriaga	arrigorriagar	Hego Uribe
Arteaga ³	Artea	arteagar, arteagaztar	Arratia
Artzetales	Artzetales	artzetalestar	Enkarterri
Atxondo	Atxondo	atxondar	Durangaldea
Aulesti	Aulesti	aulestiar	Lea-Artibai
Bakio	Bakio	bakiotar	Mungialdea
Balmaseda	Balmaseda	balmasedar	Enkarterri
Barakaldo	Barakaldo	barakaldar	Ezkerraldea
Barrika	Barrika	barrikar, barrikoztar	Uribe Kosta
Basauri	Basauri	basauriar	Hego Uribe

¹ Aragoiko Abantotik bereizteko *Abanto Bizkaia* erabil bedi.

² Ezaguna eta erabilia den *billaroztar* herritar izena ere erabil daiteke.

³ Udalerri osoa hartzen duen izena *Arteaga* da: *Arteagako plaza*, *Arteagara doa...* Izen historikoak agertzea beharrezkoa denean, soilik: *Gaztelu-Elexabeitia* edo gaur egungo izenaren atzean jarrita erabil daitezke; *Arteaga* (*Gaztelu-Elexabeitia*), historia alorreko testu, heraldika eta antzekoetan. Halaber, gomendatzen da antzinako elizateen izenak: *Gaztelu* eta *Elexabeitia* (-a), eremu horiek izendatzeko gordetzea eta erabiltzea: *Elexabeitiko eliza*; *hilerria Gaztelun dago*.

Euskal izena	Izen ofiziala	Herritarra	Eskualdea
Bedia	Bedia	bediar, bediaztar	Arratia
Berango	Berango	berangar, berangoztar	Uribe Kosta
Bermeo	Bermeo	bermeotar	Busturialdea
Berriatua ⁴ (-a)	Berriatua	berriatuar	Lea-Artibai
Berriz	Berriz	berriztar	Durungaldea
Bilbo ⁵	Bilbao	bilbotar	Hego Uribe
Busturia ⁶ (-a)	Busturia	busturiar	Busturialdea
Derio	Derio	deriotar, derioztar	Txorierr
Dima	Dima	dimar, dimoztar	Arratia
Durango	Durango	durangar	Durungaldea
Ea	Ea	eatar	Busturialdea
Elantxobe	Elantxobe	elantxobetar	Busturialdea
Elorrio	Elorrio	elorriar	Durungaldea
Erandio	Erandio	erandiotar, erandioztar	Txorierr
Ereño	Ereño	ereñar	Busturialdea
Ermua ⁷ (-a)	Ermua	ermuar	Durungaldea
Errigoiti	Errigoiti	errigoitiar	Busturialdea
Etxebarri	Etxebarri	etxebarritar	Hego Uribe
Etxebarría ⁸ (-a)	Etxebarría	etxebarritar	Lea-Artibai
Forua ⁹ (-a)	Forua	foruar	Busturialdea
Fruiz	Fruiz	fruiztar	Mungialdea
Galdakao	Galdakao	galdakar, galdakoztar	Hego Uribe
Galdames	Galdames	galdamestar	Enkarterri
Gamiz-Fika	Gamiz-Fika	gamiztar, fikar	Mungialdea
Garai ¹⁰	Garai	garaitar	Durungaldea

⁴ Gogoratu behar da *Berriatua* izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Berriatua, Berriatuarekin, Berriatuan...*, baina *Berriatuko, Berriatutik, Berriatura...*. Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Berriatu maitea, Berriatu osoan, Gure Berriatu hau...*

⁵ Bilbo da euskal izen arautua. *Bilbao* erdaraz gorde den euskal izen zaharra da.

⁶ Gogoratu behar da *Busturia* izenaren amaierako -a artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Busturia, Busturiarekin, Busturian...*, baina *Busturiko, Busturitik, Busturira...*. Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Busturi maitea, Busturi osoan, Gure Busturi hau...*

⁷ Gogoratu behar da *Ermua* herri izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Ermua, Ermuarekin, Ermuau...*, baina *Ermuko, Ermutik, Ermura...*. Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Ermu maitea, Ermu osoan, Gure Ermu hau...*

⁸ Izan hau Euskal Herrian *Etxebarría* deitutako beste herrietatik bereizi behar denean, honela erabiliko da:

- Izenburu gisa: *Markina Etxebarria*.

- Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Markina Etxebarriko gazteak...*

Gogoratu behar da *Etxebarría* izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Etxebarría, Etxebarriarekin, Etxebarrian...*, baina *Etxebarriko, Etxebarritik, Etxebarria...*. Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Etxebarrí maitea, Etxebarri osoan, Gure Etxebarri hau...*

⁹ Gogoratu behar da *Forua* izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Forua, Foruarekin, Foruan...*, baina *Forutik, Forura...*. Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Foru maitea, Foru osoan, Gure Foru hau...*

¹⁰ Ahoz gorde den artikuludun aldaera erabiltzea zilegi da. Horrela nahi izanez gero, erabil bedi: *Garaia, Garaian, Garaiko, Garaitik, Garaira...*

Euskal izena	Izen ofiziala	Herritarra	Eskualdea
Gatika	Gatika	gatar	Mungialdea
Gautegiz Arteaga	Gautegiz Arteaga	arteagar	Busturialdea
Gernika-Lumo	Gernika-Lumo	gernikar, lumotar	Busturialdea
Getxo	Getxo	getxotar, getxoztar	Uribe Kosta
Gizaburuaga	Gizaburuaga	gizaburuagar	Lea-Artibai
Zortzigarrenena. Bi aldeek Jarraipen Batzorde bat eratuko dute, bakoitzaren hiruna kidez osatua. Instituto Cervantesetik, Kultura zuzendaria, zuzendari akademikoa eta Diplomen eta Kanpo Kudeaketaren zuzendaria izango dira; eta Euskaltzainditik, beriz, idazkaria, diruzaina eta Iker sailburua. Jarraipen Batzorde horri dagokio hitzarmen honetan ageri dena betetzen dela begiratzeko eta hirugarren klausulan aipagai diren gehigarriak proposatzeko.

Bederatzigarrenena. Hitzarmen hau izenpetzeaz ez du diru ekarpenik egitera behartzen. Dena dela, bertan agertzen diren jardueretarako diru ekarpenik egin behar balitz, bakoitzaren urteroko aurrekontu egoeraren arabera izango da.

Hamargarrena. Hitzarmen honek ez dakar berekin alde bakoitzak berezko dituen eskumenei uko egitea.

Hamaikagarrena. Hitzarmen honen bi aldeetako sinatzaileak fede on eta eragingarritasunez jokatuko dute, sinatutako hau behar bezala bete dadin.

Eta, bi erakundeak hitzarmen honetan azaldutako guztiarekin bat datozela adieraziz, hitzarmen honen lau ale sinatzen dituzte, bi gaztelaniaz eta bi euskaraz, aipaturiko tokian eta egunean.


Bilbon, 2005eko uztailaren 28an

INSTITUTO CERVANTESEN IZENEAN

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'César Antonio de Molina Sánchez', written over a horizontal line.

César Antonio de Molina Sánchez

EUSKALTZAINDIAREN IZENEAN

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Urrutia Badiola', written over a horizontal line.

Andres Urrutia Badiola



CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL INSTITUTO CERVANTES Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA

REUNIDOS

De una parte, el Sr. D. CÉSAR ANTONIO MOLINA SÁNCHEZ, Director del Instituto Cervantes, en nombre y representación del Instituto, que fue nombrado por Real Decreto 1243/2004, de 14 de mayo (BOE de 15 de mayo), y que actúa de conformidad con lo dispuesto en la Ley 7/1991, de 21 de marzo, por la que se crea el Instituto Cervantes.

Y de otra parte, el Sr. D. ANDRÉS URRUTIA BADIOLA, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, en nombre y representación a esta Institución, que fue nombrado en la sesión extraordinaria celebrada en Bilbao el 17 de diciembre de 2004, y que actúa en conformidad con lo dispuesto en el artículo 9 de los Estatutos de esta Real Academia, aprobados por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero (BOE 25 de marzo).

EXPONEN

1. Que el Instituto Cervantes es un organismo público sin ánimo de lucro adscrito al Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación, que tiene como fin, conforme a lo dispuesto en el artículo 3 de su Ley de creación, la promoción universal de la enseñanza, el estudio y el uso del español y de la difusión de la cultura en el exterior. El mencionado artículo establece también que el Instituto atenderá fundamentalmente al patrimonio lingüístico y cultural que es común a los países y pueblos de la comunidad hispanohablante.

2. Que la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia es una institución científica, creada por las cuatro Diputaciones forales en 1918 y reconocida por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero (BOE 25 de marzo), adscrita al entonces Ministerio de Educación, Universidades e Investigación, y que tiene como fines, por un lado, la investigación y la normativización de la lengua, y por otro, su promoción y tutela.

3. Que la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia ha tenido desde sus primeros pasos una acusada proyección exterior, como lo prueban singularmente los nombres de miembros no vascos, que fueron lingüistas y filólogos de fama internacional, por ejemplo, Hugo Schuchardt, Julien Vinson, Christianus Cornelius Uhlenbeck, Ramón Menéndez Pidal, Américo Castro, René Lafon, Joan Coromines, Antonio Tovar, André Martinet, Jacques Allières, Nils Holmer, Rudolf de Rijk o Robert L. Trask.

4. Que tanto el Instituto Cervantes como la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia son conscientes de la relevancia que tiene el trabajo a favor del patrimonio lingüístico y cultural, principalmente en todos aquellos países con población de raíces ibéricas.

5. Que el Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia desean establecer un marco de cooperación con el fin de promover, dentro de su ámbito de actuación y sus posibilidades, la lengua y la cultura vascas.

6. Que el Consejo de Administración del Instituto Cervantes, en su sesión de fecha 16 de junio de 1995, aprobó los criterios para la firma de convenios con instituciones académicas.

En virtud de lo anterior, ambas partes manifiestan su voluntad de suscribir el presente convenio de colaboración que se regirá con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.- El presente convenio tiene por objeto establecer el marco de cooperación institucional entre el Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca, con la finalidad de promover la lengua y la cultura vascas sobre todo fuera de España, a través de los centros del Instituto Cervantes.

Segunda.- El Instituto Cervantes, en función de las disponibilidades de sus centros, y previa la solicitud del Euskaltzaindia, podrá ceder espacios en sus centros para la realización de actividades relacionadas con la difusión de la cultura vasca, organizadas por la Real Academia de la Lengua Vasca sola o en colaboración con el Instituto Cervantes.

Para ello, la Real Academia de la Lengua Vasca se coordinará con la Dirección de Cultura de la Sede Central del Instituto Cervantes, al objeto de estudiar la viabilidad de la realización de actividades culturales en los centros de éste. Dicha realización estará supeditada a la existencia en los centros del Instituto Cervantes de espacios al efecto, y siempre que las actividades no interfieran en la programación académica o cultural de los centros.

Tercera.- El Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca podrán acordar la realización de programas que contribuyan a difundir la lengua y cultura vascas. Para ello, la Real Academia de la Lengua Vasca asesorará al Instituto Cervantes en todo lo referente a la enseñanza y promoción de la lengua vasca. Sus objetivos, contenidos, financiación y gestión serán propuestas por la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula octava, se aprobarán de común acuerdo y serán objeto de anejos al presente convenio.

Cuarta.- El Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca se muestran de acuerdo para estudiar el intercambio de sus publicaciones, así como de toda la información bibliográfica que redunde en beneficio mutuo.

Quinta.- Ambas instituciones manifiestan igualmente su disposición a facilitar a todos los usuarios los accesos electrónicos a los catálogos y demás servicios de ambas instituciones, en las condiciones establecidas por las mismas para su utilización.

Sexta.- El Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca expresan su disponibilidad a ceder los locales de sus sedes centrales y de sus delegaciones para cualesquiera conferencias, cursos, reuniones, etc., que tengan que ver con las actividades de cada institución o de mutuo interés, en función de sus disponibilidades y siempre que no alteren su normal funcionamiento.

Séptima.- Este convenio tendrá una vigencia de dos años, pudiendo ser prorrogado tácitamente por períodos iguales de tiempo. No obstante lo anterior, el convenio podrá ser denunciado por cualquiera de las partes con seis meses de antelación a la fecha en la que se pretenda finalizar el convenio. La resolución anticipada del presente convenio no afectará a las actividades en curso.

Octava.- Las partes crearán una Comisión de Seguimiento integrada por tres miembros de cada una de ellas. Por parte del Instituto Cervantes, serán miembros el Director de Cultura, el Director Académico y el Director de Diplomas y Gestión Exterior, y por parte de la Real Academia de la Lengua Vasca, el Secretario, el Tesorero y el Presidente de la Sección de Investigación. A esta Comisión de Seguimiento le corresponderá realizar el control del cumplimiento de lo establecido en el presente convenio y proponer la suscripción de los anejos a los que se refiere la cláusula tercera.

Novena.- La suscripción del presente convenio no implica aportación de recursos económicos. No obstante, para el caso en que la realización de alguna de las actividades previstas en él fuera necesaria la aportación de tales recursos, esa aportación estará supeditada a las disponibilidades presupuestarias de cada una de las partes para cada ejercicio.

Décima.- Este convenio no supone la renuncia de las partes a sus respectivas competencias.

Undécima.- Las partes firmantes del presente documento colaborarán en todo momento de acuerdo con los principios de buena fe y de eficacia, para asegurar la correcta ejecución de lo pactado.

Y, en prueba de conformidad, y para la debida constancia de todo lo convenido, las partes firman el presente convenio en cuatro ejemplares, dos en castellano y dos en lengua vasca, en el lugar y fecha indicados.


En Bilbao, a 28 de julio de 2005

POR EL INSTITUTO CERVANTES



César Antonio de Molina Sánchez

POR LA REAL ACADEMIA DE LA
LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA



Andrés Urrutia Badiola

BERRIAK

EUSKALTZAINDIA SALO DEL LLIBRE 2005ean

Ricardo Badiola eta Jon Artza

2005eko azaroaren 8tik 13ra, *I. Salo del Llibre de Barcelona* ospatu zen bertako erakustazokan. Antolatzaileak Kataluniako Editoreen Elkarte, Bartzelona eta Katalunia Liburutegien Elkarte eta *Fundación del Llibre* izan ziren. *Institut d'Estudis Catalans*-ek gonbita luzatu zion bai Euskaltzaindiari, eta bai *Consello de Cultura Galega*-ri ere, Liburu Azoka honetan parte har zezaten. Gonbita onartu ondoren, bertara eraman ziren Euskaltzaindiko argitalpenak erakusgai eta salgai. Horretaz gain, Euskaltzaindiko argitalpen zerbitzuko kide diren Ricardo Badiola eta Jon Artza bertan izan ziren azaroaren 10 eta 11n.

Euskaltzaindiak, bere katalogoaz gain, 60 argitalpen inguru izan zituen salgai, alegia, azken nobedadeez gain –*Nerekin jaio nun: Txillardegiri omenaldia*, Iker 17; *EGLU VI.: Mendeko perpausak (II)*– eta beste hainbat argitalpen aurkeztu zituen: *Euskal Izendegia*, *Hiztegi Batua*, literatura klasikoaren bildumakoak, literatura sariketakoak, EGLU bildumakoak, *Onomasticon Vasconiae*, Iker, Euskararen Lekukoak.... Nahiz eta salmentak ugariak ez izan, jende askok agertu zuen gure Erakundearekiko interesa, eta ondorioz, Erakundea hobeto ezagutarazteko baliagarria izan delakoan gara.

Honetaz aparte, Azoka hark, Institut d'Estudis Catalans (IEC) eta Euskaltzaindiaren artean diren harreman bikainekin jarraitzeko parada eman zuen. Estandera IECKo kide ugari hurbildu ziren: Intitut-eko burua den Salvador Giner; Ramon Corbella, kudeatzailea; Ramon Perello, komunikazio burua; Maria Rosa Franquesa, buruaren kabinete-arduraduna eta erakundeko hainbat langile. Antolakuntzaren ardura nagusia, Manuel Pascual, Institut-eko argitalpenen banaketa arduradunak izan zuen. Hauek guztiok, oso harrera ona egiteaz gain, Euskaltzaindiarekin elkarlanean jarraitzeko nahia erakutsi zuten.

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:
LITERATURA SARIAK**

Bilbo, egoitza, 2005-VI-30

BILBAO BIZKAIA KUTXA - EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK

Ekainaren 30ean, 2004. urtean saritutako lau literatura-lanen argitalpenak aurkeztu ziren, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatu zuten ekitaldian. Ondoko hauek dira 2004ko deialdian saritu ziren idazleak eta literatura lanak:

- ***Txomin Agirre eleberri-saria:*** Juan Jose Ispizua Hormaetxea. Lana: *Harizpeko neskaren afera*.
- ***Toribio Altzaga antzerki-saria:*** Pantxo Hirigarai. Lana: *40 urteak*.
- ***Felipe Arrese Beitia olerki-saria:*** Aintzane Galardi Portu. Lana: *Itoti urdinaren azpian*.
- ***Mikel Zarate saio-saria:*** Xabier Agirre Urteaga. Lana: *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?*

Lau liburuak eskuan zituela, hauxe esan zuen Andres Urrutia, euskaltzainburuak:

Irabazleen lanak gorpuztuta, liburu bihurtuta, ikusten ditugu.

Ekitaldian, idazle guztiak izan ziren, Juan Jose Ispizua izan ezik. Hark idatzitako gutuna, Pello Telleria idazkariordeak irakurri zuen. Beste guztiek, aldiz, euren lanen gorabeherak azaldu zituzten.

Ekitaldiari amaiera emateko, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxak, bi erakundeok aspaldidanik antolatzen duten literatura lehiaketaren 2005eko deialdia kaleratu zuten. Horren berri emateaz gain, Joserra Bilbao, BBK-ren ordezkariak honela laburbildu zuen ekitaldiaren esanahia:

Euskal Akademiak eta BBK-k berrogeitaz urteak daroatzate sariketa hauekin eta gaurko ekitaldian, iazko liburuak eta aurtengo deialdia aurkeztu ditugu, beraz argi dago katea ez dela eten eta aurrera egiteko asmo sendoa dugula erakunde biok. Hala bedi.

HARIZPEKO NESKAREN AFERA

Txomin Agirre eleberri saria

Ordu parean irakurtzeko nobela poliziakoa

Juan Jose Ispizua

Munduan askotan legez, izkiriadore honek ezin du aldi berean leku guztietan izan. Letra xume eta labur hauek bidaltzen dizkizuet, beraz, eguzkia itsasoan itotzen ohi den lurraldetik, zeuon artean laster izango naizen esperantza-rekin. Letrok ekialderantz, Bilbora etortzeko, egin duten bidean nitaz zuten oroimena galdu dutelakoan nago eta, sarri esan ohi denez, berezko bizitza hartu egilearen tiraniatik urrun. Badirudi idazleak lana burutu ondoren harekin izan duen lotura galtzen duela eta ezerezean geratu hurrengo eleberria idazten hasi arte. Eta horretan ere jardun dut.

Ahantz dezagun, bada, egilea eta erakutsi liburu berri hau. Gidoia balitz bezala aurkeztuko dugu:

Treanean zoaz Bilbotik Mundakara eta Muxikara heldu orduko begiak altxatzen dituzu eskuartean darabilzun liburutik. Leihoaren bestaldean, kristaletik asago, pertsona bat ikusten duzu liburu bat irakurtzen, nasako jarlekuan eserita.

Pertsona horrek begiak altxatzen ditu bere liburuak letretatik, tren-txartela ipintzen du orri artean, liburuak itxi eta trenean sartzen da. Doinu leuna entzuten da bagoian. Ohizko musika, trenean. Eseri egiten da eta, liburuak eskuartean ditzutelarik, leihotik begiratzen ari dira. Urdaibain barrera doaz biak.

Harizpeko Neskaren Afera eleberria udako epeltasun geldoan denbora emateko dago eginda; trenean zoazela, trenaren zain zaudela,... zein arbola baten azpian minutuak igarotzeko aproposa. Ordu pare batetik hiru ordura. Hori da liburu hau irakurtzen eman daitekeen denbora, ez gehiagorik.

Orduan hasten da liburuaren denbora, filme baten antzera, Urdaibaiko mendietan:

Goizaldea, goizargia, iluna eta
linterna-argi bat arbola artean.

Busturiko *Artetxene* baserri errearen gainaldeko pagadiko orbela eta oinotsa. Gizon bat dabil harrien artean eskua sartzen, besoa sartzen, daroan linternaren argia Amaluraren zirrikituetan barneratzen. Ziza-hori uzta darama zumezko

saskian. Perretxikozale bat dugu eta goitizena ipiniko diogu: «Azkonar». Ezizena, zeren oso ezaguna baita Euskal Herrian.

Bakarrik zaudenean gertatu ohi den antzera, liburuko udazken epelean asitiro doa denbora goizargiak, eguzkiaren izpiek Urdaibaiko bailara umela urratu orduko.

Maitale batek bere maitea laztantzen, sosegatzen duen antzera gura izan dut nire Amalurra ferekatu liburu honetan azaltzen ditudan deskribapenekin. Lekuotan izan ditudan sentipenak –alegerak, garratzak, mingotsak zein pozgarriak– eta sentsazioak berberak sortarazi gura dizkiot irakurleari,... zertzeladatan.

Hasieran datu asko ematen zaizkio irakurleari harik eta zerraldo batekin egiten duen topo hiru haritzen azpian. «Azkonar» famatu hori da lehen kapituluko protagonista; baina bigarrenetik aurrera beste bat dugu gure bidea zabaltzeko lana hartu duena: Priego Inspektorea, «Brigada Judizialekoa», berak esaten duenez.

José María Uzelay margolariaren kuadro baten sartu garela dirudi, *Urdaibaiko* udazkenean gertatzen baita guztia. Udazkena. Bertokoentzat udagoiena: hego haize sorgorrak, buruko aieneak hegaldatuaz, sentimenduak asituen dituen aroa.

Euskal Herriko beste paraje maite asko ere agertzen dira: *Baztan* –Badi-rudi lekuaren izena esanda soilik galapan datozkidala oroimen ezpalak–, *Enkarterriak*, *Bilbo*,... baina bereziki *Urdaibaiko* paraje eta pertsonaiak. Adibidez, liburuaren azalean agertzen den *Izaro* uhartea.

Azaleko argazkian agertzen den *Izaro* uhartea bezala aurkitzen dugu zerraldoa: soila, biluzia eta ezezaguna. Ez naiz, baina, deskribapenetan luzatuko. Horretarako baitaude liburuan dabiltzan pertsonaiak, euren arteko elkarriketak, mesprezuak eta joera ia irrazionalak.

Idazle guztien antzeranik nik neuk ere nahi dut liburu hau gustura irakur dezazuen, eguneko penak ordu pare batez ahaztu. Eta misteriozko eleberri poliziako hau irakurtzean plazerra sentitu dezazuen nahi dut.

Misterio bat argitu dizuet dagoeneko; hau da, azaleko argazkian *Izaro* agertzen dela. Harizpeko neska nor den jakitea, nork hil duen eta zergatik irakurlearen lana da dagoeneko.

Beste barik eta laster arte.

ITOTI URDINAREN AZPIAN

Felipe Arrese Beitia olerki Saria

Aintzane Galardi

Goethek *urдина* zeruaren, urruntasunaren, nostalgiaren eta mugagabetasunaren kolorea bezala definitu zuen, eta azken finean, *Itoti urdinaren azpian* ere, urruntasunari, nostalgiai eta mugagabetasunari buruzko poemak biltzen dituen lana duzu.

Beraz, kolore urdinaren presentzia nabarmena izango da poemarioan zehar.

Bestalde irudiek garrantzi berezia hartzen dute lan honetan, poemez gain argazki, marrazki eta margoak aurkituko baitituzu liburuan zehar. Grafiak ere leku berezia hartzen du zenbait poematan, letra moten baitan egindako eraldaketa piktorkoagatik. Guzti honengatik benetan eskertzekoa da Bilbao Bizkaia Kutzak eta Euskaltzaindiak poemarioa argitaratzerakoan oztoporik ez jarzea eta nire lana bere horretan, ilustrazioekin, argitaratzea. Bihotzez eskertzen diet, alde batetik ilustraziorik gabe lanak, nire uste apalean, galdu egingo zuelako eta bestetik ez dagoelako esan beharrik zeinen zaila den gaur egun poema liburu bat koloretako irudiekin argitaratzea.

Edukiari dagokionez, abenduaren 10ean epaimaiko Lourdes Otaegik edukia definitzerakoan franko iluna zela zioen eta erabat ados nago berarekin: desolazioa, mina, urruntasuna, nostalgia,... eta iruditeri onirikoa nagusitzen dira bertan.

Poemak 4 ataletan banaturik daude:

1. Puska urdinak: 17 puska galduak, urrunak,...
2. Tanta urdinak: 11 poema tanta...
3. Pintzelak, monokromia urdinak, limoi titiak eta eromen zantzuak:

Kolore desberdinez osaturiko paleta genuke atal hau, hots, 9 poemako paleta.

Hondoan ordea urdina agertuko da beti difuminaturik.

4. Min puskak tirita urdinaren zain:

17 zauri, min puska tirita urdinaren zain.

Eta azkenik, poema sorta honi amaiera emango dion hondarreko poema dugu *A speranza*, itxaropenaren alegoria izan daitekeena.

ZERTAN DIRA ASKATASUNA ETA BERDINTASUNA GAUR EGUN?

Mikel Zarate, saio saria

Xabier Agirre Urteaga

Utzidazue ekiten hitz joko zaztar batez: *Plaza Barrian* gaudenez, hitz egin dezagun zerbait *barriaz*, esaterako, filosofiaren egoera berriaz.

Garai batean, ez oso aspaldi, demagun hogeita hamar bat urte, pentsalari gehienek bazuten edozein gertakariren aurrean lauzpabost lege soziologiko korapilo guztiak askatzeko. Tradizio marxistak, batzuei, azken muturreko gertakizunak ulertzeko baliabide ahalguztiduna ematen zien. Zela Asiako istiluren bat, zela munduko gosea edo pertsona-harremanak, dena oinarritzko injustiziaren baten ondorioz gertatzen zen. Bestetik, liberalismo ekonomikoak, modu inozo bezain arriskutsuan, argazkiaren positiboa erakusten zuen, historia askatasunaren gauzatze etengabea bailitzan.

Alde batetik, interpretazio-molde hauek berebiziko abantaila eskaintzen dute. Ez da gehiegi pentsatu behar eta, itxuraz, guztiak dauka azalpena. Zer gehiago nahi?

Alabaina, egoera honek pentsamenduaren alfertzea dakar. Errealitatea teoriara ongi moldatzen ez bada, ez da teoria aldatuko, errealitatea behartuko baizik, harik eta piezak ongi ezkondu arte, puzzlearen zeru urdin zabal hartan ukabil zartakoaz sartutako pieza bezalaxe.

Baina errealitatea burugogorra da. Ez da ispilu bakarrekoa, ezta filosofia alferkerian geratzen den horietakoa ere. Pentsamendu politikoak, hortaz, aurrera egin zuen, John Rawls mugarri lanetan. Bertsio rawlsiarrean, liberalismoa berdinzalea izan zitekeen, eta ez kapitalismoaren justifikatzaile soila. Hor-tik aurrera ekin zioten polemikek beste hainbat ardatzeko gai ekarri zuten begi-bistara, horien artean betiko galdera hau: zer gara gehiago, gizabanakoa ala komunitate bateko pertaideak?

Galdera honentzat ez dago erantzun garbirik, baina bitartean beste hainbat korapilo sortzen dira, askatzeko edo, gutxienez, gordiarak ez izateko. Gogoan izan: korapiloa ezin askatu, eta *ezpataz* eten zuen uztarria eta lantza lotzen zituena soka Alexandro Handiak. Korapilo horien inguruan bueltaka eguneroko-

tasuneko beste hainbat kezka sortzen da: abertzaletasuna, giza eskubideak, berdintasun materiala,... Bakoitzetik bada errazio txikirik liburu honetan.

Muturreko liberalismoak ez du giza talderik ikusten eta gizartea kome-nientzia hutsagatik biltzen dela dio. Ez da konturatzen erabilgarritasuna baino zerbait gehiago dagoela jendearen motibazioan, eta, hori dela-eta, giza talde-en eskari gehienak aintzat hartzekoak direla (sarraskia muga), baita nazio-es-tatu modernoarekin talka egiten dutenak ere.

Berdintasun materialean Rawls ez ezik, Norberto Bobbio ere aritu da az-taka. Bietatik eta beste batzuen ekarpenetatik filosofia politikoak (ez FMik, ez Mundu Bankuak) gai honetan aurreratu duena ere orriotan biltzen da.

Bestalde, giza eskubideen garaian gaudela-eta, etika unibertsal moduko bat lortu dugula ematen du. Juan San Martin erkide eta euskaltzain gogoangarri zendu berriak hainbeste estimatzen zituen giza eskubideek eman dute, ordea, eman ahal zutena, seguru aski. Erreferentzia unibertsal gisa balio dute, baina ez indarrez inon inposatzeko. Gainera, filosofikoki edozein etika unibertsalen arazo bertsuak dituzte giza eskubideok, eta horietaz ere ari da liburua.

Egoera benetan berrian gaude, beraz. Filosofia ohartu da errealtateak al-derdi guztietatik gainditu egin duela, eta zaila egiten zaiola zerbait proposa-tzea, zerbait sinesgarria, gutxienez. Erdibide honetan atzera begiratuta, gauza askok zaharkituak dirudite, baina aurrera begiratuta, ez da ezer ikusten, ilun-tasuna dago.

Horregatik, gaur, hemen zerbait *barriaz* hitz egitea tokatu zaigu. Hemen-dik aurrera filosofiak duen lana hain da handia, ezen, Wittgenstein-ek bere *Tractatusa* bukatu zuen bezalaxe, hobe baita orain isiltzea. Ez betirako, ordea.

Eskerrik asko.

40 URTEAK

Toribio Altzaga, Antzerki Saria

Pantxo Hirigarai

Lehen-lehenik erran nahi dut barnaki hunkitzen nauen ohore bat bezala hartzen dudala Euskaltzaindiak eskaini dautan *Toribio Altzaga* sari hau. Sakonki hunkitzen nau, *40 urteak* antzerkiaren idaztea ere sakonki bizi izan dudalako. Atxikimendu berezi eta tinkoa daukat lan hunentzat arrazoin desberdinentzat. Hauetarik bat da, dudarik gabe, aintzinetik idatziak nituen antzerki moldeen il-dotik osoki desbideratzen dela. Besteak umorean eta jakinminean oinarrituak ziren, komedia polizialen sailekoak, hau autobiografikoa da, parte haundiz eta biltzen ditu lagunek eta nik iragan ditugun garai zail eta bitxiak. Garai bitxiak edo, beste moduz erraiteko, urte nahasiak, bihotzeko min ikaragarritz eta ordu bozkariotsuz nahastekatuak izan baitira. Berexketak, eritasuna, heriotzak eta zoritxar hauei buru egiteko gogo azkarra, bizitzeko nahi errabiatu bat eta zaurien mina eztiarazi nahiz, zorionaren eguneroko egarri eta bilaketa.

Gutarik hiru lagunen 40 urteren ospatzeko antolatutako ditugun besta erraldoiak, alta ekaitzaren begian ginelarik gehien-gehienak, izan dira zorion bilaketa horren ispilu edo mirailak. Zailtasun eta duda-muda handienak ekarri dauzkit lan hunek, idazten nuen lerro bakotx, nere buruari erraiten bainion ez zuela baliorik, edo guttienez zentzugabea zela, zergatik behar nuen denen aintzinean buluzi, nere eta nere lagunen sendimendu eta sofrimenduak plazaratu. Eta azkenean zer axola zuten besteek gure gora beheretaz, bakotxak baititu bereak. Hamar aldiz, ehun aldiz, uzteko eta ordu arte idatzia zakar untzirat botatzeko punduan nintzen, baina arrazoin nagusi batek daut segitzeko gogoa eman: antzerki hortan agertzen delakotz duela bi urte, eritasunak eremanik, galdu dutan nere lagun mina, *Babi* deitzen ginuena, Babi Bidart- antzerkian *Xabi*- eta azkenean, hain eskas dudan adixkide huni omenaldi bat bezala hartzen dut lan hau.

Mila esker beraz Euskaltzaindiari, bere sariak erakutsi bait daut balio zer-bait baduela *40 urteak* antzerki hunek eta aparteko sustengu huni esker, hau taulen gainean agertzeko gogoa eman dautalakotz! Horri bi abantail edo alde on ikusten dizkiot: Lehenik, lau urte huntan lo dagon *Xirrixti Mirrixti* gure antzerki taldea iratzararaziko eta berriz lanean araraziko duela, eta oroz gainetik, *Babi* nere lagun zena berpiztaraziko duela emanaldi guziz, beste baten larruan izanen balin bada ere.

Milesker bihotz bihotzetik.

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:
R. M. AZKUE SARIAK

Bilbo, egoitza, 2005-XI-19

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA

R. M. AZKUE SARIAK

Azaroaren 3an, Euskaltzaindiaren egoitzan, Resurreccion Maria Azkue Literatura sarien 2005eko edizioaren oinarriak aurkeztu ziren. Ekitaldian, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Gorka Martinez BBK-ren Fundazioko buruak, Joserra Bilbao BBK-ren Elebitasun Zerbitzuburuak eta Jabier Kaltzakorta sariketa honetako epaimahaikide eta liburuaren prestatzaileak hartu zuten parte.

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek, idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira. Jakina denez, sariek bi lan mota onartzen dituzte euren baitan, narrazioa eta olerkia. Adinari begira, bi maila dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 17 urte bitartekoentzat.

Bestalde, egun bereko ekitaldian, *Narrazioak eta olerkiak 2004* izeneko liburua aurkeztu zen. 2004ko Azkue sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak batzen dira liburu horretan.

Horrela bada, Andres Urrutia euskaltzainburuak lan egiteko animatu ziotuen idazle gazteak; Joserra Bilbaok, ekitaldia:

urteroko erritua da, baina hau zentzurik onean hartu behar da, lan pozgarria delako idazle gazteak laguntzea, mota honetako sariketak antolatzea. Eta gainera Euskaltzaindiaren itzalpean, gure hizkuntzan idatzitako lan batek izan lezakeen babesik sendoenean

esan zuen. Eta, amaitzeko, Jabier Kaltzakortak hauxe adierazi zuen:

Guk gaur aurkeztzen dugun liburu honetan bat egiten dugu, komunikazio batera iristen gara hamar urtetik aurrera hamazazpira bitarteko neska-mutikoekin. Ostadar koloretsu bat zabaltzen da gure kontzientzia eta neska-mutil artista hauen ametsen artean.

AURKEZPENAK

NEREKIN YAIO NUN: Txillardegiri omenaldia

Liburuaren aurkezpena

Donostia, 2005-IX-20

2005eko irailaren 20an, *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia* liburua aurkeztu du Euskaltzaindiak, Donostian. Aurkezpena honako hauek egin dute: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Henrike Knörr, *Iker* sailburu eta liburuaren prestatzaileak; Ludger Mees, EHUKo Euskara errektoreordeak; Roland Breton «Paris 8» Unibertsitateko irakasle emerituak eta Txillardegik berak.

Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia izeneko liburua, Euskaltzaindiak Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegiri» eskaintzen dion omenaldi-liburua da. Liburua Akademiaren *Iker* bildumaren 17. zenbakia da eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker argitaratu da. Henrike Knörr Euskaltzaindiko *Iker* sailburua eta Pilartxo Etxeberria euskaltzain urgazlea eta UPV/EHU irakasleak izan dira prestatzaileak.

Liburuaren hasieran, Txillardegiren bibliografia hautatua eskaintzen da, Henrike Knörrek eta Pruden Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendariak prestatua. Haiek azaltzen duten bezala, hiru multzotan eman dute bibliografia: lehenik, lan akademikoak; bigarrenik, hainbat idazlan eta saiakera; eta hirugarrenik, Txillardegik berak hautatutako beste zenbait idazlan. Edozein modutan ere, Txillardegiren bibliografia osoa Euskaltzaindiaren webgunean kontsulta daiteke.

Hizkuntza, literatura eta historiari buruz 31 lagunek idatziriko lanek osatua da liburua. Lan gehienak euskaraz idatziak dira, eta hiru frantsesez eta bat gaztelaniaz.

Liburuaren izenburua Lizardik 1932an argitaratu zuen «Gure mintzo» olerkiaren lehen hitzak dira: «Nirekin yaio nun abesmiña»:

Nerekin yaio nun abesmiña,
ta aurtandik min ori dut izan samiña...
kanta nai, nai alper; mintzoa
peitu, miñak bear-eztigai gozoa!

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiri* Donostian sortu zen 1929ko irailaren 27an. Bilbon Ingeniaritza ikasi zuen. Idazle, irakasle eta politikaria.

Euskaltzain urgazlea da. Haren lanaz, horrela hitz egin du Andres Urrutia euskaltzainburuak:

Euskaltzale askoren abiapuntuak izan dira Txillardegiren lanak. Apartera joan gabe, belaunaldi oso baten lekukotza eman daiteke, haren *Leturiaren egunkari ezkutua; Hizkuntza eta pentsaera; Elsa Schleen...* eta beste asko aurrean ditugula. Miresmena eta aitortza, beraz, maisuari, eta, zer esanik ez, lanean jarraitzeko gonbita, euskarak eta euskalgintzak premiazkoak baitituzte Txillardegiren ekarpenak.

Bestetik, Ludger Mees EHUKo Euskara errektoreordeak, Txillardegiren lana goraipatu du:

EHUKo ibilbidearen funtsezko zati bat bihurtu da Txillardegi. Unibertsitatearen historian, bidelagun izan dugu, hasiera-hasieratik, esan du Meesek.



Euskararen corpusa nola gizarteratu?

Henrike Knörren esanetan, bestalde, Txillardegi:

irakasle, pentsalari, saiakeragile, hegada handiko eta alor anitzeko idazlea dugu. Langile sutsua, euskararen mina eta grina gazte-gaztetik zekarrena. Euskararik gabe, gure Herria hondamendira joango zela garbi zekusana.

Txillardegiren itzala, Knörren aburuz, luzea eta emankorra da:

Bide luze horretan, ehunka, milaka euskaldun, izan gara eta gara Txillardegiren irakurle.

Henrike Knörrekin batera, Pilartxo Etxeberriak koordinatu du Txillardegiri eskainitako liburua. Etxeberria, baina, ez da aurkezpenean izan eta bere hitzak Knörrek berak irakurri ditu:

Euskara ardatz eta zimentarri harturik, bizitza osoan jardun du eta dihardu euskararen alde: ezagutza hobetzen, lantzen, sakontzen eta atze-aurreak arakatzen.

Euskararen batasunean, baita fonetika, fonologia eta prosodia bezalako alorretan lan handia egin duela gogorarazi nahi izan du Etxeberriak; honen nahia, azken batez, haxe besterik ez da izan:

Bere bizitzan zimentarri sendo izan diren euskararen eta aberriaren aldeko lana goraiatzea litzateke nire asmoa.

Aurkezpenean, Roland Breton «Paris 8» Unibertsitateko irakasle emerituak ere parte hartu zuen, Txillardegiren lana goraiatuz.

Amaitzeko, omenduak hitz egin ditu. Argi hitz egin ere, ohi duen bezala. Eta, jakina, euskarari buruz mintzatu da Txillardegi:

Corpusaren mailan –azpimarratu du– Euskal Herrian egin ditugun gauzak harrigarriak dira, oso ondo egin dira gauzak. Baina arazo bat daukagu: corpus hori nola gizarteratu behar dugu?

Arazo psiko-politikoak eta ahoskera-problemak ere aipatu ditu. Baina, Txillardegiren ustez, problema nagusia erabileran datza:

Oztopo nagusia erdaldun elebakarrak dira, euskaraz hitz egiteko uneen. Elebakarrek inposatzen digute beren legea.

Euskal Herriko lurralde guztietan euskarak dituen egoera ezberdinez hitz egin du, Nafarroan, Ipar Euskal Herrian eta Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntzaren estatusa eta egoera legala ez da berdina; eta, amaitzeko zera azpimarratu du:

Hizkuntza bat lurralderik gabe ez da ezer. Hizkuntza batek bere lurraldea behar du.

UN PEQUEÑO TEXTO EN LENGUA VASCA (Recordando a Hugo Schuchardt)

Henrike Knörr,
Director de Investigación
Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia

(Oharra: Testu hau egileak 2005eko azaroaren 9an irakurri zuen, Lisboa-ko Instituto Cervantes-en “Voces ibéricas en Lisboa” izeneko mahai inguruan.)

En 1923 se publicó en Halle (Alemania) un pequeño libro (viii + 33 páginas) titulado *Primitiae linguae Vasconum. Einführung ins Baskische* (“Primitias de la lengua de los vascos. Introducción al vasco”). Su autor era el gran lingüista Hugo Schuchardt (1842-1927), que desde tiempo atrás se había destacado también por sus estudios sobre el vascuence (en principio para poder leer y entender el ibérico). Schuchardt pretendía con aquel libro ofrecer a toda la comunidad científica, incluyendo a los estudiantes, una sencilla explicación de nuestra lengua, de la mano de un texto conocido: la parábola del hijo pródigo (Lucas 15, 11-32), traducida por el protestante Leizarraga, que publicó el Nuevo Testamento y otras traducciones en La Rochelle en 1571. Los comentarios de Schuchardt venían interlineados, dando cuenta así del funcionamiento del euskara, con abundantes explicaciones.

La obra, en cuyo título hay un eco del primer libro en vasco, es decir, *Linguae vasconum primitiae* (1545), unas poesías de Bernard Etxepare, tuvo una acogida muy favorable, como lo prueban las reseñas de insignes vascólogos. En 1947, Ángel Irigaray publicó en Salamanca una versión española, amparada por la entonces naciente Cátedra Larramendi, idea de Antonio Tovar. Y el mismo Tovar hizo una nueva edición en alemán, en 1968, en las prensas de Niemeyer de Tübingen.

Para este sencillo acto de Lisboa ofrecemos un pequeño espécimen del texto vasco. Como hizo Schuchardt, hemos actualizado la grafía de Leizarraga.

San Lucas, 15, 11-12

Gizon	bat-ek	z-it-u-en	bi	seme.
Hombre	uno Erg	tenía	dos	hijos
		pasado con plur. <i>It</i>		sin marca de plur.
		Verbo <i>*edun</i>		< <i>senbe</i>

<i>Eta</i>	<i>he-ta-rik</i>	<i>gazte-(e)n-ak</i>	<i>erran</i>	<i>zi-e-z-on</i>
Y	ellos de	joven el más Erg	decir	él a él auxiliar pasado verbo *edun
<i>aita-r-i:</i>	<i>Aita,</i>	<i>in-da-k</i>	<i>onasun-etik</i>	
padre-al	Padre vocat.	da-a mí-tú verbo <i>jín</i>	patrimonio-del partitivo	
<i>ni-r-i</i>	<i>hel-tze-n</i>	<i>zai-ta-da-n</i>	<i>parte-a.</i>	
mí-a	corresponder nombre verbal-marca ablat.	auxiliar doble marca dat. + relat. verbo <i>izan</i>	parte-la.	

Latín

Homo quidam habuit duos filios. Et dixit adulescentior ex illis patri: Pater, da mihi portionem substantiae quae me contingit.

V. MANUEL IRUJO SARIA, 2005

Estella/Lizarra, 2005-VI-04



V. MANUEL DE IRUJO SARIAREN EMANALDIA DELA ETA

Koldo Viñuales, Irujo Etxea Elkartearen burua

Irujo Etxeko orok ohore handia dugu V. Manuel Irujo saria Jean Harischelharri ematean.

Sari hau, bistan da, euskararen eta euskal kulturaren garra bizirik iraunarazteko ahaleaginean eman den bizitzari egiten zaion onespena da.

Hala ere bada sarituarengan biziki harrotzen gaituen sentimendu handiko arrazoia, izan ere Jean nafarra da. Aurten, gure anagrama den seiburuan gure historiaren zati garrantzitsu diren seigarren merindadeko biztanleak irudika ditzakegu.

Baina berriro ere itzul gaitezen Jeanengana. *Irujo Etxeak* ezin zitzakeen ahanzt euskararen normalizazioaren alde, berrogeita bi urtez, Euskal Herrian zehar egin dituzun lanak.

Berrogeita bi urte luze da. Zuk Euskaltzaindian korritu duzun lasterketa maratokia izan da, garaitu duzun maratokia.

Zure lan etengabeak euskararen desagertzea iragartzen zuen zenbait ahots isilarazi du.

Bazenekien lan zaila zela, ez zenuen amore eman horregatik. Mila bederatziehun eta hirurogeita hiruan Euskaltzaindian hasi zinelarik ez zen egoera erraza. Frantzian euskara ez bailegoan, Espainian jazarpean...

Frantzian euskararen egoerak hobera egin ez badu ere, zorionez, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen berreskurapena nabarmena da.

Euskarak inoiz baino biziago dirau, eta zuk Euskaltzaindian egin duzun lanari esker, euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa ez da utopia izanen.

Bide luzea dugu aitzinean, baina erraten ahal dugu, Jean, ekin diozun bideak etorkizunerantz garamatzala.

Gure eskerrik beroena eta zuk ilusio handiz hasi zenituen proiektuak datozen belaunaldiek osa ditzatela.

Zorionak Jean eta segi aurrera!

DISCURSO PROTOCOLARIO CON MOTIVO DE LA ENTREGA DEL Vº PREMIO MANUEL DE IRUJO

*Koldo Viñuales,
presidente de la Asociación Irujo Etxea*

Es un honor para todos todos los miembros de *Irujo Etxea* conceder este Vº premio a Jean Haritschelhar.

Evidentemente que este galardón es un reconocimiento a toda una vida de entrega e ilusión por mantener viva la llama del euskara y de la cultura vasca.

Sin embargo existe en el premiado un motivo sentimental que nos llena de orgullo, ya que Jean es también navarro. Este año en el *seiburu* de nuestro anagrama visualizamos a todos los habitantes de la sexta merindad, que son una parte importante de nuestra historia.

Pero volvamos a la historia de Jean. *Irujo Etxea* no podía pasar por alto los esfuerzos de 42 años encaminados a lograr la normalización del euskara a lo largo y ancho de Euskal Herria.

Ya que 42 años de dedicación son muchos años.

Tu carrera en Euskaltzaindia ha sido una carrera maratoniana que has ganado contra viento y marea.

Con tu tenacidad y constancia has hecho callar todos aquellos cantos de sirena que auguraban la desaparición del euskara.

Sabías que era un empresa difícil, pero no te rendiste jamás. Cuando en 1963 entraste en Euskaltzaindia la situación no era muy halagüeña.

En el estado francés el euskara era ignorado, mientras que en el estado español la utilización del euskara estaba prohibida...

Si bien el euskara en el estado francés sigue siendo no oficial, por suerte en Nafarroa y en la Comunidad Autónoma Vasca el avance del idioma es una realidad palpable.

El euskara sigue hoy más vivo que nunca y gracias a tu buen hacer en Euskaltzaindia has conseguido que el euskara y la cultura vasca hayan entrado en un proceso de normalización aceptado y respetado por un amplio sector de nuestra sociedad.

Nos falta mucho camino por recorrer, pero algo nos dice que la senda que has emprendido, Jean, es nuestro mejor aval de futuro.

Mila esker Jean!

Nuestro más sincero agradecimiento y el deseo de que las próximas generaciones hagamos realidad todos los proyectos que con tanta ilusión y empeño emprendiste.

Zorionak Jean eta segi aurrera!

HURA ZEN DON MANUEL...

Miren Azkarate

Hura zen don Manuel, zu zara Juan Mari. Lelo hori hartu nuen gogoan duela 17 urte, 1988ko uztailaren 29an, Juan Mari Lekuonak bere Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia irakurri ondoren, zuk, aitabitxi gisa, eman zenion erantzunetik. Hamabost egun baino ez dira Baigorri, zure sorterrian, Manuel Lekuona saria jaso duzula Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Eta gogoan izan dituzu zure hitzetan osaba-ilobak: Manuel Lekuona, haren izena daraman saria hartzen baitzenuen, eta Juan Mari Lekuona, eta batarekin eta bestearekin izaniko harremana Euskaltzaindian.

«Hura zen don Manuel, zu zara Juan Mari»; lelo horren bidez uxatu nahi izan zenituen hasieratik euskaltzain zendu berriaren hutsartea betetzeko iloba hautatzean batzuek ikusi zuten nepotismoa: «osaba bide urratzaile izan balinbada, zuri esker xendra edo bidexka hori errege bide bilakatu da. Hura zen Don Manuel, zu aldiz Juan Mari» irakurri zenuen orduan.

Gaur Manuel Irujo saria hartzen duzu, zu Jean Haritschelhar izanik. Ez da, beraz, inolako arriskurik norbaitek nepotismoz jokatu dela uste izan dezan. Eta, hala ere, «plagio» salaketarik egingo ez didazulakoan, utz iezadazu nire hitzak ontzeko hari hau hartzen: hura zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar.

Herri guztiek ohoratu nahi izaten dituzte bizitzan zehar herri horren alde saiatu direnak; haien izena goraipatu, nor izan ziren irakatsi belaunaldi gazteei. Horrelakoetan, ohikoa izaten da gure artean pertsona horren izena daraman saria antolatzea, urtean behin bederen gizartea oroit dadin sariari izena eman zion gizon edo emakumearen eginbideez. *Irujo Etxea Elkarte*a da Manuel Irujo Saria sortu zuena eta aurtun bosgarren aldiz ematen duena. Eskerrak, euskaldunon izenean, egiten duzuen lanarengatik.

Aldi berean, saria hartzen duena ere ohoratu nahi izaten da, hari ere aitortu dagokion alorrean gizartearen, bere herritarren alde eginiko lana.

Ez da, ordea, baitezpadako saria hartzen duena, eta sariari izena eman diona alor berekoak izatea. Alabaina, molde batean baino gehiagotan duzue antza Manuel Irujo eta biok.

Hasteko, biok zarete nafarrak; nafar izanik, eta horretaz harro sentiturik, Euskal Herri osoari buruz aritu zaretenak.

Mutikotan pilotazalea zen Manuel Irujo. Hala aitortzen dio Eugenio Ibarzabali honek eginiko elkarrizketa liburuan:

Jugaba bien a pelota a mano. A pala no tan bien..., pero a mano jugaba bien (...) En futbol tampoco era bueno, pero jugaba. Era también músico. Para los diez años, conocía bastante bien la música. Tocaba el piano y la corneta, posteriormente el txistu. Sin embargo, era muy mal bailarín.

Nork ez du ezagutzen zure pilotazaletasuna? 1968az geroz Pilota Federazioan sartu zinen, 1970an *Pilota* aldizkaria sortu eta 1981ean *Pilotarien Bilzarreko* buru hautatu zintuzten.

Musikaren alorrean ere, ez dakit musika tresnarik jotzen duzun, baina kantuak izan dituzu ikergai sarri askotan.

Unibertsitate mailako ikasketak egin dituzue biok, unibertsitatara joatea hain ohikoa ez zen garaitan. Manuel Irujok Letretako ikasketak egin zituen lehenik, eta Zuzenbidea ondoren. Zuk ere letretako bidea hautatu zenuen, gaztelaniazko sailean hain zuzen ere.

Baina hura zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar.

Euskal kulturaren sustatzaile izan zarete biok. Manuel Irujok, unibertsitateko ikasketak amaitu eta Nafarroara joan bezain laster sortu zituen Euskal Etxeak, Iruñean lehenik, Lizarran ondoren. *La Voz de Navarra* egunkaria, *Napartarra* astekaria, *Izarra* kirol taldea, ikastola, futbol talde bat ere sortu zuen. 21 urteko mutil gaztea zen orduan.

Zu, Baionako Erakustokiko zuzendari izan zara urte luzez, *Bulletin du Musée Basque* berpiztuaz eta hango artxiboetara hainbat dokumentu eta liburu balios bilduaz; *Herria* astekarian gaur ere hor ari zara astero. Irakaskuntzaren munduan ere hor izan zara lehen lerroan *Ikas* erakundean eta *Seaskan*.

Euskal Herriko Unibertsitateak biok izendatu zaituzte Doctor Honoris Causa, 1982an bata, 1988an bestea.

Hala ere, hura zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar.

Biok zarete euskaldunak, Herri hau barru barrutik maite izan duzuenak; baina gogoa eta bihotza zabalik izan dituzue Espainiarentzat eta Frantziarentzat; eta, ororen gainetik, Europan sinetsi duzue. Hala aitortu zion Manuel Irujok Eugenio Ibarzabali:

Para que un vasco aspire a la realización de la vida vasca, de la vida nacional vasca, el problema no es un problema de separación política; porque si me dice: ¿quiere separarse de España?... le diría que yo tengo mucho interés en que el Estado Español se una a Europa, porque tengo interés en que Euskadi llegue a ser porción de Europa y de que Europa llegue hasta Gibraltar.

Europaren aldeko jarrera hori aitortu nahi izan zioten Manuel Irujori 1972an, europar mugimenduaren aldeko «Consejo Federal Peninsular» delakoaren ohorezko presidente izendatu zutenean.

Zuk, berriz, hitz hauek esan zenizkion Juan Mari Lekuonari haren sarre-ra hitzaldian:

Lehenik nahi dizkizut eskerrak bihurtu aitabitxi gisa hautatu naizulakotz. Zertako ote? Beharbada, bere sortegunetik Euskaltzaindiak Iparraldeko eta Hegoaldeko kideak biltzen dituela ikusirik, nahi ukan duzu erakutsi Europa batu bati buruz goatzilarik, ez duela mugak deus ikustekorik gure harremanetan.

Bordeleko lehen urteetatik izan zenuen jarrera bera, hala nola, 1973ko maiatzean Bordelera gonbidatu zenituenean hizkuntzalari, legelari, historialari eta hainbat unibertsitario guztiek elkarrekin azter zezaten zer ote zen *Euskal Herria 1789-1850* iraganaldian. Baionako Erakustokiak ere maiz hartu ditu alde bateko eta besteko euskaldunak; batik bat gogora ekarri nahi ditut 1971 eta 1912ko Kultura Asteak, ondotik sortuko zen *Udako Euskal Unibertsitatearen* lehen hazitzat har daitezkeenak. Eta Frantziako Unibertsitateen Goiko Kontseiluan 1984an, *Eskualdeetako Kultura eta Hizkuntzen* 73. sail berria Portu zelarik, burulehen hautatu zintuzten.

Kulturaniztasuna eta hizkuntzaniztasuna, herrien Europa bultzatu nahian, hura izan zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar.

Euskal Herriaren alde, politikagintzari eman zizkion bizitzako urte gehienak Manuel Irujok. Zure sorterriko auzapez izan zara 9 urtez. Baina, batez ere, irakasle, ikertzaile, euskaltzain, euskararen langile. «Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasle» Bordeleko Unibertsitatean, eskolak euskaraz ematen hasi zinen, beste hizkuntzentzat irakasleak egiten hasi ziren bezala.

Euskaltzaindiak 1995ean Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zuenean, hauxe idatzi zenuen hitzaurrean:

Orduz gero mintzaira idatzia jalgi daiteke Etxepareren oihu famatuari jarraikiz: kanpora..., plazara..., mundura..., mundu guzira... eta azkenik munduko mintzaira idatzien arteko dantzara.

Kontrapas» delakoaren oihuak badauka «Sautrela»-n bere oihartzuna, manu gisa emana: «Heuscaldun den guïçon oroc alcha beça buruya.

Laurehun eta berrogeita hamar urteren burlan hauxe da daukagun hizkuntzarekiko ametsa: gal beza ahalkea eta beldurra, izan dadila, idazleei esker, ausart, entregu, bitore eta beste hizkuntzak bezain aberats eta konplitu.

Idazle izanik ala ez, beldurrik gabe, orain ere «euskaldun den gizon orok altxa beza burua».

Zinez, Jean, asko egin duzu amets hori egia bihur dadin.

Haatik, bide luze horretan, egindako lan eta ahalegin guztietan, ez zara bakarrik ibili. Colette emaztea izan duzu ondean; hark eman dizu nahitaezko den sosegua etxetik kanpo hainbeste ordu emateko. Horregatik, gaurko omenaldia badagokio zure emazteari ere. Nihaurk ere badakit zenbat zor diodan ondoan dudan bikoteari. Eskerrak, beraz, Colette, bihotzez, zuri.

Hitz batean, biok izan zarete euskaltzale, kultura sustatzaile, herri gizon (eta emazte), «euskaldun den gizon eta emakume orok» burua altxa dezan eta Europan leku duina izan dezan lan egin duzuenak.

Hura zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar. Hark bezala, 90 urte bederen har ditzazula, eta hemen gaudenok kondari izan gaitzazula.

MANUEL IRUJO SARIA

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburu ohia*

*Irujo etxea elkarteko zuzendaria eta kideak,
Agintari jaun-andereak,
Euskaltzain kideak,
Jaun-Andereak: Egun on.*

Aureskua etxearen aitzinean, koroaren kantua areto honetan sartzean, Koldo Biñuales zuzendariaren hitz sarkorrak, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu anderearen laudorioak, eta oparitzat Manuel de Irujo-ren urrezko domina eta seiburua Nafarroako sei merindadeen ikurra, horiek guzkiek pozik uzten naute.

Lehenik nahi dizkiek eskerrak bihurtu Irujo etxea elkarteko zuzendari eta kide guztiei aurten hautatu bainaute Manuel de Irujo saridun. Bosgarrena naiz eta bosgarren izaiteko hautatu duzue, seigarren merindadeko Nafar bat. Oroitarazten dizuet Nafarroa Behereko seigarren merindade hori izan dela Nafarroako erresuma askatu azkena eta han sortu dela, Garaziko herrian, euskal literatura.

Ohore enetzat ikusirik nor izan diren lehenbiziko lauak, jadanik zenduak diren José María Jimeno Jurío, historiagilea eta euskaltzain ohorezkoa; Jose Mari Satrustegi, euskaltzain osoa, bien familiak agurtzen ditudala eta esker-tzen honara etorririk; Pedro Miguel Etxenike fisikaria eta Gregorio Monreal legelaria, biak ikerle bikainak, aspaldiko adiskideak. Agur bero bat zuri Goio!

Eskerrak zuri ere Miren. Behar diren ñabardura guzietan segitu duzu ene bizia konparatuz Manuel de Irujo-renarekin: biak nafarrak, biak Unibertsitateko estudioak eginik, biak pilotazaleak, biak Euskal Herriko Unibertsitateko *Doctor Honoris causa* izendatuak eta biak ukan dugun gure bizitza osoan euskararen kezka eta haren aldeko borroka. Ez duzu ahortzi ene esposa, baitakizu ikerleen bizian espos-lagunek daukaten eragina.

Bai, zinez, ohore haundi bat enetzat sari honen hartzea, gizon miragarria izana baita XX. mendean Manuel de Irujo. Aski zaharra naiz aspaldiko oroitzapenetan sartzeko. 1936, uztailaren 19an Baigorri nintzen oporretan eta ikusi nuen Blas Marin Elizondoko alkatea, Baigorriira ihesi etorria bere biziaren salbatzeko, alkate errepublikanoa zelakotz. Gogoan ditut orduko gudukak Euskal Herrian gaindi, Irun, Donostia, Durangoko eta Gernikako abrekeriak, Bilbo-ren erortzea. Banekien bazela Espainiako Errepublikako Gobernuan ministro bat, Justiziako ministroa Manuel de Irujo deitzen zena. Gaztaroko aments horietan jalgitzen zen Manuel de Irujo, egiazko euskaldun, gizon zintzo eta jakintsua.

Egun batez egin nuen haren ezagutza. Elizondon Euskaltzaindiak ospatu zuen Antonio Abadiak lehen aldikotz Hegoaldean kokatu zituen Lore Jokoen mendeurrena. 1979 ginen eta orduko euskaltzainburuak, Aita Vilasante-k galdengin zidan mintzaldi baten egitea aipatuz nola ehun urte lehenago Elizondon ospatu ziren Lore Jokoak. Egin nuen mintzaldia aipatuz nola agertzen zen euskararen kezka larria Arrese Beitiaren kantu sarituarekin, Elizondon agertu zela Ameriketarik etorri berria Jose Mari Iparragirre *Gernikako arbola* himnoaren sortzailea.

Ene ondotik mintzatu zen Manuel de Irujo. Laurogeita hamar urtetara hurbiltzen ari zen, baina bere hitzetan bazen su, kar, pindar, laudatzen zituela euskara, euskaldun jendea eta aro demokratiko berria. Miraturik egon nintzen eta gero harekin mintzatzeko paradaz baliatu nintzen, nahiz oso laburra izan zen.



Gaurko eguna, jaun-andereak, luzaz egonen da ene baitan. Alabaina, utziz bizitza pribatuak emaiten dituen zorionak familia daukadala gogoan, bizitza publikoak ere eskaintzen ditu garai goxoak. Haietan azpimarratzen dut lehenik 1962. urtea, urtarrilean etorri bainintzen Baionara euskal erakustokiko zuzendari gisa eta beraz Agenetik Euskal Herriratu nintzen, uztailen izendatu baininduten euskaltzain oso eta urrian sartu nintzelakotz Bordeleko Unibertsitatean espainol irakasle.

Gero dator 1988.a, abenduaren 15ean, Gasteizko kanpusean hartu nuela-rik Euskal Herriko Unibertsitateko *Doctor Honoris causa* titulua. Hamabost egunen buruan, abenduaren 30ean, euskaltzainkideek euskaltzainburu izendatu ninduten. Zinez urte eta hilabete zoriontsua!

Azkenik, hona non naizen zuen aurrean 2005ko ekainaren 4ean *Manuel de Irujo* saria eskaintzen didatela historiaz beterik dagoen Lizarra hiri hone-tan eta duela hamabost egun, maiatzaren 21an, Baigorriin Eusko Ikaskuntzak emaiten zidala *Manuel Lekuona* saria. Urte hau ere gogoangarri den urtea da.

Berriz ere errepikatuko ditut ene eskerrik beroenak Irujo etxea elkarteari, haren zuzendari den Koldo Biñuales eta kide guziei, Miren Azkarate ande-reari eman duen mintzaldiarentzat hunkigarria izan baita enetzat eta ene fa-miliarentzat, ahortzi gabe aurreku dantzaria, txistulariak eta Ereintza abesbatza apaindu dutelakotz eskaini didaten besta hau eta, dudarik gabe, gaur areto honetan bildu diren jende guziei. Bai, zinez, milesker.

JOSE MARIA JIMENO JURIO IKERTZAILE...

JOSE MARIA JIMENO JURIO ZENAREN IKERKETA LANEN DOHAINTZA EUSKALTZAINDIARI

Jose Maria Jimeno Jurioaren ikerketa-lanen emaitzak Euskaltzaindiari eman zizkion haren familiak, 2005eko ekainaren 17an Iruñean izandako ekitaldian. Bertan izan ziren, Elena Aranguren eta Roldan Jimeno, ikertzaile eta ohorezko euskaltzainaren alarguna eta semea; baita Andres Urrutia euskaltzainburua, Andres Iñigo Onomastika batzordeko burua, zuzendaritzako kideak eta Onomastika batzordekideak ere.

Dohaintzari esker, Euskaltzaindiak Jimeno Juriok bildutako toponimia-fitxak eta Euskararen Historiaren gaineko lana eskuratuko ditu. Bere asmoa da fitxa horiek sailkatu eta digitalizatzea, Euskal Corpus Onomastikoan sartu ahal izateko. Digitalizatutako lanaren kopia bat Jose Maria Jimeno Jurio zenaren familiari emango zaio.

Esan bezala, bi atal nagusitan banatzen da dohaintza. Batetik –eta hau da atalik handiena– toponimia lanak dira: Nafarroako zenbait hiri eta ibarri eskainitako lau kutxa, beste bederatzi zendeei eta zenbait herriri buruzkoak. Horiekin batera, Nafarroako toponimia nagusiari eta toponimia bereziari buruzko kutxa bana eta Orbaibarri eskainitako karpeta bat ere badira.

Bestetik, Nafarroan Euskararen historiari buruzko kutxa bat. Jakina da gai honetaz ere ikerketa ugari egin eta argitaratu zituela Jose Maria Jimeno Juriok. Horietan ezagunena *Navarra, historia del euskera* liburua.

**JOSE MARIA JIMENO JURIO IKERTZAILE
ETA OHOREZKO EUSKALTZAINA ZENAREN TOPONIMIA
ETA EUSKARAREN HISTORIA IKERKETARAKO
FITXATEGIAREN DOHAINTZA**

*Iruñea, Euskaltzaindiaren ordezkaritza,
2005eko ekainaren 17a*

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Dohaintza hau dela eta, nabarmentzeko zenbait puntu:

Euskara mendetan zehar nafar gehienen hizkuntza bizia zela, datuen bidez, erakutsi nahi izan zuen Jose Maria Jimenok. Xede hori lortzeko artxibo asko arakatu zituen eta, horrela, euskarak Nafarroako hainbat eremutan utzi-tako arrastoak eta aztarnak azalarazi eta argitaratu.

Jose Maria Jimenok bazekien euskara bizirik egon zen eremuetako toponimiaren ikerketa diakronikoak, batetik eskualde eta garai bakoitzeko presentzia eta eragin linguistiko-kulturalak aurkitu eta aztertzeko bidea emanen zuela, eta, bestetik, euskal hitzak noiz desagertu edo desitxuratu ziren edota hitz erromantzeak noiz ordezkatu zituzten argituko zuela.

Artxibo lan izugarria egin zuen, ondoren filologoek eta linguistek azterketa linguistikoa egin zezaten. Garbi adierazi zuen berak, Euskaltzaindiak Onomastikako Lehen Jardunaldiak 1986an Gasteizen egin zituenean, bere lanaren xedea toponimoak sistematikoki eta zehaztasun kritikoz biltzea zela material horiek linguisten eskuetan uzteko.

Jose Mari Jimeno Jurio euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1987an. Garai hartan Nafarroako Gobernuak *Nafarroako euskal izendegia* egiteko eskatu zion Euskaltzaindiari eta lan hori zuzentzeko ardura eman zitzaion. Eta bai egitekoa bete ere! 18 hilabete aski izan zituen fruituak emateko urte horietan Iruñeko eta Iruñerriko toponimia lanetan buru-belarri sarturik baitzegoen. Azken lan horren emaitza izan ziren Euskaltzaindiak argitaratu zituen *Onomasticon Vasconiae* Bildumako sei liburuki.

1991n ohorezko euskaltzaina izendatu zuten eta bere azken egunera arte Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen aholku-emaile izan zen.

Jose Mari Nafarroako toponomastika lanaren maisua, gidaria eta bultzatzailea izan da eta berea da Nafarroako euskarari buruzko historia diakroniko osoena. Haren ikerketa zientifikoari esker, ordu arte defendatu nahi izaten ziren hainbat estereotipo interesatu desegin zituen. Horretaz gain, berak erakutsi du egokien Nafarroako euskararen muga historikoak argitzeko irizpide nagusiak.

Bere lana da Jose Marik utzi digun ondarerik hoberena. Gehiena argitaratua daukagu, baina Roldanek –Haren semeak– erran berri duenez, epe labur batean haren lan osoa ikusteko zoria izanen dugu.

Elenak eta Roldanek herentzia kutuna Euskaltzaindiari emateko erabakia hartu dute, Jose Marik Nafarroako euskarari eskaini zion maitasunaren eta lanaren testigantza bizia, bere eguneroko lanean eta bere eskuz idatzitako fitxategietan ageri dena.

Jakina, esker onez hartzen ditugu, Jose Mariren presentzia Euskaltzaindian iraunarazteaz gain, bai baitakigu argibide handia eman behar dietela Onomastika batzordeko lanei. Azken batean lan horiek Nafarroako herrira itzuli ko dira, Jose Marik hainbeste lan egin eta hainbeste maitatu zuen lurraldera.



**DONACIÓN DE LOS FICHEROS DE TOPONIMIA Y DE LA
HISTORIA DEL EUSKERA DEL QUE FUE INVESTIGADOR
Y ACADÉMICO DE HONOR DE EUSKALTZAINDIA,
JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍO**

*Pamplona, Delegación de Euskaltzaindia,
17 de junio de 2005*

*Andres Urrutia,
presidente de Euskaltzaindia*

Con motivo de esta donación, quisiera remarcar lo siguiente:

Jose Mari Jimeno Jurío se propuso demostrar con datos y hechos la implantación que el euskera ha tenido en el devenir histórico de Navarra como lengua viva y vehículo de comunicación habitual entre gran parte de sus gentes. No dudó que alcanzaría dicho objetivo a través de la extracción y exposición pública del poso lingüístico que esta lengua había dejado en la tierra donde vivieron los que la hablaron. Poso convertido en pasado mudo en los fondos de los ricos archivos existentes en Navarra.

Ese sedimento lingüístico viene a constatararse fundamentalmente en la toponimia. Sabía Jose Mari que una investigación diacrónica de la toponimia en todo el espacio antaño vasco-hablante permitiría, por una parte, descubrir y analizar presencias e influencias lingüístico-culturales en cada época y comarca y, por otra, observar el momento de la regresión del euskera que se fue detectando en la desaparición de voces vascas, en la deformación de las mismas al tratar de acomodarlas a la lengua romance, o simplemente en la sustitución de voces vascas por voces romances.

Jose Mari se propuso como objetivo el trabajo de archivo y de campo, tratando de aportar todos los datos posibles con el fin de que posteriormente otros especialistas –filólogos y lingüistas– pudieran realizar el análisis lingüístico o trabajo de culminación. Así lo expuso él en las Primeras Jornadas de Onomástica de Euskaltzaindia, celebradas en Vitoria / Gasteiz en 1986, en las que presentó el proyecto de la *Toponimia de la Cuenca de Pamplona* para ser publicado en la colección *Onomasticon Vasconiae* de la Real Academia de la Lengua Vasca, al decir:

Tenía claro cuál sería el espacio geográfico del trabajo y la finalidad de mi aportación: recoger topónimos de forma sistemática y con rigor crítico, para poner esos materiales a disposición de los lingüistas.

Jose Mari Jimeno Jurío fue nombrado académico correspondiente en 1987. De inmediato recibió la propuesta de la dirección del trabajo que el Gobierno de Navarra había encargado a Euskaltzaindia: la elaboración del *Nomenclátor Euskérico de Navarra*. Su dedicación fue total, puesto que en 18 meses pudo presentar los resultados del mismo. Eran, por otra parte, los años en los que estaba plenamente dedicado a los trabajos de toponimia de Pamplona y su Cuenca, que fueron publicados en 6 volúmenes de la Colección Onomasticon Vasconiae de Euskaltzaindia.

El año 1991 fue nombrado académico de honor de Euskaltzaindia y hasta el final de sus días actuó de asesor de la Comisión de Onomástica de esta Institución.

Jose Mari ha sido maestro, guía e impulsor del trabajo de toponomástica en Navarra y ha realizado, a su vez, la historia diacrónica más completa que se conoce del euskera en Navarra. Con sus trabajos ha conseguido, por una parte, desmontar, a través de la investigación científica, ciertos estereotipos interesados y defendidos desde presupuestos no precisamente científicos y, por otra, ha establecido con claridad los criterios relativos a la presencia territorial y social del euskera en Navarra.

De Jose Mari nos queda su mejor herencia: su obra. Ya publicada en gran parte, pero que como ha anunciado Roldán –su hijo– recientemente, vamos a tener la suerte de contar en un corto plazo con la publicación de su obra global.

Elena –su mujer– y Roldán han decidido donar a Euskaltzaindia una herencia entrañable, el testimonio vivo del trabajo y del amor de Jose Mari por el euskera en Navarra, plasmada en el día a día de su trabajo, en estos ficheros escritos de su puño y letra.

Los recibimos con un inmenso agradecimiento, porque además de hacer viva y duradera la presencia de Jose Mari en Euskaltzaindia, estamos seguros de que van a propiciar mucha luz en los trabajos de nuestra comisión de Onomástica. Trabajos que revertirán en el pueblo de Navarra, por quien tanto trabajó y al que tanto aportó en vida Jose Mari.

JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍOREN TOPONIMIAKO ETA EUSKARAREN HISTORIAKO FITXATEGIAREN DOHAINTZA

Roldán Jimeno Aranguren

José María Jimeno Juríoren ondare intelektual materiala hiru esparruetan sailka dezakegu:

1. Argitaratutako obra, orain *Pamiela* argitaletxea, Euskara Kultur El-kargoa eta Udalbiderekin batera *Obras completas* proiektuan atera be-har duguna.
2. Etnografiaren esparruan eta tokian-tokiko ikerketari esker jasotako mi-laka fitxa. Bere egunean familiakook Eusko Ikaskuntzari eman genion, eta egun datu base batera pasatzen ari dira.
3. Eta gaur hemen biltzen gaituena: TOPONIMIAKO ETA EUSKARA-REN HISTORIAKO FITXATEGIA. Aurrekoa ez bezala, hemen ager-tzen diren materialak hein handi batean argitaratuta daude, baina iker-tzailearentzat balio handiko materiala da, alegia.

Eta Euskaltzaindia zergatik?

Alde batetik, bere leku naturala dela esan genezake, baina bestetik, arrazoi pertsonal garrantzitsua dago, bera Onomastikako batzordeko kidea izan baitzen.

Nire aitari, 60. hamarkadan, Artaxoako euskal toponimia aztertuz sortu zitzaion euskararekiko grina. Toponomastikarekiko interesa 1981. urtean berresukatu zuen eta, orduan, artxiboetan egindako ikerketaren eta landa-azterketaren ondorioz *Asiain*, *Lizasoain* eta *Oltzako* toponimia argitaratu zuen. Handik gutxira, Euskaltzaindiak *Onomasticon Vasconiae* izeneko proiektu handia jarri zuen martxan; bertan, lehenengo lanak J. M. Jimeno Juríok Iruñerriko toponimiei buruz egindako monografiak izan ziren.

Euskaltzaindiaren liburu mardul horietan eta orain dohaintzan ematen di-tugun fitxa hauetan ikusi ahal denez, prozedura aitzindaria erabili zuen: do-kumentu iturriak hustu zituen, Erdi Arotik gaur egun arte, leku bakoitzeko biz-tanleei egindako elkarriketa pertsonalekin osatuz. Emaitzak Iruñerriko zendeei eskainitutako sei liburukitan argitaratu zituzten: *Zizur* 1986; *Galar*,

1987; *Oltza*, 1989; *Itza*, 1990; *Antsoain*, 1992; *Iruñea*, 1994; azken hori Patxi Salaberri Zaratiegirekin batera.

Proiektu honetatik kanpo, hainbat liburu eta artikulua idatzi zituen, eta Nafarroko Gobernuak *Nafarroa, toponimia eta mapagintza* izeneko makro-proiektua zuzendu zuen. Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak elkarrekin bultzatu zuten *Nafarroako Herri Izendegia. Nomenclator euskérico de población de Navarra* (1990), eta gure egileak egindako material historikoen ekarpena hor isladatzen da. Bertan agertzen den izen bakoitza dohaintzan ematen dugun fitxategian aurki dezakegu.

Euskaltzaindiak Jimeno Juríoren ekarpen eta lan toponomastikoak baloratu zituen, eta Ohorezko euskaltzain izendatu zuen 1991eko apirilaren 26an, nire amaren urtebetetzearen egun berean.

Ohore horren esker onaren adierazgarri dohaintza honek izan nahi du. Guretzat ohorea baita aitak hainbeste maite eta estimatzen zuen Euskaltzaindiak haren toponimiazko lanak jasotzea.

Baina, aipatu bezala, dohaintza honek beste sorpresa txiki bat dauka; kuxta bakar batean dagoena. Ikerketa toponomastikoarekin Jimeno Juríok euskara galduta zuen Nafarroaren euskalduntasuna agerian jarri zuen, eta hizkuntzaren atzerakadaren ikerketa historikoarekin prozesu horren ezagutza osatu zuen. Arlo honetan haren bibliografia oparoa da, liburu zein artikuluetan. Baina badago bat, dibulgazioaren ikuspegitik egindakoa, klasiko bat bihurtu dena: *Navarra. Historia del euskera* (1998). Liburu hau prestatzeko erabili zituen fitxak aipatutako kutxa horretan daude, eta hemendik aurrera Euskaltzaindiaren esku geldituko dira.

Mila esker.

Orain, erdaraz aritzen diren kazetarientzat, gaztelaniaz arituko naiz.

* * *

DONACIÓN DE LAS FICHAS DE TOPONIMIA Y DE HISTORIA DEL EUSKERA DE JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍO

Roldán Jimeno Aranguren

El legado intelectual material de José María Jimeno Jurío puede ser clasificado en tres campos:

1. Su obra escrita, que en estos momentos se está recogiendo en el proyecto de la edición de sus *Obras completas*, de la mano de la editorial *Pamiela*, *Euskara Kultur Elkargoa* y *Udalbide*.

2. Miles de fichas elaboradas en base al trabajo de campo etnográfico que, en su día donamos a Eusko Ikaskuntza, y que en estos momentos están volcando a una base de datos.
3. Y lo que hoy nos reúne aquí: el conjunto de fichas de toponimia y de historia del euskera. A diferencia del material entregado a Eusko Ikaskuntza, éste que donamos a Euskaltzaindia está en buena medida publicado, pero no por ello su valor deja de ser relevante para los investigadores.

¿Por qué Euskaltzaindia?

Por una parte cabría afirmar, en buena lógica, que se trata del lugar natural, pues la Real Academia es la institución veladora del euskera; pero, por otra parte, existe una razón personal mucho más importante, pues Jimeno Jurio formó parte de la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia.

A mi aita le entró el regustillo por el euskera en los años 60, cuando investigó la toponimia vasca de su villa natal, Artajona. No recuperó el interés por la toponomástica hasta 1981, cuando fruto de la investigación de campo y de archivo publicó la toponimia de *Asiáin*, *Lizasoáin* y *Olza*.

Al poco tiempo Euskaltzaindia puso en marcha el ambicioso proyecto *Onomasticon Vasconiae*. Constituyen los primeros números de esta colección los trabajos del aita dedicados a los topónimos de la *Cuenca de Pamplona*.

Tal y como se puede apreciar en aquellos libros y en estas fichas que hoy donamos, utilizó una metodología pionera: vació sistemáticamente las fuentes documentales más importantes, desde la Edad Media a la actualidad, completando aquellos datos con entrevistas personales. Los resultados componen seis gruesos volúmenes, el último de ellos realizado junto con Patxi Salaberri. Además de este proyecto publicó diferentes libros y artículos sobre toponimia, y dirigió el macro-proyecto del Gobierno de Navarra *Navarra. Toponimia y Cartografía*. Ahí se plasma el *Nomenclátor euskérico de Navarra*, elaborado en 1990 fruto de la colaboración institucional entre el Gobierno de Navarra y Euskaltzaindia. Los materiales históricos que lo fundamentan ocupan otro de los cajones de esta donación.

Euskaltzaindia supo valorar la contribución al conocimiento de la toponomástica histórica de mi aita, y lo nombró el 26 de abril de 1991 *Euskaltzaina de honor*, curiosamente el día del cumpleaños de mi ama.

Muestra del agradecimiento familiar por aquella distinción es esta donación. Para nosotros es un honor que Euskaltzaindia –institución profundamente querida por mi padre–, reciba y custodie estas fichas.

Pero esta donación guarda también otra pequeña sorpresa en forma de caja que ya he anunciado. A través de la investigación toponomástica Jimeno

Jurío quiso poner de manifiesto la euskaldunidad histórica de las tierras donde se había perdido la lengua vasca. Y ese retroceso lo analizó también a través del análisis histórico, pues, al fin y al cabo, era de oficio historiador. En este segundo campo su bibliografía es abrumadora, tanto en libros como en artículos. Pero hay uno, realizado con afán divulgador, que se ha convertido en un clásico: *Navarra. Historia del euskera* (1998). Las fichas que elaboró para la preparación de esta obra se encuentran en esa caja.

Y por mi parte, en nombre de la familia, nada más. Simplemente reiterar nuestro agradecimiento a Euskaltzaindia por haber acogido esta donación con tanta ilusión y cariño.

**JOSÉ MARÍA JIMENO JURIO IKERTZAILE ETA
OHOREZKO EUSKALTZAINA ZENAREN TOPONIMIAKO
FITXATEGIAREN DOHAINTZA**

BILDURIK

Alde batetik, EUSKALTZAINDIAREN izenean ANDRÉS URRUTIA
BADIOLA, euskaltzainburua,

Eta bestetik, ELENA ARANGUREN LUMBRERAS eta ROLDAN
JIMENO ARANGUREN, JOSÉ MARÍA JIMENO JURIO zenaren alarguna eta
semea,

ADIERAZTEN DUTE

1. Jose Maria Jimeno Jurio ikertzaile eta ohorezko euskaltzain zenaren toponimia eta euskararen historia ikerketetako fitxategia Euskaltzaindiari emateko nahia.
2. Euskaltzaindiarentzat ohore handia dela nafar ikertzaile honen toponimia eta euskararen historia fitxategia jasotzea.
3. Euskaltzaindiak fitxategi hori sailkatu ondoren digitalizatzeko asmoa adierazi duela, eta lan hori amaitzen duenean, kopia bat dohaintza hau sinatzen duten José María Jimeno Jurio zenaren familiakoei emanen diela.
4. Euskaltzaindiak bere onomastika lanetarako erabiliko duela dohaintza hau eta berari dagokiola honen aprobetxamendua.
5. Fitxategiak honako edukia dauka:

I. Toponimia

Kutxak

1. Hiriak eta ibarrak I: Aezkoa-Ega.
2. Hiriak eta ibarrak II: Lizarra-Gipuzkoa.

3. Hiriak eta ibarrak III: Gulia-Olloibar.
4. Hiriak eta ibarrak IV: Orbaibar-Deierri.
5. Monografikoa I: Iruñea.
6. Monografikoa II: Galar, 1 (zendea).
7. Monografikoa III: Galar, 2; Oltza (zendek).
8. Monografikoa IV: Itza (zendea).
9. Monografikoa V: Antsoain (zendea).
10. Monografikoa VI: Buriata, Eguesibar, Uñarte, Atarrabia.
11. Monografikoa VII: Elortzibar.
12. Monografikoa VIII: Itzarbe ibarra.
13. Monografikoa IX: Tafalla, Erriberri, Beire.
14. Nafarroako toponimia nagusia.
15. Toponimia berezia.

Karpeta


Orbaibar.

II. Euskararen historia


Kutxa:

Euskararen historia.


Hala jasota gera dadin, sinatzen dute agiri hau, ale bikoitzez, goian esandako toki eta egunean,



Andres Urrutia Badiola



Elena Aranguren Lumbreras



Roldan Jimeno Aranguren

MAIXA GOIKOETXEARI ZILARREZKO DOMINA EMATEA

25 urte Euskaltzaindian

*Donostian, 2005eko azaroaren 25ean,
Gipuzkoako Foru Aldundian*

Andres Urrutia, euskaltzainburua

Hernanin jaioa dugu Maixa, bi anaia-arreba dira. Hernanin bizi da eta Ja-bier Bengoetxearekin ezkontuta dago. Bi alaba ditu: Nora, 6 urtekoa eta Amaia, 4 urtekoa; haur batzuk Parisetik omen datoz, baina badira urrutiago-tik datozenenak ere (Txinatik). Bidaia zalea, mendizalea da, eskiatu zalea eta bizikletan ibili zalea (berarekin oraindik denbora luzez jardun nahi dugunez, biziki gomendatzen diogu beti eraman dezala kaskoa buruan).

1979an hasi zen Euskaltzaindiarentzat lanean, lehenago UZEIn aritu on-doren, eta 1980an egin zen langile finko. Juan San Martin eta Juan Mari Le-kuona ordezkarien esanetara egon da, eta orain, Ana Toledo du buru.

Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaritza orain Hernani kalean dago, baina lehenagoko beste batzuk ere ezagutu ditu Maixak: lehenik, Gipuzkoako Foru Jauregian bertan, eta gero, Diputazioak berak Txurruka kalean zuen bu-lego batean.

Maria Pilar Lasarte izan du lankide, harik eta 2000. urtean jubilatatu zen arte.

Hasierako urteetan, izaten zuen nahiko lan Maixak orduan Euskaltzain-diak ematen zuen D Irakasle Tituluaren antolaketarekin, edota pertsona-izenez edo deituez eman beharreko azalpen edo ziurtagiriekin. Gaur egun neurri ba-tean aldatu egin dira ordezkartzako zeregin batzuk, D Irakasle Titulurik ez baitu ematen Euskaltzaindiak Hegoaldean, eta pertsona-izenen eta deituren ar-loa oso normalizatuta eta bideratuta dago, zorionez.

Gaur egun, batetik, Akademiak Gipuzkoan duen ordezkariaren laguntzai-le-lanak egiten ditu, erakunde askotatik jasotzen diren ordezkapenak behar be-zala atenditzeko.

Beste aldetik, Erakundearen azpiegitura-lanetan dihardu: bulegoa bera eta bertako materiala zaintzeaz gain, batzorde askoren laguntzaile da: Gramatika, Literatura Ikerketa, Corpus, Hiztegi Batua... batzordeen artxiboa eramaten, bi-

lera-deiak eta materiala bidaltzen, batzordekideei deitzen, bazkaltokia bilatzen eta erreserbatzen. Euskaltzaindiak osoko batzarra Donostian egiten duenean ere, berak egiten du erreserbarako gestioa Gipuzkoako Diputazio honetan, eta batzarrerako materiala ekartzen eta eramaten laguntzen Idazkariordeari. Ez da zalaparta zalea, eta bai ixila eta langilea.



Laburbilduz, Euskaltzaindiak lan akademikoa egin ahal izateko gauzatxo asko –askotan begiraturik ere ematen diegunak– egiten dihardu Maixak, eta 25 urte gurekin lanean ari dela eta, euskaltzainok omenaldi hau eskaintzen diogu, esker onez, eta Akademiaren zilarrezko domina ematen.

Mila esker, Maixa, Euskaltzaindiaren izenean.

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Euskal Gaitasun Agiria (EGA) hasieran Euskaltzaindiak berak 7 Euskal Herrietan eskaintzen zuen. Gero Gasteizko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuten bere gain bakoitzak bere euskualdean.

Iparraldean ordea Euskaltzaindiak ez dio uko egin bere eginkizunari eta urtero bi aldiz Baionako bulegoan antolatzen da udan eta udazkenean ohiko azterketa, hemen doazen emaitzekin.

Azterketa horretaz bi ohar egin genitzake:

1) «Irakasle titulua» marka izan bazuen ere EGAK lehen, gaurregun ez darama berak horrelako aipamenik. «Irakasle titulua»-k gaurregun, bestalde, antolatzen direla-kotz Iparraldean ere.

2) Iparraldeko herritarrentzat da antolatzen Euskaltzaindiaren azterketa.

Salbuespenak onartu ditugu bakarrik, Nafarroako edo beste hiru euskal probintzietako seme-alabentzat, Iparraldean jaioak, edo ikasle, langile etxekotuak, edo espetxeratuak direlarik aurkezten direnak.

Baiona, 2005.eko azaroa

Piarres Xarritton

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Emate eguna: Bilbo, 2005-VII-22

- 6.845 – Ganix AGUERRE ONDIKOLA
- 6.846 – Xan AIRE
- 6.847 – Nerea ALBERDI
- 6.848 – Gorka ALBISTUR
- 6.849 – Ugaitz ARIN
- 6.850 – Gorka AROTCHAREN
- 6.851 – Kattin ARRABIT
- 6.852 – Erik ARRIBILLAGA
- 6.853 – Mattin BACHO
- 6.854 – Leire BARBIER
- 6.855 – Odei BARROSO
- 6.856 – Xan BERTERRETCHE
- 6.857 – Itxaro BETHART
- 6.858 – Joana BISCAY
- 6.859 – Maitena BISCAY IDIART
- 6.860 – Nikolas BLAIN
- 6.861 – Oihana CAMINO LAPEIRE
- 6.862 – Amaia CASTORENE
- 6.863 – Paola CHARRON
- 6.864 – Aines CHEVALIER
- 6.865 – Oihana CIAURRIZ
- 6.866 – Allande CLEDON
- 6.867 – Katti DARGUY
- 6.868 – Txomin ETXART
- 6.869 – Arantxa ETXEBERRIA IDIARTEGARAY
- 6.870 – Maialen GALLERAS
- 6.871 – Iban GOENAGA

- 6.872 – Joana GUERIN
- 6.873 – Gillen HIRIBARREN
- 6.874 – Julen IGLESIAS
- 6.875 – Maritxu INÇAGARAI HAIÇAGUERRE
- 6.876 – Julie INDABURU
- 6.877 – Olaia IRAZUSTA
- 6.878 – Patxi IRIART HIRIBARREN
- 6.879 – Eñaut JOLIMON DE HARANEDER
- 6.880 – Xabi JORAJURIA
- 6.881 – Aimar KARRIKA IRIBARREN
- 6.882 – Marion LAPLACETTE
- 6.883 – Maia LARRONDE DE AJURIAGUERRA
- 6.884 – Xantxo LEKUMBERRI
- 6.885 – Beatrice MAINHAGUIET OILLARBURU
- 6.886 – Pantxika MAITIA
- 6.887 – Ihintza MARGUIRAULT
- 6.888 – Maritxu MARTICORENA
- 6.889 – Mizel MATEO SALABERRI
- 6.890 – Gabrielle NATORP
- 6.891 – Andde PÉES
- 6.892 – Trini PERUGORRIA ALTI
- 6.893 – Haizea RIOS MORENO
- 6.894 – Gakuji SHINOHARA
- 6.895 – Iduzki SOUBELET FAGOAGA
- 6.896 – Txomin URRIZA
- 6.897 – Béatrice URRUSPIL
- 6.898 – Ximun UTHURRALT

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Ebate eguna: Bilbo, 2005-XI-25

- 6.899 – Nahuel BIANCOLINI ETXART
- 6.900 – Amaia BIDEGAIN
- 6.901 – Paxkal BOURGOIN
- 6.902 – Maialen DELIART
- 6.903 – Amaia ELIXIRY
- 6.904 – Felix Ignacio ESPARZA LURI
- 6.905 – Jean Joël FERRAND
- 6.906 – Maialen FRANCHESSENA ETCHEMENDI
- 6.907 – Gilen GOYTY
- 6.908 – Xabi HASTOY
- 6.909 – Iker HEREDIA DE ELU
- 6.910 – Laura IRIGARAY IPUTCHA
- 6.911 – Maritxu LACARRIEU
- 6.912 – Ixabel LAPUENTE BERNE
- 6.913 – Xavier MOULIAN
- 6.914 – Maider NEGUELOUA
- 6.915 – Guzmán PASKUAL BELASKO
- 6.916 – Leire SAGARDUY CASTORENE
- 6.917 – Pierre SALLABERRY MOLLE
- 6.918 – Maider TELLETXEA
- 6.919 – Jenofa ZUBIRI

HIL BERRIAK

PIERRE DUNY-PÉTRÉ

Zinez garaztarra zen Pierre Duny-Pétré, garaztarra errotik, aita Lekunberrikoa, ama Donibane berekoa. Sortu zen 1914eko apirilaren 3an Espainiako karrikako etxe eder batean, XVIII. mendekoa hain zuzen, giltza egile baten etxea, nafar itxurakoa, bere baratzeñoa giblean.

Aita guarda izanez, Aldudeko, Baigorriko, Urdoz auzoko eta Donibane Garaziko eskola publikoan egin zituen lehenbiziko estudioak eta gero Baionako lizeoan, hasi zituларик filosofiako ikasketak bigarren gerla aintzin. Ezagutu du, beraz, bi gerlen arteko Donibane Garazi herri euskalduna, bere asteleheneko merkatuarekin, han biltzen baitziren Garaziko herri guzietako laborariak eta ere Baigorriko eta Iholdiko kantona-menduetarik heldu zirenak. Ardi, marro, behi, zaldi, asto, gizonen sal-erospenak, emazteak jiten zirela ere etxeko mozkinen saltzeko, barazki, arroltze, oilo, oilasko, hitz batez poalleria guzia.

Hogeita bost urte zituen Pierre Duny-Pétré-k hasi zelarik bigarren gerla, jadanik senditu zuela bere bihotzean Espainiako guduka, euskaldunen zorte tristea, bilduak zirelarik Donibane Garaziko gaztelu zaharrean erbestean ziren euskaldun haurrak Lafitte apezari eta orduko Donibaneko alkateari Haranburu jaunari esker.

1940.ean, *Somme* ibaiaren ondoan Alemanek preso hartu zuten, baina hor agertzen da Pierre Duny-Pétré-ren jeinua, bost aldiz eskapatuko dela, seigarren aldian 1942.an askatzen dela osoki, Marseillara etorritz bere osaba Jean Pétré-ren ondora. Jaun hau da Frantzia Hego Ekialdeko erresistentziaren buru eta berehala jarraikitzen zaio osabari, gerla segituz Alemanen kontra sasigudari gisa.

1944.ean Frantzia libratzen delarik sartzen da polizian, lehenik *DST* deritzan adarrean eta gero izendatzen dute komisario departamenduetako hiri nagusietan egiten duela bere lana, azkenik Pauen ukanen duela bere lanpostua. Anartean ezkondu da ene kusia Jeanne Idieder Iholdi Haranburuko alaba errientsarekin, sema bat Ellande ukanen dutela.

Polizia lana eta abertzaletasuna ezkondurik daude Pierre Duny-Pétré-ren baitan. Alde batetik bizitzeko duen ofizioa eta bertze aldetik bihotzean barna sartua zaion sendimendu sakona. *Enbata* mugimendutik hurbil dago eta astekari horretan idazten du izenorde batzuen pean izan dituen Garaziko Manex eta bere gardentasunean Jon Donipétrý. Mauleko aberri egunean, 1972.an agertzen da josteen artean, zenbait egunen buruan erretretara doala. Polizia batek han ikusirik salatzen du eta deitua da Parisera Poliziako nagusi haundiaren aitzinera.

Abertzale izan baino lehen euskaltzale da Pierre Duny-Pétré. Harremanetan sartzen da René Lafon Bordeleko Unibertsitateko euskal katedradunarekin, hasiz etnologiako ikerketak, Basa Jaunari buruz eta gero, ikusirik zer beherekada daukan euskarak



Garazin eta Iparraldean, biltzen ditu, haur kantu, eskolako jostetak, erran zaharrak, horiek guziak berak entzunak Alduden han bizi zelarik edo Donibane Garazin, bilduz ere bere familian, bai eta ere bere andrearen familian. Ikus horretarako *Gure Herria* aldizkaria, *Anuario de Eusko Folklore* eta, azkenik, *Xirula mirula*, deitzen den liburu batean agertuko da luzaz egin duen ikerkuntza.

Euskaltzain urgazle izendatua izana da 1963.an bereziki bere olerkari emaitzaren gatik. Olerkaria baitzen Pierre Duny-Pétré, idazten zituen olerkiak agertu direla *Gure Herrian*, *Elgar-en*, *Herrian*, *Eusko gogoan*. Maite zuen bereziki balada deritzan frantses erdi aroko olerki mota Guillaume de Machaut edo François Villon-ek erabili zutena. Balada

dak hiruzpalau estrofa baditu hamar neurtitzekoak, neurtiz bakoitza hamar silabaduna, errimak gurutzatzen direla (a b a b a b a b a b) eta azkenik «igortze» deritzan sei neurtitzeko estrofa errima berekin (b a b a b a b). Berrogeita sei neurtitzetan bukaera berak izanen dira (ia, ez) orain irakurriko dudan *Berak erranez* tituluarekilako balada:

1

Izanik omen pilotaria,
Erran ta erran ari zen Manez,
Zer den oraiko «Joko Berria»...
Hortan, jabetuz, pilota batez,
Trenkatu nahiz beti kintzia,
Hutsak eginik aldi guziez,
Atxeman zien estakuria:
Eskietan min, edo bestenez
Pilota-plaza zakon ttipia!
Xapelduna zen... berak erranez!

2

Roxali deitu neska gaztia,
Betikotz eder ezin egonez,
Mutzurdina zen bilakatia,
Parisen sehi lehen izanez.
Bana geroztik, zer kondaria
Emaiten zaukun dena gezurrez:
Miss izanikan, egunkaria
Zen estalia haren potretez!
Jinkoak daki nun den egia.
Erregina zen... berak erranez!

3

Kaskoin ergel bat, mihi luzia,
 Mintzo zen gerlaz, untsa edanez.
 Lehertu zien, hor, etsaia,
 Lau gizon hilik ukaldi batez!
 Gure Pettiri trufatzailia,
 Irrintzinaka hasirik tanpez,
 Ikaran zagon kalakaria,
 Ahoa nunbait hetsi beharrez,
 Beldurrarekin zuri-zuria.
 Gerlaria zen... berak erranez!

4

Bere buriaz arras hartia,
 Gizon gazte bat, urruntik jinez,
 Iduri zaukun zela Printzia,
 Mintzatuz zaldiz edo langilez,
 Aipatuz etxe ta jauregia.
 Ezkonduz geroz, espanturik ez...
 Borda batian zien tegia,
 Ama gaixoa, langilen ordeztu,
 Asto maingu bat, bere zaldia.
 Haberatsa zen... berak erranez!

IGORTZE

Jaun frantximenta, gora Frantzia!
 Dena espantu, oihu eginez.
 Harrotzen duzu jende guzia.
 Paristarrak du sinesten zinez
 Mundian dela, Frantses handia,
 Lehen-lehena... berak erranez!

Piarres HÉGUITOA.

Hautatu dudana baladak erakusten du olerki mota egokia dela iraganaren aipatze-ko alde batetik eta jorragailu pollita dela denbora berean. Hori izan da Piarres Hegi-toa-k erabili duen gai nagusia. Iragana bere oroitzapen xoragarriekin «*Mais où sont les neiges d'antan !*» delakoaren oihartzuna, ezeztatzen ari dela, hautetsiek, agintariak ez dutelarik deus egiten euskararen hiltzaile den bizitzeko manera berriaren kontra, gehienetan haren laguntzaile hurbil ez balinbadira esku mutil bilakatzen.

Hori zen Pierre Duny-Pétré-ren kezka, hortakotz salatu ditu bere olerkietan, hobeiki ulertua izateko idazten zuela Garaziko euskalkian.

Laurogeita hamaika urte ez ditu osoki bete. Zendu da martxoaren 24ea, Martxoaren 26an elizkizunetan galdegin zidan familiak irakur nezan Pierre Duny-Pétré-k idatzi zuen olerki bat. Hautatu nuen *Harrak eta haritza* deitzen dena. Eskaintza da: *Gure herri pollita eta gure euskaldungoa xehatzen dituzteneri ene samurgoarekin eta azken bertsuak salatzen du gogorki orduko joka-moldea*:

Har horiek bezala, gizona da galtzen,
Geroaz ez delarik zinez axolatzen.
Itsutuki lanari balinbada lotzen,
Hautsi, motz eta trenka, makur edo zuzen.
Zirt hunak, zart harat, dena du xehatzen.
Hortarik, azkenian, zer zako gertatzen?
Ontasun ederrenak ditu fundikatzen
Ta Jainkoak emanak deprurat igortzen.

Halakoa zen Piarres Hegitoa, euskaltzale eta abertzale suharra. Goian bego.

Irisarri, 2005-VII-21

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburu ohia*

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX
2005

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX

2005

AGIRRE GOIKOETXEA, Luciano:	
– Ongietorria	673
AGIRRE URTEAGA, Xabier:	
– Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?	1073
ALTZIBAR, Xabier:	
– Lauaxeta eta <i>Euzkadi</i> egunkariaren euskal atala	559
ANDIAZABAL, P.:	
– Pierre Lafitten gutundegia	215
– A. Irigaray / P. Lafitte (1947-1964)	217
– Pierre Lafitten gutundegia	937
ARANA, Aitor:	
– <i>BBK-Euskaltzaindia literatura sariak: 1958-2003</i>	407
ARBELBIDE, Xipri:	
– Janpierre Arbelbide idazlea	547
AREJITA, Adolfo:	
– Idatzizko eta ahozko tradizioa gaur egungoari buruz	465
ARIZABALO, Patxi:	
– Sobre el verbo vasco irunés	799
ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele:	
– Euskaltzaindiaren ekoizpen zientifikoa Inguma-n: Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basearen aurkezpena Euskaltzaindian . .	189
ARTZA, Jon:	
– Euskaltzaindia <i>Salo del Llibre 2005ean</i>	1063
AURREKOETXEA, G.:	
– Twelfth International Conference on Methods in Dialectology . .	795
AZKARATE, Miren:	
– Hura zen don Manuel...	1095

AZKUNA, Iñaki:	
– Adolfo Arejita, Euskaltzaindian sartzea	461
BADIOLA, Ricardo:	
– Euskaltzaindia <i>Salo del Llibre 2005</i> ean	1063
BILBAO, Jose Ramon:	
– <i>BBK-Euskaltzaindia literatura sariak: 1958-2003</i>	410
CHARRITTON, P.:	
– Frantzizko Laphitz-Arriadaren bizia eta lanak	527
– Pierre Lafitten gutundegia	937
– Pierre Lafitten gutundegia	215
– A. Irigaray / P. Lafitte (1947-1964)	217
– D-Mailako hizkuntza gaitasun agiria	1119
ENBEITA, Jon:	
– Adolfo Arejitari bertso bi	519
ESNAL, Pello:	
– Herri-prosa: oinarri eta bide	873
ETXEZARRETA, Eustasio:	
– Euskararen erabilera Donostiako Elizbarrutian gaur egun	921
EUSKALTZAINDIA / Real Academia de la Lengua Vasca:	
– Bilbon, 2004.eko abenduaren 16an eta 17an	279
– Euskaltzaindiko Zuzendaritzako karguak hautatzeko batzar berezia: 2004-XII-17	281
– Ageriko bilkura: 2004-XII-17	283
– Bilbon, 2005.eko urtarrilaren 28an	285
– Donostian, 2005.eko otsailaren 25ean	287
– Bilbon, 2005.eko martxoaren 18an	288
– Donostian, 2005.eko apirilaren 22an	290
– Ageriko bilkura: 2005-IV-22	292
– Argomaizen, XIV. Barne-Jardunaldiak: 2005.eko maiatzaren 27 eta 28an	294
– Ageriko bilkura: Barrundia haraneko Udaletxean, 2005-V-28	298
– Bilbon, 2005.eko ekainaren 23an	955
– Adolfo Arejita euskaltzainaren sarrera hitzaldia: 2005-VI-24	957
– Francisco Laphitz eta Jean-Pierre Arbelbideren omenez: 2005-VII-21	960
– Irisarrin, 2005.eko uztailaren 22an	964
– Altsasun, 2005.eko irailaren 23an	967
– <i>Nafarroa Oinez</i> : 2005eko irailaren 23an	969
– Mungian, 2005eko urriaren 21ean	971
– Ageriko bilkura: 2005eko urriaren 21ean	973

– Donostian, 2005eko azaroaren 25ean	975
– Bilbon, 2005eko abenduaren 16an	977
– Euskaltzaindiaren ARAUAK:	
• 143. - <i>Erri(a)</i> osagaia gaurko toponimian	303
• 144. Hiztegi Batua	309
• 145. Bizkaiko Herri Izendegia	981
• 146. Hiztegi Batua	996
• 147. Antzinateko hirien euskarazko izenak	1016
– Euskaltzaindia eta Iruñeko Udalaren arteko hitzarmena	351
– Ayuntamiento de Pamplona, Área de Cultura	352
– Nafarroko Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean 2005. urterako egindako hitzarmena: 2002ko ekainaren 27an sinaturiko esparru-hitzarmenaren eranskina	357
– Acuerdo entre el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia para el año 2005: anexo al acuerdo marco firmado el 27 de junio de 2002	360
– Euskaltzaindia-Topagunea	363
– Eusko Jaurilaritzaren, foru Aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko esparru-Hitzarmena / Convenio marco entre el Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y Euskaltzaindia	1029
– FEVE eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena, hizkuntza normalizaziorako	1051
– Convenio entre FEVE y Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca para la normalización lingüística	1053
– Instituto Cervantes eta Euskaltzaindiaren arteko Lankidetz hitzarmena	1055
– Convenio de Colaboración entre el Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia	1058
GALARDI, Aintzane:	
– Itoti urdinaren azpian	1071
GARCÍA, Patxi Galé:	
– Euskal Corpus onomastikoa	49
GARTZIA, P.:	
– Pierre Lafitten gutundegia	215
– A. Irigaray / P. Lafitte (1947-1964)	217
GOIKOETXEA ARRIETA, Juan Luis:	
– Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna	747
GOIKOETXEA, Polentzi:	
– Agurra	677
GORROTXATEGI, Mikel:	
– Irizpenak	183

– Irizpenak	835
– Komunioi	837
– Okondogoiena	838
– Zurbao	839
– Biloda	840
– Gorrebusto	841
– Eltziego	842
– Gillarte	844
– Iñurrieta	845
– Urbina Basabe	846
HARITSCHELHAR, Jean:	
– Euskaltzaindian kargu-hartzea	11
– <i>Lekuona</i> Saria	377
– <i>BBK-Euskaltzaindia sariak</i> liburuaren aurkezpena	403
– Manuel Irujo Saria	1099
– Pierre Duny-Pétre	1127
HIRIGARAI, Pantxo:	
– 40 urteak	1075
IBARRETXE, Juan Jose:	
– Euskaltzainburu berria, Andres Maria Urrutia Badiola jaunaren kargu-hartzea	21
IRIGARAY, J.A.:	
– Pierre Lafitten gutundegia	215
– A. Irigaray / P. Lafitte (1947-1964)	217
ISPIZUA, Juan Jose:	
– Harizpeko neskaren afera	1069
IZTUETA, Paulo:	
– Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan	627
IÑIGO ARIZTEGI, Andres:	
– Euskal Corpus onomastikoa	49
– Gipuzkoako herri izendegiaren aurkezpena	175
– Sanmigelgaña	185
– Juan Goikoetxea Zabalo, euskaltzain urgazlea, jaio zeneko mende-urrenean	679
– Komunioi	837
– Okondogoiena	838
– Zurbao	839
– Biloda	840
– Gorrebusto	841
– Eltziego	842

	1137
– Gillarte	844
– Iñurrieta	845
– Urbina Basabe	846
– Jagon IX. Jardunaldiak	913
JIMENO ARANGUREN, Roldán:	
– José María Jimeno Juríoren Toponimiako eta euskararen historiako fitxategiaren dohaintza	1111
– Donación de las fichas de Toponimia y de historia del euskera de José María Jimeno Jurío	1112
KALTZAKORTA, Jabier:	
– VIII. Herri-Literatura Jardunaldiak	869
KINTANA, Xabier:	
– Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak	129
– Ekuadorko jatorrizko hizkuntzen akademia antolatzeke II. lan-min-tegiari buruzko txostena	207
– Euskaltzaindiaren Barne-Historiaz	213
– <i>Ettxepare</i> literatur sariak banatu dira Iruñean	394
– Euskaltzaindiaren Barne-Historiaz	935
KNÖRR, Henrike:	
– Joan Perez de Lazarraga, familiaren kronista	161
– Olentzaro, San Nikolas eta beste	382
– Euskara, euskalkiak, zentzua	392
– Jose Mari Larrarteren heriotzean	429
– Un pequeño texto en Lengua Vasca (Recordando a Hugo Schuchardt)	1087
LARRE, Emile:	
– <i>Manuel Lekuona</i> Saria	380
LEJARRAGA, Iñaki:	
– Ondoetorriak: Adolfo Arejitari omenaldia	517
LIZUNDIA, Jose Luis:	
– Gipuzkoako eskualde izenez ohar zenbait	179
– Jose Garmendia Arruebarrena (1925-2005)	437
– Orotariko Euskal Hiztegiaren historia	703
MARTÍNEZ, Gorka:	
– <i>BBK-Euskaltzaindia sariak</i> liburu aurkezpena	405
MUJICA, Jose Antonio:	
– Jose Mari Larrarte (1926-2004)	431
– Gramatika Batzordeak 25 urte	731

OROZ ARIZCUREN, Patxi:	
– Mikel Zarateren <i>erregenez</i>	387
OYHARÇABAL, Beñat:	
– Euskaltzaindia Frantziako legedian	31
SALABERRI, Patxi:	
– Jose Mari Satrustegi, euskal Onomastikaren eragilea	687
– Garaziko herri baten izenaz: <i>Ainhize</i> VS. <i>Ainhiza</i>	847
– Ohar batzuk <i>Deio</i> izenaren gainean	851
– Unas breves notas acerca del nombre <i>Deio</i>	857
SALABURU, Pello:	
– Euskal gramatika orotarikoa	39
– Euskara Batua eta euskara ereduak	533
SEGURA, José Ángel:	
– Joan Pérez de Lazarraga	169
TELLERIA, Pello:	
– XIV. Barne-Jardunaldien <i>kronika</i>	115
– Euskaltzaindiaren 2005eko batzar-egutegia	369
TORRONTEGI, Jose Antonio:	
– Ondoetorria Euskaltzaindia!	557
UNZUETA ZAMALLOA, A. M.:	
– Euskararen erabilera Bizkaiko Elizan: irizpide nagusiak	915
URRUTIA, Andres:	
– Euskaltzaindian kargu-hartzea	15
– XIV. Barne-Jardunaldiak	25
– Joan Perez Lazarragarren IV. mendeurrena	123
– Adolfo Arejita, Euskaltzaindian sartzea	463
– Zaharrak berri, euskararen bizigarri	507
– Laphitz-Arbelbide: Bi idazle euskaldunen haria	525
– <i>Nafarroa Oinez</i> , 2005	675
– Orotariko Euskal Hiztegia	701
– <i>EGLU-VI</i> : aurkezpena	729
– Jose Maria Jimeno Jurio ikertzaile eta ohorezko euskaltzaina zena- ren Toponimia eta euskararen historia ikerketarako fitxategiaren do- haintza	1107
– Donación de los ficheros de Toponimia y de la historia del eus- kera del que fue investigador y académico de honor de Euskal- tzaindia, José María Jimeno Jurío	1109
– Maixa Goikoetxeari zilarrezko domina ematea	1117
– Herri Aginteak-Euskaltzaindia	1025

VIDAL-ABARCA, Joan:	
– La familia Lazárraga en la Llanada Alavesa	125
VIÑUALES, Koldo:	
– V. Manuel de Irujo Sariaren emanaldia dela eta	1091
– Discurso protocolario con motivo de la entrega del Vº Premio <i>Manuel de Irujo</i>	1092
ZEARRETA, Juanjo:	
– Orotariko Euskal Hiztegiaren historia	703
ZELAIETA, Edu:	
– Baztan-Bidasoako hizkeren ekarpena (Dialektologiatik ikasgelara) .	765
ZENARRUTZABEITIA, Idoia:	
– Orotariko Euskal Hiztegiaren aurkezpenean: hiztegiak gaur . .	719
ZUBIMENDI, Jose Ramon:	
– VIII. Herri-Literatura Jardunaldiak	871
– Jogonet: 2005. urtean egindako lanen berri	931